

**ioANNES ETXEBERRi ZiBYRVKoa**

**MANVAL  
DEVOTiONEZCOA**

**( LEHEN ZATIa )**

**( EDiZio KRitikoA )**

*Patxi ALTUNAk paratua*

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA — EUSKALTZAINDIA  
Y  
EDICIONES MENSAJERO  
BILBAO, 1981



5567 (2)



MANUAL DEVOTIONEZCOA

(Lehen zatia)

EDIZIO KRITIKOA

Colección EUSKARAREN LEKUKOAK - 3



IOANNES ETXEBERRI ZIBURUKOA

MANUAL DEVOTIONEZCOA

(Lehen zatia)

(EDIZIO KRITIKOA)

Patxi ALTUNAk paratua

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA — EUSKALTZAINDIA  
Y  
EDICIONES MENSAJERO  
BILBAO, 1981

© REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA - EUSKALTZAINDIA  
© EDICIONES MENSAJERO - Avda. de las Universidades, 13 - Apart. 73  
BILBAO - ESPAÑA - 1981  
ISBN 84-271-1256-4  
Depósito legal: BU - 113. — 1981  
Printed in Spain



## IOANNES ETXEBERRI ZIBURUKOA

### I. BIZITZA ETA OBRA

1. Etxepareren bertsoekin erkatu nahiak eta haren bertsogintza-zen lege eta arauak Etxeberrigan ere nabari ziren ala ez begiemateko gogoak eragin zidala uste dut, duela hiruzpalau urte, honen bertsoak aztertzeraz. Ez nuen artean, ez eta geroago ere aldi luzean, libururik argitaratzeko asmorik. Joan den ikasturtean, ordea, Euskal Filolojiako ikasleei antzineko idazleez eskolak eman behar eta aurreko udan eskolak prestatzen ari nintzelarik, bertantxe konturatu nintzen, oharrez eta argibidez hornituriko esku libururik ez zuteino, ezin zezaketela ikasleek behar bezala lan egin; beste edozein Filolojia ikasten duten eskolarioek bezalaxe, behar zituztela noraezean gurek ere esku liburu egokiak, autorearen berririk, haren hizkeraren bereizgarrien oharrik eta pasarterik ilunen argitasunik eskainiko zietenak. Hala hartu nuen *Manual Devotionezcoa*-ren mila bertsoetako sorta egin eta lehen bait lehen argitara emateko erabakia. Lana bukatua nuelarik eta Aita Villasantek Euskaltzaindiaren *Euskararen Lekukoak* deritzan bilduman atera nahi zuelarik, bururatu zitzaidan ez zela zuzen *Manual*-aren hango eta hemengo mila bertso nahasitako sorta ateratzea; hartara ez nuela liburua-zen zati osorik emango, ia alfer lana egingo baizik, goiz edo berandu bestek beste lana egin beharko zuenez gero, Etxeberriren liburua zen bezala argitaratzeko; hobe nuela *Manual*-aren bigarren zatia oraingoz bazterrera utzi eta lehena osorik eman. Hala egin dut. Etxeberriz arduratu nintzenean eta harzaz gure artean mintzatu zirenek zer zioten eta zer zeritzaten irakurtzen hasi nintzenean, Aita Lafitteren hitzok ximikatu ninduten: «Eskualdunen bihotzetan ez luke sekulan hil behar». Nør ote da, bada, Ziburuko Etxeberri, nioen neurekiko, Lafittek hori esateko?

2. Oso gauza gutxi dakigu haren bizitzaz, antzineko euskal idazlerik gehienenez bezalaxe. Noiz jaio zen ez dakigu, baina haren lehen liburua argitara zen urtea (1627) kontuan harturik, hamaseigarren mendearen azken aldera, 1580an edo, sortu zela esan dezakegu. Paben ikasi zuen jesuiten ikastetxean, Oihenartek bezalaxe, eta honek baino urte batzuk lehenago, noski, Mauleko idazlea 1592an sortu bait zen. Goresmen eta laudorio handiak egiten ditu bere garaiko jesuitez: haiei zor omen die dakien guztia. Eta ez zen gutxi hark zekiena. Garai hartako lehen ikaskuntzak gutxi gorabehera nolakoak izaten ziren badakigu: *Humanitate* zirelakoak ikasi behar izaten zituzten, oinarrizko hazibide gisa, gero gainerako ixtudioetan (Filosofian, Teolojian, Zuzenbidezkoetan...) murgilduko baziren. Aski da Oihenarten *Notitia utriusque Vasconiae*-ri begiratu bat ematea, apaiz ez zirenek ere latina zenbatetaraino menderatzen zuten jabetzeko. Ez da batere harritzeko, beraz, apaizek — baita euskaldunek ere, edozeinek ez baina —, latinezko bertsoak Virgiliok edo Ovidiok bezain biribilak eta hutsgabeak egin izana, geroxeago ikusiko dugunez. Etxeberriek Teolojia ikasi zuen gero; ez, ordea, edozein apaizek orduan eta geroago ikasi behar izaten zuen neurrian bakarrik, baizik hartan Dotore izatera irixteraino. Unibertsitatean ikasia zen, beraz, Axular eta Oihenart bezalaxe, eta hauek ez bezala Dotoratua eskuratua gainera. Horrez gain badakigu bere garaikoek, baita jende ikasiek ere, oso gizon jakintsu, azkar eta argitzat zeukatela, bizi zen egunetan fama handiz inguratua eta beti gizon handizat hartua izan zela. Aurreraxeago dastatuko ditugu ingurukoek zioten estimuaren ondar apurrak.

3. Hiru liburu heldu dira guganaino hark idatzirik, baina ez dira horiek idatzi zituen guztiak, Oihenartek aitortuko digunez. Hona hiruren tituluak eta argitara ziren urteak: *Manual Devotionexcoa edo ezperen oren oro escuetan erabilltceco liburutchoa*, Bordelen 1627an argitara emana. Berrogeitabi urte geroago berriro argitara zen eta bigarren argitaraldi honezaz baliatu dira berriki HORDAGOkoak, bere bildumaren lehen ale gisa eman digutenean. Bigarrenaren titulua hau da: *Noelac eta berce canta espiritual berriac Iesus Christoren bicia- ren misterio principalen gañean eta sainduen ohoretan besta burueta- cotz*; Bordelen 1631ean inprimatua. Honen azken edizioa duela hamar urte atera zuen Aita Akesolok. Hirugarrena, *Eliçara erabilltceco li- burua*, hau ere Bordelen 1636an argitaratua eta Axularrek bere GERO eskaini zion Bertrand de Etchhaus Arzapezpiku berari eskainia. Hiru- rotarik lehena dakarkiot nik gaur euskal irakurleari eta argitalpen berri

hau prestatzeko HORDAGOren edizioaz baliatu naiz, hau bigarren argitaraldikoa den arren, esan bezala, xerokopiaz emana. Lehen argitaraldiko alerik ez dut ezagutzen, izan ere, eta ez dakit inon denik ere. Dena den, ez dut uste alde handirik izango dutenik; gehienez ere HORDAGOrenak, hots bigarren argitaraldikoak, dituen huts eta bertso hankamotz batzu osatzen lagunduko liguke, apika. Behar bada baita 3438garren bertsoaren inguruan 1669ko argitaraldi honek bertso batzu falta dituen, nik uste dudana bezala, ala ez argitzen ere. Bizi al zen Etxeberri 1669an? Nik ezetz uste. Oihenarten *L'Art Poétique Basque* 1665ekoa da eta, laster ikusiko dugunez, Mauleko poeta lan horretan Etxeberriz hildakoaz bezala mintzo da.

4. Oihenartek personalki ezagutu zuen Etxeberri eta harekin inoiz mintzatu ere bai, dioskunez. Mauleko poeta dugu, bestalde, euskal literaturan izan dugun lehen kritikalaria, bera baino lehenagoko euskal poetez, haien bertsogintzaz batikbat, bere usteak eta iritziak eman dizkiguna. Zer zeritzan Etxeberriri eta zer diosku haren idazlanez? Etxepareren bertsogintzari egotzi zizkion hutsegite berak topatzen dizkio Etxeberrirenari ere: inoiz inon egin ez diren hamabost silabatako bertsoak paratu dituela; euskal hitzek azken silabetan omen duten kantitatea bortxatzen duela hitz emeak hartzat eta harrak emetzat harturik; maiz egiten duela pota, hitz beraz zentzu beraz baliaturik bertsoaren akaberan; bertsoaren hamabost silaba osatzeko, mugatzailea inoiz izenari eta adjetivoari, biei erasten diela; elisio-sinalefak gogoak ematen dionean bakarrik egiten dituela eta, esanak gutxi bailira, «il se donne en plusieurs lieux d'autres licences exorbitantes». Ez dut hemen lekurik sei puntu hauek banaka aztertzeko; diodan laburkiro lehena ez dela egia eta bigarrena ere ez erabat, gehienez ere xubere-raz, Oihenarten sorterriko hizkeraz, bereiz bait daitezke hitz eme eta harrak eta, horrezaz gain, Zuberoko bertsolariek berek ez bait dute bereizkuntza hori kontutan hartzen bertsoak paratzean. Lau azken puntuak, aldiz, egiak dira, liburuan barrena erakusten dudanez. Azkenean honela mintzo zaigu Oihenart: «Il Est dommage que Cet Esprit aye mieux aimé s'appliquer à la poésie (pour laquelle Il nauoit point de naturel) qu'à la prose, En laquelle Il auroit reussy Indubitablement; car (oultre ses ouvrages Imprimés) ses Lettres familiaires, Escrites à aucuns de ses amys, son dictionnaire, Et ses conjugaisons (que Iay Ueus Escrits de sa main) rendent temoignage de sa suffisence en Cette langue». Hona nondik dakigun Etxeberrik, esan bezala, heldu zaizkigun hiru liburuez gain besterik ere egin zuela. Beste bat ere aipa-

tzen digu Oihenartek geroxeago: «La façon de ses Noels, de son Egunoroscoa, Et de son Eliçara Erabiltzecoa nest pas meilleure». *Egunoroscoa* delako hori ere ez ezaguna dugu. Ala gure *Manual Devotionezcoa* bera ote da, honen titulu osotik Etxeberrik *oren oro* dioena aldatu eta *Egun oro-scoa* izendaturik? Izan daiteke, noski. Eta orduko hila zela, horko «il n'avait» eta «il aurait reussi» horiek baino garbiago adierazten digute ondoko beste hitz hauek: «Je lui ay ouy dire au temps qu'il composoit ses Vers qu'il trauaillait principalement pour les mariniers Lesquels les Chantoint sur la mer: Ce qui faict Iuger qu'il Escriuoit plus tost par Un motif de Charitté que par aucune ambition ou Vainegloire». Gero itzuli beharko dugu berriro Oihenarten hitz hauetara.

5. *Manual Devotionezcoa* euskaraz inoiz idatzi den libururik lodien eta handienetakoa da, dudarik gabe; arnasaldi eta hegalde handikoa. Handia neurritz, handia balioz eta edukiz. Bi zati nagusi ditu, aski desberdin elkarren artean; ez neurritz, baina bai balioz, ene us-tez, lehenak bigarrenari alde handia daramaiolarik poesiaz eta goi argiz. Lehenak hiru mila zortzirehun eta hamalau bertsoan barrera Kristau Dotrinaren muina ematen digu aditzera, kristauak *jakin* behar duena, alegia, Etxeberriren beraren hitzez esateko. Bigarrenak ia lau mila bertsoan kristauak *otoiztu* behar dituenak. Danera ia zortzi mila bertso ditu, beraz, Etxeberriren Manualak. Azkenean hitz lauz ematen ditu beste zenbait otoitz eta erregu. Nik lehen zatia bakarrik (3814 bertso) jaso dut gaur argitara demadan liburu honetan eta, halaz ere, aski lodia atera da, agian, Etxeberrik erabili zuen grafiazko testuaz gain, bertso guztiak halaber gaurko grafia aldaturik bait datoz eskuineko orrialdeetan. Lehen zati hau bere aldetik beste bi txikiagotan banatu du poetak: lehenaren lehenak kristauak sinetsi behar dituen egiak, *Kathechisma*, du gaia; lehenaren bigarrenak, gizonaren azken finak (herioa, iuiamendua eta abar) kantatzen ditu. Horrenbestez irudi dakioko inori Etxeberriren liburua ezin aspergarriagoa datekeela, baina hala pentsaturik huts itzala egingo luke. Ez da inola ere tratadu antzu, lehorra; ez da ere egien eta sinesgaien azalpen elkor, aspergarria. Poesia dario zenbait aldetarik, batez ere lehen zatiaren bigarren parteari. Pasarterik ederrenak hautatu behar banitu, 980-1152 bertsoak, herioaz ari denetakoak; 1153-1532, hiltorian dagoen kristauren aldamenen aingeru onak eta gaiztoak, arima bereganatu nahirik, elkarrekin dituzten eztabaida eta hitz borrokak; 2130-2202, iuiatu ondoan salbatuek eta damnatuek esango omen dituzten hitzak; eta azke-

nik, zeruko atseginez eta zorionez ari delarik ematen dituen 3615-3814 bertsoak bereiziko nituzke. Ez dut uste, egia esan, euskal literaturan horren bizi eta kartsuki, horren egoki eta zailuki, horrelako aisetasun eta dotoretasunez, euskara aberatsez, ugariz, etorri lasaiez eta oparoz orrialde askorik eiho denik. Hizkeraren ugaritasuna dastatu nahi duenak irakur bitza 2733-2786 bertsoak eta poesia hurrupatu nahi duenak, al-diz, honako sei bertsook dasta bitza; herioaz ari da:

*Hi aguertu artean tuc gure hitzac handiac  
Baiñan aguertu eta hic ichilltzen tuc mihiac.  
Arranoa dathorreño choriac dic cantatcen,  
Nauaritu duenean, ordean, duc ichilltzen.  
Hitzaz eta gutzaz berdin duc, herio cruela,  
Gure ahoa hersten duc, hi aguertu beçala (1085-90).*

6. Aurreraegi joan naiz ustekabeen eta liburuaz mintzatu, atarikoak aipatu gabe utzirik. Atarian badu, izan ere, liburuak zenbait gauza jakingarri. Argitara al zitekeen ala gauza okerrik eta gaitzestekorik bere baitan zuen erabakitzeko eta iritzia emateko, Apezpiku jaunaren izenean Axular ageri da bat, Gillentena Itxasuko Erreorearen ondoan, eta baietz diote biek aho batez, «gendea progotcha daitequela eta hartaracotz imprimaturic arguitara illkhi daitequela». Gero Elizbarrutiko Bikario Jeneral Oiharard jaunaren baimena dator latinez. Gillentena ondoren berriz ere, baina orain bertsoz, euskarazko bertsoz, Etxeberriri zorionak emanaz. Horiei eskerrak dakigu Etxeberrik anaia medikua izan zuela eta orduko hila zela; lurrian ezin irakurri izan zituen bertsoak zeruan irakurriko omen ditu. Ohar gaitezen bidenabar Etxeberriren bertsoetan hatzemango dugun zenbait bereizgarri hemen ere ageri dela: hala nola *çure artea* den sintagma printzaturik eta *baño guehiago* den hitz andana bi bertsoetan barreiatuak. Beste bi lagunen bertsoak, hauek latinez paratuak, datoz ondoren. Distikoak dira, hexametrea eta pentametrea txandaka, alegia; Ovidiorenak bezalakoxeak eta, gorago esan bezala, batere hutsik eta errurik gabeak formaren aldetik. Zortzi bertso ditu lehenak eta hamar bigarrenak. Lehenak Heguyrenak dira, bigarrenak Hirigoytirenak, eta irakurleak latinez baino euskaraz aiseago adituko dituelakoan, euskarara hamabost silabatako, Etxeberrirenak bezalako, bertsoetan itzulirik eskaintzen dizkiot, bai bait dute hauek ere argibiderik Etxeberriri buruz. Hona lehenik Heguyrenak:

Zeure bihotz onak eta Jainkozko maitasunak  
eragin dizu euskaraz Kristau Fede bilduma.  
Kantauriko hatsez lehen zeruko izkutuak  
eman tuzu, zanpatuz ur bestek ez urratuak.  
Hazi zintuen lurlean erein duzu halaber  
zerutik ekarritako hazi jori eta eder.  
Zergatik ez zara, bada, inor bekaiztu arren,  
lehen seme izendatzen gure Euskalerrriaren?

Artean inork euskaraz burutu ez omen zuen lana, Kristau Dotrina, egin duela lehen sei bertsoan aitortu ondoren, bi azkenetan bere herriaren lehen seme, «lehen ospe», aldarrika dadin eskatzen du Heguy jaunak Etxeberrirentzat, eta hori «rumpente iecur liuore», hots, bekaizkoak inori gibela leherreraiziko badio ere. Zer esan nahi dute azken hitzok? Geroxeago izango dugu sendogarririk: ezin ikusia, bekaizkoa, kontrajarra, norbaitek edo norbaitzuek Etxeberri hain poeta ontzat ez hartua, dudarik gabe. Nork edo nortzuek?

7. Stephanus Hirigoytirenak are ederragoak dira eta mamiz joriagoak. Hona zez dioten gutxi gorabehera:

Ereinotzak du berriki zure burua ingura,  
baina zedroa iaugirik itzuri zaizu hura.  
Eder da, bai, ereinotza; areago zedroa,  
zerua ere lurra baino denez ederragoa.  
Zor handian daude zuri gure itsastariak  
egin dizkiezularik esku antzez ontziak.  
Haiek Neptunoren herrak, lurrak, ez itsasoak  
bere ahal guztiez, ez gizonen bekaizkoak  
ez ditu, ez, suntsituen. Ontzi haiek betiko  
Etxeberriren izenaz batean dira biziko.

Ereinotza ala zedroa, zein da ederrago? Poeta izatea ala itsas ontzi berriak, zedroz edo beste zuhaitz zurez egin ohi zirenak, asmatu eta moldatu izana, zer da goragarriago? Horra Hirigoytik bertso zehatz eta doietan iruten duen gaia. Biak da Etxeberri: poeta eta ontzi berri asmatzailea. Horrelakorik ez genekien beste inondik, Etxeberri teologoak euskal bertsoek eta teolojiak libre uzten zizkioten txolarteetan itsas gizonentzat ontzi berririk eta hoberik asmatua zuenik, alegia. Baina gu harritzen gaituen puntua zera da: liburu honen, guk dakigularik Etxeberririk ondu zuen lehenaren, atarian Hirigoytik aitortzea berriki, arestian («nuper») koroatua izan zela Etxeberri poetaren ereino-

tez, poetaren bonetaz Oihenartek liokeenez. Hau baino lehen ondu ote zuen Etxeberrik beste bertso libururik? Nolanahi ere, euskal marinelei egin dien mesedeak poeta fama itzalerazi du Hirigoytiren ustez eta hark asmatu itsasontziek bizirik iraungo dute beti Etxeberriren izenari loturik. Ohar gaitzen hemen ere berriro Neptunoren herraz eta lur itsasoan ahal beldurgarriez gainera — guzti hori irudi hizkera izan bait daiteke, itsasontzien sendotasuna adierazteko — «hominum liuor mordax» aipatzen zaigula: gizonen bekaizko galgarria, zizkagarria. Hau ez da inola ere halabeharra, hau ez da txuladaz gertatua. Bi adiskidek, bi apaizek bere lagun apaizari liburu berria argitaratzera doala eta zorionak emateko bertsoan biek bekaizkoa aipatzeak, dudarik gabe, gauza bat esan nahi du: badela Etxeberriren bertsoak tolestatzeko era oso eta oro erdeinatzen eta gaitzesten duenik, Etxeberriri poeta izenik opa ez dionik. Eta ez edozein, noski, baizik hori esateko nor denik, idazle edo poeta bezala bere aldetik zerbait denik edo zerbait dakienik.

8. Nabarmenago oraindik: Etxeberrik berak Claudius de Rueil Baionako Apezpikuari liburu eskainiaz paratzen dizkion bertsoetan (49-82) *inuidiosen mihiac* eta *gaisqui errailleac* aipatzen ditu. Hona haren bertsoak:

Hartaracotz obra hunen patroin çaitut hautetsi  
 Gaisqui errailleac ceren baititutuçu gaitcetsi.  
 Çuri escaintcen darotçut othoi guarda eçaçun  
 Inuidiosen mihiac liçun eztieçaçun.

Eta hori gutxi balitz, *Manual*-aren bigarren zatian ere *Itsassoc* *biayetaco othoitcen araldea* Miguel Oiharart Bikario Jeneralari eskaintzen dion bertsoetan, *invidia* eta *hitzquin mihia* datozkio berriro lumara:

Prestutassun eçagunac hauts deçan invidia  
 Eta ahoco hitz batec ichill hitzquin mihia.

Nor zaio horren etsai, horren gaitzi gure poetari? Lapurdiko garai hartako idazleak, Sarako eskolakoak, ez, noski; hor ageri dira liburuaren atarian, batzuk liburu argitara daitekeela esanez, besteak bertsoz zorionak emanez. Nor, hortaz? Ez dugu, nik dakidala, hori jakiteko bide segururik, baina, ausardia bada ere, Oihenart izan daitekeela iruditzen zait, edo Oihenart ere bai bederen. Gatozen berriro gorago aipatu ditugun Oihenarten hitzak eta Etxeberririkiko iritziak ausnartzera eta ikusiko dugu, nik uste, egiantzeko samarra dela uste hau.

9. Oihenartek, jakina denez, trakets eta arlote deritza bera baino lehenagoko euskal poeten bertsogintzari; poeta baino gehiago omen dira «vulgares versificatores»; ez omen dituzte betetzen edozein hizkuntza landutako poetek betetzen dituzten legeak. Ez ditut hemen berresango Etxeberriri eta gainerako poeta guztiei, Etxepare ere artean delarik, egozten dizkien hutsegiteak; hor goian daude sei puntutan bilduak; ez eta euskal metrikak, behar bezalakoa izango bada, Oihenarten ustez nahitaez bete behar dituen kondizioak; azken batean bi baizik ez dira: puntu aberatsa eta elisio-sinalefak beti egin beharra. Bai jasoko hemen, ordea, «Et il se donne en plusieurs lieux d'autres licences exorbitantes» delako hura eta gero, Etxeberri nolazpait goratu nahiz bezala, beste horiei erasten dizkienak: «Il est dommage...»: hobe zukeela, alegia, bertsoak ondu beharrean, hitz lauz idatzi balu; bertsotarako ez omen zuela berezko etorririk («point de naturel»), bai, aldiz, hitz lauz idazteko.

Hori dela eta, hona gogoeta batzuk: 1. Berezko etorria izugarria du, ene ustez. Hori gabe ezin daiteke inola zortzi mila bertsotako libururik idatz eta horrez gain beste bi, bertso sail izugarriak dituztenak. Gauza bat gertatzen zaio: ez duela uste aho hizkeraren sintagmak eta hitz andanak bertsotan ari denak ezin urra ditzakeenik; are gutxiago, noski, Oihenarten bi legeak ezinbestean bete behar direnik, batez ere inor herri bertsogintzan ari denean. 2. Etxeberriren hitz lauz idatzitakorik oso gutxi irakurri dut, Oihenartek baino gutxiago, noski, nik ez bait ditut haren «Lettres familiaires» direlakoak eskupidean, eta horrenbestez ez naiz Oihenart bezain egoki Etxeberriren hitz lauz idazteko trebetasuna baieztatzeko nahiz ukatzeko. Baina *Manual*-ak azken orrialdeetan dakartzan hitz lauzko *Othoitz dobleac*, *Kirieleisonac* edo *Litaniac* bai, eta horiek irakurri ondoren ozenki esan dezaket Etxeberri poeta Etxeberri prosalaria baino mila bider idazle trebeagoa dela alde guztietarik. 3. Halaz ere, *Othoitz dobleac*, *Kirieleisonac* edo *Litaniac* inoren idazkeraren gaitasun eta trebetasuna nabarmentzeko oso gai aukerakoak ez direnez gero, onartzen dut, oso pozik onartzen, Etxeberri hitz lauz ere «aurait reussi indubitablement». Baina nik ulertzen ez dudana hauxe da: hori porogatzeko nola esan daitekeen *Hiztegiak* eta *Konjugazioak* «rendent temoignage de sa suffisance en cette langue», ez bait dut uste inork eginiko hiztegian eta aditzaren konjugabideen agerpenean prosaz idazteko trebetasunik ager eta nabarmen daitekeenik; gehienez ere, Kirieleisonetan bezalatsu, nik uste. 4. Bego gainera bertsoak ez direla Oihenarten gogokoak, hartzeko nahiz arbuia-



tzeko eskubide osoa du; baina, hori dela eta, *Manual*-ean Etxeberrik «suffisance en cette langue» erakusten duela dudan jarri, hori gehiegizkoa da eta ezin onartuzkoa. Gauza bat da, izan ere, eskola bateko nahiz besteko poeta izatea eta horren arabera bertsoak tolestatzean erregela hauek edo haiek betetzea, eta bestea, guztiz bestea, hizkeraren jabetasuna izatea edo ez izatea. Euskararen jaun eta jabe ageri zaigu bete betean Etxeberrik bertso erreskada luze hauetan barrena.

Arrantzaleentzat paratzen omen zituen batikbat bertsoak: Etxeberririk berak esan omen zion. Hau ere Etxeberriren balioa gutxitzeko esana da, dudarik gabe, arrantzaleentzat *Manual*-aren bigarren zatian dagoen *Itsassoco biayetaco othoitcen araldea* izango bait da gehienez ere beregainki egina, baina gainerako bertso guztiak, Kristau Dotrinari eta gizonen azken finei dagozkienak eta beste bi liburuetakook, ez dut uste arrantzaleentzat bereziki eginak direnik, euskaldun guztientzat baizik. Hona zer dioen berak:

Guiristinoa, eman diat escarazco versutan  
Catholico Manuala neure asti ordutan,  
Ikhussiric nola bainaiz iaiatcez escalduna (1)  
Gure natioa dela copla maite duena.

10. Oraino aipatu ditugun Oihenarten hitz guztiok haren *L'Art Poétique Basque*-tik, Lafitte jaunak 1967an argitara eman zuenetik, hartuak dira. Oihenarten esku izkribuak 1665ko fetxa darama; ez dakigu, ordea, damurik esku izkribu hori bertan ageri den fetxan lehen aldiz eginiko txostena den ala zenbait urte lehenago idatzitako liburuaren baten berradurre gisako zirriborroa den, gero atalburuan fetxa berria ezarri eta beste gabe inprentarako moldatua edo persona bati bidaltzeko prestatua. Ikus, nahi baduzu, auzi honen gorabeherak Lafitteren liburuxkan eta nere *Versificación de Dechepare* liburuan, or. 80. Persona bati bidaltzeko prestatua esan dut; txostena eskutitz gisa oratua dago, izan ere, eta — puntu harrigarria! — Lapurdiko apaiz bati zuzendua. Gainaldean daraman titulu osoak honela dio: *L'art Poétique basque, Indiquée dans Une lettre Escrite a Un cure du pays de Labourt au moys de mai 1665*. Delako apaiz horrek galdatu omen zion — hala dio eskutitzaren hasierako lehen lerroetan — ea nola demontre ontzen eta neurtzen zituen euskal bertsoak. Gogora gaitezen orduko, lehen esan bezala, Etxeberrik hila zela, txosten honen azkenaldean, bera baino lehenagoko poeten berri ematean, lehenaldi urruneko adizkiz baliatzen bait da Etxeberriz mintzatzean.

---

(1) *iaiatcen* dio faksimilek, baina *iaiatcez* behar du Mitxelenaren ustez.

11. Horiek horrela direla, hona nere susmoa eta hipotesia: Etxeberri hil berria da eta haren heriotzak ilaunetatik piztu du berriro antzineko eztabaida. Etxeberriren aldeko zen apaiz baten galderari erantzunez edota inork galdatu gabe, hori aitzakia eta literatur jazkera soila izan bait daiteke, Oihenartek Lapurdiko apaizei, Etxeberri poeta handitzat daukatenei, erakutsi nahi die nola apaindu behar diren euskaraz bertsoak; zergatik ziren Etxeberri eta gainerako guztienak arlote eta aldrebesak, gehienez ere etxeko jendeari erakusteko onak, ez, ordea, beste hizkuntzetan ontzen zirenekin erkatzeoak, haiek betetzen zituzten lege eta kondizioak euskarazkoetan ere onartzen ez ziren bitartean; zergatik ez zuen, azkenik, poeta jatortzat, izen horren dinakotzat, hartzen eta esten Etxeberri. Ohar gaitezen, bere liburuxkaren azken xoko horretan Oihenartek jorratzen dituen lau poetatarik luzaroen eta gehien Etxeberriz mintzo dela, honen hutsak aipatzen dituela besterenak ez bezala xeharo eta banaka, exenpluak liburutik harturik, ia denak *Manual*-etik hain zuzen, eta egiten duen aipu bakarra dela Apaiz zintzoa zela, arimen onerako ontzen zituela erlijiozko bertsoak eta ez, Etxeparek bezala — hau ez dio hitzez hitz, baina garbi dago hori esatean Etxepare duela gogoan —, arimen hondamendirako izan zitezkeen bertso lizun eta likitsak. Arrazoi guztiogatik uste dut Oihenart dela, edo izan daitekeela bederen, Etxeberriri bekaizkoa diona; esteak eta gibela lehertuko zaizkiona, Heguyk nahi bezala, Etxeberri Euskalerrriaren lehen seme izendatzen eta aldarrikatzen bada.

## II. ETXEBERRIREN MINTZAIRA

Lapurdikoa zen eta lapurteraz idatzi zuen, Axularrek bezalaxe, baina badute zenbait alde eta bereizgarri. Zaila da, ezina hobeki esan, sarrera baizik izan nahi ez duen hitzaurre honen muga hertsietan gure poetaren hizkeraren bereizitasun guztiak biltzen. Ez da ere beharrezko, liburuan barrena bait daude xehe xehe emanak orripeko oharretan. Punturik nabarmenenak bilduko ditut hemen sorta gisa, ordea, horien berri jakin nahi duen ikasleak liburuaren orrialdeak bana bana arakatzen ibili beharrik izan ez dezan. Bi sail egingo dut: morfosintaxia eta bertsogintza.

### a) *Morfosintaxia*

1) Izena maiz ageri da mugatzaile gabe, bertso akaberan eta barenean: *deuecatu abamen* (1006); *dagoque guerla eta içurri* (1959);

*berce iduri harturen du* (2318); *hari duc gaitz iruten* (3145); ikus ere 2621-2; 2642; 3362.

2) *Berce* nahiz *berceric* da hitz horren kasu pasivoa, mugagabe denean: *Bere ordain ecin bidal berce* (2211); baina *berceric bekbaturan ez sarraracitceco* (ikus 208. bertsoaren ondoko titulutxo).

3) *Aiphatuez berceric* (641), *batez berceac* (2528) guztiz klasi-koak dira; Etxeberri, ordea, inoiz hizkuntza erromanikoen arabera erabiltzen du: *berceric baicen... chabaturic* (3169) («otro que el purificado»), *chabutuaz berceric* esan beharrean.

4) *Urean* (2335), *urera* (416), *sura* (1577; 2583), *sutic* (2961) dio, mugagabe izan arren; *urtheco* (2117) ere bai. Baina berebat *sutara* (2502) eta *surtara* (3248).

5) *Gauic* (2963) dio, ez *gaurik*, konsonantez amaitua bailitza; era berean *garabec* (1094), *garabex* (334), *garauic* (3190), hirurok *garauhitzenak*.

6) Pluraleko ergatiboaren atzizkia *-ek* da, noski; bertsoaren puntuak bortxaturik, halere, *-ak* dio inoiz edo behin: *guztiak* (1568); *iaquiñac* (1815); *sentituac* (2129); *sarthuac* (2492); guztiotan *-ek* behar luke berez. Ohar, ez duela inoiz atzekoz aurrera, puntua dela bide, *-ak* behar lukeena *-ek* esaten.

7) *-kin* nahiz *-kien*, bertsoari silaba bat gehiago zor zaionean bigarrenaz baliatzen bait da, ez dira komitativo deritzan kasoaren atzizkiak soilik, baita *-ren* ordezeko genitiboarenak ere: hala *bequin* (23); *hauquin* (48); *arimequin* (2462); *auaritiosequin* (2465); *auariciosoequin* (2896), guztiok genitiboak dira. Horrenbestez *hequintçat* (622) gure *haientzat* da.

8) *-ganic* ez da izenari nahitaez lotua behar duen atzizkia; bereiz ager daiteke, artean *ere* sartzen zaiela, esate baterako: *Burassoen ere ganic* (1658); baita zesura bera ere; *denaren // ganic* (2982); *Apbeçaren // ganic* (379).

9) *-ko* atzizkia duen izena izan daiteke, *-rako* gabe, destinatiboa ere: *fiñeco* (597); *trauailuco* (735); *ceruco* (3603); edo *cerucotz* (1327); *gubernuco* (898).

10) Atzekoz aurrera, guk *-ko* soila esaten dugun izenkietan (*egiteko, joateko...*) Etxeberri *-rako* esaten du inoiz: hala *billceraco pon-*

*tua* (377); *hiltceraco pontuan* (449), baina horien ondoan *hilltceco orenean* (443) ere bai.

11) *Ene/ neure, híre/ heure, gure/ geure, zure/ zeure* beti bereizten ditu, behinere huts egin gabe; bigarrenaz reflexivo direnean baliaturik. Puntu honetan Etxepare eta Oihenart baino zorrotzagoa da, biok singularrekoetan bakarrik bereizi bait zituzten, eta ez beti.

12) Guk gaur bereizten ditugun *lapur bera* eta *lapurra bera* (*idem* eta *ipse*) Etxeberriek ez ditu egiten: *punitu berac* (3300) eta *Archan-gelu berec* (3684) dio, guk gaur *-ak berak* eta *-ek berek* esango genukeen arren. Ikus Etxepare: II,113.

13) *Hauek/ hauk* eta gainerakoak ere ez; aktivo nahiz pasivo izan daiteke bata nahiz bestea: ikus *hauc*, aktivo den arren: 462; 485; 491.

14) *Haren* eta *bere* bai, noski, guztiz zehazkiro, gainera: ikus *Mundanoec nabi die eguin daiten hequiñac* (655), hots, *haienak*, ez *bereak*; *Fiñac declaratu ohi du niboren bicia / Bai eta Antechristenac haren gaichtaqueria* (1964), hots, Antekristen *finak* deklaratu Antekristen, ez *finaren*, gaixtakeria; *Bañan aitac nola baitu gaztigatcen umea / Ceñec behar baitu haren ontassunen iabea* (3238); hots umeak aitarenena.

15) Ez dio inoiz ere *beren*, beti *bere* baizik, nahiz «edukilea» bat baino gehiago izan.

16) *Heronec* (219) eta *heronez* (182) dio, baina *herori* (3469) ere bai; berebat *ceronec* (906).

17) Gaztelaniaz moduzko diren eta «con» preposizioaren bidez eman ohi diren zenbait esapide («con un palmo de narices») izena nominatiboan dutelarik eta adizkirik gabe darabiltza ederki asko: *tristeric bekhoquiac* (1570); *çangoetan gatheac* (2868); *burdinetan çangoa* (3086); ikus, aldiz, 2518.

18) Zenbait adjetivori berez dagokio honako edo halako kasuan eramatea beraien mendeko izena: *nequeei egoquiac* (2280); *gorputçari garaiac* (2640); *bercetaric garratçac* (2974).

19) Beste zenbaitek, *-garri* eta *-tzale* atzizkia dutenek batikbat, aditz erroa duten bere erroek, adizki bezala agertzekotan, eramango luketen objektua daramate, genitivoaren ordeztu: *bicia luçagarri* (2367);

*bekhatuac hunen latzqui punitçaillea* (2696); ikus, aldiz, *penen asmatçaillea* (2695); *iraganen ahantzgarri* (1646).

20) Konposatuak eta erakarriak baditu oso bakanak: *aita gaztigu hura* (3246); *urre izpi iguzquiac* (3729); *bibotz urragarria* (2289); *aitazcoa* (3486). Leizarragak *Christezco promessac* dio; ikus *Apostolu Sainduen Acteac*, II. kapituluaren hasierako laburpentxoan.

21) Guk ez baina iparraldeko euskaldunek maiz dioten *zuk erosi liburua*, gure *erositako*-ren ordeztan, bitara tolestatzen ditu era horretakoak: *çuc ifini usantçac* (497) eta *hec gauça uquituac* (617); *harc legue ifiniac* (1972): partizipioa izenaren aurrean nahiz atzean, beraz.

22) Izen adjetiboz osatu sintagmak, *etxe berria*-ren antzekoak, bi hitzak trukaturik ematen ditu txitian pitian: *falta venialac* (404) eta *venial faltac* (301); *manu iustuac* (676) eta *iustu manamenduac* (215); *mundu enganosoan* (3149) eta *enganoso munduan* (3775); *falta originalaren* (3528) eta *original faltaren* (3477); *berce egunac* (735) eta *untci bercetan* (693).

23) *Bai(e)ta ere, ez(e)ta ere* ez dira ia inoiz ageri, baizik *ere* gabe; *bai* eta *ez* soilik *ere* bai, noski, «también» eta «ni» esateko; *ez*, gainera, perpaus osoak elkarri lotzeko bakarrik, maizago ohi denez, baizik bi izen elkarrekin uztartzeko *ere* bai: hala *çure bai sainduen* (512) gure *eta sainduen* da; *barkha miragarriei... bai ttipiei* (1081-2) *eta ttipiei* bezalatsu da.

24) *Eta*-k bi izen elkartzen dituenetan, ia beti bigarrenak bakarrik hartzen ditu mugatzailea eta kasu atzizkia: *gorputz eta arimaren* (532); *on eta sainduac* (812); *gorputz eta arimac* (990); *puchant eta probeac* (1064); *erregue eta arloteec* (1065); *sugue eta chicharien* (1128); *handi eta ttipiei* (1728); *handi eta tristeac* (1990); *arima eta gorputzaren* (2132). Ikus, halere, *hirur urthez eta erdiz* (1965) beste honen ondoan: *hirur urthe eta aphur batez* (1891); elisioa behar zuelarik, ezin *urthez eta* esan.

25) Izen eta adjetiboz osaturiko sintagmari *hain* gehitzen zaionean, hori ia beti aurrean doa: *hain gaitz perillosetic* (775); *hain erre-fau iustuac* (811); *hain deus probetchosoaz* (985); *hain deus icigarria* (1010); *hain dolore biciaç* (3137); *hain arantce ttipiac* (3138). Beste honetan, *hain balios hacia* (802) izen adjetiboak trukatu ditu, baina *hain* aurrean gorderik. Ikus, halere, *legue hain sainduen* (810).

26) Gure *oso*-ren ordezeko den *choill* (*xoil*), aldiz, gehiagotan(?) ageri da izen adjetiboen artean: *gauça choill bidea* (1562); *gauça choill itsussia* (2790); *gauça choill higuñez* (2906); maiz, halere, izena sujeta da eta *choill* gehi adjetiboa predikado: *bihotça du choill kebecha* (2625); *elementac dire içanen choill arguiac* (2343). Ikus, ordea, *choill desira handia du* (3013) eta beste biok *choill* aurrean dutelarik, nahiz izen adjetiboak trukaturik egon: *choill probetchoz moiana* (447); *choill eder exemplua* (569).

27) *Ecen* dio inoiz guk *baino* erabili ohi dugun konparaziozko perpausetan: *ecen fidel* (2546); *ecen batean* (2786). Bestetan adjetiboari *-ago* erantsi beharrean, adjetiboa soilik eta *-ago* ordezkuegiago dio, hizkuntza erromanikoen arabera: *Are guebiago behar extu eme enera / Ecen...?* (1319), *emeago* esan gabe (ohar, hor ere *ecen* dioela); *guebiago... propio* (2760), *propioago* esan beharrean. Bestetan, azkenik, adjetiboak ez ezen *baino*-k ere atzizkia hartzen du: *damnatuac... çuen bañoagoa* (2984); *Salomonec çuen bañoagoa* (3708).

28) Konparazioaren bigarren konparaburua izena denean, *baino* gabe izena kasu instrumentalean ipintzen du: *extarriaz beherago* (2827); *merciez guebiago* (2314); *hartu dituenenez... handiogoac* (2513).

29) *Baicen* eta gure *bezala*-ren kide den *nola* nahiz konparaburuaren aurrean nahiz atzean koka daitezke: *baicen enganaria* (1718); *baicen gatbe soñuric* (2813); *nola kharlolabarrac* (126).

30) Lehenxeago aipatuaz gain, bada beste *ecen* bat, konjuntzioa edo; hau ez da inola menderatzailea, elkartzatzailea edo koordinatzailea baizik, eta horrenbestez adizkia hitanoan eraman dezake: *ecen dic behatcen* (94); *ecen extuc bekhaturic* (453); *ecen ni nauc eguia* (573); *ecen dituc eguiac* (723).

31) *Bada* eta *beraz* ez dira inoiz perpausaren hastean ageri, beti barrenean baino; hobeki esan, ehunkatatik behin bakarrik dago *beraz* — *bada* inoiz ere ez! — bertsoaren hasieran: 1545.

32) *Zein* berez galde hitza den arren, erlatibo gisa darabil usu eta edozein kasutan gainera; inoiz *nor* ere bai (2704: *çuec... / Norc uquitu bainauçue...*); anabasa handia ageri da, halere, *zein* horren kasu atzizkietan; *ceñac*, esate baterako, singularra nahiz plurala, nominatiboa nahiz ergatiboa izan daiteke. Hori bai, adizkiak *bait-* hartzen du ia beti; behin ez, haatik, *-en* baizik: ikus 288; beste behin ez bata

ez bestea: 3001. Lehena (288) konsektiva delako; bigarrena (3001), ene ustez, erlatiboa baino gehiago erakuslea(?) delako: «a éstos».

33) Modu beretsuan *cein handirican* (2764) ez da galdera, bai- zik mendeko perpausa: «como igual de grande» edo halako zerbait gaztelaniaz; berebat *nolacoric* (2816) edo *nolacoricana* (3758) eta *no- raraiño* (848): «cual» eta «hasta donde». Latinezko erlatibo-adverbio *quantum, qualem, quo* dakartzate gogora.

34) *Non* ere oso nabarra da gure poetarengan; jatorriz galde hi- tza delarik ere, gero erlatibo gisa inesibo kasuan erabilia, hots, *lekua* adierazten duten izenen ondoan, eta azkenik konjuntzio — balio asko- tako konjuntzio, gero! — bilakatua. Ikus *non*-en kide diren bi erlati- vook: *Carcela nondic...* («cárcel, de la que...»); *...bauço burbilla / Nontche doloratcen baita...* (3258) («...región próxima, en la que pa- dece...»). Bitara ageri da, *zein* bezalaxe: adizkiak *bait-* nahiz *-en* duela- rik. Noiz bata noiz bestea ezin hemen hitz gutxitan esan.

35) *Non* eta *ceren* hitz lauz idaztean berek hasten duten mende- ko perpausaren hasieran ipini ohi diren arren, gure poetak maiz atze- ratu egiten ditu eta perpausaren erdian txertatu; inoiz baita beren mendean dagoen adizkia bera baino atzerago ere. Honek zenbait ber- tso aski ulerkaitez bihurtzen du: ikus 155; 158; 190; 610; 1028; 1094; 1180; 3161-2...

36) *Ordean, bañan, orain* idazten ditu beti, *-n* dutelarik, Etxe- parek eta Oihenartek ez bezala; *artean* da berebat denborazko kon- juntzioa, inoiz ez *arte*; behin *artez*, haatik: 3292.

37) *Beçala* batzuetan denborazko konjuntzioa da garbi: ikus 445; 1090; 2237.

38) *Cein* eta *cembat*, azken hau ia beti ere duelarik, konzesiba izan daitezke: ikus 293; 1182; 1239; 2557; 2999. Tartasek *çombate- re* darabil maiz balio berberaz. *Quamvis* eta *quantumvis* gogorazten dituzte.

39) Atzizkiok, *-ela* eta *-en*, nahasi darabiltza, inoiz bata bestearen ondoan, nahiz adizkiak adierazkor nahiz aginduzkoak izan azpi egitu- ran; ikus, *...baiquinduen pensatcen / Gu çuburrac guiñela eta onac erho ciraden* (2143-4), *ciradela* esan beharrean *guiñela* bezala. Era be- rean 1235; 1836. Etxeparek ere badu horrelako pasartea: XIV,8-11.

40) Konzesiva izanik ere, *nabiz* adizkiak *-ela* duelarik darabil ia beti: *nabiz deçatela* (3059); *nabiz lirela* (3218); *nabiz dela* (1073); *nabiz altcha daquiela* (1077), *nabiz* gabe bezalaxe: *licela ere* (1238; 1243), *biotan ere* ezarririk. Etxeparek, aldiz, *-en*: *Nabiz heben pena nadin...*: XIII,45.

41) Galde hitzik gabeko galderazko perpausen adizkiak ez du inoiz Etxeparegan, Oihenartegan, Tartasengan eta abarrengan hartzen duen *-a* atzizkirik hartzen: ikus 1233; 1235; 1237; 1273; 1317 eta abar.

b) *Aditza*

1) Bi hitz Etxeberriren aditzaz. Merezi du, noski, beste zenbait arrazoiren artean, hitanoaz antzineko beste ezein idazle baino gehiago baliatzen delako, ene ustez. Denera ia 800 bertsotan barrena ari da hika. Hona formarik berezianak: *ninduen* (<*nintzen*); *uen*, ez *zuen* (ikus Etxepareren *çuyan*: XIII,97) (<*zen*); *niatçaioc* (<*natzaio*); *ciaitec* (<*daite*); *ciaitequec* (<*daiteke*); *ciabillac* (<*dabila*); *guiaudecec* (<*gaude(z)*); *ciaudecec* (<*daude(z)*); *ciagoztec* (<*dagozte*, *dagozkie*). *Dic* (<*du*); *ditic* (<*ditu*); *die*, *ditec* (<*dute*); *nien* (<*nuen*); *nitien* (<*nituen*); *cien* (<*zuen*); *citien* (<*zituen*); *citeen* (<*zuten*); *niauc* (<*nau*); *cioat* (<*diot*); *ciotçaat* (<*dizkiot*); *ciecequec* (<*diezaieke*); *ciadutçac* (<*dadutza*, *dauzka*); *ciadiquec* (<*da(i)dike*); *ciroc* (<*diro*: ikus Oihenarten *sirosu* (*zirosu*): I,30).

2) Ez darabil inoiz ere *uken*, *ukan*, *ukhen* edo antzeko partizipiorik, beti *içan* edo *içatu* baizik, Axularrek bezalaxe: ikus 72; 97; 958; 1264...

3) Apokope dela bide, maiz kentzen die adizki iragankorrei *din*ahiz *de-* lehen silaba: *tuc*, *tut*, *tic*, *tuen* eta *çagun*, *eçaçula*, *eçatçula* noiznahi ageri dira.

4) Gure poetarengan *duen bik* da eta *duan bark*; baina giza-semeari dagokion *-k* vokale artean ere maiz gordetzen duelarik, *duquen* ageri da batzuetan *duen* gabe. Arrazoi beragatik *ezteçala* eta *ezteçaquela* bat dira: biak *bi* personari dagozkio.

5) Subjuntivoko formak *d-* gabe ageri dira inoiz: *guarda eçaçun* (79) eta imperativokoak, aldiz, *d-* dutelarik maiz: ikus 125; 127; 1529; 1784. Hala *bitz dieçadaçu* (895); *beda dieçadaçu* (907); *issuri dieçadaçu* (940) eta abar oso bitxi gertatzen zaizkigu guri.



6) Inperativoan geroko formak ere baditu; hauek *-ke-* artizkia hartzen dute: ikus *eguioquec* (173); *eguiquec* (607); *indaqueçu* (904); *çaqueçu* (1521); horrenbestez zenbaitetan batek ez daki *harreçaquec* (379) *bustiçaquec* (358) zer diren: *dezakek*, lehen esan bezala, *d-* nahiz *de-* galdu dutelarik ala geroko inperativoak.

7) *Nor-nori-nork* adizkiek *daro-* dute basea: *darotac*, *darozquidatçu*, *darocuçu* eta abar; ez, ordea, *nori* singularreko hirugarren persona denean; orduan *dio-* da; inoiz ez, ordea, *die-*.

8) Subjuntivoak balio finala duenean, *-tzat* erasten dio maiz adizkiari: *adintçat* (204); hori bera silaba bat luzaturik, *adientçat* (338); *dagoentçat* (2038).

9) *Daite* eta *daiteque*, biezaz baliatzen da: ikus *daiten* (3352); *eztaite* (3739); *daiteque* (2223; 2370); eta bien hitanozko formez ere bai: ikus goian *ciaitec* (525); *ciaitequec* (773); *aiteque* ere (111) ageri da; *aite*, aldiz, ez; baita *diraite* ere (2047). Inoiz ageri ez dena, ordea, *dateke* da eta, itxura guztien arabera, bertso askotan *daiteque* dioena euskara batuan *dateke* litzateke, ene ustez. Ikus inperativo *beite* ere: 794.

10) Modu beretsuan *daidi* (1387) eta *daidique* (3212: *eztaidique*) darabiltza; hauek, Lafonek dioenez, *egin-en-ke* luketen forma sintetikoan ordezkioak dira. Bigarrenaren hitanozko forma ere ageri da, baina *-i* gabe: *ciadiquec* (724), ez *ciaidiquec*, alegia; ez dirudi hutsa, halere, *dadiquet* ere ageri bait da: 853.

11) *Indaçu* dio beti (889; 894; 899; 901...), ez *idazu* Etxeparek bezala; *iguçu*, ordea, ez *inguzu*: ikus 859; lehenaren objektoa plurala deneko hau ere bai: *indacitçu* (921); baita geroko inperativoa ere: *indaqueçu* (904).

12) *-arazi* duen aditz asko ageri da eta behin izan ezik, gainerako guztietan *-i* galdu gabe: *aracitceco* (217); *harraraci* (360); *confirmaraci* (361); *valiaracitcecotçat* (777); *deklararacitcen* (1463); *iduriaracitceco* (1838); beste honako hau bakarra da, aldiz, obra osoan: *sinbetsaraztecoa* (1664).

13) *Ioateco duc* (201) eta honen antzeko perifrasi ez baliatzen da inoiz zerbait egin *behar* dela adierazteko. Etxeparek ere badu horrelako bat: *Amac eztu sofriceco semen artian guerlaric* (II,133); ikus Etxeberriren gehiago: *errateco tugu* (382); *eguiteco dela* (1309) eta li-

buruaren titulu luzean, *Manual devotioñezcoa* eta abar baino behera-  
xeago, *errateco lituquen* dio berebat.

14) *Eskatu* beti iragangaitza da, antzineko idazleen artean beza-  
laxe, eta *behatu*, ostera, iragankor: ikus 94; 318; 2098. Azken hau  
Etxeparegan beti iragangaitza da, aldiz.

15) *Khoroatu cinen* (879); *offensatcen naicenean* (903); *erreci-  
bituco dela* (1341); *altchatu cen* (1343); *diradela bidaldu* (1828) eta  
abar benetako pasivak dira, ez *etorri naiz* edo *orraztu naiz*-en kide-  
koak; *altchatu cen*, esate baterako, ez da «se levantó», baizik «fue  
levantado». Guk horrelako pasivak *-a izan* sarturik esan ohi ditugu.

16) Hori horrela delarik, honako biok: *Oboratu beharco dic* (673)  
eta *behar dute pagatu* (3700) ez dute esan nahi «tendrá que venerar»  
eta «tienen que pagar», baizik (tendrá que ser venerado» eta «tienen  
que ser remunerados»; *pagatu da*, izan ere, pasiva da eta, *behar* sar-  
tzean adizki laguntzailea iragankor gertatzen bait da, *pagatu behar du*  
bilakatzen da perpaus hori, guk *pagatua izan behar du* esango bage-  
nuke ere.

17) *Ikusia*, *ikasia*, *ekarria* eta abar ez dira nahitaez pasivoak,  
aktiboak ere izan daitezke: ikus horien antzekoak: *Patriarkhac altcha-  
tua* (878), hots *inork* altxatu Patriarkak; *billuz gorriac beztituac* (2306),  
*inork* jantzi larrugorriak; *nequeac soffrituac* (2275) eta abar. Ostera,  
*gaitz handiac hartua* (241), *gaitz handiac* ergatibo delarik, aurrekoetan  
ez bezala, *hartua* pasivoa dela esan ohi da. Ikus beste hau: *Gu gaituc  
gu çuec hambat noizbat arbuiatuac* (2163); ez daki batek beste gabe  
nork nor arbuiatu duen: guk zuek ala zuek gu. Dagoen pasartean, ha-  
lere, *zuek gu* da, dudarik gabe, eta horrenbestez *arbuiatuac* pasivoa da,  
zenbaiten esanez, *nik ikasia* bezalaxe.

18) Horrelako partizipioen pasivoko *agente* deritzana Etxeparek  
beti kasu ergatiboan ematen du: *hunec enganaturic* (I,89); *iangoycuac  
emanic* (I,107); *Ihaurorrec eguinic* (I,282) eta abar. Etxeberrik ere  
bai inoiz, goiko *çuec arbuiatuac* horretan ageri denez; baina gehienetan  
-z atzizkiaz: *Iongoicoaz neurthua* (1986); *çuetçaz formatuac* (2140);  
*batçuz errana* (2373).

19) Ikus hiru pasarteok, aski ilunak, egia esan, gure poetaren  
beste asko bezala, *nik* hemen argitasun beharrez tolestaturik emanak:  
*da largaturen burdiñetariç hertsic egonetariç* (1768-9); (*nik zuek*) *li-*

*bratu gathetatic lothutaric* (2258); *illkhitcen baita egon presondeguitic* (3558). Ez burdinak daude hertsia, ez gateak lotuak, ez presondegia da egon, baizik eta *inor* egon da *burdinetan*, *inor* lotu dute *gateetan*, *inor* egon *presondegian*; hots, azpi egituran inesivoan legokeen izenak kasu horren atzizkia galdu eta adizki nagusiari (*largatu-*, *libratu-*, *illkhi-*) zor zaiona hartzen du; bi lehenbizikoetan baita partizipioak ere, baina hori Etxeberriren bertsoak paratzeko ausardia neurrigabekoagatik, bi lehenak, hirugarrena bezalaxe, honela eman bait zitezkeen: *hertsia egon burdinetarik* eta *lotu gateetarik*. Bestela esan, horiek gaztelaniaz erlatiboa inesivoan daramatenak dira: «en que...».

20) Ikus orain beste biok: *Eta hala bathaiatu inceneco chabura / Iubiliac ekharcen au ossoqui statura* (533-4) eta *Ala madaricatuac iaio guñen egunac / Baita halaber gatçatu guñeneco illhunac* (2135-6). Lehena ongi ulertzeko, honela irakurri behar da: *bathaiatu inceneco estatu chabura*; aurreko hirurak gogoan harturik, badirudi bertso honetan ere azpi egiturari hau zor zaiola: *estatu chabuan bathaiatu cinen*, inesivoa alegia, hiru haietan bezalaxe. Bigarrenean beste horrenbeste: *illhunetan gatçatu guinen* legoke azpi egituran, halako *egunetan iaio guinen* bezalaxe. Hemen, ordea, aurreko hiruretan ez bezala, *inceneco* eta *guineneco* sartu du, honela esan zezakeelarik: *bataiatu estatu xabura* eta *gatzatu ilunak*.

### c) *Bertsogintza*

1) Etxeberriren bertso guztiak hamabost silabatakoak dira, Etxepareren gehientsuenak bezalakoxeak, eta elkarren segidako binaka dira hoskide; hots, distikoak dira beti. Puntua aski aberatsa da, Etxepareren bertsoena baino aberatsagoa, dudarik gabe, hoskidetasuna maiz silaba eta erditakoa bait dute. Bertsoaren eskema ere oro har Etxepareren hamabostekoena berbera da: 4/4//4/3, zesura zortzigarren silabaren ondoan gertatzen delarik. Baina azter dezagun zeharoago zenbait puntu.

2) Eskema hori urratzen duen bertso 'oker' askotxo da poeman barrena: lehenbiziko ehunetan berrogeitamaika. Hauetatik hamairu bi hemistikioetan dira 'oker'; beste hogeitamazortzi bietako batean: hamasei lehenean, hogeitabi bigarrenean. Etxepareren bertso 'okerren' kopurua ez da hain handia, ez eta hurrik eman ere. Har ditzagun lehenbiziko ehunak: hogeitakurrik aurkituko ditugu 'okerrak'; horietatik

biek bakarrik urratzen dute eskema bi hemistikioetan eta gainerako hamazortzitatik hiruk bakarrik lehen bertso erdian.

3) Larriago dena eta Etxeparegan inoiz ere gertatzen ez dena (ikus, halere, I,199, hau Etxepareren lumatikakoa ez bada ere, ene ustez): hiruzpalau bertsoan zesura ez dago bi hitzen artean, hitzaren barnean baino, erditik ebakitzen duelarik: ikus 355 (*Sacramentu-* // *-en*); 457 (*ardiats-* // *-ac*, horrela idatzirik egon arren, *ardiats zac bezalako* delako, agian); 475 (*berce al-* // *-de*); 1671 (*de-* // *-la*).

4) Bertso batzuetan eskema behar bezala betetzea bost axola zaiola dirudi, bertsoan hitzen bat lekuz aldatu eta eman diguna baino biribilagoa, zuzenagoa gertatzen bait da: ikus 2032, non eten txikia hitzaren (*cerbi-* / *-tçatu*) erdian gertatzen bait da; ez, haatik, honela ondu balu: *Ceren ungui / cerbitçatu* // ...; 87, hemen ere *Ceren gaizqui / errailleac* // ... esan balu, lehen bertso erdi zuzenagoa aterako zitzaiokeen; 1114, *Ceren pena / guebiago* // *behar duen soffritu* esan eta alde guztietarik irabazten aterako zatekeen bertsoa.

5) Bada ere ikusi batera luzeegi nahiz laburregi den bertsoarik, inprentako huts nabariak dituztenak alde batera utzirik ere; azken hauen artean ikus 1659, 2967, 3285-6, 3333, 3524, 3619, 3665 eta abar, baita horiei dagozkien oharretan proposatzen ditugun zuzenketak ere. Luzeegi diruditenei fonetika aldakuntzak zor zaizkie, noski, hamabostetara erakartzeko; laburregi diruditenen artean, arestian aipaturiko hutsez kanpo, hiru hitz dira gogoangarriak: *naussi*, beti honela idatzirik ageri bada ere, hiru silabatak da beti, *nagusi* balio bezalaxe; ikus 1066; 1528; 2642; 3179; *beira-* (2333) eta *leuna* (2347) ere bai, hirutakoak; ikus azken hori -g- duelarik: 293.

6) Etxeparerenei baino askoz fonetika aldakuntza gutxiago zor zaie Etxeberrirenei, egia esan; bertsoak Etxeparegan baino maizago ditu, alegia, hamabost silaba ikusi batera ere. Elisio-sinalefei buruz ez du legerik ez araurik, Oihenartek agindutakorik, esate baterako, eta Etxeparek bezalaxe gogoak ematen, edo hobeki esan, bertsoak eskatzen diotanean egingo du, edo egingabe utziko, honako edo harako elisio nahiz sinalefa. Baina «de facto» Etxepareren bertsoei baino gutxiagotan eragin behar zaizkie eta alde honetatik zorrotzago, hestuago hartzen du bere burua Etxeparek berea baino; hots, Etxepare baino landuagoa, kultuagoa da punta horretan; ez hain herrikoi, alegia.

7) Beste puntu batean ere alde handia daramaio Etxepareri: ez du inoiz vokale arteko *-r-* mutuerazitzen; Etxeparek, aldiz, maiz.

8) Bi puntu horietantxe, ez gainerakoetan, hartzen du gogor bere burua; gainerako guztietan edozein poetak bezala beretzat hartzen dituen baimen eta lizentziek ez dute mugarik, ez neurririk, eta Etxeparek bere buruari opa dizkionak baino mila bider handiago eta lasaigoak dira. Aipatu dugu gorago *etxe berria*-ren antzeko sintagmak atzekoz aurrera tolestutzen dituela nahi duenoro; baina bada besterik eta larriagorik.

9) Bertsoaren bi erdietan ez ezen (hori Etxeparek ere bai), bi bertsoetan ere barreia ditzake, Etxeparek inoiz ez bezala, partizipioa eta adizki laguntzailea: ikus 35-36 (*duc... erdiratcen*); 565-6 (*cien... gombidatcen*); 1185-6 (*baitu... erraten*).

10) Berez hitzek ematen dioten neurria baino silaba bat gehiago behar badu bertsoak, zenbait hitz luzatzeko kupidarik ez du; eta hala *baterere* (685, 2985), *dadillala* (2695, 3123), *hartaracotçat* (2531), *halaberqui* (543, 913, 1614, 3057), *gorara* (1502), *adientçat* (338), *noraraiño* (848), *oraindaraño* (914), *adillala* (763) esango dizu lasai. Zer esanik ez, silaba bat gutxiagoko *batere*, *batre*; *dadila*; *hartaracotz*; *halaber*; *gora* eta abar ere badarabiltza.

11) *-r-* bezalaxe *h-* nahiz *-h-* ere ez ditu komunzki mutuerazitzen; bizpahiru bertsoetan, halere, Etxepareren gisara, amore eman behar izan dio bertsoari ezinbestean; ikus 2778; 3732.

12) *Jaiki eta*, *esan eta*, horien antzekoetan *eta* menderatzailea da eta ahoskeran ia beti partizipioari hertsiki atxikia; horrenbestez Etxeparegan ezin dezake, nekez eta doi doi baizik, eten txikiak ere, are gutxiago zesurak, partizipioagandik bakan *eta*. Etxeberrik honetan askatasun handiagoa du: ikus zesurak erdibitzen dituelarik: 451; 1293; 2157.

13) Hori baino enklitikagoa da, dudarik gabe, *ere*; horrexegatik ez da inoiz Etxeparegan zesuraren, ezta eten txikiaren ere, ondoan ageri, bere sostengua duen hitzarengandik erauzirik; bai, ordea, Etxeberri-  
rigan, baita zesuraren ondoren ere: ikus 6; 192; 931; 2095; 2276.

14) Arrazoi beragatik *zu bezain* edo *hain eder* bezalako hitz andanak, aho hizkeran inola ezin erdibi daitezkeenak bien artean beste hitzik sarturik, zesurak Etxeparegan ezin bakan ditzake; ez eta eten txikiak ere; ikus, aldiz, Etxeberriren hauek: 82 (*bain // ungui*); 2975

(*hain // deseparagariac*); 2362 (*çuten // arren*); 2545 (*iraganex // guero*); 2634 (*erran dugun // leguez*); 2982 (*denaren // ganic*); 3025 (*sentimendu // gabe*); 3042 (*hambat... // gaitz*); 3221 (*içan // arren*); 3340 (*lachatassun // harc*).

15) Idatzirik dagoen vokale arteko konsonanterik, bereziki *-b-*, *-d-*, *-g-*, ez da inoiz mutu gertatzen (ikus, aitzitik, goraxeago *naussi-*, *leun-* eta *beira-z* esana); Etxeparegan ere ez, ene ustez, Lafonek bes-telako iritzia badu ere; behin, ordea, *do* idatzi digu Etxeberrik, *dago* idatzi balu, silaba bakarrekoa zela asmatzen lanik har ez genezan edo: ikus 3263.

16) Bertso baten hasierako hitza maiz aurreko bertsoaren perpau-sari dagokio zentzuz; horrelako zangalatrau nabarmenik ez da gertatzen inoiz Etxeparegan; ikus, aldiz, 50; 72; 560; 562; 680; 2586; 3512.

17) Esanak esan, horrenbeste askatasun eta lizentzia gutxi baili-tza, Etxeberrik ez du batere kupidarik, bertsoaren eskema eta puntua betetzearren, aho hizkerak bere-bere dituen sintagmen eta hitz andan-en ezin urratuzko loturak eta korapiloak erabat askatu, urratu eta sintagma zatiak haizetan bezala bertsoetan barrena hedatzeko. Hau da, dudarik gabe, Etxeberriren eta Etxeparearen bertsogintzaren arteko lezerik handiena: hots, hitzak eta sintagmak eta hitz andanak bertsoan tolestatze-ko bide eta modua. Etxeparegan aho hizkeran bezalaxe daude hitzak eta hitz andanak antolatuak, zein bere tokian, inolako gatazka eta bortxake-riarik gabe; irakurleak ia beti hitz lauuko solasa irakurtzen ari delako iru-dipena du, puntuagatik ez balitz. Etxeberriren solasaldia, aldiz, zoztorrez eta behaztopabidez josia dago; latina itzultzean bezalaxe, hitzak ordenan ezarri behar ditu maiz irakurleak, bertsoen zentzua adituko badu. Horre-xegatik ipini behar izan dut hainbeste oharretan *hots* edo *irakur ho-nela*. Ehunka esenplu aipa daitezke; ikus bospasei adibide gisa: 35-36 (*bi partetan* da horko sintagma, erabat printzatu eta hitz bakoitza el-karren segidako bi bertsoen akaberan paratu badu ere, berez izenari bakarrik dagokion atzizkia, gainera, *bi-ri* ere erantsi diolarik); 69-70 (*aharantça arrotçaz* da berez sintagma, biak trukatzear gainera *aharan-tça-ri* ere adjetivoari bakarrik dagokion atzizkia gehitu dion arren); 113-4 (*eguiá guztia* da sintagma); 161-2 (*çure legueac* da sintagma, gutziz sakabanatu eta *zure-ri* ere berez berea ez duen atzizkia erantsi dion arren); eta liburuan ageri den azkena, 3799-3800: *azken orena* da berez horko sintagma. Ezin uka, horrenbestez, arrazoi osoa zuela

Oihenartek Etxeberriri buruz zioenean: «Et il se donne en plusieurs lieux d'autres licences exorbitantes».

18) Ez ginateke, halaz guztiz ere, Etxeberriren kritikalarri zuzen eta iustu, guztion amaieran aitortzen, are aldarrikatzen, ez bagenu Etxeberri euskararen maisu goren eta bikain dela, euskara oso eta oro menderatzen duela, euskarak inoiz izan duen idazlerik ugarien eta naroenetakoa dela. Haren mintzaira arrunt jori eta aberatsa, esanmolde eta hitz berriz, ez hain ezagunez bederen, hornitua da; bizia, adierazkorra, indar handikoa, benetan ukigarria da zenbait pasartetan; hiltzorian dagoen kristauaren inguruan aingeru on eta deabruaren arteko elkarriketak, esate baterako, lerro txit gogoangarriak dira; Infernuaz ari delarik azken berrehun bertsoetan damnatuena, dohatsuen eta Jainkoaren ahotan ipintzen dituen hitzak zinez ukigarriak. Goi mailako poeta da, sentimendua aise dariona; irudiz eta metafora ederrez eta konparaketa egokiz, maiz Virgiliogandik hartuak diruditenez, apaindua du hizkera; gaiak berez poeta biziki estekatzen duelarik ere, Kristau Fedeari lotu behar bait zaio nahi lukeena esaten utzi gabe, eroso eta zailu darabil luma; eman digun *Manual Devotionezcoa*, lehen zatia batikbat, bigarrena lehorrigo, antzuegokoa bait da, ez da *Kristau Manuala* soilik, berak dioenez; zinetako Poema da; erlijiozkoa, noski, baina Poema halere, hegalde handikoa.

### III. LIBURUAREN GRAFIA

1) Bi hitz azkenik Etxeberririk darabilen idazkeraz eta nik harena gaurkoratzean bete dudan zenbait arauz eta legez. Poetarenak ez du katramila berezirik, egia esan, ez Etxepare, Oihenart edo Tartasenak adinakorik bederen. Frikari-afrikariak garbi bereizten ditu; baita *n*, *l* eta *r*-ren ondoko hotsak ere komunzki eta hori da, jakina denez, beste hiru idazle haien grafiaren gaurkora aldatzea gehien zailtzen duena.

2) Gure poetaren alde oker bakarra da ez dela liburuan barrena betibateko grafiaz baliatzen. Lehenbiziko berrehun bertsoen, gutxi gorabehera, eta gainerakoen artean bada alde txiki bat: lehen orrialdeetan vokale guztien aurrean *c* ez baizik *ç* idazten du: hala *offiçioaz*, *berçela*, *belçez*, *estalçen*, *Greçiaco*, *çitusten*, *ehorçia*, *mespreçia* eta abar irakurtzen dugu. Modu beretsuan afrikaria denean ere: *gueçurtatçen*, *deitçea*, *goratçen*, *edificatçen*, *sortçen*, *damnatçen*, *çuburtçien*, baina geroxeago *aitcinean* (134), *çuburtciatz* (186). Ondoko orrialdeetan

*e* eta *i*-ren aurrean ez du gehiago  $\zeta$  idazten, beste hiru vokaleen aurrean bakarrik baizik.

3) Halaber *n*, *l* eta *r*-ren ondoan frikari-afrikarien arteko zalantza ageri du; lehen laurogeitabi bertsoetan honako hauek aurkitzen ditugu: *sortçen*, *erortçen*, *hausartçera* batetik eta *berçela*, *versutan*, *ehorçia*, *berçec*, *berçeac* bestetik; *estalçen* eta *itçultçecoac*, nahiz *belçez*, *falsoac*; *escaintcen* bi bider, baina baita *principalac*, *entçutea*, *mintço*, *aharantçaz*, *abarantça*, *mintçatcea*, *hizcuntça* ere. Horrenbestez, *r*-ren ondoan afrikariaz aditz izenen *-tze* atzizkia denean bakarrik baliatzen dela badirudi ere, gero *l* eta *n*-ren ondoan ez da lege hori betetzen. Aitzitik, afrikaria ageri da *n*-ren ondoan ia beti, aditz izenen atzizkia bada eta ez bada. Ohar, gainera, afrikaria dela gailen ia beti.

4) Hiru kontsonante horien ondoko zalantzak liburu osoan barrera irauten du, halere, nahiz afrikaria gehiagotan ageri den, ene ustez. *Minça*- aurkituko dugu, bai, bakanka (998), baina *mintça*- askoz gehiagotan: 274, 996, 2503, 2509, 2547, 2632. *Incela* (646) edo *inceneco* (533) ere bai han edo hemen, baina *nintcen* (560, 2602, 2603, 2684), *intcen* (2507, 2388), *banintz* (2672) ia beti. Tarte-marteka hor ditugu *conseilluz* (239), *consola* (241), *lança* (2184), baina gainerakoan ia erabat irakurtzen ditugun *aphaintcen* (2686), *laguntcen* (2396), *ezcontceco* (373), *ifintceco* (325), *-tze* dutenak, ez ezen, *entçutean* (487, 2380), *ahantzcor* (2408), *ahantci*- (366, 677), *hantche* (2455), *nontche* (3248), *oraintche* (2173), *ardiantchu* (893), *antcho* (2564), *untci* (2533), *puchantçaz* (422), *usantçac* (496), *açantçac* (2993), *esparantça* (2585), *segurantça* (2586), *ardantceric* (2365), *deçaguntçat* (519), *daramantçat* (2174), *vengantcen* (172), *ordenantça* (187), *ventçutceco* (741), *antsicabe* (304) eta abar aski eta gehiegi dira, ene ustez, inori beste zenbaitek (*prince*, *sensuac*, *pensatua*...) ernarazi liezaiokeen duda osoro aizarazitzeko. Latinari mailegatuetan *-nt-* idazten du: *sententia*, *differentia*, *aluntioa*...

5) Berebat *r*-ren ondoan; han hemenka aurki daitezke *carcela*, *versu-*, *ehorçia*, *herce*, *orcirale* eta, areago dena, *berce*- ehunka aldiz frikariaz ageri da; halaz ere, *sortcen* (6, 785), *aguertcen* (2616), *erortcen* (10), *hausartcera* (63), *hartcen* (2401), *erortceco* (2437), *sartcean* (2438), *sartcen* (2447), *ethortceco* (2508), *laburtcenago* (3222), *barurtcera* (572), *atçartcen* (652), *bihurtcen* (750), *ekhartcen* (751), *erortcen* (764) ez ezen, *ehortz* (773), *bortz* (267), *hamabortz* (2540), *bertsi* (2380), *çuburtciaz* (186, 2392), *çortci* (2534), *çartço* (118, 2822), *cer-*



*tçaz* (2659), *ap(h)urtcho* (2615, 2646), *bertça* (2886) irakurtzen ditugularik, huts egiteko beldurrik gabe baieza dezakegu Etxeberrikeren *r*-ren ondoan afrikaria ere ahoskatzen zuela hitz askotan bederen.

6) Gauza bera esan behar da *l*-ren ondoko hotsaz ere; *belça-*, egia esan, goiko *berce-* bezalaxe, beti frikariak ageri da, baita hitzaren akaberan ere: *belz* (2493); berebat *balsan* (2698), *falseria* (178), *dulceac* (288), baina askoz gehiago dira besteok, *itçultçecoac* (40), *bidaltcen* (531, 2428), *galtcen* (2586), *busteltcen* (2369), *estaltceco* (630); baita *-tze* atzizkirik ez dutenok ere: *hilltçailleac* (2456), *altcha* (758), *holtz* (2178, 3225).

7) Hauek honela direlarik, inork pentsa dezake hauetako batzuk hutsegiteak direla, idazlearenak berarenak nahiz moldiztegiak, eta guztiak berdindu eta bateratzea litzatekeela hoberena; baina iritzi hori, ia seguru okerra eta gezurra izateaz gain, txit arriskutsua da; zein da, izan ere, hutsa eta zein ez? Piloa dira, gainera, ikusi denez, inork hutsegitezat jo ditzakeenak; gehiegixko aukeran. Ez, ez dira hutsegiteak, baizik autorearen zenbait hots iruditartzeko zein letraz baliatu behar duen segurantzarik ezaren ondorio. Hainbestez, dauden hartantxe utzi behar nituela iruditu zait eta gaurko grafiara aldatu ere bakoitza ageri den bezalaxe: frikaria ageri denean frikariak, afrikaria dagoenean afrikariak.

8) Horixe eta bera gertatzen zaie hots horiei beste bi jarreratan: hitzaren akaberan eta leherkari ahoskabeen aurrean, eta orduan ere ez dira hutsak: ikus, beste askoren artean, *gustiac* (9), *çitusten* (22), *Parizco* (48. eta 49. bertsoen arteko izenburuan), *gustiac* (59), *gaisqui* (78), *ikhaz* (82. eta 83. bertsoen arteko izenburuan), *ikhuz* (102), *sinhetzac* (106), *gustiz* (106), *nabis* (123), *onhetz* (167), *arratzaldean* (207), *Piarrez* (778), (ikus *Piarressen*, 782), *escaz* (495), *promex* (762), *eztira* (1481), *ostea* (2159), *espainean* (1680), *eznearen* (1679), *deuz* (3296), *beguietztea* (1974), *basterretaric* (2444), *gastigua* (3136), *ezportçu* (3520), *khiratz* (1126), *daroste* (1419) eta abar. Zer esanik ez, guztiok behar bezala (?) idatzirik ere ageri direla obran zehar, guk gaur idatziko genituzkeen kontsonantez esan nahi dut. Nabari da, beraz, hutsak ez, baizik sistema finkaturik ezaren erruak direla.

9) Zalantza ageri du ere poetak, etimoari begiratu afrikaria dena leherkari ahoskabeen aurrean gertatzen denean; Axular bezalaxe, inoiz afrikariak baliatzen da horrelakoetan, gehiagotan frikariak; hala ditugu

han hemenka *darotzquitçut* (65), *çadutzcat* (73), *hitzcuntça* (82), *otbo-itzteco* (101), *garratzqui* (230), *hautsterriz* (749), *iautsten* (820), *borthitzquienic* (585), *hitzten* (1119)... Hauetan ere idazlearen grafiari lotu natzaio lekuan lekuan, ezer aldatu gabe.

10) Azkenik *ceiñ-*, *baiñan*, *noraraiño* inoiz edo behin ageri diren arren, gehienetan hitz horiek eta antzekoak *-i-* gabe eta *ñ-k* gainean arrastoa duelarik datoz. Modu beretsuan *üen* eta *itüen* bakanka ageri dira. Baita *cerüan*, *naiüela*, *escribüen*... ere han eta hemen. Ez, ordea, beti, ez eta gutxiago ere. Horrez gain *u-*ren gaineko bi puntuak maiz erdi ezabatuak daude; eta xerokopiaren orriak, bestalde, aski zikinduak eta tintazko orbanek beteak daudelarik, askotan batek ez daki bi puntu txiki horiek han ageri diren ala ez. Badaudela iruditu zaidanean gorde egin ditut. Gauza bat dago garbi: hitz beretan dieresis inoiz ageri dela eta inoiz, ez.

Hutsak, moldiztegikoak ala Etxeberrirenak berarenak ezin jakin, asko eta askotarikoak dira. Ia beti orripeko oharretan ematen ditut aditzera eta ene ustez nola behar luketen adierazi ere bai egiten dut. Ez da halere beti erraz asmatzen.

Hauexek nituen Etxeberriri buruz esateko. Badakit ez dudala dena esan eta horko zenbait punturi ikerketa zehatzagoa zor zaiola. Baina nik ere, Etxeberriren bertsoaz baliatuz, hauxe diot: *Hunen gañean egüñen dic cembait berçec hobequi* (30).

P. ALTUNA SJ.

MANUAL DEVOTIONEZCOA

*edo ezperen*

OREN ORO ESCUETAN ERABILLTCECO LIBURUTCHOA.

Escarazco versutan eguiña, eta guztia  
bi partetan berecia.

Lehenean iracasten direla Guiristiño commun batec iaquiñ  
behar dituen gauça guehienac; bercean errateco lituquen  
halaber othoitz guehienac.

«Ponite haec verba mea in cordibus et in animis vestris  
et suspendite capro signo in manibus, et inter oculos vestros  
collocate; scribes ea super postes et ianuas domus tuae».  
Deut. II,18-20.

Ene erranac iduquitçac bihotcean gorderic  
Adimenduac eztuen gogoeta berceric  
Hartaracotz ingura çac señalearhian  
Bethi hautças orhoitceco bici aicen guztian  
Eta pinta çac beguien aitciñean enea  
Athal gain eta pareta churietan leguea.

B O R D E L E N

I. MONGIRON MILLANGES, Erregueren Imprimatçaillearenean.

M. DC. LXIX.

E X A M I N A T Z A I L L E E C

Iphizpicuaren ordain handiari, MANUAL hunez  
iduritu çaienaz.

Iauna, ikhussi dugu eta iracurri, bidaldu  
cinarocun MANUAL escarazco hitz itçuliz  
eguiña: eta iduritcen çaicu, gendea pro-  
gotcha daitequela, eta hartaracotz impri-  
maturic arguitara illkhi daitequela.

Saran Vrriaren  
11. Vrthe 1626

P. DE AXULAR  
P. DE GUILLENTENA

LICENTIA VICARII GENERALIS.

Visa approbatione doctorum Virorum,  
quibus demandauimus examinationem  
MANUALIS, Cantabrico carmine à Ioanne  
Etcheberri Doctore Theologo compositi, per-  
mittimus ut in lucem emittatur. Baionae  
die 28. Octob. 1626.

M. D'OIHARARD  
Vicarius generalis.

IOANNES ETCHEBERRI

Doctor Theologo eta MANUAL hunen  
eguilleari bere adisquideac.

Damuric etcecutsala Anaia medicuac  
Harc beguia hertsiz guero eguin tutçun versuac  
Ecen guehiago çure preça liro artea  
Eguin ohi çuen baño bici cela berea.  
Harenac guidatcen çuen gorputça indarrera,  
Bañan çureac arima hedoiaren gañera.  
Oraiñ ere cantatcen tu çure coplac Ceruan,  
Bai eta mereci onez nic behere Munduan.  
Ecen Iaincoa laudatcen dute, eta Iaincoac  
Ceru lurretan mereci ditu laudorioac

P. GUILLENTENA  
Itsassuco Erretorac.

## GRATULATUR IOANNI ETCHEBERIO

meritissimo in sacris Theologiae litteris Doctori  
Condiscipulus.

Sic tua te pietas, sic entheus impulit ardor  
Diuinam patriâ reddere voce fidem.  
Coelica Cantabrico spirasti oracula primus  
Pneumate, et intactos ausus es ire lacus.  
Haec facis, atque illam quae te foelicibus agris  
Extulit, Aethereo germine pascis humum.  
Quidni igitur, rumpente iecur Liuore, per orbem  
Diceris oh patriae gloria prima tuae?

I. DE HEGVY

---

Ioanes Etxeberri  
Teologia gaietan Dotore ospatsuari  
ikaskideak  
zorionak emanez.

Zeure bihotz onak eta Jainkozko maitasunak  
eragin dizu euskaraz Kristau Fede bilduma.  
Kantauriko hatsez lehen zeruko izkutuak  
eman tuzu, zanpatuz ur bestek ez urratuak.  
Hazi zintuen lurrean erein duzu halaber  
zerutik ekarritako hazi jori eta eder.  
Zergatik ez zara, bada, inor bekaiztu arren,  
lehen seme izendatzen gure Euskalerrriaren?

(Liburu prestatzailearen itzulpena).

IN LAVDEM AUTHORIS.

Nuper eras viridi redimitus tempora lauro,  
Sed Cedro laurus te veniente fugit.  
Nobilis est laurus, sed quantum sydera vincunt  
Terras, tam Cedro laurus et ipsa minor.  
Aequora qui sulcant debent tibi plurima, naues  
Quod tua fecit eis ingeniosa manus,  
Quas furor ingentis Neptuni saevius, et quid  
In gremiis foueant terra, fretumque simul,  
Non hominum liuor mordax abolebit: at ipsae  
Etcheberri cum nomine semper erunt.

STEPHANUS HIRIGOYTI

---

EGILEAREN GORASARREZ.

Ereintzak du berriki zure burua ingura,  
baina zedroa iaugirik itzuri zaizu hura.  
Eder, da, bai, ereintza, areago zedroa,  
zerua ere lurra baino denez ederragoa.  
Zor handian daude zuri gure itsastariak,  
egin dizkiezularik esku antzez ontziak.  
Haiek Neptunoren herrak, lurrak, ez itsasoak  
bere ahal guztiez, ez gizonen bekaizkoak  
ez ditu, ez, suntsituren. Ontzi haiek betiko  
Etxeberriren izenaz batean dira biziko.

(Liburu prestatzailearen itzulpena).

## MANUALAREN IKHASTERA IRATÇARMENDUA

- 1 Bat bedera mela bedi duen officioaz,  
Eta Guiristiño dena, prestu içatecoaz.  
Bercela du, Christauaren gueçurtatcen deitcea,  
Eta Eliçari bere goratcen ohorea.  
Beguir daudenac ditu edificatcen gaizqui,  
Eta gende infidelac ere sortcen gogorqui.  
Dolu belcez estalcen du corte dohatsuena,  
Eta arima damnatcen, nihoiz hillen eztena.

- 
1. *mela bedi*: hots, nahas bedi, ari bedi. Frantzesezko *mêler*.  
*offi/cioaz*: hor litzateke etena.
2. *guiris/tiño*: lehen bertso erdiarena ere *guiris*- ondoan.  
*iça/tecoaz*: bigarren bertso erdiarena, aldiz, *iça*- ondoan. Ez dut aurrera honelako oharrik egingo labur beharrez; norbera jabetuko da laster Etxeberriren hamabost silabatako bertsoaren eskema, Etxeparearenarena bezalaxe, 4/4//4/3 izanik ere, maiz urratua ageri dela; hots, bertso erdi bakoitzaren etena ez dagoela beti, ezta hurrik eman ere, hitzaren bukaeran. Horrelako bertso «okerren» kopurua Etxeberrirengan Etxeparearengan baino askoz handiagoa da.
3. *du*: adizki konposatuaren eta izen sintagmaren lau hitzak elkarrekin nahasturik daude, gurutzaturik, elkar puskatzen dutelarik. Eta hori beharrezko ez zelarik, gainera, honela ere bertso zuzena ateratzen bait zitzaien: «Bercela du gueçurtatcen Christauaren deitcea». Zergatik? Maiz ezin asma daiteke; Etxeparegan, ostera, horrelako fenomenoak gutxi izateaz gain, ia beti eman daiteke arrazoia.
4. *bere... ohorea*: izen sintagma hau zesurak erdibitzen duela dago, alde banatan hitz bakoitza, alegia, eta bien artean partizipioa sarturik. Etxeparegan ez da erakusleekin inoiz horrelakorik gertatzen; ezta posesivoekin ere.  
*goratcen*: hots, kentzen; ikus Lhande, or. 378.



MANUALAREN IKHASTERA  
IRATZARMENDUA

- 1 *Bat bedera mela bedi duen ofizioaz  
eta girstino dena prestu izatekoaz;  
berzela du kbristauaren gezurtatzen deitzea  
eta elizari bere goratzen ohorea;  
Begira daudenak ditu edifikatzen gaizki  
eta jende inñidelak ere sortzen gogorki;  
dolu belzez estaltzen du korte dohatsuena  
eta arima damnatzen nihoiz hilen extena.*

- 
5. *ditu edificatcen*: zesura erdian dutelarik. Etxeparegan ere bai, noiz edo behin. Ikus: «Veretara içuliren // ditu guero veguiac» (I,368), baina partizipioa eta laguntzailea trukatu gabe Etxeparek.
6. *ere*: hau ere ez du Etxeparek inoiz egiten: hots, *ere* enklitika delarik ezin joan daiteke bigarren bertso erdiaren hasieran; ezta, areago dena, bertso laurdenaren hasieran ere. Etxeberrik, aldiz, maiz ipintzen du leku horietan.
7. *belçez estalçen*: liburuan barrena grafia ez da beti bat. Ondoko orrialdeetan hitz horiek edo horien antzekoak frikariaz nahiz afrikariaz idatzirik ageri dira. Baina bata nahiz bestea, hotsa eta poetaren beraren ebakitzeko modua maiz bederen afrikaria zen, dudarik gabe, idazkera desberdina bada ere: *c* nahiz *ç*, *t* ere duelarik nahiz gabe. Liburuaren lehen orrialdeetan bakarrik daude *ce* eta *ci ç* hautsiaz idatzirik.
- corte dohatsuena*: trukatzeko hau da, guk ia beti *dohatsuen cortea* esango genukeenaren ondoan, usuena lehen eta orain mugaz haraindiko idazle eta hiztunen artean; hots, genitiboa eta bere determinantea atzekoz aurrera. Ikus Etxepareren hau: «Lehen imprimaçalia heuscararen hura da» (XV,16). Ohar, ordea: Etxeparek ez dio genitiboari erantsi, besteari kenduz, *-a* mugatzailea, Etxeberrik bezala.
8. *eta arima*: Etxeberrik — Etxeparek eta gainerako herri bertsogileek bezala — gogara egiten ditu elisio eta sinalefak; inolako lege eta araurik

Hauc gustiac, Christau falsoac ohi ditu obratcen  
10 Noiz ere baita, bekhatu mortalean erortcen.

Hartaracotz nekha çaitc, ikhasten Manuala  
Eta faltctaric guarda, hura obratcen duçula.

---

gabe, alegia. Oihenart abiatu zen lehenik bide berrietan barrena eta gero Arana Goiri jarraitu. Hemen, esate baterako, azken eta lehen vokaleak berdinak izanik ere, ez du poetak elisiorik egin.

9. *gustiac*: hala dago idatzirik eta, jakina, *guztiak* behar du gaurko grafiaz, baina ez da agian inprentako hutsegitea. Leherkari gogorren aurrean *s* eta *z*-ren artean idazteko zalantza nabari da inoiz; idaztekoa, ez ahoskatzekoa, noski. Hala nola *Parizco*, *gaisqui*, etab. Baita hitzaren akaberan ere, maiz ikusiko dugunez.

*falsoac*: bi silabaz ebaki behar da, *-o-* vokalerdi eginik: *falswak*.

*obratcen*: guk *obratu* esango genuke, baina Etxeberrik, Axularrek etab. ez beti: ikus 20.

- 10 *Hauk guztiak kbristau falsoak ohi ditu obratzen,  
noiz ere baita bekhatu mortalean erortzen;  
bartarakotz nekba zaite ikhasten Manuala  
eta faltetarik guarda, hura obratzen duzula.*
- 

10. *noiz ere*: berez galde hitzak direnez erlatibo gisa baliatzen denean, adizkiari *bait-* ezartzen dio poetak. Honako *noiz ere* hori guk komunzki *-ero (oro)* esanez adierazten dugun bera da: hots, bekatu mortalean erortzen denoro. Ikus Oihenart: I,19; I,24; Etxepare, I,343.
11. *bartaracotz*: ez da destinatiboa, kausal balioa du: hots, horregatik
12. *hura obratzen*: sinalefa egin behar da eta *-a o-* batean ahoskatu.
- tit. *iracurtçaille*: tituluaren hitzak *nori-nork (zertaz)-zer* ordenuan jarriak daude, euskara jatorrez ohi denez. Era berean paratu zituen Etxeparek ere bere hitzaurreko hasieran Bernard Leheteri eginak: «... Bernard Leheteri, Bernard Echepearecoac..., gogo honez goraynci, baque eta ossagarri».

I R A C U R T Ç A I L L E  
DEVOTARI EGVILLEAC LIBURU HUNEN MANERAZ  
A B I S U A

Guiristiñoa, eman diat escarazco versutan,  
Catholico manuala neure asti ordutan

Ikhussiric nola bainaiz iaiatcen escalduna  
Gure natioa dela copla maite duena.

Hartaracotz iaquiara diat versus eçarri,  
Lasterrago ikhas eta maizago aipha garri.

20 Lehenago nonbait urrun Greçiaco partetan  
Herrico legueac eman ohi ituen cantetan

Nola cantac maiz baitire munducoen ahoan,  
Hala cantez orhoituric, maiz çituzten gogoan,

- 
13. *guiristiñoa*: lau silaba baizik ez dezake izan eta hainbestez -o- vokalerdi bezala ebaki behar da: *girstinwa*.
14. *catholico manuala*. izen adjetiboak trukaturik. Ala konposatu gisa? *asti ordutan*: ikus Etxepareren *behar ordu*-; honako hau Etxeberrik *behar aldi ordu*- esango digu aurrerago.
15. *nola*: konjuzio kausala, noski, eta hainbestez adizkiak *bait*- du. *iaiatcen*: hala ageri da, baina *iaiatcez* behar duela uste du Mitxelenak: ikus 2138, 2723.  
*escalduna*: *escara* eta *escaldun* dira Etxeberriren euskalkian; Etxeparerenean, ostera, *heuscara* eta *heuscaldun*.
17. *hartaracotz*: ikus 11; garbi ageri da hemen kausal balioa duela; anaforikoa delarik, aurreko (15) *ikhussiric* kausala jaso eta berresan baizik ez bait du egiten.  
*iaquiara*: hots, neure jakinduriaren arabera, *gogara* bezala. Ez dakar Lhandek.

I R A K U R T Z A I L E  
DEBOTARI EGILEAK LIBURU HUNEN MANERAZ  
A B I S U A

- Giristinoa, eman diat eskarazko bersutan  
katholiko manuala neure asti ordutan,  
ikhusirik, nola bainaiz iaiatzez eskalduna,  
gure nazioa dela kopla maite duena.*
- Hartarakotz iakiara diat bersuz ezarri  
lasterrago ikhas eta maizago aipharri.*
- 20 *Lehenago nonbait urrun Greziako partetan  
herriko legeak eman obi itüen kantetan,  
nola kantak maiz baitire mundukoen ahoan,  
hala kantez orhoiturik maiz zituzten gogoan.*

- 
18. *ikhas*: ikhasgarri, alegia; bertso berean dioen *aipha garri*-ren atzizkia (?) bi bider esan gabe.
20. *obi ituen*: elisioa egin eta *i* bakarra ahoskatu behar da.  
*eman*: lehen *obratcen* esan badigu ere, hemen *eman*: ikus 9.  
*ituen*: *hi* izenordeari dagokion forma. Hona Etxeberriren zenbait hita-  
nozko forma lehenaldian: *uen*, *üen* (Etxeparek *çuyan*, XIII,97) (= zen);  
*ituen* (= *ziren*); *cien* (= *zuen*); *citien* (= *zituen*)...
21. *nola*: *leben* bezala kausala (15); nahiz eta gero *hala* dioen, ez da konpa-  
ratiba.
22. *zituzten*: formaz indikativo delarik, hemen balioz subjuntivo da; finala,  
noski. Horrexegatik ez da poeta hitano formaz baliatu ahal izan; ohar  
ez dioela *zituzten*: ikus 233,282.

Hequin bada costuma onaz orhoituric lerroca  
Manuala eman diat, den beçala coplaca.

Bañan nihorc eztemala beharria hitçera,  
Hambat nola hitz azpian ehorçia denera.

Guehiago ahal beçain humilqui aut othoizten  
Obratçho hau mespreçia gogorqui ezteçaquen.

30 Hasteac gaitçac direla errana duc communqui  
Hunen gañean eguiñen dic cembait berçec hobequi.

- 
23. *bequin*: maiz agertuko da liburuan barrena: hirugarren pertsonako erakuslearen pluraleko genitivoa da, guk *haien* esaten dugunaren parekoa. Bi balio ditu, izan ere, Etxeberrigan *-quin* atzizkiak: genitibo eta komitativoa; *-quien* dio batzuetan, silaba bat gehiago behar duenean. *costuma*: honen azken vokalea eta hurrengo hitzaren lehena sinalefa egin eta silaba bakarrez ahoskatu behar dira. *lerroca*: ondoko perpausari edo sintagmari dagokio hitz hau; zangalatrau dago, beraz.
24. *diat*: ez *hiri*, hartara *darroat* litzateke; *dut* hitanoz baizik: ikus 13.
25. *eztemala*: hots, ez dezala eman; *eman* aditzaren forma trinkoa.
26. *hambat nola*: bien artean *bezanbat* esan nahi dute. Lafonek dioen bezala, hizkuntza erromanikoen kutsua dute honen antzeko destolestadurek

*Hekin, bada, kostuma onaz orhoiturik, lerroka  
manuala eman diat den bezala, koplaka;*

*bainan nihork eztemala beharria bitzera  
hanbat nola hitz azpian ehorzia denera.*

*Gehiago, ahal bezain humilki aut othoizten  
obratxo hau mesprezia gogorki etzezaken.*

- 30 *Hasteak gaitzak direla errana duk komunki;  
hunen gainean eginen dik zenbait berzek hobeki.*

---

(«tanto cuanto») eta Etxeparegan ere ageri dira. Euskara jatorrez hitz batez esan daitekeena bitan banatzea da: ikus *bain ungui nola*, 82.

27. *guehiago*: maiz ageri da poetarengan perpausaren eta are bertsoaren has-tean; gure *areago* edo *gainera* bezalakoa da maiz.  
*aut*: bigarren pertsonako adizkiek, *hi*-ri dagozkionek, ez dute inoiz hasieran *b*-rik, ezta Etxepare, Oihenart eta abarrengan ere; gehienez vokaleak bereizteko ipini ohi dute; hala *babaiz* agertuko zaigu aurrerago: ikus 3141; 357; 363; 375...
28. *ezteçaquen*: euskara batuan *ez dezaan* esango genukeenaren kide da; Etxe-berrik ez du beti, beraz, bigarren pertsona harrari dagokion vokale arteko *-k-* galtzen uzten: ikus, ordea, 110.
30. *gañean*: bi silabaz ahoskatu behar da, *-e-* vokalerdi eginik: *gainyan*.  
*cembait berçec*: hots, zenbait lan beste norbaitek.

## LIBURUAREN ERREPARTIMENDUAZ

Liburu hau guztia duc bi partetan berezten  
Iaquin behar gauçac ditic lehenac iracasten

Bi garrenac deuotionen eguiteco othoitçac,  
Ceñnac behar bailituzque erran Christau bakhotçhac.

Halaber duc lehenbiçi liburua bietan,  
Nola baituc ikhussiren erdiratçen partetan.

Lehen biçiçacoac gauça aiphatçen tic communac,  
Erkhaiñetan bat bederac iaquin behar tuenac.

40 Berçeac guero, Guiçonon fin çazpi azquenecoac,  
Guiristiñoac gau eta egun fuinean itçultçecoac.

- 
31. *duc*: bertso erdi banatan ipiniak daude, puntua dela bide, adizki laguntzailea eta partizipioa.
32. *ditic*: hemen ere bai.
33. *deuotionen*: lau silaba baizik ez zaio zor; *-i*- vokalardi bailitza ebaki behar da, beraz; latinezko etimoa dela bide, idatzi du *-tio-*, baina *-zio-* ebaki behar da. Etxeparek ere *gracia* idazten du ia beti; behin, ordea, *gratia*: I,64.
34. *ceñnac*: erlativo gisa enplegatua eta adizkiak *bait-* du; *ceñnac* hor objeto plurala da, baina horren ordez *cein* ere esaten badaki: ikus 56.
35. *duc... erdiratcen*: bertso erdi banatan ez ezen, hemen bertso banatan bereizirik ditugu adizki laguntzailea eta partizipioa. Honelakorik ez da Etxeparegan inoiz gertatzen; gehienez ere, bertso beraren bi erdietan: ikus 5.
- lehenbici*: ez da adverbio, adjetibo baizik, hots, lehenbiziko. Ikus hau bi bertso beherago.
- bietan... partetan*: hau da gure poetak puntu beharrez maiz egiten duen zangalatraurik nabarmenena: *bi partetan* da, dudarik gabe, sintagma eta hitz andana; ikus hauxe bera lau bertso gorago: *bi partetan berezten*. Puntua dela medio, ordea, bi hitzok elkarrengandik bereizi ditu eta izenari bakarrari dagokion atzizkia bieie erantsi. Atzizkia, gainera, ez



## LIBURUAREN ERREPARTIMENDUAZ

*Liburu hau guztia duk bi partetan berezten:  
iakin behar gauzak ditik lehenak irakasten;*

*bigarrenak debozionen egiteko othoitzak,  
zeinak behar bailituzke erran khristau bakhotxak.*

*Halaber duk lehenbizi liburua bietan,  
nola baituk ikhusiren, erdiratzen partetan:*

*lehenbizikoak gauza aiphatzen tik komunak,  
erkhainetan batbederak iakin behar tuenak;*

*berzeak gero gizonen fin zazpi azkenekoak,  
girstinoak gau eta egun finean itzultzekoak.*

40

nolanahikoa: *-tan* erantsi beharrean, mugagabea bait da, *-etan* erantsi dio: *bietan*.

36. *nola*: hemen ez da kausala, konparatiboa baizik: *bezala*-ren kidea.

37. *gauça... comunac*: hemen ere izen sintagma erdibiturik dago, puntua dela bide, eta bi zatiak elkarrengandik urrunduak.

*tic*: hots, *ditic*, apokopez lehen silaba galdurik. Etxeparek ere baditu honelakoak: adizki laguntzaileak, beti iragankorrek, *d-* nahiz silaba osoa, *di-*, gal dezake.

38. *erkhainetan*: hots, behatz muturretan. Ikus Lhande, or. 256.

*tuenac*: arestian esan bezala, *dituenak* da forma osoa.

39. *berceac*: bertso horretan ez dagokio bi silaba baizik: *berzyak* ahoskatu behar da, beraz.

*fin çazpi azquenecoac*: badirudi poetak bertsoaren bortxaz *fin* zor zaion lekutik atera duela: hegoaldeko euskalkietan sintagma hori *azkeneko zazpi finak* litzateke, edota gehienez *zazpi fin azkenekoak*. Horiezaz ari den liburuaren bigarren zatian poetak beti *azken finez* dio, numerorik aipatu gabe.

40. *girstiñoac*: hemen ere, gorago bezala (13), hitz honek lau silaba baizik ez duelarik, *-o-* vokalerdi bezala ahoskatu behar da: *girstinwak eta egun*: sinalefa egin eta hiru silabaz ebaki.

Hurren parteac halaber bi gauça tic condatçen,  
Bakkun eta oratione bikkunac iracasten.

Azquenean laburqui duc eçarri manuala  
Edoceiñec pena gutiz har diroen beçala

Adisquidea, ikhas etçac othoi deuotionez,  
Nola nic baitarozquiat escaintçen gogo onez.

Nequearen golardotzat deus eztiat galdetçen,  
Lekhat, gogotic emplega adin hauquin ikhasten.

---

*fiñean*: bi silaba baizik zor ez zaionez gero, *finyan* ebaki behar da. Baina susmo bizia dut hitz hori inprenta hutsa ote den: ez du zentzu handirik hitz horrek bertso horretan; ene ustez *finean* ez, baizik *fuinean* behar du. Beste frogarik behar balitz, ikus honako bertso hau: «Oren hura erabillac gau eta egun fuñean» (v. 2391). *Fuina* zera da, guk *muna* eta *garuna* esan ohi duguna.

42. *bakkun eta*: zaila da hemen ere, goragoko beste hartan bezalaxe (3), asmatzen, zergatik ez duen poetak bertso hori honela paratu: «Oratione bakkun eta bikkunac iracasten». Guretzat bederen hori da hitzen hurrenkera arrunta eta bertsoa ez zen inongo aldetik galtzen ateratzen; bigarren hemistikioa ez da 4/3, baina poetarena berarena ere ez, berbera bait da.

*oratione*: lau silaba ditu eta *-i-* vokalerdi bezala ahoskatu behar da:  
*orazyone*: ikus 33.

43. *duc eçarri*: laguntzailea eta partizipioa zesurak erdibiturik daude. Ez *bik* noski; pasivaren hitanoa da: *da ezarri*. Ez, ordea, gaztelaniaz «se ha puesto», «(inor) orraztu da» esan ohi dugunaren antzekoa, baizik «ha sido puesto», guk komunzki «ezarria izan da» esango genukeena. Ikus Etxepareren hau: «Nola yçan redemitu haren odol saynduyaz» (I,42): «has sido redimido», ez «te has redimido».
44. *diroen*: hots, dezakeen, *\*iro-* erroa maiz *darabilte* antzineko idazleek *abal izatea* adierazteko, *dezaket* eta antzekoen ondoan.

*Hurren parteak halaber bi gauza tik kondatzen,  
bakhun eta orazione bikhunak irakasten;*

*azkenean laburki duk ezarri manuala,  
edozeinek pena gutiz har diroen bezala.*

*Adiskidea, ikhas etzak, othoi, debozinez,  
nola nik baitarozkiat eskaintzen gogo onez;*

*nekearen golardotzat deus eztiat galdetzen,  
lekhat gogotik enplega adin haukin ikhasten.*

- 
45. *adisquidea*: *adiskidya* ebaki behar da, lau silaba baino ez bait zaio zor. *etçac*: hots, *itzak*; hala da beti Etxeberrigan: *-t-* pluralgile:: ikus 127, 136. *devotionez*: honek, goragoko *oratione*, *devotionen* eta abarrek ez bezala, *-i-* vokale betea du, ez vokalerdia.
46. *nola*: ikus 36.  
*baitarozkiat*: euskara batuan *bait dizkiat*; *nor-nori-nork* adizki guztietan, batetan izan ezik (*dio-*), *daro-* da beti basea.  
*escaintcen*: laguntzailearengandik zesurak erdibiturik dago.
48. *lekhat*: Etxeparek *lekhot* dioena bera; hots, *apart*, *salbu*.  
*adin*: *h-* gabe, esan bezala. Ikus 27.  
*hauquin*: genitivoa, goragoko *bequin* haren kidea. Ikus 23.
- tit. *ipbizpicu*: Axularren (*Arz*)*ipizpiku* bezalakoxea; Etxeparek, ostera, *apezpicu-* dio, latinezko (griegozko) *Episcopus*-en bi azken silabetako kontsonanteak trukaturik; hots, *p-k* dugu euskarazkoetan, latinezkoak (griegozkoak) *c-p* dioen arren. Tartasek, ordea, *apezcupiac* (hots, *apezcupu-*) dakar, etimoaren kontsonanteak bere lekuan gorderik. Griegoak beste horrenbeste egin zuen *Episcopus* delako horren erroa den *sképtomai* hitzaz: latinez hori bera *specio* bait da eta, ageri denez, griegoak bi kontsonanteak trukatuak dauzka: *k-p*, latinak *p-c* diolarik. Ohar zaitztez vokaleen aldakuntzaz hiru euskalkietan.

## LEHENBICICO LIBURUA

Guiristiñoac iaquin behar dituen gauzez.

### DEDICATIONEA ENE IAUN CLAUDIUS DE RUEIL,

Baionaco Iphizpicu digne, Erregueren Conseillerari,  
Eta Parizco semeari.

O. D. D. L. I. E. D. T.

- 50 Iongoicoac nahi luen, Iaun Prelata, Escara  
Ciñaquien, nola Hebreu, Greça, Latin, Erdara

Presentatçen darotçudan obraren aditçeco,  
On liçela, bailitçatçu halaber laudatçeco,  
Allabaiñan, guztietara eçin heda burua,  
Iongoicoac berac baiçen, eta adimendua.

- 
49. *Iongoicoac*: bi formaz baliatzen da poeta: *Iongoico-* eta *Iainco-*. Baina bertsoetan bakarrik darabiltza biok; bertsoz kanpo, ordea, titulu eta abarretan, beti *Iainco-* darabil. *Iongoico-*, beraz, bertsoan silaba bat gehiago behar duenean sartzen du.

*nabi luen*: desirazko forma, *ailitz* eta abarren kidea. Gaztelaniazko «Plu-guiera a Dios!». Perpaus nagusian dago (ikus, aldiz, 1418) azpi egituran nagusia ez balitzateke ere. Lafonek ez dakar bere *Système...* liburuan horrelakorik; mendeko perpausekorik, bai. Ikus liburu horretan or. 88 eta 110.

*escara*: *h-* gabe eta diptongoaren *-u-* gabe. Etxeparek *heuscara*.

50. *escara ciñaquien*: hori da hitz andana eta halere bi bertsoetan banaturik dago; zangalatrau, beraz. Etxeparek ez du inoiz horrelakorik egiten bi bertsoaren gaindik; gehienez ere bi bertso erdiren gaindik, zesuraz gaindik, alegia.

LEHENBIZIKO LIBURUA

*Giristinoak iakin behar dituen gauzez.*

DEDIKAZIONEA ENE IAUN  
KLAUDIUS DE RUEIL,

*Baionako Iphizpiku digne, Erregeren Konseilerari  
eta Parisko semeari.*

O. D. D. L. I. E. D. T.

- 50 *Iongoikoak nahi luen, Iaun Prelata, eskara  
zinakien nola hebreu, greka, latin, erdara,  
presentatzen darotzudan obraren aditzeko,  
on lizela bailitzatzu halaber laudatzeko.  
Alabainan guztietara ezin beda burua,  
Iongoikoak berak baizen, eta adimendua.*

---

*ciñaquien*: hots, *zenekien* perpaus nagusiko *luen*-i dagokiolarik eta subjuntivo bailitza. Ikus horren antzekoa eta balio final garbia duen beste hau: *eramen*, hots, *hark bi (h)eraman*: v. 540.

52. *on licela*: hots, *on licelarik*, hau ere *luen*-i guztiz ongi egokiturik aldiz eta moduz. Honen antzekorik aterako da aurrerago: *licela ere* (1238), baita luzeagorik ere: *nabiz biz hala licela* (1406). Hemen hau esan nahi du, dirudienez: aditzeko ez ezen, on litzateke halaber laudatzeko baldin balitzaizu. *Bailitçatçu* dela eta, ikus 3099; 3112.
53. *guztietara*: *-i*- vokalerdia da hor, lau silaba baizik ez bait zaio zor: *guztyetara*, beraz. Ohar, gainera, hemen *-z-* dioela: ikus 9.
54. *burua eta adimendua*: hori da berez hitz andana, hor erditik ebakia eta bi bertsotan banatua badago ere, artean beste sintagma duelarik.

Creaturen podoreec bere mugac dituzte  
Ceñ guiçonec haratago çhitçen ezpaitituzte.

Prinçipalac badaquizqui, laudatçen da presuna,  
Hala ere burua du behar arduraduna.

60 Hec gustiac mucurruqui daquizquitçu, Prelata,  
çure gobernamentuan nola agueri baita.

çure orde çembait aphur daquidala Escara,  
Arren permeti eçaçu derradan iaquiara.

Ascotan manatu nauçu, gendetan hausartçera,  
Cembait exortatione probetchos eguitera.

Sujet batçuc presentatçen darotzquitçut humillqui,  
Cein baititut hobe ustez hitz lothutan ebaqui.

Arren erreçibi çaçü arrai beguitarteaz,  
Gauça chipi escañia, ona vorondateaz.

70 Ondra baiçen eztuqueçu, Iaun Prelata arrotçaz,  
Entçutea mintço dena beldurqui aharantçaz.

---

55. *podoreec*: ez da hutsa, hala dio beti, ez *podere*- (cf. *bothere*, 265); berebat *podoroso*- dio: lehen silabako *-o*-ren antzeko bihurtu da, alegia, bigarreneko *-e*-.

*bere*: ez *beren*, hemen ez inon.

56. *cein*: erlativo gisa enplegatua eta adizkiak *bait*- duelarik. Ikus 34.  
*chitcen*: Axularren *xitzen* berbera. Ikus GERO, 283, 365.

57. *principalac*: hizkuntzez ari da poeta: hots, hizkuntza prinzipalak.  
*presuna*: hots, pertsona.

59. *gustiac*: ikus 53.

*mucurruqui*: hots, sobera. *Mukurru*- edo *mukuru*- gain gainerainoko betetzea da. Lat. *cumulu*-

60. *nola*: guk *ageri den bezala* dioguna. Ikus 36.

62. *derradan*: hots, esan dezadan: *erran* aditzaren forma trinkoa. Berez eta forma soilez indikatiboa, *-(e)n* atzizkia dela bide subjuntivo balioa duena. Ikus 49.

*iaquiara*: ikus gorago: 17.

63. *hausartcera*: *b*- *darama* hasieran; hemen bakarrik, ordea: ikus, 1849: 1915.

64. *probetchos*: ez da *probetxoz*, —hori *probetchuz* dio— baizik adjetivo, *pietos*, *podoros* eta abar bezalakoa: ikus 447.

65. *darotzquitçut*: Etxeparek dioen *darauritzut*-en kidea.

*Kreatureen podoreek bere mugak dituzte,  
zein gizonek haratago xitzen ezpaitituzte.*

*Prinzipalak badakizki, laudatzen da presuna;  
hala ere burua du behar arduraduna.*

60 *Hek guztiak mukurruki dakizkitzu, Prelata,  
zure gobernamentuan nola ageri baita.*

*Zure orde zenbait aphur dakidala eskara,  
arren, permeti ezazu derradan iakiara,*

*Askotan manatu nauzu jendetan hausartzera  
zenbait exortazione probetxos egitera.*

*Suiet batzuk presentatzen darotzkitzut humilki,  
zein baititut hobe ustez hitz lothutan ebaki;*

*arren, errezibi zazu arrai begitarteaz  
gauza xipi eskainia, ona borondateaz.*

70 *Ondra baizen eztukezu, Iaun Prelata, arrotzaz  
entzutea mintzo dena beldurki abarantzaz,*

- 
66. *cein*: erlativo gisa enplegatua: ikus 56. Hemen eta han pluraleko *nor* kasuan daude; baita goragoko (34) *ceiñac* ere, ordea.  
*hitz lothutan*: hots, bertsotan, Oihenartek *neurthitzetan* eta Axularrek eta Guillentenak liburu honen beraren hasieran, Apezpiku jaunari liburuaren examinatzaile gisa bere iritzia ematen dioten hitzetan, *hitz itçuliz* dioten bezalaxe.
67. *arrai begui tarteaz*: azken bi hitzok izen konposatua osatzen dute: *begitarte*, gure *aburpegi*-ren esanahi berekoa. Biak elkarri lotzen zaizkion puntuan, gramatikazko loturan, gertatzen da etena, Etxeparegan ia beti egin ohi denez. Hemen puntua dela kausa, *beguitarte arraiaz* behar lukeen izen sintagman, hitzak — izen adjetivoak — trukaturik eman ditu.
69. *arrotçaz*: *abarantça arrotçaz* da sintagma. Puntua dela bide, halere, poetak sintagma desegin eta bi hitzak sakabanatu egin ditu, lehenbiziko bertsoan adjetiboa eta bigarrean izena ipinirik, gainera. Ikus 35. Sintagma hori, ez beste, dela segurtatzeko, begira zazpi bertso beherago dioena: *abarantça arrotz batez...*
70. *abarantçaz*: ilunxkoa bait da pasarte hau, ikus aho hizkeran lukeen hitzen ordena arrunta: «ondra baicen eztuqueçu, Iaun Prelata, abarantça arrotçaz beldurqui mintço dena entçutea». *Abarantça*-k hizkuntza esan nahi du.

Eçen Errefauac dio Erregueen ohorea  
Dela, hañitz mihitaco sujetac içatea.

Erregue baiño neuretçat, çadutzcat guehiago,  
Eta ene baitan duçula escua handiago

Arren estima eçaçu çuc ere ohorea,  
Aharantça arrotz batez sujeta mintçatçea.

Hartaracotz obra hunen patroin çaitut hautetsi,  
Gaisqui errailleac çeren baititutçu gaitçetsi.

çuri escaintçen darotçut, othoi guarda eçaçun.

80 Inuidiosen mihiac liçun eztieçaçun.

Erregueac behar ditu defendatu gendeac,  
Hitzcuntça batecoac hain vngui nola berçeac.

- 
71. *erregueen*: bi *-ee-* horiek bat balira bezala ebaki behar dira. Idatzi ere, bakarra idatzi ohi dute Etxeparek eta Etxeberrik berak ere maiz.
72. *dela*: zangalatrau dago, aurreko perpausari bait dagokio zentzuz adizki hori.
74. *duçula*: goiko *çadutzcat* hartan nolazpait gordea dagoen *dadukat* suposatu behar da hemen konpletiva honen sorburu gisa: «te tengo» hura eta «tengo para mí que» bestea. *Duçula*-k *-a* galtzen du bertsoaren ahoskatzean; sinalefa zesuran berean, beraz, Oihenartek erakutsiko duenaren kontra. Etxeparek ere baditu horrelako lau edo bost.
- escua handiago*: hots, esku handiagoa.
75. *estima... ohorea*: hots, jo ezazu ohoretzat.
76. *aharantça*: ikus 69.
77. *hartaracotz*: ikus 17; hango antzera, hemen *hartaracotz... çeren...*; hemen kataforikoa, beraz.
78. *gaisqui*: hala ageri da liburuan eta, esan bezala, ez da inprenta hutsa, agian, baizik leherkari gogorren aurrean poetak *s* eta *z* idaztean ageri duen zalantza. Ikus 9.



ezen errefauak dio, erregeen ohorea  
dela hanitz mibitako suietak izatea.

Errege baino neuretzat zadutzkat gehiago  
eta ene baitan duzula eskua handiago;

arren, estima ezazu zuk ere ohorea,  
abarantza arrotz batez suieta mintzatzea.

Hartarakotz obra hunen patroin zaitut hautetsi,  
gaizki erraileak zeren baititutzu gaitzetsi.

80 Zuri eskaintzen darotzut, othoi, guarda ezazun,  
inbidiosen mihiak lizun eztiezazun.

Erregeak behar ditu defendatu jendeak,  
hitzkuntza batekoak hain ungi nola berzeak.

---

*gaisqui erraileac ceren*: hona batek, nik bederen, erraz ulertzen ez duen beste puntua: *zeren* eta horren antzeko konjuzioak berez mendeko perpausaren hastean ipini ohi dira. Etxeberrik maiz hori horrela ez egitea barkagarri da, bertsoak bortxatzen bait du hartara. Baina hemen ez zen horren beharrik; areago, *zeren* bertsoaren hastean ipini balu, 4/4 aterako zitzaiokeen: ipini duen lekuan ipinirik, ez, berriz. Ikus: «Zeren gaizki/ erraileak // baititutzu / gaitzetsi». Zergatik egin du hori? Ezin asma.

*ceren*: adizkiak *bait*- duelarik. Ikus, ordea, 103.

79. *eçaçun*: subjuntivo izan arren, *d*- gabe; beste askotan ere bai. Ikus halere ondoko bertsoan *eztieçaçun*, *d*- duelarik. Maiz atzekoz aurrera ere bai: hots, inperativoa izanik, *d*- du: ikus 125.

82. *hain*: lehen bertso erdiaren bukaeran ipinia, bere adverbioetik zesurak bakantzen duelarik: *hain // ungui*. Etxeparegan hau ez da inola ere zilegi: *hain ungui* eta antzeko hitz andanak hertsiki lotuak dira eta ezin ditzake zesurak erditik ebaki. Ikus *hambat nola*, 26.

*berceac*: itxuraz *bercecoac* behar luke.

LEHENBICICO LIBURUAREN, LEHEN parte,  
ceña baita, Doctrina Christiana, edo Catechisma.

Apprehendite disciplinam, nequando irascatur  
Dominus, et pereatis de via iusta. Psal. 2.

Bat bederac ikhaz beça, iaincoaren leguea  
Iaquin faltaz har ezteçan, ezquerreco bidea.

---

#### IRACURTÇAILLEARI ABISVA.

Catonec ohoratu dic versuaz Italia,  
Pibracquec França eta Beríñec España.

Berriroqui minçatu duc, çuhur Ader Gascoiña.  
Guztietaric hauta çac Iesus Christen guidoiña

Ea beraz ikhas eçac saluatçeco artea,  
Ceina baita gaiñeraco çuhurtçien Andrea.

Hirur gauça çiadutçac, erran dudan arteac,  
90 Non ençerratçen baitire Iesus Christen legueac.

Hauc direla Guiristinoa behar duc seguratu  
Sinhets, obra, behar dela, Iongoicoa othoiztu,

---

85. *berriroqui*: hots, arestian, lehenxeago.

*çuhur*: Ader gaskoin zuhurra: hori litzateke berez sintagma.

86. *guidoiña*: hots, gidaritza, eskulekua.

87. *ea beraz*: oihu gisakoa da *ea* hori, ez gure *ea etxean dagoen*-en kidea.  
Etxeparek *eya* dio (VIII, 5).

*Lehenbiziko liburua lehen parte,*  
*zeina baita Doktrina kristiana edo Katexisma.*

*Apprehendite disciplinam, nequando irascatur*  
*Dominus, et pereatis de via iusta. Psal. 2.*

*Batbederak ikhas beza Iainkoaren legea,*  
*iakin faltaz har eztezan ezkerreko bidea.*

---

#### IRAKURTZAILEARI ABISUA

*Katonek ohoratu dik bersuaz Italia,*  
*Pibrakek Franzia eta Berinek Espainia;*  
*berriroki minzatu duk zuhur Ader Gaskoina;*  
*guztietarik hauta zak Iesus Khristen gidoina.*

*Ea beraz, ikhas ezak salbatzeko artea,*  
*zeina baita gainerako zuhurtzien Andrea.*

90 *Hirur gauza ziadutzak erran dudan arteak,*  
*non enzerraten baitire Iesus Khristen legeak.*

*Hauk direla, girstinoa, behar duk seguratu:*  
*sinbets, obra, behar dela Iongoikoa othoiztu.*

---

89. *çiadutçac*: *dadutza* hitanoz emana.

91. *guiristinoa*: lau silaba hemen ere: *girstinwa*. Ikus 40.

92. *sinbets*: hauak dira hiru gauzak: sinetsi, obratu, othoiztu.

*Iongoica*: hutsa da, noski, bertsoari silaba bat gehiago zor zaio.

Sinhestea asqui eztuc, non eztuen obratcen,  
Ecen Iaunac obrara dic guehienic behatcen,

Othoitcean lauda eçac lehen eta biciric,  
Eta guero esca aquio behar duen gauçaric.

Içan duen fauoreaz, guero bihur esquerra,  
Aldarearen oiñera goiz eguinic lasterra.

100 Eguinbide hauc guztiaç nahi baituc ikhassi,  
Ikhus etçac nola diren elkharrequin nahassi.

Othoitzteco façoinaren ordean exemplua,  
Christauaren doctriñatic ikhus eçac hartua:

Ceren Christoren hitzac maiz behar tugun ahoan,  
Eta orationeac guero hequin ondoan.

Ecen ardiastecotçat beharrezco premia,  
Sinhetzac, othoitza dela gustiz moian handia.

Guero sarri tuc othoitçac, berehala esquerrac,  
Iaunaren ganic fiñean, partiada ederrac.

- 
93. *eztuen: hik*, ez *bark*, eta hainbestez bertso bereko *asqui eztuc* ere hitano zuzentzat hartzea hobe, noski, *da*-ren hitanotzat baino; hots, *eztuk hik aski*. Euskara batuan bereizten ditugun *duan* eta *duen* Etxeberrigan *duen* dira biak.  
*non eztuen*: non adizkiari *bait-* erantsiz darabil maiz poetak; ikus lau bertso gorago. Hemen ez, ordea; *bait-* nahiz *-(e)n* hartzen duelarik, oso balio desberdinak ditu. Hemen kondizionala dirudi.
94. *ecen... dic*: garbi dago *ezen* ez dela menderatzailea, hitanozkoa bait du adizkia. Ikus 232.  
*dic... behatcen*: Etxeparegan *behatu* iragangaitza da.
95. *lehen eta biciric*: *lehenbizi* edo *lehenbizirik* laburregi gertatzen eta, bertsoa betetzeko, forma hori darabil hemen eta bestetan. Guk *lehen-dabizi* diogun bera da, noski.
96. *esca aquio*: hemen elisioa gertatzen da, beste askotan ez bezala. Bertsoa hamabost silabatara erakartzeko Etxeparegan baino askoz fonetika al-dakuntza gutiago egin behar da Etxeberrigan; honengan, alegia, bertsoak ikusi batera ere ia beti 15 silaba ditu.  
*esca*: jakina denez, antzineko idazleengan aditz hau iragangaitza da.
97. *duen*: ikus arestian esana: 93.  
*içan*: eta ez *uken*; Axularrek ere ez inoiz: ikus 72.
99. *baituc*: hots, *badituk*, *d-* apokopez kendurik. Etxeparegan ere bai inoiz.

*Sinbestea aski eztuk, non eztuen obratzen,  
ezen Iaunak obrara dik gehienik behatzen.*

*Othoitzean lauda ezak lehen eta bizirik  
eta gero eska akio behar duen gauzarik.*

*Izan duen faboreaz gero bihur eskerra,  
aldarearen oinera goiz eginik lasterra.*

100 *Eginbide hauk guztiak nabi ba'ituk ikbasi,  
ikbus etzak nola diren elkharrekin nabasi.*

*Othoizteko fazoinaren, ordean, exenplua  
khristauaren doktrinatik ikbus ezak hartua,  
zeren Khristoren hitzak maiz behar tugun aboan  
eta orazioneak gero hekin ondoan,*

*ezen ardiastekotzat beharrezko premia  
sinhetzak othoitzza dela guztiz moian handia.*

*Gero sarri tuk othoitzak, berebala eskerrak,  
Iaunaren ganik finean partiada ederrak.*

- 
100. *ikbussetçac*: -t dio testoak eta *ikbuts*- gainera, baina biak inprenta hutsak dira; *ikbussetçac* behar du. Pluraleko -it- ez baino -et- ageri da poetarengan: ikus 45.
101. *ordean*: hala dio beti gure *ordea*; baita *orain*, *bainan* ere, Etxepareren *orai*, *bana* ordez. *Ordean*, Axularrengan bezalaxe, joan daiteke perpausaren hastean. Izen sintagma (*façoinaren exemplua*) erditik ebaki eta artean sartu du *ordean*.
102. *ikbuz*: hots, *ikbus*. Inoiz hitz azkeneko -s horrela idazten du; Tartasengan ere nabari da zalantza hori oso maiz: ikus 9.
103. *ceren*: hemen adizkiari -en erasten diolarik. Ikus 78.  
*tugun*: hots, *ditugun*, *di*- silaba galtzen utzirik. Ikus 37.
104. *bequin*: genitivoa da: ikus 48.
105. *ardiastecotçat*: hots, *ardiasteko* edo *iristeko*. Leizarragak bezalaxe balio finala dutenean, *adintçat*, *dadintçat* eta abar idazten du Etxeberrik; -tzat hori bera du honako izenki honek: ikus 204.
106. *sinhetzac*: hots, *sinhetsak*: -ts + zak; eta *sinhetsac* dio bestetan, baina bertso honetan eta bestetan s eta z arteko betiko zalantza nabari da: ikus *sinhets*, 92.  
*gustiz*: ikus 9.  
*moian*: Etxeparek eta Axularrek ez darabilte hitz hau, baina Tartasek bai: *moien*-.
107. *tuc*: hots, *dituk*. Ikus 103, 37...

- 110 Catholicoen doctriña hala diat moldatu,  
 Othoitz eguiten duela, gogoan deçan hartu.  
 Guero cer esca aiteque, gauça hobeagoric,  
 Manamenduen gratia baiño complitcecoric?  
 Illhabethe oro behin iracurrac guztia,  
 Iesus Christoc munduari declaratu eguia.  
 Noicic behingoac ere, heure eguinbidera,  
 Atçarturen au manuen ereduz bizitcera.  
 Baiñan othoitz eguiteco, apartean lekha,  
 Iduquiçac çartço eta soiñutic urrundua.  
 Paretean hedaturic, Imagina ederqui,  
 120 Eta ur benedicatua bazterrean chahuqui.  
 Gogoetac khassaturic, lurreraïño belhauna,  
 Guero plega eta eçagut, nola aicen illhauna.  
 Nahis uda dela eder, edo aspre negua,  
 Iaincoaren othoizteco hau duc erremangua.

- 
110. *duela*: esan bezala, *bik*. Ikus 93.  
*deçan*: hau ere *bik*; gure *dezaan*, beraz. Ikus, aldiz, 28.  
*hartu*: ez *har*, behar lukeenez; puntuak bortxaturik, noski.
111. *esca*: ikus 96.
112. *manamenduen*: hau esan nahi du: manamenduen konplitzeko grazia baino.  
 Bertsoak bortxaturik, hitzen ordena erabat nahasi du, *grazia* eta *baino*  
 zesuraz erdibitu eta *complitceco*-ri berea ez duen atzizkia lotu.
113. *iracurrac*: hots, irakur ezak.
114. *guztia... eguia*: hau esan nahi du: irakurrak Jesukristok munduari de-  
 klaratu (dion) *egia guztia*. Baina puntua aterako bazuen, *egia guztia*  
 den sintagma puskatu eta bi hitzak bertso banatan barreiatu ditu.  
 Lehenean adjetiboa eta bigarreanean izena ipinirik, gainera. Ikus 69.
115. *heure*: *hire/heure*, *gure/geure* eta abar beti bereizten ditu, baita pluraleko  
 direnean ere; Etxeparek ez, singularrekoak bakarrik bereizten ditu  
 honek, eta ez beti, Oihenarten moduan.
116. *atçarturenau*: hots, iratzarriko hau, ernaituko hau. Zertara? Heure egin-

- 110 *Katholikoan doktrina hala diat moldatu,  
othoitz egiten duela gogoan dezan hartu.*  
*Gero zer eska aiteke gauza hobeagorik  
manamenduen grazia baino konplitzekorik?*  
*Ilhabethe oro behin irakurrak guztia  
Iesus Khristok munduari deklaratu egia.*  
*Noizik behingoak ere heure eginbidera  
atzarturen au, manuen ereduz bizitzera;*  
*bainan othoitz egiteko apartean lekhua  
idukizak, zartzo eta soinutik urrundua.*
- 120 *Paretean bedaturik imajina ederki  
eta ur benedikatua bazterrean xabuki;*  
*gogoetak khasaturik, lurreraino belhauna  
gero plega eta ezagut nola aizen ilhauna.*  
*Nahiz uda dela eder edo aspre negua,  
Iainkoaren othoizteko hau duk erremangua.*

---

bidera eta manuen, hots, manamenduen, ereduz bizitzera. Ohar, esan bezala, gure *hau*-k ez duela *b*-rik. Ikus 48.

117. *lekhua*: honek eta *iduiquicac* adizkiak hitz andana osatzen dute, bakandu egin baditu ere: zangalatrau.
118. *çartço*: hots, zarata. Ikhus Lhande, 1075.
120. *eta ur*: bi silabaz ebaki behar dira, *-a* eta *u*- diptongo bailira.
121. *khassaturic*: Tartasek behin eta berriro *akhaçatu* dioena: *chasser*.
122. *eta eçagut*: sinalefa egin eta lau silabaz ebaki behar da.  
*nola aicen*: hots, *aizela*. Hemen *nola* konpletiva ordezkua da, beraz.
124. *othoizteco*: Etxeberrik *othoiztu* dio beti (ikus 92); Oihenartek *othoitu* (ikus V,19; 17,114). Etxeparek ezin jakin, haren *othoycera* (I,394) bietarik jalkia bait daiteke eta bestetan ez bait darabil. Baina ikus I,22: *othoy (adi?)*. Hala dirudi.  
*erremangua*: bertso hau honela itzultzen du Lhandek: «voici la préparation pour prier Dieu»: ikus Hiztegia, *erremangu*, or. 269.  
*ecin conda bekhataz*: *ahala* gabe: ikus 2244.

## DOCTRINA CHRISTIANA

### Othoitz gvisa

#### SARTCEA

- Iauna khen dietçadatçu gogoetaco harrac,  
Landa behar alhorrari, nola kharlolaharrac,  
Eta dietçaquidatçu chahu falten cikhiñac,  
Guero issurpreciatu garacien dohaiñac.  
Hartaracotz vr sainduaz chahutcen dut belharra,  
130 Iongoicoa, ikhus açu arren ene beharra.  
Gurutceaz halaber dut armatcen bekhoquia,  
Gaitcetic defenda çacu arren ene bicia.  
Imagina sainduaren oiñera naiz hurbilltzen,  
Eta haren aitciñean belhaurico humilltzen.  
Ohorea har eçacu arren onen partera,  
Eta visaia aldara etçaçula bercera.

- 
125. *dietçadatçu*: inperativoa delarik ere, *d-* du, esan bezala: ikus 79.  
126. *beber*: inprenta hutsa dirudi *behar*-en ordez.  
*kharlobarrac*: hots,  
*nola*: konparaburuaren aurrean ezarria, Lafonek dioenez hizkuntza erro-  
manikoen kutsuz. Etxeparek ere bai batzuetan: *nola gayzquiguilia*  
(I,116), *nola ardi yxuya* (I,403).  
127. *dietçaquidatçu*: hemen ere *d-*, inperativoa izan arren. Aurrekoa (125) eta  
hau adizki bera dira: biak *zuk-neri-gauzak*, baina hark (*dietçadatçu*)  
ez du dativo aurreko *-ki-* artizkirik eta beste honek bai. Horrez gain,  
pluralgilea *-t-* soila da.  
128. *preciatu*: *garazi preziatuen dohainak* litzateke ordena arrunta; ez bertsoak  
onartzen, ordea, eta izen adjetivoak trukatu ditu. *Preciatu* eta *preçatu*,  
biak darabiltza: ikus 1136.  
*garacien*: ia beti *gratia* dio, baina hemen *garazi-*: ikus ere 903.  
129. *belharra*: hots, *bekokia*; hauxe darabil bi bertso beherago.



## DOKTRINA KRISTIANA

*otboitz gisa*

### SARTZEA

- Iauna, khen dietzadatzu gogoetako harrak,  
landa behar alhorrari nola kharlolabarrak,  
eta dietzakidatzu xahu falten zikhinak,  
gero isur preziatu garazien dohainak.*
130. *Hartarakotz ur sailduaz xabutzen dut belharra,  
Iongoikoa, ikhus azu arren ene beharra.*
- Gurutzeaz halaber dut armatzen bekhokia,  
gaitzetik defenda zazu, arren, ene bizia.*
- Imajina sailduaren oinera naiz hurbiltzen  
eta haren aitzinean belhauriko humiltzen.*
- Ohorea har ezazu, arren, onen partera  
eta bisaia aldera etzazula berzera.*

- 
130. *arren*: hemen, eta ondoko sei bertsoan beste bi bider, *arren* bigarren bertso erdiaren hasietan ageri da. Gorago, aldiz, (62,67,75) bertsoaren hastean.
131. *dut armatzen*: hau eta geroxeago *naiz hurbilltzen*, partizipioa eta laguntzailea trukaturik, huskeriak dira Etxeberrikeri beretzat hartzen dituen beste baimenen aldean. Bigarren hori, gainera, puntuak eragin dio.
133. *imagina sailduaren oiñera*: badaki, beraz, poetak, bertsoak uzten dionean, izen sintagmak hizkera arruntean duten ordenan ipintzen ere. Maiz trukatzeko baditu, egiten duen bezala, bertsoaren edo puntuaren bortsaz trukatzeko ditu, beraz. Baina ez beti: ikus 78; 42; 2032.
135. *onen partera*: hots, onak dauden aldera.
136. *etzazula*: eta ondoko bertsoan *etzazula*, singularra eta plurala. Ez *deza-* *zula* eta *ez detzatzula* behar lukete, noski, osorik idazteko; *de-* falta dute, beraz; hor ere pluralgilea *-t-* soila dela nabari da: ikus 45.

Halaber ene othoitçac etçatçula arbuia,  
Ceren naicen ecin conda, bekhatuz estalia.

BVRV I.

*Laudorioac lehenic Iainco berari berac  
ordenatu gaucez.*

- 140 Laudatcen dut, Iongoicoa, çure maiestatea,  
Eta aithortcen spiritu miraculluz bethea.
- Laudatcen dut içate bat presuna hiruretan,  
Aita, Seme, Spiritu Saindua, deithuetan.
- Aita beçain semea çare çuhur, puchant, fin gabe,  
Baita çu spiritua halaber duda gabe.
- Lauda bada eta othoizten çaitut Iainco handia,  
Presunatic hirur eta içate bat guztia.
- Munduari çuc ciñotçan eman, legue hirurac,  
Naturazco, scribuzco, gratiazco segurac.
- 150 Orain dugu Guiristiñoec cerbitçatcen azkena,  
Eliçama Catholicac bessarcatcen duena.
- Christau guztia eguin tutçu obra onetan partale,  
Baldin çure manuaren badire guardatçaille.
- Legue hunec iraunen du fiña artean mundua,  
Eta orduan daiteque azken iuiamendua.

---

138. *ceren*: hemen ere adizkiak *-en* duelarik. Ikus 103.

139. *Ioingoicoa*: hala dio liburuak, baina *Ion-* behar du.

140. *aithortcen*: berriro *dut* esan gabe, aurreko bertsoan dagoenez eta bi perpausak *eta*-k loturiko koordinadak direnez gero. Lewy-k Etxeparegan idoro zuen lege hori Etxeberrik ere maiz betetzen du: ikus 3-4; 5-6; 7-8; 11-12 etab.

*spiritu*: hamabostekoen eskema (4/4//4/3) hobeki betetzearren, ene ustez *espiritu* ahoskatu behar da eta *-a a-* elisioz batu. Ikus bi bertso beharago ere: 142, 144...

143. *beçain*: hitz honen ondo-ondoan *çuhur*, *puchant*, *fin gabe* behar litzateke berez.

*Halaber ene othoitzak etzatzula arbuia,  
zeren naizen ezin konda bekhatus estalia.*

BVRV I.

Laudorioak lehenik Iainko berari berak ordenatu  
gauzez.

140 *Laudatzen dut, Iongoikoa, zure maiestatea  
eta aihortzen espiritu mirakuiluz bethea.*

*Laudatzen dut izate bat presuna hiruretan  
Aita, Seme, Espiritu saindua deithuetan.*

*Aita bezain Semea zare zubur, puxant, jin gabe,  
baita zu, Espiritua, halaber duda gabe.*

*Lauda, bada, eta othoizten zaitut, Iainko handia,  
presunarik hirur eta izate bat guztia.*

*Munduari zuk zintozan eman lege hirurak,  
naturazko, eskribuzko, graziazko segurak.*

150 *Orain dugu giristinoek zerbitzitzen azkena,  
Eliz Ama katolikak besarkatzen duena.*

*Khristau guztiak egin tutzu obra onetan partale,  
baldin zure manuairen badire guardatzaile.*

*Lege hunek irauen du fina artean mundua  
eta orduan daiteke azken iuiamendua.*

---

*semea*: bi silaba baizik ez du: *semya*.

145. *bada*: ez dut uste bertso hasieran inoiz ageri denik; *beraz* ere ez, behin izan ezik (1545). Ikus, ostera, Etxepareren eta Axularren jokabidea bi hitz horiei buruz: *Versificación de Dechepare*, or. 272.

147. *ciñotçan*: hots, euskara batuan zenizkion.

148. *scribuzco*: hau ere *eskribuzko* ahoskatu behar da; ikus 140.

149. *guiristiñoec*: ez du lau silaba baizik.

151. *guztiac*: ahoska *guztyak*; eta *obra onetan* sinalefa eginik.

153. *fiña artean*: elisioa egin eta *finartean* irakurri behar da.

154. *daiteque*: *daite* ere badarabil; maiz, ordea, *daiteque* gure *dateque* da.

Hauc gustiac ceren tutçun ordenatu hunela,  
Orain eta bethiere laudatua çarela.

BVRV II.

*Laudorioac Aitareen presunari.*

Ceure obrez nahi çaitut, Iainco Aita, altchatu,  
Ceru lurrac ceren tutçun pena gabe moldatu.

160 Ceren guiçonac ditutçun, ezteussetic athera,  
Gloriaren emateco cerbitçuen aldera.

Bai halaber gaztigua, baldin eta çureac,  
Ahalque gabequi hausten bacituzten legueac.

Laudatcecoa da beraz çure goratassuna,  
Ceren eracutsi baitu bere iustutassuna.

*Laudatcen da oraiño eman tuen hamar manuez.*

Çure legueac hauthec dire, Sinaico Mendian  
Berce orduz Moiseri emanac Arabian.

Iongoico bat onhets eçac eta adora deuotqui,  
Eta haren icenaz ez ciñic eguin vanoqui.

170 Guehiago beguira çac igandea saiñduqui,  
Eta burassoac ondra, bici adin lucequi.

- 
155. *ceren tutçun*: normalago zatekeen, agian, bi hitz horiek bertsoaren hastean ipini balitu: ikus 78; adizkiak *-(e)n* hartu du: ikus 138.
156. *çarela*: ez *zaitzela*, baizik indikativoa *-(e)la* duelarik; baina *lauda zaitzatela*, ez *zaitzuela*: ikus 348. Indikativoa, izan ere, adizkia laguntzailea ez, baizik bere eskukoa denean, partizipiorik ez daramanean, bakarrik erabil daiteke. *Laudatua* adjetivoa da, ez partizipioa.
157. *ceure*: esan bezala (115), pluralekoetan ere beti bereizten ditu *zure* eta *zeure*; hots, reflexio gabea eta duena.
158. *ceren tutçun*: ikus 155. Hemen ere *ceru lurrac* sintagmari aurrera ziezaiokeen *ceren tutçun*: ikus 155.
159. *ceren*: hemen, ostera, perpausaren hasieran ipini du *ceren*.
160. *aldera*: *trukean* edo esan nahi du ia beti Etxeberrigan.

*Hauk guztiak zeren tutzun ordenatu hunela,  
orain eta bethiere laudatua zarela.*

## BURU II.

Laudorioak Aitaren presunari.

*Zeure obrez nahi zaitut, Iainko Aita, altxatu,  
zeru lurrak zeren tutzun pena gabe moldatu,  
160 zeren gizonak dituzun ezteusetik athera  
gloriaren emateko zerbitzuen aldera,  
bai halaber gaztigua, baldin eta zureak  
ahalke gabeki hausten bazituzten legeak.  
Laudatzekoa da, beraz, zure goratasuna,  
zeren erakutsi baitu bere iustutasuna.*

Laudatzen da oraino eman tuen hamar manuez.

*Zure legeak hauxek dire, Sinaiko mendian  
berze orduz Moiseri emanak Arabian:  
Iongoiko bat onhets ezak eta adora debotki  
eta haren izenaz ez zinik egin banoki.  
170 Gebiago, begira zak igandea sailduki  
eta burasoak ondra, bizi adin luzeki.*

- 
161. *çureac... legueac*: printzatur dago izen sintagma eta bi bertsoan zehar barreiatua, puntua dela bide: ikus 114.
164. *ceren*: aurreko hiruretan ez bezala (155,158,159) hemen *bait-* hartu du adizkiak.  
*bere*: inprenta hutsa da, agian; *bere* esan nahi du.
165. *legueac*: bi silaba zor zaizkio: *legyak*.
166. *Moiseri*: lehen bertso erdiak 8 silaba izango baditu, edota hitz horrek lau silaba ditu (*Mo-i-se-ri*) edota inprenta hutsa da eta *Moiseseri* irakurri behar da. Lehena, nik uste: ikus 1709. Ohar, Frantsesez ere *Moïse*-k hiru silaba dituela.
167. *onbetz*: hitzaren azkenean *s* eta *z*-ren arteko zalantza. Ikus 106; 92.  
*eta adora*: elisioa egin behar da.

Nihor hill ezteçaquela, ez bihotcez gaitcetsi,  
Ecen vengantcen Iaincoa ni behar nauc sinhetsi.

Paillardiča higuinari eguioquec ihessa,  
Gutziz ere ez desira lagunaren espossa.

Berceren ona hain guti, beharco duc iduqui,  
Gutziz ere hauçoaren ontassuna ez vqui.

Fiñean mihiari emoc guardia, ezten gueçurti,  
Eta aicen falseria irauztera beldurti.

*Bi manu principalenac.*

180 Havc bi manamendutara biltcen dituc laburqui,  
Ceñac gogoan har ahal baitetçaquec errachqui.

Ingoico bat onhetz eçac gauça guztien gaiñetic,  
Eta Christau laguna ez heronez beheretic.

Hauc biac berriz biltcen tuc batetara fiñean,  
Iaquiteco behar dela, bici Christau leguean.

Hau da bada, Iainco Aita, eman duçun leguea,  
Ontassunez, iustitiaz, çuhurtciacz bethea.

Legue hartan ordenantça hamar tutçu manatu,  
Ceñac behar baititugu erresetuz guardatu

190 Hec guztiaz aiphatu tut, çaradela laudatu,  
Ene probetchuagatic ceren tutçun moldatu.

---

171. *ezteçaquela*: horren ondoan *ezteçala* ere aurkituko dugu, ordea: ikus 110, *deçan*; 220.

*ez*: gaztelaniazko «no... ni...» horren bigarrena *ez* soilez ematen du maiz, baina baita *ezta* edota *ez eta*-ren bidez ere. *Ere* ez dut, ustez, inoiz aurkitu; hots, Etxepareren *ezetare* < *ez eta ere*.

172. *vengantcen Iaincoa*: *ni*-ren aposizioa, noski.

173. *eguioquec*: geroaldiko inperativoak, *-ke-* dutenak, maiz ageri dira.

175. *bain guti*: «tan poco», hots, «tampoco».

177. *fiñean*: bi silaba ditu: *fiñyan*.

*guardia*: honek ere bai, bi silaba: *guardya*.

178. *aicen*: formaz indikativoa, *-(e)n* atzizkiaren bidez inperativo balioa duena; *emoc eta aicen*, beraz, ez *ezten* eta *aicen*. Baina, ohar: bere eskuko delako, ez laguntzaile. Ikus 156: *çarela*; batean *-(e)n*, bestean *-(e)la*.

*Nihor hil eztezakela, ez bihotzez gaitzetsi,  
ezen bengantzen Iainkoa ni behar nauk sinhetsi.*

*Pailardiza biguinari egiokek ihesa,  
gutziz ere ez desira lagunaren esposa.*

*Berzeren ona hain guti beharko duk iduki,  
gutziz ere hauzoaren ontasuna ez uki.*

*Finean mihiari emok guardia, ezten gezurti  
eta aizen falseria irauztera beldurti.*

Bi manu prinzipalenak.

180 *Hauk bi manamendutara biltzen dituk laburki,  
zeinak gogoan har abal baitetzakek erraxki:*

*Iongoiko bat onhets ezak gauza guztien gainetik  
eta kbristau laguna ez heronez beheretik.*

*Hauk biak, berriz, biltzen tuk batetara finean,  
iakiteko, behar dela bizi kbristau legean.*

*Hau da, bada, Iainko Aita, eman duzun legea,  
ontasunaz, iustiziaz, zuhurtziaz bethea.*

*Lege hartan ordenantza hamar tutzu manatu,  
zeinak behar baititugu errespetuz guardatu.*

190 *Hek guztiak aiphatu tut; zaradela laudatu,  
ene probetxuagatik zeren tutzun moldatu.*

---

180. *ceñac*: ikus 66.

181. *onhetz*: ikus 167; baina *sinhets*, 92.  
*guztien*: bi silaba ditu bertso honetan: *guztyen*.

182. *heronez*: *heroni*-ren kasu instrumentala: ikus *heronec*, 219. Hauxe esan nahi du: heure buruaren azpitik.

184. *iaquiteco*: guk *alegia*, edo *hots* dioguna: «a saber».

188. *ceñac*: ikus 180.

189. *çaradela*: lehengo (156) *çarela*-ren kidea: *zare* eta *zarade*. Hortaz han esanen arabera, honako *laudatu* hau ere partizipioa baino gehiago adjetivoa da. Etxeparegan ere bada horrelakorik.

190. *ceren tutçun*: ikus 158; hemen ezin zezakeen bertsoaren hastera aldatu andana hori; eskemak ez zion inola uzten.

*Laudatcen da oraiño Iainco Aita bere Manamenduez, ceñen contraco bekhatuac deitcen baitire cerüari mendecu esque dagozcan bekhatuac.*

Halaber tut gaiñeraco ordenantçac aiphatcen,  
Etçaitut ordean hala ere asqui laudatcen.

Bat bederac (diuscuçu) begira du hilltcea,  
Nahiz Christau eçaguna edo arrotz ustea.

Haraguizco atseguinac naturaren contrara  
Har detçana, condemnatcen diat suco penara.

Atsecabe probeari eguitea eztuc gaitz,  
Halacoari ordean ni niatçaioc bekhaitz.

200 Ezteçaquela tormenta emachurtz nerhabea,  
Ez alhargun, ceñac baitu galdu bere habea.

Languillea pagaturic ioateco duc ohera,  
Haren madariciñoa eztathorren etchera.

Bekhatu hauc ciaudecec mendecu esque cerura,  
Behaztopa eçadintçat iduqui çac ardura.

Iainco Aita, nor dagoque çu laudatu gaberico,  
Ordenantça hain iustuac çure ganico harturico.

Laudatua çaradela goiz eta arratzaldean,  
Mundu hunec dirauqueño guiçonon batçarrean.

---

tit.. *ceñen*: erlativo gisa behin eta birritan atera denaren pluraleko genitivoa; adizkiak, beti bezala, *bait-* du.

192. *hala ere*: zesurak aldentzen ditu elkarrengandik bi hitzok, *ere* enklitika den arren. Ikus 6.

193. *beguira du*: ez dirudi indikativo soila — formaz bai, noski —, ez perpaus adierazkorra; *beguira dic* esango luke, hika ari bait da. Iainkoaren aginduez ari denez gero, inperativo izatea dagokio. Ba ote? Nik hala uste. Honek bete betean sendotuko luke Etxepareren beste bertso hartakoa ere inperativoa izatea, Lafonen kontra nik uste dudana bezala: ikus VIII,6: *Horlaco bat eztuc uste nyc icussi dudala*.

196. *har detçana*: zangalatrau dago.

198. *niatçaioc*: Etxeberriren obra iturri joria da antzineko hitano formak aztertzeko. Piloa agertuko da; hau *natçaioc*-ren hitanoa da, noski.



Laudatzen da oraino Iainko Aita bere manamen-  
duetz, zeinen kontrako bekhatuak deitzen baitire  
zerüari mendeku eske dagozkan bekhatuak.

*Halaber tut gainerako ordenantzak aiphatzen;  
etzaitut ordean, hala ere, aski laudatzen.*

*Bat bederak (diuskuzu) begira du hiltzea,  
nahiz kbristau ezaguna edo arrotz ustea.*

*Haragizko atseginak naturaren kontrara  
har detzana, kondenmatzen diat suko penara.*

*Atsekabe probeari egitea eztuk gaitz;  
halakoari, ordean, ni niatzaiok bekhaitz.*

200 *Eztezakela tormenta emaxurtz nerhabea,  
ez albargun, zeinak baitu galdu bere habea.*

*Langilea pagaturik ioateko duk ohera,  
haren madarizinoa eztathorren etxera.*

*Bekhatu hauk ziaudezek mendeku eske zerura,  
behaztopa ez adintzat iduki zak ardura.*

*Iainko Aita, nor dagoke zu laudatu gaberik,  
ordenantza hain iustuak zure ganik harturik?*

*Laudatua zaradela goiz eta arratsaldean,  
mundu hunek diraukeino gizonen batzarrean.*

---

199. *ezteçaquela*: ikus 171.

*nerhabea*: edo *norhabe* ere bai *mutiko* nahiz *neskato* da: ikus Lhande, or.  
776,782.

200. *ez albargun, ceñac*: ez dela eta, ikus 171. Erlativo hori murrizgarri edo  
restriktiboa da: ikus 2334; 2638.

201. *ioateco duc*: *bik*, noski; *guk joan behar duk* esan ohi duguna.

203. *ciaudecec*: hitanoa; ← *daudez*. Ikus 362.  
*mendecu esque*: ahoska *mendekweske*.

204. *eçadintçat*: ikus 105.

207. *laudatua çaradela*: ikus 189.  
*arratzaldean*: -s- orde; ikus 167.

*Laudatcen da guehiago, berceric bekhatutan  
ez sarraracitceco manuez.*

- 210 Halaber da, Iainco Aita, çure vorondatea,  
Berceri eztiçoğun eraguin hutsartea.  
Baiñan guibela deçagun ahaleguin guztiaz,  
Hala hitz sainduaz nola tatcha gabe biciaz.  
Baita premian deçagun pietosqui fauora,  
Eta çure gatic gauça hauc obretan athera.  
Hartaracotz eman tutçun iustu manamenduac  
Arraçoin da gure ahoan maiz diren aiphatuac.  
Ez eror aracitceco bekhatutan bercea,  
Hau da bada, Iainco Aita, eman duçun leguea.
- 220 Guehiegui baicen eztuc heronec faltatcea,  
Ezteçala bekhatutan sararaci bercea.  
Nahiz dela conseillatuz, manuz, tarritamenduz,  
Lausengu edo lagunduz ezta consentimenduz.  
Ezteçaquela defenda itsussi den haucia,  
Baiñan guiçartean errac den beçala eguia.  
Ez aditu itchurapen eguiten duenari,  
Barkhatuco etcioat halaco dobleari.  
Arraçoiña sostenga çac, dohala ere bicia,  
Eta itsu errespetu guiçonenei beguia.
- 230 Hire faltaz offensatcen nihorc banau gaichtoqui,  
Haren falta pagaturen hic darotac garratzqui.

- 
210. *eztiçoğun*: ez dio *-la*, *vorondatea*-ren kompletiva delarik; hots, *nabi-k* *-en* hartzen du, ez *-(e)la*.
213. *baita*: ikus 171. Han *ez-i* buruz esanak balio du *bai*-rentzat ere. *Baita*, *bai eta* ageri dira, baina *baita... ere* ez, oker ez banago. *Baita* eta *bai*, *ordea*, *halaber* erantsiz indartu ohi ditu inoiz.
214. *gauça hauc*: zesurak erdibitzen dituelarik.
215. *iustu manamenduac*: hots, manamendu iustuak. Ikus 128.
216. *ahoan*: ahoska ezazu *abwan*.  
*diren*: ez daitezen. Ikus 178.

Laudatzen da gehiago, berzerik bekhatutan  
ez sarrarazitzeko manuez.

- 210 *Halaber da, Iainko Aita, zure borondatea  
berzeri eztiozogun eragin hutsartea,  
bainan gibela dezagun ahalegin guztiaz  
hala hitz sailduaz nola tatxa gabe biziaz,  
baita premian dezagun pietoski fabora  
eta zure gatik gauza hauk obretan athera.  
Hartarakotz eman tutzun iustu manamenduak  
arrazoin da gure aboan maiz diren aiphatuak.  
Ez eror arazitzeko bekhatutan berzea  
hau da, bada, Iainko Aita, eman duzun legea:*
- 220 *Gehiegi baizen eztuk heronek faltatzea,  
eztezala bekhatutan sarrarazi berzea,  
nahiz dela konseilatuz, manuz, tarritamenduz,  
lausengu edo lagunduz, ezta konsentimenduz.  
Eztezakela defenda itsusi den hauzia,  
bainan gizartean errak, den bezala, egia,  
ez aditu itxurapen egiten duenari,  
barkbatuko etzioat halako dobleari.  
Arrazoina sostenga zak, dohala ere bizia,  
eta itsu errespetu gizonenei begia.*
- 230 *Hire faltaz ofensatzen nihork banau gaixtoki,  
baren falta pagaturen hik darotak garrazki.*

- 
217. *aracitceco*: ez *arazteko*; hala da antzineko idazle askorengan. Ikus Etxepareren hitzaurrea: *imprimi eraci diçaçun*.
219. *guebiegui*: hau esan nahi du: gehiegi duk herrorek faltatzea, besteri ere huts eragiten ibili gabe.  
*heronec*: ikus *heronez*, 182; baina *herori* ere bai: 3469.
220. *ezteçala*: ikus, ordea, *ezteçaquela*: 171; 223.
222. *ezta*: ikus 171.
226. *etcioat*: hitanoa: ← *ez diot*.
227. *dohala ere*: sinalefa behar da; *dohala nor-nori* da: hiri, alegia.
228. *errespetu guiçonenei*: hots, gizonen errespetuei.

Ni lurrean ondra naçac guztien gañecoa,  
Ecen ene ganic die erregueec khoroa.

Eztuela ahalqueric ene deffendatcera,  
Eztiqueat nic halaber hire fauoratcera.

Hautçaz ere, Iainco Aita, çaradela laudatu,  
Ceren tutçun ordenantça hain iustuac manatu.

*Laudatcen da obra misericordiascoen alderaco  
manuez eta lehenic spiritualeneracoez.*

Nahi duçu guehiago, gaizqui bici direnac  
Viciotic guibelera detçagun sarrienac.

240 Guehiago beharrean dagoena conseilluz  
Guida çagun iaquintassun gueurearen ereduz.

Baita consola deçagun gaitz handiac hartua  
Eta patientqui paira etsaien affrontua.

Niholatan mendecuric ezteçagun desira,  
Gaichtoaren punitceco çaudecela beguira.

Othoitz eguin dieçaçugun hillez eta biciez,  
Bai halaber atsecabe guri eguin nahiez.

*Corporaleneracoez.*

Hauc dirade arimaren fauore handienac,  
Hauthec berriz gorputçaren çazpi aiphatuenac.

250 Gosse gaitcec edo egarric daramana hobira  
Nahi duçu deit deçagun gueure barazquarira.

---

231. *guztien gañecoa*: *ni*-ren aposizioa.

232. *ecen... die*: *ecen* ez da menderatzailea. Ikus 94.  
*die*: hitanoa: ← *dute*.

233. *eztuela*: ez ez *dezaala*; indikativokoa du erroa, bere eskuko forma denez gero, ez laguntzailea; beste bertsoetan (199, 220, 223) *-za-* erroaz baliatu da, laguntzaile soila bait zen. Ikus, ordea, 178,193,189,297,216.

234. *eztiqueat*: hitanoa: ← *extuket*.

235. *çaradela laudatu*: ikus 207; 189; 233.

236. *ceren tutçun*: ikus 190.

238. *detçagun*: ikus *vorondatea*-ri buruz esana: 210.  
*sarrienac*: ahalik gehien ala ahalik lasterren?

*Ni lurrean ondra nazak guztien gainekoa,  
ezen ene ganik die erregeek khoroa.*

*Eztuela abalckerik ene defendatzera,  
etzikeat nik halaber hire faboratzera.*

*Hautzaz ere, Iainko Aita, zaradela laudatu,  
zeren tutzun ordenantza bain iustuak manatu.*

Laudatzen da obra miseriakordiazkoen alderako  
manuez eta lehenik espiritualenerakoez.

*Nahi duzu, gebiago, gaizki bizi direnak  
biziotik gibelera detzagun sarrienak.*

240 *Gebiago, beharrea dagoena konseiluz  
gida zagan iakintasun geurearen eredu,  
baita konsola dezagun gaitz handiak hartua  
eta pazientki paira etsaien afrontua.*

*Niholatan mendekurik etezagun desira,  
gaixtoaren punitzeko zaudezela begira.*

*Othoitz egin diezazugun hilez eta biziez,  
bai halaber atsekabe guri egin nahiez.*

Korporalenerakoez.

*Hauk dirade arimaren fabore handienak,  
haukek, berriz, gorputzaren zazpi aiphatuenak:*

250 *gose gaitzek edo egarririk daramana hobira  
nahi duzu deit dezagun geure barazkarira,*

---

240. *çagun*: hots, *dezagun*, apokope duelarik: ikus 136.  
*iaquintassun geurearen*: hots, geure iakintasunaren.

241. *baita*: ikus 213.

*gaitz handiac*: nork ala nor? *Nork*, noski; ikus 3803; hemen *hartua* pasiva da, beraz. Ikus, osteraz, 1863; 1906; 2148 etab.

244. *çaudecela*: eta *zaudela*: ikus 203.

245. *dieçaçugun*: ahoska ezazu *dyezazugun*.

246. *nahiez*: hots, nahi digutenez, nahi diguten lagunez.

247. *fauore*: -rik esaten ere badaki superlativoa darraikionean. Ikus 289.

249. *gaitcec*, *egarric*: biak mugagabeak.

Bai atheco probeari demogun ostatua,  
Eta senjoraleari arratseco pausua.

Halaber bezti deçagun probe billuz gorria,  
Ceren baita hambat gosta nola Prince handia.

Ohatuen utci duçu ikhusteco cargua,  
Baita presuner gachoen halaber gaztelua.

Fiñean dioçu dela gure eguinbidea  
Ahucu eta frogutara hill denari ioatea.

260 Hauc guztiac çuc eçarri tutçu, Aita, hunela,  
Laudorio eman gabe nor dagoque guibela.

Lauda bada bethiere eta ohoratua  
çaradela, legue saindu hauquin ithurburua.

*Laudatcen da arimaren eta gorputçaren abalac  
vngui emplegatceco manuez.*

Ene manamenduetan emplega çac ahala  
Arimarena beçala gorputçaren erbala.

Arimaren emplega çac leguean botherea  
Memorio, adimendu eta vorondatea.

Guehiago gorputçaren bortz campoco sensuac  
Cein baitire arimaren leiho sare deithuac.

270 Bista, Aditce, Ussain, Gustu, Uquitce banatua  
Hautaric spiritura sarcen duc bekhatua.

Hartaracotz ez beguia heda hautçaz athera  
Gutiago beharria contraraco elhera.

Ezteçala okherreco bidera oina mugui,  
Ez gaichtoqui mintçatcera ahoa ere higui.

---

251. *demogun*: adizki trinkoa: *eman diezaiogun*.

252. *pausua*: *errepausua* ere badarabil *atseden* esateko. Ikus 300.

253. *billuz*:- Etxeparek *biluz*:-

254. *hambat... nola*: ikus 26.

255. *ohatuen*: guk *ohatuak* esango genukeena, baina ondoko bertsoan ez dio *gazteluaren*.

256. *presuner*: hots, preso.

258. *abucu eta*: ahoska ezazu *ahukweta*.

*bai atheko probeari demogun ostatua  
eta senioraleari arratseko pausua,  
halaber bezti dezagun probe biluz gorria,  
zeren baita hanbat gusta, nola prinze handia.*

*Ohatuen utzi duzu ikhusteko kargua,  
baita presuner gaxoen halaber gaztelua.*

*Finean diozu dela gure eginbidea  
abuku eta frogutara hil denari ioatea.*

260 *Hauk guztiak zuk ezarri tutzu, Aita, hunela,  
laudorio eman gabe nor dagoke gibela?*

*Lauda, bada, bethiere eta ohoratua  
zaradela, lege saindu haukin ithurburua.*

Laudatzen da arimaren eta gorputzaren ahalak  
ungi enplegatzeke manuez.

*Ene manamenduetan enplega zak abala  
arimarena bezala gorputzaren erbala.*

*Arimaren enplega zak legean botherea  
memorio, adimendu eta borondatea.*

*Gebiago, gorputzaren bortz kanpoko sensuak,  
zein baitire arimaren leiho sare deithuak:*

270 *bista, aditze, usain, gustu, ukitze banatua,  
hautarik espiritura sartzen duk bekhatua.*

*Hartarakotz ez begia heda hautzaz athera,  
gutiago beharria kontrarako elhera.*

*Eztezala okherreko bidera oina mugi,  
ez gaixtoki mintzatzera aboa ere bigi.*

---

262. *hauquin*: genitivoa: ikus 48.

264. *erbala*: hots, ahal erbala.

265. *arimaren... botherea*: sintagma osoro printzatuua. Ikus 112.

269. *bista aditze*: elisioa egin behar da.

270. *spiritura: espiritura* ebaki behar da. Ikus 140.

271. *hautçaz athera*: hots, hauezaz kanpora.

273. *oiherreco*: halako zerbait dio liburuak, baina okherreco behar du.

274. *guaichtoqui*: inprenta hutsa da, noski, *gaichtoqui* behar du.

- Ussain onac arbuiatçac, fiñ, killicagarriac,  
Edo baratceac edo Indiec ekharriac.
- Ezteçaquela deus uqui cutsatuco auenic,  
Eta ecin senda mina emanen daroenic.
- 280 Bi beguiac iduquitçac leguean çabalduac,  
Eta beharriez adi ene erranen cantuac.
- Laster eguic manamendu saiñduen urriñean,  
Hauquin contra eztuquela solassic ezpaiñean.
- Escua ere heda eçac leguearen gaiñera,  
Ecen cotoña bera duc ahalque hurbilltcera.
- Appellessec bere dendan etcien coloreric,  
Ene ordenantçac beçain ikhusteco ederric.
- Ez musica chorienic udan campo ferdeac,  
Ceña garaitcen eztuen ene ahaire dulceac.
- 290 Arabiac ekhartcen tic ussaiñic hoberenac,  
Baiñan hec azpiratcen tic ene leguearenac.
- O ahamen, Ezechiel Saindu prophetarena,  
Hura üen duda gabe ene erranarena.
- Cein legun da harrietan marbola legundua,  
Are guehiagoa duc ene manamendua.
- Hautan bada emplega çac arimaren ahala,  
Emplegatceco hoberen dohaña den beçala.
- Hara ere heda etçac gorputçaren sensuac,  
Nihon eztituc içanen hala contentatuac.
- 
277. *ezteçaquela*: ikus 199; 220.  
278. *ecin senda mina*: hots, ecin sendatuzko edo senda daitekeen: ikus 138.  
*daroenic*: *hiri*, noski.  
280. *ene erranen*: elisioa egin behar da.  
282. *hauquin*: genitivoa. Ikus 262.  
*eztuquela*: ikus 233: han *eztuela* badio ere (ikus *ezteçala* eta *ezteçaquela*,  
171, 220), bat dira. Han bezala, hemen ere partizipiorik ez du ondoan.  
283. *escua*: ahoska ezazu *eskwa*.  
285. *etcien*: hitanoa: ← *ez zuen*.  
286. *ikhusteco ederric*: hots, ikusgarririk (*digna visu*).  
287. *musica chorienic*: hots, *xorien musikarik* ez omen du udan kanpo ferdeak.



- Usain onak arbuiatzak, fin, kilikagarriak,  
edo baratzeak edo Indiek ekharriak.
- Eztezakela deus uki kutsatuko auenik  
eta ezin senda mina emanen daroenik.
- 280 Bi begiak idukitzak legean zabalduak  
eta beharriez adi ene erranen kantuak.
- Laster egik manamendu sainduen urrinean,  
haukin kontra eztukela solasik expainean.
- Eskua ere heda ezak legearen gainera,  
ezen kotoina bera duk abalke hurbiltzera.
- Apelesek bere dendan etzien kolorerik  
ene ordenantzak bezain ikhusteko ederrik,  
ez musika xorienik udan kanpo ferdeak,  
zeina garaitzen eztuen ene abaire dulzeak.
- 290 Arabiak ekhartzen tik usainik hoberenak,  
bainan hek azpiratzen tik ene legearenak.
- O abamen Ezekiel saindu profetarena,  
hura üen duda gabe ene erranarena.
- Zein legun da harrietan marbola legundua,  
are gehiagoa duk ene manamendua.
- Hautan, bada, enplega zak arimaren ahala,  
emplegatzeke hoberen dohaina den bezala.
- Hara ere heda etzak gorputzaren sensuak,  
nibon eztituk izanen hala kontentatuak.

---

288. *ceña*: orain arte beti, erlatibo gisa zerabilenean hitz hau, adizkiak *bait-* hartu du; hemen ez, *-(e)n* baizik. Obra osoan bakarra da, oker ez *banago*.

*ene abaire*: sinalefa behar da.

289. *ussainic hoberenac*: ikus lehen esana: 247.

291. *saindu prophetarena*: hots, profeta sainduarena.

292. *üen*: hitanoa: ← *zen*; Etxeparek *çuyan* dioena bera: ikus 20.

293. *cein legun da*: konzesiva kutsua dario: «quamvis ...».

296. *hoberen dohaña*: hots, dohainik hoberena.

298. *nibon*: Etxeparek eta Oihenartek *ehon* diotena bera.

300 Hartan bada passaiadi mundu enganosoan,  
Errepausu aurkhitceco aingueruen hauçoan.

*Venial edo mortal bekhatu ez eguiteco manuez.*

Fiñean arin eta pissu guardadi faltetaric,  
Edo dire veniale edo mortaletaric.

Huts chipiaz antsicabe den arima guerora  
Antsicabe eguiten duc noizbat handiagora.

Hartaracotz beguiradi gaizqui chipietaric,  
Moian hartçaz beguiradin handiagoetaric.

Bicitcearen finean hondale khardunera  
Handi chipiaren pena ezoan soffritcera.

*Laudatcen da azken fiñez orhoitceco manuez.*

310 Ene erranen complitceco duquen griña gogoan,  
Gau eta egun iduquitçac hautchec memorioan.

Orhoit adi herioaz, orhoit iuiamenduaz,  
Ifernuco doloreez, baita parabisuaz.

Iduquitçac guiçonaren lau fiñac bihotcean,  
Bekhaturic eztaguien munduco bicitcean.

Solon batec ifiñi tu Athenessen legueac,  
Sparteua Guerlarian Licurgussec bereac.

---

299. *bada*: orain arte beti hau eta *beraz* perpausaren barnean, ez hastean, agertu dira.

*passaiadi*: hots, pasa adi. Etxepareren *munduyan* eta abarren antzera.

300. *errepausu*: lehen, ordea, *pausu*: ikus 252.

tit. *venial edo mortal bekhatu*: hemen ez da bertsotan ari, tituluko hitzak bait dira hauek, eta halere izen adjetiboak trukaturik daude.

301. *finean*: ebaki honela: *finyan*.

*arin eta pissu... faltetarik*: tituluaren eginan ikusi ondoren, ez da harritzeko bertsoan beste horrenbeste egitea. Berez. *falta arin eta pisuetarik* behar luke.

303. *guerora*: zentzuz ondoko perpausari dagokio eta zangalatrau dago.

304. *noizbat*: *noizbait* idatzirik ere ageri da, ordea. Ikus 324.

306. *beguiradin*: ez *adintçat* lehen bezala: ikus 204.

300 *Hartan, bada, pasaiadi mundu enganosoan,  
errepausu aurkhitzeko aingeruen hauzoan.*

Benial edo mortal bekhatu ez egiteko manuez.

*Finean arin eta pisu guardadi faltetarik  
edo dire beniale edo mortaletarik.*

*Huts xipiaz antsikabe den arima, gerora  
antsikabe egiten duk noizbat handiagara.*

*Hartarakotz begir'adi gaizki xipietarik,  
moian hartaz begir'adin handiangoetarik,*

*bizitzearen finean hondale khardunera  
handi xipiaren pena ez oan sofritzera.*

Laudatzen da azken finez orhoitzeko manuez.

310 *Ene erranen konplitzeko duken grina gogoan,  
gau eta egun idukitzak hautxek memorioan:*

*orhoit adi herioaz, orhoit iuiamenduaz,  
ifernuko doloreez, baita parabisuaz.*

*Idukitzak gizonaren lau finak bihotzean,  
bekhaturik eztagien munduko bizitzean.*

*Solon batek ifini tu Athenesen legeak,  
Espartea gerlarian Likurgusek bereak.*

---

307. *bondale*: izena da, maiz ageri da: *bondamendi, ifernu*.

308. *handi chipiaren pena*: zer esan nahi du? Dirudienez hau: *chipiaren pena handi*. Baina hala bada, zergatik ez du ordena horretan idatzi, eskema hobeki betetzen zuelarik?

309. *ene erranen*: elisioa egin behar da.

*duquen*: *bik*, noski: ikus 282. Balio finala du hemen.

310. *gau eta egun*: sinalefa egin behar da.

*hauthec*: hala idazten du eta horrenbestez *hautxek* ahoskatzen: ikus *nontche*, 3258.

314. *eztaguien*: balio finala du; hots, *egin ez dezaan*.

315. *ifinitu*: hots, *ifini ditu*, laguntzaileak apokopea jasan duelarik. Ikus 103; 107.

316. *Spartea*: baina *Espartea* ahoskatu behar da. Ikus 140.

Hequienac çureequin eztire comparatu,  
 Ecen hec lurrera çuten, çuc Cerura behatu.  
 Hauc direla bada causa duçula laudorio,  
 320 Lurrecoaz guehiago Ceruan bozcario.

### BVRV III.

*Iainco semearen laudorioac. Laudatcen da bere obrez.*

Laudatcen dut, Iesus Christo, çure ere içatea,  
 Ceren çu baitçare Iainco puchantaren semea.

Gure gatic iaio ciñen, gurutcean itçatu,  
 Eta çuc behar gaitutçu noizbait ere iuiatu.

Legue gratiazcoaren ifintceco escua  
 çuc ciñarocun ekharri, Aita ganic hartua.

Guiçonaren ararteco çu ciñen presentatu  
 Eta ciñotçan Ceruco portaleac çabaldtu.

Hauquin causaz orain ere hemen leihor planean  
 330 Cantatua çaradela nola hedoi gaiñean.

*Laudatcen da hirur etsai principalen contra eman  
 tuen hirur manuez.*

Hauthec dire, Iesus emea, eman tutçun manuac  
 Ceñac baititugu behar iduqui guardatuac.

Hirur etsai eçagutçac herra handitacoac,  
 Eta lausengu garabez ecin baquetuzcoac.

---

317. *bequienac*: hots, *beienak* edo *haienak*. Ikus 23.

318. *behatu*: hemen ere iragankorra. Ikus 94.

319. *duçula*: ez *dezazula*: ikus 282.

320. *Ceruan*: inprenta hutsa: *Ceruan* behar du.

321. *çure ere*: sinalefa egin behar da.

324. *noizbait*: hona *-i-* duelarik idatzia: ikus 304.

325. *escua*: ondoko perpausari dagokio zentzuz eta zangalatrau dago.

326. *ciñarocun*: hots, *zenigun* euskara batuan.

*Hekienak zureekin eztire konparatu,  
ezen bek lurrera zuten, zuk zerura behatu.*

320 *Hauk direla, bada, kausa, duzula laudorio  
lurrekoaz gehiago zeruan bozkario.*

### BURU III.

Iainko Semearen laudorioak. Laudatzen da bere obrez.

*Laudatzen dut, Iesus Christo, zure ere izatea,  
zeren zu baitzare Iainko puxantaren Semea.*

*Gure gatik iaio zinen, gurutzean itzatu,  
eta zuk behar gaitutzu noizbait ere iuiatu.*

*Lege graziazkoaren ifintzeko eskua  
zuk zinarokun ekbarri, Aita ganik hartua.*

*Gizonaren ararteko zu zinen presentatu  
eta zinotzan zeruko portaleak zabaldu.*

330 *Haukin kausaz orain ere hemen leihor planean  
kantatua zaradela, nola hedoi gainean.*

Laudatzen da hirur etsai prinzipalen kontra eman  
tuen hirur manuez.

*Hautxek dire, Iesus emea, eman tutzun manuak,  
zeinak baitituğu behar iduki guardatuak:*

*Hirur etsai ezagutzak herra handitakoak  
eta lausengu garabez ezin baketuzkoak:*

---

328. *ciñotçan*: hots, *zenizkion*: ikus 147.

329. *hauquin*: genitivoa: ikus 282.

330. *cantatua çaradela*: ikus 235.

*hedoi*: hots, hodei.

331. *emea*: ahoska ezazu *emya*.

332. *ceiñac*: ikus 66.

334. *garabez*: *garau* zera da: *alea, bibia, Batere, ezein* esan nahi du, *guk alerik* ere ez diogunean bezala: ikus 1094.

Haraguia duc lehena, bercea Mundu vano,  
Hirurgarrena itçalean lakhet çaiion gaichtoa.  
Hauc hirurac iduquitçac etsai handientçat,  
Poçoiñezco assiquitic beguira adientçat.

*Laudatcen da eman tuen hirur conseilluez.*

- 340 Guehiago eman tutçun hauc dire conseilluac,  
Ceñac baititugu behar iduqui guardatuac.  
Nahi baduc Ceruetaco atseguinez goçatu,  
Berce ordenantçac ere behar dituc guardatu.  
Baiñan baldin nahi baduc baliossen khoroa,  
Probecia bessarcaçac, Castitate ossoa.  
Heure vorondatearen eguin naçac ni iabe,  
Khororearen ematea eztiqeat herabe.  
Hauquin causaz Aingueruec Ceruan eresiaz  
Lauda caitçatela, nola guc lurrean mihiaz.

*Laudatcen da Sacramentuac ordenatuaz.*

- 350 Guehiago Sacramentuac çuc cintuen eçarri  
Edarateco arima gratiaz cena egarri.  
Hetaric bada cinduen ordenatu gratia  
Iauts cequigun, canaletic hala nola uria.  
Esquer duçula gratien beraz espensaria,  
ceren eman darocuçun hain franquia handia.

- 
335. *bercea*: *berzya* ebaki behar da.  
336. *itçalean*: honen *i-* eta aurreko *-a* diptongo gisa ebaki behar dira.  
337. *handientçat*: *handientçat* aski zatekeen, *-tzat* («tener por») ez bait zaio genitivoari lotzen, baina silaba bat gehiago behar zuen.  
338. *adientçat*: ikus 306; hemen *-e-* erantsi dio, gainera, silaba bat gehiago behar zuelarik.  
339. *eman tutçun... conseilluac*: erlatibozko perpausa erditik ebaki du, artean bi hitz sarturik; eskemak eragin dio bortxa.  
340. *ceñac*: lehengo bertso bera: 332.  
341. *Ceruetaco*: *zerwetako* ahoskatu behar da.  
343. *baliossen khoroa*: hots, khoroaric baliiosena.  
345. *heure*: reflexio duena: ikus 157.  
346. *eztiqeat*: ikus 234.

*baragia duk lehena, berzea mundu banoa,  
birurgarrena itzalean lakhet zaion gaixtoa.  
Hauk hirurak idukitzak etsai handientzat,  
pozoinetzko asikitik begira adientzat.*

Laudatzen da eman tuen hirur konseiluez.

- 340 *Gehiago, eman tutzun hauk dire konseiluak,  
zeinak baititugu behar iduki guardatuak:  
Nahi baduk zeruetako atseginez gozatu,  
berze ordenantzak ere behar dituk guardatu,  
bainan baldin nahi baduk baliosen khoroa,  
probezia besarka zak, kastitate osoa;  
heure borondatearen egin nazak ni iabe,  
khoroaren ematera eztikeat herabe.  
Haukin kausaz aingeruek zeruan eresiaz  
lauda zaitzatela, nola guk lurrean mihiaz.*

Laudatzen da sakramentuak ordenatuaz.

- 350 *Gehiago, sakramentuak zuk zintuen ezarri  
edarateko arima graziaz zena egarri.  
Hetarik, bada, zinduen ordenatu grazia  
iauts zekigun, kanaletik hala nola uria.  
Esker duzula grazien, beraz, espensaria,  
zeren eman darokuzun hain frankia handia.*

---

347. *hauquin*: ikus 329.

348. *lauda çaitçatela*: hemen bai eta ez (*lauda*) zaituztela, laguntzailea bait da bete betean: ikus 282,233,156.

349. *cintuen*: hots, *zenituen* euskara batuan.  
*sakramentuac*: *sakramentwak* ebaki behar da lau silabaz.

350. *edarateco*: *edan*-en faktitiboa: *eradan*>*edaran*; hots, *edan* arazi.  
*cena egarri*: hots, *egarri zen arima*; *nor-nork* edaran, beraz: ikus 3110.

351. *cinduen*: hots, *zenduen* edo *zenuen*: ikus, aldiz, *cintuen*, 349.

352. *iauts cequigun*: zangalatrau dago.

353. *duçula*: ikus 282.

*beraz*: izen sintagmaren (*gratien espensaria*) erdian txertatu du.

354. *darocuçun*: honen lehenaldia, ikus 326.

*franquia*: *franko* adjetivoari dagokion izena: *ugaritasuna*.

*Sacramentuen alderaco manu particularez.*

- Erran tugu Sacramentuen manu generalac,  
Orain berriz erratcigun particularenac.
- Baldin bathaiatcen bahaiz iadanic gurendua  
Erromaco Elicetan busti çaquec burua.
- 360 Hire cargutan diraten halaber haur ttipiei  
Hetan diecequec ura hararaci guztiei.
- Confirmaraci detçaquec guero saindu Fedean  
Belhaurico daudecela Prelataren oiñean.
- Ordean faltetan bahaiz esquer gabez erori,  
Absoluitcera hoaco nigarrez Apheçari.
- Urthean behin bedere aithor etçac gaizquiac,  
Ahantciez orhoitceco edirenic astiac.
- Guehiago errecibi eçac ene lohia,  
Bekhatutan agoela ez ordean sassia.
- 370 Gutienean bederen Bazco inguruetan  
Aingueruen ogui hura formatu cen muguetan.
- Meçan deçaquec ordean adora maizquiago  
igande eta iai egun manatcen diren oro.
- Ezcontceco heldu baçaic bihotcera desira,  
Compli eçac Eliçama sainduaren nahira.

- 
355. *sacramentuen*: hona beste bereizitasuna, Etxeparegan inoiz gertatzen ez dena: zesura ez dago hitzaren bukaeran, baizik bere erro eta kasu atzizkiaren artean: *sacramentu- // -en*.
356. *erratcigun*: *-tci-* pluralgilea duelarik. Ez al luke *-d-* behar berez?  
*particularenac*: behar baino silaba bat gutxiago du bigarren bertso erdi honek: *particulararenac* behar ote zukeen?
357. *bahaiz*: ikus 27. Lhandek honela jaso du bertso hau: *Baldin bathaiatu bahaiz, gurendu haiz*: «si tu es baptisé, tu as grandí en dignité»: ikus Hiztegia, *gurentu*, or. 391.
358. *bustiçaquec*: hots, *dezakek*. Ikus 379.
360. *diecequec*: hots, *diezaiekek*; Ikus 379.  
*hararaci*: ez *hararaz*: ikus 217; *harraraci*, bi *-rr-* dituelarik, agian: ikus 379.  
*guztiei*: hots, haur ttipi guztiei.
361. *confirmaraci*: ez *confirmaraz*: ikus aurreko bertsoa.  
*saindu fedean*: hots, fede sainduan.



Sakramentuen alderako manu partikularez.

*Erran tugu sakramentuen manu jeneralak;  
orain, berriz, erratzigun partikula(ra)renak:*

*Baldin bathaiatzen babaiz, iadanik gurendua  
Erromako elizetan busti zakek burua.*

360 *Hire kargutan diraten halaber haur ttipiei  
hetan diezekek ura har arazi guztiei.*

*Konfirmarazi detzakek gero saildu fedean,  
belhauriko daudezela prelataren oinean.*

*Ordean faltetan babaiz esker gabek erori,  
absolbitzera hoako nigarrez aphezari.*

*Urthean behin bedere aithor etzak gaizkiak,  
abantziez orhoitzeko edirenik astiak.*

*Gebiago, errezibi ezak ene lobia,  
bekhatutan agoela ez, ordean, sasia.*

370 *Gutienean bederen Bazko inguruetan,  
aingerruen ogi hura formatu zen mugetan.*

*Mezan dezakek, ordean, adora maizkiago,  
igande eta iai egun manatzen diren oro.*

*Ezkontzeko heldu bazaik bibotzera desira,  
konpli ezak Eliz Ama sailduaren nabira,*

---

362. *daudecela*: *daudez*, beraz, eta horrexegatik *ciaudecec*: ikus 203.

363. *ordean*: perpausaren hastean: ikus 101.

364. *hoaco*: guk *hoakio* esan ohi duguna: *hi hari*; baina *absoluitcera*, *hark hi*: hots, *absolbi hazan*.

366. *edirenic*: Etxeparek *eriden*: ikus XV,8: *erideiten* *ezpaitzen*.

367. *lobia*: Etxeberrigan maiz *gorputza* esan nahi du.

368. *bekhatutan*: bertso hau aiseago uler dezazun, irakur honela: *ez, ordean, bekhatutan agoela sasia*. Eta, harritzekoa, honela taxaturik ere, hamabosteko bertsoa da eta guretzat bederen Etxeberrirena baino adikorragoa.

371. *ordean*: ikus 363; *dezakek adora* erditik ebaki eta artean sarturik dago.

372. *diren oro*: *manatzen diren igande eta iai egun oro* esan nahi duela dirudi; eta hala bada, batek ez daki zergatik nahasi dituen hainbeste hitzak, guk ordenatu bezala ere hamabosteko bertsoa bait da. Ikus 368.

- Bañan agradatu bahaiz Aphezcoa sainduaz,  
Iphizpicuac beztitu beharco au graduaz.
- Fiñean sentitu eta hillceraco pontua,  
Prepara deçaquec ungui partitceco burua.
- 380 Harreçaquec Apheçaren ganic aluntioa,  
Eta heure fauorera deit Ceruen Iaincoa.

*Sacramentuen verthuteez.*

- Huneraïño erran tugu Sacramentuen legueac,  
Orain errateco tugu hequien verthuteac.
- Baptismaz darozquigutçu falten nothac chahutcen,  
Eta gloriaren primu gaitutçu eraguiten.
- Gratian ere gaitutçu confirmatcen Chrisumaz,  
Bai eta seguragotcen sainduen erresumaz.
- Halaber hazten gaitutçu gorputz preciatuaz,  
Eta edaraten ceure odol consecratuaz.
- 390 Baldin bekhatutan bada nihor behaztopatcen,  
Urriquituari faltac diotçotçu barkhatcen.
- Aphezcoaz deitcen duçu guiçona aldarera,  
Cerbitçu particulara çuri errendatcera.
- Baita bercea ezcontçaz munduco statura,  
Lagunarequien duen bici prestuaz gura.

*Sacramentuen distincioneaz.*

Ordua da condatçagun Sacramentu sainduac  
Eta guero bereztçagun, diren eçagutuac.

- 
377. *sentitu eta*: gerundio gisakoa, *eta* menderatzaiile duena.  
*hillceraco pontua*: hots, hiltzeko puntua.
379. *harreçaquec*: azken 26 bertso hauetan batek ez daki noiz darabilen Etxe-berrik geroko inperativoa (ikus 173) eta noiz *abal izatekoa*: ikus 737.  
Honako *harreçaquec* hau, esate baterako; *eçac* ahal da, *-ke-* txertatu eta geroko inperativo bilakatua, ala (*d*)*ezakek d-* gabea? Ikus 79; 173.  
*ganic*: zesurak bere izenarengandik bereizten duelarik.
381. *sacramentuen*: ahoska ezazu *sakramentwen*.
382. *errateco tugu*: ikus 201. Eta Etxepareren hau: *Amac eztu sofritceco semen artian guerlaric*; II,133.

*bainan agradatu bahaiz aphezkoa sailduaz,  
iphizpikuak beztitu beharko au graduaz.*

*Finean sentitu eta hiltzerako pontua,  
prepara dezakek ungi partitzeko burua.*

380 *Harrezakek aphezaren ganik alunzioa  
eta heure faborera deit zeruen Iainkoa.*

Sakramentuen berthuteez.

*Huneraino erran tugu sakramentuen legeak,  
orain errateko tugu bekien berthuteak.*

*Baptismaz darozkigutzu faltan nothak xahutzen  
eta gloriaren primu gaitutzu eragiten.*

*Grazian ere gaitutzu konfirmatzen khrisumaz,  
bai eta seguragotzen sailduen erresumaz.*

*Halaber hazten gaitutzu gorputz preziatuaz  
eta edaraten zeure odol konsekratuaz.*

390 *Baldin bekhatusan bada nihor behaztopatzen,  
urrikituari faltak diotzotzu barkhatzen.*

*Aphezkoaz deitzen duzu gizona aldarera,  
zerbitzu partikulara zuri errendatzera,  
baita berzea ezkontzaz munduko estatura,  
lagunarekien duen bizi prestuaz gura.*

Sakramentuen distinkzioez.

*Ordua da kondatzagun sakramentu sailduak  
eta gero bereztzagun, diren ezagutuak.*

*bequien*: genitivoa: ikus 317.

383. *darozkigutçu*: hots, *dizkiguzu* euskara batuan.

385. *chrisumaz*: hots, krismaz.

386. *bai eta*: ikus 213.

388. *edaraten*: ikus 350.

*ceure*: ikus 345. Zesurak bakandua dago bere izenarengandik: ikus 214.

390. *diotçotçu*: hots, *dizkiozu*.

393. *statura*: *estatura* ahoskatu behar da. Ikus 316.

394. *lagunarequien*: silaba bat gehiago behar eta -e- erantsi dio: ikus 23.

395. *-tçagun*: apokope dela bide *de-* kendu dio. Ondoko bertsoan beste hain-  
beste egin du: ikus 136.

- çazpi Sacramentu dire hill eta bicienac  
 Gratiaren ardiasteco moian propioenac.  
 Baptismu nigarrac dire hillen Sacramentuac  
 400 Eta arimaz bicien berce bortz goitituac.  
 Sendaturic arimaren heriozco çauria,  
 Hillen Sacramentuac ematen du bicia.  
 Biciarenac gratia du lehena berretcen,  
 Eta falta venialac arimatic khassatcen.  
 Hillen Sacramentuac du obratcen hura bera  
 Mortal, venial gathetic libratcen presunera.  
 Ez ordean ariñenac chahutcen nihoiz ere,  
 Non ezgaren descargatcen huts pisuenez ere.  
 Ea beraz, goacen laster Apheçaren oiñera,  
 410 Bietaric libratceco bide laburrenera.

*Absoluitceco Sacramentuaz.*

Guehiago Iesus Christo gure Saluatçaillea,  
 çuc ekharri duçun hau da leguearen partea.

- 
398. *ardiasteco*: lau silaba baizik ez du: *ardyasteko* ebaki behar da.  
*moian*: ez dio *moianic*: ikus 289.  
 399. *nigarrac*: hots, *penitenzia* deritzan sakramentua; baptisma eta penitenzia,  
 beraz.  
 400. *arimaz*: *arima* behar duela dirudi. Hainbestez *arima bicien* guk *bizientzat*  
 dioguna da, ene ustez.  
*goitituac*: hots, eraikiak, taxutuak.  
 402. *hillen sacramentuac*: hiru bertso gorago sintagma hauxe agertu da, baina  
 bigarren bertso erdian eta hartarako aski silaba du, noski; ez, ordea,  
 lehenerako; bat falta du hemen, beraz. *Sacramentuac* nahiz bost silabaz  
 nahiz seiez (*sagaramendu*-) ebaki ote zitekeen? ala *hillaren* ote zioen  
 eskuzkoak, ondoko bertsoan ere *biciarenac* bait dio, ez *bizien* (sakra-  
 mentuak)?  
 403. *berretcen*: Oihenartek *berhetus* idazten du: ikus I,38-40.  
 404. *falta venialac*: ez *venial faltak*, lehen bezala: ikus 301.  
*khassatcen*: ikus 121.

- Zazpi sakramentu dire hil eta bizienak,  
graziaren ardiasteko moian propioenak.*
- 400 *Baptismu nigarrak dire hilen sakramentuak  
eta arima(z) bizien berze bortz goitituak.*
- Sendaturik arimaren heriozko zauria,  
hil(ar)en sakramentuak ematen du bizia.*
- Biziarenak grazia du lehena berretzen  
eta falta benialak arimatik khasatzen.*
- Hilen sakramentuak du obratzen hura bera,  
mortal, benial gathetik libratzen presunera.*
- Ez, ordean, arinenak xahutzen nihoiz ere,  
non ez garen deskargatzen huts pisuenez ere.*
- 410 *Ea beraz, goazen laster aphezaren oinera,  
bietarik libratzeko bide laburrenera.*

Absolbitzeko sakramentuaz.

*Gebiago, Iesus Christo gure salbatzailea,  
zuk ekharri duzun hau da legearen partea:*

- 
405. *hilen sacramentuac*: lehen bezalaxe, baina hemen *du* ere lehen hemistikioari bait dagokio, behar adina silaba ditu. Agian, honek huts eragin zion inprimatzaileari lehengo (402) bertsoan.
406. *mortal venial gathetic*: berriz ere (ikus 404) adjetivoak izenaren aurrean ipini ditu.  
*presunera*: ikus 256.
407. *ez ordean*: ikus 368. Badirudi, beraz, han proposatu dugun irakurbidea zuzena dela.  
*chahutcen*: aurreko bertsoaren partizipioa (*libratcen*) bezala, hau ere la-guntzailerik gabe dago; 405ekoan esana dagoenez gero, besteok ez zuten behar ere. Ikus 140.
408. *non ez garen*: ikus 93. Han bezala, adizkiak *-(e)n* eta dirudienez balio bera du.
409. *era beraz*: ikus 87.  
*goacen*: bi silaba baizik ez du: *gwazen*.
412. *hau da*: erlatibozko perpausean txertatua dago: ikus 339.

Hutz lohienez dioçu garenean liçundu,  
Confessio eguitera eztugula berandu.

Baptismu saindua dela untci urreztatua  
Eta Penitentia çur urera etchatua.

Bekhatuen itsassora garenean erori,  
Bi escuez lot gaquizcon ur gañeco çurari.

420 Guehiago ecin bihur gaitezquela barkhara;  
çur puchcan beraz bicia deçagula emphara.

Bortcha gaiten eguitera gueure eguinbidea,  
Eztuçula faltatuco eguitera ceurea.

*Absoluitceco puchantçaz.*

Guehiago diusçu, O Erregue iustua,  
Apheçac duela falten barkhatceco escua.

Halaberqui diusçu orhoit gaiten congia  
Batçuec berceac beçain eztutela handia.

Handienac ecin barkha detçaquela simpleac,  
Hec Eliçaco Prelatei dagotçala gordeac.

430 Cergatic deitcen baitire casu reseruatuc,  
Ceren reseruatcen tuzten halaco bekhatuac.

Baldin choill handia bada nihorc eguin hobena,  
Aita Sainduac duela barkhatceco çucena.

- 
413. *buts lohienez*: ez dio *butsik*: ikus 398. Hemen, beste (367) hartan ez bezala, *lobi*- adjetivoa da.
414. *eztugula berandu*: ikus 233,282. Guk diogun «berandu dut»-en kidea da, baina inperativo gisa emana.
416. *urera*: ez *uretara*: ikus *suco*, 196. Horrelakoetan guk baino gutxiago zerabilten antzineko idazleek mugagabea.
418. *gaquizcon*: hots, *gakizkion* euskara batuan.
420. *deçagula emphara*: berez *dezagun* hobe zen, *gaquizcon* bezala, azpi egituran inperativoak bait dira biak, aurreko beste zenbait ez bezala. Ikus ondoko bertsoan ere *bortcha gaiten*, ez *gaitela*.
421. *gueure*: reflexio duena: ikus 115.
422. *ceurea*: gauza bera: ikus 388.

- buts lobienez, diozu, garenean lizundu,  
konfesio egitera extugula berandu;*
- baptismu saindua dela untzi urreztatua  
eta penitentzia zur urera etxatua;*
- bekhatuen itsasora garenean erori,  
bi eskuez lot gakizkon ur gaineko zurari.*
- 420 *Gehiago ezin bihur gaitzekela barkbara;  
zur puxkan, beraz, bizia dezagula enphara;*
- bortxa gaiten egitera geure eginbidea;  
etzuzula faltatuko egitera zeurea.*

Absolbitzeko puxantzaz.

- Gehiago diuskuzu, o Errege iustua,  
aphezak duela falten barkhatzeko eskua;*
- halaberki diuskuzu orhoit gaiten konjia  
batzuek berzeak bezain eztutela handia;*
- handienak ezin barkha detzakela simpleak,  
bek Elizako prelatei dagotzala gordeak,*
- 430 *zergatik deitzen baitire kasu reserbatuak,  
zeren reserbatzen tuzten halako bekhatuak.*
- Baldin xoil handia bada nihork egin hobena,  
Aita sainduak duela barkhatzeko zuzena;*

- 
425. *congia*: Oihenartek *congita* dioena bera: ikus II,107. *Baimena* esan nahi du, eta zangalatrau dago, ondoko bertsoari bait dagokio.  
*diuscuçu*: hots, zuk guri esan.
426. *berceac*: *berceec* behar luke, ala singularra ote da?  
*beçain*: horren ondo-ondoan behar luke egon *handia* hitzak.
427. *handienac*: *nor* da eta *simpleac* *nork*.
429. *cergatic*: erlativo gisara enplegatua dago hemen; horregatik du adizkiak  
*bait*:- «por lo cual...». Aldi berean kataforikoa da, ondoko *ceren*-i zuzen lotua. Ikus, ordea, 1168; 648.
430. *tuzten*: apokope duelarrik: *dituzten*. Ikus 107.
431. *eguin*: hots, egindako edo egin duen.
432. *çucena*: hots, eskubidea.

Baldin faltac ezbadire guztiz hain bereciac,  
Iphizpicuac ere barkha detçaquela guztiac.

Herrico Apecei hoben hauc cein diren humillqui  
Galdetu behar çaiola iaquiteco segurqui.

Ceren Iphizpicuari goititu hutsarteac  
Lekhu batçuetan diren batçuc, bercean berceac.

440 Enganatu gabe beraz iaquiteco guerthuqui  
Confessoretan galdea deçagula iduqui.

Ikhasteco ea cembat den guztien nombrea  
Bai halaber barkhatceco norc duen podorea.

Eguia dela guztiec hilltceco orenean  
Absolutceco escua dutela men menean

Baiñan eria ohetic altchatu den beçala  
Lehen escu çuenari nigarrez doacola.

*Urriquimendu eta onherizte gure ahalaren gañecoaz.*

Bekhatutic ilkhiteco choill probetchoz moiana  
Sinhetz eçac dela orain erratera noana.

450 Guztiz ere Apez gabe hiltceraco pontuan  
Hari eguitea othoi iduquiçac contuan.

Guero ordean sendatu eta erhassunetic  
Confessio eguitera beguirauc ahantzetic.

---

434. *iphizpicuac*: lau silabaz ebaki behar da: *ipizpikwak*.

*ere*: bigarren bertso laurdenaren hastean kokatua. Ikus 6.

435. *hoben hauc*: zesurak izen sintagma erditik puskatzen duela dago.  
*humillqui*: zangalatrau dago.

436. *çaiola*: *zaiela* behar luke berez.

437. *goititu*: hemen ez du lehengo (400) zentzu bera; hemen lehen *reseruatua*  
(429) esan diguna da.

438. *batçuc*: zesuraren gaindik zangalatrau dago.  
*bercean*: irakur ezazu *berzyan*.

439. *guerthuki*: ikus lehengo (436) *segurqui*; gauza bera esan nahi du.

442. *bai halaber*: ikus 213.

445. *den beçala*: hemen eta bestetan, *beçala* horrek denborazko balioa du.

447. *ilkhiteco*: inprenta hutsa da; *ilkhiteco* behar du.



*baldin faltak ezbadire guztiz hain bereziak,  
iphizpikuak ere barkha detzakela guztiak.*

*Herriko aphezzei hoben hauk zein diren, humilki  
galdetu behar zaiela, iakiteko segurki,*

*zeren iphizpikuari goititu hutsarteak  
lekhu batzuetan diren batzuk, berzean berzeak.*

440 *Enganatu gabe, beraz, iakiteko gertbuki  
konfesoretan galdea dezagula iduki,*

*ikhasteko ea zenbat den guztien nonbrea,  
bai halaber barkhatzeko norik duen podorea;*

*egia dela guztiek hiltzeko orenean  
absolbitzeko eskua dutela men menean,*

*bainan eria obetik altxatu den bezala,  
lehen esku zuenari nigarrez doakola.*

Urrikimendu eta onherizte gure ahalaren gainekoaz.

*Bekhatutik ikkhitzeko xoil probetxos moiana  
sinhets ezak dela orain erratera noana.*

450 *Guztiz ere aphez gabe hiltzerako pontuan  
hari egitea othoi idukizak kontuan.*

*Gero, ordean, sendatu eta erhasunetik  
konfesio egitera begirauk abantzetik,*

---

*probetchoz*: ikus, oster, -s duelarik, v. 64. Sintagma horrek berez *moian probetchoza* behar luke.

448. *sinhetz*: ikus 167; 92: azken honetan *sinhets* idatzirik.

449. *hiltceraco* pontuan: ikus 377; bietan *hiltceraco* guk *hiltzeko* esan ohi duguna; ikus, aldiz, *hilltceco orenean*, 443.

451. *sendatu eta*: ikus gerundio gisako beste hura: *sentitu eta* (377). Hemen, ordean zesurak elkarrengandik erdibitzen dituela daude: *sendatu* bategatik, *eta* bestetik. Menderatzailea delarik, hori berez ezina da Etxeparegan. *Erbassunetic sendatzean* esan nahi du.

452. *begirauk*: ikus 193. Nondik dator, hortaz, hori: *begira euk* ala *begira duk*-etik, *duk* hori inperativo gisa harturik? Poetak hauxe esan nahi du: *gorde adi abantzetik!* Zertara ahaztu? *Confessio eguitera*.

- Ecen eztuc bekhatuic nihola ere barkhatcen  
 Aithortcera non presuna ezten deliberatcen.
- Baiñan eroriz gueroztic bekhatuen lohira  
 Handic laster illkhitceco hau duc bide segura.
- Heure ahalaz ardiatsac contritionea  
 Iaun ona offensatuaz cein baita dolutcea.
- 460 Ezperetanican igan adi charitatera  
 Creaturena utciric Iaun puchantarenera.
- Eguia duc hire indar flacoaren guztiac  
 Hauc errazqui dituztela passatcen mugarriac.
- Guztiarequin bortcha çac heure ahal egiña  
 Iaunac issuriren daroc escaz çaiquen dohaiña.
- Ecen hautaric bat baduc perfectqui ardiasten  
 Falta eta penetaric ossoqui aiz libratcen.
- Eta guero spirituac gorputça quitatcean,  
 Errepausu emanen çaic içarren gaiñean.
- 470 Hareraiñoco empatchu eta trauac khenduric,  
 Iaquiteco pena eta hobenac barkhatuic,

- 
453. *ecen eztuc: ezen menderatzaile ez dela esan dugu: ikus 94, 232.*  
*nihola ere: sinalefa egin behar da.*
454. *non presuna ezten: ikus 408; berriz ere adizkiak -(e)n duelarik, arrazoi*  
*beragatik: balio kondizionala du, alegia. Zergatik ez du esan: Non*  
*presuna aithortcera...? Bertso bikaina zatekeen eta hitzen ordena aho*  
*hizkerari egokiagoa. Ikus 372.*
455. *lohira: hemen izena da, lehen (413) ez bezala; ez du, ordea, gorputza*  
*esan nahi, beste (367) hartan bezala, zikinkeria baizik, edo lokatza.*
456. *illkhitceco: ikus 447.*
457. *heure: ikus 421, 422.*  
*ardiatsac: hots, ardiats ezac. Horrek esplika dezake hemen ere, lehen*  
*bezala (355), gertatzen den fenomenua: zesurak, alegia, erditik ebaki-*  
*tzen duela hitza: ardiats- // -ac.*
458. *Iauna ona: hala dio, baina Iaun ona behar du.*  
*dolutcea: errejimena -az (offensatuaz) duelarik. Irakur ezazu bertsoa ho-*  
*nela: cein baita Iaun ona offensatuaz dolutcea.*

*ezen eztuk bekhaturik nihola ere barkhatzen,  
aithortzera non presuna ezten deliberatzen;*

*bainan eroriz geroztik bekhatuén lohira,  
handik laster ilkhitzeko hau duk bide segura.*

*Heure abalaz ardiatsak kontrizioea,  
Iaun ona ofensatuaz zein baita dolutzea.*

460 *Ezperetanikan igan adi karitatera,  
kreaturena utzirik Iaun puxantarenera.*

*Egia duk hire indar flakoaren guztiak  
hauk errazki dituztela pasatzen mugarriak;*

*guztiarekin bortxa zak heure ahalegina,  
Iaunak isuriren darok eskas zaiken dohaina;*

*ezen hautarik bat baduk perfektiki ardiasten,  
falta eta penetarik osoki aiz libratzen,*

*eta gero espirituak gorputza kitzatzean,  
errepausu(a) emanen zaik izarren gainean.*

470 *Harerainoko enpatxu eta trabak kbendurik,  
iakiteko, pena eta hobenak barkhaturik,*

- 
459. *ezperetanican*: *ezperen* laburragoaren forma luzatua: ikus 520; 3185.
460. *creaturena*: irakur ezazu honela: *creaturen* (charitatea) *utciric*, *Iaun puchantaren* (charitatera).
461. *guztiac*: irakur ezazu: *mugarri guztiak*. Sintagma hori printzatua eta bi bertsoan barrena barreiatua dago.
462. *hauc*: oraino beti, oker ez banago, pasivoa zen; hemen, aldiz *nork* kaso da.
463. *heure*: ikus 345.
464. *daroc*: hark hiri; lehengo (278) *daroenic*, beraz, *darok*-en-ik baizik ez da. *çaiquen*: hots, *hiri*, euskara batuan *zaián* dioguna.
- escaz*: -s ordez -z: ikus 102.
468. *errepausu*: ikus 300.
- izarren gainean*: bigarren bertso erdi hau hanka motz da: silaba bat falta du. Agian, *errepausua* behar du eta *emanen* ondoan zesura.
469. *hareraiñoco*: *hara* ordez *harera* balio bezala.
470. *iaquiteco*: ikus 184.

Ea beraz ardiatzquic ahal eguin guztiaz  
Complituqui goça adin erran dugun gloriaz.

*Sacramentaliez.*

Hunerañocoac dire Sacramentu handiez  
Orain eguin behar dugu hitz Sacramentaliez.

Sacramentuez berce alde bortz Sacramentali  
Iesus Christo, Eliçari eztiotçotçu estali.

Ur benedicatu sainduz belarra bustitcea,  
Bekhatuez orhoituric bulharra cehatcea,

480 Confessio generala deuotqui eguitea,  
Benedictione saindu Prelataren hartcea,

Gure Aita Ceruetan fiñean erratea,  
Hau da Sacramentalien eguiazco nombrea.

*Sacramentaliei hurbilltzen çaitzenez.*

Ogui bedincatua da hurbilltzen bortz hautara  
Ceñac indarra issurtcen baitu arimetara.

Falta arinac ossoqui hauc dituzte barkhatcen  
Asco berce obrec dute gauça bera eguiten.

Nola baita predicua deuotqui entçutea,  
Eta probe gachoari limosna eguitea,

490 Guehiago deuotionez meçaren entçutea,  
Eta chahuroqui Gorputz Sainduaren hartcea.

---

471. *ardiatzquic*: hots, *ardiats etçac* esango lukeena, trinkoa ez balerabil. Ikus *ardiatsac*, 457, objeto pluralik gabe; *-tz-* dela eta, ikus 106.

472. *goça adin*: ez *adintçat*: ikus 306.

473. *hunerañocoac*: ikus honen analogiaz moldaturiko *harerañoco*, 469. Ondoko bertsoak erakusten digu *-ac* hori *hitzei* dagokiela.

475. *berce alde*: hona beste bertsoa, non zesura eta hitzaren azkena *ez* bait datoz batera: ikus 457. Hemen *alde*-ren bi silaben erdian gertatzen da: *al-* // *-de*

476. *eztiotçotçu*: ikus 390. Lau silabaz ebaki behar da: *eztyotzotzu*.

477. *belarra*: *belarraren* eta *belarra*, bi eratara erabili ohi du Etxeberrik izen-

*ea beraz, ardiatzkik abalegin guztiaz,  
konplituki goza adin erran dugun gloriaz.*

### Sakramentaliez.

*Hunerainokoak dire sakramentu handiez,  
orain egin behar dugu hitz sakramentaliez.*

*Sakramentuez berze alde bortz sakramentali,  
Iesus Christo, elizari eztiotzotzu estali:*

*ur benedikatu sainduz belarra bustitzea,  
bekhatuez orhoiturik bulbarra zebatztea,*

480 *konfesio jenerala debotki egitea,  
benedikzione saindu prelataren hartzea,*

*«Gure Aita zeruetan» finean erratea:  
bau da sakramentalien egiazko nonbrea,*

Sakramentaliei hurbiltzen zaiztenez.

*Ogi bedinkatua da hurbiltzen bortz hautara,  
zeinak indarra isurtzen baitu arimetara.*

*Falta arinak osoki hauk dituzte barkhatzen;  
asko berze obrek dute gauza bera egiten;*

*nola baita predikua debotki entzutea  
eta probe gaxoari limosna egitea;*

490 *gehiago, debozinez mezaren entzutea  
eta xahuroki Gorputz sainduaren hartzea.*

---

kiaren objektoa. Ondoko bertsoetan ez darabil genitivorik: *bulbarra, confessio generala, benedictione saindu.*

483. *bedincatua*: sei bertso gorago (477) *benedicatu* esan du.

484. *ceñac*: ergativo singularra da, baina ez dio *ceñec*: ikus 1212; plurala: ikus 676.

485. *arimac*: hala dio, baina *arinac* behar du, inola.  
*hauc*: aktivo delarik: ikus 462.

486. *asco berce obrec*: Etxeberrik *asko gizon* eta antzekoak esaten bait ditu.

487. *nola baita*: bestetan *iaquiteco* (470) esan digunaren kidea.

*predicua*: lehenxeago (477) esan duguna: *predicua, limosna*, genitivo gabe;  
baina ondoko beste bi bertsoetan *meçaren, Gorputz Sainduaren.*

Obra hauc barkhatcen tuzte bekhatu venialac,  
Handiagoc dituzte handiago ahalac.

Sacramentuec halaber dute podore bera  
Eta hura çuc emana gure ontassunera.

Ceren bada beguiratu duçun escaz gurera,  
Milla esquer ditutçula lehenequin gañera.

*Berce I. Christoc ifini usantçac.*

Guehiago hauc dirade çuc ifini usantçac  
Nola ere baitcintuen ifintceco puchantçac.

*Indulgentiez.*

500 Contu daguigun dioçu saindu Indulgentiez  
Thresor handi eta aberatz Cerutic issuriez.

Dohaiñ aiphatuetara ecen hurbilltzen dena  
Segura gaitecen dela Indulgentiarena.

Pena labur baten ordain haguiz luceagoac  
Harc barkhatcen dituela eta aspreagoac.

Iaquitecotçat dolore purgatceco handiac  
Eta mundu hunetaco halaber laceriac.

Eliçaco Apheçaren absolutioneac  
Hutsac barkhatcen tuela, baiñan ez açoteac.

510 Bethico pena duela aldatcen laburrera  
Mundu hunetaco edo Purgatoriocora.

---

491. *obra hauc*: hemen aktivoa da: ikus 485.

492. *handiago abalac*: hots, ahal handiagoak.

494. *eta hura*: besterengan ez dut honelakorik aurkitu: erlativo gisa edo, lehen aipaturiko izena edo perpaus osoa berriz biltzeko edo, baliatzen da Etxeberrri bi hitz horiezaz perpausaren hastean: ikus 2489.

495. *ceren*: gehienetan ez bezala, hemen protasian dago.

*escaz*: ikus 464.

*escaz gurera*: hots, gure eskasera.

496. *ditutçula*: ez *ditzazula*: ikus 233, 282.

*lehenequin*: genitivoa: ikus 382.

497. *guehiago*: ikus 27.

*Obra hauk barkhatzen tuzte bekhatu benialak,  
handiagoek dituzte handiago abalak.*

*Sakramentuek halaber dute podore bera  
eta hura zuk emana gure ontasunera.*

*Zeren, bada, begiratu duzun eskas gurera,  
mila esker ditutzula lehenekin gainera.*

Berze I. Christok ifini usantzak.

*Gehiago, hauk dirade zuk ifini usantzak,  
nola ere baitzintuen ifintzeko puxantzak.*

Induljenziez.

500 *Kontu dagigun, diozu, saindu Induljenziez,  
thresor handi eta aberats zerutik isuriez;*

*dohain aiphatuetara ezen hurbiltzen dena  
segura gaitezen dela induljenziarena;*

*pena labur baten ordain hagitz luzeagoak  
bark barkhatzen dituela eta aspreagoak:*

*iakitekotzat, dolore purgatzeko handiak  
eta mundu hunetako halaber lazeriak;*

*elizako aphezaren absoluzioneak  
hutsak barkhatzen tuela, bainan ez azoteak;*

510 *bethiko pena duela aldatzen laburrera,  
mundu hunetako edo purgatoriokora;*

---

*çuc ifini:* hots, zuk ipinitako.

498. *nola ere bait-:* kausal kutsua dario; ikus denborazko *noiz ere bait-:* 10.  
*baitcintuen:* ikus 349.

499. *saindu indulgentiez:* hots, induljenzia sainduez.

501. *Dohain:* bi bertsook hobeki adituko dituzu honela irakurriz: *Ecen segura  
gaitecen indulgentiaren (dohain) a dela dohain aiphatuetara hurbilltzen  
dena.*

505. *iaquitecotçat:* orain arte *iaquiteco* esan digu: ikus 470.

*dolore purgatceco handiac:* honela hobeki adituko duzu, agian: *dolore  
handi purgatcecoac;* hots, purgatu behar direnak: ikus 286.

509. *bethico... laburrera:* gatzelaniaz «eterna» eta «temporal» deriztenak.

Gure bekhatuec behar çuten punimendua  
çure bai sainduen dela mereciz pagatua.

Iainco puchantac duela çuen errespertura  
Luçaro soffritu behar quittatcen pena hura.

Bainan hambat baliatcen direla Indulgentiac  
Cembat declaratcen baitu mandatu egorriac.

Faltac parte edo osso dituela barkhatcen  
Hargatic ossoa dela edo parte deithatcen.

520 Hitz costumatuaz adi deçaguntçat egia  
Dembora bateco edo ezperen plenaria.

Hartaracotz aditcean saindu Indulgentia  
Cembatecoa den eguin deçagula guardia.

Gutziz ossoaren presta gaiten irabaztera  
Eta manatu den neque aphurra complitcera.

#### *Iubilioaz.*

Ordean ecin ciaitec asqui atçar mundua  
Irabaztera dignequi Iubilio Saindua.

Ehun urthetariç üen noizbat ehunetara  
Hogoi eta bortcetariç orain haiñbercetara.

530 Guiçonaren adiñari cioat beguiratu  
Ceña baita leheneco ephetariç laburtu.

Mundu guztira ontassun hura diat bidaltcen  
Cenac baititu bekhatu eta penac barkhatcen.

---

512. *çure bai sainduen*: hots, zure *eta* sainduen: ikus 213.

513. *çuen errespertura*: ilunak dira bi bertsook; irakur honela: *Iainco puchantac çuen errespertura luçaro soffritu behar duela quittatcen pena hura.*

515. *hambat... cembat*: hots, *bezanbat*. Ikus 26: *hambat... nola.*

519. *deçaguntçat*: ikus 472.

520. *ezperen*: hitz honen forma luzeagoa, ikus 459.

521. *saindu indulgentia*: ikus 499.

523. *presta gaiten*: baina *gaitecen* atera da lehenxeago: ikus 502.

*ossoaren... irabaztera*: eta ondoko bertsoan *neque aphurra complitcera, ez neque aphurraren*. Ikus 477.

525. *ordean*: bertsoaren hastean: ikus 101.



- gure bekhatek behar zuten punimendua  
zure bai sailduen dela mereziz pagatua;  
Iainko puxantak duela zuen erresetura  
luzaro sofritu behar kitatzen pena hura,  
bainan hanbat baliatzen direla induljenziak,  
zenbat deklaritzen baitu mandatu egorriak;  
faltak parte edo oso dituela barkhatzen,  
hargatik osoa dela edo parte deihatzen;  
520 hitz kostumatuz adi dezaguntzat egia,  
denbora bateko edo esperen plenaria;  
hartarakotz aditzean saildu induljenzia,  
zenbatekoa den egin dezagula guardia;  
gutziz osoaren presta gaiten irabaztera  
eta manatu den neke apheru konplitzera.

#### Iubilioaz.

- Ordean ezin ziaitek aski atzar mundua  
irabaztera digneki iubilio saildua.  
Ehun urthetarik üen noizbat ehunetara,  
hogoï eta bortzetarik orain hainberzetara.  
530 Gizonaren adinari zioat begiratu,  
zeina baita leheneko ephetarik laburtu.  
Mundu guztira ontasun hura diat bidaltzen,  
zeinak baititu bekhatu eta penak barkhatzen,

- 
525. *ordean*: bertsoaren hastean: ikus 101.  
*ciaitec*: hitanoa: ← *daite*; ikus *ciaitequec* ere: 773.  
*atçar*: ikus *atçarturenau*, 116.  
526. *Iubilio saildua*: hemen ez dio *saildu iubilioa*: ikus 521.  
527. *üen noizbat*: ikus *biak*: 20 eta 304. Lehen ehun urtez behin izan ohi  
zela dio poetak; gero, aldiz, hogeitabostez behin.  
529. *cioat*: hitanoa: ← *diot*. Ikus 226; eta *ciotçaat*, 629.  
531. *diat*: hitanoa: ← *dut*.  
*ontassun hura*: zesurak *biak* erdibitzen dituelarik. Ikus 475.  
532. *bekhatu eta penac*: hemen ere lehen hitzaren ondoan gertatzen da zesu-  
ra, izen sintagma hainbestez printzitzen duelarik. Ohar, orain arte

Eta hala bathaiatu inceneco chahura  
Iubiliac ekharcen au ossoqui statura.

Entçutean bada urthe Sainduaren berria,  
Ecen hala deithatcen duc aiphatu den gratia,

Irabaçac arimaren ahal eguin guztiaz,  
Aguien duc ikhussiren egun hura beguiaz.

540 Herioa hor heldu duc escuetan guecia  
Ustecabe ez eramen iduquiçac guardia.

Dembora den arteraño eguic erremedio  
Ecen hura ioanez guero deusic eztuc propio.

Halaberqui entçutean ohorezco icena  
Gorago aiphatu dugun Indulgentiarena,

Passatcera ezteçaquela utz non ez adin balia,  
Ez aiz segur ikhussiren duquen hurren aldia.

Baldin ascotan entçuten baduc mandatu bera,  
Behin ere ez aicela alfer irabaztera.

550 Hañitz aldiz merecitu tuquen pena larriac  
Hañitcetan quitta detçan erran Thresor handiac.

Hala hetçaz cerbituric dembora mugazcoan,  
Suac tormenta ez açan heriotce ondoan.

---

inoiz esan ez badugu ere: *eta*-k bi izen lotzen dituenen beti — ia beti bederen — bigarrena bakarrik dago mugatua eta kasu atzizkiz hornitua.

533. *bathaiatu inceneco chahura*: irakur ezazu honela: *bathaiatu inceneco estatu chahura*, nahiz *statura* erauzi eta ondoko bertsoa eraman duen. Ohar ere, *inceneco* dioela: ikus 2136.

534. *iubiliac*: bitara darabiltza, izan ere, latinez *-io* akabera duten hitzak: *iubilio* eta *iubili*, *purgatorio* eta *purgatori*...

536. *ecen... duc*: ikus 453.

538. *aguien*: hala dio beti, ez *agian*.

540. *ez eramen*: hots, *eraman* ez *hazan*. Dirudienez (*b*)*eraman*, (*b*)*arama*: behar du.

542. *ioanez*: bi silaba ditu: *iwanez*.

543. *halaberqui*: orain arte *halaber* esan digu.

545. *passatcera*: bertso honen lehen hemistikioan bi fonetika aldakuntza behar dira, zortzi silaba izango baditu: *-a e-* sinalefa eginez ahoskatu

*Eta hala bathaiatu inzeneko xahura  
iubiliak ekhartzen au osoki estatuta.*

*Entzutean, bada, urthe sainduaren berria,  
ezen hala deitbatzen duk aiphatu den grazia,  
irabazak arimaren abalegin guztiaz;  
agian duk ikhusiren egun hura begiaz.*

540 *Herioa hor heldu duk eskuetan gezia;  
ustekabe ez eraman, idukizak guardia*

*Denbora den arteraino egik erremedio,  
ezen hura ioanez gero deusik eztuk propio.*

*Halaberki entzutean oborezko izena,  
gorago aiphatu dugun induljenziarena,  
pasatzera eztezakela utz, non ez adin balia,  
ez aiz segur, ikhusiren duken hurren aldia.*

*Baldin askotan entzuten baduk mandatu bera,  
behin ere ez aizela alfer irabaztera,*

550 *hanitz aldiz merezitu tuken pena larriak  
hanitzetan kita detzan erran thresor handiak,*

*hala hetzaz zerbiturik denbora mugazkoan,  
suak tormenta ez azan heriotze ondoan.*

---

eta *-a u-* diptongo gisa. *Eztezaala pasatzen utz*, esan nahi du poetak. Ohar, bide batez: *utz* dio, Axularrek ohi duen bezalaxe, eta Etxeparek eta Leizarragak ez bezala; hauek beti *utzi*.

*non ez adin*: adizkiak *-(e)n* duelarik: ikus 454, 408, 93. Ez dirudi, halere, hiru haietako zentzu berbera duenik; hots, kondizionala. Baina oso bestelakoa ere ez: «sin que...» eta kondizionala ez bait dira guztiz arrotz elkarren: «no cenaré si no vienes» eta «SiN que vengas» ia bat dira: «niSi» eta «Sine». Eta euskaraz BA- eta BAge-BARik?

546. *duquen*: *bik*, noski; *-k-* gordea du, beraz.

548. *ez aicela*: ez, ordea, *ez adila*, gehiagotan ikusi dugun arrazoiagatik. Ikus 156,233,282.

549. *tuquen*: hots, *dituan* euskara batuan, aurrekoak (546) bezalaxe *-k-* gordea eta, ostera, *di-* galdua duelarik.

550. *erran Thesor handiac*: hots, errandako edo erran dugun.

551. *cerbituric*: biezaz baliatzen da: *zerbitu* eta *zerbitzatu*: ikus 828.

*Erromeriaz.*

- Estimatçac Erromeria Eliçaz laudatuac  
Ceren bisitatcen diren lekhu consecratuac.
- Virgina Amac bisitatu cien bere cusina,  
Bidez bide ibilliric portuetan aitcina.
- Celhai eta mendi gorac eguin citien unheric,  
Larrañeco çamariac mana cetçaquelaric.
- 560 Ni Cerura iganez ere gueroztic Caluaria  
Visitatu cien eta eman nintcen hobia.
- Berce gañeraco ere maiz citien lekhuac  
Ikhussi, nic presentia neurez oharatuac.
- Bi belhaunac lurreraric içarrez betheraño  
Helcen itüen Amaren othoitçac Ceruraño.
- Ecen lekhu berac cien ene Aita noblea  
Gombidatcen laudatcera Virginaren galdea.
- Bai halaber hareraño hartcen çuen nequeac  
Oñez eguiten unheric cituela bideac.
- 570 Amarena ikhussi duc choill eder exemplua,  
Enea orain iducac bihotcean hartua.

- 
553. *erromeria*: lau silaba dagozkio *erromerya*. Ez dio *erromeriac*, baizik eta *Eliçaz* artean sartua ez balego bezalaxe eman du izen sintagma; hots, *ikus itzak gizon berandu etorriak* du eredu, nolazpait esateko.
555. *cien*: hitanoa: ← *zuen*.
557. *citien*: hitanoa: ← *zituén*.  
*unheric*: hots, unhaturik, nekaturik, baina *-tu* atzizkirik gabe.
560. *visitatu cien*: zangalatrau dago.  
*eman nintcen hobia*: erlatibozko perpauz honen azpi egituran beste hau dago: *bobian eman ninduten*. Maiz agertuko da *eman* zentzu honezaz. Pasivaz esana dago, ordea: «la tumba en que fui depositado». Ohar, gainera, perpauz oso hori *Caluaria*-ri lotua dagoela *eta*-ren bidez eta aldi berean hargandik erauzia: ikus 2142.
562. *ikhussi*: zangalatrau dago.  
*presentia neurez*: hots, *neure presentiaz*.  
*oharatuac*: behin baino gehiagotan dator horrela: *oharatu* eta *ohoratu* biak ote ziren, ala inprenta hutsa ote lehena?
563. *lurreraric*: ez *lurreraturik*: ikus *unheric*, 557. Maiz egiten du hori: *-tu* gabe erantsi atzizkia erroari.

Erromeriez.

*Estimatzak erromeria Elizaz laudatuak,  
zeren bisitatzen diren lekhu konsekratuak.*

*Birjina Amak bisitatu zien bere kusina,  
bidez bide ibilirik portuetan aitzina.*

*Zelhai eta mendi gorak egin zitien unherik,  
larraineko zamariak mana zetzakelarik.*

560 *Ni zerura iganez ere geroztik kalbaria  
bisitatu zien eta eman nintzen hobia.*

*Berze gainerako ere maiz zitien lekhuak  
ikhusi, nik presentzia neurez oharatuak.*

*Bi belhaunak lurrerarik, izarrez betheraino  
heltzen itüen Amaren otboitzak zeruraino,  
ezen lekhu berak zien ene Aita noblea  
gonbidatzen laudatzera Birjinaren galdea,  
bai halaber hareraino hartzen zuen nekeak,  
oinez egiten unherik zituela bideak.*

570 *Amarena ikhusi duk xoil eder exenplua,  
enea orain idukak bihotzean hartua.*

---

*izarrez betheraño: irakur ezazu: Amaren otboitzac heltcen ituen Ceru  
izarrez betheraño, edo baita ere, izarrez bethe Ceruraño. Honelako  
perpau txikitzeak ikusi ditugu lehen eta aurrera ere ikusiko.*

565. *cien... gombidatcen: bi bertsotan barrena barreiatuak daude bi hitzak,  
Etxeparegan inoiz ez bezala. Ikus 35.*

567. *bai halaber: ikus 213. Lekuak berak, batetik, eta Amak hartzen zuen  
nekeak, bestetik, zuen gonbidatzen Aita Amaren eskeak betetzera:  
hori esan nahi du poetak.*

568. *unheric: ikus 557. Hitz honek hemen aditz sintagma (eguiten cituela)  
erditik ebakitzen du.*

569. *choill eder exemplua: baina exemplu choill eder, horrela paraturik ere,  
aurkituko dugu bat baino gehiago.*

*amarena: ikhussi duc artean sartu delarik, amaren behar zukeena muga-  
tzaillez jantzi du.*

570. *iducac: ikus 617, iduquitçac, plurala; baita beste singular hau ere: idu-  
quiçac, 118.*

Lagun gabe ioan ninduen portuetan barrena  
Gariçuma barurtcera ian gabe ahamena.

Ene ganic ikhas ezac, ecen ni nauc eguia,  
Verthute handia dela Saindu Erromeria.

Ecen gorputz hezgaitça dic handiro harc olhatcen,  
Eta bortchaz arimaren uztarrira ekhartcen.

Senjorale ibilltceaz ondratcen tuc Sainduac  
Eta hequin bitartecoz ardiasten donuac.

580 Bañan eguic Apheçaren conseilluaz bidea  
Hierusalem, Erroma eta San Iaquesco lucea.

Ungui baten eguiteco milla erhaqueria  
Halaco orduz igoal duc ez ethetic illkhia.

*Obra buruçaguietz.*

Oratione, Barur eta limosna Erromeriac  
Guiristiñoaren dituc obra buruçaguiac.

Ecen hec borthitzquienic die etsaia icitcen  
Nola baitute prestuec eguietan aurkhitcen.

Obra hetan treua adi hi ere guehienic  
Guiristiño prestuaren nahi baduc icenic.

*Promessez.*

590 Gauça guztiec ohi tic ceñec bere moldeac,  
Baita promessez halaber bere iustu legueac.

---

571. *ninduen*: hitanoa: ← *nintzen*.

*ioan*: silaba bakarrekoa da: *ioan*.

573. *ecen ni nauc*: *ecin* dio liburuak, baina *ecen* behar du. Ikus berebat *ezen* ez dela menderatzaile. Ikus 453.

574. *saindu erromeria*: hots, erromeria saindua.

575. *olhatcen*: hots, *ematzen*, *hezitzen* (*gorputz hez(i)gaitça hezi*).

577. *tuc*: hots, *dituc*.

578. *hequin*: genitivoa: ikus 382.

580. *lucea*: irakur ezazu: *bide luzea*.

581. *ungui baten*: ikus 400; gureztat aski bitxi dira honelako genitiboak, baina antzineko idazleengan maiz ageri dira; guk *ordez* erantsirik hobeki ulertzen ditugu. Ikus Etxepare: II,10; II,41, etab. *Ordez* edo baita

*Lagun gabe ioan ninduen portuetan barrena  
garizuma barurtzera ian gabe abamena.*

*Ene ganik ikhas ezak, ezen ni nauk egia,  
berthute handia dela saindu erronomia,*

*ezen gorputz bezgaitza dik handiro hark olbatzen,  
eta bortxaz arimaren uztarrira ekhartzen.*

*Seniorale ibiltzeaz ondratzen tuk sainduak  
eta bekin bitartekoz ardiasten donuak,*

580 *bainan egik aphezaren konseiluaz bidea,  
Hierusalem, Erroma eta San Iakesko luzea.*

*Ungi baten egiteko mila erbakeria,  
halako orduz igoal duk ez etxetik ilkhia.*

#### Obra buruzagiez.

*Orazione, barur eta limosna, erromeriak  
girstinoaren dituk obra buruzagiak,*

*Ezen hek borthitzkienik die etsaia izitzen,  
nola baitute prestuek egietan aurkhitzen.*

*Obra hetan treba adi hi ere gehienik,  
girstino prestuaren nahi baduk izenik.*

#### Promesez.

590 *Gauza guztiek obi tik zeinek bere moldeak,  
baita promesek halaber bere iustu legeak.*

---

*batentzat* ere. Poetak hauxe esan nahi du: «Para hacer mil locuras por una cosa buena, más vale quedarse en casa».

585. *borthitzquienic*: ez da beti horrelako idazkeraz baliatzen, baina maiz bai, Axular bezalaxe: hots, etimologismoa dela bide, leherkari mutuen aurrean afrikaria ipintzen du: hala nola, *utzten*, *hautsten*, *abantzen*, *etab.*, ikus *hobequiena*, 1129, *-nic* gabe.

*die*: hitanoa: ← *dute*. Ikus 232.

589. *obi tic*: hots, *obi ditic*, *nork* singularra delarik, nahiz ikusi batera *gauça guztiec* izan ergativo sujetoa; hala da, baina orokorra, gero zehazkiago *ceñec* beretzen duena; hainbestez bigarren *ceñec* hori bilakatzen da benetako sujeto.

590. *iustu legeac*: hots, lege iustuak.

- Promessaren eguiteco hau daroat conseillu,  
 Eta ikhastera nihoiz ez aicela urguillu.
- Eguñen duen promessa beharco duc iduqui,  
 Punimendua burura eztathorquen iustuqui.
- Eta eguic compli ahal deçaquen ontassunaz  
 Guero orhoit complitcera gauaz eta egunaz.
- Votuaren eguiteaz itsussi den fiñeco  
 Othoitz eguin arren deusic eztuc ardiatsico.
- 600 Gauça gora duc votua; hartaracotz abisu  
 Apheçari galdetceaz eztuc behar gorritu.
- Badariac maizquienic hunela duc eguiten  
 Behar handian dagoen presunac dic formatcen.
- Ordean prudentiaren ez hautsteco legueac  
 Condaturen dugun moldez eguitcic hic heureac.
- Saindu guztiec eguia duc dutela podorea  
 Presunari ardiasteco premiazco galdea
- Guztiarequin seguren hic eguquec promessa  
 Ceña guero deusec ere guibela ez baiteça.
- 610 Principalqui Saindu hari dedicatu etchera  
 Gauça hura ceren baita ematen orhoitcera

- 
591. *hau daroat conseillu*: irakur ezazu: *conseilu hau daroat*: ikus 2825,1007,  
 Eta *eman* esan nahi duela sinesteko, ikus ere 339.  
*ez aicela urguillu*: ikus 548.
593. *duen*: *bik*, noski; ikus, aldiz, *duquen*: 546.
594. *eztathorquen*: erka ezazu hau lehen (202) atera den beste adizki harekin;  
*eztathorren*, eta aitortu behar honako hau *nor-nori* forma dela; *guk*  
*ez datorkian* esan ohi duguna. Eta hura ez?
595. *deçaquen*: *nik*, noski; euskara batuan *dezaan* dioguna: ikus 28.
597. *eguiteaz*: hitz hau ondoko bertsoaren *extuc ardiatsico* sintagmari lotu behar  
 zaio; haren instrumentala da.
599. *gora*: adjetivoa da bete betean eta hainbestez *gorak* ere ageri da.
601. *badariac*: hots, bada ezpada, ordean, halaz ere; ikus 3181, *bardariac*.  
*maizquienic*: *maiz* edo *maizki*, beraz. Ikus *halaberqui*: 543; eta 371, *maiz-*  
*quiago*.
603. *ordean*: ikus 363.



*Promesaren egiteko hau daroat konseilu  
eta ikhastera nihoiz ez aizela urguilu:*

*eginen duen promesa beharko duk iduki,  
punimendua burura eztathorken iustuki  
eta egik konpli abal dezaken ontasunaz,  
gero orhoit konplitzera gauaz eta egunaz.*

*Botuaren egiteaz itsusi den fineko,  
othoitz egin arren, deusik eztuk ardiatsiko.*

600 *Gauza gora duk botua, hartarakotz abisu  
aphezari galdetzeaz eztuk behar gorritu.*

*Badariak maizkienik hunela duk egiten,  
behar handian dagoen presunak dik formatzen,  
ordean prudenziaren ez hautsteko legeak,  
kondaturen dugun moldez egitzik hik heureak.*

*Saindu guztiek egia duk dutela podorea  
presunari ardiasteko premiazko galdea,  
guztiarekin seguren hik egikek promesa,  
zeina gero deusek ere gibela ez baiteza.*

610 *Prinzipalki saindu hari dedikatu etxera,  
gauza hura zeren baita ematen orhoitzera*

---

*hautsteco*: ikus arestian esana: 585.

604. *eguitic*: ikus 356.

*heureac*: ikus 421; 422.

605. *guztiac*: bi silaba baizik ez du bertso honetan: *guztyek*.

607. *eguiquec*: ikus *eguiquec*, 173.

*guztiarequin*: sei bertsook aski ilunak dira. Hona zer dioen, ene ustez, poetak: «Con todo, tu promesa será más segura y nada podrá retraerte de ella, si la haces de acudir a un santuario dedicado de modo especial a aquel Santo, de quien es fama que concede dicha gracia, bien porque hay pruebas de haberla concedido a menudo, bien porque el Señor se la prometió de modo particular».

608. *ceña guero*: hots, *deusec ere guero guibela ezteçana*: «tal QUE nada luego la pueda revocar».

610. *ceren baita*: ipin zitezkeen bi hitzok bertsoaren hastean eta agian aho hizkeraren araukoagoa zatekeen. Ikus 190.

Edo ematen duela asco aldiz frogatuz  
Edo hari eternalac beregainqui aguinduz  
Finean ardiasteco cerbait segur bidea  
Sinhetsac dela famosen Sainduei escatcea.

*Reliquiez.*

Ohora detçac reliqui Saindu dohatsuenac  
Ecen dituc glorioso egoitça arimenac.  
Iduquitçac ere ecertan hec gauça uquituac  
Nahiz tresnac diren nahiz gaineraco hatuac.  
Ecen hec non diren lekhu Saindutara Iaincoac  
620 Bidaldu ohi tic dohain haguitz francoagoac  
Ceren Sainduac baitute guehienic othoizten  
Lekhu hequintçat guehien non baitire ondratcen.  
Bañan eguic guehiago estima reliquiez  
Hedaturic dauden baño Sainduen iduriez  
Guehiago duc çuhatça baita adar hautsia  
Guibelera itçal baño haritçac egotcia.

- 
613. *segur bidea*: hots, bide segura. Irakur honela: *Finean ardiasteco cerbait, sinbetsac bide segura dela Saindu(ric) famosenei escatcea.*
614. *famosen sainduei*: hots, saindu(rik) famosenei.
615. *detçac*: inperativo izanik ere, *d-* duelarik dago. Ikus 127.  
*dohatsuenac*: hots, *saindu dohatsuen reliquiac*; ala dohatsuen reliquia sainduac?
616. *ecen dituc*: ikus 573.  
*arimenac*: hots, *arima gloriosoen egoitçac*; ala arimen egoitça gloriosoac?
617. *iduquitçac*: ikus honen singularra, 570; 118.  
*ecertan*: esapide bat da hori: ezertan eduki; hots, haintzat hartu. *Ere ecertan*: elisioa egin behar da.  
*hec gauça ukituac*: hau bestetan honela esan ohi du: *hec ukitu gauçac*: ikus 497; 550.
618. *tresnaz*: inprenta hutsa da, agian: *tresnac* behar du.

*edo ematen duela asko aldiz frogatuz  
edo hari eternalak beregainki aginduz.  
Finean ardiasteko zerbait segur bidea,  
sinhetsak dela famosen sainduei eskatzea.*

### Relikiez.

*Ohora detzak reliki saindu dohatsuenak,  
ezen dituk glorioso egoitza arimenak.*

*Idukitzak ere ezertan hek gauza ukituak,  
nahiz tresnak diren nahiz gainerako hatuak,*

620 *ezen hek non diren lekhu saindutara, Iainkoak  
bidaldu obi tik do bain hagitz frankoagoak,*

*zeren sainduak baitute gehienik otboizten  
lekhu hekintzat, gehien non baitire ondratzen,*

*bainan egik gehiago estima relikiez,  
bedaturik dauden baino sainduen iduriez.*

*Gehiago duk zubatza, baita adar hautsia,  
gibelera itzal baino haritzak egotzia.*

- 
619. *ecen hec non diren: non gabe aski zen, noski; erlativo soila da hor: ikus 545.*
621. *sainduac: seinduec dakar liburuak, baina inprenta hutsa da.*
622. *heqintçat: hots, haientzat; ikus 578; 655.*  
*guebien: irakur honela: non baitire guebien ondratcen. Non hemen erlativo gisakoa da soilik. Ikus 545; 619.*
623. *bañan: irakur honela: bañan eguic estima guehiago reliquiez, bedaturic dauden sainduen iduriez baño.*
625. *baita adar hautsia: hots, adarrak hautsiak dituena ere bai. Adar hautsia, beraz, adjetivo konposatua da, begi oker, buru handi eta abar bezala.*
626. *guibelera: irakur honela: haritçac guibelera egotci itçala baño. Hauxe esan nahi du poetak: zuhaitza, baita adar hautsia ere, atzera egotzen duen itzala baino gehiago den bezalaxe, erlikiak ere, hil diren santuen gorputz adar hautsien antzeko baitira, santu horien beren irudiak baino estimu handiagotan eduki behar dira, irudiak itzala baizik ez bait dira.*

*Agnuz Deiaz.*

- Agnuz Dei sacratuac ni niauc presentatcen  
Eta bildotsarequi(e)n thailluzqui comparatcen.
- 630 Hartaracotz iratchaqui ciotçaat indarrac  
Haren moianez guïçonen estaltceco beharrac.  
Eliç-Ama noblearen beraz Saindu leguea  
Ezteçaquela estima probetchuric gabea.  
Ecen ozpin crueletic presuna dic guardatcen  
Eta bekhatu venial guztietaric libratcen.  
Erre edo ithotceco halaber perilletic  
Guardatcen dic, heriotce nola ustecabetic.  
Sathan ere icituric bidaltcen dic lecera  
Eta etsaia erakhartcen nahi dugun menera.
- 640 Gogatuac libratcen tic erditceco miñetic  
Agnuz Dei sainduaren hauc dituc verthutetic.  
Aiphatuez berce alde badic berceric ere,  
Eta limber batec hambat nola puscac bothere.  
Haren beraz ekhartceco eguin adi propio  
Ecen gaitz handientçat duc hura erremedio.  
Eguiquec beraz hain handi dohañaz probetchua  
Ez incela excusatu gabe abisatua.
- 
627. *niauc*: hitanoa: ← *nau*.  
628. *bildotsarequin*: silaba bat falta du lehen bertso erdiak. Ene ustez, *bildotsarequien* behar du izan. Ikus 394.  
*thailluzqui*: hots, *egoki*, *itxuraz* esan nahi bide du: ikus 1709.  
629. *hartaracotz*: hala dio, baina *hartaracotz* behar du.  
*ciotçaat*: guk, zenbait lekutan bederen, *zizkioat* esan ohi duguna. Hitanoa da, beraz; hona nola formatua den: *diot* → *ciot* (ikus 529) eta hainbestez *ciot* honen objeto pluralekoa *ciotçaat*, pluralgile *-tça-* duelarik.  
631. *saindu leguea*: hots, lege saindua. Ikus 526.  
632. *ezteçaquela*: *nik*, noski. Ikus 199, 220.  
634. *guztietaric*: honela ahoskatu behar da: *guztyetarik*.  
636. *heriotce nola ustecabetic*: hots, nola heriotce ustecabetic.  
640. *hauc dituc verthutetic*: hauxe esan nahi bide du poetak: «Estas son al-

Agnus Deiaz.

*Agnus Dei sakratuak ni niauk presentatzen  
eta bildotsarekien thailuzki konparatzen.*

630 *Hartarakotz iratxaki ziotzaat indarrak,  
haren moianez gizonen estaltzeko beharrak.*

*Eliz Ama noblearen, beraz, saindu legea  
eztezakela estima probetxurik gabea,*

*ezen ozpin krueletik presuna dik guardatzen  
eta bekhatu benial guztietarik libratzen.*

*Erre edo ithotzeko halaber periletik  
guardatzen dik, heriotze nola ustekabetik.*

*Sathan ere iziturik bidaltzen dik lezera  
eta etsaia erakhartzen nabi dugun menera,*

640 *gogatuak libratzen tik erditzeko minetik,  
Agnus Dei sainduaren hauk dituk berthutetik.*

*Aiphatuez berze alde badik berzerik ere  
eta linber batek hanbat nola puskak bothere.*

*Haren, beraz, ekhartzeko egin adi propio,  
ezen gaitz handientzat duk hura erremedio.*

*egikek, beraz, hain handi dohainaz probetxua,  
ez inzela exkusatu gabe abisatua.*

---

gunas de las virtudes o efectos del sagrado Agnus Dei». Zer da *verthutetic*, beraz? *verthute(eta)tic*?

641. *aiphatuez*: irakur itzazu honela bi bertsook: *berce alde badic aiphatuez berce bothereric ere, eta linber batek hambat nola puscac; -z berce* («otro que») guztiz klasikoa da: ikus 2528.

*berceric ere... bothere*: sintagma hau, beraz, *berce bothereric ere* da berez aho hizkeran.

642. *hambat... nola*: ikus 26. Hori komunzki honela esan ohi dugu: *puskak bezanbat linber batek*: ikus 793.

645. *equiquec*: ikus 607.

*hain handi dohañaz*: hots, *hain dohain handiaz*. Eta zesurak bitan zatiturik, gainera: ikus 775.

646. *ez incela*: irakur honela: *excusatu gabe ez incela abisatua*: «sin pretextar que no fuiste advertido».

*Imaginez.*

- Imaginari eguioc erresetuz agurra  
Cergatic imagina den Sainduaren itchura.
- 650 Ene legue bicia duc predicu pensatua  
Legue hillaren gorputça pintura colorsua.  
Manu sainduac obrara emanen iduriac  
IarraiQuitcera atçartcen tic presuna naguiac.  
Hartaracotz ohoratçac orhoitçapen biciaç  
Eliç-Ama Catholicac beguietan utciac.  
Mundanoec nahi die eguin daiten hequiñac  
Arroçoin duc eguitea hobeagoaquiñac.  
Bañan ezteçala altcha figura guiçonenic  
Eliç-Amac Sainduetan condatu gaberenic.
- 660 Ecen harc iduri liquec gaixto idolatria  
Ceren gatic açotatu baitut Iudu herria.  
Nahi diat errespeta detçaquen iduriac  
Bañan noren baitirade agueri mereciac.  
Imagina ondratcean Saindua duc ondratcen  
Eta laido ematean halaber desondratcen.  
Ecen halacoac eztic estimatcen Princea  
Ceñac baitu arbuiatcen armoria noblea.

- 
648. *cergatic*: oraino beti *ceren* esan digu; beste hura (429) erlatibo soila da eta adizkiak *bait-* du, hemengoak ez bezala.
649. *ene legue bicia*: hau predikadoa da; beste izen sintagma, ostera, sujetoa. Modu berean daude predikadu-sujetoak ondoko bertsoan.
651. *manu sainduac*: bi bertsook azterketa zehatza behar dute, ongi aditzeko: *manu sainduac* objeto da, *eman-* izenkiarena, noski; *emanen* pluraleko genitibo da; *iduriac* singularra da, *nork*, noski; *presuna naguiac* objeto da, *atçartcen tic* adizkiaren objeto. Hona itzulpena: «La imagen de quienes han puesto en práctica los santos mandamientos incita a las personas indolentes a proseguir».
655. *die*: hitanoa: ← *dute*. Ikus 585; baina inoiz *ditec* esan ohi du: ikus 1065. *hequiñac*: hots, heienak edo haienak. Ikus *bequienac*, 317.
656. *hobeagoaquiñac*: hots, hobeagoenak, edo hobeagoen irudiak. Ikus aurreko bertsoa.

Imajinez.

- Imajinari egiok errespetuz agurra,  
zergatik imajina den sainduaren itxura.*
- 650 *Ene lege bizia duk prediku pensatua,  
lege hilaren gorputza pintura kolorsua.*
- Manu sainduak obrara emanen iduriak  
iarraikitzen atzartzen tik presuna nagiak.*
- Hartarakotz ohoratzak orhoitzapen biziak  
Eliz Ama katolikak begietan utziak.*
- Mundanoek nahi die egin daiten bekinak,  
arrazoin duk egitea hobeagoakinak,*
- bainan ezteçala altxa figura gizonenik,  
Eliz Amak sainduetan kondatu gaberenik,*
- 660 *ezen hark iduri likek gaixto idolatria,  
zerengatik azotatu baitut Iudu herria.*
- Nahi diat errespeta detzaken iduriak,  
bainan noren baitirade ageri mereziak.*
- Imajina ondratzean saindua duk ondratzen  
eta laido ematean halaber desondratzen,*
- ezen halakoak ezetik estimatzen Prinzea,  
zeinak baitu arbuiatzen armoria noblea.*

- 
657. *ezteçala*: ikus 171; 220.  
*figura guizonenic*: hots, gizonen figurarik. *Gizonen*:- mugagabe.
658. *gaberenic*: honek erakusten digu aurreko *guizonenic* mugagabe dela. Ez bait dio *gabeenic*; hauxe esan nahi du poetak: Eliza Amak sainduen artean kondatu ez duen (ezein) gizonen figurarik ez altxa. Edota *kondatu gabe(ko ezein)*...
659. *liquec*: hitanoa: ← *luke*.  
*ecen*: ikus 573.  
*gaixto idolatria*: hots, idolatria gaixtoa. Ikus 631.
660. *ceren gatic*: erlativo gisakoa: «por lo que»; ikus, aldiz, 648 eta 429.
661. *detçaquen*: *bik*, noski: ikus 595.
662. *noren*: erlativo gisakoa: «de quien son notorios los méritos». Ohar: ez dio *zeinen*; lehenbiziko aldiz darabil *nor*- bemen erlativo gisara.
665. *halacoac*: honen osagarri da ondoko bertsoko *ceñnac*: «aquél que...».

Gu titchosac guiaudecec urrezco cadiretan  
 Eracusten ez garela baicen imaginetan,  
 670 Pintura duc beguiaren çuhurtcia lasterra  
 Erretaulan contempla çac gure bici ederra.  
 Verthuteac ere imita, iarraiçui oiñ-hatçari  
 Fauoreac içanen tuc baldin esca bahadi.  
 Ene aitac ohoratu beharco dic lehenic  
 Guero haren ondoan nic, spirituac azquenic.  
 Gure hurrenean guero cortesano Sainduac  
 Ceñec eguin baitcituzten gure manu iustuac.  
 Ordena hau eztuc behar niholatan ahantci  
 Ecen ondrac ciagoztec presunei differentçui.

*Eliçaz.*

680 Hauc guztiac ikhassi tuc. Oraño ene hitça  
 Entcun eçac, iaquiteco ea cer den Eliça.  
 Eliça duc arbola bat içarrerañooca  
 Itçaltcen duela mundu guztiaren campoa.  
 Fautua duc religione neronec ifinia  
 Eta mami obra onac, açal ceremonia.  
 Baterere ezteçala açala mezprecia  
 Ceren baita fruituaren leial beguiraria.  
 Edo ezperen Eliça duc vntci berregiindua  
 Ifernuco uriz eta haicez tormentatua.

---

667. *guiaudecec*: hitanoa: ← *gaudez*. Ikus 203, *ciaudecec*.

668. *eracusten*: irakur honela: *imagnetan eracusten baicen ez garela*. Hauxe esan nahi du: irudietan bere buruak erakutsi baizik ez dute egiten dohatsuek: baina egon, urrezko kadiretan daude.

669. *pintura*: horra zer definizio polita ematen digun poetak pinturaz.

671. *ere imita*: ahoska ezazu honela: ereymita.

672. *esca bahadi*: iragangaitza da *eskatu* (ikus 96) eta vokale artean *b*- idatzi du: ikus 27.

673. *ohoratu beharco dic*: gatzelaniazko pasiva da: «habrá de ser venerado»; ez, noski, inor ohoratu behar Aitak: ikus 3700.

676. *ceñec*: ergativo plurala; ikus, ordea, 484.

677. *ordena*: eta *ordenu*, biak darabiltza. Ikus 1602.

678. *ciagoztec*: hitanoa: ← *dagozte*.



*Gu titxosak giaudezek urrezko kadiretan,  
erakusten ez garela baizen imajinetan.*

670 *Pintura duk begiaren zuburtzia lasterra,  
erretaulan kontenpla zak gure bizi ederra.*

*Berthuteak ere imita, iarraiki oinhatzari,  
faboreak izanen tuk, baldin eska bahadi.*

*Ene aitak oboratu beharko dik lehenik,  
gero haren ondoan nik, spirituak azkenik.*

*Gure hurrenean gero kortesano sailduak,  
zeinek egin baitzituzten gure manu iustuak.*

*Ordena hau eztuk behar niholatan ahantzi,  
ezen ondrazkiak zuzenki presunei diferentki.*

Elizaz.

680 *Hauk guztiak ikhasi tuk. Oraino ene hitza  
entzun ezak, iakiteko ea zer den Eliza.*

*Eliza duk arbola bat izarrerainokoa  
itzaltzen duela mundu guztiaren kanpoa.*

*Fautua (fruitua?) duk religione neronek ifinia  
eta mami obra onak, azal zeremonia.*

*Baterere eztezala azala mesprezia,  
zeren baita fruituaren leial begiraria.*

*Edo ezperen Eliza duk untzi berregindua,  
ifernuko uriz eta haizez tormentatua.*

---

681. *ıçarrerañocoa*: ez dio *ıçarretarañocoa*.

682. *duela*: edo duelarik.

683. *fautua*: zer da *fautua*? Hiztegiek ez dakarte. *Mami* eta *azal*-ari kontrajar-tzen zaie bertsoan. Ene ustez inprentako hutsa da eta *fruitua*-ren ordez dago. Ikus hiru bertso beheago (686): *azala, hots, zeremoniak FRUITUAREN* begirari omen dira.

684. *mami*: ez *mamia*, aurrekoan *fautua* esan badu ere. *Mami* bezala *açal*. Biok (*mami eta açal*) predikatu dira; *fautua* ere bai?

685. *baterere*: silaba bat gehiago behar eta *-re* bi bider esan du. Ikus 763: *adillala*. Bestetan, aldiz, *batre* dio: ikus 1445. *ezteçala*: ikus *ezteçaquela*, 632.

686. *leial beguiraria*: hots, beguirari leiala.

687. *edo ezperen*: ahoska ezazu *edwezperen*: ikus 459.

688. *uriz*: guk *euriz* esan ohi duguna.

- 690 Hara huna ciabillac haice contraz luyetan  
Eztuc ordean seculan galduco uhiñetan.  
Hunetcheç dic ardiasten velan Parabissua  
ceñ(a) baita Christau onen saluatceco portua.  
Saluamendua duc hemen eta ez untci bercetan  
Ceñac hondatcen baitire hunen incuntruetan.  
Barkha hunen burgessa duc ene Aita eternoa  
Ni nauc guero buruçagui haren hurrenecoa.  
Spiritu Sacratua itsassoco pillotu  
Ceñac tormentetan baitu bide onaz guidatu.
- 700 Ama duc gure ondoan lehenbici parçuner  
Apostoluac aguintari, laiecoac passaier.  
Lagun Aphez eta Fraide munduaz ukhatuac  
Eta ene gatic bici penosa hautatuac.  
Soldaduac doctor eta predicari iaquiñac  
Garaituaz doacela hirur etsai gordiñac.  
Heretico thematsuac arauco presuner  
Eliçama Sainduari ceñac baitçaizco aiher.  
Hunelaco Eliça duc gendez esquifatua  
Onac eta gaiztoac ere badic bere lekhuia.
- 710 Bañan comunqui Eliça guc aditcen duguna  
Guiristiño guztien duc Catholico billduma.  
Aphez gobernatçailleen eguia duc bilkhua  
Deitcen dugula Eliça batçuetan Saindua

689. *ciabillac*: hitanoa: ← *dabila*.

*luyetan*: hots, haizea kontra duelarik.

692. *ceñ*: hala irakurtzen da liburuan, baina *ceña* behar du, osteria silaba bat gutxiago bait du lehen bertso erdiak.

693. *untci bercetan*: hots, berce untcietan.

694. *incuntruetan*: Etxeparek *encontru*, IX,1.

697. *spiritu*: ahoska ezazu: *espiritu*.

699. *apostoluac*: ahoska ezazu: *apostolwak*.

700. *munduaz ukhatuac*: zer da *munduaz*? gaztelaniazko «por», eta hainbestez *ukhatuac* «pasivoa» litzateke, ala «del», eta orduan «aktivoa»: «que han renegado del mundo». Ikus ondoko bertsoa.

690 Hara huna ziabilak haize kontraz luetan,  
 eztuk, ordean, sekulan galduko ubinetan.  
 Hunetxek dik ardiasten belan parabisua,  
 zeina baita kbristau onen salbatzeko portua.  
 Salbamendua duk hemen eta ez untxi berzetan,  
 zeinak hondatzen baitire hunen inkuntruetan.

Barkba hunen burjesa duk ene Aita eternoa,  
 ni nauk gero buruzagi haren hurrenekoa.

Espiritu sakratua itsasoko pilotu,  
 zeinak tormentetan baitu bide onaz gidatu.

700 Ama duk gure ondoan lehenbizi parzuner,  
 Apostoluak agintari, laiekoak pasaier,

lagun aphez eta fraide munduaz ukbatuak  
 eta ene gatik bizi penosa hautatuak.

Soldaduak doktor eta predikari iakinak,  
 garaituaz doazela hirur etsai gordinak:

heretiko, thematsuak, araeuko presuner,  
 Eliz-ama sainduari zeinak baitzaizko aiher.

Hunelako Eliza duk iendez eskifatuak,  
 onak eta gaixtoak ere badik bere lekhua,

710 bainan komunki Eliza guk aditzen duguna,  
 girstino guztien duk katholicoko bilduma.

Aphez gobernatzaileen, egia duk, bilkhua  
 deitzen dugula Eliza batzuetan saindua,

---

701. *bautatuac*: hau, dudarik gabe, «aktivoa» da.

*bici penosa*: zesurak erdibitzen du izen sintagma.

705. *heretico*: hona haiek garaitzen dituzten hiru etsaiak: heretikoak, thematsuak eta araeuko presunerak edo presoak.

707. *hunelaco*: hitz hau *gendez*-i lotu behar zaio: hots, hunelako gendez duc Eliça esquifatua.

708. *gaiztoac*: ahoska ezazu: *gaiztuak*.

710. *catholico bilduma*: hots, bilduma catholicoa. Ikus 14.

711. *egia duc*: ziri gisa sartua dago beste izen sintagman: *aphez gobernatçaillen bilkhua*.

712. *batçuetan*: *eliça saindua* den izen sintagma printzatzen du.

Parte principalenari guztiaren icena  
Ematen çaiola ceren den señaletuena.

*Eliçaren manu generalez.*

Eliçaren hauthec dituc manu generalenac  
Guiristiñoac gogoan hartu behar tuenac.

Ni obedi naçac Iesus Christen espos leiala  
Eta errespeta heure ama ona beçala.

720 Ecen Iessussec umetçat ez au auoaturen  
Non ez nauquen ni lurrean amatçat aithorturen.

Ene hitçac sinhetz etçac nahiz escribatuac  
Edo ezperen traditione escuz escu hartuac.

Hetan ere emac fede, ecen dituc eguiac,  
Ecin hutsic ciadiquec Eliçama guztiac.

Ecen ni nauc Iaun puchantaz beti inspiratua  
Eta faltan erortcetic ciñez beguiratua.

Hartaracotz ifiñico nic ditudan legueac  
Guiristiñoa sinhetzquic enganío gabeac.

730 Eta hala bessarcatçac ene saindu usantçac  
Ceñen ossoac baititut ifintceco puchantçac.

*Eliçaren manu particularez.*

Igande eta bestetan largaçaquec nequea  
Eta Cerucoei eman mereci ohorea.

---

714. *señaletuena*: hala dago, baina *señalatuena* behar du beste guztietan bezala.

719. *non ez nauquen*: *-(e)n* atzizkia du adizkiak eta hau indikativo soila da:  
ikus 545. Nabari du balio kondizionala.

*nauquen*: euskara batuan *nauan* dioguna; *-k-* gordea.

723. *ecen dituc*: ikus 573.

724. *ciadiquec*: hitanoa: ← *dadike*. Agian hutsa da eta *ciaidiquec* behar  
(← *daidike*), baina ez da gauza segurua, bietara esan ohi bait du:  
*dadike* eta *daidike* (ikus 853), berez azken hau zuzenago bada ere:  
*\*-idi-*. Etxeparek, Ohenartek eta abarrek *-ke* gabe erabili ohi dute  
eta halaz ere «ahal izatea» adierazi; Lafonek dioenez *egin*-ek ez bait  
du *-ke* duen adizkirik (*dagiket* edo) eta hutsune hori betetzen bait

*parte prinzipalenari guztiaren izena  
ematen zaiola, zeren den seinalatuena.*

Elizaren manu jeneralez.

*Elizaren hautxek dituk manu jeneralenak,  
girstinoak gogoan hartu behar tuenak:*

*Ni obedi nazak Iesus Kbristen espos leiala  
eta errespeta heure ama ona bezala,*

720 *ezen Iesusek umetzat ez au aboaturen,  
non ez nauken ni lurrean amatzat aithorturen.*

*Ene hitzak sinhets etzak, nabiz eskribatuak.  
edo ezperen tradizione eskuz esku hartuak.*

*Hetan ere emak fede, ezen dituk egiak,  
ezin hutsik ziadekek Eliz-ama guztiak,  
ezen ni nauk Iaun puxantaz bethi inspiratua  
eta faltan erortzetik zinez begiratua.*

*Hartarakotz ifiniko nik ditudan legeak,  
girstinoa, sinhetzkik enganio gabeak*

730 *eta hala besarkatzak ene saindu usantzak,  
zeinen osoak baititut ifintzeko puxantzak.*

Elizaren manu partikularez.

*Igande eta bestetan largazakek nekea  
eta zerukoei eman merezi ohorea.*

---

du, hain zuzen, \*idi- erroak: *daidit, daidi* etab. Etxeberriker ere badaiki *daidi* esaten: ikus 1387.

725. *ecen ni nauc*: ikus 723.

727. *hartaracotz*: hala dio, baina *hartaracotz* behar du.

728. *sinhetzquic*: berez *sinhets(quic)* behar: ikus 471. Baina *-ts + -zkik*: z gailentzen bide da.

729. *ene saindu usantçac*: hots, *ene usantça sainduac*.

730. *ceñen*: irakur honela: *ceñen ifintceco puchantça ossoac baititut*.

731. *bestaten*: hala dio, baina *bestetan* behar du. Gure poetak liburuaren azken azkenean, MANUALA LABURQUI deritzan atalean, honako bertso hauek (731-746) dakartza berriro aldakuntza txiki batzuekin; bada han *bestetan* jartzen du.

*largaçaquec*: geroko inperativoa ala *deçaquec*? Ikus 379. Berebat ondoko *adiçaquec*: 733.

Meça beraz adiçaquec egun hequin goicean  
Eta gañeraco eguna emplega obra onean.

Ecen berce egunac Iaunac eman tic trauailluco  
Bañan igandeac eta bestac othoitcetaco.

Aphecei ekhar diecec behar errespetua  
Ceren iduquitcen duten Iaincoaren lekhoa.

740 Eztiendela iduqui çor daroen fioa  
Cerbi deçaten biciaz artha gabe Iaincoa.

Hic halaber ventçutceco haragui gudutsua  
Errespetuz beguira çac barur egun Saindua.

Hartaracotz barur ezac Gariçuma guztia  
Halaber laur demborequin Sainduen vigilia.

Ezteçaquela haragui ian aiphatu muguetan  
Ez hain guti Orcirale eta Larunbatetan.

Guehiago lauda etçac Saindu ceremoniac  
Candelero eguneco nola biztu arguiac.

750 Eta hautsterriz hautsaren burura ematea  
Orhoitceco hautz bihurtcen dela gorputz maitea.

Baita are arramua escuan ekhartcea  
Herstu denean arramu Sainduco igandea.

Gañeraco Eliçaren berce Ceremoniac  
Lauda etçac eta onhetz haren athun guztiaç.

---

733. *hequin*: ikus 578.

734. *eta gañeraco*: honen -o eta e- silaba berean ahoskatu behar dira: -we-; orobat *emplega*-ren -a eta ondoko o-.

735. *berce egunac*: elisioa egin behar da.

*trauailluco*: ez *trauailluraco*, eta ondoko bertsoan ere, *othoitcetaco*, ez *othoitcetaraco*: ikus *fiñeco*, 597. MANUALA LABURQUI delako eraskinean *nekhateco* dio, ez *trauailluco*.

737. *ekhar diecec*: ikus 731. Hau bitara ezin har daiteke; hau nahi eta ez inperativo da, guk *iezaiek* dioguna, bere d- eta guzti: ikus 379. Ikus *diecequec*: 360.

*behar errespetua*: hots, behar diean errespetua,

739. *eztiendela*: ikus 737. Guk ez *diezaieala* dioguna.

740. *cerbitcade*: hau oker dago; lehen bertso erdia ere laburregi da. Azken eraskinean honela dio: *cerbi deçaten biciaz*...

*Meza, beraz, adizakek egun bekin goizean  
eta gainerako eguna enplega obra onean,  
ezen berze egunak Iaunak eman tik trabailuko,  
bainan igandeak eta bestak otthoitzetako.*

*Aphezei ekhar diezek behar errespetua,  
zeren idukitzen duten Iainkoaren lekhua.*

740 *Eztiezela iduki zor daroen fioa,  
zerbi dezaten, biziaz artha gabe, Iainkoa.*

*Hik halaber bentzutzeko haragi gudutsua,  
errespetuz begira zak barur egun saindua.*

*Hartarakotz barur ezak garizuma guztia,  
halaber laur denborekin Sainduen bijilia.*

*Eztezakela haragi ian aiphatu mugetan,  
ez hain guti orzirale eta larunbatetan.*

*Gebiago, lauda etzak saindu zeremoniak,  
kandeleru eguneko nola biztu argiak*

750 *eta hautsterriz hautsaren burura ematea,  
orhoitzeko hauts biburizen dela gorputz maitea.*

*Baita are arramua eskuan ekhartzea,  
herstu denean arramu sainduko igandea.*

*Gainerako Elizaren berze zeremoniak  
lauda etzak eta onhets baren athun guztiak,*

---

741. *hic halaber ventçutceco*: horren ordeaz azken eraskinean honela: *Sujet errendatcecotçat...*

742. *errespetuz*: bertso hau honela aldatu du gero: *Abstinentia beguira albaiteça Saindua.*

744. *laur demborequin*: hots, «las cuatro témporas» deriztenak.

746. *ez hain guti*: ikus 175.

747. *saindu ceremoniac*: hots, *ceremonia sainduac*. Ikus 631.

748. *nola*: bertsoaren hastean irakurriz gero, hobeki aditzen da; *arguiac* ez, *çuciac* dio azken eraskinean.

749. *hautsterriz*: afrikaria idatzi du: ikus 585.

*hautsaren*: baina bi bertso beheerago *arramua*, ez *arramuaren*.

754. *onhetsy*: *onhets* behar luke: ikus 167; baina ez da inprenta hutsa.

Ecen eztic aitciñatcen deusic probetchu gabe  
Hequin beraz guardatcera eztuquela herabe.

*Escumicuaz.*

- Haren beraz ezadilla altcha contra deusetan  
Bañan seme onac leguez obedi çac hitcetan  
Eta faltan baldin bahaiz erori maleciaz  
760 Berehala doloradi eguin duquen gaizquiaz.  
Iaincoari esca aquio barkhamendu humillqui  
Eta ez berriz itçulceco promez eguic fermuqui  
Ez adillala hissia heure falten gañean  
Halacoa erortcen duc Escumicu dorphean  
O Escumicu arimaren punimendu garratça  
Ecin icenda açaquet laztu gabe adatsa  
Nabalaren ahoa duc iduri propioqui  
Ceñac miembroa baitu gorputcetic idoqui  
770 Halaber duc guiristiñoa bercetarie berezten  
Bere faltaz ceña baita hire baithan erortcen  
Nihorc ecin hauta ciroc hire minaz çaurthua  
Bañan largatu behar dic nola içurritzatua  
Ecin ehortz ciaitequec lur benedicatuan  
Bañan sepultura hartu behar dic desertuan  
Guiristiñoa, apartadi hain gaitz perillosetic  
Ceñac baititu plaga hauc garraiatcen ondotic.

- 
755. *ecen eztic*: ikus 573. Honako *probetchu* honen ordez *progotchu* dio liburuaren azkenean.  
756. *bequin*: ikus 317.  
*eztuquela herabe*: ez *eztezaala*: ikus 282,233.  
757. *haren... contra*: bienbitartean hiru hitz sartu ditu.  
761. *esca aquio*: elisioa egin behar da: ikus 96.  
762. *eta ez*: sinalefa egin behar da.  
*promez*: berez *promes* behar: ikus 495, escaz.  
763. *ez adillala*: silaba bat gehiago behar eta *-la* atzizkia bi bider erantsi dio.  
Ikus, ostera, *ez adilla*: 757.  
765. *O escumicu*: lau silaba baizik ez zaie zor eta *weskumiku* ahoskatu behar



*ezen eztik aitzinatzen deusik probetxu gabe;  
bekin, beraz, guardatzera eztukela herabe.*

Eskumikuaz.

*Haren, beraz, ezadila altxa kontra deusetan,  
bainan seme onak legez obedi zak hitzetan  
eta faltan baldin babaiz erori maleziaz,  
760 berehala doloradi egin duken gaizkiaz.*

*Iainkoari eska akio barkhamendu humilki  
eta ez berriz itzultzeko promes egik fermuki.*

*Ez adilala hisia heure falten gainean,  
halakoa erortzen duk eskumiku dorpbean.*

*O eskumiku, arimaren punimendu garratza,  
ezin izenda azaket lastu gabe adatsa.*

*Nabalaren ahoa duk iduri propioki,  
zeinak mienbroa baitu gorputzetik idoki.*

*Halaber duk giristinoa berzetarik berezten,  
770 bere faltaz zeina baita hire baithan erortzen.*

*Nibork ezin hauta zirok hire minaz zaurthua,  
bainan largatu behar dik nola izurritzatua;  
ezin ebortz ziaitekek lur benedikatuan,  
bainan sepultura hartu behar dik desertuan.*

*Giristinoa, apartadi hain gaitz perilosetik,  
zeinak baititu plaga hauk garraiatzen ondotik.*

---

768. *ceñac*: hots, *nabalaren ahoa ceñac...*: ikus 484.

769. *guiristiñoa*: ahoska ezazu *girstinwa*: ikus 13.

770. *ceña*: ikus 692.

771. *ciroc*: hitanoa: ← *diro*: ikus 44 eta gogora Oihenarten *xilba sirosu*, I,30.  
*çaurthua*: *zauritu* eta *zaurtu*, *banditu* eta *bantu*, *baritu* eta *bartu* hitz  
beren aldaerak baizik ez dira.

773. *ciaitequec*: hitanoa: ← *daiteke*: ikus *ciaitec* ere: 525.

775. *guiristiñoa*: lau silaba: *girstinwa*. Ikus 769.

*bain gaitz perillosetic*: bala dio poetak ia beti, ez *gaitz hain...* edo antze-  
korik; inoiz, ordea, bertsoak bestetara bortxatzen du. Ikus 810.

*Aita Sainduaz.*

- Valiaracitcecotçat neure erran sainduac  
Eta Eliçac itüen bere errespetuac
- 780 Neure ordain utci nien San Piarrez naussi  
Batelçain arrantçale cein bainuen ikhussi  
Halaber tuc ene ordain Erromaco hirian  
Iarri diraden guztiac Piarressen alkhian  
Aita Saindu deitcen duc Cerüaren gakhoc  
Ceñac escuan baititu çarra-idiquitcecoac  
Cembait duda sortcen bada certan den sinhestea  
Eliçaco hauciaren hurache duc iugea.  
Duda particularetan aphez çuhurra gana  
Hoa, Aita Sainduaren hura duquec ordaña
- 790 Gueldi adi sententia ematen duenean  
Barrenago sarthu gabe disputaren gañean  
Paganoec denegatu citeen noizbat Platon  
Delphesco secretuari sobera etçarraion  
Harc beçambat hic eztaquic, contentadi heurez  
Eta Eliçacoac bere mela beite arteaz.

*Predicuez.*

Fiñean nahi ez baduc gauça gorez dudatu  
Apheçaren predicuac albaitetça aditu

---

777. *valiaracitcecotçat*: ikus, *-tzat* dela eta, 505; 105.

778. *itüen*: hitanoa ezin daiteke izan, mendeko perpausa bait da; bestalde lehenaldia da, perpaus nagusiko adizkia (*utci nien*) ere hala bait da; hortaz *izan zitzan*-en ordezeko *zituen*-en kidea da: ikus 22. Zergatik ez *cituen*? Inprenta hutsa dirudi.

779. *nien*: hitanoa: ← *nuen*.

780. *batelçain*: lehen bertso erdi honek silaba bat falta du; *eta* ezarri dut.

782. *Piarressen*: eta lau bertso gorago *Piarrez*: ikus *promez*, 762.

783. *Aita saindu*: honen lehen bertso erdia ere, *deitcen* hiru silabatako ez bada bederen, hanka motz da: *deithatcen* behar du, noski.

788. *hoa*: honi *b-* idatzi dio: ikus 364. Hitz hori zangalatrau dago.

Aita Sainduaz.

- Baliarazitzekotzat neure erran sainduak  
eta Elizak (z)itüen bere errespetuak,  
neure ordain utzi nien San Piarres nausi,  
780 batelzain (eta) arrantzale zein bainuen ikbusi.*
- Halaber tuk ene ordain Erromako hirian  
iarri diraden guztiak Piarresen alkbian.*
- Aita Saindu dei(tba)tzen duk, zeriüaren gakboak  
zeinak eskuan baititu zarra-idikitzeakoak.*
- Zenbait duda sortzen bada zertan den sinbestea,  
Elizako hauziaren buraxe duk iujea.*
- Duda partikularetan aphez zuhurra gana  
hoa, Aita sainduaren hura dukek ordaina.*
- Geldi adi sententzia ematen duenean,  
790 barrenago sarthu gabe disputaren gainean.*
- Paganoek denegatu ziteen noizbat Platon,  
Delfesko sekretuari sobera etzarraion.*
- Hark bezanbat hik eztakik, kontentadi heurez  
eta Elizakoak bere mela beite arteaz.*

Predikuez.

*Finean nabi ez baduk gauza gorez dudatu,  
aphezaren predikuak albaitetza aditu.*

---

791. *citeen*: hitanoa: ← *zuten*.

792. *etçarraion*: *jarrai*-errotiko adizki trinkoa; balio finala du eta hainbestez subjuntiboa. Ikus 540.

793. *beçambat*: hona bestetan hutseman dugun hitza: ikus 642.

794. *bere... arteaz*: aditz sintagma sartu da artean.

*mela beite*: ikus 1; *beite*: guk *bitez* dioguna.

795. *gorez*: ikus 599.

796. *albaitetça aditu*: Etxeparek eta inperatiboa egiteko darabilten *albait*-edo *albeit*-. *Adi* behar zukeen, baina puntuak bortxatu du poeta *aditu* esatera.

- Hec aute iaquintsunago laster errendaturen  
 Eta prestu içatera halaber higituren
- 800 Ecen ene hitz saindua duc kharlo hacia  
 Eta haren fruitu ona seculaco bicia
- Predicari iaquintsuna duc laboraria  
 Ceñac erein ohi baitu hain balios hacia
- Ago beraz bethi erne haren solassetara  
 Cerbait ikhassiric itçul adin heure etchera
- Itsussi duc escolatic etchera itçultcea  
 Cerbait hartu gabetarie gogoan ikhaslea
- Predicua duc Christaiën escolatçat famatu  
 Ilkhi adi ikhassiric cembait erran sacratu.
- 810 O Iesus Christ solas saindu hauquin formatçaillea  
 Eta legue hain sainduen Cerutic ekharlea
- Meditatcen tudanean hain errefau iustuac  
 Harritcen naiz ceren diren hain on eta sainduac
- Alde hunez ere duçu laudorio mereci  
 Ceren ez nauçun hauc entçun baño lehen bereci
- çaradela laudatua beraz lur beheanean  
 Aire herrietan eta Ceruen garaitean.

#### BVRU IV.

*Laudorioac Spiritu Sainduari. Laudatcen da bere  
 ontassunez.*

Bai çu ere adoratcen çaitut, Spiritua,  
 Lauda eta ohoratcen amudio Saindua

- 
799. *kharlo*: ikus 126; bigarren bertso erdi hau ere laburregia da; baita 801-  
 garrengoa ere.
802. *hain balios hacia*: hots, *hain haci baliosa*: ikus 775.
804. *itçul adin*: zesura erdian dutelarik.
806. *ikhaslea*: ez *ikhasleak*; ez dagokio hurbilen duen perpausari, baizik urru-  
 nagokoari, *etchera itcultcea-ri*.
809. *hauquin*: genitivo plurala: ikus 48.
810. *eta legue*: bertso hau txit gogoangarria da: batetik, *legue hain sainduen*

- Hek aute iakintsunago laster errendaturen  
 eta prestu izatera halaber bigituren,  
 ezen ene bitz saildua duk kharlo hazia  
 eta haren fruitu ona sekulako bizia.
- 800 Predikari iakintsuna duk laboraria,  
 zeinak erein obi baitu hain balios hazia.  
 Ago, beraz, bethi erne haren solasetara,  
 zerbait ikhasirik itzul adin heure etxera.  
 Itsusi duk eskolatik etxera itzultzea,  
 zerbait hartu gabetarik gogoan, ikhaslea.  
 Predikua duk kbristaien eskolatzat famatu,  
 ilkhi adi ikhasirik zenbait erran sakratu.
- 810 O Iesus Kbrist, solas saildu haukin formatzailea  
 eta lege hain sailduen zerutik ekharlea,  
 meditatzen tudanean hain errefau iustuak,  
 harritzen naiz, zeren diren hain on eta sailduak.  
 Alde hunez ere duzu laudorio merezi,  
 zeren ez nauzun hauk entzun baino lehen berezi.  
 Zaradela laudatua, beraz, lur beherean,  
 aire herrietan eta ceruen garaitean.

#### BURU IV.

Laudorioak Espiritu Sailduari. Laudatzen da bere  
 ontasunez.

*Bai zu ere adoratzen zaitut, Espiritua,  
 lauda eta ohoratzen, amudio saildua.*

---

dio (ikus 802); bestetik, *cerutic* artean sartu den arren, *gizonaren egilea*-ren kideko sintagmari eutsi dio; ikus eta erka beste harako haiekin: 2308 eta 2695-6.

811. *hain errefau iustuac*: bi bertso gorago ez bezala: ikus 810.k  
 812. *on eta sailduac*: ikus 532.  
 813. *hunez*: ez *hunezaz* edo *hunetzaz*; baina ikus 987.  
 815. *zaradela*: ikus 189.  
 817. *spiritua*: ahoska ezazu *espiritua*.

820      çure ganic egun oro munduari gratiac  
Iautsten çaiçco lehenbici egunetic berriac  
Duçun beraz laudorio çuc ere gureganic  
Hainberce on dugunean guc ere çureganic.

*Laudatcen da bere manuez.*

Beregainqui, Spiritua, seguratcen gaituçu  
çure ontassunaz behar eztugula dudatu  
Handi dela bekhatua, handi itsusqueria  
Alabañan handiago çure misericordia  
Ordean ezteçagula abusa eztitassunaz  
Cerbitçaturen çarela ceure Iustutassunaz  
830      Erho dela ceñac uste baitu Parabisua  
Aitciñetic obretara eman gabe escua  
Bai halaber bekhatua daguiena munduan  
Berdin içanen duela barkhamendu Cerüan  
Guehiago, Spiritu Charitatez bethea  
Hau da gure alderacotz eman duçun leguea.  
Erreferta ezteçagun eguia eçagutua  
Ez berceren ontassunaz errecibi damua  
Beğuirra gaitecen eguin hobenaz bantatcetic  
Eta eroriz gueroztic hissiaz gogortcetic

- 
820. *iautsten*: afrikaria idatzi du: ikus 585.  
*berriac*: hots, *gratia berriac* den izen sintagma erdibitu eta bi bertsotan  
barrena barreiatu du.
821. *duçun*: bestetan *duçula* esan badigu ere: ikus 319.
826. *misericordia*: *miserikordya* ahoskatu behar da.
827. *ordean*: ikus 363.
828. *cerbitçaturen*: ikus 551.
829. *erho dela ceñac*: orain arte inoiz ez bezala, hemen erlatibo gisako *ceñac*  
aurrean izenik («antecedente») gabe enplegatua dago: «que es necio  
*quien...*»: ikus, gainera, 3809. Ohar, gainera, *ceñac uste baitu* hori  
gure *uste duena* dela, ez *duenak*, nahiz *ceñac* esan duen.  
*uste baitu*: ez darraikio konpletivarik; hots, ez du «creer» esan nahi,  
baizik «esperar». Hori egia da, baina ez egia osoa; ondoko bertsoan  
konpletiva bait darraikio *uste* horri berari: *içanen duela*.

820 *Zure ganik egun oro munduari graziak  
iautsten zaizko lehenbizi egunetik berriak.*  
*Duzun, beraz, laudorio zuk ere gure ganik,  
hainberze on dugunean guk ere zure ganik.*

Laudatzen da bere manuez.

*Beregainki, Spiritua, seguratzten gaitutzu  
zure ontasunaz behar extugula dudatu.*

*Handi dela bekhatua, handi itsuskeria,  
alabainan handiago zure miseriordia.*

*Ordean etzezagula abusa eztitasunaz,  
zerbitzaturen zarela zeure iustutasunaz.*

830 *Erho dela, zeinak uste baitu parabisua  
aitzinetik obretara eman gabe eskua,  
bai halaber bekhatua dagiena munduan  
berdin izanen duela barkhamendu zerüan.*

*Gebiago, Espiritu karitatez bethea,  
hau da gure alderakotz eman duzun legea:*

*erreferta etzezagun egia ezagutua,  
ez berzeren ontasunaz errezibi damua.*

*Begira gaitezen egin hobenez bantatzetik  
eta eroriz geroztik hisiaz gogortzetik.*

---

831. *daguiena*: honi *nork* kasoa izatea zegokion: *izanen duela*-ren ergatiboa bait da. Hona itzulpena: «Que es necio... asimismo (quien piensa que) quien comete el pecado obtendrá igualmente el perdón en el cielo». *Daguiena*-k erakusten digu hori eta *ceñac uste baitu* gauza bera esateko bi modu direla: hots, *uste duena*; Baina zergatik ez dio *daguienac*? Edota hutsa, edota *uste duena* zeukan buruan poetak hori idaztean.

837. *beguira gaitecen*: ikus, ordea, 452; han *beguirauc abantzetik* dio; esan zezakeen, beraz, hemen ere *beguira dugun*, baldin *dugun* silaba bat laburrago ez balitz.

*eguín hobenez*: hemen, dudarik gabe, *hobena*-k *bekatua* esan nahi du. Ikus ere Etxepareren bi bertsook (I,154; I,273) eta elkarrekin erka: *Oguen oro publicoqui aguerturen orduyan eta Beqbatu oro publicoqui aguerico orduyan*.

- 840 Fiñean hain handi dela emetassun çurea  
 Ceñetçaz goçatu baita dohatsuen partea  
 Non barkhatcen baititutçu berce faltac mansoqui  
 Bañan urriquitu gabe ez hilltcea gogorqui.  
 Orain non da arraçoïña non eztuen laudatcen  
 Ordenantça saindu hautan cer baituçu manatcen  
 Arraçoin da compli dadin encargatcen duçuna  
 Ceren eçagutcen baita dela Iustutassuna  
 Çaren beraz laudatua egun eta secular  
 Noraraiño çure icena hedatcen den lekhtutan.

BVRV V.

*Othoitçac eta lehenic Iainco berari.*

- 850 Laudaturic Iongoicoa çure Maiestatea  
 Othoiztera hurbilltcen naiz aguerturic gabea  
 Ecen ni naiz creatura gauça guztiz beharra  
 Mesprecia etçaçula arren ene nigarra  
 Fauoratcen ez banauçu deusic ecin dadiquet  
 Daquiçula beraz, Iauna, fauoratcera lakhet

*Iainco Aitari galdeguiten çaiçco GURE AITA  
 othoitceco gauçac*

Gure Aita Cerüetan glorioso çarena  
 Errespetuz aipha bedi lurrean çure icena

- 
839. *emetassun çurea*: irakur: zure emetasuna.  
 840. *ceñetçaz*: ez *ceñez*: ikus 813; ez eta *ceñaz*: ikus 1164.  
*dohatsuen partea*: lehen (7) *corte dohatsuena* esan badu ere.  
 841. *non*: perpaus nagusiak *hain* duelarik, konsekativa kutsua dario; agertuko da besterik ere: ikus 1012.  
 842. *bañan*: irakur honela: *bañan urriquitu gabe gogorqui hilltcea, ez*.  
 843. *non da arraçoïna non*: adizkiak ez du *bait-*, *-(e)n* baizik: ikus 719.  
 Latinezko «quis est homo qui nesciat...»? adizkia subjuntivoan eramani ohi duen, hura eta antzekoak dakartza gogora.  
 844. *cer baituçu manatcen*: hots, manatzen duzuna: ikus 831.



- 840 *Finean bain handi dela emetasun zurea,  
zeinetzaz gozatu baita dobatsuen partea,  
non barkhatzen baititutzu berze faltak mansoki,  
bainan urrikitu gabe ez biltzea gogorki.*
- Orain non da arrazoina non eztuen laudatzen  
ordenantza saildu hautan zer baituzu manatzen?*
- Arrazoin da konpli dadin enkargatzen duzuna,  
zeren ezagutzen baita dela iustutasuna.*
- Zaren, beraz, laudatua egun eta sekulan  
noraraino zure izena hedatzen den lekhutan.*

### BURU V.

Othoitzak eta lehenik Iainko berari.

- 850 *Laudaturik Iongoikoa, zure maiestatea,  
othoiztera hurbiltzen naiz agerturik gabea,  
ezen ni naiz kreatura gauza guztiz beharra,  
mesprezia etzazula, arren, ene nigarra.*
- Faboratzen ez banauzu, deusik ezin dadiket,  
dakizula, beraz, Iauna, faboratzera lakhet.*

Iainko Aitari galdegiten zaizko GURE AITA  
othoitzeko gauzak.

*Gure Aita zerüetan glorioso zarena,  
errespetuz aipha bedi lurrean zure izena,*

- 
847. *çaren*: bestetan *çarela* edo *çaradela* esan digunaren kide: ikus 156; 189.
848. *noraraino*: ikus *harerainoco*, 469. Erlativo gisakoa da, noski: «en los lugares hasta donde (= los que)...».
850. *aguerturic gabea*: hots, neure gabea.
851. *gauça guztiz beharra*: *behar-* hemen adjetivo da (*creatura beharra*) eta -z kasua zor zaio.
852. *etçaçula*: ikus 136.
853. *daidiquet*: hona lehen (724) aipatu eta berez *daidiquet* behar lukeena; edo *daidit* soilik: ikus 1387.
856. *lurrean*: ahoska ezazu *lurryan*.

- Eguiguçu Cerüaren ardiasteco gratia  
 Eta bethi compli bedi çure saindu nahia
- 860 Egun oro behar gara, iguçu mantenua,  
 Eta guc berceri leguez hutsen barkhamendua
- Ezteçaçula permetti tenta gaiten borthitzqui  
 Bañan gaitçatçu caltetic hastanduac iduqui.

*Galdeguiten çazco çazpi Verthute principalac.*

- Alcifrea altchatcen da arboletan goren  
 Bañan çuc maitatcen duçu guiçonic humillena
- Liberalitatearen handi da cortesia  
 Handi Castitatearen halaber noblecia
- Gaitcic ezta non eztüen patientiac garaitcen  
 Eta ez lanic iarraiquiac non eztuen picatcen
- 870 Abinentac burua du erne eguin bidetan  
 Eta amudioa da choill eder Christaüetan.
- Nilgo Baiac Egyptuco herria du heçatcen  
 Guero çazpi uhobiz da itsassora issurtcen
- Halaber du verthuteac bistatcen batbedera  
 Eta berezten da çazpi principalenetara
- Iainco Aita, badaquigu çuc duçula gakhoa  
 Arren dohain eguiguçu çazpi verthutezcoa.

*Othoitçac Semeari.*

O Iesus-Christ, gurutcean iuduec itçatua  
 Eta Patriarkhac limbo belcetic altchatua

- 
857. *eguiguçu*: honen ondoan maiz agertuko da *iguçu*: ikus 859.  
*ardiasteco*: ahoska ezazu *ardyasteko*.
858. *çure saindu nahia*: hots, zure nahi saindua. Honen ordez MANUALA  
 LABURQUI deritzan azken eraskinean honela dio: *nabi duçun guztia*.
859. *behar*: ikus 851.  
*iguçu*: ikus 857; baina *indaçu* dio beti, ez *idaçu* Etxeparek bezala. *Mante-  
 nua* esan ordez *hazmendua* dio azkeneko eraskinean.
861. *ezteçaçula*: lehen (852) *etçaçula* esan badu ere.

*egiguzu zerüaren ardiasteko grazia  
eta bethi konpli bedi zure saindu nabia,  
860 egun oro behar gara, iguzu mantenua,  
eta guk berzeri legez hutsen barkhamendua,  
ertezazula permeti tenta gaiten borthitzki,  
bainan gaitzatzu kaltetik hastanduak iduki.*

Galdegiten zaizko zazpi berthute prinzipalak.

*Alzifrea altxatzen da arboletan gorena,  
bainan zuk maitatzen duzu gizonik humilena.*

*Liberalitatearen handi da kortesia,  
handi kastitatearen halaber noblezia.*

*Gaitzik ezta non eztüen pazienziak garaitzen  
eta ez lanik iarraikiak non eztuen pikatzen.*

*870 Abstinentak burua du erne eginbidetan  
eta amudioa da xoil eder kbristaietan.*

*Nilgo baiak Ejiptuko herria du bezatzen,  
gero zazpi uhobiz da itsasora isurtzen,  
halaber du berthuteak bistatzen batbedera  
eta berezten da zazpi prinzipalenetara.*

*Iainko Aita, badakigu zuk duzula gakhoa,  
arren, dohain egiguzu zazpi berthutezkoa.*

Othoitzak Semeari.

*O Iesus Kbrist, gurutzean iuduek itzatua  
eta patriarkhak linbo belzetik altxatua,*

---

867. *gaitcic ezta non*: ikus 843.

*patientiac*: ahoska ezazu pazyenziak.

868. *iarraiquiac*: izen gisakoa da hemen: «la constancia».

*non eztuen*: ikus aurreko bertsoa.

876. *dohain*: irakur: *çazpi verthutezco dohaina*.

877. *itçatua*: pasivoa da, «que has sido clavado», baina ondoko bertsoa *al-*  
*tchatua*, aldiz, aktivoa: «que has librado». Ikus 700-701.

880 Ene gatic khoroatu ciñen elhor-arantzez  
 Eta hillez guero çaurthu liçar finezco lancez  
 Bañan hambat naicelaric çordun çure aldera  
 Guehiago atrebitcen natçaitçu escatcera  
 çuri aguertcen darotçut neure behar handia  
 Eta descargatcen gogoan dudan gauça guztia  
 Arren bada adiçaçu humillaren othoitça  
 Eta fauora eçaçu othoi haren bihotça.

*Galdeguiten çaiçco çortci dohatsutassunac,  
 edo gauçac, ceñec dohatsu errendatcen baicai-  
 tuzte principalqui.*

Malecia, trumperia, eta vanaloria  
 Mundu enganatuaren da vano çuhurtcia  
 Hautan spirituaren indaçu probecia  
 890 Eta çure leguearen ikhasteco gratia  
 Nihor atrebitcen bada çure offentsatcera  
 Egüidaçu ethor nadin nigarretan urtcera  
 Ardiantchu emea baño are emeagoa  
 Arren verthute indaçu emetassunecoa  
 Eta bitz dieçadaçu desira bihotcean  
 Arraçoiñac lekhu duen borfidien gañean  
 Bai halaber iustitiaz naicen bethi egarri  
 Ceña baita erresumen gobernucio eçarri

---

879. *khoroatu cinen*: ez zuen bere burua koroatu; pasiva da, beraz: ikus 43;  
 «fuieste coronado», ez «te coronaste».

*çaurthu*: hau ere pasiva; *zauritu* esan nahi du: ikus 771.

884. *gogoan*: ahoska ezazu *gogwan*.

tit. *ceñec*: ergativo plurala: ikus 676.

888. *da*: *vano çuhurtcia* ote da sujeto eta aurreko bertsoko hiru izenak predi-  
 kado?

*vano çuhurtcia*: hots, *çuhurtcia vano*.

889. *spirituaren*: ahoska ezazu, *espirituaren*: ikus 316.

*indaçu*: ikus 859; honen *nor* plurala deneko forma aurki aterako da:  
*indacitçu*.

880 *ene gatik khoroatu zinen elhor arantzez  
 eta hilez gero zaurthu lizar finezko lanzez,  
 bainan hanbat naizelarik zordun zure aldera,  
 gebiago atrebitzen natzaitzu eskatzera.  
 Zuri agertzen darotzut neure behar handia  
 eta deskargatzen gogoan dudan gauza guztia.  
 Arren, bada, adizazu humilaren othoitzza  
 eta fabora ezazu, othoi, haren bihotza.*

Galdegiten zaizko zortzi dohatsutasunak  
 edo gauzak, zeinek dohatsu errendatzen baikai-  
 tuzte prinzipalki.

*Malezia, trunperia eta banaloria  
 mundu enganatuaren da bano zuburtzia.  
 Hautan espirituaren indazu probezia  
 eta zure legearen ikbasteko grazia.  
 890 Nihor atrebitzen bada zure ofensatzera,  
 egidazu ethor nadin nigarretan urtzera.  
 Ardiantxu emea baino are emeagoa,  
 arren, berthute indazu emetasunekoa  
 eta bitz diezadazu desira bihotzean,  
 arrazoinak lekhu duen borfidien gainean,  
 bai halaber iustiziaz naizen bethi egarri,  
 zeina baita erresumen gobernuko ezarri.*

---

892. *eguidaçu*: baina hiru bertso gorago (889) *indaçu* esan digu: ikus 857.

*Indaçu* eta *eguidaçu*, beraz, *iguçu* eta *eguiguçu* bezalaxe.

893. *emea*: ahoska ezazu: *emya*.

894. *emetassunecoa*: ez dio *emetassunecoa*, lehen bezala: ikus 876.

895. *bitz diezadaçu*: *d-*, nahiz inperativoa izan: ikus 615.

896. *duen*: ez *dezan*, bere eskuko adizkia bait da, ez laguntzailea: ikus 778;  
 282.

*borfidien*: Etxeparek *porfidia* dio: XII,37.

897. *naicen*: ez *nadin*: ikus aurreko bertsoa eta 178.

898. *goburnuco*: ez *goburnuraco*: ikus 735.

- 900 Lagunaren ere gaitçaz çuc indaçu damua  
 Eta remediatcera handi khechamendua  
 Baquetiarren ere indaçu verthutea  
 Ecen çure escuan da haren ere ematea  
 Offentsatcen naicenean fiñean garacia  
 Indaqueçu pairatceco bidegabe handia  
 Ceruetara igateco hau da bide handia  
 Eta çuc ceronec, Iesus, eguiña da guztia.  
 çuc heda dieçadaçu igateco escua  
 Igan eta itçultceco milla esquerren cantua.

BVRV VI.

*Othoitçac Spir. Sainduari. Galdeguiten çaiçco  
 hirur Verthute Theologalac edo Iaincoari uqui-  
 tcen çaiçconac.*

- 910 Cerüetaco conseilluen hirurgarren Presuna  
 Partiçaçu çuri ere dohain uqui çaitçuna  
 Misterio fedezcoen indaçu sinhestea  
 Eta Ceruco placeren goçatceco ustea  
 Halaberqui Charitatez berotçatçu bihotçac  
 Herraz eta gaitceristez oraindaraño hotçac.

*Galdeguiten çaiçco lau Verthute Cardinalac.*

O iguzqui adimendu guztien arraitsua  
 Prudentiaz arguiçaçu arren ene burua

- 
899. *ere*: bertso laurdenaren hasieran dago: ikus 434.  
 900. *handi khechamendua*: hots, *khechamendu handia*.  
 901. *baquetiarren ere*: silaba bat falta du bertso erdi honek; *baquetiarrena*  
 behar du, ene ustez.  
 903. *offensatcen naicenean*: hau ere pasiva da: «cuando soy ofendido (por  
 otros)...»: ikus 879.  
*garacia*: hots, *gratia*: ikus 128. Zangalatrau dago hitz hori.  
 904. *indaqueçu*: lehen aurreko bertsoetan maiz agertu den *indaçu*-ren geroko  
 inperativoa da. Ez dator Etxeparegan ez Oihenartegan: ikus 173.  
 905. *ceruetara*: ahoska ezazu: *zerwetara*.

- 900 *Lagunaren ere gaitzaz zuk indazu damua  
eta remediatzera handi khexamendua.*  
*Baketiarren(a) ere indazu berthutea,  
ezen zure eskuan da haren ere ematea.*  
*Ofensatzen naizenean, finean, garazia  
Indakezu pairatzeko bidegabe handia.*  
*Zeruetara igateko hau da bide handia  
eta zuk zeronek, Iesus, egina da guztia.*  
*Zuk heda diezadazu igateko eskua,  
igan eta itzultzeko mila eskerren kantua.*

#### BURU VI.

Othoitzak Espir. Sainduari. Galdegiten zaizko  
hirur berthute theologalak edo Iainkoari uki-  
tzen zaizkonak.

- 910 *Zerüetako konseiluen hirugarren Presuna,  
parti zazu zuri ere dobain uki zaitzuna.*  
*Misterio fedezkoen indazu sinhestea  
eta zeruko plazeren goatzeko ustea.*  
*Halaberki Karitatez berotzatzu bihotzak,  
herraz eta gaitzeriztez oraindaraino hotzak.*

Galdegiten zaizko lau berthute kardinalak.

*O iguzki adimendu guztien arraitsua,  
prudenziaz argi zazu, arren, ene burua.*

- 
906. *ceronec*: bigarren pertsona izanik ere, *-onec*: ikus 219.  
907. *beda dieçadaçu*: *d-* duelarik, inperativo izan arren: ikus 895.  
tit. *uquitcen*: hots, egokitzen; Lhandek honela itzuli du: «les vertus théolo-  
gales ou qui concernent Dieu»: ikus Hiztegia, *bunki* II, or. 459.  
910. *çuri ere*: irakur honela: *çuri ere uqui çaitçun dobaina.*  
*uqui*: ikus bi lerro gorago; *uquitu* beste zentzuan iragankor da: ikus 617.  
911. *indaçu*: izen sintagma txertaturik dago.  
913. *halaberqui*: ikus 543.  
914. *oraindaraño*: ikus 848.  
915. *o iguzqui*: irakur honela: *O adimendu guztien iguzqui arraitsua*: ikus 3741.

- Idocdaçu guticia placer soberarena  
 Eta verthutea eman temperantiarena  
 Halaber iustitiaren indaçu ontassuna  
 920 Bai nequeei eguiteco buru gogortassuna  
 Spiritua, indacitçu aiphatu verthuteac  
 Cein baitire gaiñeraco berce guztien gondeac.

*Galdeguiten çaiçco bere çazpi dohañac.*

- Aita eta Semeaz ere Spiritu çarena  
 Sapientia indaçu eçagutça gorena  
 Claraçaçu adimendu illhumbean sarthua  
 Eta eguitecoetan indaçu conseillua  
 Ene bihotcean finca çaçü borthitztassuna  
 Adimenduan halaber gaucen iaquintassuna  
 O Spiritu religionez oharatu beharra  
 930 Deuotione handi baten iratchacdaçu kharra  
 çure handitassunaren ere beldurtassuna  
 Bitz dieçadaçu, Iainco, ahal handi duçuna.

*Galdeguiten çaiçco bere hamabi fruituac.*

O Iongoico amulsua arren charitatea  
 Berce verthute guztien çuc indaçu chedea

- 
917. *idocdaçu*: adizki honen partizipioa, *idocqui*, ikus 1043.  
*gutitia*: irakur: *placer soberaren gutitia*; eta ikus 901, hango *baquetiarren(a)*  
 dela eta. Ondoko bertsoan *temperantiarena* gauza bera da.
919. *iustitiaren*: ez *iustitiarena*; garbi dago, hainbestez, bietara dioela poetak  
 izen sintagmaren bi zatiak elkarrengandik bereizten dituenen: *-a due-*  
*larik eta gabe.*
920. *eguiteco buru*: *buru*, izan ere, *eguiteco*-ri dagokio (*buru egin*), ez *gogor-*  
*tassuna*-ri.
921. *indacitçu*: ikus lehenxeago esana: 889: *indaçu*-ren *nor* plurala denekoa.  
 Etxeparek ez dakar honelakorik, *enguztaçu* (I,72) hori berbera ez bada  
 bederen.
922. *guztien*: ahoska ezazu: *guztyen*.



*Idokdazu gutizia plazer soberarena  
eta berthutea eman tenperanziarena.*

920 *Halaber iustiziaren indazu ontasuna,  
bai nekeei egiteko buru, gogortasuna.*

*Espiritua, indazitzu aiphatu berthuteak,  
zein baitire gainerako berze guztien gondeak.*

Galdegiten zaizko bere zazpi dohainak.

*Aita eta Semeaz ere Espiritu zarena,  
sapienzia indazu, ezagutza gorena.*

*Klara zazu adimendu ilhunbean sarthua  
eta egitekoetan indazu conseilua.*

*Ene bihotzean finka zazu borthitztasuna,  
adimenduan halaber gauzen iakintasuna.*

930 *O Espiritu relijionez ohoratu beharra,  
Deboziona handi baten iratxakdazu kharra.*

*Zure handitasunaren ere beldurtasuna  
bitz diezadazu, Iainko ahal handi duzuna.*

Galdegiten zaizko bere hamabi fruituak.

*O Iongoiko amulsua, arren, karitatea,  
berze berthute guztien zuk indazu xedea.*

---

923. *semeaz*: ahoska ezazu: *semyaz*.

*spiritu*: *espiritu* ahoskatu behar da, beraz.

924. *eçagutça gorena*: *sapientia*-ren aposizioa da.

927. *finca çaçü*: zesurak biak erdibitzen dituelarik.

929. *oharatu*: hemen ere, lehen (562) bezalaxe, *oharatu* dio.

930. *iratxadaçu*: bestetan agertu den *iratxaki*-ren inperativoa: ikus 629; 917.

931. *ere*: bigarren hemistikioaren hasieran jarria: ikus 434.

932. *bitz dieçadaçu*: ikus haxe bera: 895. *Dieçadaçu* inprenta hutsa da.

933. *charitatea*: ondoko bertsoko *Berce verthute guztien chedea* den sintagma *charitatea*-ren aposizioa da; *çuc indaçu charitatea* da, beraz, aditz sintagma soila.

- Alleguerantia bihotz egordachu larrira  
 Tristetia da Sathani lakhet çaiion cadira  
 Guerlec Ifernua bera ohi dute iduri  
 çuc naçachu hastandua hetarican iduqui  
 940 Guehiago urrea baiño hobeagoarena  
 Issuri dieçadaçu dohain Baquearena  
 Bai emetassunarequin halaber ontassuna  
 Eta halaber Iraupen eta eztitassuna  
 Eman gabe ere othoi etçaudela Fedea  
 Ceña baita arimaren çuci arguitçaillea  
 Fiñean berceen balsan halaber Modestia  
 Indaçu bai Castitate eta Continentia  
 Bide hautçaz guidaçu ene arima lurrean  
 Saluatua guertha dadin dohatsuen artean.

BVRV VII.

*Esquerrac eta lebenbiciric Iaincoari.*

- 950 Esquer diot Ingoicoa çure ontassunari  
 Beguiratu ez baitio ene ezdeustassunari  
 Arerioac itsuturic bañan lehenenera  
 Issuri darozquidatçu milla ontassun gañera.

- 
935. *egordachu*: hots, egor(ri) iezadazu; *egorri* eta *igorri* bat dira: ikus 2856.  
*bihotz larrira*: hori da izen sintagma, erdibitua badago ere.  
 938. *hetarican*: hots, hetarik; ikus 862; hor *caltetic* dio beste gabe.  
 939. *guehiago*: irakur ezazu honela: *urree baino hobearen dohaina...*;  
*guehiago*, ikus 27.  
*hobeagoarena*: *baquearena*-ri bakarrik zegokion atzizkia honi ere erantsi  
 egin dio; honi *hobearen* edo gehienez *hobeagoaren* izatea zegokion.  
*urree*: ahoska ezazu: *urree*.  
 940. *issuri dieçadaçu*: silaba bat gehiago behar eta *issuri* ordez (ikus *bitz*, *beda*:  
 895, 932; 907) *issuri* idatzi du; *d-* dela eta, ikus 907.  
*dohain baquearena*: hots, *baquearen dohaina*.  
 941. *halader*: hala dio, baina *halaber* behar du.  
 943. *ere*: bertso laurdenaren hastean dago: ikus 899.  
*etçaudela*: *çau* eta *çaudez*, bietara dio: ikus 244.

*Alegeranzia bihotz egordazu larrira,  
tristezia da Sathani lakhet zaion kadira.*

*Gerlek ifernua bera obi dute iduri,  
zuk nazazu hastandua hetarikan iduki.*

940 *Gebiago, urrea baino hobeagoarena  
isuri diezadazu dobain bakearena,  
bai emetasunarekin halaber ontasuna  
eta halaber iraupen eta eztitasuna.*

*Eman gabe ere, othoi, etzaudela fedea,  
zeina baita arimaren zuzi argitzailea.*

*Finean berzeen balsan halaber modestia  
indazu, bai kastitate eta kontinenzia.*

*Bide hautzaz gidazazu ene arima lurrean,  
salbatua gertha dadin dohatsuen artean.*

## BURU VII.

Eskerrak eta lehenbizirik Iainkoari.

950 *Esker diot, Iongoikoa, zure ontasunari,  
begiratu ez baitio ene ezdeustasunari,  
arerioak itsuturik bainan lehenenera  
isuri darozkidatzu mila ontasun gainera.*

---

947. *ene arima*: lau silaba zor zaizkio: *en'arima*.

949. *diot*: ikus *milla esquer ditutçula*, 496; *esquer duçula*, 353 ... Baina *diot* bestelakoa da; *indaçu*-ren erro (\*i) berekoa: ikus 904, 921.

950. *beguiratu*: hemen, inoiz gutxitan bezala, gure *begiratu* berbera da, hots *behatu*, *so egin*; ez, alegia, 452, 837 haietakoa.

951. *anuerioac*: halako zerbait dio liburuak, baina badirudi *arerioac* behar duela; berebat bertsoaren azken hitza, *leheneneran* gaizki dago eta *lehenenera* behar du, ondoko bertsoaren puntuak erakusten digunez. *bañan*: bertsoaren hastean ipin badezazu, hobeki adituko duzu zer esan nahi duen: «antes bien»; aurreko bertsoaren adversativa da.

952. *lehenenera*: hau eta ondoko bertsoaren azken hitza, *gañera*, izen sintagma berekoak dira; *lehenen gainera*, hots, lehen ontasunen gainera, esan nahi du poetak.

*milla ontassun*: sinalefa egin behar da.

- Hartaracotz eguin nauçu çordun ceure aldeco  
 Esquer eta laudorio bihotcez emateco
- Ordaiñetan offrendatcen darotçut bicitcea  
 Eta halaber cerbitçu leyaltatez bethea.
- Çure Charitateari diot ihardetsiren  
 Eta içatu dohaiñac secular aiphaturen
- 960 Berce creaturac ere ditut gombidaturen  
 Ohore eta errespetu eman dieçaçuten.

*Aitari.*

Arraçoin da çuri ere Aita creatçaillea  
 Esquer eta laudorio çordunac ematea

Ecen ni naiz asco aldiz çordun çure aldera  
 Principalqui ceren nauçun ezteussetic athera

Eta hura egun batez emateco gloria  
 Akhabatu çaitanean obra onetan bicia

Esquer beraz eta aithor duçula bethiere  
 Eta munduac dirauẽño creaturez ohore.

*Semeari.*

- 970 O Iesus-Christ ene gatic gurutcean iarria  
 Esquerraren itçultceco ahala dut ttipia
- Neure bicia darotçut escaintcen ordaiñetan  
 Eta çure laudatcea bicico egunetan.

*Spiritu Sainduari.*

Halaber dut (Spiritu amudioz khartsua)  
 çure gana eçagutcen çordun neure burua

- 
953. *ceure aldeco*: hori bera *ceure aldera* esan ohi du bestetan: ikus 881.  
 958. *içatu*: oraino ez da agertu *izan*-en kideko lehen partizipio hau; ohar, ez darabilela *ukan*-ik: ikus 97.  
 963. *çure aldera*: ikus arestian esana: 953.  
 965. *eta hura*: ikus 494; gaztelaniaz «y ello» esan ohi da, anaforiko gisa; hots, lehen esana bildu edo berresateko.

*Hartarakotz egin nauzu zordun zeure aldeko,  
esker eta laudorio bihotzez emateko.*

*Ordainetan ofrendatzen darotzut bizitzea  
eta halaber zerbitzu leialtatez bethea.*

*Zure karitateari diot ihardetsiren  
eta izatu dohainak sekulan aipaturen.*

960 *Berze kreaturak ere ditut gonbidaturen,  
ohore eta errespetu eman diezazuten.*

#### Aitari.

*Arrazoin da zuri ere, Aita<sup>®</sup> kreatzailea,  
esker eta laudorio zordunak ematea,  
ezen ni naiz asko alde zordun zure aldera,  
prinzipalki zeren nauzun ezteusetik athera  
eta hura, egun batez emateko gloria,  
akhabatu zaitanean obra onetan bizia.  
Esker, beraz, eta aithor duzula bethiere  
eta munduak diraueino creaturez ohore.*

#### Semeari.

970 *O Iesus Khrist, ene gatik gurutzean iarria,  
eskerraren itzultzeko abala dut ttipia.*

*Neure bizia darotzut eskaintzen ordainetan  
eta zure laudatzea biziko egunetan.*

#### Espiritu Sainduari.

*Halaber dut, Espiritu amudioz khartsua,  
zure gana ezagutzen zordun neure burua.*

---

967. *duçula*: ikus 319.

968. *munduac*: ahoska ezazu *mundwak*.

972. *eta çure laudatcea*: çure objektiboa deritzan genitiboa da hemen; hots, zu laudatuko zaitut.

974. *neure*: inoiz hutsik egin gabe bereizi ditu oraino *ene* eta *neure* eta gainerakoak.

çaren beraz laudatua egun eta seculan  
Eçagutça duquedaiño, bici naicen lekhtan.

*Hala biz.*

Gloria eta laudorio Aita Semearentçat  
Halaber biz (Spiritu amulsua) çuretçat.

çuec ere dohatsuac duçuela ohore  
980 Ceren baitarocuçue ardiasten fauore.

---

975. *çaren*: ikus 847; hemen ere inperativo ordezkoa da, ez finala.

976. *duquedaiño*: ← *duket*; noiz arte edo noizeino?

*Zaren, beraz, laudatua egun eta sekulan  
ezagutza dukedaino, bizi naizen lekhan.*

Hala biz.

*Gloria eta laudorio Aita Semearentzat,  
halaber biz, Espiritu amulsua, zuretzat;*

*zuek ere, dohatsuak, duzuela ohore,  
980 zeren baitarokuzue ardiasten fabore.*

---

979. *duçuela*: ez *dezazuela*; ikus 233, 282...

LEHENBICICO LIBURUAREN  
BIGARREN PARTEA GUIÇONAREN AZKEN FINEZ

In omnibus operibus tuis memorare novissima tua  
et in aeternum non peccabis. Eccl. 70. 40.

Azken fiñez orhoit adi heure lan guztietan  
Eta huts eguiñen eztuc bicico egunetan.

HASTEA

Guiçonaren azquen fiñez hartcen dut materia  
Iongoicoa, guida çaçu arren ene mihia.

Ecen gogoan tuenac guiçonon azquen fiñac  
Falta eguin gabe ditu eramanen adiñac.

Ea beraz daguigun hitz hain deus probetchosoaz  
Eta lehenic has gaiten mintçatcen Herioaz.

Hau doate aitciñean berce guztiei, hunetçaz  
Lehen minçatu behar da naturaren ordenaz.

BVRV I.

*Herioaz ea cer den?*

Herioan aditcen da biciaren galtcea  
990 Eta gorputz eta arimac elkhar bortchaz uztea

---

tit. *eta huts eguiñen eztuc*: zergatik ez *Eta eztuc huts eguiñen*//..., eskema  
bera ere, 4/4, hobeki betetzen zuelarik?

985. *hain deus probetchosoaz*: hemen *deus* izena da bete betean: ikus 1010.



LEHENBIZIKO LIBURUAREN  
BIGARREN PARTEA, Gizonaren azken finez.

*In omnibus operibus tuis memorare novissima tua  
et in aeternum non peccabis. Eccl. 70, 40.*

*Azken finez orboit adi beure lan guztietan  
eta huts eginen eztuk biziko egunetan.*

HASTEA

*Gizonaren azken finez hartzen dut materia;  
Iongoikoa, gida zazu, arren, ene mibia,*

*ezen gogoan tuenak gizonen azken finak  
falta egin gabe ditu eramanez adinak.*

*Ea beraz, dagigun hitz hain deus probetxosoaz  
eta lehenik has gaiten mintzatzeko herioaz.*

*Hau doate aitzinean berze guztiei; hunetzaz  
lehen mintzatu behar da naturaren ordenaz.*

BURU I.

Herioaz ea zer den.

990 *Herioan aditzen da biziaren galtzea  
eta gorputz eta arimak elkhar bortxaz uztea,*

---

987. *doate*: euskara batuan *doakie* edo *diboakie*.

*guztiei*: ahoska ezazu, *guztyei*.

*hunetzaz*: ikus, ordea, *hunex*: 813. Zangalatrau dago.

990. *gorputz eta arimac*: ikus 532.

Ecen gaucetan hain ezta maite corapilloric  
Hequien bien artean dena beçalacoric

Bortchaz apartatcen dire elkhar ganic hec biac  
Elkharren lagun Iaincoac berariaz utciac.

*Icenaz.*

Herioa; orhoitçapen hirearen asprea!  
Pensatceac lazten cioc sendoari illea

O lastima eta ondico guztien azquenena!  
Obra crueletaric duc atheratcen icena

1000 Omena aditceaz dituc segurenac icitcen  
Eta bihotça daroec transimenduz harritcen.

*Fiña.*

Herioaren fiña da guiçona punitcea  
Ceren den Iongoicoaren contra esquer gabea

Ungui eguiñen sari du offensatcen itsusqui  
Halacotz pena behar du herioaz iustuqui

Edo bere bekhatuen causaz edo Adamen  
Ceren ahoratu çuen deuecatu ahamen.

*Causac.*

Bekhatua, cer darocuc izterbegui mundura ?  
Gure gana hain cruela ceñac baitu iaidura?

1010 O cierpe itsussia ceñen pena larria  
Herioa behar baitcen hain deus ici garria

---

991. *hain ezta maite corapilloric*: hots, *ezta hain corapillo maiteric*.

992. *hequien bien*: ondoko bertsoak dioen *hec biac*-en genitivoa da: ikus 382.

995. *orhoitçapen hirearen asprea*: hots, *hire orhoitçapenaren asprea*.

999. *omena aditceaz*: ikus 1027: *icenaren aiphatcea*.

1000. *daroec*: ez *diec*; nahiz eta *dioc*: ikus 46.

1004. *halacotz*: ia beti *hartaracotz* dioenaren kideko: ikus 629.

1005. *Adamen*: hots, *Adamenarenaz*; *bere*-ren pareko genitivoan ezarri du.

*ezen gauzetan hain ezta maite korapilorik,  
bekien bien artean dena bezalakorik.*

*Bortxaz apartatzen dire elkhar ganik bek biak,  
elkharren lagun Iainkoak berariaz utziak.*

#### Izenaz.

*Herioa, orhoitzapen hirearen asprea!  
pentsatzeak lazten ziok sendoari ilea.*

*O lastima eta ondiko guztien azkenena!  
obra krueletarik duk atheratzen izena.*

1000 *Omena aditzeaz dituk segurenak izitzen  
eta bihotza daroek transimenduz harritzen.*

#### Fina.

*Herioaren fina da gizona punitzea,  
zeren den Ingoikoaren kontra esker gabea.*

*Ungi eginen sari du ofensatzen itsuski,  
halakotz pena behar du herioaz iustuki*

*edo bere bekhatuena kausaz edo Adamen,  
zeren aboratu zuen debekatu abamen.*

#### Kausak.

*Bekhatua, zer darokuk izterbegi mundura,  
gure gana hain kruela zeinak baitu iaidura?*

1010 *O zierpe itsusia, zeinen pena larria  
herioa behar baitzen, hain deus izigarria.*

---

1006. *abamen*: mugatzailerik gabe; ohitura hau guztiz zaharra da, beraz, ez Hibrarregandikakoa. Ikus, gehiagoren artean, Etxepareren hura: *Çuhamuyec dacartela odolezco icerdi*, I,313.

1007. *darocuc*: honela irakurri behar da, ene ustez: *cer darocuc mundura, izterbegui* (horrek)? *Darocuc*: ikus 591, 2825. Etxepareren *derau-*, *darau-*hemen *daro-* da, adizki laguntzaile iragankorretan bezalaxe. Ikus 1054.

1010. *hain deus icigarria*: ikus 985. Eta ohar bide batez, *hain* aurrean doala han eta hemen: ikus 775.

Hambat bada mereci du puni dadin gaizquiac  
 Non separa daiten urrun adisquide mamiac  
 Gorputz eta arimaren hain lothura hertsia  
 Lecha dadin eta billha herrauts gorputz guria?  
 Bai pena hau mereci du guiçon esquer gabeac  
 Ceren eta hautsi tuen Iaincoaren legueac  
 Ceren offensatu duen ungui eguille handia  
 Hala ere etçαιο ematen gatzigu merecia.

*Obrez.*

1020 Ezcurretic eçagun da haritz larrainëcoa  
 Bere fruitutic sagarra, bai beretic ficoa  
 Halaber da eçagutcen beretic herioa  
 Ecen lastima garria uzten du hatz ondoa.

*Icitcen du.*

Bihotcean ematen du tristetia larria  
 Eta icialdurarequin ecin eguin handia  
 Hartaracotz errana da, alla herioa motz  
 Tristetia baicen eztu uzten deusic ondocotz  
 Icenaren aiphatcea bera ere da hain latça  
 Samson beraren baitçuen non transitu bihotça  
 1030 Hersten denean eztaqui norat itçul presunac  
 Mouimenduaz gabecten ecen çaiçco belhaunac

- 
1011. *hambat bada*: liburuak oso zeinu gutxi dakar eta maiz zail da zuzen irakurtzen; hemen galdea hasten da, ene ustez, eta lau bertso beherago ixten.
1012. *non separa daiten*: perpaus nagusiak *hambat* duelarik, *non* hemen konsektiva da eta adizkiak ez du *bait*- hartu; baina honez gain adizkia subjuntivo da: *daiten*: ikus 841.
1014. *lecha dadin*: aurreko *separa daiten*-en parataktika da. *Lecha*: ikus 1096.
1016. *ceren eta*: gehienetan *ceren* soilik esan ohi du; ikus ere ondoko bertsoa: 1017.
1018. *ere etçαιο ematen*: bi fonetika aldakuntza egin behar da hemen: bi lehen

*Hanbat, bada, merezi du puni dadin gaizkiak,  
non separa daiten urrun adiskide mamiak?*

*gorputz eta arimaren hain lothura bertsia  
lexa dadin eta bilba herrauts gorputz guria?*

*Bai, pena hau merezi du gizon esker gabeak,  
zeren eta hautsi tuen Iainkoaren legeak,  
zeren ofensatu duen ungi egile handia,  
hala ere etzaio ematen gaztigu merezia.*

Obrez.

1020 *Ezkurretik ezagun da haritz larrainekoa,  
bere fruitutik sagarra, bai beretik fikoa.*

*Halaber da ezagutzen beretik herioa,  
ezen lastimagarria uzten du hatz ondoa.*

Izitzen du.

*Bibotzean ematen du tristezia larria  
eta izialdurarekin ezinegin handia.*

*Hartarakotz errana da, ala herioa motz,  
tristezia baizen eztu uzten deusik ondokotz.*

*Izenaren aiphatzea bera ere da hain latza,  
Sanson beraren baitzuen non transitu bibotza.*

1030 *Hersten denean eztaki norat itzul presunak,  
mobimenduaz gabetzen ezen zaizko belhaunak,*

---

hitzen artean elisioa (*er'etzaio*) eta horren gain -o vokalerdi bailitza ahoskatu.

1024. *ecin eguin*: izen konposatutzat jo behar da: «impotencia»: ikus 2728.  
1025. *alla herioa motz*: Etxepareren beste hura, *ala encontru hona*, dakar gogora: IX,1, sintaxia bera ez badute ere: *alla herio motza* behar luke bestearen arabera; agian, puntuak bortxatu du Etxeberri.  
1028. *Samson*: irakur honela bertsoa: *non baitçuen Samson beraren bibotça transitu*. *Non*: hemen ere konsektiva kutsua dario, perpaus nagusiak *hain* duelarik; adizkia ez da, halere, subjuntivoa: ikus 1012.  
1029. *gabetcen*: *gabetu* beti -z errejimena duelarik darabil: ikus 2022.  
*ecen*: aurreko bertsoan *non* bezalaxe perpausaren erdian kokatu du *ecen*.

illea ere latzten çαιο, lilluratcen beguiac,  
Ohico ere galtcen du colorea visaiaic.

*Guiçonari darraio.*

Guiçonaren ihician gau eta egun dabilla  
Eta sosseguric eztu non eztacussan hilla

Ecen amaganic haurra denaz guero mundura  
Pausu gaberíc darraio oiñ-hatcetic ardura

Gu non gare, hura han da, guiçonon nigarrera  
Den urratsic ttipiena galdu gabe tristera

1040 Bañan ondotic darraio hala nola itçala  
Bi ahotaco escuan dakharrela nauala.

*Atcematen du.*

Sarri edo berant ditu atcematen guztiac  
Ecen itçurtceco dire bide guztiac hertsiaic

Mortu çarraturic ezta, non ezteçan idocqui  
Ez aintciraric iragan, non ezteçan idequi

Lekhu guztietara du arthiquitcen tragaça  
Eta urruititic ere açarcacñen bihotça.

Haren gana darauntsagu nola uhiñac costara  
Berac erakhartcen gaitu nahi duen cozcara.

*Hilltcen tu guztiac.*

1050 Hurbilltcen aiz, Herioa, odolez egarriric  
Bekhoquia cimur eta beguia bihurriric

1032. *ohico ere*: irakur honela: *ohico colorea ere galtcen du visaiaic*.

1034. *non eztacussan*: ikus 545; han bezala, balio kondizionala du.

1035. *denaz guero mundura*: hots, *mundura denaz guero*: ikus 1007.

1037. *gu non gare*: atsotitz hura, *haizea nora zapiak bara*, dakar gogora eta biak  
modu berean taxutuak daude.

*nigarrera*: *nigar tristera* da izen sintagma, bi hitzak elkarrengandik erauzi  
eta bertso banatan hedatu baditu ere.

1038. *den urratsic ttipiena*: *den* gabe ere esan daiteke, noski, baita oraindik  
luzeagotu ere, ordea; *inon den urik gebiena* ere esan ohi da.

1040. *bi ahotaco*: *nauala* da, noski, *bi ahotaco*, ez *escua*-. ikus 767.

*ilea ere latzten zaio, liluratzten begiak,  
obiko ere galtzen du kolorea bisaiaik.*

Gizonari darraio.

*Gizonaren ihizian gau eta egun dabila  
eta sosegurik extu, non eztakusan bila,  
ezen ama ganik haurra denaz gero mundura,  
pausu gaberik darraio oin-hatzetik ardura.*

*Gu non gare, hura han da, gizonen nigarrera  
den urratsik ttipiena galdu gabe tristera,*

1040 *bainan ondotik darraio hala nola itzala,  
bi ahotako eskuan dakharrela nabala.*

Atzematen du.

*Sarri edo berant ditu atzematen guztiak,  
ezen itzurtzeko dire bide guztiak hertsiaik.*

*Mortu zarraturik ezta, non eztezan idoki,  
ez aintzirarik iragan, non eztezan ideki.*

*Lekhu guztietara du arthikitzen tragaza  
eta urruititik ere azarkatzen bihotza.*

*Haren gana darauntsagu nola ubinak kostara,  
berak erakhartzten gaitu nabi duen kozkara.*

Hiltzen tu guztiak.

1050 *Hurbiltzen aiz, herioa, odolez egarririk,  
bekhokia zimur eta begia biburririk.*

1042. *guztiac*: ahoska ezazu, *guztyak*.

1043. *non ezteçan*: konsekutiva, ene ustez, eta hainbestez adizkia subjuntivoan:  
ikus 1012; 867; 868.

1044. *ez aintciraric iragan*: ilunxkoa da bertso erdi hau; aurreko *ezta* esan ga-  
be utzi duela uste dut: «no se ha cruzado un lago...», *ez aintcira*  
*iraganic* balio bezala.

*non ezteçan*: ikus aurrekoa.

*idequi*: hots *edequi*: ikus 1062.

1046. *urruititic*: ez dirudi hutsa; bestetan ere hala dio: ikus 1688.

1047. *darauntsagu*: *erauntsi* aditzaren adizki trinkoa: ikus 2107.

Vistaz ikharatcen dituc buruçagui gogorrac  
 Eta ematen daroztec transimendu agorrac  
 Gutienic noiz baicare gueure hitçaz orhoitcen  
 Orduan darocuc bici maitea atrapatcen  
 Alabañan orenaren ez guc iaquin berria  
 Eta paradazcoa hic hautatcen duc astia.

*Probe, aberatsac, etc.*

- O cruela odolsua naturaren Burreua  
 Araitciña hobiratu üen gure ama Eua.  
 Gueroz eztioc barkatu handi edo ttipiri  
 1060 Bañan dituc munduaren contra armac muthiri  
 Hasta duenari dioc arthiquitcen guecia  
 Eta çahar, gazteari idequitcen bicia.  
 Nola picatcen baititu segac belhar ferdeac  
 Hala azpiratcen dituc puchant eta probeac  
 Erregue eta arloteec hala ditec frogatcen  
 Ecen hi aute naussi beretçat eçagutcen  
 Nihorc ecin iguriqui ciecequec hireei  
 Bi aldetara euaquitcen duten arma çorrotcei  
 Hire tragaçaren contra eztuc erredolaric  
 1070 Ez landetan çauriaren sendatceco belharric.

*Lekhu guztietan hilltzen du.*

Iguzquiaren azpian nihon eztuc sorhoric  
 Hire passioneari guerice dagoquanic

- 
1052. *daroztec*: ikus *daroc*, 1000.  
 1053. *noiz baicare*: hots, oroitzen garenean: ikus 10; 844.  
*hitçaz*: hala dago, baina ez diot zentzu handirik ikusten; ez ote du *hiltceaz* behar, bi silabaz ahoskaturik?  
 1054. *bici maitea*: zesura bien erdian delarik.  
 1056. *paradazcoa...astia*: biek *-a* dutelarik, *asti egokia* esan nahi du.  
 1057. *o cruela*: berez *naturaren burreu cruel, odolsua* litzateke sintagma.  
 1058. *araitcina*: ikus Etxepare, *baraycinacoric*, X,63; eta liburu honetan berean, 1819; 1643.  
 1059. *gueroz*: Etxeparegan bezalaxe: adverbio, baina *barez gero, geroztik* esan nahi duelarik, ez *gero*.  
*barkatu*: hala dator, baina gainerako gehienetan *barkhatu*.



*Bistaz ikharatzen dituk buruzagi gogorrak  
eta ematen daroztek transimendu agorrak.*

*Gutienik noiz baikare geure hitzaz orhoitzen,  
orduana darokuk bizi maitea atrapatzen.*

*Alabainan orenaren ez guk iakin berria  
eta paradazkoa hik hautatzen duk astia.*

Probe, aberatsak, etc.

*O kruela, odolsua naturaren burreua,  
araitzina hobiratu üen gure ama Eba.*

1060 *Geroz eztiok bark(h)atu handi edo ttipiri,  
bainan dituk munduaren kontra armak muthiri.*

*Hasta duenari diok arthikitzen gezia  
eta zahar, gazteari idekitzen bizia.*

*Nola pikatzen baititu segak belhar ferdeak,  
hala azpiratzen dituk puxant eta probeak.*

*Errege eta arloteek hala ditek frogatzen,  
ezen hi aute nausi beretzat ezagutzen.*

*Nibork ezin iguriki zizekeke hirei  
bi aldetara ebakitzen duten arma zorrotzei.*

1070 *Hire tragazaren kontra eztuk erredolarik,  
ez landetan zauriaren sendatzeko belharrik.*

Lekhu guztietan hiltzen du.

*Iguzkiaren azpian nibon eztuk sorborik  
hire pasioneari gerize dagokanik.*

---

1062. *eta çabar: bici çabarra* esan nahi ote du? Ala çabar eta gazteari?

1064. *puchant eta probeac:* ikus 532.

1065. *erregue eta arloteec:* ikus 532.

*ditec:* hitanoa: ← *dute*; baina hori bera *die* ere esaten badaki: ikus 232, 585.

1066. *naussi:* honela dago beti idatzia, -g- gabe; beti hiru silabatakoa da, halere.

1067. *ciecequec:* hitanoa: ← *dieceque*, hots gure *diezaieke:* ikus 737, 739, 360.

1068. *çorrotcei:* izen sintagma osoa *hire arma çorrotcei* da, noski, baina bi puska egin du eta bertso banatan barreiatu.

1070. *ez:* «no» ez, «ni» esan nahi du: ikus 171.

1072. *dagoquanic:* guk *dagokionik* dioguna.

Nahiz dela artçaiñaren etcholatcho chumea  
Edo ezperen Erregueren etche dorrez bethea  
Biac berdin hic osticoz egotzten tuc lurrera  
Eta orain gora dena aurkhi duquec behera.

*Gende guztiac.*

Nahiz altcha daquiela Ezcutari bakharra  
Edo ezperen gendetsu Princearen armada  
1080 Baten beçain contra sendo hañitcen duc bessoa  
Ecen million guiçonon garaitu duc campoa  
Eta nola itsassoac barkha miragarriei  
Eraguiten baitaroe lançada bai ttipiei  
Halaber tuc, Herioa, azpiratcen ozteac  
Nola çamarira igan bakhar çaldun gazteac.

*Entrepresac hautsten.*

Hi aguertu artean tuc gure hitzac handiac  
Baiñan aguertu eta hic ichilltzen tuc mihiac  
Arranoa dathorreño choriac dic cantatcen  
Nauaritu duenean ordean duc ichilltzen  
Hitaz eta gutzaz berdin duc, herio cruela,  
1090 Gure ahoa hersten duc hi aguertu beçala.

1073. *nahiz dela*: Horazioren «pauperum tabernas regumque turrets» haren oihtar-  
tzun dirudite bi bertsook.

1075. *berdin*: zaharra da, dirudienez, *orobat*, *berebat* esateko beste hau.

1076. *gora*, *behera*: adjetivo dirudite, ez adverbio.

1077. *nahiz*: konzesiva delarik, adizkiari *-ela* erasten dio, ez *-en*, hemen eta  
bestetan: ikus 1073.

*daquiela*: *hiri*, euskara batuan *dakiala* dioguna.

1078. *gendetsu*: irakur, *Princearen armada gendetsua*.

1079. *baten beçain*: hauxe esan nahi du poetak: *baten contra beçain sendo duc  
hañitcen contra bessoa*; edota, *baten contra beçain bessoa sendo duc  
hañitcen contra*.

1082. *baitaroe*: ikus 1052.

*Nabiz dela artzainaren etxolatxo xumea  
edo experen Erregeren etxe dorrez bethea,  
biak berdin hik ostikoz egotzten tuk lurrera  
eta orain gora dena aurkhi dukek behera.*

Jende guztiak.

1080 *Nabiz altxa dakiela ezkutari bakharra  
edo experen jendetsu prinzearen armada,  
baten bezain kontra sendo hanitzen duk besoa,  
ezen milion gizonen garaitu duk kanpoa;  
eta nola itsasoak barkha miragarriei  
eragiten baitaroe lanzada, bai ttipiei,  
balaber tuk, herioa, azpiratzen ozteak,  
nola zamarira igan bakhar zaldun gazteak.*

Entrepresak hautsten.

*Hi agertu artean tuk gure hitzak handiak,  
bainan agertu eta hik ixiltzen tuk mihiak.  
Arranoa dathorreino xoriak dik kantatzen,  
nabaritu duenean, ordean, duk ixiltzen.  
Hitzaz eta gutzaz berdin duk, herio kruela,  
gure ahoa hersten duk hi agertu bezala.*

---

*bai ttipiei*: hots, *barkha miragarriei eta ttipiei*: ikus 512.

1083. *oztea*: *oste*a, -s- duclarik, behin ageri da liburuan barrena: ikus 1715.
1084. *bakhar çaldun gazteac*: hots, zaldun gazte bakarrak. Argi dago, ene ustez, poetak dioena: gizon taldeak, zaldi gaineko zaldun gazte bakarrak bere etsaiak bezalaxe azpiratzen ditu herioak.
1086. *aguertu eta*: gerundio gisakoa; *eta* menderatzaile, beraz; denborazko balioa du, aurreko bertsoan *aguertu artean* bezalaxe: ikus 451; 377.
1089. *hitzaz*: bestetan *hitaz* dio: ikus 3676; 3742.  
*hitzaz eta gutzaz berdin duk*: esapide hau ageri da bestetan ere; hauxe esan nahi du: «entre nosotros (contigo y con nosotros) ocurre lo mismo». Bestetan beti -*çaz* idatzi ohi du; hemen -*tzaz*.
1090. *hi agertu beçala*: denborazko balioa du: ikus 445.

*Arima gorputcetic apartatcen.*

O dolore eta lastima ecin condatuzcoa  
Egun çutic eta bihar hillic erortcecoa  
Herioarenac dire halaco obratceac  
Garabec non ez baititu naturaren hain dorpheac  
Gorputz eta arimaren lothura hertsiena  
Leçhatcen du, Iaunac baicen eguin ezteçaquena  
Gorputça manaiu gabe erortcen da lurrera  
Eta hatsean arima hegaldatcen airera.

*Arimaren statua.*

- 1100 Gorputcetic separatuz gueroz spiritua  
Apartean triste dago nola alhargundua  
Gorputçarequin oraiño iuntatceco desira  
Gueldi çαιο, haric ekhar dadin bere nahira.  
Oyhan-çaiñac egotztean lurrera çuhaitz gora  
Altçairuzco hurbillduric oñetara aizcora  
Nola choriac airatcen baitire bercetara  
Tristequi beguiratceco berce ohatcetara  
Guiçonaren orobat da arimaz illkhiz guero  
Gorputçari iuntatceco desira gueldi çαιο  
1110 Tristetia cembait badu iunta dadin artean  
Eta gloriáz betheric sar dadin gorputcean

1094. *garabec*: hots, *naturaren garabec*: ikus 334. Ez ote da *naturan?* Silaba bat gehiegi bait du.  
*non*: aurreko *halaco*-ri lotu behar zaio: *halaco... non...*; konsekutiba, beraz: ikus 1012.  
1095. *gorputz eta arimaren*: ikus 532.  
1096. *lechatcen du*: zangalatrau dago: ikus 1014. Ikus ere *lecha*: 1014; baina bai 3340 ere.  
1098. *hatsean*: hots, hatsarekin batean.  
1099. *separatuz gueroz*: zesurak erdibiturik daude.  
1102. *gueldi çαιο*: zangalatrau dago. Ez dio *guelditu*: ikus ere 1108.  
*haric*: eta gabe, subjuntivoa darraikiolarik: ikus 976;  
1103. *oyhançaiñac*: arimak gorputza uztean sentitzen omen duen atsekabea adi-

Arima gorputzetik apartatzen.

*O dolore eta lastima ezin kondatuzkoa,  
egun zutik eta bihar hilik erortzekoa,  
herioarenak dire halako obratzeak,  
garabek non ez baititu natura(re)n hain dorpbeak.*

*Gorputz eta arimaren lothura bertsiena  
lexatzen du, Iaunak baizen egin eztezakena.*

*Gorputza manaiu gabe erortzen da lurrera  
eta hatsean arima begaldatzen airera.*

Arimaren estatua.

1100 *Gorputzetik separatuz geroz espiritua,  
apartean triste dago nola alhargundua.*

*Gorputzarekin oraino iuntatzeko desira  
geldi zaio, haric ekhar dadin bere nahira.*

*Oihan-zainak egotztean lurrera zuhaitz gora,  
altzairuzko hurbildurik oinetara aizkora,*

*nola xoriak airatzen baitire berzetara  
tristeki begiratzeko berze obatzetara,*

*gizonaren orobat da arimaz, ilkhiz gero  
gorputzari iuntatzeko desira geldi zaio.*

1110 *Tristezia zenbait badu iunta dadin artean  
eta gloriaz betherik sar dadin gorputzean.*

---

tzera emateko darabilan gonbarazio honek, Etxeberriren beste askok bezala, Virjiliogandik hartua dirudi. Hona Mitxelenaren hitzak. «...y las frecuentes imágenes, frescas y llenas de naturalidad, brotan sin esfuerzo de su pluma». (*Historia de la literatura vasca*, or. 72).

1104. *altzairuzco*: *aizcora* da *altzairuzcoa*: izen sintagma printzaturik dago.

1105. *bercetara*: hots, *berce çubaitcetara*.

1107. *orobat da arimaz*: ikus 1089; han *berdin*, hemen *orobat*. Ikus ere 1075. *arimaz*: hots, *guizonaren arimaz*: ikus 1104. Ez dago, beraz, *ilkhiz guero-*ren baitan.

1108. *queldi çαιο*: ikus 1102.

1110. *sar dadin*: *sar dadin artean*, noski, aurreko bertsoan bezala.

Ingoicoac emana du halaco gutitia  
Ceña ecin baiteçaque niholatan gambia  
Damnatuac eztu nahi gorputcera bihurtu  
Ceren guehiago behar duen pena soffritu.

*Gorputçarena*

- Miembro guztia dire gogorturic guelditcen  
Bai halaber podoreac obretaric naguitcen  
Bisaia eta begui urdin Cerura ailtchatuac  
Lurrera itçultcen dira guztiz gambiatuac  
1120 Beharriac eztu aditcen, ezta hitzten ahoa,  
Eztu urrindatcen lili sudurrac landacoa  
Escu biac çabalduric daude eta çangoac  
Leheneco obretaric gueldituric miembroac  
Fiñean hill gogorrac dauntça mouimendu gaberico  
Eztutela çohiaren baicen berce galderico  
Hain laburqui bustel dadin larharantça churia  
Eta khiratz gaichtoz bethe gorputz ungui hacia  
Miembroac bazterrean dauden okhelaturic  
Sugue eta chicharien bazca billhacaturic  
1130 Guiçonaren gorputça da hazten hobequiena  
Allabañan hill eta du harc ussain gaichtoena

- 
1114. *ceren*: honela tolestatu balu, *ceren pena guehiago // behar duen soffritu*, eskema hobeki beteko zukeen eta *behar duen* ere bertso erdi berean gertatuko, Etxeparegan egin ohi denez.
1115. *gueldiscen*: hala dio, baina hutsa da; *guelditcen* behar du.
1119. *hitzten*: *hitztu*, *bixtu*, alegia.
1120. *eztu*: irakur honela: *sudurrac eztu lili landacoa* (edo landaco lilia) *urrindatcen*.  
*urrindatcen*: ikus 3760.
1121. *eta çangoac*: hau eta *escu biac* izen sintagma bera dira, nahiz puskaturik egon.
1123. *dauntça*: *etzan* aditzaren forma trinkoa.  
*fiñean*: ahoska ezazu *fiñyan*.

*Iongoikoak emana du halako gutizia,  
zeina ezin baitezake niholatan ganbia.*

*Damnatuak eztu nabi gorputzera biburtu,  
zeren gehiago behar duen pena sofritu.*

Gorputzarena.

*Mianbro guztiak dire gogorturik gelditzen,  
bai halaber podoreak obretarik nagitzen.*

*Bisaia eta begi urdin zerura altxatuak  
lurrera itzultzen dire guttiz ganbiatuak.*

1120 *Beharriak eztu aditzen, ezta hitzten ahoa,  
eztu urrindatzen lili sudurrak landakoa.*

*Esku biak zabaldurik daude eta zangoak.  
leheneko obretarik gelditurik mianbroak.*

*Finean hil gogorrek dauntza mobimendu gaberik,  
eztutela zohiaren baizen berze galderik.*

*Hain laburki bustel dadin larharantza xuria  
eta khirats gaixtoz bethe gorputz ungi hazia,  
mianbroak bazterrean dauden okhelaturik,  
suge eta xixarien bazka bilhakaturik.*

1130 *Gizonaren gorputza da hazten hobekiena,  
alabainan hil eta du harc usain gaixtoena.*

---

1124. *çobiaren baicen berce*: Etxeparek eta hori honela esan ohi zuten: *çobiarrenaz berce*, -z errejimena duelarik, alegia, *berze*-k. Baita Etxeberrik ere inoiz: ikus 2528; 641.

1125. *hain laburqui*: hots, denbora labur berean.

1126. *khiratz*: hots, khirats. Baina ez da inprentako hutsa: ikus 762: *promez. bethe*: dadin, noski, aurreko bertsoan bezala.

1128. *sugue eta chicharien*: ikus 532.

1129. *hobequiena*: baina *borthitzquienic*, ikus 585: -a ordez -ik.

1130. *hill eta*: ikus 1086.

*harc ussain gaichtoena*: harc kendu eta *ussainic gaichtoena* esan zezakeen: ikus 289.

Berehala mudatcen da guiçonaren bisaia  
Eta lurrera erortcen orraztatu illaia  
Bere aita propia du abhorritcen presunac  
Herioac hambat ditu arrotzten eçagunac.

*Çarratcea.*

- Cergatic da aberatsa aciendez bantatcen  
Eta guerlaria leihor banatuez preçatcen  
Hec guztiac utcico tu, asqui du mihisea,  
Eta guerlariac hobi gorputçaren bethea.
- 1140 Obra iustuac arimac daramatça berequin  
Berce guztiac utzten tu mundu vanoarequin  
Ea beraz parti gaiten aphainduac mundutic  
Tongoicoaren hastandu gabe manamendutic  
Nola edirenen baitu herioac guiçona  
Gaztigu emanen çαιο edo golardo ona.  
Ecen norat ere baita eragotzten çuhaitça  
Han guelditcen da leihorra dela edo uhaitça.
- 1150 Obra onec daramate arima hedoyera  
Eta falta itsussiec Ifernuco lecera  
Ea beraz obretara heda çagun escua  
Ceñen içanen baitugu sari parabisua  
Seculaco atseguñez boz deçagun gogoa  
Sariaren aldean ezta deus pena munducoa.

---

1134. *arrotzten*: hots, arrotz egiten.

1136. *leihor*: izena da hemen; «les terres étendues», dio Lhandek: ikus Hiztegia,  
*banatu*, or. 106.  
*preçatcen*: ikus 128.

1138. *gorputçaren bethea*: hots, gorputzaren beteko hobia.

1142. *hastandu gabe*: zesurak erditik ebakitzen duelarik: ikus 1054. Sintagma  
hori, bestalde, izen sintagman txertatua dago.



*Berebala mudatzen da gizonaren bisaia  
eta lurrera erortzen orraztatu ilaia.*

*Bere aita propia du abhorritzen presunak:  
herioak hanbat ditu arrotzten ezagunak.*

Zarratzea.

*Zergatik da aberatsa aziendez bantatzen  
eta gerlaria leibor banatuez prezatzen?*

*Hek guztiak utziko tu, aski du mihisea  
eta gerlariak hobi gorputzaren bethea.*

1140 *Obra iustuak arimak daramatza berekin,  
berze guztiak utzten tu mundu banoarekin.*

*Ea beraz, parti gaiten aphainduak mundutik,  
Iongoikoaren hastandu gabe manamendutik.*

*Nola edirenen baitu herioak gizona,  
gaztigu emanen zaio edo golardo ona,  
ezen norat ere baita eragotzten zuhaitza,  
han gelditzen da, leiborra dela edo uhaitza.*

*Obra onek daramate arima hedoiara  
eta falta itsusiek ifernuko lezera.*

1150 *Ea beraz, obretara heda zagun eskua,  
zeinen izanen baitugu sari parabisua.*

*Sekulako atseginez boz dezagun gogoa:  
sariaren aldean ezta deus pena mundukoa.*

---

1145. *norat ere baita*: ikus 10; 498.

1146. *leiborra*: ikus 1136.  
*uhaitça*: hots, erreka, hibaia.

1147. *hedoyera*: ikus 330.

1150. *ceñen*: hots, obren. Irakur honela: *ceñen sari içanen baitugu parabisua.*

1152. *aldean*: ahoska ezazu, *aldyan*.

## BVRV II.

### *Iuiamendu particularaz*

Iuiamendu particularaz nahi nuque mintçatu,  
Ecen hartaz mintçatceco orena da hurbilldu.

Sententia larri hunec heriotceac baiño,  
Neure baitan icitcen nau haiñitcez guehiago.

Ecen herioaren dut hunen gatic beldurra:  
Fauorezco uste banu eznuque icialdura.

1160 O Iongoico iuiamendu iustuen Alcatea,  
Arren fauora naçaçu, tristetiaz bethea.

Suiet huni çuc indaçu indar iarraiquitceco,  
Baita mihia ere treue moldez hitz eguiteco.

### *Ea cer den?*

Iuiamendu berecia edo particulara,  
Ceñaz ethorri baicare mintçatceco mugara,

Hura ohi da Iaunaren sententia larria,  
Hill beharrari menean iustuqui egotcia.

Particulara deitcen da hilltcera doanari,  
Cergatic ematen çaiion bakharric presunari.

- 
1153. *particularaz*: lehen bertso erdia silaba bat luzeegi da; *-u-* mutu utzi eta *partiklaraz* irakurri ote zuen poetak? Ikus 1533 ere. Horrez gain hitzaren azken *-r* bakuna idazten du beti, ez *-rr-*.
1154. *hartaz*: gehienetan, ordea, *-tçaz* esan ohi du: *gutçaz*, 1089; *hartçaz*, 1217; ikus, halere, *hitaz*, 3676; 3742.
1155. *baino*: *heriotceac baino haiñitcez guehiago* berez hitz andana bakarria izan arren, puntua dela bide erdibitua dago, artean aditz sintagma sarturik.
1157. *herioaren... beldurra*: izen sintagma honen antzekoak maiz ageri ohi dira iparraldeko idazleen artean erdibiturik, hemen bezala. Are trukaturik, hots, *beldurra herioaren*. Ikus, ordea, *corte dohatsuenta*, 7.
1158. *eznuque*: honen *-e* eta ondoko hitzaren *-i* diptongo gisa ahoskatu behar dira silaba bakarrez.
1160. *fouora*: hala dio, baina hutsa da, agian; bestetan beti *fauora* da. *bethea*: ni, alegia.
1161. *çuc indaçu indar*: sintagma hau besteari txertatu dio erdian. *indaçu*: Etxeparek *ydaçu* bost bider; ikus 889.

## BURU II.

### Iuiamendu partikularaz

*Iuiamendu partikularaz nahi nuke mintzatu,  
ezen hartaz mintzatzeko orena da hurbildu.*

*Sentenzia larri hunek heriotzeak baino  
neure baitan izitzen nau hainitzez gebiago,  
ezen herioaren dut hunen gatik beldurra;  
faborezko uste banu, ez nuke izialdura.*

1160 *O Iongoiko, iuiamendu iustuen alkatea!  
arren, fabora nazazu tristeziaz bethea.*

*Suiet huni zuk indazu indar iarraitzeko,  
baita mibia ere trebe, moldez hitz egiteko.*

Ea zer den.

*Iuiamendu berezia edo partikulara,  
zeinaz ethorri baikare mintzatzeko mugara,*

*hura obi da Iaunaren sentenzia larria  
hil beharrari menean iustuki egotzia.*

*Partikulara deitzen da, hiltzera doanari  
zergatik ematen zaion bakharrik presunari.*

- 
1162. *mibia*: bi silabaz, *mibya*, ebakitzea hobe -a eta e- sinalefaz batzea baino. *ere*: bigarren bertso laurdenaren hasieran dago: ikus 943.
1164. *ceñaz*: erlatibo gisa empletua: ikus 840; *ceñaz mintzatceco*, noski.
1165. *hura*: dirudienez, pasartea aski iluna den arren, *sentenzia larri hura* esan nahi du poetak. Hala balitz, izen sintagma erabat puskatua legoke. Ala *hura* anaforikoa ote eta bi bertso lehenagoko *iuiamendua* biltzen ote du sujeto gisa? Hartara *sentenzia larria* bakarrik litzateke sintagma, predikadoa.
1166. *menean*: hots, azken mementuan.
1167. *doanari*: hemen erlatibozko sintagma, *hiltzera doan presunari*, bi zati egin du eta bi bertsoan bakandu, bestetan bezala; lehenean adizkia ipini du mugaturik eta izenak bakarrak hartu ohi duen kasu atzizkia erantsirik; bigarrenean izena.
1168. *cergatic*: kausala, noski. Esanaz gain, mendeko perpausaren zati litzatekeen *hiltzera doan*- bere perpausetik atereago dago; hots, hizkera arruntean

*Causac.*

1170 Iongoicoac ematen du aiphatu den arrasta,  
Ceña erregueec ecin baitirote contrasta.

Iaincoaren aguertceco iustitia aicena,  
Sententia ematen da guztien iustuena.

Creatura gachoa da iustuqui ceñenera  
Sententia hunec iausti behar baitu gañera.

*Proprietateac.*

Eztu behiñere ematen hain gaztigu garratça,  
Nola bekhatoreari bailegocaque latça.

Berriz contra handi eta francoago saria,  
Ematen du hartu baiño guiçonac icerdia.

1180 Halaco da Iaincoaren bihotz beratassuna,  
Berretuz ematen baitu non bethi ontassuna.

Eta gutituz hutsari dagocan gaztigua,  
Cembatere baita haguitz gutçaz offensatua.

---

honela behar luke: «...deitzen da / Zergatik ematen zaion hiltzera doan presunari bakarrik». Adizkiak *-en* du: ikus 429; 648.

1169. *arrasta*: hots, epaia, sententzia.

1170. *erregueec*: hemen, lehen (71) ez bezala, bi *-ee-* bi silaba dira.  
*ecin*: bere adizkitik zesurak bakandua.

*baitirote*: hots, baitezakete: ikus 44. Etxeparek *diroyte* esan ohi du.

1171. *Iaincoaren*: *aguertceco* sartu du izen sintagmaren erdian: ikus 49.  
*aicena*: hutsa dirudi eta *zuzena* behar duela: ikus 1184, 1443.

1172. *sententia*: bertso honetako *guztien iustuena* ez da, noski, *iustu guztiena*, *iustuena* ez ezen gainerakoena ere ematen bait da egun hartan. Oraindik ere *guztien* hori bitara har daiteke: *guztietan iustuena* edota — honek dirudi zuzenen — gizon *guztien* (edo *guztientzat*) ematen da *sententzia(rik) iustuena*. Ikus Etxeparegan: *pena gaycena* (XIII,99), *penarik* gabe.

1173. *ceñenera*: hots, zeinengana: bertso bukaeran, bere sintagmatik bakandua. *Zeinen gainera* litzateke sintagma edo hitz andana, baina puntuak hala eskatzen eta bi hitzak elkarrengandik bereizteaz gain, bigarrenari bakarrik dagokion atzizkia lehenari ere erantsi egin dio: ikus 1167.

1174. *iausti*: ikus 820.

Kausak.

1170 *Iongoikoak ematen du aiphatu den arrasta,  
zeina erregeek ezin baitirote kontrasta.*

*Iainkoaren agertzeko iustizia zuzena  
sententzia ematen da guztien iustuena.*

*Kreatura gaxoa da iustuki, zeinenera  
sententzia hunek iausti behar baitu gainera.*

Proprietateak.

*Eztu behinere ematen hain gaztigu garratza  
nola bekhatoreari bailegokake latza.*

*Berriz kontra, handi eta frankoago saria  
ematen du, hartu baino gizonak izerdia.*

1180 *Halako da Iainkoaren bihotz beratasuna,  
berretuz ematen baitu non bethi ontasuna  
eta gutituz hutsari dagokan gaztigua,  
zenbatere baita hagitz gutzaz ofensatua.*

---

1175. *behinere*: lehen etenak ere alde batetara uzten duelarik; *-e* eta *e*-ren artean elisioa: ikus 899.

*bain... nola*: hots, *bezain*. Lafonek euskal partikularen erdibitze hau hizkuntza erromanikoen kutsutzat dauka arrazoiz: ikus 26.

1178. *baino*: *gizonak hartu izerdia baino* esan ohi dute iparraldekoek. Ikus nolako bortxa eragin dion poetak.

1180. *non*: *halako da... non berretuz ematen baitu*: hori da berez ordena arrunta; alegia, *non* mendeko perpausaren hasieran; poetak, aldiz, bertsoak bortxaturik, adizkia (*ematen baitu*) baino geroago ezarri du *non*. Konsekutiva da, noski: ikus 1094.

*berretuz*: hots, gehituz. Hala darabil Axularrek ere; Oihenartek, aldiz, *berbetus* idazten du (I,38,40) eta «par surcroist» esan nahi duela irakasten.

1182. *cembatere*: konzesiba da; Tartasengan ere bai honen kideko *çombatere*. Ikus: «Eguia da immortal dela beré naturaz, eçin hilçen dela, eta eternal eré dela beré içatez, à parte post, çombat eré ezpaita eternal à parte ante, çeren...» (22): ikus 293, *cein legun da...* Honako *cembat* eta *cein* hauek latinezko *quam* (vis) eta *quantum* (vis) gogorazten dituzte.

*Non ematen den sententia.*

- Arima dela lurrezco gorputcean barrena,  
Iongoicoac ematen du sententia çucena.
- Nola baitu presunera dagoela carcelan,  
Presidentac hitz tristea erraten bere guelan:
- Halaber du Iongoicoac ematen ordenua,  
Gorputcetic illkhi gabe arima icitua.
- 1190 Gorputça da arimaren presondegui hertsia,  
Conueni da han barrena har deçan sententia.

*Noiz ematen den.*

Sententiaren dembora dago seiñalatua,  
Eçagutça galtcearen azkeneco pontua,

Hareraiñoco arteaz nihor bedi balia,  
Orduraino eriac du saluatceco astia.

Vngui edo gaizquiaren eguiteco ephea,  
Azken eçagutçaren da galtceraco artea.

Handic hara indifferent dire actioneac,  
Iaquiteco sari, edo punimendu gabeac.

*Sententia hau laudaturen du generalac.*

- 1200 Sententia hunen guero confirmationetan,  
Generala emanen da dembora azkenetan.

- 
1185. *nola*: konparatiboa, ondoko *halaber* duela osagarri.  
*presunera*: hots, preso: ikus 256.  
*baitu...erraten*: bi bertsotan banaturik laguntzailea eta partizipioa: ikus 35.
1186. *Erraten*: Etxeparek *errayten* (III,3; III,64), ondoko bertsoko *ematen emayten* (III,46) dioen bezalaxe.
1188. *illkhi gabe*: antzineko idazleengan *gabe*-k maiz denbora adierazten du: *...baino lehen*, alegia. Ikus Etxepareren hau: «Bihì hunac gorde gabe vehar dici xahutu» (XIII,62).
1192. *eçagutça galtcearen*: ez dio *eçagutçaren*; ikus, aldiz, 1196.
1193. *harerainoco*: ikus 473.  
*nibor*: inpersonala: «uno, on»; perpausa baiezkoa da.

Non ematen den sententzia.

*Arima dela lurrezko gorputzean barrena,  
Iongoikoak ematen du sententzia zuzena.*

*Nola baitu presunera dagoela karzelan  
presidentak hitz tristea erraten bere gelan,  
halaber du Iongoikoak ematen ordenua  
gorputzetik ilkhi gabe arima izitua.*

1190 *Gorputza da arimaren presondegi hertsia;  
konbeni da han barrena har dezan sententzia.*

Noiz ematen den.

*Sentenziaren denbora dago seinalatua:  
ezagutza galtzearen azkeneko pontua.*

*Harerainoko arteaz nibor bedi balia,  
Orduraino eriak du salbatzeko astia.*

*Ungi edo gaizkiaren egiteko ephea  
azken ezagutzaren da galtzerako artea.*

*Handik hara indiferent dire akzioneak,  
iakiteko, sari edo punimendu gabeak.*

Sententzia hau laudaturen du jeneralak.

1200 *Sententzia hunen gero konfirmazionetan  
jenerala ematen da denbora azkenetan*

- 
1196. *azken ezagutzaren*: hauxe esan nahi du poetak: ongi nahiz gaizki egiteko epeak irauten duela inork ezagutza galdu arte. *Galtzeraco* ordez *galtzerainoko* esan eta hobeki aditzen dugu guk bertsoa: ikus 1193, *harerainoko arteaz*. *Azken* ez dagokio *ezagutzari*, baizik *artea*-ri: ikus *azkeneco pontua*, 1192.
1197. *handic hara*: Axularrek hainbeste bider darabilena; *harez gero*. alegia. Baina Etxeberrik bestetara ere esaten du: *han hara*, 1218.
1198. *iaquiteco*: ikus 184; 505.
1199. *guero*: izen sintagmaren erdian sartua.
1200. *dembora azkenetan*: *azken demboretan* ezin esan, silaba bat gutxiago bait zukeen.

Eta nolaco baitaite hitz hau bakhotcharentçat,  
Hau berori adituren du orduan beretçat.

Differentiaric ezta hauc bietan berceric,  
Hau ematen dena baicen solamenqui bakharric.

*Iuiamendu hunen manera.*

Hauc hunela condaturic heldu çaiçu sassoña,  
Iuiamendu larri hunen aiphatceco façoña.

Guiristiñoa ago erne heldu diren hitcetän,  
Ceñac guztiac baitire, hire ontassunetan.

*Eriari hurbilltcen çaiçco Spirituac.*

1210 Erhassunac duenean azpiratu Eria,  
Ecin hagoan egonez oherat eroria.

Hersten dire Spiritu onac eta gaichtoac,  
Ceñec bere eguin nahiz arima munducoac.

Bururquira hurbilltcen da Aingueru guardaria,  
Bai halaber Spiritu Guiçonon tentaria.

*Abaleguiña eguiten dute.*

Batac eta berceac dute empletatcen ahala,  
Ceñi gueldituren çaiön victoria çabala.

---

1202. *hau berori*: *halakoa* edo gehiago zegokion aurreko *nolaco*-ri.  
*adituren du*: zesurak erdibiturik.

1203. *berceric*: *berce differentiaric* behar lukeelarik, bertsoaren silabak osatzeko eta puntua behar bezala egiteko, bi hitzak, andana bakarra diren arren, bereizi egin ditu eta *-rik* erantsi biei: ikus 1124.

1204. *dena*: guk *dela* esango genuke.  
*baicen solamenqui*: «sino que tan sólo»; restriktiva edo da.

1205. *sassoña*: hitz andana *aiphatceco sassoña* da, batetik, eta *iuiamendu larri hunen façoña*, bestetik. Bigarren honi erdian txertatu dio lehenaren izenkia; *façoña* ez, gainera, baizik *façoñaren* litzateke normalago: ikus 1192.



*eta nolako baitaite hitz hau bakhotxarentzat,  
hau berori adituren du orduan beretzat.*

*Diferenziarik ezta hauk bietan berzerik,  
hau ematen dena baizen solamenki bakharrik.*

Iuiamendu hunen manera.

*Hauk hunela kondaturik, heldu zaiku sasoina  
iuiamendu larri hunen aiphatzeko fazoina.*

*Giristinoa!, ago erne heldu diren hitzetan,  
zeinak guztiak baitire hire ontasunetan.*

Eriari hurbiltzen zaizko Espirituak.

- 1210 *Erhasunak duenean azpiratu eria,  
ezin hagoan egonez oherat eroria,  
hersten dire Espiritu onak eta gaixtoak,  
zeinek bere egin nabiz arima mundukoak.  
Bururkira hurbiltzen da aingeru guardaria,  
bai halaber espiritu gizonen tentaria.*

Ahalegina egiten dute.

*Batak eta berzeak dute enplegatzen ahala,  
zeini geldituren zaion biktoria zabala,*

---

1207. *guiristinoa*: gorago bezala, lau silabatakoa da: ikus 769.

1209. *erbassunac*: *erbo-* du erroa, dirudienez, eta honek antzina *bilerazi* esan nahi zuen; *berioa*-ren pareko, beraz. Hemen, ordea, *eritasuna* dirudi, ondoko bertsoetan oraino bizirik bait dago kristaua.

1210. *hagoan*: ikus 2678; *hagoan egon*, halaz ere, *zutik egon* da.

1211. *spiritu*: gehienetan bezala, lau silaba ditu: ikus 973.

1212. *ceñec*: ergativo singularra da: ikus 1272.  
*bere equin*: hots, bereganatu.

1215. *berceac*: bi silaba baizik ez du hemen: *berzyak*.  
*ceñi*: hemen ez da erlativo gisakoa, galderazkoa baiño.

Ecen hartçaz eguiteco gudu guehiagoric,  
Han hara eztuquetela badaquite bideric.

1220 Orduan bada penatcen dire ahal guztiaz,  
Spiritu biac bata bercearen lehiaz.

*Aingueruac bururatcen dioena.*

Aingueruac eriaren diotsa bihotçari,  
Bekhatuen causaz eman dioçon nigarrari.

Seculan vrriquitceco orduan dela muga,  
Bere bekhatuac beraz issuriz detçan purga.

Munduaren khassatçala gogoeta vanoac,  
Eta Iauna gana altcha gogoeta lanoac.

Ararteco har deçala Virginia Ama Saindua,  
Bai San Miguel bitarteco guztiei agindua.

1230 Berce titchosoac ere ahal eguin guztiaz,  
Ertcha detçan othoiztera usatu cortesiaz.

*Deabruac gogoratcen dioena.*

Deabruac pairatcen tu hauc despitcoarequin  
Harc ere nahi du eguin, solas arimarequin.

«Hambat bada eguin duçu huts, diotsa, Maitea,  
Bekhatorea eguiteco hambat buru ceurea?»

- 
1217. *hartçaz*: arimaz, alegia. Ikus *bartaz*: 1154.  
*eguiteco*: hitzak zeharo trukaturik daude: *ecen badaquite han hara ez-  
tuquetela hartçaz gudu guebiago(rik) eguiteco bideric* irakur ezazu  
eta agian hobeki ulertuko duzu. Ikus nola desegin dituen sintagmak.
1218. *han hara*: ikus *handic hara*, 1197. Hemen silaba bat sobera izaki, laburtu  
egin du.
1220. *bata*: zesurak *bercearen*-gandik aldendu duelarik dago.
1221. *eriaren*: *diotsa* sartu du *eriaren bihotçari* izen sintagmaren erdian.
1222. *dioçon*: hots, diezaion. Ikus *dioçan* (1256), objeto plurala duelarik.
1223. *urriquitceco*: gutarik askok *-tzekotan* esango genuke. Ala *urriquitceco mugá  
ote?*
1225. *kbassatçala*: hots, *kbassa ditçala*: ikus 121. Lehen *dioçon* eta *detçan* esan  
badu ere, perpaus nagusiaren *diotsa* adizkiaren kompletiva, orain *-en*  
ordez *-ela* darabil. Beharrik gabe, gainera, ipin bait zezakeen *kbassa*

*ezen hartzaz egiteko gudu gebiagorik  
han hara eztuketela badakite biderik.*

1220 *Orduan, bada, penatzen dire ahal guztiaz  
Espiritu biak bata berzearen lehiat.*

Aingeruak bururatzen dioena.

*Aingeruak eriaren diotsa bihotzari  
bekhatuen kausaz eman diozon nigarrari;  
sekulan urrikitzeko orduan dela muga;  
bere bekhatuak, beraz, isuriz detzan purga;  
munduaren khasatzala gogoeta banoak  
eta Iauna gana altxa gogoeta lanoak;  
ararteko har dezala Birjina Ama Saindua,  
bai San Migel bitarteko guztiei agindua;  
berze titxosoak ere ahalegin guztiaz  
1230 ertxa detzan othoiztera usatu kortesiaz.*

Deabruak gogoratzen dioena.

*Deabruak pairatzen tu hauk despitkoarekin,  
hark ere nahi du egin solas arimarekin:  
«Hanbat, bada, egin duzu huts, diotsa, maitea,  
bekhatoea egiteko hanbat buru zeurea?»*

---

*detçan* eta bertsoak ez bait zukeen kalterik. Adizkia beste hiru hitzek osatzen duten hitz andanaren erdian sartua dago.

1227. *deçala*: berriz ere *-ela*.

*Virginia*: honen *-a* eta ondoko hitzaren *a-* silaba bakarra dira.

1229. *titchosoac*: hots, ditxosoak. Etxeparek *dicha-* dio: IV,4.

1230. *detçan*: hemen, ostera, *-en*: ikus 1225.

*usatu cortesiaz*: hots, ohi duen gizalegez: ikus 1505.

1231. *despitcoarequin*: Etxepareren *despita* (XII, tit.) bera da.

1233. *hambat*: hemen hasten da deabruaren solasa. Etxeberrik ez du maiz ortografi zeinurik ezarri eta horrek aski iluntzen du testoa; ez da dudarik deabruaren lehen hitzok galdera gisakoak direla. Ohar, halere, Etxeberrik ez darabilela galderazko *-a atzizkirik* (*duzu*, ez *duzuia*; *da*, ez *dea*, eta abar), Etxeparek, Oihenartek, Tartasek eta darabilten bezala. *Hambat huts* sintagma urratua dago.

- Hala baliz ere gauça, segur da hillen çaren,  
Eta etçaitçula berriz indarra bihurturen?
- Iaunac eztu ossassuna itçultceco escua,  
Licela ere erhassuna barrenago sarthua?
- 1240 Cembat ere çu hilltcera baitçare etsitua,  
Aguien du berreturen çure egunen contua.
- Sendatu eta eguiñen duçu eguin bidea,  
Orain etçaçula nekha hambat buru feblea.
- Oraingoa licela ere çure azken orena  
Beldurtassun hambat behar duçu Iaincoarena,
- Iesus-Christo, Virgina Ama, Saindu Apostoluac,  
Ertchatceco, eta berce gaiñeraco Iustuac?
- Iaincoaren ezta handi bethi eztitassuna,  
Eta çure faltac guti, handi Iustutassuna?
- 1250 Cergatic penatcen çare hambat gogoarequin,  
Alleguia ez baquea çuc Iaun puchantarequin?
- Khassa çatçu pensamendu burutic halacoac,  
Eta eguitçitçu hortic laster iaiquitcecoac».

- 
1234. *bekhatorea*: mugatua dago, nahiz ondoren *hambat* darraikion: hots, *hambat bekhatorea*. Baina poetak elkarrengandik bereizi ditu bi hitzok eta hainbestez elkarrenganako lotura eten: *hambat* hemen «en tal grado» edo da. Ikus, ostera, aurreko bertsoan *hambat huts*. Horrezaz gain, lau silabaz ahoskatu behar da *bekhatorya*.
- buru ceurea*: puntuak behartu du horrela esatera, *zeure burua* esan ordez.
1235. *çaren*: badirudi *zarella* behar lukeela; hemen ere puntuak bortxatu du. Ikus Etxepare, XIV,8-9: «...uste çuten / Ecin scriba çayteyen...»; ikus, aldiz, hurrengo bertsoan *etçaitçula*.
1237. *eztu*: esan bezala, galderazko *-a* gabe: ikus 1233.
1238. *licela ere*: konzesiva, noski; *ba-* ordez *-ela* erantsi dio adizkiari. Sinalefa behar da *-a* eta *e-*ren artean. Ikus *on licela*, 52.
1239. *cembat ere*: ikus 1182.
1240. *aguien*: ez *agian*: ikus 538.  
*berreturen*: ikus 1180.
1241. *sendatu eta*: ikus 1086.
1242. *etçaçula*: hots, ez dezazula. Ikus 852, 861.
1243. *licela ere*: ikus 1238.

*Hala baliz ere gauza, segur da hilen zaren  
eta etzaitzula berriz indarra biburturen?*

*Iaunak eztu osasuna itzultzeko eskua,  
lizela ere erkasuna barrenago sarthua?*

1240 *Zenbat ere zu hiltzera baitzare etsitua,  
agian du berreturen zure egunen kontua.*

*Sendatu eta eginen duzu eginbidea;  
orain etzazula nekha hanbat buru feblea.*

*Oraingoa lizela ere zure azken orena,  
beldurtasun hanbat behar duzu Iainkoarena,*

*Iesus Khristo, Birjina Ama, Saindu Apostoluak  
ertxatzeko eta berze gainerako iustuak?*

*Iainkoaren ezta handi bethi eztitasuna  
eta zure faltak guti, handi iustutasuna?*

1250 *Zergatik penatzen zare hanbat gogoarekin,  
alegia ez bakea zuk Iaun puxantarekin?*

*Khasa zatzu pensamendu burutik halakoak  
eta egitzitzu hortik laster iaikitzeoak.*

- 
1244. *beldurtassun*: Iaincoaren hambat beldurtassun litzateke hitz horien ordena hizkera arruntean. Urratu eta Iaincoaren- bereiz idaztean, -a erantsi dio. Ikus, ostera, 1157.  
*duçu*: galdera izanik ere, -a gabe: ikus 1233.
1245. *saindu Apostoluac*: izen adjetivoak trukaturik; *saindu*-rekin maiz egiten du hori, baina baita bestelako adjetivoekin ere: ikus 526, 614...
1246. *ertchatceco*: zangalatrau dago.
1247. *Iaincoaren*: genitibo honen determinantea bertso azkenean dago. Erka ezazu hiru bertso goragoko *Beldurtassun*... *Iaincoarena* dioen harekin; hemen ez dio genitiboari -a erantsi.  
*ezta*: eta ez *eztea*: ikus 1233.
1250. *alleguia*: adverbio konparativo gisa erabiltzen du Etxeberrik. Hemen hau esan nahi du: *bakerik ez bazenu bezala*.
1251. *çatçu*: hots, itzazu.  
*balacoac*: hitz andana desegin du hemen ere: *halako pensamenduak* esan ohi dugu.
1252. *eguitçitçu*: ikus 604.

*Aingueruac ibardesten duena.*

Spiritu arthatsua arima vrgatztera,  
Lehen baiño guehiago permatcen da nequera.

Gauça guztien gaiñetic diotsa Eriari,  
Erremedioac eman diotçan arimari.

Iustuenta dela erortcen egun oro çazpitan,  
Orhoit dadin cembat aldiz erori den gaizquitan.

1260 Eta illkhitcera presta dadin mundu bachotic,  
Barkhamendu escaturic bihotçaren ondotic.

Beguietan beldurtassun duen Iaincoarena,  
Arima galdua dela beldur eztenarena.

Segurenera itçultcen dela Christau çuhurra,  
Ceña baita içatea Iaincoaren beldurra.

Guztiz orhoit dadin cein den Iuiamendu hertsia,  
Iaunac ematen duena faltatcean bicia.

*Deabruaren berce gudua.*

Alde batetic tentatu duenean Etsaiac,  
Alabaiñan irabaci ez deus enganariac,

1270 Berce alde batetara itçultcen tu harriac,  
Hala nola choriari nauar ihiztariac.

---

1253. *arthatsua*: hots, arretatsua.

*urgatztera*: Etxepareren *drugaçula* (VIII,1) honen errotik sortua da, Lafonek dioen bezala. *Urgatzi* = lagundu, defendatu.

1254. *nequera*: adverbio bailitza, *gogora*, *iakiara*... bezala, ala *arima urgazteko nekera* esan nahi du? Azken honek dirudi egiantzekoago.

1256. *diotçan*: aingeruaren bigarren solasaldi honetan, lehenean (1221-1230) ez bezala, oso ongi bereizten ditu poetak *-en* eta *-ela*: lehena azpi egituran inperativa, bigarrena perpaus adierazkorra datzanean; ikus *diotçan* honezaz gainera, *dadin*, *duen*.

1258. *orhoit*: Etxeparek eta Tartasek *orbit* beti.

1259. *illkhitcera*: mundu bachotic illkhitcera, alegia.

1261. *duen*: inperativo ordezkua da: «izan ezak» zehar hizpidez esana: ikus 1256. *beldurtassun*: berriz ere *Iaincoaren beldurtassun* sintagma erditik ebaki du, artean *duen* sarturik: ikus 1244, eta genitivoari *-a* gehitu dio: ikus, ordea, 1157.

1262. *arima*: hots, *beldur extenaren arima*; hemen ere *-a* erantsiaz *extenaren-i*: ikus aurreko bertsoa.

Aingeruak ihardesten duena.

*Espiritu arthatsua arima urgatzera  
leben baino gebiago permatzen da nekera.*

*Gauza guztien gainetik diotsa eriari  
erremedioak eman diotzan arimari;*

*iustuena dela erortzen egun oro zazpitan,  
orhoit dadin zenbat aldiz erori den gaizkitan*

1260 *eta ikkhitzera presta dadin mundu baxotik,  
barkhamendu eskaturik bihotzaren ondotik;*

*begietan beldurtasun duen Iainkoarena,  
arima galdua dela beldur eztenarena;*

*segurenera itzultzen dela kbristau zuhurra,  
zeina baita izatea Iainkoaren beldurra;*

*guztiz orhoit dadin, zein den iuiamendu hertsia  
Iaunak ematen duena faltatzean bizia.*

Deabruaren berze gudua.

*Alde batetik tentatu duenean etsaiak,  
alabainan irabazi ez deus enganariak,*

1270 *berze alde batetara itzultzen tu harriak,  
hala nola xoriari nabar ibiztariak:*

---

1264. *içatea*: ez *ukaitea* edo horren antzekorik: ikus 958.

*Iaincoaren beldurra*: aurrekoetan ez bezala, hemen aho hizkerazko sintagma ohi bezala darabil. Genitivo hori objektivoa da, noski: hots, inork Jainkoa beldur izan, ez Hark duen beldurra.

1265. *guztiz*: hots, batez ere.

*cein den*: hots, Iaunak ematen duen iuiamendu hertsia zein den; izen sintagma aurretik ipini eta gero adizkiari (*duen-*) mugatzailea gehitu dio.

1268. *enganariac*: aurreko bertsoaren *etsaiac* eta honako *enganariac* hau ez dira bi lagun, bat baizik. Sintagma *etsai enganariak* litzateke, beraz; desegin egin du, ordea, puntua dela eta.

*irabaci ez deus*: hori ez *deus irabazi* edota *deus ez irabazi* esan ohi da, baina bertsoaren eskemak ez dio utzi horrela esaten.

1269. *itçultcentu*: hots, itzultzen ditu.

1270. *nauar*: *ibiztari nabarrak* da hizkuntzaren arauzkoa eta bertsoaren eskemari gagozkiola ere bertso hobea zatekeen: 4/3, alegia, bigarren bertso

O sinhets-bera diotsa! ô burutic iaucia,  
 Ceñac arinquí sinhetsi baituc entçun guztia!  
 Orain bada, sinhetsten duc, dela puchant Iaincoric?  
 Edo hillez guero pena, ezperen golardoric?  
 Hala baliz ere gauça obra eguin beçala,  
 Ardiatsiren ez üen saria berehala?  
 O Ezteussa! ô ariña! ô timplaren para!  
 Hitz guztitara itçultcen baituc buru feblea.  
 Seguradi, Innocenta, eztela Iongoicoric  
 Baicen, entçun dituenen guztiz contrarioric.

1280

*Aingueruaren ibardestea.*

Aingueruac hautsten dio Etsaiari solassa,  
 Eta honela eguiten arimari perpaussa  
 Eta bada alferric da arima garastia,  
 Eliç-Ama, Aita Saindu, eta Predicaria.  
 Alferric da Iongoicoaz hain berce orhoitçapen,  
 Eguietan ez balire hec guztia aurkhitzen.  
 Hain garratzqui aiphatuac hitz eguille iaquiñac,  
 Burleriac dire bada, eta ez solas ciñac.  
 Sarri bada ikhussiren duçu dela eguia,  
 Eta ni ere ez naicela falso enganaria.  
 Bekhatuen punimendu, edo sari vnguien,  
 Bicia fiña artean jaunac eztu ematen.

1290

- 
- erdian, *ibiz/tariac* erditik ebakiaren orde. Baina puntuak *-iac* izan behar eta izen sintagma trukatu egin du.
1271. *O*: hor hasten da deabruaren solas berria.
1272. *ceñac*: hau ez da 1208-koa bezalakoa; hau *nork* singularra da. Ez eta 1212-ko *ceñec* bezalakoa ere, hori ez bait da, hau bezala, erlatibozkoa. *arinquí*: Etxeparek *arbizqui* dio: III,4.
1273. *duc*: *-a* gabe: ikus 1233.  
*puchant*: *Iainco puchantic* esan nahi du, dirudienez; hemen ere, beraz, izen adjetivoak trukatu ditu.
1274. *ezperen*: ikus *ezperetanican*: 459.
1275. *hala... gauça*: bertso erdi berbera atera da lehen: 1235.
1276. *ezüen*: hots, *ez buen*: ikus 27; *ukeen*-en orde dago, dirudienez.



«O *sinhets-bera*», diotsa, «O *burutik iauzia!*  
*zeinak arinki sinhetsi baituk entzun gutzia.*

*Orain, bada, sinhetsten duk dela puxant Iainkorik?*  
*edo hilez gero pena, ezperen golardorik?*

*Hala baliz ere gauza, obra egin bezala,*  
*ardiatsiren ez üen saria berehala?*

*O ezteusa! O arina! O ttinplaren pare!*  
*hitz guztitara itzultzen baituk buru feblea.*

1280 *Segur adi, inozenta, eztela Iongoikorik,*  
*baizen entzun dituenen guztiz kontrariorik».*

#### Aingeruaren ihardestea.

*Aingeruak hautsten dio etsaiari solasa*  
*eta hunela egiten arimari perpausa:*

«*Eta bada alferrik da, arima garastia,*  
*Eliz-Ama, Aita Saindu eta predikaria;*  
*alferrik da Iongoikoaz hainberze orhoitzapen,*  
*egietan ez balire hek guztiak aurkitzen.*

*Hain garratzki aiphatuak hitz egile iakinak*  
*burleriak dire, bada, eta ez solas zinak.*

1290 *Sarri, bada, ikhusiren duzu dela egia*  
*eta ni ere ez naizela falso enganaria.*

*Bekhatuen punimendu edo sari ungien*  
*bizia fina artean Iaunak eztu ematen,*

---

1277. *ttimplaren*: hots, zintzarri, arran edo kalaska txikiaren pare!

1280. *dituenen*: hik entzun dituanen, alegia: ikus 93.

1283. *eta bada*: aingeruaren solasaldi berriaren lehen hitzok ilativa gisakoak dira;  
gure hortaz edo horretara bagoaz edo. Aingerua zuka, deabrua hika  
mintzo zaio arimari.

*garastia*: hots, garesti eresia; ikus Lhande, or. 335. *Arima garastia* hemen  
deigarri gisa dago.

1284. *Eliç-aman*: azken -n hori hutsa da, noski.

1287. *iaquiñac*: nork kasua da, *aiphatuac* ez bezala.

1290. *falso enganaria*: hots, enganari falsoa: ikus 1268.

1291. *sari ungien*: hots, *ungien sari*, bertso berean bait dio *bekhatuen puni-*  
*mentu*. Puntuak bortxatu du, noski.

Bañan beguiac ikhussi eta azken ordua.  
Niori ematen dio merecien pagua.

Eta cembat ohi baitu aitciñatu ephea,  
Hambat sari ematen du, edo pena dorphea.

*Hirur garren attaca.*

Hirur garren atacaren ematera gaichtoa,  
Armatcen da eguin nahiz bere eri gachoa.

1300 Eguia duc diotsa bada, ô arima donguea  
Aingueruac huneraño eguin perpaus emea.

Eguia duc, confessatcen diat dela eguia,  
Ecen maiz nauc bortchatua aihortcera eguia.

Mundu batetic bercera, ô erdutu beharra,  
Eguia duc, bekhatuez iustu dela nigarra.

Bañan hargatic ez tituc barkhatcen huts larriac,  
Gutziz hic eguin dituzquen beçain ici-garriac.

Iesus Christoc berac ere erran cien eguia,  
Eztela asqui meneco gaichtoen vrriquia.

1310 Sendo dela eguiteco dela poenitentia,  
Hala ere dohatsu dela norc baituque gratia.

- 
1293. *ikhussi eta*: hau ere, goragoko (1086) *aguertu eta* bezalaxe, gerundio gisakoa da; *eta* menderatzaile, beraz. Zesurak bakanduak daude, halere, bi hitzak *ikhussi // eta*. Etxeparek ez du inoiz horrelakorik egiten, baizik biak bertso erdi berean ipintzen; areago, bertso laurden berean.
1294. *niori*: hutsa da, itxuraz, eta *nihori* ordeaz dago. Hemen, lehen bezala (1193) inpersonal da: «uno, on».
1296. *cembat...hambat*: hots, *bezanbat*: ikus partikulak trukaturik, 515.
1298. *bere eguin*: ikusi dugunez, *bereganatu* (1212); *eri gachoa nahi du bere eguin* (deabru) *gaichtoac*.
1299. *diotsa*: lehen agertu denetan ez bezala, hemen bi silabatako da: *dyotsa* ebaki behar da, beraz: ikus 1221.
1300. *huneraño*: ez *hunaño*: ikus 473. Baina *hunat*: 1356.
1301. *eguia*: hitz bera zentzu beraz bi bertsoen puntu.
1302. *ecen maiz nauc*: hitanoa; *ecen* ez da, beraz, menderatzaile, koordinaziozkoa baizik: ikus 94,232...
1303. *erdutu*: hots, heldu, iritxi. Cf. Lhande, or. 254.

*bainan begiak ikhusi eta azken ordua  
nibori ematen dio merezien pagua  
eta zenbat ohi baitu aitzinatu ephea,  
hanbat sari ematen du edo pena dorphea».*

Hirur garren ataka.

*Hirur garren atakaren ematera gaixtoa  
armatzen da, egin nahiz bere eri gaxoa.*

1300 *«Egia duk», diotsa, bada, «o arima dongea,  
aingeruak huneraino egin perpaus emea;*

*egia duk, konfesatzen diat dela egia,  
ezen maiz nauk bortxatua aithortzera egia.*

*Mundu batetik berzera o erdutu beharra!  
egia duk bekhatuez iustu dela nigarra,*

*bainan hargatik eztituk barkhatzen huts larriak,  
gutziz hik egin dituzken bezain izigarriak.*

*Iesus Kristok berak ere erran zien egia,  
etzela aski meneko gaixtoen urrikia;*

1310 *sendo dela, egiteko dela penitenzia,  
hala ere dohatsu dela nork baituke grazia.*

---

1306. *gutziz: lehen bezala (1265) batez ere esan nahi du.  
dituzquen: hots, dituzkeen: hik, noski.*

*beçain: bigarren bertso erdiaren hasieran, konparaburuarengandik zesurak  
bereizten duelarik, Etxeparek inoiz ez bezala. Egia esateko, hemen  
konparaburua -en atzizkia duen adizkia da eta hainbestez ez dagokio  
hari Etxepareren hura bezain edo nihaur bezain haietan bezain lotua.*

1307. *cien: hitanoa, guk zian esan ohi duguna: ikus 20.*

1308. *meneco: ikus 1166.*

1309. *sendo dela: hots, osasun duen bitartean. Bertso honetako bi dela-k ez  
dira bat balioz: lehena denborazko; bigarrena konpletiva.*

*eguiteco dela: hots, egin behar dela. Ikus 201,382; eta Etxepare II,133:  
Amac eztu sofriceco...*

1310. *bala ere: hiru silaba baizik ez dezake izan hemen: balere ebaki behar da,  
beraz.*

*norc baituque: erlativo gisa enplegatua, guk duena esan ohi duguna:  
ikus 844; 1053...*

Eta guero nolatan duc vste saluamendua,  
Ikhussiric hire falten cein handi den contua.

Vrriqui diat nic ere eguin nuen gaizquiaz:  
Ez ordean probetchuric, halaco vrriquiaz.

Bekhatu bat nuelaric choillqui eguin Ceruan,  
Pairatcen diat bethico dolorea putçuan.

Ezta bada Ingoicoa iustu creaturentçat,  
Ene alderaco beçain, halaber hirecotçat?

1320 Are guehiago behar eztu eme enera,  
Ecen haraguizco guiçon feble hire aldera.

Ez naiz ni Aingueru sendo indar handitacoa?  
Eta hi daquien leguez Ema-cume flacoa.

Nola bada Saluatceco hartcen duc fidantcia,  
Hire falten denaz gueroz nombrea hain handia?

Aingueruaren defenda.

Aingueruac ichilltcen du Sathan gueçur-vntcia,  
Eta esportçu hartcera gombidatcen eria.

O arima diotsa bada, Cerucotz formatua,  
Eta lurrean çareïño niri gomendatua.

1330 Orainoco alfer dire erran eta eguiñac.  
Preçatcen ez baditutçu presenteco hitz fiñac.

---

1311. *uste: itxaro, espero*, alegia: ikus 829.

1312. *contua: hire falten contua* den sintagma erditik ebaki eta beste aditz sintagma sartu du artean.

1314. *ordean*: ikus 101.

1317. *creaturentçat: -rentçat* eta *-raco* eta *-(re)cotçat* elkarren ondoan.  
*ezta: ez eztea*: ikus 1237.

1318. *hirecotçat*: hots, hire alderakotzat, nahiz aurrean *-rako* soila esan duen.

1319. *enera*: hots, ene aldera, ondoko bertsoak erakusten digunez.

*guehiago...eme*: hori euskara arruntez beste modu batetara esan ohi dugu:*emeago*. Konparatiboa bitan banatu du.

1320. *ecen*: guk konparazioetan «...baino» esan ohi duguna; Etxeparek *ezi*; Tartasek *ezi ez*.

*Eta gero, nolatan duk uste salbamendua  
ikbusirik hire faltan zein handi den kontua?*

*Urriki diat nik ere egin nuen gaizkiaz,  
ez, ordean, probetxurik halako urrikiaz.*

*Bekhatu bat nuelarik xoilki egin zeruan,  
pairatzen diat bethiko dolorea putzuan.*

*Ezta, bada, Jongoikoa iustu kreaturentzat  
ene alderako bezain halaber hirekotzat?*

1320 *Are gehiago behar eztu eme enera  
ezen haragizko gizon feble hire aldera?*

*Ez naiz ni aingeru sendo, indar handitakoa,  
eta hi, dakien legez, emakume flakoa?*

*Nola, bada, salbatzeko hartzen duk fidantzia,  
hire faltan denaz geroz nonbrea hain handia?»*

#### Aingeruaren defenda.

*Aingeruak ixiltzen du Sathan gezur-untzia  
eta esportzu hartzera gonbidatzen eria:*

*«O arima», diotsa, bada, «zerukotz formatua  
eta lurrean zareino niri gomendatua!*

1330 *Orainoko alfer dire erran eta eginak,  
prezatzen ez badituztu presenteko hitz finak.*

---

*feble hire: hobeki ulertzeko sar ezazu haizen eta irakur: haragizko gizon  
feble haizen hire aldera. Dagoen dagoenean «haragizko gizon feble hi»  
sintagmaren genitivo soila da.*

1322. *daquien leguez: bika ari zaio deabrua arimari; hau hik dakian bezala da,  
beraz.*

1324. *denaz gueroz: gainerako hitzek osatzen duten izen sintagmaren erdian  
denaz gueroz sartu du.*

1327. *diotsa: hemen ere bi silaba ditu: dyotsa. Ikus 1299.  
cerucotz: hots, ceruracotz. Ikus behin baino gehiagotan bartaracotz: 11,77...  
eta 1317an aipatu atzizkiak; 3603, ceruco.*

1329. *alfer dire: arestian bezalaxe, gainerako hitzek osatzen duten izen sintag-  
maren erdian alfer dire txertatu du: ikus 1324.*

1330. *preçatcen: ikus, ordea, preciatu: 128.*

Sinhetz açu (ô Maitea) hec guztiac gueçurrac  
Cer ere erran baitarotçu, Sathan bihotz makhurrac.

Ecen egundaiñoz hunen handi da egartsua,  
Bekhatutan egotztea Guiristiño prestua.

Carcelean çarratceco luçatcen tu astiac  
Bat banaca pulumpatuz arima garastiac.

Bere probetchua gatic munduaren caltea,  
Billhatcen du trumpaturic, fermu ezten norbea.

1340 Sinhets açu bada vrriqui bekhatuez duena.  
Halaber Sacramenduez cerbitçatuco dena.

Errecibituco dela Ceruco erressuman,  
Mendea eramateco dohatsuen billduman.

çure gatic alltchatu cen gurutcera Messia,  
Eta etcen Sathan gatic lur gaiñera iautsia.

Haren baithan behar duçu esperantça segura,  
çure othoitçaz duela iduquiren ardura.

Behin, edo guehiago duçularic faltatu,  
Hutsac nahi darozquitçu orain ere barkhatu.

1350 Ea beraz ceure faltez har eçaçu damua,  
Ardiatsteco desira duçun barkhamendua.

---

1331. *sinbetz açu*: goian (106) bezala; baina laster aterako da *sinbets* idatzirik: 1339.

*gueçurrac*: adizkiaren elisioa; *direra* edo falta du.

1332. *cer ere*: erlativo gisa enplegatua; *guk esan dizun guztia* diogu: ikus 1145.  
*baitarotçu*: hots, *bait dizu*.

*ere erran*: bi *-e e-* horiek elisioa egin eta bakarra bailira ebaki behar dira.

1333. *egartsua*: aho hizkeran izen sintagma hori honela esan ohi da: *hunen egartsu handia*. Puntuak bortxatu du poeta hitzak trukatzera: ikus 1651.

1335. *luçatcentu*: bestetan bezala, *ditu* ordeztu: ikus 1269.

1336. *garastiac*: ikus 1283.

1338. *billhatcen du*: aurreko bertsoaren azken hitzen sintagmari dagokio adizki hau; zangalatrau dago, beraz.

*norbea*: ez dakar Lhandek; ez ote dago *norhabea*-ren ordeztu? Ikus *nerhabe*, 199. Ala *norbera*-ren?

*Sinhetsazu, o maitea, bek guztiak gezurrak,  
zer ere erran baitarotzu Sathan bibotz makhurrak,*

*ezen egundainoz hunen handi da egartsua  
bekhatutan egotztea guiristino prestua.*

*Karzelean zarratzeko luzatzen tu astiak,  
bat banaka pulunpatuz arima garastiak.*

*Bere probetxuagatik munduaren kaltea  
bilbatzen du, trunpaturik fermu ezten norbea.*

1340 *Sinhetsazu, bada, urriki bekhatuez duena,  
halaber sakramenduez zerbitzatuko dena,*

*errezibituko dela zeruko erresuman  
mendea eramateko dohatsuen bilduman.*

*Zure gatic altxatu zen gurutzera Mesia  
eta etzen Sathan gatic lur gainera iaustsia .*

*Haren baithan behar duzu esperantza segura,  
zure otboitzaz duela idukiren ardura.*

*Bebin edo gehiago duzularik faltatu,  
hutsak nabi darozkitzu orain ere barkbatu.*

1350 *Ea beraz, zeure faltez har ezazu damua,  
ardiatsteko desira duzun barkhamendua.*

1339. *sinhets açu*: lehen ez bezala, hemen *-ts* dugu: ikus 1331. Ez da, ene ustez, hutsa lehengoa, idazlearen nola idatz ezin asmatuaren zalantza baizik: ikus 9.

*bada urriqui*: lau silaba baizik ezin dezakete izan; *-a* eta *u-* diptongo bailira ahoskatu behar dira, beraz.

1341. *errecibituco dela*: hizkuntza erromanikoen gisako pasiva: ikus 879.

1342. *mendea*: hots, bizia edo bizialdia, Etxeparegan bezalaxe: ikus II,48.

1343. *alltchatu cen*: lehengoa (1341) bezalakoxea, pasivoa.

1344. *Sathan gatic*: ez *Sathanen*, aurreko bertsoan *zure gatic* dioen arren.

1346. *ardura*: *-z ardura eduki*: hemen gaztelaniazko «tener cuidado de» baino hobeki «tener en cuenta algo».

1347. *guehiago*: hots, gehiagotan.

1348. *darozquitçu*: euskara batuan *dizkizu*.

1349. *ea beraz*: ikus 87.

1350. *desira duçun*: edo *nabi duzun*; ez dio *desiratzen*, *desira* izena bait da: ikus 1417.

Arartecotçat eguiçu Virginia Ama Saindua,  
Bai San Ioseph, Iesus Christoc bere Aita deithua.

Guehiago San Miguel, Eliçaco Patroña,  
çure gatic eguiñen dut nic ere othoitz ona.

Cerura iragateco hauche da çurubia,  
Hunat beraz (ô Maitea) alltcha çaçu beguia.

Hauc eta are guehiago berce milla maneraz,  
Eritua attaquatcen du Sathanec coleraz.

1360 Hunelacoa ere da mintçatceco façoña,  
Ceñaz cerbitçatcen baita haren guardari ona.

*Aingueru eta Deabruaren gudu.*

Guero Aingueruac eta gaichto tentatçailleac.  
Bere artean dituzte guduac choill aspreac.

Ecen declaratu eta bere vorondatea,  
Elkhargana eracusten dute aihercundea.

*Deabruac erraten dioena Aingueruari.*

Sathan gaichtoac diotsa guero Aingueruari  
Arimaren faorerera grifñaz alltchatuari.

Hunen gaiñera hedatu vste uque escua?  
Ni saihetsean naüela choro Spiritua?

---

1351. *Virginia Ama*: elisioa egin eta lau silabaz ahoskatu behar da.

1353. *San Miguel*: lehen bertso erdi hau silaba batez laburregi da; badu horrelako gehiago ere. Hutsa ote?

1356. *hunat*: ez *hunerat*, lehen *huneraño* esan digun arren (1300); horrez gain lehen (1343) *gurutzer*a altxatu esan du, ez *gurutzerat*; hemen, oster, *hunat alltcha*.

1357. *eta are*: elisioa egin behar da: *etare* ebaki, alegia.

*hauc*: elipsi larria da hor, *hauc* ez bait zaio horko ezein hitzi zor. Encustez, *esanez* jan du poetak; hots, *hauc erranez eta ... berce milla maneraz*.

1358. *attaquatcendu*: honela idatzirik egon arren, *du* bigarren bertso erdiari dagokio.



*Arartekotzat egizu Birjina Ama Saindua,  
bai San Iosef, Iesus Kristok bere aita deithua,*

*gehiago San Migel, elizako patroina;  
zure gatik eginen dut nik ere othoitz ona.*

*Zerura iragateko hauxe da zurubia;  
hunat, beraz, o maitea, altxa zazu begia».*

*Hauk eta are gehiago berze mila manieraz  
eritua atakatzen du Sathanek koleraz.*

1360 *Hunelakoa ere da mintzatzeko fazoina,  
zeinaz zerbitzitzen baita haren guardari ona.*

Aingeru eta deabruaren gudua.

*Gero Aingeruak eta gaixto tentatzaileak  
bere artean dituzte guduak xoil aspreak,*

*ezen deklaratu eta bere borondatea  
elkbargana erakusten dute aiberkundera.*

Deabruak erraten dioena Aingeruari.

*Sathan gaixtoak diotsa gero aingeruari  
arimaren faborera grinaz altxatuari:*

*«Hunen gainera hedatu uste uke eskua  
ni saihetsean nauela, xoro espiritua?»*

---

1360. *ceñaz*: ikus 1164.

1361. *gaichto tentatçailleac*: hots, *tentatçaille gaichtoac*.

1363. *deklaratu eta*: hau ere gerundio gisakoa; hemen, ordea, *eta* lehen bertso erdian kokatua dago, lehen ez bezala: ikus 1293.  
*bere*: inoiz ez *beren*: ikus 55, 1362...

1365. *diotsa*: hemen, ostera, hiru silabatakoa: ikus 1327.

1367. *uque*: ikus 1276.

1368. *choro Spiritua*: berriz ere izen adjetivoak atzekoz aurrera. Hemen ere *Spiritua* aurrean *e-* duelarik ahoskatu behar da, behar adina silaba izango badu. Sintagma hau, dirudienez, deigarria da; aingerua deitzen du, dudarik gabe, horrela.

- 1370 Iauna baiño guehiago naïela cerbitçatu,  
Eztuc ascotan heronec eguiazqui frogatu?  
Iraungui eztitu hire inspirationeac,  
Eta eneac sinhetsi persuasioneac?  
Enea dela nahi duc orain bada dudatu,  
Lurreco ephe guztian naïenean ondratu?  
Ez naiz ni hunen possessor, eta iustu iabea,  
Cergatic bada alferric ematen duc nequea?  
Bicitcean ni naïenaz ohoratu gueroztic,  
Arraçoin duc enetçat den herioaz ondotic.

*Aingueruac ibardesten duena.*

- 1380 Aingueru Sainduac dio ibardesten borthizqui,  
Creatura guztien duc Iaincoa iabe choillqui.  
O gaichto eta trumpador, aihercundez bethea,  
Hunec Cerüan behar dic, hic lecean etchea.  
Azken hatsac diraeño, ciadutçac Iaincoac,  
Arimen recibitceco, çabalduric bessoac.  
Hunen ere gaiñean dic içanen pietate,  
Gaizquiez eguiten badu asqui dena nigarte.

*Deabruac.*

Sathan gaichtoac orduan hirria gora daidi,  
Eta arrola golkhotic atheratcen du goiti.

- 
1370. *eztuc*: bestetan bezala galderazko *-a* atzizkirik gabe. Berebat ondoko *eztitu*, *nabi duc* eta *ez naiz* horietan ere: ikus 1233.  
*heronec*: ikus 219.
1372. *eneac*: posesivoa izenarengandik erauziz gain, *ene persuasioneac* bait da sintagma, izenari bakarrari dagokion mugatzailea posesivoari ere erantsi egin dio. Ikus, ostera, aurreko bertsoan *hire inspirationeac*.
1374. *nauenean*: hots, nauelarik. Formaz baizik ez da denborazkoa.
1375. *iustu iabea*: bestetan bezala, izen adjetivoak atzekoz aurrera.
1376. *ematen*: ez *inori* eman neke, baizik guk *hartu* esango genukeena.
1377. *nauenaz*: honi tarte gabe *gueroztik* jarraitu behar litzaiokeelarik, *ohoratu* sartu du erdian, aurrean ipini orde. Erka ezazu lehengo (1374) *nauenean* harekin.

- 1370 *Iauna baiño gebiago naiüela zerbitzatu  
etzuk askotan heronek egiazki frogatu?*  
*Iraungi eztitu hire inspirazioneak  
eta eneak sinbetsi persuasioneak?*  
*Enea dela nahi duk, orain bada, dudatu,  
lurreko ephe guztian naiüenean ondratu?*  
*ez naiz ni hunen posesor eta iustu iabea?*  
*Zergatik, bada, alferrik ematen duk nekea?*  
*Bizitzean ni naiüenez ohoratu geroztik,  
arrazoin duk enetzat den herioaz ondotik».*

Aingeruak ihardesten duena.

- 1380 *Aingeru sainduak dio ihardesten borthizki:  
«Kreatura guztien duk Iainkoa iabe xoilki.  
O gaixto eta trunpador aiherkunder bezbea!  
hunek zerüan behar dik, hik lezean, etxea.  
Azken hatsak diraeuino, ziadutzak Iainkoak  
arimen rezibitzeko zabaldurik besoak.  
Hunen ere gainean dik izanen pietate,  
gaizkiez egiten hadu aski dena nigarte».*

Deabruak.

*Sathan gaixtoak orduan birria gora daidi  
eta arrola golkhotik atheratzen du goiti.*

- 
1378. *herioaz: -ren* ez onartzen bertsoak.  
1380. *Iaincoa iabe:* lehena sujetoa, bigarrena predikadoa. Hainbestez *iabe* eta *creatura guztien* izen sintagma bakarra dira. Ezin uka, halere, zatiketa horrek ez duela bertsoa batere iluntzen.  
1383. *ciadutzac:* gorago ikusi bezala, *dadutza* hitanoz esana: ikus 89.  
1384. *arimen:* guk *arimak* esango genukeena.  
1386. *asqui dena:* dirudienez, *aski den nigartea*-ren ordeaz dago. Izenari kendu eta adizkiari erantsi dio mugatzailea.  
1387. *daidi:* ikus 724. Etxeparek eta bezala; ez *daidike-dadike*, baizik *-ke* gabe.  
1388. *arrola:* Lhandek honela: *egin tuen butsen arrola Sathanek atheratzen du golkhotik:* «Satan tire de son sein la liste de fautes que le pécheur a faites»; ikus Hiztegia, *golkho*, or. 375.

1390 Bicitcean eguin tuen hutsac ditu condatcen,  
Chehe chehe daramatça bat ețçaiio ahantzten.

Eguin duen, eta eztuen erraten du guztia,  
Ecen gueçur errateco trebea du mihia.

*Aingueruac.*

Aingueruac ihardesten dio hitça eguiaz,  
Eguin deçala çucenqui, eta ez maleciatz.

Bekhatu hetaric haiñitz citçaiola barkatu,  
Apheçaren beharrian noiz baitcen confessatu.

Cembait ahantci baçaiio, confessatu gaberico,  
Iongoicoac barkhaturen diotçala bertarico.

*Deabruac.*

1400 Sathanec diotsa berriz, hambatetan faltatu  
Duela, cembat Cerüan baita içar landatu.

Guero falta hain handiac, eta hain itsussiac,  
Ceruraiño mendecu esque non baitaude guztiac.

Saluatceco, cer goiti den esparantça harentçat,  
Eguin duenaz gueroztic, etsai Iauna beretçat.

---

1389. *tuen*: hots, *dituen*: ikus 37,38 etab.

1391. *eta eztuen*: sinalefa egin behar da azken eta lehen vokaleen artean.

*guztia*: *eztuen guztia* da aho hizkeran hitz andana; bertso honetan punturako gorde du *guztia*, hitz andana urraturik.

1392. *gueçur*: ez *gezurraren*: ikus 1384.

1393. *hitza eguiaz*: bi hitzok, zentzuari bagagozkio, ondoko bertsoan dagoen *eguin deçala*-ren perpausari dagozkio: hots, egin dezala hitza egiaz, zuzenki. Zangalatrau daude, beraz.

1395. *barkatu*: ikus 1059. Baina hiru bertso beheerago *-b-* duelarik.

1396. *noiz baitcen*: hots, zenian: ikus 1053, 1310...

1397. *baçaiio*: *ahantzi* hemen eta lehen (1390) *nor-nori* gisa; ikus, ordea, 3704.

1398. *diotçala*: hots, dizkiola. Ez dio *darozkala* edo: ikus 46,65 etab. Beste *diotçan* (1256) hura desberdina da, noski.

1400. *duela*: partizipioa eta biak bertso banatan daude, zangalatrau.

1390 Bizitzean egin tuen *hutsak* ditu kondatzen,  
*xebe xebe daramatza, bat etzaio ahantzten.*

*Egin duen eta eztuen erraten du guztia,  
ezen gezur errateko trebea du mibia.*

#### Aingeruak.

*Aingeruak ihardesten dio, hitza egiaz  
egin dezala, zuzenki, eta ez maleziaz.*

*Bekhatu betarik hainitz zitzaiola bark(h)atu,  
aphezaren beharrian noiz baitzen konfesatu;*

*zenbait ahantzi bazaio konfesatu gaberik,  
Iongoikoak barkhaturen diotzala bertarik.*

#### Deabruak.

1400 *Sathanek diotsa, berriz, hanbatetan faltatu  
duela, zenbat zerüan baita izar landatu;*

*gero, falta hain handiak eta hain itsusiak  
zeruraino mendeku eske non baitaude guztiak;*

*salbatzeko zer goiti den esparantza harentzat,  
egin duenaz geroztik etsai Iauna beretzat.*

---

*hanbatetan...cembat:* korrelativo dira hemen. Horrezaz gain, *zenbat izar* da hitz andana, hemen bertsoaren eskema dela bide, elkarrengandik bereizirik badaude ere.

1401. *gucro:* hemen horrezaz gain edo *gainera* esan nahi du; ez da denborazkoa: ikus *guebiago*, 27.

1402. *mendecu esque:* lau silaba izango badituzte, *-u* vokalerditurik ahoskatu behar da: *mendekweske*; ikus 203.

*non:* mendeko perpausaren hasieran ipini ohi da konjuntzio hori hitz lauz idaztean, baina ikusi dugunez (1180) Etxeberrik inoiz adizkiaren atzean ere ipintzen du, ia beti bertsoaren bortxaz. Aurrean *hain* duelarik, konsekutiva da: ikus 841; 1028.

1403. *goiti den:* hots, gelditzen den, sobera den. *Esparantça* dio; beste inoiz ere bai.

1404. *beretçat:* hots, Iauna beretzat etsai egin du.

*Aingueruac.*

Aingueru Sainduac dio replicatcen eguia,  
Nahiz biz hala licela, erran duquen guztia,  
Escribüen borratceco nigar bat duc asquia,  
Ecen hain duc, Iaincoaren Mansotassun handia.

1410 Baiñan contrarioa duc Aita gueçurrarena,  
Hain hussua dela hunec eguin duen hobena.

Obra onac ere eguin tic, huna contu iustua,  
Ikhus eçac, asco aldiz Iauna cerbitçatua.

Eta guero aguertcen du liburu vrrezcoa,  
Obra onen non baitatça contu eguiazcoa.

*Eria hersten da.*

Hala diarducatela Spiritu Sendoec,  
Eria largatcen dute indar lehenecoec.

---

1406. *nahiz biz hala licela*: hiperkarakterizazioa dugu hemen. *Licela ere* irakurri dugu (1238) batetik; *biz* ere, beste gabe, aski litzateke, bestetik, hor esan nahi dena esateko. Ikus ere *on licela*, 52. Denak konzesivak dira.

*biz*: *izan* aditzaren inperativo trinkoa, bedi \**edin*-ena den bezala; *biz*, ordea, laguntzaile ez, baina bere eskuko denean bakarrik erabil dezaketete antzineko idazleek, hemen bezala. *Biz hala*, baina ez *izan biz hala*; *izan bedi*, baina ez *bedi* bakarrik. Ikus 156; 233.

*duquen*: hots, hik esan duan; *-k* galdu gabe, beraz.

1407. *asquia*: mugatzaileaz adjetivo bilakaturik.

1408. *mansotassun handia*: *mansotassuna... handi(a)* litzateke gramatikaren araber, *handi(a)* bakarrik bait da predikadua.

*duk* berriz ere *ezen* hitanoa daramalarik: ikus 1302.

1409. *contrarioa*: bertso hau ilunxko bada ere, ez da poeta hemen deabruaz, gezurraren aitaz, ari; Aita, hots Jainkoa, gezurraren contrarioa dela dio, mansotasun handikoa izan arren.

1410. *dela*: konzesiva itxura du hemen.

1411. *ere eguin*: bertso laurdenaren haraindik dago *ere*, enklitika izan arren: ikus 1162. Horrezaz gain, *-e* eta *e-* elisioa egin eta bakarra ahoskatu behar da.

Aingeruak.

*Aingeru sailduak dio replikatzen egia:*  
«*Nabiz biz hala lizela erran duken guztia,*  
*eskribüen borratzeko nigar bat duk askia,*  
*ezen hain duk Iainkoaren mansotasun handia,*  
*bainan kontrarioa duk Aita gezurrarena.*  
1410 *Hain usua dela hunek egin duen hobena,*  
*obra onak ere egin tik; huna kontu iustua;*  
*ikhus ezak asko aldiz Iauna zerbitzatua».*

*Eta gero agertzen du liburu urrezkoa,*  
*obra onen non baitatza kontu egiazkoa.*

Eria hersten da.

*Hala diardukatela Espiritu sendoek,*  
*eria largatzen dute indar lehenekoek.*

---

*tic*: hots, *ditic*, bestetan bezala. Ageri denez, aingerua deabruari, arimari ez bezala, *bika* ari zaio.

1412. *cerbitçatua*: gatzelaniazko kategoriez honek *izan dela* falta duela esango genuke, baina hemen latinez infinitivozko edo partizipiozko konpletivaz eman ohi direnen antzekoaren aurrean gaude. Ikus Etxepareren I,13 (hor partizipioa *vilcen* bada ere, ez lehena, *cerbitçatua* bezala) eta III,31; II,43 (biotan *entzun* bada ere aditz nagusia, ez *ikhus*); baita puntu honi buruz neure liburuan diodana: *Versificación de Dechepare...*, or. 198-208.
1414. *non baitatça*: esan bezala, *non* komunzki mendeko perpausaren hasieran doa prosan (1402). Etxeberri maiz bertsoak bortxatzen du bestetara. Hemen ez, ordea, lasai alda bait zitzakeen bi lehen bertso laurdenak eta honela esan: *Non baitatça, obra onen // contu egiazcoa*. Hartara, gainera, *obra onen contu* den sintagma osoagorik aterako zitzaiokeen.
1415. *diarducatela*: *iarduki* aditzaren orainaldi trinkoa.  
*Spiritu*: gehiagotan bezala, *e-* duelarik ebaki behar da.
1416. *indar lehenecoec*: edo lehengo indarrek, leheneko indarrek.

Haiñitcec desira luque aphaindu combateco,  
Eta fuiña luen erne gaitcei ihardesteco.

1420 Ordean gaitçac daroste podoreac flacatcen,  
Ceren causaz ez baitire hain vngui preparatcen.

Celatariac hartcen du hura maiz paradatçat,  
Lasterrago eritua eguiteco beretçat.

Bide hassian sartcen da ahal beçain barrena,  
Bai Aingueruac trauatcen ahalic guehiena.

Etsayaren eçagun da orduan malecia,  
Baita Aingueru onaren halaber çuhurtcia.

*Atçartcen dire Spirituac.*

Azken fiñac khoroatu ohi du bethi lana,  
Cer moldez partituren den daude arima gana.

1430 Biac erne, biac hurbill, bieç diote erraten,  
Hañitz gauça, ea nola bere eguin deçaten.

- 
1417. *desira luque*: honen konpletiba bitara dator bi bertsotan barrena: batetik *aphaindu*; bestetik *luen*. Honek lehenaren arabera *izan* behar luke, ez *uken* edo antzekorik. Azken honen kiderik ez darabil Etxeberrik.  
*combateco*: guk *-rako* esango bagenuke ere, garai hartan genitiboa eta destinatiboa ez ziren nahitaez bereizten: ikus 898; 735.
1418. *fuina*: hots, buru muina. Gehiagotan ere ageri da hitz hau obran barrena.  
Ikus 40 eta han *fiñean* dela eta esana.  
*luen*: perpaus nagusiko *luque*-ri hala dagokio. Ikus beste gehiagoren artean Etxepareren antzeko hau: *Oray oro nabi nuque liren Ieyncoagatic* (II,81). Baina beste *luen* hura (49) ez dago mendeko perpaus agerian, hau dagoen bezala, formaz bat badira ere.
1419. *daroste*: euskara batuan *dizkie*, *gaitçac* singularra bait da. *Darozte* transkribatu behar da, ene ustez: ikus 1052.
1420. *ceren causaz*: hemen *ceren* erlatiboa da, ez konjuntzioa, nahiz hau ere azken batetan erlatibo izan. Gaztelaniaz «por causa de lo cual» edo. Ikus Etxepareren *ceren gatic* (IX,10) oso bestelakoa, balioz bederen: finala; horregatik du hark *-en*, honek *bait*-. Ikus ere Etxeberri beraren 660.
1421. *paradatçat*: hots, egokieratzat edo. Bestela esan: *parada bura hartzen du egiteko*... Ikus 1056.



- Hainitzek desira luke aphaindu konbateko  
eta fuina luen erne gaitzei ihardesteko,  
1420 ordean gaitzak darozte podoreak flakutzen,  
zeren kausaz ez baitire hain ungi preparatzen.
- Zelatariak hartzen du hura maiz paradatzat  
lasterrago eritua egiteko beretzat.
- Bide hasian sartzen da abal bezain barrena,  
bai aingeruak trabatzen abalik gehiena.
- Etsaiaren ezagun da orduan malezia,  
baita aingeru onaren halaber zuburtzia.

Atzartzen dire Spirituak.

- Azken finak khoroaatu obi du bethi lana;  
zer moldez partituren den, daude arima gana:
- 1430 biak erne, biak hurbil, biek diote erraten  
hanitz gauza, ea nola bere egin dezaten.

- 
1422. *beretzat*: lehen bitan ikusi dugun *bere egin* hemen *beretzat egin* dio:  
ikus 1298.
1424. *trauatcen*: laguntzailea esan gabe, isilik utzirik dago. Hori gainera aurreko  
perpau kopulativak, adizkia iragangaitza duelarik, *da* duen arren, ez  
*du*, honi legokiokeen bezala. Hau Etxeparegan ere maiz gertatzen da.
1425. *etsayaren*: genitivo honek bere determinantea bertsoaren beste muturrean  
du: *malecia*.
1427. *khoroaatu*: ez koroatzen *obi*; bietara darabil Etxeberrik: ikus 9, *obratcen*.
1428. *daude arima gana*: hots, *erne* edo; baina ez dago zer esanik. Ikus Etxe-  
pareren II,59: *bagaude bargana*. Gainera ondoko bertsoan dago esana:  
*erne, hurbil*.
1429. *diote erraten*: bi modutara irakur daitezke hitzok bost silabatara bihur-  
tzeko: *diote* bi silabaz, *-i-* vokalerdi eginik, *dyote*, eta horrenbestez ez  
da gero elisio beharrik; edota *diote* hiru silabaz, horren ordez *-e* ta  
*e-*ren artean elisioa egin.
1430. *hanitz gauça*: aurreko bertsoaren buruan dagoen adizkiagandik bereizirik  
eta hainbestez zangalatrau.  
*bere equin*: ez *beretzat*, lehen bezala; gehiagotan ere bai: 1422.

Bizquitartean flacatcen dire indar harenac,  
Señaleac ere aguertcen hilltcera prestarenac.

Guehiago trauailatcen dire Spirituac,  
Eta dadutçate erne gogo adimenduac.

Pensamendu bethetcen du onez beguirailleac,  
Eta berriz gogoeta gaichtoz tentatçailleac.

Hunen gaiñean hurbilltcen dire guero flaqueçac,  
Eta vngui hilltcera du exhortatcen Apheçac.

1440 Berriz idequitcen ditu begui indar gabeac,  
Suspirac ere doblatcen, hussutcen hats hartceac.

Egundaiño ez beçala penatcen da bakhotchac,  
Ceñec bere eguin nahiz eriaeren bihotça.

*Sententia ematen da.*

Iaunac orduan ematen du Arrasta çucena,  
Eçagutça galtceraco pontuan da orena.

Handic hara guehiago ezta batre bideric  
Arimari remedio nihoiz eguitecoric.

- 
1431. *indar harenac*: hots, haren indarrak.
1432. *ere aguertcen*: sinalefa egin behar da.  
*prestarenac*: hots, prest dagoenarenak, hiltzera prest dagoenaren seinaleak.
1433. *Spirituac*: lehen eta gero gehiagotan bezala, *e-* duela ebaki behar.
1435. *pensamendu*: ez du esan nahi poetak pensamendua gauza onez betetzen diola; *pensamendu* eta *onez* sintagma bakarra dira, hots, *pensamendu* onez bete. Ikus nola urratu duen sintagma. Hori horrela dela sinesteko, aski da ondoko bertsoa irakurtzea: *gogoeta gaichtoz* dio.  
*bethetcen*: ez Axularrek eta bestek bezala *betutzen*; hau zen, ez *bethe-tzen*, euskara zaharrez *bethe* partizipioaren aditz izena, *erre-rena erra-tzen* bezalaxe.
1436. *berriz*: hots, aldiz, ostera. Adversativa da hemen.
1437. *hunen gaiñean*: esanez gain, alegia; ez du esan nahi hari hurbiltzen zaizkionik; hori balitz, *gainera* beharko luke.
1439. *berriz*: hemen, aldiz, *beste behin* esan nahi du. Izan al zitekeen gainera, hemen adversativa, bertsoaren hastean dagoelarik? Enklitika denez,

*Bizkitartean flakutzen dire indar harenak,  
seinaleak ere agertzen hiltzera prestarenak.*

*Gehiago trabailatzen dire Espirituak  
eta dadutzate erne gogo adimenduak.*

*Pensamendu bethetzen du onez begiraileak  
eta, berriz, gogoeta gaixtoz tentatzaileak.*

*Hunen gainean hurbiltzen dire gero flakezak  
eta ungi hiltzera du exortatzen aphezak.*

1440 *Berriz idekitzen ditu begi indar gabeak,  
spirak ere doblatzen, husutzen hats hartzeak.*

*Egundaino ez bezala penatzen da bakhotxa,  
zeinek bere egin nabiz eriaren bihotza.*

Sentenzia ematen da.

*Iaunak orduan ematen du arrasta zuzena;  
ezagutza galtzerako pontuan da orena.*

*Handik hara gehiago ezta batre biderik  
arimari remedio nihoiz egitekorik,*

---

adversativa denean beste hitz baten gainean etzan behar du; hiru bertso gorago *eta*-renean datza.

1440. *doblatzen*: honek eta ondoko *hussutcen*-ek laguntzailea esan gabe dute, aurreko bertsoaren *ditu* berbera delarik.
1441. *penatzen da*: lehen ere atera da zentzu honetan: ez du esan nahi *pairatu*, baizik *abalegindu*: ikus 1219.
1442. *bere equin*: ikus 1430.
1443. *arrasta*: ikus 1169.
1444. *ezagutça*: ideia hau berau esan digu lehen ere (1192) eta hark irakasten digunez *galtceraco* hau genitivo ordezt dago: han, alegia, *galtcearen pontua* eta hemen *galtzeko pontua* esan nahi du. Ikus ere 1196.
1445. *handic hara*: baina *han hara* ere esaten badaki: ikus 1218.  
*gehiago*: hots, aurrera, iadanik: ikus, ordea, 1347.  
*batre*: Etxeparek ere bai behin (XIII,68), *batere* esan ordezt. Ikus, aldiz, *baterere*: 685.
1446. *bideric... eguitecoric*: hots, ezta arimari remedio inoiz egiteko batere biderik.

Baiñan certan galtcen baitu arimac eçagutça,  
Edo gratian, edo hiran, han behar du egoitça.

*Eria hilltcen da.*

1450. Ohecoa dago guero penaz eldarnioan,  
Lehen beçala solassic eztuela ahoan.  
Beguiac itçultcen ditu, miambroac higitcen,  
Bai hatsa laburtcen, eta sentimendua galtcen.  
Azken hatsarequien du arthiquitcen arima,  
Ceihar gorputça erortcen da, hau da guiçonen fiña.

*Declaratcen da sententia.*

- Spirituec arima nahi dute beretçat,  
Aingueru onac beretçat, bai gaichtoac beretçat.  
Aingueru beguirailleac obra iustuen gatic,  
Ceren gaizqui gobernatu den Sathanec hargatic.  
1460. Iongoicoac declaratcen daroe sententia,  
Eçagutça galtceraco menean egotcia.  
Ecen nola presidentac conseilleren artean,  
Eman duen ordenantça ohoiñaren gañean,

- 
1447. *certan*: erlativo gisa enplegatua eta korrelatiboa ondoko bertsoaren *han* duelarik, Etxeparek *zertan... hartan...* bezalatsu: ikus XIII,88-89. *Certan* horren aposizio dira *gratian* eta *hiran*.
1448. *gratian*: bi silaba baizik ez zaio zor eta *grazyan* ebaki behar da.
1449. *obecoa*: eria, noski.  
*eldarnioan*: hala behar du, liburuak *eldariuoan* badio ere; hala dakar Lhandek. Hots, amets gaixtotan eta, ondoko bertsoak dioenez, solasik egiteko gauza ez delarik.
1450. *eztuela*: hots, ez duelarik.
1453. *batsarequien*: bertsoa osatzeko silaba bat falta duenean, komitativo delako atzizikia *-kien* egiten du; baita, genitiboa ere: ikus 394; 628.
1454. *ceihar*: hots, zehar.  
*gorputça*: honen azken vokalea eta ondoko hitzaren lehena batean urtu behar dira, sinalefa eginez.
1455. *spirituec*: beti bezala, *e-* aurrean duelarik ebaki: ikus 1211.

*bainan zertan galtzen baitu arimak ezagutza  
edo grazian edo hiran, han behar du egoitza.*

Eria hiltzen da.

1450 *Ohekoa dago gero penaz eldarnioan,  
lehen bezala solasik eztuela ahoan.*

*Begiak itzultzen ditu, mianbroak higitzen,  
bai hatsa laburtzen eta sentimendua galtzen.*

*Azken hatsarekien du arthikitzen arima,  
zeibar gorputza erortzen da; hau da gizonen fina.*

Deklaratzen da sententzia.

*Espirituek arima nahi dute beretzat,  
aingeru onak beretzat, bai gaixtoak beretzat:*

*aingeru begiraileak obra iustuen gatik;  
zeren gaizki gobernatu den, Sathanek bargatik.*

1460 *Iongoikoak deklaratzten daroe sententzia,  
ezagutza galtzerako menean egotzia;*

*ezen nola presidentak konseileren artean  
eman duen ordenantza oboinaren gainean*

---

*beretzat*: bi bertsoen puntuan hitz bera dugu: poto? Ohar, ordea, lehena pluralari dagokiola, *berentzat* balio bezala; bigarrena singularrari.

1456. *bai*: oso maiz *baita* edo *baita ere*-ren ordezkua da, *ez ere ezta* edo *ezta ere*-rena den bezalaxe. *Bai* balio honezaz Etxeparek eta gainerakoek baino maizago darabil; *ez ostera*, antzineko idazle guztiek darabilte horrela: ikus 512; 1082.

1458. *ceren*: honen adizkiak inoiz *bait* hartzen du, inoiz *-en*, Axularrengan bezalaxe; arrazoi zehatza kasu guztiak esplikatzeo aurkitzen aski zaila da.

1460. *galceraco menean*: hemen ere argi dago *galceraco* hori *galtzeko* ordez dagoela: ikus 1444.

*menean*: hots, mementuan: ikus 1166.

1461. *nola*: honen hasten duen perpaus mendekoa protasia da eta apodosia bost bertso beherago dago: «*Halaber du...*». *Nola* hemen konparativa da, beraz.

*conseileren*: hitzaren erroa *konseiler-* da, beraz.

Declararacitcen baitu berriz ere ondoan,  
Burreu penatçailleari escuratceracoan,  
Halaber du declaratcen Iongoicoac berea,  
Gorputcetic illkhiz guero spiritu tristea.  
Hartan guero haucilari guelditcen da bakhotch  
Edo Ainguerua dela edo Sathan borthitça.

- 1470 Bicitcearen finean cer ere sententia  
Eman baituque Iaincoac ona edo larria,  
Hura bera emanen du azkeneko cortetan,  
Ceña baitaiteque hunen confirmationetan.  
Arimac ditu orduan eguietan frogatcen  
Gorputcean cegoela cer entçun baitcituen.  
Condemnatu baldin bada seculaco gathera  
Beguiac itçultcen ditu Aingueruen aldera.  
Ordean iragan çαιο othoizteco orena  
Ecen galdu behar etcen muga obra onarena.

*Arrastaren fiña.*

- 1480 Iongoico handiac bada nola iustu Iugeac  
Sentencia ematen du aitçaquia gabeac.  
Fin gabeco eztirara doan tormentatcera  
Edo Purgatoriora cikhiñen chahutcera  
Edo ezperen dastatcera placer eta goçoac.  
Prestuentçat aphainduric dauden seculacoac.

- 
1463. *deklararacitcen*: ez *deklararazten* eta hori Etxeberrik ez ezen, antzineko idazle askok, Etxeparegandik hasita: «imprimi eraci diçaçun», dio hitzaurrean; ikus 777; 361; 360...
1464. *escuratceracoan*: oso osorik, guk esaten dugun bezalaxe.
1466. *spiritu tristea*: ez *triste spiritua*: ikus, halere, 1512.
1467. *haucilari*: *b-* duelarik, Etxeparek *auciric* badio ere: IX,10.
1469. *cer ere*: erlativo gisa, bestetan ikusia (1332). Horren korrelativa geroago dator: «hura bera...». Erlativo gisako horren adizkiak *bait-* du nahitaez.
1472. *ceña*: ikus 692.
1474. *cer entçun baitcituen*: guk *entzun zituenak* esan ohi duguna: ikus 1332.

*deklararazitzen baitu berriz ere ondoan  
burreu penatzaileari eskuratzekoan,  
halaber du deklaritzen Iongoikoak berea,  
gorputzetik ilkhiz gero espiritu tristea.  
Hartan gero hauzilari gelditzen da bakhotxa  
edo aingerua dela edo Sathan borthitza.*

- 1470 *Bizitzearen finean zer ere sententzia  
eman baituke Iainkoak ona edo larria,  
hura bera emanen du azkeneko kortetan,  
zeina baitaiteke hunen konfirmazionetan.  
Arimak ditu orduan egietan frogatzen  
gorputzean zegoela zer entzun baitzituen.  
Kondemnatu baldin bada sekulako gathera,  
begiak itzultzen ditu aingeruen aldera;  
ordean iragan zaio othoizteko orena,  
ezen galdu behar etzen muga obra onarena.*

Arrastaren fina.

- 1480 *Iongoiko handiak, bada, nola iustu iujeak  
sententzia ematen tu aitzakia gabeak:  
fin gabeko estirara doan tormentatzera  
edo purgatoriora zikhinen xabutzera  
edo ezperen dastatzera plazer edo gozoak,  
prestuentzat aphaindurik dauden sekulakoak.*

- 
1478. *muga obra*: sinalefa egin behar da azken eta lehen vokale horien artean. *obra onarena*: izen sintagma trukatur dago: *obra onaren muga* esan nahi du poetak.
1479. *nola*: konparaburuaren aurrean ezarria: ikus 126.
1480. *tu*: bestetan bezala, *ditu* apokope duelarik, ene ustez, xerokopiak *du* dioen arren. *Sententia*, halaz ere, ez *sententiac*, izen sintagma osoa *sententia aitçaquia gabeac* bait da eta, hemen bezala erditic ebakitzean, izena (*sententia*) pluraleko markarik gabe gelditzen bait da.
1481. *estirara*: hots, nekera, oinazera: ikus -s- duelarik, 2437.
1483. *ezperen*: hots, bestela; *ez bederen* du, agian, etimoa: ikus 1274.  
*edo ezperen*: -o vokalerdi bailitza ahoskatu eta *edwezperen* ebaki behar da.
1484. *aphainduric*: ikus zentzu berean *Etxepareren* I,279; *prest*, alegia.

- Heriozco bekhatuan baldin bada partitu,  
 Oiñhaceen soffritcera behar du aviatu.
- Baldin huts lohienetic badoa chahutua  
 Eta pena temporala ez badu pagatua,
- 1490 Barkhatu ere ez baçαιο pena venialena  
 Baiñan ossoa guelditu quitatceco çuena,  
 Purgatorian soffritu behar du min handia  
 Eta pairatu gabe ezta illkhiren den guztia.  
 Ecen hartçaz, Guiristino, ahal aite segura,  
 Falten cutsuequin nihor eztoala Cerura.

*Arrastaren executionea.*

- Arima seculacotçat condemnatu gachoac  
 Ifernura herrestatcen ditu Sathan sendoac.
- Baldin purgatceco sua behar badu sentitu,  
 Aingueruac hitz ederraz nahi du consolatu.
- 1500 Hareraiño laguntcen du leial beguirailleac  
 Eta han ere ikhusten maiz arduraz betheac.
- Arrasta emana bada doan Ceruetara  
 Bozcarioz Aingueruec daramate gorara.

---

1485. *beriozco*: mortala, alegia.

1487. *lobienetic*: hemen *lobi-* adjetivo da; superlativo izan arren, ez dio *butsik*:  
 ikus 533. Etxeberrigan *lobi-* izena da maiz eta *gorputza* esan nahi  
 du: ikus 455; 367.

1489. *barkhatu ere*: *barkhatwere* ebaki behar da, lau silaba izan ditzan.  
*pena venialena*: hots, (bekatu) venialen pena, hitzak atzekoz aurrera ipi-  
 nirik.

1491. *purgatorian*: liburuan barrena ia beti *purgatorio-* dio, baina azken *-o* gabe  
 ere bai bertsoak hala agintzen dionean: ikus 3119. Beharrik gabe berez,  
 gainera, *purgatorio-* idatzirik ere, *-i-* beti vokalerdi gisa ahoska bait  
 zitekeen; baina Etxeberrri oso doia da honelako fonetika aldakuntzak  
 egiten; ikus 96an esana.

1492. *gabe ezta*: elisioa behar da.  
*den guztia*: ezein gizon, alegia.

*hartçaz*: kataforikoa, ondoko bertsoan dioena aurretik iragartzen bait du.



*Heriozko bekhatuan baldin bada partitu,  
oinhazeen sofritzera behar du abiatu.*

*Baldin huts lobienetik badoa xabutua  
eta pena tenporala ez badu pagatua,*

1490 *barkhatu ere ez bazaio pena benialena,  
bainan osoa gelditu kitatzeko zuena,*

*purgatorian sofritu behar du min handia  
eta pairatu gabe ezta ilkhiren den guztia;*

*ezen hartzaz, giristino, abal aite segura,  
falten kutsuekin nihor eztoala zerura.*

#### Arrastaren exekuzioea.

*Arima sekulakotzat kondemnatu gaxoak  
ifernura herrestatzen ditu Sathan sendoak.*

*Baldin purgatzeko sua behar badu sentitu,  
aingeruak hitz ederraz nahi du konsolatu.*

1500 *Hareraino laguntzen du leial begiraileak  
eta han ere ikhusten maiz arduraz betheak.*

*Arrasta emana bada doan zeruetara,  
bozkarioz aingeruek daramate gorara;*

- 
1494. *cutsuequin*: hemen ez zuen silaba bat gehiago behar eta *-kin* dio: ikus 1453.
1495. *arima*: oso oker ez banago, iparraldeko euskaldunek hori komunzki honela esan ohi dute: *seculacotzat condemnatu arima gachoac*, guk *kondenatutako* esan ohi dugunaren lekuan. Baina ikus nola nahasi dituen hitzak poetak: izen nagusia, *arima*, aurretik ipini eta gero gainerakoak erantsi. Ohar, gainera, plurala dela: ikus 1480.
1496. *herrestatcen*: herrestan edo arrastaka eramaten.
1499. *hareraino*: ikus honen antzekoa: 1193.  
*leial beguirailleac*: alegia, begiraile leialak, izen adjetivoak berriz ere trukaturik.
1500. *arduraz betheac*: hau begirailea, hots, aingeru ona da, ez *arimac* (1495),
1501. *doan*: finala da hemen balioz.
1502. *gorara*: silaba bat gehiago behar eta *-ra* bi bider ipini du.

Cantu ederrez bethecten dire urdin Ceruac  
Eta paguric illkhitcen bidera dohatsuac.

Agur eguiten diote usatu cortesiaz,  
Ceren etsaia ventçutu duen fin on biciaz.

*Akhatcea.*

Asco Sainduc ikhussi tu erran tugun guztiac  
Iaunac hala idequiric gure gatic beguiac.

1510 Hequin eguiazco hitcez orhoituric gueurean  
Iuiamendu hunez griña guinduen bihotcean,

Hunec probetcha guintecen azken demboretaco  
Principalqui arimaren triste partiadaco.

Ea beraz orhoit adi hunec Guiristinoa  
Eta bethi solas hautan erabillac gogoa,

Obra onez presta adin iuiamendu latcera  
eta ahalaz essaia huts gabe aurkhitcera.

*Othoitça.*

Iongoicoa, çuc ekhartçu halacoa orena  
Ceña ene bicitceac behar baitu azquena,

- 
1503. *bethecten*: ikus lehen esana, 1435.  
*urdin ceruac*: bona berriz ere, *ceru urdinac* behar lukeena.
1504. *paguric*: hots, alairik, pozik.
1505. *usatu cortesiaz*: atera da lehen ere: ikus 1230.
1506. *ceren*: lehen bezala, adizkiak *-en* duelarik: 1458.  
*ventçutu*: Etxeparek *venci*: I,73.  
*fin on biciaz*: hots, azken ona izanez.
1507. *tu*: ikus 1480 eta bertso berean *tugun*: biak *di-* gabe.
1508. *idequeric*: hala dio, baina *idequiric* behar du.
1509. *bequin*: genitiboa hemen ere: ikus 23.  
*gueurean*: *geure bibotzean* da sintagma eta, halere, bi zati egin eta bi bertsoan barreiatu ditu, posesivoari ere *-an* atzizkia erantsirik puntua izatearren.
1510. *guinduen*: ondoko bertsoan irakurtzen den *guintecen*-ek ongi erakusten duenez, *guinduen* hori subjuntivo gisakoa da; balioz, noski, ez formaz; finala, hain zuzen: hots, *izan genezan*.

*kantu ederrez bethetzen dire urdin zeruak  
eta pagurik ilkhitzen bidera dohatsuak.*

*Agur egiten diote usatu kortesiaz,  
zeren etsaia bentzutu duen fin on biziaz.*

#### Akhatzea.

*Asko sailduak ikhusi tu erran tugun guztiak  
Iaunak hala idekirik gure gatik begiak,*

1510 *hekin egiazko hitzez orhoiturik, geurean  
iuiamendu hunez grina ginduen bihotzean,*

*hunez probetxa gintezen azken denboretako,  
prinzipalki arimaren triste partiadako.*

*Ea beraz, orhoit adi hunez, girstinoa,  
eta bethi solas hautan erabilak gogo,*

*obra onez presta adin iuiamendu latzera  
eta abalaz esaia huts gabe aurkhitzera.*

#### Othoitza.

*Iongoikoa, zuk ekhartzu halakoa orena  
zeina ene bizitzeak behar baitu azkena,*

- 
1511. *hunez*: ez da plurala; ikus aurreko bertsoa; *huneçaz* ere esan ohi du: ikus 987.  
*demboretaco*: *denboretarako* bezala: ikus 1417 eta, oster, 1460.
1512. *partiadaco*: hau ere *-ra* gabe.  
*triste*: izenaren aurrean ezarri du, *partiada tristerako* esan beharrean. Lehenxeago ez du hala egin: 1466.
1513. *ea beraz*: ikus 1349. Oihenartek *eia bada* dio: II,67.  
*hunez*: ikus 1511.
1516. *abalaz*: hots, eginahalean.  
*essaia*: laguntzailea falta badu ere, aurreko bertsoaren bera du: *adin*.
1517. *halacoa orena*: mugatzailea bi aldiz esana, silabak osatzeko. Baina horrez gain, ondoko bertsoaren azken buruko *azquena* ere, ene ustez, sintagma berekoa da: *halako oren azkena* esan nahi bide du poetak, edo, berdin dena, *halako azken orena*.
1518. *halacoa... ceña... baitu*: hots, ene bizitzeak behar duen bezalakoa. Hemen, antzineko idazleengan gehiagotan bezala, konparaziozko euskal adverbio soila bitan erdibitua dago. Bestetan ere mintzatu gara horrezaz: ikus

- 1520 Non guertha dadin enetçat eme iuiamendua  
Bereciqui eman behar darotaçun iustua.
- Arren favora çaqueçu hersturan dabillquena  
Eta eritassun berac nahassico duena.
- Ecen hurbill içanen dut etsai herraz bethea,  
Bere bazca eguin nahiz ene arima tristea.
- Aldi hura huts badagui dembora ondocotan  
Ene billha ecin ibill daite nihoizecotan.
- Nondic erbalena naicen iadanic du ikhassi  
Eta trumpatceco arte guztien da naussi.
- 1530 Heda dieçaquedaçu beraz othoi escuiña  
Ene ganic ihessitan doan etsai higuina.
- Neure azquen hats hartcea hala dudan baquezqui  
çure Maiestatearen ikhusteco claroqui.

---

26,82... Honako honetan *bezalako* esan daitekeena beste hitzoz dago adierazia: *halacoa* + *ceña*: «talem... quem...», edo *qualem*; eta adizkiak *bait*-.

1519. *non*: erlativo gisakoa; *orena* du bere aurreko izen edo antezedente delakoa; *-en*, ez *bait*- duelarik adizkiak. Baina zergatik ez du esan: *Non enetçat / guertha dadin // ...*, 4/4 eskema hobeki gorderik? Ez jakin!  
*eme*: *guertha dadin* adizkiaren predikado dela esan daiteke hemen, edo bestela *iuiamendu emea* behar luke sintagmak. Lehenak dirudi, halere, egia.
1520. *iustua*: *eme* hala bada ere, hor beste sintagma bat *iuiamendu iustua* da eta ikus, halere, nola dagoen printzatua. Pasarte honek hau esan nahi du, agian: «Iainkoa, ekarzu ene bizitzeak behar duen bezalako azken orena, non gerta dakidan eme, bereziki eman behar didazun iuiamendu iustua».
1521. *çaqueçu*: geroaldiko inperativoa. Latinak baditu honelakoak; euskara zaharrak ere bai; *-ke-* txertatu eta sortu da, nolazpait esateko, *zazu* formarengandik. Horrelako mordoxka darabil Etxeberrik: ikus 173; 904.  
*dabillquena*: hau ere, jakina, geroaldiari dagokio, aldiak batera joan daitezten. Ikus ondoko bertsoan: *nabassico duena*.

1520 *non gertha dadin enetzat eme iuiamendua,  
bereziki eman behar darotazun iustua.*

*Arren, fabora zakezu hersturan dabilkena  
eta eritasun berak nahasiko duena,*

*ezen hurbil izanen dut etsai herraz bethea  
bere bazka egin nabiz ene arima tristea.*

*Aldi hura huts badagi, denbora ondokotan  
ene bilha ezin ibil daite nihoizekotan.*

*Nondik erbalena naizen iadanik du ikhasi  
eta trunpatzeko arte guztien da nausi.*

1530 *Heda diezakedazu, beraz, othoi, eskuina  
ene ganik ihesitan doan etsai biguina,*

*neure azken hats hartzea hala dudan bakezki,  
zure maiestatearen ikhusteko klaroki.*

---

1523. *izanen*: ez ukenen; hau inoiz ez darabil Etxeberrik: ikus 72; 97; 1264.

1524. *ene arima*: silaba bat gutxiagoz, *en'arima*, ebaki behar da.  
*arima tristea*: eta ez *triste arima*; bertsoaren eta batez ere puntuaren arabera darabil bata nahiz bestea: ikus 1512.

1525. *badagui*: *egin* aditzaren forma sintetikoa. Ohar *huts egin*-ek hemen objektoa expreski esana duela: *aldi hura huts egin*, alegia.

1526. *nihoizecotan*: hots, nihoizko denboretan.

1527. *erbalena*: ikus 264; hots, argala, erkina: ikus Axular 31,124 eta 374.

1528. *naussi*: *da* artean sartu du, baina *arte guztien naussi* da berez hitz andana.  
*Naussi* hiru silabatakoa da beti Etxeberrigan, beti horrelaxe idazten badu ere; -g- gabe, alegia.

1529. *dieçaqueadaçu*: ez du *ahal dezaqueela* esan nahi; inperativoa da, geroaldikoa, arestian (1521) esan bezala. Horrez gain, eta hau ere esan dugu, *d-* du hasieran: ikus 940. Bertsoak bere baitan duen *othoi* hitzak ere garbi adierazten du inperativoa dela.

1530. *doan*: indikatibo izanik formaz, *-en* atzizkiak subjuntivo edo bihurtzen du; hemen finala da: ikus 1501.

1531. *dudan*: hau ere bai, aurrekoa bezalakoxea.

### BVRV III.

#### *Iujamendu generalaz.*

- Iujamendu particularaz hainbercez naiz mintçatu  
Dudan ea orain aldiz generala aiphatu  
Emeenac hitça darot faltatu, Iongoicoa,  
Garratcenaz nola orhoit daite ene gogoa  
Hartaracotz Iuge iustu munduratu beharra  
Contatceco hanteçaçu arren ene bulharra  
Nihon hats bahitu gabe Iujamendu larrria  
1540 Aipha deçadan chehero çuc emanic gratia

#### *Cer den.*

- Iujamendu handiena uqui dugun beçala  
Emanen çaicun guztiei da Arrast generala  
Nolacoa baituquegu sententia hilltcean  
Hura bera entçunen dugu munduaren fiñean  
Beraz orain danic aphain gaiten Corte handira  
Eta nihor eztagoen azqueneco beguira  
Oren oro arras dugu erortceco perilla  
Iuiamendu berecia hartaracotz hurbilla  
Hau daguien guiristiñoac behin fauorezcoa  
1550 Fauorezcoa nahi badu mundu fiñatcecoa.

#### *Iugeaz.*

Iesus içanen dugula segur gare Iugea  
Guiçon delarican bakhoitz Iaincoaren Semea

- 
1533. *particularaz*: ikus 1153; han bezala, hemen ere silaba bat gehiago du bertso honek.  
1534. *dudan... aiphatu*: ikus 233 eta 282; *aiphatu*, beraz, hango (235) *laudatu* hura bezalaxe, partizipio baino gehiago adjetibo da; ez dio, izan ere, *deçadan*: ikus, ostera, 348.  
1535. *darot faltatu*: iragankor da hemen, are aktivo, ia *faltarazi* balio bezalakoa: inork inori ezer faltatu, alegia.  
1538. *hanteçaçu*: hots, handi ezazu: ikus 771, *çaurthua*.  
1539. *bats bahitu*: hots, arnasea ahitu, gutxitu: ikus 2396.  
1540. *aipha deçadan*: erka ezazu lehengo beste harekin: 1534.  
1541. *uqui*: ez dio *ukitu*, baina iragankorra da: ikus 910.  
1542. *emanen*: irakur honela: ...*da guztiei emanen çaicun arrast generala*.

### BURU III.

Iuiamendu jeneralaz.

- Iuiamendu partikularaz hainberrez naiz mintzatu;*  
*Dudan, ea, orain aldiz jenerala aiphatu.*  
*Emeenak hitza darot faltatu, Iongoikoa;*  
*garratzenaz nola orboit daite ene gogoa?*  
*Hartarakotz, Iuje iustu munduratu beharra,*  
*kantatzeko hantezazu, arren, ene bulharra,*  
*nihon hats habitu gabe iuiamendu larria*  
1540 *aipha dezadan xehero, zuk emanik grazia.*

Zer den.

- Iuiamendu handiena, uki dugun bezala,*  
*emanen zaikun guztiei da arrast jenerala.*  
*Nolakoa baitukegu sentenzia hiltzean,*  
*hura bera entzunen dugu munduaren finean.*  
*Beraz, oraindik aphin gaiten korte handira*  
*eta nihor eztagoen azkeneko begira.*  
*Oren oro arras dugu erortzeko perila,*  
*iuiamendu berezia hartarakotz hurbila.*  
*Hau dagien giristinoak behin faborezkoa,*  
1550 *faborezkoa nahi badu mundu finatzekoa.*

Iujeaz.

*Iesus izanen dugula segur gare iujea,*  
*gizon delarikan, bakhoitz Iainkoaren Semea,*

- 
1544. *hura bera*: aurreko bertso *nolacoa*-ren korrelatoa: ikus 1202.  
1545. *beraz*: hona bertso bakarra, *beraz* perpausaren hastean kokatua daukana;  
*bada*, aldiz, behinere ez.  
1546. *eztagoen*: hots, *guk ez dadila egon* esango genukeena; aurreko *aphain*  
*gaiten* bezalakoxea.  
1548. *hartaracotz*: hutsa da, noski; *hartaracotz* behar du.  
1549. *daguien*: lehengo (1546) *eztagoen* haren antzekoa; *guk egin dezala* esango  
genuke.  
1550. *faorezcoa*: aurreko bertsoan ez bezala, hemen lau silaba ditu; baita *gui-*  
*ristiñoac* ere aurreko bertsoan.  
1551. *iugea*: mendeko perpausari dagokio eta haren adizkiaren predikado da,  
bienbitartean perpaus nagusia sartua dagoen arren.  
1552. *bakhoitz*: irakur, *Iaincoaren Seme bakhoitza*.

- Ecen conuei da dugun handiago Iugea  
 Archangelua den baiño edo guiçon simplea  
 Iesus bada guiçon eta Aingueruen Princea  
 Içanen da onen eta gaichtoen Iuiatçaillea  
 Redemitu gaituenac behar gaitu iuiatu  
 Hobequien hala dela Iaunac du declaratu  
 Orain dago Ceruetan guztientçat othoitcez  
 1560 Baiñan gaichtoei orduan Iustitia bortitcez  
 Iuge delaric partida faltan eroriençat  
 Eguiteco asqui duque hoberenac beretçat.

*Fiñaz.*

Sententia hunen fiña da gauça choill bidea  
 Merecien eredura saria ematea.  
 Arraçoiñac aditcera ematen du claroqui  
 Onei sari, gaichtoei pena dagotela iustuqui  
 Eta nihori dagocan merecien pagua  
 Oren hartaco daduca Iongoicoac billdua

*Iuiatu beharrez.*

- Mundu largoan bicitu diren guiçon guztiaç  
 1570 Comparitu behar dute tristeric bekhoquiaç  
 Hutsez errendatu behar dute contu hertsia  
 Deusic iraganen ezta, non ezten ikhussia.  
 Gogoetac ere illki behar dute airera  
 Eta bekhatu ichillec aguertu gendartera.

1554. *archangelua*: irakur honela: *archangelua edo guiçon simplea den baiño iuge handiagoa*.

1556. *gaichtoen*: ahoska ezazu *gaixtwen*.

1563. *choill bidea*: azken hitz hau hemen, dirudienez, adjetivo gisa enplegatua dago: ikus 1663.

1566. *gaichtoei*: hemen ere (ikus 1556) *gaixtwei* ahoskatu behar da.

1568. *oren hartaco*: *norako* edo *zertarako* galdea dagokio, hainbestetan ikusi dugun *hartaracotz*-i ez bezala: ikus 1417, *combateco*.



*ezen konbeni da dugun handiago iujea  
arkhanjelua den baino edo gizon sinplea.*

*Iesus, bada, gizon eta aingeruen prinzea  
izanen da onen eta gaixtoen iuiatzailea.*

*Redemitu gaituenak behar gaitu iuiatu,  
hobekien hala dela Iaunak du deklaratu.*

1560 *Orain dago zeruetan guztientzat otboitzez,  
bainan gaixtoei orduan iustizia bortitzez.*

*Iuje delarik partida faltan erorien(t)zat,  
egiteko aski duke hoberenak beretzat.*

Finaz.

*Sententzia hunen fina da gauza xoil bidea,  
merezien eredura saria ematea.*

*Arrazoinak aditzera ematen du klaroki  
onei sari, gaixtoei pena dagotela iustuki,*

*eta nihori dagokan merezien pagua  
oren hartako daduka Iongoikoak bildua.*

Iuiatu beharrez.

1570 *Mundu largoan bizitu diren gizon guztiak  
konparitu behar dute tristerik bekhokiak.*

*Hutsez errendatu behar dute kontu hertsia;  
deusik iraganen ezta, non ezten ikhusia.*

*gogoetek ere ilkbi behar dute airera  
eta bekhatu ixilek agertu jendartera.*

---

1569. *guztiac: guztiec* behar luke berez: puntuaren bortxa nabari da.

1570. *tristeric bekhokiac*: baita bi hitzak trukaturik ere, adizkirik gabe *modua* adierazteko era jatorra da.

1572. *non ezten*: ikus 867-868.

1573. *illki*: hala dio, baina bestetan beti *illkbi*; hutsa da, agian.

*gogoetac*: badirudi *gogoetec* behar lukeela, ondoko bertsoan *ichillec* bezala; hutsa da, beraz.

*Lekhuaz.*

- Lekhua da Iosaphatco luce çabal campoa  
Olibetco mendiaren contra datçan sorhoa  
Hara biribillaturen dire sura beharrac  
Bai ikhussico tuztenac oiñen azpian içarrac  
Olibetco mendiaren gaiñean asserrea  
1580 Sententia ematean jarrico da Iugea.

*Dembora.*

- Iujamenduaren muga nihorc ere eztaqui  
Mundu fiñatcean behar dela ordean badaqui  
Baiñan muga hura Iainco berac adimenduan  
Eçagutua daduca eta ez bercec munduan  
Arrasta hau Majestategen erran dugun menea  
Iaun Iugeac emanen du guztien aitciñean  
Orduraino utci dio guiçonari librea  
Ungui edo eguiteco gaizqui vorondatea  
1590 Falten remediatceco handiç hara astiric  
Utcico eztio Iainco Iaunac guehiagoric  
Baiñan declaratuco du sententia borthitça  
Non gaichtoac bere contra entçunen baitu hitça  
Bakhotçac du frogaturen haren patientia  
Hambat içan dela luce, cembat pena larria.

*Proprietateac.*

O dolore eta ondico gaizqui bicituena  
Hitça entçun behar dute guztien gogorrena  
Nigar chortez eztaquete batere probetchuric  
Ecen bere nigarrean badagozque urthuric

- 
1575. *Iosaphatco*: -e-ren loturarik gabe, ondoko bertsoan *Olibetco* bezalaxe.  
*luce çabal campoa*: hots, *campo luce çabala*.  
1577. *sura beharrac*: hots, sutara joan behar dutenak.  
1580. *iugea*: irakur: *jarrico da iuge asserrea*.  
1587. *utci dio*: irakur: *utci dio guiçonari ungui edo gaizqui eguiteco vorondate  
librea* (edo vorondatea libre).

### Lekhuaz.

*Lekhua da Iosafatko luze zabal kanpoa,  
Olibetko mendiaren kontra datzan sorhoa.*

*Hara biribilaturen dire sura beharrak,  
bai ikhusiko tuztenak oinen azpian izarrak.*

1580 *Olibetko mendiaren gainean aserrea  
sententzia ematean iarriko da iujea.*

### Denbora.

*Iuiamenduaren muga nihork ere eztaki,  
mundu finatzean behar dela, ordean, badaki,  
bainan muga hura Iainko berak adimenduan  
ezagutua daduka eta ez berzek munduan.*

*Arrasta hau maiestatez, erran dugun menean,  
Iaun iujeak emanen du guztien aitzinean.*

*Orduraino utzi dio gizonari librea  
ungi edo egiteko gaizki borondatea.*

1590 *Falten remediatzeko handik hara astirik  
utziko extio Iainko Iaunak gehiagorik,  
bainan deklaratu du sententzia borthitza,  
non gaixtoak bere kontra entzunen baitu hitza.*

*Bakhotxak du frogaturen haren pazientzia  
hanbat izan dela luze, zenbat pena larria.*

### Proprietateak.

*O dolore eta ondiko gaizki bizituena,  
hitza entzun behar dute guztien gogorrena.*

*Nigar xortez eztukete batere probetxurik,  
ezen bere nigarrean badagozke urthurik.*

---

1588. *eguiteco gaizqui*: hots, *gaizqui eguiteco*.

1589. *astiric*: irakur ezazu, *asti guehiagoric*.

1592. *non*: ikus 1414.

1594. *hambat... cembat*: hots, *bezain*, ez *bezanbat*, konparagaia kualitatezkoa (*luce*) bait da.

1600 Ondicoa handi daite eta handi suspira  
Ahalquea ere handi mundu guztia beguira.

*Ordenaz.*

Bat bederac ikhas deçan gauça hobequiago  
Cer ordenu içanen den condatcera prest nago

Baiñan ondicoac darot atheratcen nigarra  
Longoicoa, çuc indaçu mintçatceco indarra.

*Señaleez.*

Eternalac bekhatorea puni deçan artean  
Señaleac bidaltcen tu, on dadin anartean

Bekhatuen ematen tu doieco guztiguac  
Eta hequin ereduco halaber mehatchuac

1610 Mehatchuaren berdiñac orobat señaleac  
Ecen guztietan Iaunac guardatcen tu legueac

Iautsi bada baiño lehen Iesus Christ iuiatcera  
Mercac bidalduren ditu munduaren gaiñera

Iujamendua da gauça guztiz ici-garria  
Señalea halaberqui içanen da larria.

*Guerlac.*

Egun hura baiño lehen guerlac eta guduac  
Guiçonac ikhussiren tu lur guztian biztuac

Ecen herria iaiquiren da contra bercearen  
Bai seme esquer gabea bere burassoaren

1620 Nahiz etche barreanean, nahiz dela athean  
Gendeeç içanen dute guerla bere artean

Interessaz hassico da gudu lehenbicia  
Guero Religionera iraganen hissia

---

1602. *ordenu*: ikus, ordea, *ordena*: 677.

1605. *artean*: konjuzio gisa *arte* ez darabil, nik uste, inoiz; beti *artean*.

1607. *doieco*: ondoko bertsoak erakusten digunez, *bekhatuen doieco gaztiguac*  
da hitz andana: ikus 1791.

1600 *Ondikoa handi daite eta handi suspira,  
abalkea ere handi, mundu guztia begira.*

Ordenaz.

*Bat bederak ikhas dezan gauza hobekiago,  
zer ordenu izanen den kondatzera prest nago,  
bainan ondikoak darot atheratzen nigarra;  
Iongoikoa, zuk indazu mintzatzeko indarra.*

Seinaleez.

*Eternalak bekhatoea puni dezan artean,  
seinaleak bidaltzen tu, on dadin anartean.*

*Bekhatuen ematen tu doieko gaztiguak  
eta hekin ereduko halaber mehatxuak.*

1610 *Mehatxuaren berdinak orobat seinaleak,  
ezen guztietan Iaunak guardatzen tu legeak.*

*Iautsi, bada, baino lehen Iesus Khríst iuiatzera,  
merkak bidalduren ditu munduaren gainera.*

*Iuiamendua da gauza guztiz izigarria,  
seinalea halaberki izanen da larria.*

Gerlak.

*Egun hura baino lehen gerlak eta guduak  
gizonak ikhusiren tu lur guztian biztuak,*

*ezen herria iaikiren da kontra berzearen,  
bai seme esker gabea bere burasoaren.*

1620 *Nabiz etxe barreanean, nabiz dela athean,  
jendeek izanen dute gerla bere artean.*

*Interesaz hasiko da gudu lehenbizia,  
gero relijionera iraganen hisia.*

---

1608. *hequin*: genitivo, beti bezala: ikus 23.

1614. *halaberqui*: ikus 543.

1617. *contra bercearen*: hots, *bercearen contra*.

1621. *gudu lehenbizia*: hots, *lehenbici gudu*: ikus 35.

Guerlatetan hillen dire guiçon coleratsuac  
Non celhaiac ikhussiren baitire gorrituac

*Hamar erregue.*

Erromaco içatu du hiriac ohorea  
Bere legueen azpian mundua ikhustea  
Muga hartan imperio hain çabal banatua  
Hamar erresumetara daiteque partitua  
Ecen hambat içanen da buruçagui nahia  
1630 Non hamarri gueldituren baitçaie lur guztia.

*Heresiac.*

Sectec cehaturen dute Eliç-Ama noblea  
Eta hariçuntçaraño ekharriren Fedea  
Miseriaz betheco da mundu herri guztia  
Eta bihotcetan handi sarthuren tristetia  
Ascoc predicaturen du hura dela Messia  
Eta oraiño etcela Cerüetaric iauntsia  
Lekhat harotz baten Seme cela Nazarengo  
Ez ordean Iainco eta Guiçon haraguizcoa  
Hura dela munduaren chuchentcera iauntsia  
1640 Eta bereei emanen daroela gloria  
Bat baiño guehiago da hunela mintçaturen  
Baiña dohatsua ceña ez baita abusaturen  
Araitciña hassi ciren munduan tromperiac  
Baita Eliçaren contra halaber heresiac

---

1624. *non*: ikus 1592.

1625. *erromaco*: *Erromaco hiriac* da hitz andana.

1629. *buruçagui nahia*: hots, buruzagi izan nahiko dutenak hanbat izango dira:  
ikus *nabia* zentzu horretan, 246.

1630. *non*: ikus 1402.

1632. *hariçuntçaraño*: hots, hari izpiak bezain xehe eta txiki egiteraino.

1634. *handi*: *tristetia handia* edota *handiro sarthuren tristetia*.

1635. *hura*: ez dio *bera*; ez du esan nahi, beraz, asko horiek aldarrikatuko du-  
tenik *berak* direla Mesia, ez; beste *harako hura* baizik.

*Gerlatetan hilen dire gizon koleratsuak,  
non zelhaiak ikhusiren baitire gorrituak.*

Hamar errege.

*Erromako izatu du hiriak oborea  
bere legeen azpian mundua ikhustea.*

*Muga hartan inperio hain zabal banatua,  
hamar erresumetara daiteke partitua,*

1630 *ezen hanbat izanen da buruzagi nabia,  
non hamarri geldituren baitzaie lur guztia.*

Heresiak.

*Sektek zehaturen dute Eliz Ama noblea  
eta harizuntzaraino ekharriren fedea.*

*Miseriaz betheko da mundu herri guztia  
eta bibotzetan handi sarthuren tristezia.*

*Askok predikaturen du hura dela Mesia  
eta oraino etzela zerüetarik iautsia,*

*lekhat harotz baten seme zela Nazarengoa,  
ez, ordean, Iainko eta gizon haragizkoa.*

1640 *Hura dela munduaren xuxentzera iautsia  
eta bereei emanen daroela gloria.*

*Bat baino gehiago da hunela mintzaturen,  
baina dohatsua, zeina ez baita abusaturen.*

*Araitzina hasi ziren munduan tronperiak,  
baita Elizaren kontra halaber heresiak.*

---

1637. *lekhat*: ikus 48; baina hemen beste balioa du: *aitzitik* edo horren antzeko zerbait esan nahi du.

*harotz baten seme*: sintagma hori ondoko bertsoko *eta guiçon haragizcoa*-ri lotu behar zaio, ez besteri.

1639. *hura dela*: lehengo (1635) *hura* bera, ez *Nazarengoa*, noski.

1642. *dohatsua ceña*: ikus 829.

1643. *araitciña*: ikus 1058.

Orduan içanen dire hussu Apostasiac  
Iraganen ahantzgarri azkenic ethorriac.

*Antechristez.*

- Antechristo noizbait ere bercen guibeldaria  
Ethorriren da enganoz guztien naussia  
Guehienic nahassiren du Christoren fedea  
1650 Eta penaturen hari iarraiquien nombrea  
Berce guztietaric duque hequiñaz egarsua  
Odol eta bicitceaz ecin satiatua  
Guiça-cume guztietan fiñean etsaiena  
Antechrist enganosa da içanen Iesusena.

*Herriaz eta castaz.*

Babilonia Caldeaco hirian da sorthuren  
Eta Danen odoletic arguira da ilkhiren  
Ohara bat duque ama, aita ere Iudua  
Burassoan ere ganic daite desondratua.

*Obrez.*

- Obrez seinalatuco da cein den (guiçon) gaichtoa  
1660 Eta berce bat içatu eztela halacoa  
Obrac bada gaichto eta maleciac betheac  
Ikhussico tu orduan bicico den gendeac  
Intentionea duque choill bide-gabezcoa  
Iesus aguindua dela sinhetsaraztecoa

---

1646. *iraganen ahantzgarri*: hots, iraganak ahantz erazitzeko: ikus 2646.

1647. *bercen*: hala dio, baina *bercen* behar du.

1650. *penaturen*: hemen aktivoa da, *penarazi*: ikus, aldiz, 1441.

1651. *hequiñaz*: irakur ezazu honela: *berce guztietaric duque hequin* (= *haien*)  
*odol eta bicitceaz egarsu ecin satiatua*: ikus 1333.

1654. *Iesusena*: hauxe esan nahi du poetak: beste inoren baino Jesusen izango  
dela etsairik handien.

1655. *da sorthuren*: honen sujeto ez da *Babilonia*, *Antekristoa* baizik, eta *Babi-*  
*lonia* adi ezazu honela: *Caldeaco hiri den Babilonian*.

1656. *Danen*: ikus eta oroit Biblian ageri denaz.



*Orduan izanen dire busu apostasiak,  
iraganen abantzgarri azkenik etborriak.*

Antekhristez.

*Antekhristo noizbait ere berzen gibeldaria  
etborriren da enganoz guztien nausia.*

1650 *Gebienik nabasiren du Kbristoren fedea  
eta penaturen hari iarraikien nonbrea.*

*Berze guztietarik duke hekinaz egarsua,  
odol eta bizitzeaz ezin saziatua.*

*Giza-kume guztietan, finean, etsaiena  
Antekbrist enganosa da izanen Iesusena.*

Herriaz eta kastaz.

*Babilonia Kaldeako hirian da sorthuren  
eta Danen odoletik argira da ilkhiren.*

*Obara bat duke ama, aita ere iudua,  
burasoen ere ganik daite desondratua.*

Obrez.

1660 *Obrez seinalatuko da (ea) zein den gaixtoa  
eta berze bat izatu eztela halakoa.*

*Obrak, bada, gaixto eta maleziaz betheak  
ikhusiko tu orduan biziko den jendeak.*

*Intenzionea duke xoil bide-gabezkoa,  
Iesus agindua dela sinhetsaraztekoa.*

- 
1657. *obara*: hots, «chaleur de la chienne ou de la chatte», dio Lhandek. Hemen zakur emea bera, noski.
1658. *ere ganic*: lasai esan zezakeen *ganic ere*; kaso atzizkia baino bere eskuko hitza gehiago zen, beraz, *ganik* artean.
1659. *cein den*: bertso honen bigarren erdiak bi silaba falta ditu; *ea* dago, agian, hor esan gabe: ikus 3796. Ala *guiçon*?
1663. *choill bide gabezcoa*: ikus 1563.
1664. *Iesus agindua*: hots, prometatua den Jesus bera dela, alegia.  
*sinhetsaraztecoa*: hau da, oker ez banago, obra osoan bakarra, non *-aracitceco* beharrean *-arazteco* ageri bait da: ikus 1463.

Halaber du aditcera emanen haren fiñac  
Ea nolaco içatu diren haren eguiñac  
Ecen nola gutitia baituque choill gaichtoa  
Obra ere içanen du haren berdiñeoa.

*Iesus dela du predicaturen.*

1670 Iesus nobleari çαιο lothuren hurbilletic  
Eta idequiren dio ahala ohoretic  
Ecen saluatçaillea dela du predicaturen  
Eta hitz churiez asco simple llilluraturen

*Lehenbician ezтуque creditic*

Lehenbici aguertcean ezтуque ohoreric  
Ecen gutic emanen du haren baithan federic  
Bañan azkenean cembat nahi duen ohore  
Gendartean içanen du, bai halaber podore.

*Arte gaichtoz ardiatsiren du.*

Artificio gaichtoz da hambat baliaturen  
Non Iauntassun handiena baitu ardiatsiren.

*Hitz ederrez.*

1680 Ahoa eznearen pare duque lehen hastean  
Aleguia Spiritu Saindua españean.  
Hañitcec miretsiren du haren mintço ederra  
Eta eguiñen du entçun nahiz kechaz lasterra  
Hitça urrezcoa duque, urrezcoa mihia,  
Eta hitcen eredura erremangu eztia

---

1669. *idequiren*: edo *edequiren*: ikus 1044.

1671. *ecen*: bertso honek zesura ez du ezein hitzen akaberan, hitz baten bi silaben erdian baizik: *de-* // *-la*: ikus 355; 457; 475.

1675. *cembat nahi duen*: *nahi duen bezanbat* esan nahi du: ikus 793.

1678. *non*: ikus 1402.

1679. *eznearen*: kontsonante aurrean ere zalantza ageri du poetak *s* eta *z* idazteko menean; idaztekoan, noski, ez ahoskatzekoan. Ikus 1481. Lhandek bietara dakar: *esne-* eta *ezne-*.

*Halaber du aditzera emanen haren finak  
ea nolako izatu diren haren eginak,  
ezen nola gutizia baituke xoil gaixtoa,  
obra ere izanen du haren berdinekoa.*

Iesus dela du predikaturen.

1670 *Iesus nobleari zaio lothuren hurbiletik  
eta idekiren dio abala ohoretik,  
ezen salbatzailea dela du predikaturen  
eta hitz xuriez asko simple liluraturen.*

Lehenbizian eztuke kreditik.

*Lehenbizi agertzean eztuke ohorerik,  
ezen gutik emanen du haren baithan federik,  
bainan azkenean zenbat nahi duen ohore  
jendartean izanen du, bai halaber podore.*

Arte gaixtoz ardiatsiren du.

*Artifizio gaixtoz da hanbat baliaturen,  
non iauntasun handiena baitu ardiatsiren.*

Hitz ederrez.

1680 *Ahoa esnearen pare duke lehen hastean,  
alegia, Espiritu saindua ezpainean.  
Hanitzek miretsiren du haren mintzo ederra  
eta eginen du entzun nabiz k(h)exaz lasterra  
Hitza urrezkoa duke, urrezkoa mibia  
eta hitzen eredura erremangu eztia.*

---

1680. *aleguia*: ikus 1250; ia beti *alleguia* idatzi ohi du. Hauxe esan nahi du:  
Izpiritu Saindua ezpainetan balu bezala.

*españean*: hemen, ostera, (ikus 1679) z behar lukeena s idatzi du: ikus,  
ordea, 282.

1682. *entçun nabiz*: sintagma hau bestean txertatua dago eta zesurak bi hitzak  
erdibitzen dituelarik, gainera.

1684. *erremangu*: ikus 124.

Hauc behar tu aphainduac podore eztuenac  
Bere eguin nahi baitu vorondate bercenac  
Molde hartan sarthuren da bihotcetan barrena  
Eta urruiti du bere hedaturen icena.

*Mehatchuez.*

1690 Ohoretan sarthu eta falso enganariac  
Haguitz mehatchaturen tu ez sinhetsi nahi  
Hañitz bere eguinen du tormentaren beldurric  
Bercei iarraiquiren çaië hequin contra samurric.

*Recompensaz.*

Beretuac betheren tu preciatu sariez  
Ohore eta acienda nahi beçain handiez  
Deusen ere eztuquete fiñean gutitia  
Nahi dutenaz gaichto harc non ezteçan satia  
Hunez erakharriren du hañitz bere aldera  
Nola guiçonec baitute gura ontassunera.

*Gaztiguaz.*

1700 Bañan eracusten bada nihor contra fermuric  
Milla tormenta dadutça hequintçat asmaturic  
Diocletianec baño are cruelagoac  
Arteac iaquinen ditu eta hañitçagoac  
Hetçaz guiçonen bihotçac ditu iharrossiren  
Non penaren lotsaz baitu hañitcec ukhaturen.

- 
1685. *begar*: hala dio, baina *behar* da.  
*aphainduac*: hots, horrelako apaindurak behar ditu.  
1686. *baitu*: hots, bait ditu.  
*vorondate bercenac*: hots, *bercen vorondateac*.  
1688. *urruiti*: ikus 1046.  
1689. *falso enganariac*: hots, enganari falsoak: ikus 1290.  
1690. *ez sinhetsi nahi*: hots, sinetsi nahi ez dutenak: ikus 1629.

*Hauk behar tu aphainduak podore eztuenak  
bere egin nabi bai'tu borondate berzenak.*

*Molde hartan sarthuren da bibotzetan barrena  
eta urruiti du bere bedaturen izena.*

Mehatxuez.

1690 *Oboretan sarthu eta falso enganariak  
bagitz mehatxaturen tu ez sinhetsi nabiak.*

*Hanitz bere eginen du tormentaren beldurrik,  
berzei iarraikiren zaie hekin kontra samurrik.*

Rekonpensaz.

*Beretuak betheren tu preziatu sariez,  
ohore eta azienda nabi bezain handiez.*

*Deusen ere eztukete finean gutizia,  
nabi dutenaz gaixto hark non eztetzan sazia.*

*Hunex erakbarriren tu hanitz bere aldera,  
nola gizonen baitute gura ontasunera.*

Gaztiguaz.

1700 *Bainan erakusten bada nihor kontra fermurik,  
mila tormenta dadutza hekintzat asmatu rik.*

*Dioklezianek baino are kruelagoak  
arteak iakinen ditu eta hanitzagoak.*

*Hetzaz gizonen bibotzak ditu iharrosiren,  
non penaren lotsaz baitu hanitzek ukbaturen.*

---

1691. *tormentaren beldurrik: beldurrez balio, guretzat errazago aditzen, noski.*

Baina hori esan nahi ote du? ala *tormentaren beldur den hanitz...?*

1693. *bequin contra:* ikus 992.

1696. *non eztetçan:* ikus 1043-4.

1700. *heqintçat:* hots, haientzat: ikus 622.

1701. *cruelagoac:* irakur honela: *arte cruel eta hanitzagoac.*

1704. *non:* ikus 1592.

*Magiaz.*

Arte magiacoetan bat ezтуque pareric  
Erresuma çabalduren hartçaz du guehienic  
Sinhetz berac trumpaturen ditu obra falsoez  
Baliaturen da hambat arte Ifernucoez.

*Iuduac irabaciren.*

1710 Moyseren leguearen laudatceco thaillua  
Hastetchoan eguinen du trumpatceco Iuduac  
Obstinatu bada castan Iesus ez sinhetsiac  
Laudaturen ditu haren errefau gueçurtiac  
Enganatu duenean Abrahamen hacia  
Guero laster emanen du berac legue nahia.

*Turcoac.*

Turcoac ere iarraiquiren çazco handi osteca  
Eta sinhetsiren dute dela Saindu Propheta  
Messias dela Iuduec hambat iguriquia  
Eta Iesus-Christ etcela baicen enganaria.

*Biez guehienic sinhetsia.*

1720 Guehienic Iuduz eta Turcoez Erresuma  
Hedaturen du hain handi daite hequin billduma

---

1706. *hartçaz du*: esan zezakeen, nahi izan balu, *du hartçaz* eta partizipio-laguntzaileak, halere, zesurak banaturik egon arren, aditz sintagma bederen osorik zegokeen.

1709. *Moyseren*: ikus 166; lau silabatakoea dirudi, beraz.  
*laudatceco thaillua*: hots, itxura. Lhandek honela dakar: «tout au commencement, il (l'Antéchrist) fera semblant de louer la loi de Moïse, pour tromper le Juif»: ikus Hiztegia, *thailu*, or. 961.

1711. *Iesus ez sinhetsiac*: ikus 1863; 1906. *Sinhetsia*- hemen aktivoa da («el que no ha creído a Jesús, en Jesús») eta *Iesus ez sinhetsiac* bere osoan *laudaturen ditu*-ren objetoa.

1712. *haren errefau gueçurtiac*: hau da ergatiboa.

Majiaz.

*Arte mejiakoetan bat eztuke parerik,  
erresuma zabalduren hartzaz du gehienik.*

*Sinhetsberak trunpaturen ditu obra falsoez,  
baliaturen da hanbat arte ifernukoez.*

Iuduak irabaziren.

1710 *Moiseren legearen laudatzeko thailua  
hastetxoan eginen du trunpatzeko iudua.*

*Obstinatu bada kastan, Iesus ez sinhetsiak  
laudaturen ditu haren errefau gezurtiak.*

*Enganatu duenean Abrahamen bazia,  
gero laster emanen du berak lege nahia.*

Turkoak.

*Turkoak ere iarraikiren zaizko handi osteka  
eta sinhetsiren dute dela saindu profeta,*

*Mesias dela iuduek hanbat igurikia  
eta Iesus Kbrist etzela baizen enganaria.*

Biez gehienik sinhetsia.

1720 *Gebienik Iuduz eta turkoez erresuma  
bedaturen du; hain handi daite hekin bilduma.*

---

1714. *berac legue nahia*: hots, berac nahi (duen) leguea.

1715. *handi osteka*: hots, *oste handica*. *Oste- dela eta*, ikus 1083.

1716. *saindu profeta*: hots, *propheta saindua*.

1717. *Mesias*: ez da sujeto, baizik predikado, eta horren berorren aposizio da  
*Iuduec hambat iguriquia*.

1718. *baicen enganaria*: hots, enganaria baicen. *Nola*, gure *bezala*-ren kidea, aurrean nahiz atzean ipin daitekeen bezalaxe (ikus 126) ipintzen du poetak *baicen* ere; ez Etxeparek, horratio, *baicen* horren kide diren *beci*, *bayeci* eta *bayecila*, beti atzean baizik.

1720. *bequin*: ikus 1693.

Lasterrenic bieç dute onhetsiren leguea  
On idurian baitaite cein poçoñez bethea.

*Guiristinoen hirugarren partea.*

Guiristiño çoraturen eztu cembat berceric  
Iesus Christoren leguea bessarcatu gaberic  
Hautaric bereturen du hirur garren partea  
Bercec iduquiren dute Iesus Christen fedea.

*Berceac tormentaturen tu.*

1730 Haren bada ordenantçac ez sinhetsi nahiei  
Guerla eguinen daroe handi eta ttipiei  
Milla martyrioz ditu nekhaturen prestuac  
Non guztiaç ibilliren baitire icituac.

*Meça ezta publicoqui erranen.*

Aithortcera Guiristiño guti da ausarturen  
Aguerriqui ere Meça ezta celebraturen  
Bañan cerbitçu Saindua ichillca çokholutan  
Christaüec eguinen dute hats hartceco ordutan.

*Azpiratuco ditu hamar Erregueac.*

Hamar aiphatu ditugun fiñean Erregueac  
Bere manuen eguinen ditu complitçailleac  
Haren ordenantçec baicen eztuquete lekhuric  
Berce Princeenac dire egonen esdeusturic.

---

1722. *on idurian*: hauxe esan nahi du: lege hori, irudiz eta itxuraz ona izan arren, pozoinez betea izango da.

1723. *guiristiño*: hauxe esan nahi du poetak: liluratuko dituen kristauak gutxi izango direla; bestelakoak, hots sinesterik ez dutenak, baino askoz gutxiago.

*cembat*: ikus 1675; *berceac beçambat guiristino* esan ohi da: ikus 793.

*gaberic*: izen sintagma hau datza hor, guttiz urratua bada ere: *Iesus Christoren leguea bessarcatu gabe(co) berce(ac) bezanbat kristau ez du çoraturen*.



*Lasterrenik biek dute onbetsiren legea,  
on idurian baitaite zein pozoinex bethea.*

Giristinoen hirugarren partea.

*Giristino zoraturen eztu zenbat berzerik,  
Iesus Kbristoren legea besarkatu gaberik.*

*Hautarik bereturen du hirugarren partea,  
berzek idukiren dute Iesus Kbristen fedeaa.*

Berzeak tormentaturen tu.

*Haren, bada, ordenantzak ez sinbetsi nabiei  
gerla eginen daroe handi eta ttipiei.*

1730 *Mila martirioz ditu nekhaturen prestuak,  
non guztiak ibiliren baitire izituak.*

Meza ezta publikoki erranen.

*Aithortzera giristino guti da ausarturen,  
agerriki ere Meza ezta zelebreturen,  
bainan zerbitzu saildua ixilka zokholutan  
kbristaüek eginen dute hats hartzeko ordutan.*

Azpiratuko ditu hamar erregeak.

*Hamar aiphatu ditugun finean erregeak  
bere manuen eginen ditu konplizailleak.*

*Haren ordenantzek baizen eztukete lekhurik,  
berze prinzeenak dire egonen ezdeusturik.*

---

1726. *Christen*: *Christo-* eta *Christ-* biak darabilta.

1727. *nabiei*: ikus 1690; hots, nahi ez dutenei.

1728. *handi eta ttipiei*: hots, nahi ez duten handi eta ttipiei: ikus 532.

1730. *non*: ikus 1704.

1732. *aguerriqui*: ikus *halaberqui*: 1614.

*ere*: bertso laurdenaren hasieran kokatua dago: ikus 1411.

1735. *hamar*: hots, *hamar erregeac*.

*Puchant errendaturen.*

1740 Artificio hautçaz da handi errendaturen  
Ipharretic Hegoara non baita famaturen  
Aiphamenic hartçaz baicen eztaiteque lurrean  
Eta haren obrez solas berceen aitciñean.

*Sujet iduquiren du mundua.*

Mundua iduquiren du hala sujetatua  
Norat puchantça baituque berea hedatua  
Haren leguearen contra gogor egon nahia  
Penaturen baitu gaizqui Guiristino guztia.

*Hierusalem erresumaren buru.*

Hierusalem eguinen du Prouincien burua  
Eta han du arguilluric ifiñiren Thronua  
Orientean ohi cen choill famatu hiria  
1750 Cein eguiñen baitu berce guztien buruçaguia.

*Iudu guztiaç bara billduren.*

Bere bekhatuac gatic araitcina Iuduac  
Munduz mundu herri gabe dabilltça basatuac  
Bañan orduan billduren dire hiri Saindura  
Iongoicoac lehenago hautu eman lekhura.

*Bere Religioneacoac mercaturen tu.*

Bereac mercaturen tu ciguilluaz buruan  
Eta merca batez content gabe berriz escuan  
Trumpatu tuenac hala nahico tu bereci  
Eta bercetariç merca differentaz hautetsi.

---

1740. *hegoara*: *hegoa*- da, dirudienez, erroa: ikus 2012.  
*non*: ikus 1704.

1744. *norat*: erlativo gisakoa, adizkiak *bait*- duelarik: ikus 2082; 848.  
*puchantça*: *bere puchantça*, alegia.

Puxant errendaturen.

1740 *Artifizio hautzaz da handi errendaturen,  
ipharretik hegoara non baita famaturen.*

*Aiphamenik hartzaz baizen eztaiteke lurrean  
eta haren obrez solas berzeen aitzinean.*

Suiet idukiren du mundua.

*Mundua idukiren du hala suietatua,  
norat puxantza baituke berea hedatua.*

*Haren legearen kontra gogor egon nabia  
penaturen baitu gaizki giristino guztia.*

Hierusalen erresumaren buru.

*Hierusalen eginen du probinzien burua  
eta han du urguilurik ifiniren thronua.*

1750 *Orientean obi zen xoil famatu hiria,  
zein eginen baitu berze guztien buruzagia.*

Iudu guztiak hara bilduren.

*Bere bekhatuak gatik araitzina iuduak  
munduz mundu herri gabe dabilta basatuak,  
bainan orduan bilduren dire hiri saindura,  
Iongoikoak lehenago hautu eman lekhura.*

Bere relijionekoak merkaturen tu.

*Bereak merkaturen tu zigiluaz buruan  
eta merka batez kontent gabe berriz eskuan.*

*Trunpatu tuenak hala nabiko tu berezi  
eta berzetarik merka diferentaz hautetsi.*

---

1746. *guiristiño guztia*: hots, *gogor egon nahi (duen) guiristiño guztia*. Bestela esan: *girstino egosgogor guztiak*.

1754. *hautu eman lekhura*: hots, *hauteman edo hautatu duen lekura*.

1756. *content gabe*: hots, *batez aski ez duelarik, bigarrena eskuan*.

*Herstura handian onac.*

- 1760 Herstura handia dute Christaüec ikhussiren  
Ecen haren puchantçac du mundua icituren  
Ikhararic egonen da nihor haren beldurrez  
Guztiz ere Guiristiñoac hequin contra samurrez.

*Egundaño ez balacoric.*

Eliç-Amac içatu du eta içanen dolore  
Harequien erkhatceco ez ordean batere  
Antechristen malecia hain gora da içanen  
Non onec tormenta hambat baitute eramanen.

*Sathan gathetic lachaturen da.*

- 1770 Orduan da largaturen Sathan burdiñetariç  
Jesus Christo hillez guero hertsì egonetariç  
Presunaren nekhatceco handi duque escua  
Lehen ez beçala ere du nahassiren mundua.

*Miretsico haren puchantça.*

Bakhotçac miretsiren du haguitz haren escua  
Eta cembat duen handi penatceco mundua  
Ea cembat atsecabe eman ahal deçaquen  
Presondeguiian Iaincoac ezbadu iduquitcen.

*Guehiago miretsiren da Iaincoarena.*

Bañan are guehiago Iañaren podorea  
Miretsiren du iduquiz hari labur hedeà

---

1761. *ikhararic*: hots, ikharaturic: ikus 563.

*nibor*: impersonala: ikus 1294.

1762. *hequin*: ikus 23.

*samurrez*: erka itzazu bi bertso hauetako *beldurrez-samurrez* lehengo  
(1691-92) bietako *beldurric-samurric* haiekin.

1763. *Eliç*: *Eliç*- behar du izan; hutsa da.

1764. *harequien*: ikus 23.

Herstura handian onak.

1760 *Herstura handia dute kbristaüek ikbusiren,  
ezen haren puxantzak du mundua izituren.*

*Ikhararik egonen da nihor haren beldurrez,  
guztiz ere giristinoak bekin kontra samurrez.*

Egundaino ez halakorik.

*Eliz Amak izatu du eta izanen dolore,  
harekien erkhatzeko ez, ordean, batere.*

*Antekbristen malezia hain gora da iganen,  
non onek tormenta hanbat baitute eramanen.*

Sathan gathetik laxaturen da.

*Orduan da largaturen Sathan burdinetarik,  
Iesus Kbristo hilez gero hertsu egonetarik.*

1770 *Presunaren nekhatzeko handi duke eskua,  
leben ez bezala ere du nahasiren mundua.*

Miretsiko haren puxantza.

*Bakhotxak miretsiren du bagitz haren eskua  
eta zenbat duen handi penatzeko mundua,  
ea zenbat atsekabe eman ahal dezaken,  
presondegian Iainkoak ezbadu idukitzen.*

Gehiago miretsiren da Iainkoarena.

*Bainan are gehiago Iaunaren podorea  
miretsiren du, idukiz hari labor bedea,*

---

1766. *non*: konsekutiva kutsu nabaria du: ikus 1402.

1768. *hertsu egonetaric*: Sathan egon, noski, ez Iesus Christo. Hitz andana honako hau da: *hertsu egon burdiñetaric*. *Hertsu egonak* ez dira ere burdinak, Sathan baino: «de las cadenas en que estuvo preso Satán».

1771. *miretsiren du*: hiru errejimen ditu hemen: objeto gisa (*escua*), eta bi aditz sintagma gisa: *cembat* eta *ea cembat*.

1776. *idukiz*: horrezaz ageri du *podorea*.

Eta hala Guiristiñoec guztien sendoena  
Sinhetsiren dute dela Iainco munduarena.

*Christaüec Iaincoa othoizturen.*

- 1780 Christaüec eguiñen dute Cerura deihadarra  
Eta Iaunac adituren du hequien nigarra  
Iongoicoa arren libra gaitçatçu hersturatic  
Eta fauoreac bidal ceure Thronu goratic  
Çure ajutaric gabe ecin gaitte defenda  
Galdea dieçaguçu arren othoi errenda  
Hala formaturen dute penatuec othoitça  
Ceñac baitio Iaunari uquituren bihotça.

*Iaincoac fauoreac bidalduren.*

- Iongoico handiac bada adituric nigarra  
Socorri bidalduren du damuturic beharra  
Ecen Iaunac eztu nahi tenta dadin guiçonico  
1790 Indar duen eta ajuta baño guehiagoric  
Bañan tentationean fauore doiecoa  
Muga onaz bidaltcen dio eta francoagoa  
Ecen haren faltaz ezta nihor faltan erortcen  
Bañan perill guztietan puchantqui du laguntcen  
Eta cembatenaz baita handi gure premia  
Iaincoaren fauorea hambatez da handia  
Lehen ere aitciñetic quintuen abisatu  
Antechrist gaichtoac behar çuela munduratu  
Gueure buruei guardia hartaracotz ernea  
1800 Eguin guinecen haren ez sinhesteco artea

---

1780. *bequien*: genitivo da: ikus 1543.

1784. *galdea errenda*: eskatua eman, alegia.

*dieçaguçu*: *d-* duelarik, nahiz inperativoa den: ikus 1529.

1790. *indar duen*: zergatik ez, *duen indar?* Honela esan ohi dugu.

1791. *fauore doiecoa*: ikus 1607.

1792. *muga onaz*: *mugonaz* ahoskatu behar da.

*eta hala giristinoek guztien sendoena  
sinhetsiren dute dela Iainko munduarena.*

Khristaüek Iainkoa othoizturen.

- 1780 *Khristaüek eginen dute zerura deihadarra  
eta Iaunak adituren du bekien nigarra:*  
*«Iongoikoa, aren, libra gaitzatzu hersturatik  
eta faboreak bidal zeure thronu goratik;  
zure aiutarik gabe ezin gaite defenda,  
Galdea diezaguzu, arren, othoi, errenda».*  
*Hala formaturen dute penatuek othoizta,  
zeinak baitio Iaunari ukituren bibotza.*

Iainkoak faboreak bidalduren.

- 1790 *Iongoiko handiak, bada, aditurik nigarra,  
sokorri bidalduren du damaturik beharra,  
ezen Iaunak eztu nahi tenta dadin gizonik  
indar duen eta aiuta baino gebiagorik,  
baina tentazionean fabore doiekkoa  
muga onaz bidaltzen dio eta frankoagoa,  
ezen haren faltaz ezta nihor faltan erortzen,  
bainan peril guztietan puxantki du laguntzen,  
eta zenbatenaz baita handi gure premia,  
Iainkoaren faborea hanbatez da handia.*  
*Lehen ere aitzinetik gintuen abisatu,  
Antekbrist gaixtoak behar zuela munduratu;*  
*gure buruei guardia hartarakotz ernea  
1800 egin ginezten, haren ez sinbesteko artea.*

1795. *cembatenaz*: ondoko bertsoan *hambatez* du korrelatoa; inoiz, ordea, *hambatenaz*: ikus 2410.  
1798. *Antekbrist*: *Christo-* eta *Christ-* bezala (ikus 1726), *Antekbristo* eta *Antekbrist-*, biak darabiltza: ikus 1810.  
1800. *eguin guinecen*: hots, egin genieziaien.  
*haren ez*: zesurak erdibiturik dago ez *sinbesteco haren artea* den sintagma.

Hurbilldu denean ere behar den fauorea  
Eman gabe eztagoquet Aita Creatçaillea.

*Antechristen contra Henoc eta Helias.*

Bañan mendietan ezta belhar poçoñezcoric  
Inguruan non eztuen hurbill contrarioric

Halaber du Antechristec contrario içanen  
Ecen Henoc eta Helias contra çaiçco illkhiren

Propheta eta Guiçon Saindu oraño hill gabea  
Munduaren fauorera iauntsico da para

1810 Iongoicoac Parabisu lurrecoan dadutça  
Antechristo falsoaren contra eguiteco hitça.

*Testamentu çabarreco arca aguerturen da.*

Testamentu çabarreco aguerturen da cutcha  
Aspaldi iragan cela Iuduen legue churtcha.

Bai eta Ceruetaric Messias lurreratu  
Eta gure hutsen gatic dilindaca egotu.

*Henoc eta Heliassen predicua.*

Henoc bada eta Helias Saindu eta iaquiñac  
Arbuiaturen dituzte Antechristen eguiñac

Propheta dela falsoa dute predicaturen  
Eta Christotçat eztadin aithor denecaturen

1820 Araitciña iauntsi cela Iainco Semea Cerutic  
Eta dilindaca egon habe gurutçatutic

---

1804. *inguruan*: esan zezakeen *Non eztuen inguruan...*: ikus 1519.

*non eztuen*: ikus 867-8.

*hurbill contrarioric*: hots, *contrario hurbillic*.

1806. *eta Helias*: *b-* mutuerazitzeak baino hobe dirudi *Helyas*, bi silabaz, eba-  
kitzeak: ikus, halere, 2778; 3732.

1808. *para*: hots, *Propheta eta guiçon Saindu para*: hori da berez sintagma,  
itxuragabeki printzatua dagoen arren.

1810. *Antechristo*: ikus lehenxeago esana: 1798.

1812. *churtcha*: hots, xurtxa, zurtza: ikus Lhande, or. 1056.



*Hurbildu denean ere, behar den faborea  
eman gabe eztagoke Aita Kreatzailea.*

Antekhristen kontra Henok eta Helias.

*Bainan mendietan ezta belbar pozoinexkorik,  
inguruan non eztuen hurbil kontrariorik;*

*halaber du Antekbristek kontrario izanen,  
ezen Henok eta Helias kontra zaizko ilkbiren.*

*Profeta eta gizon saildu oraino hil gabea  
munduaren faborea iaustsiko da parea.*

1810 *Iongoikoak parabisu lurrekoan dadutza  
Antekbristo falsoaren kontra egiteko hitza.*

Testamentu zaharreko arka agerturen da.

*Testamentu zaharreko agerturen da kutxa,  
aspaldi iragan zela iuduen lege xurtza,*

*bai eta zeruetarik Mesias lurreratu  
eta gure hutsen gatik dilindaka egotu.*

Henok eta Heliasen predikua.

*Henok, bada, eta Helias saildu eta iakinak  
arbuiauren dituzte Antekhristen eginak.*

*Profeta dela falsoa dute predikaturen  
eta Khristotzat eztadin aithor denekaturen;*

1820 *araitzina iausti zela Iainko Semea zerutik  
eta dilindaka egon habe gurutzatutik;*

---

1815. *eta Helias*: lehen bezalaxe: ikus 1806.

*iaquiñac*: berez *iakinek* behar luke, ergativo delarik, baina puntua gailendu da: ikus 1569.

1818. *denekaturen*: ez dakar Lhandek, baina latinezko erro ezaguna du: *dene-gatu*:- ikus 791.

1819. *araitciña*: ikus 1643.

1820. *dilindaca egon*: *dilindaca egotu* esan du arestian: ikus 1814.  
*habe gurutzatutik*: hots, gurutzetik.

- Gure çorrac pagaturic igan cela Cerura  
 Handic ere daducala gure gatic ardura  
 Mundu guztiaren dela iautsico iuiatcera  
 Eta nori bere obren pagua ematera  
 Legue ona daducala Guiristiño guiçonac  
 Handic berce batetara higuí eztetçan oñac  
 Naturazco eta escribuzco manuaren testigu  
 Parabisu lurrecotic diradela bidaldu  
 1830 Ia aspaldi akhabatu cela Iudu leguea  
 Lekhuco dela egorri Arcaren señaleara  
 Iesussen leguean baicen eztela saluatceric  
 Berce gañeracoetan baicen honda leceric  
 Oraingoa Messiassen dela etsai mortala  
 Haren ethortcea clarqui escrituran datçala  
 Ea beraz bat bedera eztadilla engana  
 Aitcitic daducan promes Baptismuan emana  
 Magiazco artez baicen eztuela indarric  
 Iduriaracitceco Christo dela bakharric  
 1840 Hartaracotz ailtcha çaten Iauna gana nigarra  
 Fauoraturen tuela ikhussiric beharra  
 Bi propheta onec dute hala predicaturen  
 Eta Antechristen secta haguítz guibelaturen

*Hanitz conuertituren da.*

Trumpatutaric hañitz da itçuliren onera  
 Aitciñean arnegatu çuten legue berera  
 Iuduec bere hobena dute eçaguturen  
 Eta sinhetsgor içanaz dire doloraturen

- 
1827. *naturazco*: lehen bertso erdian -o e- eta -a e-, bi sinalefa egin behar dira.  
 1828. *diradela bidaldu*: pasiva gisakoa: ikus 1341.  
 1832. *baicen*: irakur honela: *hondaleceric baicen*: ikus 1718. Ohar. gainera,  
 aurreko bertsoan (1831) *baicen* berez dagokion lekuan dagoela: hots,  
 enklitika gisa.  
 1836. *daducan*: elkarren segidan ditugu *eztadilla* eta *daducan*, batak -(e)la

- gure zorrak pagaturik igan zela zerura,  
handik ere dadukala gure gatik ardura;  
mundu guztiaren dela iautsiko iuiatzera  
eta nori bere obren pagua ematera;
- lege ona dadukala giristino gizonak,  
handik berze batetara bigi eztetzan oinak;  
naturazko eta eskribuzko manuaren testigu  
parabisu lurrekotik diradela bidaldu;
- 1830 ia aspaldi akhabatu zela iudu legea,  
lekhuko dela egorri arkaren seinalea;
- Iesusen legean baizen eztela salbatzerik,  
berze gainerakoetan baizen hondalezerik;
- oraingoa Mesiasen dela etsai mortala,  
haren ethortzea klarki eskrituran datzala.
- Eta beraz, batbedera extadila engana,  
aitzitik dadukan promes Baptismuan emana,  
majiazko artez baizen extuela indarrik,  
iduriarazitzeke Khristo dela bakharrik.
- 1840 Hartarakotz ailtxa zaten Jaunagana nigarra,  
faboraturen tuela ikhusirik beharra.
- Bi profeta onek dute hala predikaturen  
eta Antekbristen sekta hagitz gibelaturen.

Hanitz konbertituren da.

Trunpatutarik hanitz da itzuliren onera,  
aitzinean arnegatu zuten lege berera.

Iuduek bere hobena dute ezaguturen  
eta sinhetsgor izanaz dire doloraturen.

---

atzizkia eta besteak -(e)n duelarik, nahiz biek azpi egituran inperativak  
izkutatzen dituzten: ikus 1256.

1838. *iduriaracitceco*: ikus, aldiz, *sinhetsaraztecoa*: 1664.  
*bakharrik*: hots, bera bakarrik dela Kristo.
1839. *çaten*: hots, *dezaten*: hemen apokopea *de-* osoa da.
1843. *trunpatutaric*: berez *-etatic* behar luke (?).

Hoberentzat aithorturen dute Christau leguea  
Eta gaitcetsiren haren contraco den artea.

*Antechrist cruel bequin contra.*

- 1850 Ikhussiric Antechristec prestuen ausartcia  
Hill beharrez asma ahal eguiñen du guztia  
Hira descargaturen du hala nola Lehoñac  
Eta podore guztiaz tormentaturen onac  
Asserteric iarraiquiren çai handi ttipiei  
Haren icenari agur eguin nahi gabeei  
Behiala Eliçaren odolezco mendean  
Hambat martyrio etcen, ez hain latcic lurreean  
Ohoraracitcecotzat icen laidoz bethea  
Cembat Antechristec baitu asmaturen berea
- 1860 Alabañan direlaric handi supplicioac  
Eztu ukhaturen Iesus ona Guiristiñoac  
Bañan gañeco cargari nola palmac handia  
Ahalaz ohi baitio eguin resistentia  
Hala Iesus aithortua tyranno berriari  
Fermuqui egonen çai Antechrist gaichtoari  
Eta cembat ere cruel baituque tyrannia  
Haren contra hambat daite Christaüa eracutsia.

---

1850. *asma*: *asma ahal guztia* den sintagma puskatua dago.

1854. *nabi gabeei*: hots, nahi ez diotenei: ikus *nabiei*, 1727.

1856. *hambat*: irakur honela: *etcen hambat martyrio ez hain latcic...* Honela esan balu, 4/4 eskema hobeki gordeko zukeen, gainera. *Hambat* eta *hain* horien korrelatoa bi bertso beherago dago: *cembat...*; hots, «No hubo tantos ni tan crueles martirios... como...».

1857. *ohoraracitcecotzat*: ikus 1838: han -ko atzizkia, hemen -*kotzat*: ikus 1317; 777.

1858. *berea*: hots, *bere icen laidoz bethea*. Hauxe esan nahi du poetak: Antekristok bere izen laidoz betea ohorarazitzeko asmatuko duen bezanbat martirio... ez zela izan Elizaren odolezko mendean, Kristo hil ondoko urteetan.

*Hoberentzat aithorturen dute kbristau legea  
eta gaitzetsiren haren kontrako den artea.*

Antekhris(k)tu(k)en krus(e)an kontra.

1850 *Ikhusirik Antekbristek prestuen ausartzia,  
bil beharrez asma abal eginen du guztia.*

*Hira deskargaturen du hala nola leboinak  
eta podore guztiaz tormentaturen onak.*

*Aserrerik iarraikiren zaie handi ttipiei,  
haren izenari agur egin nahi gabeei.*

*Behiala Elizaren odolezko mendean  
hanbat martirio etzen, ez hain latzik lurrean,*

*ohorarazitzekotzat izen laidoz bethea  
zenbat Antekbristek baitu asmaturen berea;*

1860 *alabainan direlarik handi suplizioak,  
eztu ukhaturen Iesus ona girstinoak,*

*bainan gaineke kargari nola palmak handia  
abalaz obi baitio egin resistentzia,*

*hala Iesus aithortua tirano berriari  
fermuki egonen zaio, Antekhris(k)tu(k)en gaixtoari,*

*eta zenbat ere krus(e)an baituke tirania,  
haren kontra hanbat daite kbristaua erakutsia.*

---

1860. *Iesus ona*: zesurak erditik ebaki du.

1862. *resistentia*: izen sintagma hemen ere — *resistentia handia*, alegia — bitan zatitu eta bertso banaren azkenerako gorde ditu bi zatiak; lehenean adjetiboa eta bigarrenean izena ipinirik, gainera.

1863. *Iesus aithortua*: hots, Iesus aitortuko duena; *aithortua* aktibo da, beraz. Ikus 1711.

*tyranno berriari*: sintagma hau ondoko bertsoak dioen *Antekhris(k)tu(k)en gaixtoari*-ren aposizio baizik ez da.

1865. *eta cemat*: honen korrelatua ondoko bertsoan dago: *hambat*. Irakur honela: *hambat Christau(a) daite haren kontra erakutsia*: ikus 1234.

*Berriz Sathanen puchantça aguerturen.*

- Berriz ere aguerturen da ahal Sathanena  
Alfer eman etçaiola Princearen icena  
Nola espantatcen baitu dragoñac mariñela  
1870 Halaber icituren du Antechristec fidel

*Onen resistentia.*

Hala ere señalecto da onen iraupena  
Guiristino çahar eta Iudu itçuliena  
Ecen ascoc escañiren du libroqui bicia  
Eta garaituco çahar Martyrien lehia  
Gutziz ere Abrahamen casta berantiarrac  
Iraganen ordain ditu eracutsiren kharrac  
Azken iuiamenduraco dembora anartean  
Huts eguiñen recompensa alleguia finean.

*Henoc eta Helias billen tu.*

- Bañan nola guerlatetan soldaduen furiac  
1880 Bercetariç hill baititu nahi buruçaguiac  
Hala Antechrist iarraiquiren çaiçi buruçaguiçi  
Henoc Saindu eta Helias Iaincoac egorriçi  
Bercetariç hei daroe guerla declaraturen  
Eta fiñean cruelqui ditu hill araciren.

*Bitzturen dire.*

Bañan miraculluetan miracullu handia  
Sarri Iaincoac daroe bihurturen bicia

---

1867. *ahal Sathanena*: hots, *Sathanen abala*.

1871. *señalecto da*: hots, seinalatuko edo nabarmenduko da.

1874. *çahar*: hots, martiri zaharren lehia.

1876. *iraganen ordain*: hots, iragan gauzen ordainez.

1877. *azken*: bi bertsook aski ilunak dira: hauxe esan nahi bide du poetak:  
Abrahamdarren kharrak edo garrak izango dira, azken iuiamenduaren  
garaia heldu bitartean lehengo hutseginen sari bezala azkenean egingo  
dituztenak.

Berriz Sathanen puxantza agerturen.

*Berriz ere agerturen da abal Sathanena,  
alfer eman etzaiola prinzearen izena,  
nola espantatzen baitu dragoinak marinela,  
1870 balaber izituren du Antekbristek fidela.*

Onen resistenzia.

*Hala ere seinaleko da onen iraupena,  
girstino zahar eta iudu itzuliena,  
ezen askok eskainiren du libroki bizia  
eta garaituko zahar martirien lehia.  
Guztiz ere Abrahamen kasta berantiarrak  
iraganen ordain ditu erakutsiren kharrak,  
azken iuiamendurako denbora anartean  
huts eginen rekompensa alegia finean.*

Henok eta Helias hilen tu.

*Bainan nola gerlatetan soldaduen furiak  
1880 berzetarik hil baititu nabi buruzagiak,  
hala Antekhris iarraikiren zaie buruzagiei,  
Henok saildu eta Helias Iainkoak egorriei.  
Berzetarik hei daroe gerla deklaraturen  
eta finean kruelki ditu hil araziren.*

Bitzuren dire.

*Bainan mirakuiluetan mirakuilu handia,  
sarri Iainkoak daroe biburturen bizia;*

- 
1880. *bercetaric*: irakur honela: *hill nabi baititu*, zesurak *nabi* bereiz utzi duen arren, Etxeparengan inoiz ez bezala.
1881. *iaraiquiren*: hala dio liburuak, baina *iarraquiren* behar du.  
*Antekhris*: mugatzailerik gabe dago.
1882. *eta Helias*: ikus 1806.  
*egorriei*: hots, Iaincoac *egorri buruçaguiei*.
1883. *hei daroe*: hots, *baiei die*.

Hirur garren egunean bere hobietaric  
Altchaturen ditu bieï bicia bihurturic.

*Cerurat iganen.*

1890 Anda eder batçuetan ohorezqui Cerura  
Guero altchaturen ditu dohatsuen lekhura.

*Munduan ibillico diren epha.*

Hirur urthe eta aphur batez duquete predicatu  
Bicitcea çaieneco martyrioz fiñatu.

*Bitzturen da onen gogoa.*

Aphurtcho bat biztucò da tristatuen gogoa  
Ikhussiric hequin alde hari dela Iaincoa

Bi Prophetac dituela hilletaric altchatu  
Eta mundutic Sainduen soïllarura aldatu

Hala recompensaturen dituela berceac  
Ceñac baitituzte haren guardaturen legueac.

*Hurbilltcen Antechristen fiña.*

1900 Bizquitartean hersturen da Antechrist ephera  
Cembat Iaunac permetitu baitioque lucera

Sarri dohacabequi du mendea fiñaturen  
Eta ospea da mundu guztira banaturen.

*Mundua tormentaturen du.*

Damuturic falsoari onen bozcarioa  
Heï egunac laburtcera emanen du gogoa

- 
1891. *hirur*: lehen bertso erdian bi elisio egin behar da: *-e e-* eta *-a a-*.  
*duquete predicatu*: gatzelaniaz *futuro perfekto* deritzaguna da: «habrán predicado».
1892. *çaieneco*: hots, *fiñatu zaieneco*: «para cuando...».
1893. *biztucò*: hori bera zortzi bertso goragoko tituluan *bitzturen* esan du;  
baita honen beronen tituluan ere.
1894. *hequin alde*: hots, *baien alde*; genitivoa da, beraz, *hequin*.  
*hari*: *h-* duelarik, Etxeparek ez bezala.



*hirugarren egunean bere hobietarik  
alxtaturen ditu, biei bizia biburturik.*

Zerurat iganen.

1890 *Anda eder batzuetan oborezki zerura  
gero alxtaturen ditu dobatsuen lekhura.*

Munduan ibiliko diren epea.

*Hirur urthe eta aphur batez dukete predikatu,  
bizitzea zaieneko martirioz finatu.*

Bitzturen da onen gogoia.

*Aphurtxo bat biztuko da tristatuen gogoia,  
ikhusirik bekin alde hari dela Iainkoa,*

*bi profetak dituela hiletarik alxtatu  
eta mundutik sainduen soilarura aldatu,*

*hala rekompensaturen dituela berzeak,  
zeinak baitituzte haren guardaturen legeak.*

Hurbiltzen Antekhristen fina.

1900 *Bizkitartean hersturen da Antekhris ephera,  
zenbat Iaunak permetitu baitioke luzera.*

*Sarri dobakabeki du mendea finaturen  
eta ospea da mundu guztira banaturen.*

Mundua tormentaturen du.

*Damaturik falsoari onen bozkarioa,  
hei egunak laburtzera emanen du gogoia.*

---

1899. *Antechrist*: ikus 1881.

1900. *cemba*: hitz hau azkeneko *lucera*-ri lotu behar zaio: «...al límite de tiempo que el Señor...»; baina hitzez hitz «*cuan largo el Señor...*». *permetitu baitioque*: hau ere *futuro perfekto* delakoa: ikus 1891.

1903. *damaturic*: hau eta beste (1787) harako hura, bat izanik ere, ez dira zentzu bereko: han *urrikaldu* esan nahi du; hemen, aldiz, *neke izan*, *gaitzi izan*. Ohar, hemen dativoa daramala.

Lehen baño guehiago are ahal guztia  
 Emplegaturen du nola hill Iesus onhetsia  
 Hala nola mendietan orkhatz lasterlaria  
 Iratchaquitcean orec lephotic assiquia  
 Egundaño ez beçala ioaten baita aitciña  
 1910 Ceren bercela dakhstan bicitcearen fiña  
 Halaber du Antechristec guehien podorea  
 Emplegaturen hurbilltcean çaionean ephea.

*Guztiac aspiraturen.*

Tormentaren podorez du icituren mundua  
 Non ona egonen baita beldurrez ichilldua  
 Altchatcera ezta nihor ausarturen contrara  
 Milla burreu ez dathocen non haren tormentara.

*Antechristen fiña.*

Hala duenean bada hissia aitciñatu  
 Eta onei penen lotsaz aharantça tapatu  
 Olibetco mendira da urguilluric iganen  
 1920 Eta Cerura igateco iduri du eguiñen  
 Enganatu dituenac beguiac itçuliric  
 Beguira egonen çaiçco miracullu etsiric

*Iesus Christoc bondaturen du.*

Guehiago Iesus Christoc eztu suportaturen  
 Bañan bere etsaia du lecera etchaturen

1905. *guehiago are*: hori ia beti atzekoz aurrera esan ohi da.

1906. *nola hill*: zehar galdera da; ea nola hilko duen, alegia. Zesura dago bien erdian.

*Iesus onhetsia*: ez du Jesus hil nahi, baizik Jesus maite duena: ikus 1863. *Onhetsia* aktivo da, beraz.

1907. *hala nola*: protasia lau bertso luzatzen da eta apodosia 1911an hasten: *Halaber du...*

1908. *iratchaquitcean*: hots, *asikia iratxaki* edo ozka egin.

1911. *guehien podorea*: hots, podore(rik) gehiena: ikus 3329.

1914. *non*: ez du *munduan* egongo dela esan nahi, baizik «por lo cual» edo «con lo cual»: ikus 1740.

*Lehen baino gebiago are abal guztia  
 enplegaturen du, nola hil Iesus onhetsia;  
 hala nola mendietan orkbatz lasterlaria  
 iraxakitzean orek lephotik asikia  
 egundaino ez bezala ioaten baita aitzina,  
 1910 zeren berzela dakhusan bizitzearen fina,  
 halaber du Antekhristek gebien podorea  
 enplegaturen, hurbiltzen zaionean epea.*

Guztiak azpiraturen.

*Tormentaren podorez du izituren mundua,  
 non ona egonen baita beldurrez ixildua.  
 Altxatzera ezta nihor ausaturen kontrara,  
 mila burreu ez datbozen non haren tormentara.*

Antekhristen fina.

*Hala duenean, bada, hisia aitzinatu  
 eta onei penen lotsaz abarantza tapatu,  
 1920 Olibetko mendira da urguilurik iganen  
 eta zerura igateko iduri du eginen.  
 Enganatu dituenak begiak itzulirik  
 begira egonen zaizko mirakuilu etsirik.*

Iesus Khristok hondaturen du.

*Gebiago Iesus Khristok eztu suportaturen,  
 bainan bere etsaia du lezera etxaturen.*

- 
1916. *non*: aurrekoa ez bezala, hau perpaus erdian kokatua dago: ikus 1414.  
 Dirudienez, honako honek balio finala du: «no sea que», «para que  
 no».  
 1917. *bissia*: maiz ageri da Etxeberrigan: Etxeparek hori bera latinezko hitzez  
 «porfidia» dio: XII,37.  
 1918. *abarantça*: ikus 76.  
 1920. *iduri*: *-ko iduri egin*: itxura hori egingo du, baina ez da igoko: ikus  
 1709, *thailua*.  
 1921. *dituenac*: nominativo da eta *egonen çaiçco* du adizkia.  
 1922. *miracullu etsiric*: hots, zantzu edo miraria dela uste izanik.

- Igan nahiari çαιο ethorriren aitiña  
 Colerarequin eguiten dioela hitz miña  
 Beguiac suz dituela, issuria bissaia,  
 Asserre ethorriren da ventçutceco etsaia  
 çaldi churian igana arnesaz armatua  
 1930 Izterrean dakharrela urrezco scribua  
 Ni nauc Erregue guztien puchant Emperadore  
 Enequien erçhatceco norc du hambat podore  
 Milla Aingueru tuela Ezcutari hautatu  
 Hala Christoc nahico du combatera khechatu.

*San Miguelec bondaturen du.*

- Antechristen hurbillera eguin eta bidea  
 Hitz larriz manaturen du Miguel Connestablea  
 Hain behera egotz deçan haren contra iaiquia  
 Cembat gora igateco baitu urgulleria  
 1940 Ecen eztu bere indarric nahico emplegatu  
 Bañan Miguelen bessoz nahico du cerbitu  
 San Miguelec adituric Iesus Christen manua  
 Ezpatara emanen du berehala escua  
 Billuciric bada harma aho çorrotcecoa  
 Behera egotciren du guiçon enganozcoa  
 Lurrac aho idequiren du hartçaz egarria  
 Eta hala gaichto harc du eguiñen fin larría  
 Lehen ere San Miguelec munduaren hastean  
 Lucifer ventçutu çuen sendoqui combatean

- 
1925. *igan nahiari*: hots, igo nahi duenari: ikus 1854.  
 1926. *colerarequin*: hemen ez dio *-requien*: ikus 1453.  
*dioela*: beti hala dio, ez *diola*.  
 1930. *scribua*: *eskribua* irakurri behar da, lau silabaz.  
 1931. *puchant Emperadore*: hots, *emperadore puchant(a)*.  
 1932. *enequien*: ikus 1453: ez dio *enekin*.  
 1935. *eguin eta*: ikus 1293.

*Igan nabiarri zaio ethorriren aitzina  
kolerarekin egiten dioela hitz mina.*

*Begiak suz dituela, isuria bisaia,  
aserre ethorriren da bentzutzeko etsaia.*

1930 *Zaldi xurian igana, arnesaz armatua,  
izterrean dakbarrela urrezko eskribua:*

*«Ni nauk errege guztien puxant enperadore,  
enekien erkhatzeko nork du hanbat podore?».*

*Mila aingeru tuela ezkutari hautatu,  
hala Khristok nabiko du konbatera khexatu.*

San Migelek hondaturen du.

*Antekbristen hurbilera egin eta bidea,  
hitz larriz manaturen du Migel konestablea,  
hain behera egotz dezan haren kontra iaikia,  
zenbat gora igateko baitu urguileria,*

1940 *ezen eztu bere indarririk nabiko enplegatu,  
bainan Migelen besoaz nabiko du zerbitu.*

*San Migelek aditurik Iesus Khristen manua,  
ezpatara emanen du berehala eskua.*

*Biluzirik, bada, harma abo zorrotzekoa,  
behera egotziren du gizon enganozkoa.*

*Lurrac abo idekiren du hartzaz egarria  
eta hala gaixto hark du eginen fin larria.*

*Lehen ere San Migelek munduaren hastean  
Luzifer bentzutu zuen sendoki konbatean.*

---

1937. *hain behera... cembat*: hizkuntza erromanikoen gisara: «para que lo derribe tan bajo como...». Baina egia esateko, eta Lafonek dioen bezala hizkuntza erromanikoen kutsua ukatu gabe ere, aitortu beharra dago maiz ez dela batere erraz hizkuntza erromanikoz hori bera ematen. Euskarak bere zigilua ezarri die.

1940. *cerbitu*: eta *cerbitçatu*, biak darabiltza: ikus 551; 828.

1945. *abo*: mugagabe, ez *aboa*. Agian *abo* egarria delako sintagma osoa.

1950 Fiñac hasteari behar dioque ihardatsi  
Eta Miguelec Antechrist Ifernura iraitci.

*Hari iarraiquien fiña.*

Bicitce gaichtoac fin gaitz comunqui du eguiten  
Antechristi iarraiquiec hala dute eguiñen

Ecen sarri iauntsiren da Cerutic oihutia  
Ahurraren berdiñeco biribillez harria

Bai eta suffre idorraz iratchaqui mulçoac  
Musquetac egotci ohi tuen beçalacoac

Hala fiñaturen dire erguel eta ariñac  
Messiassen defendaco cein ezbaicitiren fiñac

1960 Itçurientçat dagoque guerla eta içurri  
Ecen ihes eguita gaitz da Iongoicoari

Hala diot fiñaturen dela Antechrist gaichtoa  
Hala ere iarraiquico hari çaion campoa

Fiñac declaratu ohi du nihoren bicia  
Bai eta Antechristenac haren gaichtaqueria.

*Antechristen ephea.*

Hirur urthez eta erdiz Iongoicoac attiça  
Permetituren dioque nekha deçan Eliça

- 
1949. *behar dioque ihardatsi*: hau ere *futuro perfekto* delakoa ote? Ikus 1900 eta 1891: «habrá debido corresponder» (?).
1950. *Antechrist*: mugagabe: ikus 1899.
1951. *fin gaitz*: hau ere mugatzailerik gabe.
1953. *oihutia*: hots, *harri oihutia*, bi zatiak bereizi eta bakandurik badaude ere.
1954. *ahurraren berdiñeco*: hots, ukabilaren pareko harri oihutia. Lhandek honela dio: «une pierre grosse comme le poing»: ikus Hiztegia, *bardin*; or. 109.  
*biribillez*: edota biribil izatez ukabila adineko harria.
1955. *bai eta*: bertso hau honela itzultzen du Lhandek: «des blocs enflammés de souffre sec»: ikus, *Dictionnaire basque-français*, or. 749. *multzo*. Aurreko bertsoa, aldiz honela: «Et bientôt descendra du ciel une grêle bruyante»: ikus Hiztegia, *oihuti*, or. 796.
1956. *musquetac*: hots, «mosquete» deritzan xixpa edo arma.
1958. *defendaco*: hots, defendarako: ikus 735; 898; 1417.

1950 *Finak hasteari behar dioke ibardatsi  
eta Migelek Antekbrist ifernura iraitzi.*

Hari iarraikien fina.

*Bizitze gaixtoak fin gaitz komunki du egiten,  
Antekbristi iarraikiek hala dute eginen,*

*ezen sarri iauntsiren da zerutik oihutia,  
aburraren berdineko biribilez harria,*

*bai eta sufre idorraz iratxaki multzoak,  
musketak egotzi obi tuen bezalakoak;*

*hala finaturen dire ergel eta arinak,  
Mesiasen defendako zein ezbaitziren finak.*

1960 *Itzurientzat dagoke gerla eta izurri,  
ezen ihes egitea gaitz da Iongoikoari.*

*Hala diot finaturen dela Antekbrist gaixtoa,  
hala ere iarraikiko hari zaion kanpoa.*

*Finak deklaratu obi du nihoren bizia,  
bai eta Antekbristenak haren gaixtakeria.*

Antekhristen ephea.

*Hirur urthez eta erdiz Iongoikoak atiza  
permetituren dioke, nekha dezan Eliza;*

---

1959. *içurri*: mugagabe.

1962. *iarraiquico hari*: irakur ezazu honela: *hari iarraiquico çaiion campoa*. Eskemak bortxatu du horretara.

*hala ere*: ez da adversativa, baizik elipsi batetik sortua; hots, *hala diot finaturen dela ere...*

1963. *obi du*: zesurak erdibitzen dituelarik daude.

*nihoren*: impersonala da, bestetan ere ikusi dugunez: ikus 1761.

1964. *haren*: ez bere; Antekristen finak ez du, izan ere, *fin horren* gaixtakeria deklaratu, baizik Antekristena.

1965. *hirur urthez eta erdiz*: lehen (1891) bestela esan du horren antzeko sintagma: *hirur urthe eta aphaur batez*: hots, lehen zatiak -z hartzen ez zuelarik.

*attiça*: hots, egokiera, aukera: ikus 2255.

1966. *permetituren dioque*: ikus 1899; baina hemen, han ez bezala, partizipioa hirugarrena da.

Handic hara lurrac orain erran dugun beçala  
Hurrupaturen du aho idequiric çabala.

*Mundu guztia conuertituren da.*

- 1970 Iraganac adituric bazter urrun certhana  
Lehiaca itçuliren da Iesus Christo gana  
Iainco Semea aithorturen du bici den guztiaç  
Eta laudaturen ditu harc legue ifniac  
Eder içanen da beraz nationen artean  
Beguietztea accordu bat Religionean  
Bat bederac eramanen du bicitce prestua  
Ecen hala içanen da Iesus ohoratua  
Harc ere ordañez ditu betheren ontassunez  
Mende urrezcoa lehen itçuliric egunez

*Berriz gaichtaturen da.*

- 1980 Bañan nola abusatcen baitu nihorc franquiiaz  
Hala orducoec ere hain ontassun handiaz  
Doloreac ahantciric bere placeretara  
Vorondateac emanen dituzte vanotara  
Ecen eztute içanen Iongoicoaren ardura  
Bañan itçuliren tuzte gogoetac mundura.

*Iujamendua burbillduren da.*

Guero sarri içanen da azkhen Iujamendua  
Cer demboraz Cerüan da Iongoicoaz neurthua

- 
1968. *idequiric: abo çabala* den sintagmaren erdian sartu du poetak.  
1969. *bazter urrun certhana*: honela behar luke, dirudienez: *certhan bazter urruna*, edota *bazter certhan urruna*, bi lehen hitzak konposatu gisa hartzen badira.  
*certhana*: hots, lurralde, eskualde. Ikus Lhanderen hiztegia, or. 1083.  
1971. *bici den guztiaç*: lehen *bici* gabe esan du: ikus 1492.  
1972. *harc legue ifniac*: hori honela ere esan ohi du: *harc ifini legueac*: ikus 497.  
1974. *beguietztea*: -tz- hori -ts- baten ordezt dago; baina ez da, agian, inprenta hutsa, baizik poetaren segurantzarik eza, leherkarien aurrean zenbait xixtukari idazterakoan: ikus 1339; 2007, hemen -ts- duelarik.  
*accordu bat*: zesura bien artean dutelarik; Etxeparegan inoiz ez.



*handik hara lurrak, orain erran dugun bezala,  
hurrupaturen du, abo idekirik zabala.*

Mundu guztia konbertituren da.

- 1970 *Iraganak aditurik, bazter urrun zertzana  
lehiaka itzuliren da Iesus Khristo gana.*  
*Iainko Semea aithorturen du bizi den guztiak  
eta laudaturen ditu hark lege ifiniak.*  
*Eder izanen da, beraz, nazionen artean  
begietstea akordu bat relijionean.*  
*Batbederak eramanen du bizitze prestua,  
ezen hala izanen da Iesus ohoratua.*  
*Hark ere ordainez ditu betheren ontasunez,  
mende urrezkoa lehen itzulirik egunez.*

Berriz gaixtaturen da.

- 1980 *Bainan nola abusatzen baitu nihork frankiaz,  
hala ordukoek ere hain ontasun handiaz.*  
*Doloreak ahantzirik, bere plazeretara  
borondateak emanen dituzte banotara,  
ezen eztute izanen Iongoikoaren ardua,  
bainan itzuliren tuzte gogoetak mundura.*

Iuiamendua hurbilduren da.

*Gero sarri izanen da azken iuiamendua;  
zer denboraz, zerüan da Iongoikoaz neurthua.*

- 
1979. *niborc*: hemen ere inpersonala: ikus 1963.  
*franquiaz*: *franko* adjetivoari dagokion izena: ikus 354.
1982. *vanotara*: *bere placer vanotara* da hor sintagma osoa, baina beste askotan bezala zatitu eta zatiak barreiatu egin ditu.
1983. *Iongoicoaren*: lau silaba baizik ez du: *Iongoikwaren*; esan zezakeen, beraz, *Iainkoaren*.
1986. *cer demboraz*: zehar galdera bezala hartu behar bide da; elipsia da, beraz: *hots, cer demboraz izango den*.  
*Iongoicoaz*: edo *Iongoikoak* hobeki: ikus 2140, *çuetçaz*; baina baita 2163 ere.

Apostoluec eguin çuten eguin haren galdea  
Ordean erran citçaien cela gauça gordea.

*Señaleac aguerturen dire.*

- 1990 Aitcinec aguerturen dirade señaleac  
Gorputz arima gabetan handi eta tristeac  
Ecen urratu beharco sarri duen munduac  
Aitcinean ekharriren ditu bere doluac  
Guiçonec ere halaber bihotcetan handia  
Ethorri beharrez dute içanen tristetia  
Ecen bere baithan dire haguitz iharrossiren  
Abreec ere dituzte marhubiac eguiñen.

*Ceruaren señaleac.*

- 2000 Ceruan dire mudantça handiac aguerturen  
Ecen bere colorea dute gambiaturen  
Iraciren dire mundu ederraren beguiac  
Iguzqui, ilhargui eta herce arguiçaguiac  
Bidecoa moment oro da behatztopaturen  
Eta ezta ibilltçera bidetan ausarturen  
Escripturac famatcen du goibel Egyptucoa  
Bañan etcen hunequien hura erkhatcecoa  
Señaleac handi ciren Pharaon galtcecoac  
Bañan orducoac behar dute handiagoc  
Hurbill eztute guiçonec elkhar beguietsiren  
Eta hunec berac ditu asqui iharrossiren.

- 
1987. *Apostoluec: apostolwek* ahoskatu behar da.  
*eguin çuten eguin*: hots, egin, bai, egin zuten.
1990. *gorputz arima gabetan*: bitara uler daiteke: gorputzik ez arimarik ez du-  
tenetan nahiz arimarik ez duten gorputzetan.  
*handi eta tristeac*: seinaleak, alegia, dirateke halakoak: ikus 532.
1991. *sarri*: ez dagokion lekuan sartua dago, *urratu beharco duen* berez ezin  
printzatuzko sintagma bait da: ikus 1962.
1993. *handia*: berez *tristetia handia* da sintagma.
1996. *marhubiac*: hots, marrakak, marruak edo makakorroak.

*Apostoluek egin zuten egin haren galdea,  
ordean erran zitzaien zela gauza gordea.*

Seinaleak agerturen dire.

1990 *Aitzinetik aguerturen dirade seinaleak,  
gorputz arima gabetan handi eta tristeak,  
ezen urratu beharko sarri duen munduak  
aitzinean ekharriren ditu bere doluak.*

*Gizonek ere halaber bihotzetan handia  
ethorri beharrez dute izanen tristezia,  
ezen bere baitan dire bagitz ibarrosiren,  
abreek ere dituzte marhubiak eginen.*

Zeruaren seinaleak.

*Zeruan dire mudantza handiak agerturen,  
ezen bere kolorea dute ganbiaturen.*

2000 *Iraziren dire mundu ederraren begiak,  
iguzki, ilhargi eta berze argizagiak.*

*Bidekoa moment oro da behaztopaturen  
eta ezta ibiltzera bidetan ausarturen.*

*Eskripturak famatzen du goibel Ejiptukoa,  
bainan etzen hunekien hura erkbatzekoa.*

*Seinaleak handi ziren Faraon galtzekoak,  
bainan ordukoak behar dute handiagoak.*

*Hurbil eztute gizonek elkhar begietsiren  
eta hunek berak ditu aski ibarrosiren.*

- 
1999. *iraciren*: guk iragazi esan ohi dugunaren pareko dirudi, «*Coelum et terra transibunt*» delako haren iruzkina.
2001. *bidecoa*: ez dakar Lhandek *bide*-ren hitz erakarrien artean (*bidezko*-, bai, noski, baina beste zentzuz); halaz ere, *oinezko*-ren kide dirudi.
2003. *goibel*: izena da hemen: *hodei*, alegia.
2004. *hunequien*: komitativoa da: ikus 1932.
2005. *galtcecoac*: hots, galtzeko seinaleak.
2006. *orducoac*: zergatik ez *ordukoek*?
2007. *beguietsiren*: ikus 1974; hemen *-ts-* idatzi du, ez bait dago, han bezala, leherkari aurrean.

*Gurutce bat Ceruan aguerturen da.*

- 2010 Gurutcearen bandera guero Ceru belcean  
Aguerturen da aiphatu illhumbeen artean  
Iguzquia iaiquitcetic etcite lekhuraño  
Eta Ipharretic haice bero Hegoaraño  
Guehiago claraturen du ecen Iguzquiac  
Ceña eracusten baitu eder eguraldiac  
Claroqui oñhazturen du munduaren gañean  
Haric eta haren fiña ethor dadin artean.

*Mundua icituren da.*

- 2020 Guïçonetan sarthuren da handi icialdura  
Ceren gatic aguertu den gurutcea Cerura  
Nori bere ethorriren çaiçco faltac gogora  
Ea certan eman duen iaioz guero dembora  
Gurutcea misterio gabe eztela aguertu  
Ezta Iguzquia ere coloreaz gabetu  
Princeec ohi dutela erakharri bandera  
Nahi dutenean guerla eguiteco athera  
Hala duela Iessussec eraguiten berea  
Ceren iautsi nahi duen iuiatcera gendea  
Ceren haren gatic duen herioa pairatu  
Eta hura alabañan hain guti probetchatu

---

2010. *aiphatu*: guk *aipatutako* esan ohi duguna.

2011. *iguzquia iaiquitcetic*: ez dio *iguzkiaren*, hemen *iguzkia iaiquitzea* (hegoaldekook honela ulertzen duguna: «el levantarse o el hecho de que se levante el sol») bait dago izen konposatua bailitza bere osoan deklinatua. Bandera horrek *nondik noraino* argituko duen eman nahi digunez gero poetak aditzera, badirudi, *etcite lekhuraño* horren pare, *iguzquia iaiquitce lekbutic* esan nahi duela. Beraz, hondarraren hondarrean biok: *eguzkia jaikitze lekua* eta *eguzkia etzite lekua*.

2012. *haice bero*: zesurak erdibiturik.

*begoaraño*: *haice bero*, agian, *Hegoa*-ren aposiziotzat hartu behar da, dirudienez; guk bien artean *den* ipinirik hobeki aditzen dugu. Ikus, gainera, 1740.

2014. *eder eguraldiac*: hots, *eguraldi ederrac*.

Gurutze bat zeruan agerturen da.

2010 *Gurutzearen bandera gero zeru belzean  
agerturen da aiphatu ilhunbeen artean.*

*Iguzkia iaikitzetik etzite lekburaino  
eta ipharretik haize bero hegoaraino  
gebiago klaraturen du ezen iguzkiak,  
zeina erakusten baitu eder eguraldiak.*

*Klaroki oinhazturen du munduaren gainean,  
harik eta haren fina ethor dadin artean.*

Mundua izituren da.

*Gizonetan sarthuren da handi izialdura,  
zerengatik agertu den gurutzea zerura.*

2020 *Nori bere ethorriren zaizko faltak gogora,  
ea zertan eman duen iaioz gero denbora.*

*Gurutzea misterio gabe eztela agertu,  
ezta iguzkia ere koloreaz gabetu.*

*Prinzeek obi dutela erakharri bandera,  
nabi dutenean gerla egiteko athera;*

*hala duela Iesusek eragiten berea,  
zeren iaitsi nabi duen iuiatzera jendea,  
zeren haren gatik duen herioa pairatu  
eta hura, alabainan, hain guti probetxatu.*

---

2016. *haric eta*: ez du beti modu berean erabiltzen; hemen osagarri *artean* ipini  
dio gero: ikus 976; 1102; 3547.

2017. *handi icialdura*: hots, *icialdura handia*.

2018. *ceren gatic*: Etxeparegan (IX,10) balio finala du, erlatibo gisako delarik;  
beste pasartean, aldiz, galderazko adverbioa da (III,9). Etxeberriren  
honek Etxepareren bigarrenaren antz handiagoa du, ene ustez; zehar  
galdera dirudi: «ea zergatik agertu den» galdatuko dute izialdura  
handiz. Kausaltzat hartzeari baino hobe deritzat horri: ikus 660, adiz-  
kiak *bait-* duelarik; hemen ez, ordea.

2019. *nori bere faltac*: hori da sintagma, nahiz urratua egon.

2021. *mysterio gabe*: zesura erdian dutelarik.

2022. *gabetu*: beti *-z* du osagarri: ikus 1029.

- 2030 Sinhetsgorrac guehienic dire ikharaturen  
Ceren Iesus ona baithan fede eman etçuten  
Bañan edoceñec duque larri bere gogoa  
Ceren cerbitçatu ungui eztuen Iongoicoa.

*Hala ere ezta iaquiñen, noiz içanen den.*

Hala ere ezta iaquiñen noiz behar den iuiatu  
Ecen Iaincoac du bethi iduquiren secretu  
Egunetic egunera bethi dela hurbilltcen  
Asqui señalet latcez du aditcera emanen  
Ordean declaraturen eztu azken ordua  
Bethiere dagoentçat bakhotcha prestatua

*Berriz ez-antsiaturen mundua.*

- 2040 Ikhussiric mundanoec egun hura guibela  
Eta aphaintceco asti aphur ematen dela  
Pensamenduac dituzte itçuliren mundura  
Eta eztute içanen Iongoicoaz ardura  
Munducoec hala dute eguiñen berehala  
Ikhussiric iuiatcera Iesus iautsten eztela.

*Sarri berce espantuac.*

Bañan sarri ethorriren da hequin atçartcera  
Espantua berriroqui espantuen gañera  
Hauc guztiac presta daiten dirait abisuac  
Eta onera detçaten itçul pensamenduac.

*Elementetan señaletac.*

- 2050 Beguietan eçagun da presunen tristetia  
Baita Ceruan orduco laceria handia

- 
2032. *ceren*: honela esatea aski zuen, bertso biribilagoa ontzeko: *ceren ungui cerbitçatu eztuen Iongoicoa*. Hartara lehen bertso erdiak 4/4 zukeen.  
2038. *dagoentçat*: subjuntivoak balio finala duenean hartzen duen atzizki hau bestetan ere ikusi dugu: ikus 519.  
2039. *guibela*: hots, urrun, urruti. Honela itzultzen du Lhandek bertso hau: «ayant vu que ce jour était loin». Ikus Hiztegia, *gibel* II, or. 355-356.

2030 *Sinhetsgorrak gehienik dire ikbaraturen,  
zeren Iesus ona baithan fede eman etzuten,  
bainan edozeinek duke larri bere gogoa,  
zeren zerbitzatu ungi eztuen Iongoikoa.*

Hala ere ezta iakinen, noiz izanen den.

*Hala ere ezta iakinen noiz behar den iuiatu,  
ezen Iainkoak du bethi idukiren sekretu.  
Egunetik egunera bethi dela hurbiltzen,  
aski seinale latzez du aditzera emanen,  
ordean deklaraturen eztu azken ordua,  
bethiere dagoentzat bakotxa prestatua.*

Berriz ez-antsiaturen mundua.

2040 *Ikhusirik mundanoek egun hura gibela  
eta aphaintzeko asti aphur ematen dela,  
pensamenduak dituzte itzuliren mundura  
eta eztute izanen Iongoikoaz ardura.  
Mundukoek hala dute eginen berehala,  
ikhusirik iuiatzera Iesus iautsten eztela.*

Sarri berze espantuak.

*Bainan sarri ethorriren da bekin atzartzera  
espantua berriroki espantuen gainera.  
Hauk guztiak presta daiten diraitte abisuak  
eta onera detzaten itzul pensamenduak.*

Elementetan seinaleak.

2050 *Begietan ezagun da presunen tristezia,  
baita zeruan orduko lazzeria handia.*

---

2040. *asti aphur*: zesura erdian dutela.

2045. *bequin atçartcera*: guk baiek esnatzera esan ohi duguna; *bequin* genitivoa, beraz: ikus 1894.

2046. *berriroqui*: ikus 85.

2047. *hauc*: irakur honela: *hauc abisuac diraitte guztiac presta daiten. diraitte*: edo *dirate*, gure *dirateke*.

- Elementa guero simple lekhu beherecoan  
 Su, Aire, Itsasso eta Lehor cimenduzcoan  
 Ceruaren contra dire aguerturen cometac  
 Eta soldadu coleraz betheen escuquetac  
 Haiceec soñu eguiñen dute nola trumpetac  
 Eta Aireac habarrots alleguia musquetac  
 Gendea du harrituren ozpiñen garhassiac  
 Bai eta lilluraturen sismistec bi beguiac  
 Uri eta babaçuçac noiz daitezqueen ahi  
 2060 Guericean egonen da gende guztia gueldi  
 Itsassoa hala nola ur mendia airera  
 Asserreric iganen da parteric gorenera  
 Eracutsiren du lehen ez beçala colera  
 Eta ezta ausarturen nihor itsastatcera  
 Lehorrean gutiago eztaiteque cer eguin  
 Ecen animal mutuec eztuquete atseguin  
 Mendi gorac higituren dire eta naueac  
 Eta abreec dituzte largaturen leceac  
 Guehienic orduan da mundua icituren  
 2070 Lastima hauc noiz baitute etchean cerkhaturen.

*Oraño mundua sossegaturen da.*

Hauc guztiaç ioanen dire Iaincoari eskuerra  
 Uriaren ondoan da noizbat dembora ederra

- 
2051. *elementa*: irakur honela: *guero lekhu behereco elementa simplean*.  
 2054. *soldadu*: honela errazago ulertzen da: *eta coleraz bethe soldaduen escuquetac*. Lhandek honela itzuli du: «il y aura des combats de soldats pleins de fureur». Ikus Hiztegia, *eskuketa*, or. 279.  
 2055. *nola*: konparaburuaren aurrean ezarria: ikus 126.  
 2056. *alleguia*: ikus Lhanderen itzulpena: «le bruit des vents semblable à celui des mousquets»: *alegia*, or. 31.  
 2057. *ozpiñen garhassiac*: Lhandek: «le fracas du tonnerre effraiera les gens»: Hiztegia, *garhasi*, or. 338.  
 2058. *sismistec*: ez dakar Lhandek, *simista* bai baino. Ikus 2807.  
 2059. *uri eta babaçuçac*: hots, euri eta kaskabarrak.  
*noiz daitezqueen ahi*: Lhandek honela: «attendant le moment où cesseront»: ikus *geriza*, or. 351.



*Elementa, gero, sinple lekhu beherekoan  
su, aire, itsaso eta lehor zimenduzkoan.*

*Zeruaeren kontra dire agerturen kometak  
eta soldadu koleraz betheen eskuketak.*

*Haizeek soinu eginen dute nola trunpetak  
eta aireak habarrots alegia musketak.*

*Jendea du harrituren ozpinen garbasiak,  
bai eta liluraturen sismistek bi begiak.*

2060 *Uri eta babazuzak noiz daitezkeen ahi,  
gerizean egonen da jende guztia geldi.*

*Itsasoa, hala nola ur mendia, airera  
aserrerik iganen da parterik gorenera.*

*Erakutsiren du lehen ez bezala kolera  
eta ezta ausarturen nihor itsastatzera.*

*Lehorrean gutiago eztaiteke zer egin,  
ezen animal mutuek eztukete atsegin.*

*Mendi gorak higituren dire eta nabeak  
eta abreek dituzte largaturen lezeak.*

2070 *Gebienik orduan da mundua izituren,  
lastima hauk noiz baitute etxean zerkhaturen.*

Oraino mundua sosegaturen da.

*Hauk guztiak ioanen dire, Iainkoari eskerra;  
uriaren ondoan da noizbat denbora ederra.*

- 
2061. *bala nola ur mendia*: hori da konparaziozko hitz andana.  
*airera*: hori eta *parteric gorenera* aposizio gisa daude, baina hau esan  
nahi du: *airearen parteric gorenera*.
2063. *lehen ez bezala*: zesurak erdibitzen duelarik.
2064. *itsastatzera*: Lhandek badakar *itsastatu*: «naviguer».
2067. *mendi gorac... eta naueac*: ikus *nabe* edo *naba*, biak dakartza eta, Lhandegan: or. 760, 762. Izen nahiz adjetibo izan omen daiteke; hemen izena dirudi: mendi gorak ez ezen, *nabak* ere («grande plaine proche des montagnes») mugituko omen dira.
2070. *noiz baitute*: guk zerka *dezatenean* esango genuke: ikus 1053.  
*hauc*: ergatibo den arren, *hauc* dio, ez *hauec*; ez ditu bereizten, beraz, nominatiboa eta ergatiboa.

Apurtcho bat baqueaz da mundua goçaturen  
Ecen Señaleac betan eztire complituren.

*Azken suaren señaleara.*

Hala bada dagoela bat bedera goçoan  
Señaleen azkena da ethorriren ondoan  
Ustecabe harturen du Suac mundu guztia  
Eta eztu nihorc iaquiñen egun haren berria  
2080 Hura da Orientetic laster auiaturen  
Eta mundu guztia du erreric biphillduren  
Hareraño iganen da Suaren khar bicia  
Noreraño igan baitcen dilubio handia  
Mundua purgaturen du liçuntassunetarie  
Eta bekhatuac utci cutsu guztietarie.

*Su harc erreco du mundu guztia.*

Su haren erreren ditu iratchaqui lamboac  
Ilharguiaren azpico creatura bachoac  
Animale etchatiar, bai larrean haciac  
Bai halaber arboladi behera eta goitiac  
2090 Berequin eramanen tu lasterretan cikhiañac  
Ifernu itsussiaren ondarrera ariñaac  
Guiçonari ere dio aguerturen indarra  
Eta on eta gaichtoei iratchaquiren kharra  
Ecen guztiaac hillen tu ordean differentqui  
Ona pena gabe, eta gaichtoa dolorezqui

---

2073. *baqueaz*: *inor ezertaz gozatu* (da), ez *inork ezer gozatu* (du): ikus, ordea, 3662.

2074. *betan*: «ensemble, à la fois, d'un coup, tout d'un coup», dio Lhandek: or. 156.

2075. *goçoan*: *inor gozoan egon*.

2080. *biphillduren*: hots, lumatuko, larrutuko, biluziko.

2081. *hareraño*: ondoko bertsoan du korrelatoa: *noreraño!* Latinez: «eo...», quo...»: ikus 848.

*Apurtxo bat bakeaz da mundua gozaturen,  
ezen seinaleak betan eztire konplituren.*

Azken suaren seinalea.

*Hala, bada, dagoela batbedera gozoan,  
seinaleen azkena da ethorriren ondoan.*

*Ustekabe harturen du suak mundu guztia  
eta extu nihork iakinen egun haren berria.*

2080 *Hura da Orientetik laster abiaturen  
eta mundu guztia du errerik biphilduren.*

*Hareraino iganen da suaren khar bizia,  
noreraino igan baitzen dilubio handia.*

*Mundua purgaturen du lizuntasunetarik  
eta bekhatuak utzi kutsu guztietarik.*

Su hark erreko du mundu guztia.

*Su haren erreren ditu iratxaki lanboak  
ilhargiaren azpiko kreatura baxoak:*

*animale etxatiar, bai larrean haziak,  
bai halaber arboladi behera eta goitiak.*

2090 *Berekin eramanen tu lasterretan zikbinak  
ifernu itsusiaren ondarrera arinak.*

*Gizonari ere dio agerturen indarra  
eta on eta gaixtoei iratxakiren kharra,  
ezen guztiak hilen tu, ordean diferentki,  
ona pena gabe eta gaixtoa dolorezki.*

- 
2084. *bekhatuac utci*: hots, bekatuak utzitako; *bekhatuac nork* kaso da.  
2085. *su haren*: irakur ezazu honela: *Su haren iratchaqui lamboac* erreren ditu...:  
«el vapor ardiente de aquel fuego consumirá...».  
2088. *behera eta goitiac*: hots, txiki eta handiak, biak adjetivo bait dira.  
2090. *ariñac*: *cikbin arinac* al da sintagma ala *eramanen tu arin(ac)* ulertzea  
da hobe?  
2091. *ere*: bertso laurdenaren hasieran, beste askotan bezala: ikus 1732.  
2094. *dolorezqui*: Etxeparek bezalaxe: I,327; I,339.

Sentituren du iustuac ere garratzassuna  
Bekhatuen satisfatu ezbalдин badu pena

Edo guti edo asqui çorraren arauera  
Iaunac behatcen duela mereci harenera.

*Cerua biguitcetic gueldituren da.*

2100 Ceru gorac guehiago eztire higituren  
Ecen Aingueruec dute hequin artha utciren

Ungui eguiteco ere ioan daiteque ephea  
Ecen orduraño dugu saluatceco artea.

*Hillac bitzturen dire.*

Orduan du manaturen Iessusec Ainguerua  
Hill diren guztiei eguin diecela oihua

Hanturen du bada sugue didurien adarra  
Ceñen adituren baitu munduac deihadarra

Trumpetac erauntsiren du icigarri cantuan  
Hill guztiac bill çaitetzte Iosaphata pontuan

2110 Ceru, Purgatoriotic, halaber Ifernutic  
Pressaz arimac illkhiren dire ceuden lekhutic

Millionca ioanen dire bere herrautsetara  
Gorputcetan aguertceco leheneco guisara

Guztiac iaiquiren dire adin gordiñenean  
Eta guiçonac indarra guehien duenean

---

2095. *ere*: bigarren bertso erdiaren hasieran dago hemen, bestetan bezala: ikus 931.

2096. *bekhatuen*: *bekhatuen pena* den sintagma osoro zatitua.

2098. *behatcen duela*: *behatu* iragankor: ikus 318.

*mereci harenera*: hots, *haren merecira*.

2100. *hequin artha*: hots, *haien arreta*: ikus 2045.

2101. *ioan daiteque*: ez dakit *dateke* inoiz ere ageri den; *daite* edo *daiteque* idazten du beti. Bertso honetan gure *dateke* da, ene ustez: ikus *diraite*, r. 2047.

2104. *diecela*: hots, *diezaiela*: ikus 739; 360.

2105. *hanturen*: edo *handituren*, lehen ere agertu da (1538), baina zer da *adarra hantu*? Lhandek ere ez dakar esanmolde hau; dirudienez — az-

*Sentituren du iustuak ere garratztasuna,  
bekhatuen satisfatu ez baldin badu pena,  
edo guti edo aski zorraren arauera,  
Iaunak behatzen duela merezi harenera.*

Zerua higitzetik geldituren da.

2100 *Zeru gorak gehiago eztire higituren,  
ezen aingeruek dute bekin artha utziren.*

*Ungi egiteko ere ioan daiteke ephea,  
ezen orduraino dugu salbatzeko artea.*

Hilak bitzturen dire.

*Orduan du manaturen Iesusek aingerua,  
bil diren guztiei egin diezela oihua.*

*Hanturen du, bada, suge didurien adarra,  
zeinen adituren baitu munduak deibadarra.*

*Trunpetak erauntsiren du izigarri kantuan:  
«Hil guztiak, bil zaitezte Iosafata pontuan».*

2110 *Zeru, purgatoriotik, halaber ifernutik  
presaz arimak ilkhiren dire zeuden lekhutik.*

*Milionka ioanen dire bere herrautsetara,  
gorputzetan agertzeko leheneko gisara.*

*Guztiak iaikiren dire adin gordinenean  
eta gizonak indarra gebien duenean.*

---

ken juizioko deiaz ari bait da —, «enfler, donner de la force au son,  
à la voix» ulertu behar da.

*suge didurien*: zesurak erdibiturik dago. Ikus 2178, *dirudien*.

2106. *ceñen*: irakur, *ceñen deibadarra adituren*...

2107. *trunpetac*: Etxeparek hori bera honela dio: *Trompeta da minçaturen  
mundu gucietaric // Hilac oro iayqui huna çuyen hobietaric* (I,321-2).

Elkarren kide dira bien binaka bertsoak. *Erauntsiren*: ikus 1047.

*icigarri cantuan*: *cantu icigarrian* ala *icigarriro erauntsiren du cantuan*?

2114. *guiçonac*: ez da plurala, aurreko bertsoa gorabehera; honela itzuli behar  
da: «Todos resucitarán en su edad más lozana y (en aquella en que)  
el hombre tiene más vigor».

- Haurrac bada men hartara dire aitciñaturen  
 Eta agureac ere harat guibelaturen  
 Hogoï eta hamairur urtheco adiñean  
 Guztiaç iaiquico dire bere oñen gañean  
 Muga berean cen Iesus Christo resuscitatu  
 2120 Gaztetassun halacoan behar dute altchatu  
 Iosaphata eramanen dituzte Aingueruec  
 Iugearen sententia entçuteco guztieç  
 Bi aldetara dituzte bereciren gachoac  
 Onac escuñera eta ezquerrera gaichtoac.

*Beldurtuen ikhara.*

Cer ikhara eta khecha duquete bihotcean  
 Iustuenac ere duque tristura barrenean  
 Illea altchaturen çaiç çutic eta beguiaç  
 Trublaracico darozte beldurtassun handiac.

*Damnatu beharren errecura.*

- Ia arima Ifernuco tormenta sentituac  
 2130 Façoñ hunetaco tuzte altchaturen oihuac  
 Mendiac eror çaitetzte othoi gure gañera  
 Arima eta gorputçaren ezteus billhacatcera  
 Arren estal detçatçue gure falta handiac  
 Iugearen aitciñean eztiren agueriac  
 Ala madaricatuac iaio guiñen egunac  
 Baita halaber gatçatu guiñeneco illhunac

---

2115. *men hartara*: ez *hartarat*, baina ondoko bertsoan *harat*.

2117. *hogoï*: lehen bertso erdi hau silaba batez laburregi da, ikusi batera; *hamairur*, honela idatzirik dagoen arren, lau silabaz irakurri behar dela esango nuuke: *hama(r) hirur* idatzirik balego bezala.

*urtheco*: ez dio *urthetaco*.

2119. *Iesus Christo*: zesura erdian dutelarik.

2127. *çutic*: zangalatrau dago, zesurak bere hitz andanetik bakandu duelarik.

*Haurrak, bada, men hartara dire aitzinaturen  
eta agureak ere harat gibelaturen.*

*Hogoi eta hamairur urtbeko adinean  
guztiak iaikiko dire bere oinen gainean.*

2120 *Muga berean zen Iesus Khristo resusztatatu,  
gaztetasun halakoan behar dute altxatu.*

*Iosafata eramanen dituzte aingeruek,  
iujearen sententzia entzuteko guztiek.*

*Bi aldetara dituzte bereziren gaxoak,  
onak eskuinera eta ezkerredera gaixtoak.*

Beldurtuen ikhara.

*Zer ikhara eta khexa dukete bihotzean!  
Iustuenak ere duke tristura barrenean.*

*Ilea altxaturen zaie zutik eta begiak  
trublaraziko darozte beldurtasun handiak.*

Damnatu beharren errenkura.

2130 *Ia arima ifernuko tormenta sentituak  
fazoin hunetako tuzte altxaturen oihuak:*

*«Mendiak, eror zaitexzte, othoi, gure gainera,  
arima eta gorputzaren ezteus bilhakatzeroa.*

*Arren, estal detzatzue gure falta handiak,  
Iujearen aitzinean extiren ageriak.*

*Ala madarikatuak iaio ginen egunak,  
baita halaber gatzatu gineneko ilhunak!*

---

Baita eta beguiac ere, berez eta zentzuz ondoko bertsoaren perpausari  
bait dagokio.

2128. *darozte*: euskara batuan, *dizkie*.

2129. *sentituac*: berez *sentituec* behar luke: ikus 1815.

2132. *arima eta gorputzaren*: guk *nor* kasuan emango genuke; ikus, gainera, 532.

2133. *estal detzatzue*: *d-* duelarik, inperativo den arren: ikus 1784.

2136. *guiñeneco*: gatçatu *guinen egunetaco* illhunac? Ala «las tinieblas en que  
fuimos concebidos»? Aldea edozeinek somatzen du. Ikus ere 533.

- Ifernuco illhititçat munduratu baiquiñen  
 Eta iaiatcean nihorc itho ez baiquintuen
- 2140 Aita amac çaretela oi madaricatuac  
 Miambroac ceren tugun çuetçaz formatuac  
 Nolatan goiz hill ez guiñen hala nola illhora  
 Eta eçagutça gabe eman hobi cillhora  
 Ala gure çoratuac. baiquinduen pensatcen  
 Gu çuhurrac guiñela eta onac erho ciraden  
 Beguietan dacusagu contrario eguia  
 Hauquien fuñetan cela sarthua çuhurtcia  
 Huna non ikhusten tugun escuñera emanac  
 Eta ezquerrera berriz gu placerac edanac
- 2150 Horra nola hautetsiac diren Iainco semetçat  
 Eta gu contra Deabru itsussien laguntçat  
 Madarica daitecela illhargui, iguzquiac  
 Ceren ikhussi dituzten gure gaichtaqueriac  
 Hala dute damnatuec oihua alltchaturen  
 Ceru içarraturaño ceña baita helduren  
 Oihuz eta habarrotsez betheco da mundua  
 Alabañan ezta içanen gaichtoa urricaldua.

2137. *illhititçat*: hots, *illhititaraco* edota *illbiti* izateko.

2138. *iaiatcean*: ikus v. 15.

2140. *çuetçaz*: pasivako ajentea, *zuek* esan daitekeena: ikus 1986; baita 2163 ere, ordea.

2141. *illhora*: hala dio, baina *illborra* behar du, agian; *cillhora* du, halere, hoskide.

2142. *eman*: hots, *eman ez ginen*: ikus 560. *Inor hobira eman (da)*, izan ere, *ehortzia izatea* hanbat da. Hauxe esan nahi du poetak: «y no fuimos depositados en la fosa sin uso de razón?». Lhandek: «comment, pourquoi n'avons nous pas été mis au tombeau avant l'âge de raison?»: Hiztegia, *eman*, or. 239.

2143. *gure çoratuac*: ikus esanmolde hau bera gehiagotan ere: 2495; 3093.  
*baiquinduen*: hau eta *baiquintuen* (ikus 2138) ez dira bat: bata gure *bait genuen*, bestea gure *bait gintuen* dira.

2144. *guiñela*: eta bertso berean *ciraden*, ez *ciradela*: ikus 1836.



*ifernuko ilbitizat munduratu baikin  
eta iaizatzean nihork itbo ez baikintuen.*

2140 *Aita amak, zaretela oi madarikatuak,  
mianbroak zeren tugun zuetzaz formatuak!*

*Nolatan goiz hil ez ginen, hala nola ilhora,  
eta ezagutza gabe eman hobi zilhora?*

*Ala gure zoratuak, baikinduen pensatzen  
gu zuhurrak ginela eta onak erbo ziraden!*

*Begietan dakusagu kontrario egia,  
haukien fuinetan zela sarthua zuburtzia.*

*Huna non ikhusten tugun eskuinera emanak  
eta ezkerrera, berriz, gu plazerak edanak.*

2150 *Horra nola hautetsiak diren Iainko semetzat  
eta gu kontra deabru itsusien laguntzat.*

*Madarika daitezela ilhargi, iguzkiak,  
zeren ikhusi dituzten gure gaixtakeriak».*

*Hala dute damnatuek oihua altxaturen,  
zeru izarraturaino zeina baita helduren.*

*Oihuz eta habarrotsez betheko da mundua,  
alabainan ezta izanen gaixtoa urrikaldua.*

---

2145. *contrario eguia*: hots, *egua contrarioa*.

2146. *hauquien*: hots, *hauen*; genitivo, beraz: ikus 809.  
*fuinetan*: ikus *fiñean*, v. 40.

2148. *gu plazerac edanac*: *plazerac* ez da ergativo, objektoa baizik; hainbestez *edanac* ere ez da pasivo, baizik aktivo: «nosotros los que hemos bebido placeres». Ikus 1906.

2151. *madarica daitecela*: eta ez *diradela*, nahiz lehenxeago (2139) *çaretela oi madaricatuac* esan duen, ez *zaitzela*. *Daitecela* nahitaez, batean, laguntzaile soila bait da; *çaratela* nahitaez, bestean, laguntzaile ez, baizik bere eskuko adizkia bait da, *madaricatuac* ez partizipio ez aditz-erro ez denez gero: ikus 548, ez *aicela*.

2156. *alabañan*: bi fonetika aldakuntza egin behar da bertso honetan: *extayzanen* lau silabaz, batetik, eta *gaichtwa* bitaz, bestetik.

*Saluatu beharren ihardestea.*

- Gaichtaguñec akhabatu eta bere damua  
Hunelache hassico da hequin contra iustua
- 2160 Eguia duc, o gaichtaguin. damnatuen oztea  
Buru fuña cindutela çoramenduz bethea
- Iaun puchantaren legueac haimbercetan hautsteaz  
Eta gu ungui biciaz trufaz erabilltceaz
- Gu gaituc gu çuec hambat noizbat arbuiatuac  
Eta çuei atsecabe haimberce pairatuac
- Çuhurtciaz betheentçat ciñeten estimatcen  
Eta çoratuentçat gu guintutçuen iuiatcen
- Asco aldez gure ondra cinduten chimicatu  
Eta gure ungui eguiñac gaichtoqui mezpreçatu
- 2170 Bañan patientqui egon gaituc çuen artean  
Egun hunec noiz ceçaquen argui bien gañean
- Azkenean ethorri duc desiratu orena  
Nori berea iustuqui bihurtceco çucena
- Oraintche aguerturen duc ea nor cens iustua  
Merecien eredura daramantçat pagua
- 
2157. *akhabatu eta*: gerundio gisakoa izanik ere (ikus 1293) eta horrenbestez  
*eta* menderatzailea, aurreko partizipioari hestuki lotua, zesura bien  
artean gelditzen da.
2158. *hequin contra*: hots, *haien kontra*; genitiboa da *hequin*, beraz: ikus 2100.
2159. *oztea*: hala dator ia beti liburuan: ikus, halere, 1715.
- egua duc*: hitanoa (*duc*), lagun askori ari zaien arren.
2162. *ungui biciaz*: hala dio, baina ez dakit ez ote duen *biciac* behar. Ala  
honela ulertu behar ote: «y por mofaros de nosotros por causa de  
nuestra honesta vida»?
2163. *noizbat*: eta *noizbait*, bietara dator liburuan eta ez dirudi hutsa denik:  
ikus 2369.
- çuec arbuiatuac*: ikus, aldiz, Iongoicoaz: 1986; baita *çuetçaz* ere: 2140.  
Erne, hemen *arbuiatuac pasivoa* bait da, ondoko bertsoan *pairatuac*  
ez bezala; hots, «somos nosotros aquellos a quienes vosotros tantas  
veces despreciasteis». Inola ez *guk zuek arbuiatu*.
2164. *eta çuei*: datibo hau ez da inoren kaltezko nahiz probetxuzko delakoa,  
baizik *-rengandik* ordezkoa.

Salbatu beharren ihardestea.

*Gaixtaginek akhabatu eta bere damua,  
hunelaxe hasiko da hekin kontra iustua:*

2160 *«Egia duk, o gaixtagin damnatuen oztea,  
buru fuina zindutela zoramenduz bethea,*

*Iaun puxantaren legeak hainberzetan hautsteaz  
eta gu ungi biziaz trufaz erabiltzeaz.*

*Gu gaituk, gu, zuek hanbat noizbat arbuiatuak  
eta zuei atsekabe hainberze pairatuak.*

*Zuhurtziaz betheentzat zineten estimatzen  
eta zoratuentzat gu gintutzuen iuiatzen.*

2170 *Asko alde zure ondra zinduten ximikatu  
eta gure ungi eginak gaixtoki meziprezatu,  
bainan pazientki egon gaituk zuen artean,  
egun hunek noiz zezaken argi bien gainean.*

*Azkenean ethorri duk desiratu orena,  
nori berea iustuki biburtzeko zuzena.*

*Oraintxe agerturen duk ea nor zenz iustua,  
merezien eredura daramantzat pagua».*

---

*atsecabe haimberce:* hots, *haimberce atsecabe*.

*pairatuac:* aktivoa hau «los que hemos padecido de vosotros tantas aflicciones»: ikus, aldiz, aurreko bertsoa; eta 2148.

2165. *betheentçat:* *-en-* ez da gehigarri, silabak osatzeko luzatua; superlativotzat jo behar da: «por los más colmados de...».

2166. *çoratuentçat:* aurrekoa bezalakoxea: «por los más locos».

2167. *asco aldez:* hots, alde askotara.

2169. *noiz ceçaquen:* Lhandek «attendait le moment où» itzuliko luke: ikus 2059.

2172. *nori berea:* ez dut uste «*bere çucena*» irakurri behar denik, baizik *oren çucena*; baina bietara har daiteke: «a cada cual su justicia» edo «la hora o el momento justo de dar a cada cual lo suyo».

2173. *ea nor cens iustua:* *-z* hartu ohi du zehar galderako adizkiak maiz antzineko idazleengan; *zenz* edo *zenez*.

2174. *eredura:* edo *arabera:* ikus 2097.

*daramantçat:* ikus 2038.

Hala dute elkharrequin onec ihardetsiren  
Noiz gaichtoec errecura baitute akhabaturen.

*Iugearen iaustea.*

- Hau duçula iaustiren da Jesus Christ hedoiean  
Lainhopeco holtz adarra dirudien batean
- 2180 Bi bazterrac arguituac dituela colorez  
Maiestate handirequin iaustico da ohorez  
Aitcinean ekharrico du Miguelec bandera  
Ungui bicitu eztiren guztien icitcera  
Berce Aingueruac batat elhorrizco khoroa  
Berceac itce çorroztua, berceac lança sendoa  
Berceac bere passione sainduco armaçoinic  
Buruco illeac latztu gabe eztagoque guiçonic  
Saihetsa ere eztuque compania gabea  
Ecen hurbill içanen du Aingueruen oztea
- 2190 Escadroñac ordenantçaz, ordenantçaz pausua  
Beha dagoen guztia handiro transitua  
Ceru lurac ere beldur, beldur laur elementac,  
Itsassoac ere tuzque ia largatu tormentac  
Bekhoquia içanen du coleraz issuria  
Eta asserre podorez beguia bihurria

---

2176. *noiz... baitute*: ikus 2070.

2177. *hau duçula*: elipsia gertatu da hor, agian: *hau egina edo esana duçula* gutxi gorabehera.

2178. *holtz adarra*: *ortzadar, hortzadar, holtzadar*, hirurak gauza bera omen omen dira: «arc-en-ciel», dio Lhandek: or. 7.

*dirudien*: lehen *didurien* idatzi du: ikus 2105. Beharbada biak daude ongi, guk *irudi* eta iparraldekoek *iduri* esan ohi bait dute.

2183. *berce aingueruac*: plurala da, batetik, eta ergativo behar luke, bestetik, *ekharrico* bait da, arestian esan duelako, hemen poetak isilik utzi duen adizkia; *aingueruec* behar luke, hortaz. Honi *nominativum pendens* deritza.

*Hala dute elkharrekin onek ihardetsiren,  
noiz gaixtoek errenkura baitute akhabaturen.*

Iujearen iaütstea.

*Hau duzula, iaütsiren da Iesus Khríst bedoiean,  
lainhopeko holtzadarra dirudien batean.*

2180 *Bi bazterrak argituak dituela kolorez,  
maiestate handirekin iaütsiko da ohorez.*

*Aitzinean ekbarriko du Migelek bandera,  
ungi bizitu eztiren guztien izitzera.*

*Berze aingeruek, batak elhorrizko khoroa,  
berzeak itze zorroztua, berzeak lanza sendoa,*

*berzeak bere pasione sainduko armazoinik,  
buruko ileak latztu gabe eztagoke gizonik.*

*Saihetsa ere eztuke konpainia gabea,  
ezen hurbil izanen du aingeruen oztea.*

2190 *Ezkadroinak ordenantzaz, ordenantzaz pausua,  
beha dagoen guztia handiro transitua.*

*Zeru lurrak ere beldur, beldur laur elementak,  
itsasoak ere tuzke ia largatu tormentak.*

*Bekhokia izanen du koleraz isuria  
eta aserre podorez begia bihurria.*

---

2184. *berceac*: bitan ageri da bertsoan eta bietan bi silabatakoa da; *berzyak* ahoskatu behar. Hurrengo bertsoan orobat.

2186. *buruco*: hitz horren -o eta ondokoaren i- diptongo bailira ebaki behar dira eta horrez gain *illeac* bi silabaz: *ilyak*.

2188. *izanen*: ez *ukenen* edo: ikus 1264; baita 2193 ere. *oztea*: ikus 2159.

2191. *ere*: ikus 2091. Ondoko bertsoan ere leku berean dago.

2192. *tuzque*: hots, *dituzke*.

*ia*: silaba bakarrekoa da ia beti; *iadanik* esan nahi du, ez gare *ia-ia*.

2193. *bekhoquia...* *issuria*: ikus 1927: *issuria bissaia*.

2194. *asserre podorez*: guk diogun *asserrearen poderioz* bera dirudi: ikus 2752.

- Pena emateco duque hain lehia handia  
 Cembat lucea baitçuen lehen patientia  
 Iugea iautsten denean hedoiean iarriric  
 Atheac iduquiren tu Ceruac idequiric  
 Guisa berean çabalic Lehor eta Aireac  
 2200 Ecen Iaun haren ezтуque mugaric podoreac  
 Iarrico da Olibetco mendiaren gañean  
 Eta mundua egonen da humill aiticinean.

*Iugearen iustutassun bertsia.*

- Hareraño emetassun handiz du usaturen  
 Orduan da iustitiaz çucen baliaturen  
 Haren aiticñean deusic eztaite estaliric  
 Bañan huts handia beçain ttipia aguerriric  
 Present ederrez irabaz ecin daite Iugea  
 Eta arte guztien du içanen iaquitea.  
 Excusaric nihola ere ezta baliaturen  
 2210 Bañan gauça den beçala da examinaturen  
 Bere ordain ecin bidal berce comparitcera  
 Berac aguertu behar du Thronuaren oñera  
 Aduocatic ezta ceren hautatu ararteco  
 Ecen Cerua da falten mendecu escatuco

- 
2195. *duque*: hemen ageri da garbi asko *futuro* hutsa dela forma hau.  
*hain... cembat*: bien artean guk *bezain* dioguna osatzen dute. Guk eta  
 Etxeberrik ere bai, nahi duenean. Honako hau honela litzateke: *leben*  
*pazienzia luzea zuen bezain handia duke orain lehia*: ikus 1594.  
 2200. *ecen*: irakur honela: *ecen Iaun haren podoreac ezтуque mugaric*.  
 2203. *hareraño*: denborazkoa da eta *orduarde* esan nahi du; ondoko bertsoan  
*orduan* dauka kontrajarria.  
 2206. *beçain*: ikus arestian esana: 2195.  
 2209. *baliaturen*: bost bertso gorago (2204) hauxe bera agertu da, baina han  
*inor baliatzen zen iustiziaz*; hemen ez, hemen *zerbait* ez omen dela  
 baliatuko diosku. Nabari da gaztelaniaz bi modutara itzultzen dela:  
 hark «usar de» esan nahi du — aurreko bertsoan zentzu berean *usaturen*  
 dio, hain zuzen (ikus 2203) —; honek «no prosperará excusa alguna»

*Pena emateko duke hain lehia handia,  
zenbat luzea baitzuen lehen pazienza.*

*Iujea iautsten denean bedoiean iarririk,  
atheak idukiren tu zeruak idekirik.*

2200 *Gisa berean zabalik lehor eta aireak,  
ezen Iaun haren eztuke mugarik podoreak.*

*Iarriko da Olibetko mendiaren gainean  
eta mundua egonen da humil aitzinean.*

Iujearen iustutasun hertsia.

*Hareraino emetasun handiz du usaturen,  
orduana da iustiziaz zuzen baliaturen.*

*Haren aitzinean deusik eztaite estalirik,  
bainan huts handia bezain ttipia agerririk.*

*Present ederrez irabaz ezin daite iujea  
eta arte guztien du izanen iakitea.*

2210 *Eskusarik nihola ere ezta baliaturen,  
bainan gauza den bezala da examinaturen.*

*Bere ordain ezin bidal berze konparitzera,  
berak agertu behar du thronuaren oinera.*

*Adbokatik ezta zeren hautatu ararteko,  
ezen zerua da falten mendeku eskatuko.*

---

edo antzekoa.

2211. *berce*: hots, *besterik*; baina hemen, bestetan ez bezala, mugagabeko nominatiboz baliatu da. Ikus, oster, 208garren bertsoaren ondoko titulu: «... *berceric* bekhatutan ez sarraracitceco manuez».
2213. *aduocatic*: *ceren* konjuntzioa baldin bada, zaila da konprenitzen zergatik ez duen honela esan: *ceren ezta aduocatic...*; alde guztietatik bertso hobe ba bait zatekeen. Beste hau esan nahi du apika: «no hay posibilidad de elegir...»; hots, *ceren* galderazko adverbioa delarik eta hitz andana hau: *ezta ceren hautatu*. Ikus berbera hiru bertso beherago: 2216.
2214. *escatuco*: ikusi bezala (672), iragangaitza da antzineko idazleengan; baina gezurra badirudi ere, objeto gisakoa har dezake haatik: nor eskatu? Cerua. Zer eskatu? Falten mendecu.

Hain guti da barkhamendu escatceco lekhouric  
Eta ezta ceren billhatu handien fauoreric

Nori bere obra onac çaiçco baliaturen  
Hala ere dohatsua cein baita saluaturen

2220 Presidentac emanen du sententia azkena  
Munduaren othoitcera muda eztaitequena

Berce Alcateren gana eztaite ihes lekhouric  
Gaichtaguiña badagoque nigarrean urthuric

Hauc guztien ioan daiteque ecin itçul dembora  
Beharriez entçun behar du Arrasta gogorra.

*Iuiatu behar guztiei erranen daroena.*

Hunela Iugea çaiç guztiei mintçaturen  
Non onei ere illeac baitçaiçte altchaturen

Noizbat ere ethorri da azkeneco ordua  
Bakhotchari galdetceco bere obren contua

2230 Ea certan iaioz guero eman duçuen dembora  
Ceren ungui bicitceco baitçiñeten mundura

Eta guero ardiasteco merecien saria  
Edo Ifernua edo Parabisu goitia

Ea beraz bat bedera orhoit bedi biciaz  
Eta hartan eguin duen ungui edo gaizquiaz

Sarien azkenac dire Ceru eta Lecea  
Hetaric batera eguin behar duçue bidea.

---

2215. *bain guti*: «tan poco» eta hortik gero «tampoco»: ikus 175.

2216. *ezta ceren billhatu*: ikus 2213.

2217. *baliaturen*: ikus 2209; hemen beste modu batetara dator: *inori zerbait baliatu (zaio)* eta zentzua ere pitin bat desberdina: «ayudar, servir, aprovechar».

2218. *dohatsua cein*: «beatus qui» dakar gogora: ikus 1642; han *ceña*, hemen *cein*.

2219. *sententia azkena*: hots, *azken sententia*.

2221. *eztaite*: ez da gure *ez daiteke*, baizik gure *ez dateke*: ikus 2101. Hala dela, ondoko bertsoen zentzuak erakusten du garbiro.

2223. *hauc guztien*: irakur honela: *hauc guztien ecin itçul dembora ioan daiteque*.



*Hain guti da barkhamendu eskatzeko lekburik  
eta ezta zeren bilhatu handien faborerik.*

*Nori bere obra onak zaizko baliaturen,  
bala ere dobatsua, zein baita salbaturen.*

2220 *Presidentak emanen du sententzia azkena,  
munduaren othoitzera muda eztaitekena.*

*Berze alkateren gana eztaite ihes lekburik,  
gaixtagina badagoke nigarrean urthurik.*

*Hauk guztien ioan daiteke ezin itzul denbora,  
beharriez entzun behar du arrasta gogorra.*

Tuiatu behar guztiei erranen daroena.

*Hunela iujeu zaiei guztiei mintzaturen,  
non onei ere ileak baitzaizte altxaturen:*

*«Noizbat ere ethorri da azkeneko ordua,  
bakhotxari galdetzeko bere obren kontua;*

2230 *ea zertan iaioz gero eman duzuen denbora,  
zeren ungi bizitzeko baitzineten mundura*

*edo ifernua edo parabisu goitia,  
eta gero ardiasteko merezien saria*

*Ea beraz, batbedera orhoit bedi biziaz  
eta hartan egin duen ungi edo gaizkiaz.*

*Sarien azkenak dire zeru eta lezea,  
betarik batera egin behar duzue bidea».*

---

Hauxe esan nahi du: «el plazo irreversible para esta acciones habrá expirado». Etxepareren beste bertso aparteko hura dakar gogora: *Elas yzul albaneça iragan den denbora*: VI,21.

*ioan daiteque*: ez, noski, «puede expirar», baizik «habrá expirado»: ikus ikus 2221.

2224. *behar du*: bien artean zesura, Etxeparegan inoiz ez bezala; honengan *nabi* eta *behar* adizki laguntzailearekin batera doaz beti bertso erdi berean.

2226. *non*: «por lo que», «con lo que»: ikus 1914.

2229. *duçuen*: bi silaba baizik ez du: *duzwen* ebaki behar da, beraz.

2231. *ardiasteco*: *ardyasteko* ahoskatu behar da, lau silabaz.

2236. *duçue*: lehengoa (2229) bezalaxe, bi silabatakoa da.

*Orhoituco dire obra guztiez.*

- Hauc erran tuen beçala gogora bekhatuac  
Ethorriren çaizte eta obra eguin iustuac
- 2240 Huts ttipiac ere çaizte ethorriren gogora  
Cer obra complitu duten eta noiz cen dembora
- Cer statutan partitu diren Mundu bachotic  
Eta cer mereci duten hequin obrec ondatic
- Bakhotçac iuiaturen du obrez bere burua  
Eta gaichtoec duquete ecin conta damua

*Gaichtoei erranen çaiena.*

- Gogoratu çaiztenean ceñi bere eguinac  
Gaichtoec entçunen tuzte hunelaço hitz minac
- Çuec bada etçarete, o gaichtoac, orhoitcen  
Ceñac baitçaituzte faltec ezquerrera berezten
- 2250 Mundura eman ciñetela, ene Aitac berçeric  
çuec baño asco hobe crea ceçaquelaric
- Ohora eta cerbitçatu baitçuqueten gogotic  
Desondratu baituque arguiratuz gueroztic

- 
2237. *erran tuen beçala*: denborazko perpausa da: ikus 445; 1090: «tan pronto como...».
2238. *ethorriren çaizte*: zangalatrau daude bi hitzok.  
*obra eguin iustuac*: hori *eguin obra iustuac* ere esan ohi du poetak (1972),  
gure *egindako*-ren orde; horrez gain, sintagma hori aurreko bertsoa-  
ren azken hitzari lotu behar zaio: *bekhatuac eta eguin obra iustuac*.
2239. *ere*: ikus 2091.
2240. *cena*: hala dio, baina *cen* behar du.
2241. *statutan*: lau silaba zor zaizkio eta *estatutan* irakurri behar da.
2242. *hequin obrec*: hots, *baien obrec*: ikus 2158.
2245. *çaiztenean*: *haiei*, noski; gero *ceñi* badio ere, *cein* horiek lagun asko bait  
dira.
2246. *hitz minac*: ez diosku poetak nork esaten dituen hitzok, baina mintzaldian  
barna garbi ageri da Kristo mintzo zaiela.
2247. *çuec bada*: ondoko lau bertsook galdera gisa esanak daude, poetak galde  
zeinurik ipini ez badu ere.

Orhoituko dire obra guztiez.

*Hauk erran tuen bezala, gogora bekhatuak  
ethorriren zaizte eta obra egin iustuak.*

2240 *Huts ttipiak ere zaizte ethorriren gogora,  
zer obra konplitu duten eta noiz zen denbora;*

*zer estatutan partitu diren mundu baxotik  
eta zer merezi duten bekin obrek ondotik.*

*Bakhotxak iuiaturen du obrez bere burua  
eta gaixtoek dukete ezin konta damua.*

Gaixtoei erranen zaiena

*Gogoratu zaiztenean zeini bere eginak,  
gaixtoek entzunen tuzte hunelako hitz minak:*

*«Zuek, bada, etzarete, o gaixtoak, orhoitzen,  
zeinak baitzaituzte faltek ezkerrera berezten,*

2250 *mundura eman zinetela, ene Aitak berzerik  
zuek baino asko hobe krea zezakelarik?*

*Ohora eta zerbitzatu baitzuketan gogotik,  
desondratu baituzue argiratur geroztik;*

---

2248. *ceñac*: erlativo gisako hau objektua da: «quos...».

2249. *mundura eman*: ikus 2142.

*berceric*: ez *berce*, lehen esan digun bezala: ikus 2211.

2250. *asco hobe*: guk honela esango genuke: *zuek baino beste hobe asko*; poetak, aldiz, puntua zela bide, *berceric* aurrean ipini du.

*crea ceçaquelaric*: konzesiva kutsu nabaria du. Ondoko hamasei bertsoek hemen dioen «çuec baño asco hobe» esaldia hedatu eta porogatu baizik ez dute egiten; nolako laidoak egin dituzten azaldu, alegia, eta, hori dela bide, batere adizki laguntzailerik gabe esanak daude perpaus nagusiak, partizipio soilez. Hainbestez testu inguruak bakarrik adierazten du nor den partizipio bakoitzaren sujetoa: *zuek*, alegia, batzuetan eta *Jainkoa* besteetan, edo *Kristo* bera.

2251. *ohora eta*: bi bertsoon adizkiek *bait-* dute, baina aurrizki honek ez ditu bi perpausak mendeko egiten; *bait-* antzineko idazleengan betegarri soila da maiz: «ellos le hubieran...; vosotros le habéis...».

- Oren oro fauoreac bidaldu liberalqui  
 Eta perill guztietaric beguiratu maitequi  
 Obra onen eguïteco aitciñatu attiçac  
 Alabañan arbuiatu hec eta ene hitçac  
 Neure odol valiosaz libratu gathetaric  
 Bekhatu higuñen causaz ascotan lothutaric  
 Behin barkha guero berriz hambat patientia  
 2260 Alabañan ez emenda bekhatuzco bicia  
 Egunetic egunera abusa eztitassunaz  
 Seculan atçartu gabe ene iustutassunaz  
 Ceuen gogoetan erran: Eztuc berdin Iaincoric  
 Atseguñac har detçagun beldur gabe libroric  
 Ene partez mintço ciren burla predicariez  
 Eta fiñean verthutea eguin gaichtaqueriez  
 Orain bada çazquitçue ardiatsiren penac  
 Ceñac mereci baititu çuen handi hobenac.

*Gaichtoen sententia.*

- 2270 Ene beguien bistatic çozate, o gaichtoac,  
 Eta Deabruen lagun haguïtz hobeagoac

- 
2253. *bidaldu*: hots, Jainkoak, ene Aitak.  
 2254. *beguiratu*: sujeto bera.  
 2255. *aitciñatu*: ene Aitak, noski.  
*attiçac*: ikus 1965.  
 2256. *arbuiatu*: sujeto aldakuntza: *zuek* arbuiatu *hec*, *attiçac* alegia, eta baita ene hitzak ere.  
 2257. *neure*: oraino *ene Aita* zen sujetoa; orain, aldiz, *neure* bait dio, ez *ene*, eta Etxeberrik beti bereizten bait ditu bi forma horiek, *libratu*-ren ergatiboa *nik* behar du izan; hots, Kristok berak.  
 2258. *lothutaric*: hots, *gathe lothutaric*. Baina ez daude lotuak kateak, *zuek* katei baizik; hots, («de las cadenas en que estabais atados?»): ikus 1768.  
 2259. *barkha*: nik, edota ene Aitak.  
*hambat patientia*: hemen ere nik, edota ene Aitak.  
 2260. *ez emenda*: hemen, ostera, *zuek*. Ohar, berebat, nahasian darabiltzala le-

- oren oro faboreak bidaldu liberalki  
eta peril guztietarik begiratu maiteki,  
obra onen egiteko aitzinatu atizak,  
alabainan arbuiaitu hek eta ene hitzak;  
neure odol baliosaz libratu gathetarik,  
bekhatu biguinen kausaz askotan lotbutarik;  
2260 behin barkha, gero berriz hanbat pazientzia,  
alabainan ez emenda bekhatuzko bizia;  
Egunetik egunera abusa eztitasunaz,  
sekulan atzartu gabe ene iustutasunaz;  
zeuen gogoetan erran: «Eztuk berdin Iainkorik,  
atseginak har detzagun beldur gabe librorik»;  
ene partez mintzo ziren burla predikariez  
eta finean berthutea egin gaixtakeriez...  
Orain, bada, zaizkitzue ardiatsiren penak,  
zeinak merezi baititu zuen handi hobenak».

Gaixtoen sententzia.

- 2270 «Ene begien bistatik zoazte, o gaixtoak,  
eta deabruen lagun hagitz hobeagoak.

---

hen partizipioa (*bidaldu, begiratu, aitzinatu, arbuiaitu, libratu*) eta aditz erroa (*barkha, emenda, abusa...*).

2261. *abusa*: hots, *zuek*.  
2263. *eztuk berdin*: Lhandek honela itzultzen du bertso hau: «Ne dites pas en vous-même»: «Au reste, il n'y a pas de Dieu»: ikus Hiztegia: *bardin*, or. 109.  
2265. *ene partez*: irakur honela: *ene partez mintzo ciren predicariez burla* (egin *zuek*).  
2266. *verthutea eguin*: hauxe esan nahi du: berez gaixtakeria zena *zuek bertute* egin zenuten, edo nahi izan bederen: «hacer de la maldad virtud».  
2267. *çaizquitzue*: iragangaitza; *ardiatsi*, izan ere, bitarikoa da, gure *iritxi* bezalaxe: *iritxi dut* eta *naiz*. Biak, *ardiatsi* eta *iritxi*, bat dira jatorriz, Mitxelenaren ustez.  
2268. *ceñac*: ikus 2248.  
*handi hobenac*: hots, *hoben bandiac*.

Ioan madaricatuac, ioan seculaco kharrera,  
Ecin hillez fin gabeco mendean penatcera.

*Onei erranen çaiena.*

Bañan çuec, o dohatsu ene escuñecoac,  
Ene Aita sinhetsiac, ene bihotcecoac,  
Ene amoreac gatic nequeac soffrituac,  
Beharrean ceudecenac ere fauoratuac  
Ea enequin çathozte lekhu atseguintsura  
Eta çuec beçalaco onei prometatura  
Hunat adisquideac hunat chucatçatçue beguiac  
2280 Eta har contentamendu nequeei egoquiac.

*Arrastaren executionea.*

Iugea gaichtoei çai mintçaturen hunela  
Ceñen Arrastatic ecin baitaitezque appela  
Tropelaca ioanen dire hala nola dragoña  
Urgullu eta paillarta, bai ebatsle ohoña  
Nola baitu gurdari iratchaqui firrilla  
Uztarriac aitcinera itçultcen biribilla  
Gaichtoen ere hala da itçuliren tropela  
Hondalera Deabruec buthatcean erguela  
Auhentchatuco dute bihotz urragarria  
2290 Ceren soffritcera doacen bethico laceria

- 
2271. *ioan*: bitan ageri da bertsoan eta bietan silaba bakarreako da: *iwan* ahoskatu behar da.  
2274. *ene Aita sinhetsiac*: hots, ene Aita sinetsi duzuenak; *sinhetsiac* aktiboa da, beraz: ikus 2164, *pairatuac*; baita 1906 ere.  
2275. *soffrituac*: hau ere aktiboa.  
2276. *ere*: bigarren bertso erdiaren hasieran: ikus 2095.  
*fauoratuac*: hau ere aktiboa da: «los que habéis favorecido a...».  
2277. *enequin*: ikus 1932.  
2279. *adisquideac*: *adiskidyak* ahoskatu behar da.  
*chucatçatçue*: lau silaba baizik ez zaio zor eta *xukatatzwe* ebaki behar da.

*Ioan, madarikatuak, ioan sekulako kharrera,  
ezin hilez fin gabeko mendean penatzeraz»*

Onei erranen zaiena.

*«Bainan zuek, o dohatsu, ene eskuinekoak,  
ene Aita sinhetsiak, ene bihotzakoak,  
ene amoreak gatik nekeak sofrituak,  
beharrean zeudezenak ere faboratuak,  
ea, enekin zathozte lekhu atsegintsura  
eta zuek bezalako onei prometatura.*

2280 *Hunat, adiskideak, hunat, xukatatzue begiak,  
eta har kontentamendu nekeei egokiak».*

Arrastaren exekuzioea.

*Iujea gaixtoei zaie mintzaturen hunela,  
zeinen arrastatik ezin baitaitezke apela.*

*Tropelaka ioanen dire, hala nola dragoina,  
urguilu eta pailarta, bai ebatsle ohoina.*

*Nola baitu gurdari iratxaki firrila  
uztarriak aitzinera itzultzen biribila,*

*gaixtoen ere hala da itzuliren tropela,  
hondalera deabruak buthatzean ergela.*

2290 *Auhen altxatuko dute bihotz urragarria,  
zeren sofritzera doazen bethiko lazzeria.*

2280. *nequeei egoquiac*: hots, nekeei dagozkienak; baina adjetivoaren bidez emana, aditz balitz izenak lukeen kasoan berean gorderik izena, adjetivoari berari kasu hori balegokio bezala: ikus 2640; 2974.

2285. *guardiari*: hala dio liburuak, baina *gurdari* behar du.

2286. *biribilla*: hots, *firrilla biribilla*: «birloir de forme arrondie ou qui tourne en rond», dio Lhandek: *firrila*, or. 308. Bi bertsook irakur honela: *Nola baitu uztarriac aitzinera itzultzen gurdari iratxaqui firrilla biribilla...*

2287. *tropela*: hots, *gaixtoen tropel erguela*; hiru hitzak osoro barreiatuak dauden arren, sintagma bat dira.

2289. *auben*: honek eta *bihotz urragarria*-k ere sintagma bakarra osatzen dute.

- Ifernuac iduquiren du çabalic ahoa  
 Eta errecibituren damnatuen campoa
- Onac berriz hedoietan gora allegueraric  
 Aingueruen companian ioanen dire bertaric
- Spirituec hartuco tuzte gathamboreac  
 Eta hequin mintçatuco voça ederren aireac
- Atseguñez goçatcera ioanen dire cortean  
 Disgratia nihoiz ere içanen eztenean
- 2300 Eternalac Ceruaren portaleac çabalic  
 Iduquiren ditu onac ikhustean hurbillic
- Ungui ethorri, ungui ethorri, diosquete milletan  
 O arima dohatsuac lekhu saïndu hunetan
- Ungui ethorri, fidel eta adisquide maiteac  
 Eta ene Semearen ordenantçac gordeac
- Ungui ethorri goiz eta arrats guri gomendatuac  
 Eta urricariz billuz gorriac beztituac
- Ungui ethorri bihotz simple malecia gabeac  
 Eta munduco placeren oñez çapatçailleac
- 2310 Hemen daude seculacotz çuentcat prestatuac  
 Cillhar eta metal horiz cadira obratuac
- Huna non diren halaber urrezco buruteac  
 Diamant aberats eta perleriaz betheac

- 
2291. *idequiren*: hala da irakurtzen, baina *iduquiren* behar du: ikus 2198; baita 2299-2300 ere.
2295. *spirituec*: e- duelarik ahoskatu behar da.  
*gathamboreac*: «tambour de basque», dio Lhandek: or. 342.
2296. *mintçatuco*: hemen, dirudienez, iragankor da, laguntzailerik ez ba du ere;  
*aireac* objeto dirudi; ala sujeto?
2298. *içanen eztenean*: ez da denborazkoa, baizik erlatibozkoa: *izanen exten kortean*.
2301. *ungui ethorri*: agur hau bertsoan ageri den bi aldietan lehen hitzaren  
 -i vokalerdi bailitza ahoskatu behar da: *ungyetorri*.  
*diosquete*: hark haiei gero; hots, *esanen die*.
2302. *hunetan*: ez dio *hunetara*.
2303. *ungui ethorri*: ikus 2301. *Vugui* dio, baina hutsa da.



*Ifernuak idukiren du zabalik ahoa  
eta errezipituen damnatuen kanpoa.*

*Onak, berriz, hedoietan gora alegerarik  
aingeruen konpainian ioanen dire bertarik.*

*Espirituek hartuko tuzte gathanboreak  
eta bekin mintzatuko boza ederren aireak.*

*Atseginez goatzera ioanen dire kortean,  
disgrazia nihoiz ere izanen eztenean.*

2300 *Eternalak zeruaren portaleak zabalik  
idukiren ditu, onak ikhustean hurbilik.*

*«Ungi ethorri, ungi ethorri», dioskete miletan,  
«o arima dohatsuak, lekhu saindu hunetan!*

*Ungi ethorri, fidel eta adiskide maiteak  
eta ene Semearen ordenantzak gordeak!*

*Ungi ethorri, goiz eta arrats guri gomendatuak  
eta urrikariz biluz gorriak beztituak!*

*Ungi ethorri, bihotz simple malezia gabeak  
eta munduko plazeren oinez zapatzaileak!*

2310 *Hemen daude sekulakotz zuentzat prestatuak  
zilhar eta metal horiz kadira obratuak.*

*Huna non diren balaber urrezko buruteak,  
diamant aberats eta perleriaz betheak.*

---

2304. *gordeac*: aktivoa da: ikus 2276, *faoratuac*.

2305. *ungui ethorri*: lehen bezalaxe: ikus 2301; baita bi bertso beherago ere, 2307.

*gomendatuac*: «los que erais o estabais encomendados (confiados) a nosotros» ala «los que OS habéis encomendado a nosotros»? Ene ustez, bigarrena: ikus 2304. Alegia, zeuron buruak guri goiz eta arrats gomendatu dizkiguzue. Ez da arrazoï gramatikazkorik hori frogatzeko, baina egin dituzten obra onak aipatzen ari denez gero, bigarrenak egokiago dirudi.

2306. *billuz gorriac*: zesurak erdibiturik dago.

*beztituac*: aktivoa hau ere: ikus 2305, *gomendatuac*.

2308. *placeren oñez çapatçailleac*: ikus 810; biziki elkarren antzeko dira

2310. *cadira obratuac*: hots, *obratu cadirac*: ik,us 2238.

Mundu behereco pena ahantciric handiac  
Mereciez guehiago hartçatçue sariac

Hunela arraiqui ditu Aitac recibituren  
Ceni bere iar lekhua guero señalaturen.

*Iujamendu ondoco munduaren statua.*

Iujamendua akhabatu den beçala Munduac  
Berce iduri harturen du kharrez purgatuac

2320 Ceruco gurutcea da guztia iraunguiren  
Eta lehengo çuciac dire clar aguerturen

Lehen baño guehiago eredura çazpitan  
Claraturen dute bere lekhu ordenatutan

Iguzquia egonen da claro Orientean  
Illharguia hedoi gabe berriz Occidentean

Claro berce Ceruaren charho bistagarriac  
Gau egunec ahantciren tuzte bere aldiac

Argui baicen eztaiteque eta itçalarenic  
Lehen beçala içanen ezta iduripenic

2330 Suac ere Ceruaren hurbilleco hauçoac  
Arguituren du Iguzqui nola uztaillecoac

---

2313. *pena handiac*: hori da sintagma berez, *abantciric* erdian sartu bada ere.

2314. *mereciez guehiago*: hots, merezi (takoak) baino gehiago har itzazue sariak.  
Bigarren konparaburua, alegia, *baino* gabe eta instrumentalez emana:  
ikus 2513; 2827.,

2315. *recibituren*: baita *errecibituren* ere: ikus 2292.

2317. *den beçala*: denborazkoa da: ikus 2237.  
*munduac*: zintzilik eta zangalatrau dago.

2318. *berce iduri*: mugagabe.  
*kharrez purgatuac*: hots, *kharrez purgatu munduac*.

2321. *lehen baño*: aski iluna da bertso hau; ikus, argitasun bila, 3729-3730;  
*guehiago çazpitan* badakigu, hainbestez, zer den: *zazpi bider gehiago*;  
baina *eredura* zer da? Honela irakurri behar ote: *lehen eredura baño*  
*guehiago çazpitan?* («Siete veces más que la distribución anterior...»)  
Hala bada, antola zitzakeen hitzak guk bezala; gureak ez du 4/4  
lehen bertsoan, baina hori ez zaio asko axola gure poetari maiz.

*Mundu behereko pena ahantzirik handiak,  
merexiez gehiago hartatzue sariak».*

*Hunela arraiki ditu Aitak rezibituren,  
zeini bere iar lekhua gero seinalaturen.*

Iuiamendu ondoko munduaren estatua.

*Iuiamendua akhabatu den bezala, munduak  
berze iduri harturen du kharrez purgatuak.*

2320 *Zeruko gurutzea da guztia iraungiren  
eta lehengo zuziak dire klar agerturen.*

*Lehen baino gehiago eredura zazpitan  
klaraturen dute bere lekhu ordenatutan.*

*Iguzkia egonen da klaro Orientean,  
ilhargia hedoi gabe, berriz, Okzidentean.*

*Klaro berze zeruaren xarho bistagarriak,  
gau egunek ahantziren tuzte bere aldiak.*

*Argi baizen eztaiteke eta itzalarenik  
lehen bezala izanen ezta iduripenik*

2330 *Suak ere zeruaren hurbileko hauzoak  
argituren tu, iguzki nola uztailekoak,*

---

2322. *bere lekhu:* zesurak erdibitzen dituelarik.

2323. *Iguzquia:* ikus nola eman zuen Etxeparek hori bera: *Yguzquia egonen da orienten gueldiric*, I,377.

2324. *Illbarguia:* Etxeparek honela: *Ilbarguia occidenten beguiz begui iarriric*, I,378. Etxeberrik *Oriente* eta *Occidente* mugaturik, Etxeparek mugatu gabe darabiltza.

2325. *charho:* hots, «bougie, chandelle, cierge», dio Lhandek: ikus *Hiztegia*, *xarho*, or. 1032.

*bistagarriac:* hitz hau ez dakar, aldiz, Lhandek.

2327. *eztaiteque:* ikus 2221.

*itzalarenic:* hots, *itzalaren iduripenik*. Hona nola itzultzen duen Lhandek: «L'ombre comme auparavant ne tracerà pas de figure (des objets)»: ikus *Hiztegia*, *iduripen*, or. 485.

2330. *argituren du:* hala dakar liburuak, baina *tu* behar du, agian.

*iguzqui nola uztailecoac:* hots, *nola iguzki uztailekoak*.

Ceru colore urdiñac, nola aire meheac,  
Eta urac diamanta nola tatchagabeac

Lurra beiraren pare daite Princeenean  
Ceña presentatcen baita chahuqui mahañean

Urean ere ezta iñanen arrain iguelduriric  
Ez lurrean sagar, edo berce fruitu eztiric

Eta Airean eztire hegaturen choriac  
Ez hain guti larrañetan ibilliren bestiac

2340 Ecen horioc on ciren lehenago munduan  
Lurrean guñonac egon ohi ciren orduan

Ezta beraz deus iñanen bustel ahal daitenic  
Belhar edo çuhaitcic ez, ez hetçaz bicienic

Bañan elementac dire iñanen choill arguiac  
Eta bistac dadutçanac chahu eta garbiac

Aldapa eta mendi gorac dirade planaturen  
Eta puioac elkharren quidera berdinduren

Fiñean nola Cerua baita guztiz leuna  
Lurraren bisaia hala iñanen da berdiña.

2350 Dohatsuac beraz duque handi goçamendua  
Hain estatu ederrean ikhustez mundua

---

2332. *diamanta*: lehen (2312) *diamant* esan du, halere.  
*nola*: hots, *nola diamanta tatchagabeac*.

2333. *beiraren*: lau silaba zor zaizkio: *be-i-ra-ren*. Ohar, *behira*-ere badela euskaraz.

2334. *mahañean*: sintagma berez hau da: *Princeen mahañean*, baina ezinbestean luzatu egin du, maiz bezala.

*ceña*: honako ohar hau mila bider egin zitekeen, baina hemen egingo dut: lurra ez dateke edozein beiraren pare, baina konkretuki Printzeen mahainean presentatu ohi denaren. Alegia, hemen, ia beti bezala Etxeberrigan, *zein*-erlativo denean, murrizgarri edo restriktivoa da.

2335. *urean*: bi silabaz ebaki behar da: *uryan*, eta horrez gain, *ezta* eta *iñanen* artean lau silaba ahoskatu: *eztayzanen*.  
*iguelduriric*: hots, igerian dakienik.

2338. *ez hain guti*: «ni tampoco»: ikus 2215.

2339. *horioç*: ez du zer izanik hutsa; *gizonok* diogunean bezala, atzizki mugatzaila hurbilekoa du.

zeru kolore urdinak, nola aire mebeak,  
eta urak, diamanta nola tatzagabeak.

Lurra beiraren pare daite, prinzeenean  
zeina presentatzen baita xabuki mahainean.

Urean ere ezta izanen arrain igelduririk,  
ez lurrean sagar edo berze fruitu ezirik

eta airean ez tire hegaturen xoriak,  
ez hain guti larrainetan ibiliren bestiak,

2340 ezen horiok on ziren lehenago munduan,  
lurrean gizonak egon obi ziren orduan.

Ezta, beraz, deus izanen bustel abal daitenik,  
belhar edo zuhaitzik ez, ez hetzaz bizienik,

bainan elementak dire izanen xoil argiak  
eta bistak dadutzanak xahu eta garbiak.

Aldapa eta mendi gorak dirade planaturen  
eta puioak elkharren kidera berdinduren.

Finean nola zerua baita guztiz leuna,  
lurraren bisaia hala izanen da berdina.

2350 Dobatsuak, beraz, duke handi gozamendua,  
hain estatu ederrean ikhustez mundua.

---

2341. *bustel*: Lhandek *ustel* eta *pustel* bai, baina *bustel* ez dakar.

2342. *hetzaz bicienic*: hots, *bizituenik*, nahiago baduzu: ikus 1595. Hauxe esan nahi du: belarrez nahiz zuhaitzez bizi izan direnen alerik ere ez dela gehiago izango, biziko.

2345. *aldapa*: bi bertsook honela dakartza Lhandek: «Les côteaux et les hautes montagnes s'applaniront et les éminences s'égaliseront à la mesure les unes des autres»: ikus Hiztegia, *puio* I, or. 889.

2347. *fiñean*: beste biok honela, osoro aldatu ez baditu ere hiztegiara: «Comme le ciel est uni, ainsi la terre sera applanie»: ik. *bardin*, or. 109. *Lurra* aldatu du, nahiz Etxeberrik *lurraren bisaia* dioen.

*leuna*: hiru silaba zor zaizkio bertso honetan; ez ahantz, *leguna* ere badugula euskaraz: ikus *legun* eta *legundua* bertso berean: 293.

2349. *handi gozamendua*: hots, *goçamendu handia*.

2350. *estatu*: ikus 2241: han *statu*- idatzi du, baina *estatu*- irakurri behar zela esan dugu.

- Behera contemplaturen ditu içar chahuac  
 Elementac accort eta plano lur malkhartsuac  
 Gauça hauc eguiñen dire onen errespertura  
 Cergatic içatu duten bici onaz ardura  
 Ecen nola Erregueec soldaduen etcheac  
 Guerlatetan eguin eta handi sendagailleac  
 Haguitz ederraracitcen baitituzte harguiñac  
 Hetan emplega detçaten manaturic bur fuñac  
 Hala Iongoico puchantac lur idor eta hotça  
 2360 Edertaturen du noizbait dohatsuen egoitça  
 Ceren señalatu diren valentiez munduan  
 Lagunec faltatu çuten aren legue Sainduan  
 Han hara egonen dire Ceru khechac gueldiric  
 Eta Içarrac cein bere ohatcetan iarriric  
 Mehaqueec ere iassanen eztute ardantceric  
 Ezta ordoquiec ere Abuztutan garbaric  
 Hauc lehenago on ciren bicia luça garri  
 Guehiagoric eztaite nihor gosse ez egarri  
 Noizbait mundu behereco gauçac busteltcen ciren  
 2370 Mende hura ioan daiteque, ezta deus usainduren.
- 
2355. *ecen nola*: honako konparaketa hau lau bertsoan barna luzatzen da eta 2359garrenean dago apodosia: «hala Iongoico...».  
*soldaduen etcheac*: *ederraracitcen baitituzte*-ren objeto da hau eta bien artean beste aditz sintagma osoa sartu du.
2356. *eguin eta*: gerundio gisakoa, noski: *eginez gero*.  
*handi sendagailleac*: hots, *sendagaille bandiac*. *Sendagaille*- zera da: egiteko handia.
2357. *harguiñac*: ondoko bertsoaren perpauseko da: hots, erregeek harginak manatu, hetan (etxeetan) enplega ditzaten burfuiñak. Hartara *harguinac* zangalatrau dago.
2358. *bur fuñac*: hots, *buruko munak*: ikus v. 40.
2360. *noizbait*: ikus 2163.  
*dohatsuen egoitça*: gaztelaniaz «para morada de...» aditzen dugu, baina poetak *lur idor eta hotça*-ren aposizio gisa eman du.
2362. *çuten arren*: zesura erdian dute.
2363. *han hara*: ikus 1218.

Behera kontenplaturen ditu izar xabua,  
elementak akort eta plano lur malkhartsuak.

Gauza hauk eginen dire onen errespetura,  
zergatik izatu duten bizi onaz ardura;

ezen nola erregeek soldaduen etxeak  
gerlatetan egin eta handi sendagaileak,

bagitz ederrarazitzen baitituzte, barginak  
betan enplega detzaten manaturik bur fuinak,

2360 hala Iongoiko puxantak lur idor eta hotza  
edertaturen du noizbait dobatsuen egoitza,

zeren seinalatu diren balentiez munduan,  
lagunek faltatu zuten arren lege sainduan.

Han hara egonen dire zeru khexak geldirik  
eta izarrak zein bere ohatzetan iarririk.

Mehakeek ere iasanen eztute ardantzerik,  
ezta ordokiek ere abuztutan garbarik.

Hauk lehenago on ziren bizia luzagarri,  
gehiagorik eztaite nihor gose ez egarri.

2370 Noizbait mundu behereko gauzak busteltzen ziren,  
mundu hura ioan daiteke, ezta deus usainduren.

---

*ceru khexac*: hemen *khexa*- adjetivo da: *arin*, *ibilkor*.

2364. *bere ohatcetan*: zesurak bi zati egiten dituelarik.

2365. *mebaqueec*: hots, mahastiek. Ohar, bi *-ee-* horiek bat bailira ebaki behar direla. Lhandek honela: «Les vignes ne produiront pas non plus de vendange»: ikus Hiztegia, *ardantza*, or. 54.

2366. *ezta*: hona Lhanderen itzulpena: «Les plaines ne porteront pas de gerbes»: ikus Hiztegia, *garba* I, or. 335.

2367. *hauc lehenago*: beste (2339) bertso haren antz handia du.

*bicia luçagarri*: izena objeto izaten jarraitu da, *luça-* adizki balitz bezalaxe, genitivora aldatu gabe; ikus gauza bera: 2696. Etxeparek ere badu horrelakoa: *Gendec yrrigarri guerta ezquiten* (X,6). Gehienetan izena genitivoan ageri ohi da: ikus 810; 2308; 1646; 2695.

2369. *noizbait*: ikus 2163.

*busteltcen*: ikus 2341.

2370. *ioan daiteque*: *ioan* silaba bakarrez ebaki behar da: *ioan*. Ikus, gainera, *daiteque* dela eta, 2223.

*Haur bathaiatu gabeen statuz.*

Haur bathaiatu gabeac Iuiamendu ondoan  
Ohi beçala egonen dire illhun Limboan  
Eguia da batçuz dela choill ausartqui errana  
Habitatuco dutela lur planoaren gaña  
Bañan seguragoa da haren contrarioa  
Beguiraturen dutela bethiere Limboa  
Theologo hoberenen hau da opinioea  
Ceñen artean gaitz baita haguitz enganatcea.

*Exhortationea.*

- 2380 Ez aiz bada espantatcen bekhatutan sarthua  
Entçutean Iesus Christen hertsia Iuiamendua  
Ez aiz beldur guertha adin ezquerrecoetaric  
Eta akherrac beçala apartatuetaric  
Hire gana eror dadin sententia dorphea  
Ez aiz beldur, nola ozpin cruelaren colpea  
Ea orain nigar eguic balio duenean  
Ecen eztuquec probetchu eguitea orduan  
Barkhamendu Ceruari esca aquio gaizquiez  
Iaio intcen egunetic orañoco guztiez  
2390 Hobeagora aldaçac leheneco bicia  
Arranoac nola pluma ithurrian bustia  
Oren hura erabillac gau eta egun fuñean  
Çuhurtciac guida adin eta salua fiñean.

---

2372. *illhun limboan*: hots, *limbo illbunean*.

2373. *batçuz*: ikus 2140, *çuetçaz*; «ha sido sostenido por algunos», baina horren ondoan 2163.

2374. *gana*: edo *gaina*.

2380. *hertsia iuiamendua*: hots, *iuiamendu hertsia*.



Haur bathaiatu gabeen estatuaz.

*Haur bathaiatu gabeak iuiamendu ondoan  
ohi bezala egonen dire ilhun linboan.*

*Egia da batzuz dela xoil ausartki errana  
habitatuko dutela lur planoaren gana,*

*bainan seguragoa da haren kontrarioa,  
begiraturen dutela bethiere linboa.*

*Theologo hoberenen hau da opinioea,  
zeinen artean gaitz baita hagitz enganatzea.*

#### Exhortazionea.

2380 *Ez aiz, bada, espantatzen bekhatutan sarthua,  
entzutean Iesus Khristen hertsia iuiamendua?*

*Ez aiz beldur gertha adin ezkerrekoetarik  
eta akherrak bezala apartatuetarik?*

*Hire gana eror dadin sentenzia dorphea  
ez aiz beldur, nola ozpin kruelaren kolpea?*

*Ea, orain nigar egik balio duenean,  
ezen eztukek probetxu egitea orduan.*

*Barkhamendu zeruari eska akio gaizkiez,  
iaio intzen egunetik orainoko guztiez.*

2390 *Hobeagora alda zak leheneko bizia.  
arranoak nola pluma ithurrian bustia.*

*Oren hura erabilak gau eta egun fuinean,  
zuhurtziaz gida adin eta salba finean.*

---

2384. *ez aiz beldur*: zangalatrau dago.  
*ozpin*: ikus 2057.

2387. *esca aquio*: lehen esan bezala (2214), hemen ere objektoa du: *barkhamendu*.

2388. *guztiaz*: sintagma berez *oranoco gaizqui guztiaz* da.

2391. *gau eta egun fuñean*: ikus hitz berak, v. 40.

BVRV IV.

*Ifernua.*

Condaturic Iuiamendu larriaren manerac  
Nola aiphaturen ditut Ifernuco colerac  
Iongoicoa oraingoan ossoqui dut etsitcen  
Hats bahituren naicela, ez banauçu laguntcen  
Ea beraz Iainco handi hitçaren emaillea  
Arren fauora eçaçu ene mihi feblea

*Ifernua cer den eta haren causaz.*

- 2400 Ifernua deitcen dugu Iaunaren gaztigua  
Falten punitionetan çucen ordenatua  
Lekhuaren icenetic hartcen du aiphamena  
Damnatuec non baitute soffrituren çor-pena  
Guiristiñoa ezteçala mirets Iaunac iustua  
Ceren faltari ematen dioen gaztigua  
Ecen nola celhaietan arriberec bidea  
Halaber nahi dic eguin Iustitiac berea  
Halacotz Iauna delaric gaztigura berantcor  
Eztuc ceren enganatu alleguia ahantzcor  
2410 Ecen cembatenaz baitu luce patientia  
Hambatenaz eman ohi dic gaztigu larria  
Hala nola arcuari soca guibelatcean  
Urrunago arthiquitcen baitu fletcha airean  
Gauça bera duc Iaincoaz, ceñaren açoteac  
Hambat handiac baitire combat pairu luceac.

---

2396. *bats babitu*: hots, arnaserik gabe gelditu: ikus 1539.

2403. *ez teçala*: hik, noski, euskara batuan *ez dezaala*.

*iustua*: berez *gaztigu iustua* den sintagma zatitua dago.

2404. *ceren*: konpletiva da hemen, *mirets-i* zor zaiona. Latinez ere «*mīror quod*».

*dioen*: ikus 1926, *dioela*.

2407. *halacotz*: *hartaracotz*-en kidea: ikus 1004.

## BURU IV.

### Ifernuaz.

*Kondaturik iuiamendu larriaren manerak,  
nola aiphaturen ditut ifernuko kolerak?*

*Iongoikoa, oraingoan osoki dut etsitzen  
bats habituren naizela, ez banauzu laguntzen.*

*Ea beraz, Iainko handi, hitzaren emalea,  
Arren, fabora ezazu ene mihi feblea.*

### Ifernua zer den eta haren kausaz.

2400 *Ifernua deitzen dugu Iaunaren gaztigua  
faltan punizionetan zuzen ordenatua.*

*Lekhuaren izenetik hartzen du aiphamena,  
damnatuek non baitute sofrituren zor-pena.*

*Giristinoa, extezala mirets, Iaunak iustua  
zeren faltari ematen dioen gaztigua,*

*ezen nola zelhaietan arriberek bidea,  
halaber nahi dik egin iustiziak berea.*

*Halakotz Iauna delarik gaztigura berantkor,  
eztuk zeren enganatu alegia ahantzkor,*

2410 *ezen zenbatenaz baitu luze pazienzia,  
hanbatenaz eman ohi dik gaztigu larria.*

*Hala nola arkuari soka gibelatzean  
urrunago arthikitzen baitu fletxa airean,*

*gauza bera duk Iainkoaz, zeinaren azoteak  
hanbat handiak baitire, zenbat pairu luzeak.*

---

2408. *alleguia ahantzcor*: hots, ahantzkor balitz bezala; *berantcor* bai, baina *ahantzcor* ez.

2410. *hambetenaz*: hala dio, baina *hambatenaz* behar du: ikus 1795.

2413. *gauza bera duk Iainkoaz*: ikus bestelatsu esana: 1107; eta 1089; 1107.

2414. *hanbat... cembat*: sei bertso goragoko *cembatenaz*... *hambatenaz* bezalako, baina alde txiki bat dutelarik: atzekoz aurrera egotea: «cuanto... tanto...» eta «tanto..., cuanto...». Lhandek honela dio: «Les châti-

*Ifernuaren lekhuaz.*

Fin gabe pena behar du gaichtaguiñac pairatu  
Ifernu belça non baitu Iongoicoac formatu

Hara bada Deabruec arima daramate  
Carcela nondic secular athera ez baitaite

2420 Luciferrec desiratu çuen lekhu goren  
Ceñi eman baitcitçaion Ifernu beherena

Lecea da munduaren erraietan barrena  
Lurraren bazterretaric berdinquì urrun dena

Gure guztien ahoan deitzen da Ifernua  
Luciferri non baitçaiò ematen gaztigua

Lekhu berean punitcen dire gaichto berceac  
Ceñec hautsi baitituzte Iaincoaren legueac.

*Ifernuco atheac.*

Lekhu hunetaco suac asco inhar airera  
Munduaren bazterretan bidaltcen du mehera

2430 Mendi kharrez arguituac, lece lamboz betheac  
Munduz mundu ibilli den ikhussi tu ioaleac

Hauc guztiec ethorquia dute lekhu hartaric  
Hartan iaquiñec eztute eguin ohi dudaric

Hetaric Spirituac sarthu ciren labera  
Egotci cituenean Iaunac buruz behera

---

ments de Dieu (les fouets) sont d'autant plus grands que ses patiences ont été plus longues». ikus Hiztegia, *pairu* II, or. 838. Ia gauza bera esan du beste hartan: 2195.

2416. *non baitu*: erlatibozko garbia, noski: ikus 2402.

2418. *nondic*: beste horrenbeste eta, ahal badadi, are garbiagoa, *carcela* duelarik antezedente delakoa.

2420. *ifernu*: eta aurreko bertsoan *lekhu*, biak *-rik* gabe.

2421. *lecea*: oso bakanka darabil Etxeberrik *bat* mugatzaila gisa; gezurra dirudi Axular honen kide eta euskalki bereko izana.

2422. *berdinquì urrun*: hots, «equidistante».

2423. *gure guztien*: Etxeparek bezala: *gure bion* (VII,15), ez *gu*; ikus 992.

2424. *non baitçaiò*: ikus 2416.

Ifernuaren lekhuaz.

*Fin gabe pena behar du gaixtaginak pairatu,  
ifernu belza non baitu Iongoikoak formatu.*

*Hara, bada, deabruek arima daramate,  
kartzela nondik sekulan athera ez baitaite.*

2420 *Luziferrek desiratu zuen lekhu gorena,  
zeini eman baitzitzaien ifernu behearena.*

*Lezea da munduaren erraietan barrena,  
lurraren bazterretarik berdinki urrun dena.*

*Gure guztien ahoan deitzen da ifernua,  
Luziferri non baitzaio ematen gaztigua.*

*Lekhu berean punitzen dire gaixto berzeak,  
zeinek hautsi baitituzte Iainkoaren legeak.*

Ifernuko atheak.

*Lekhu hunetako suak asko inhar airera  
munduaren bazterretan bidaltzen du mehera.*

2430 *Mendi kharrez argituak, leze lanboz betheak  
munduz mundu ibili den ikhushi tu ioaleak.*

*Hauk guztiek ethorkia dute lekhu hartarik,  
hartan iakinek eztute egin obi dudarik.*

*Hetarik espirituak sarthu ziren labera,  
egotzi zituenean Iaunak buruz behera.*

---

2425. *gaichto berceac*: hots, *berce gaichtoac*.

2426. *ceñec*: ikus 2334, *ceña*.

2428. *mehera*: sintagma berez *aire mehera* da: ikus 2231.

2429. *mendi*: ikusi dugunez, honelako perpausak bitara ematen ditu: bertsoan dauden erara eta baita honela ere: *kharrez argitu mendiak, lanboz bethe leceak*. Honela ere bertso bikaina zukeen eta puntua ere bera: ikus 2445.

2430. *ioaleac*: bere lekutik aterea dago; honela behar lukc, aho hizkeraren arabera bederen: *ibilli den ioaleac ikhushi tu*.

2432. *iaquinec*: hots, jakintsuek, trebatuek.

2433. *spirituac*: ahoska ezazu: *espirituak*.

- Berequin ekharri çuten su ecin iraunguia  
 Ceruaren contracotic iratchacaracia
- Hartaracotz estirara erortceco lekhuac  
 Sartcean utci cituzten su handiaz bitztuac
- 2440 Munduaren lau partetan hetan asco lekhotan  
 Halaco suac agueri dire bassa mortutan
- Spiritu creatuen hirur garren partea  
 Damnatu cen hautatuaz Lucifer Erreguea
- Nola baitcen Spiritu hañitz egotztecoric  
 Halacotz erori ciren hañitz basterretaric
- Hequien señale dire erran lece, mendiac  
 Munduaren comarquetan suaz iratchaquiac
- Sartcen eta illkhitcen dire hetaric Deabruac  
 Garraiatcen ere tuzte hetaric damnatuac.

*Punitceco lekhu bereciez.*

- 2450 Ifernuan cein hañitz den pena eta dolore  
 Aingueruac eztu asqui condatceco podore
- Bekhatuen eredura punitceco lekhuac  
 Lece eta harartetan dire aldaratuac
- Hemen punitcen dirade superbiaz hantuac  
 Hemen berriz paillardica higuñaz lohituac
- Hantche guero mendecoso eta herraz betheac  
 Berce partean ohoñac, hara han hilltçailleac
- Baldin hobenduna bada hañitz faltaz cutsatu  
 Orain batean, guero bercean behar du tormentatu

---

2436. *iratchacaracia*: hainbestetan atera den *iratchaqui*-ren faktitiboa: ikus 2285.

2437. *hartaracotz*: ikus *halacotz*, 2407. Baita 2444 ere.

*estirara*: *oinaze*- da berez *estira*- eta baita *oinazeleku*- ere: ikus 1481, *eztirara*, -z- duelarik.

2439. *betan*: hauxe esan nahi du: lau partetan eta lau parte horietako lekhu askotan.

2441. *spiritu*: ahoska, *espiritu*: ikus 2433. Bi bertso beheerago (2443) ere bai.

2443. *egotztecoric*: hots, egotzi behar zenik.

*Berekin ekbarri zuten su ezin iraungia,  
zeruaren kontrakorik iratxakarazia.*

*Hartarakotz estirara erortzeko lekuak  
sartzean utzi zituzten su handiaz bitztuak.*

2440 *Munduaren lau partetan, betan asko lekbutan  
halako suak ageri dire basamortutan.*

*Espiritu kreatuen hirugarren partea  
damnatu zen hautatuaz Luzifer erregea.*

*Nola baitzen espiritu hanitz egotztekorik,  
halakotz erori ziren hanitz bazterretarik.*

*Hekien seinale dire erran leze mendiak,  
munduaren komarketan suaz iratxakiak.*

*Sartzen eta ilkbitzen dire betarik deabruak,  
garraiatzen ere tuzte betarik damnatuak.*

Punitzeko lekhu bereziez.

2450 *Ifernuan zein hanitz den pena eta dolore,  
aingeruak eztu aski kondatzeko podore.*

*Bekhatuen eredura punitzeko lekhuak  
leze eta harartetan dire aldaratuak.*

*Hemen punitzen dirade superbiaz hantuak,  
hemen, berriz, pailardiza biguinaz lobituak,  
hantxe gero mendekoso eta herraz betheak,  
berze partean oboinak, hara han hiltzaileak.*

*Baldin hobenduna bada hanitz faltaz kutsatu,  
orain batean, gero berzean behar du tormentatu,*

---

2444. *basterretaric*: hala dio, ez *bazter*-; ez da, haatik, hutsa; oroit, leherkari-  
aurrean gertatzen dela hori ia beti: ikus 2437, *estirara*; *eta eztirara*;  
*bazter*, berriz, 2743.

2445. *hequien señaile*: hots, *haien seinale*: ikus 1780.  
*erran leze mendiac*: ikus 2429.

2448. *ere*: ikus 2091.

2452. *harartetan*: Lhandek *barrarte*- dakar eta, agian, hala behar du izan: *barri*  
*arte*, alegia; baina Etxeberrigan ez: ikus 2910.

2458. *batean*, *bercean*: bina silaba dute: *batyan*, *bercyan* ahoskatu.

- 2460 Bihur guero lehenbici athera cen chillhora  
 Eta hala eramanen du bethico dembora  
 Lekhuen ere araez dire Spirituac  
 Arimequin punitceco ordenaz hautatuac  
 Lucifer da buruçagui burreu urguilluena  
 Asmodea paillartena, bercea colerarena  
 Auaritiosequien da ordean Mammona  
 Harc punitcen tu sobera desiratuac ona  
 Berceac partituac dire berce viciotara  
 Manuac hedatcen tuzte ttipiagoetara  
 2470 Tentatceco ere dire orobat hautatuac  
 Batçuec hunen, berceac gauça horren Spirituac.

*Ifernuratcea.*

Arima denean bada gorputcetic athera  
 Ceña Ingoicoac baitu condemnatu lecera  
 Bere bekhatuen causaz han daraman adiña  
 Behin ere ikhussiren ceñen ez baitu fiña  
 Bere mendean tentatu duten Spirituac  
 Lotcen çaiçco nola lehoñ sukharrez çoratuac  
 Ingurura beha dago norc deçaquen defenda  
 Guztiarequin alferric hambat doloratcen da

- 
2461. *arauez*: bestetan *arabera* nahiz *eredura* esan ohi duenaren kide.  
*spirituac*: ikus 2441.
2462. *arimequin*: genitivoa da; hots, *arimen punitceco* gehienetan esan ohi duena bera: ikus hiru bertso beherago (2465) beste forma: *auaritiosequien*.
2465. *auaritiosequien*: aurreko bertsoek garbi erakusten dute forma hau genitivo dela: hots, *urguiluen* burreu buruzagi Luzifer, *pailartena* Asmodea, *koleraarena* bestea den bezalaxe, *abariziosena* Mamona da.
2466. *desiratuac*: aktivoa da: «a los que han deseado»: ikus 2306, *beztituac*.
2468. *ere*: ikus 2091.
2470. *batçuec*, *berceac*: bina silaba dute; *batzwek*, *berzyac* ahoskatu behar, *beraz*: ikus 2458.



2460 *bibur gero lehenbizi athera zen xilhora  
eta hala eramanen du bethiko denbora.*

*Lekhuen ere araez dire espirituak  
arimekin punitzeko ordenaz hautatuak.*

*Luzifer da buruzagi burreu urgiluena,  
Asmodea pailartena, berzea kolerarena,*

*abariziosekien da, ordean, Mamona,  
hark punitzen tu sobera desiratuak ona,*

*berzeak partitu dire berze biziotara,  
manuak hedatzen tuzte ttipiagoetara.*

2470 *Tentatzeko ere dire orobat hautatuak,  
batzuek hunen, berzeak gauza horren espirituak.*

#### Ifernuratzea.

*Arima denean, bada, gorputzetik athera,  
zeina Iongoikoak baitu kondenatu lezera,*

*bere bekhatuen kausaz han daraman adina,  
behin ere ikhusiren zeinen ez baitu fina,*

*bere mendean tentatu duten espirituak  
lotzen zaizko, nola lehoin sukharrez zoratuak.*

*Ingurura beha dago nork dezaken defenda,  
guztiarekin alferrik hanbat doloratzen da.*

---

*spirituac*: ahoska *espirituak*. Bi bertsook lehengo (2461-2) bi haien antzeko dira; irakur, beraz, honela: *orobat dire ere hautatuac spirituac, batçuec gauça hunen, berceac gauça horren tentatceco*. Ala *espirituac* berak ote dira nahiz gauza honen nahiz bestearen?

2471. *arima*: mendeko perpausa lau bertsoan barna luzatzen da: lehen bertsoa denborazko perpausa da; bigarrena, erlatibozkoa; hirugarrena, finala; laugarrena, erlatibozkoa. Hots, «Así pues, una vez que ha salido del cuerpo el alma, que Dios ha condenado al infierno, para que por causa de sus pecados transcurra allí un tiempo, cuyo término no verá jamás, ...» eta orain hasten da perpaus nagusia.

2473. *daraman*: subjuntivo da, beraz, balioz bederen.

2475. *spirituac*: ikus 2441.

2480 Declaratcen diotçate eguin tuen gaizquiac  
Ceñen gatic soffrituren baititu miñ handiac

Hala nola Meriñoac bere etchetic lekhora  
Atheratcean ohoña escua emanic lephora

Erraten baitio hutsa cerengatic daraman  
Berac eta bercec ere gauça mirets ezteçan

Hala etsaiec diote declaratcen hobena  
Ceñen gatic soffrituren baitu bethico pena

Atçaparca daramate guero khissu labera  
Dolore eta atsecabe fin gabeen hastera

2490 Eta hura hala nola haztoreac choria  
Behatcez altchatcen baitu airean gora ttipia

Halaber altchatcen tuzte arima iuiatuac  
Spiritu gure contra aihercundea sarthuac

*Ifernu berean sartcea.*

Lece belz hartaratcean tristetcen da arima  
Ecen doa ikhustera seculaco lastima

O ene dohacabea! dio doloratuac  
Iaquiara hautatuaz hunelaco putçuac

Ceren ez nuen complitu Iaincoaren manua  
Golardotçat içateco Parabisu saindua

---

2479. *diotçate*: euskara batuan, *dizkiote*.

2480. *ceñen gatic*: erlatibozkoa: «por los que»: ikus 660; adizkiak *bait-* du.

2481. *hala nola*: konparaketa hau ere lau bertsoetan barna luzatzen da eta gero dator (2485) perpaus nagusia: *hala etsaiec...*  
*lekhora*: hots, *kanpora*; ikus *lekhbat*, 1637.

2483. *cerengatic*: ikus 2018; bietan adizkiak *-en* du; galderazkoa dirudi, beraz.

2486. *ceñen gatic*: ikus 2480; baina, han ez bezala, hemen singularra da: «le declaran el crimen por el que...».

2487. *khissu labera*: aurrerago ere aterako da hitz konposatu hau: 2595.

2489. *eta hura*: ikus 494.

2490. *ttipia*: sintagma berez *chori ttipia* da, apurtua dagoen arren.

2491. *halaber*: bi bertso gorago (2489) poetak hasi duen protasiaren akabera eta apodosiaren hastea markatzen du hitz honek: *hala nola...*, *halaber...*

2480 Deklaratzen diotzate egin tuen gaizkiak,  
zeinen gatik sofituren baititu min handiak.

*Hala nola merinoak bere etxetik lekhora  
atheratzean oboina, eskua emanik lephora,*

*erraten baitio butsa zerengatik daraman,  
berak eta berzek ere gauza mirets eztezan,*

*hala etsaiek diote deklaratzeko hobena,  
zeinen gatik sofituren baitu bethiko pena.*

*Atzaparka daramate gero khisu labera,  
dolore eta atsekabe fin gabeen hastera;*

2490 *eta hura hala nola haztoreak xoria  
behatzez altxatzen baitu airean gora ttipia,*

*halaber altxatzen tuzte arima iuiatuak  
espiritu gure kontra aiherkundera sarthuak.*

Ifernu berean sartzea.

*Leze belz hartaratzean tristetzen da arima,  
ezen doa ikhustera sekulako lastima.*

*«O ene dohakabea», dio doloratuak,  
«iakiara hautatuaz bunelako putzuak.*

*Zeren ez nuen konplitu Iainkoaren manua,  
golardotzat izateko parabisu saildua?*

---

2492. *sarthuac*: berez *sarthuac* behar luke, ergativo plurala bait da eta *arima iuiatuac* objektoa. Puntuak bortxatu du poeta: ikus 2129.

*aiberkundera sarthuac*: *aiberkundera* lau silabaz ebaki behar da: *aiberkundera*. Horrez gain, espirituak ez dira inon sartu, haiengan da aiherkundera sartua: «en los que ha entrado (= que están poseídos de) el odio contra nosotros»: ikus 2258.

2493. *hartaratzean*: *lece belz hartara* den adlativoa dago hemen aditz bihurtua bere osoan, azkenak *-tu* hartu eta *joatean* edo *iristean* esaten ibili gabe. Adlativoak euskarak maiz bilakatzen ditu aditz: *oberatu, eskuratu...*

2495. *ene dohakabea*: ikus 2143.

2496. *iaquiara*: ikus 17.

*hautatuaz*: balio kausala nabari du: «por haber elegido».

2497. *ceren*: galderazko adverbioa, ez konjuntzioa.

- 2500 O dolore, transimendu, desesperamendua  
 Cer lastima egotu da enetçat azkendua
- Halaber marrascaz hasten dire berce guztiac  
 Bere hutsen causaz Iaunac sutara egotciac
- Hunelaco moldez dire haren contra mintçatcen  
 Ceñen hitz gaichtoec pena baitiote berretcen
- Aicen madaricatua, o fortuna galdua  
 Ceñec berreturen baituc damnatuen contua
- Ceren hambat munduaren onez intcen egarri  
 Gure beguien finean ethortceco mingarri
- 2510 Halaber gaizqui mintçatcen çaiçco Spirituac  
 Ceñez baitire arima gachoac punituac
- Oi madaricatua! cer othe üen pensatcen  
 Gure hitçac non arinqui baitituen sinhetsten
- Hartu dituenz are haguiz handiangoac  
 Ustez hemen aurkhituren ituela goçoac
- Orain bada dastaturen hic dituc behaçunac  
 Hiretçat preparaturic iduqui ditugunac
- Bere hala ematen dute guero iaquin lekhuan  
 Burdin gathea duela çango eta escuan
- Sarri ardiasten çαιο secular dirauquena
- 2520 Haren hutsec merecitu duten iustuqui pena

- 
2499. *azkendua*: hots, azkenerako gordea, gelditua. «Rester le dernier, être de reste», dio Lhandek.
2504. *ceñen*: plurala: ikus 2486: hots, haren kontra mintzatzen *direnen* hitz gaixtoek hari pena berretzen diote.
2505. *aicen madaricatua*: *aicen*, ez *adin* edo *adila* edo zeinnahi den besterik: ikus 2139 eta 2151.  
*o fortuna galdua*: ez da fortuna galdu, baina *inork* galdu du fortuna; hots, *galdua* aktivoa da: ikus 2466.
2506. *damnatuen contua*: hots, *kopurua*; geroxeago (2523) *damnatuen nombrea* esango du.
2507. *ceren*: ikus 2497.  
*onez egarri*: hots, *zerbaitex* egarri izan.
2508. *gure beguien mingarri*: hori da berez sintagma: ikus, ostera, 2367.
2510. *ceñez*: ikus 2373.

- 2500 *O dolore, transimendu, desesperamendua,  
zer lastima egotu da enetzat azkendua!».*  
*Halaber marraskaz hasten dire berze guztiak,  
bere butsen kausaz Iaunak sutara egotziak.*  
*Hunelako moldez dire haren kontra mintzatzen,  
zeinen hitz gaixtoek pena baitiote berretzen:*  
*«Aizen madarikatua, o fortuna galdua,  
zeinek berreturen baituk damnatuen kontua.*  
*Zeren hanbat munduaren onez intzen egarri,  
gure begien finean ethortzeko mingarri?».*  
2510 *Halaber gaizki mintzatzen zaizko espirituak,  
zeinez baitire arima gaxoak punituak:*  
*«Oi, madarikatua, zer othe üen pensatzen,  
gure hitzak non arinki baitituen sinbetsten?  
bartu dituenetz are hagitz handiagoak  
ustez hemen aurkbituren ituela gozoak?*  
*Orain, bada, dastaturen hik dituk behazunak,  
biretzat preparaturik iduki ditugunak».*  
*Berehala ematen dute gero iakin lekhuak,  
burdin gathea duela zango eta eskuan.*  
2520 *Sarri ardiasten zaio sekulan diraukena  
haren hutsek merezitu duten iustuki pena,*

- 
2512. *non baitituen:* non honen balioa zehazkiro ematen zaila dirudi ikusi batera: denborazkoa? (¿Qué pensabas cuando...?): ikus 2424. Ala «tú que...?».
2513. *bartu dituenetz:* ikus 2314; 2827; hemen ere bigarren konparaburua instrumentalez emana dugu.  
*handiagoac:* irakur honela: *are haguitz goço handiagoac*, hori bait da berez sintagma osoa.
2514. *ustez:* Lhandek «peut-être, à ce qu'il semble» itzultzen du eta hemen, agian, horixe datorkio ongien. Ez, alegia, *ituela* den konpletiva sortzen duelarik; konpletiva hau goragoko *cer othe uen pensatzen?* harengandikoa litzateke.
2517. *ematen dute... lekhuak:* non ezartzen duten esan nahi bide du poetak: ikus 2142; han, ordea, *-ra eman dio*, ez inesivoa; ikus, aldiz, 560.
2519. *dirauquena:* hots, *seculan dirauquen pena*.

Ecen haren penatceco burreu ordenatuac  
Iratchaquitcen diotça atçapar çorroztuac

*Damnatuen nombre handia.*

Ifernura damnatuen cein handi den nombrea  
Nihorc ecin conda liro, hain da hussu oztea

Prestu baño guehiago dela gaizqui biciric  
Edoceñec beguietan daduca ikhussiric

Mundu guztia ethorri cen egun batez hartara  
Batez berceac erori non baitciren faltara

2530 Noe mañadarequien aurkhitu cen prestua  
Berce guztiec Iaunaren hautsi çuten manua

Hartaracotçat saluatu çuen Noe iustua  
Eta uholdeaz itho gañeraco mundua

Ecen eraguin cioen unci bat choill handia  
Eta sarraraci bera çortci garren bicia

Berce presuna guztiac uraz ciren fiñatu  
Eta nihon ere etcen bakhotchic escapatu

Alfer ihessi eguiten çuten mendi gañera  
Edo ezperen alcifre altchatuenenera

2540 Ecen mundu guztian cen mendi gorena baño  
Hamabortz besoz igantcen uholdea gorago

Ecen Iaunac duenean cerbait deliberatu  
Creaturac haren contra eztu ceren altchatu

---

2522. *dioçça*: euskara batuan *dizkio*: ikus 2479.

2523. *nombrea*: lehenxeago *contua* esan digu: ikus 2506.

2524. *oztea*: ikus 2159.

2525. *prestua baño*: zein dira konparazio honen bi atalak? *prestua(ak)* eta *gaizqui bici(a)* ala *prestua(ki biziak)* eta *gaizqui bici(ac)*? Bestela esan: *prestua* zer da? izena ala adverbioa? Eta *biciric* bera ere zer da? izen (?) baten partitiboa ala aditz (?) baten partizipioa? Partitiboa dirudi.

2527. *hartara*: hots, gaizki bizitzera.

2528. *batez berceac*: ikus 641; «todos menos uno»; jakina da, antzineko idazleengan *berce*-ren errejimena -z dela; ikus askoren artean Etxepareren hau: *harçaz berce guciac*, II,28.

*non baitciren*: ikus 2512.

*ezen haren penatzeko burreu ordenatuak  
iratzakitzen diotza atzapar zorroztuak.*

Damnatuen nonbre handia.

*Ifernura damnatuen zein handi den nonbrea  
nibork ezin konda liro, bain da busu oztea.*

*Prestu baino gehiago dela gaizki bizirik,  
edozeinek begietan daduka ikbusirik.*

*Mundu guztia ethorri zen egun batez hartara,  
batez berzeak erori non baitziren faltara.*

2530 *Noe mainadarekien aurkhitu zen prestua,  
berze guztiek Iaunaren hautsi zuten manua.*

*Hartarakotzat salbatu zuen Noe iustua  
eta uholdeaz itho gainerako mundua,  
ezen eragin zioen untzi bat xoil handia  
eta sarrarazi bera zortzigarren bizia.*

*Berze presuna guztiak uraz ziren finatu  
eta nibon ere etzen bakotxik eskapatu.*

*Alfer ibesi egiten zuten mendi gainera  
edo ezperen alzifre altxatuenenera,*

2540 *ezen mundu guztian zen mendi gorena baino  
hamabortz besoz igaten uholdea gorago,*

*ezen Iaunak duenean zerbait deliberatu,  
kreaturak haren kontra eztu zeren altxatu;*

---

2529. *mañadarequien*: hemen komitativoa da: «con su familia»: ikus, aldiz, 2465.

2531. *bartaracotçat*: oraino beti *bartaracotz* esan digu; hemen silaba bat gehiago behar, ordea: ikus 2437.

2533. *ciocn*: badirudi guk *zion* dioguna Etxeberrik *-en* atzizkiz esaten duela be-ti: ikus 2404, *dioen*.

2534. *çortcigarren bicia*: hots, beste zazpi eta bera.

2536. *bakhotçhic*: Lhandek *seul* ere esan nahi duen frogatzat bertso hauxe aipa-tzen du: «il n'en échappa un seul au monde»: ikus Hiztegian, *bakhoitz*, or. 103.

2538. *edo ezperen*: guk *edo bestela* dioguna da.

*altchatuenenera*: hots, alzifre altxatuenen gainera.

2540. *igantcen*: hala dago; *igaten* behar luke, ene ustez. Ikus 2824.

Hala hec ere saluatu nahiz bere bicia  
Mendira eguiten çuten alferric ihessia

Uholdea iraganez guero gende infidel  
Guehiago içatu da lurrean ecen fidel

Hartaracotz San Mathiu eguiaz cen mintçatu  
Hañitz deitcen cela, bañan guti cela hautatu

2550 Hequien punitceco da behar lekhu handia  
Halaber du Iongoicoac ordenatu asquia

Nihor beraz ezta egonen lekhu faltaz campoan  
Bañan latzqui punituco da lece lurpecoan

*Ifernuaeren handitassunaz.*

Nola bada ifernuac hambat gende daducan  
Hañitcec eçarri dute espantaturic dudan

Bañan ezta deusic behar gauça hartan miretsi  
Baicen damnatu guztiaç dadutçala sinhetsi

Ecen cembat baita handi eta hussu nombrea  
Nola itsas bazterretan ecin conda sablea

2560 Hala ere iduquitcen tu guztiaç errachqui  
Batac berceari traua eguin gabe aphurqui

Lekhua da guztiz handi, luce, gora, behera,  
Ardiasten hec guztien non baitu çarratcera

---

2545. *iraganez guero*: bien erdian zesura.

*gende infidel guehiago*: hitz andana bakarra da berez eta ezin urratua aho hizkeran; hemen, halere, bi bertsotan barrena sakabanatua dago: zangalatrau.

2546. *ecen fidel*: hots, *fidel baino*: ikus *ecen*, 1320.

2548. *hanitz*: «multi sunt vocati, pauci vero electi», dio S. Mateok (22,14) eta Etxeberrik esaera hori 1. mendeko perpauis gisa ematen digu, konpletiva gisa, S. Mateok hala zioela esanez; 2. lehenaldian adizkiak, «aldien egokiera» delakoa dela bide, «*cen mintçatu*»-ri dagokionez; 3. singularrean, gainera, *hanitz* eta *guti* hala erabili bait daitezke; 4. biak pasivan, noski, baina antzineko autoreen pasivan; hots, azpi egituran hau dutelarik: «hanitz deitzen da» eta «guti da hautatu», ez, guk bezala, «asko *izaten* da deitua» eta «guti *izan* da hautatua»:



*bala hek ere salbatu nahiz bere bizia  
mendira egiten zuten alferrik ibesia.*

*Uholdea iraganez gero, jende infidel  
gehiago izatu da lurrean ezen fidel.*

*Hartarakotz San Mathiu egiaz zen mintzatu,  
hanitz deitzen zela, bainan guti zela hautatu.*

2550 *Hekien punitzeko da behar lekhu handia,  
halaber du Iongoikoak ordenatu askia.*

*Nihor, beraz, ezta egonen lekhu faltaz kanpoan,  
bainan lazki punituko da leze lurpekoan.*

#### Ifernuaren handitasunaz.

*Nola, bada, ifernuak hanbat jende dadukan,  
hanitzek ezarri dute espantaturik dudan,*

*bainan ezta deusik behar gauza hartan miretsi,  
baizen damnatu guztiak dadutzala sinhetsi;*

*ezen zenbat baita handi eta husu nonbrea,  
nola itsas bazterretan ezin konda sablea,*

2560 *bala ere idukitzen tu guztiak erraxki  
batak berzeari traba egin gabe apburki.*

*Lekhua da guztiz handi, luze, gora, behera,  
ardiasten hek guztien non baitu zarratzera,*

---

*izan* eta *-a* gabe, alegia: ikus 1828; 5. lehen adizkiak bigarren partizipioa duelarik; bigarrenak, aldiz, lehena: hots, «deitcen da», baina «hautatu da» «cela *hautatcen*» esan beharrean. Ikus 3700: *behar dute pagatu*.

2549. *bequien*: ikus 2445.

2550. *asquia*: ikus 1407.

2557. *cembat*: hau batzuetan konzesiva kutsukoa izan ohi da, hemen bezala, bereziki *ere* darraikionean: *cembatere*: ikus 1182; 1239. Hala dela sinesteko, aski da ohartzea apodosiak *bala ere* duela: 2559. Hots, «Pues aunque su número es grande y copioso, como incontable es la arena en las playas, sin embargo...».

2562. *non baitu*: irakur honela: *non ardiasten baitu hec guztien çarratzera*: «donde alcanza a encerrar a todos ellos».

Ecen nola Itsassoco handi arrain Baleac  
 Iretsten baititu betan antcho contu gabeac  
 Edo nola Ceruaren erraizqui inguruac  
 Lehorraren iduquitcen baititu compassuac  
 Ifernuac halaber du iduquitcen francoqui  
 Damnatuen compaña den guztia largoqui  
 Hequin bada berretceco guehiago nombrea  
 2570 Deabruac daramate condemnatu donguea.

*Penen diuisionea.*

Barrenago sarthu gabe Ifernuco penetan  
 Iduritcen çait on dela bereztea partetan.

*Pena generalac eta particularac.*

Generalac dire batçuc, berceac particularac  
 Condaturen tugu lehen biciric generalac  
 Ecen hau da guztietan guardatcen den ordena  
 Generala lehen doan, particulara azkena  
 Bañan hauc biac dirade bi bercetan berezten  
 Puchantça guztiei çaitze edo batçuei ematen  
 Guc beguiratuco tugun hauc dirade ordenac  
 2580 Declaratcean oñhace damnatu gachoenac.

*Arimaren eta gorputçaren pena generalac.*

Arimaren bada pena eta gorputçarenac  
 Aiphatcera goacen hauc dire generalenac.

- 
2563. *handi arrain*: hots, *arrain handi*; batere beharrik gabe trukatu ditu, gainera.  
 2564. *betan*: ikus 2074.  
 2566. *lehorraren*: hots, *lehorraren compassuac* («los espacios de la tierra»)  
 2569. *hequin*: hots, *hequin nombrea*: ikus 2242.  
 2571. *sarthu gabe*: hots, sartu baino lehen: ikus 1188.  
 2574. *lehen biciric*: guretzat *lebenbizi* hitz bat da, baina Etxeberrirentzat ez hainbeste, inoiz *leben eta bizi* (gure *lehendabizi*) esaten bait du: ikus 2651. Hemen zesurak erdibitu du.

*ezen nola itsasoko handi arrain baleak  
iretsten baititu betan antxo kontu gabeak*

*edo nola zeruaren erraizki inguruak  
lehorraren idukitzen baititu konpasuak,*

*ifernuak halaber du idukitzen frankoki  
damnatuen konpainia den guztia largoki.*

2570 *Hekin, bada, berretzeko gehiago nonbrea  
deabruek daramate kondemnatu dongea.*

Penen dibisioea.

*Barrenago sarthu gabe ifernuko penetan,  
iduritzen zait on dela bereztea partetan.*

Pena jeneralak eta partikularak.

*Jeneralak dire batzuk, berzeak partikularak,  
kondaturen tugu leben bizirik jeneralak,*

*ezen hau da guztietan guardatzen den ordena,  
jenerala leben doan, partikulara azkena;*

*bainan hauk biak dirade bi berzetan berezten,  
puxantza guztiei zaitze edo batzuei ematen.*

2580 *Guk begiratuco tugun hauk dirade ordenak,  
deklaratzean oinhaze damnatu gaxoenak.*

Arimaren eta gorputzaren pena jeneralak.

*Arimaren, bada, pena eta gorputzarenak  
aiphatzera goazen hauk dire jeneralenak.*

---

2576. *doan*: aurreko bertsoan dagoen *hau da*-ren agerpena da: hots, «es éste el orden que se observa en todas las cosas: a saber, que preceda lo general...».

2578. *batzuei*: ahoska ezazu, *batzwei*.

2579. *ordenac*: berez sintagma hau da: *beguiratuco tugun ordenac*.

2580. *gaxoenac*: hemen berebat beste hau: *damnatu gaxoen oñhaceac*.

2581. *arimaren*: bi bertsootan are gehiago nahasi ditu hitzak; berez eta aho hizkeraz hori honela esaten da: *hauc dire, bada, aiphatcera goacen arimaren eta gorputçaren pena generalac*. Ikus nola esan duen Etxebe-

*Damnatuac ontassun guztiac galtcen tu.*

Ontassunac galtcen ditu sura condemnatuac  
Baita orduraño bere escuco içatuac

Eta hetçaz goçatceco halaber esparantça  
Galtcen du, eta badaqui gauçaren segurantça

Halaberqui etsitcen du Iaunaren bekhoquia  
Eztuela ikhussiren, ez onen compaña

2590 Ez eta Arguiçaguiac bere oñen azpian  
Contentez duela hirri alleguera beguian

Edo ezperen Iguzquia buruaren gañean  
Bici licela bidera egoitça lehenean

Atseguñac hartu baitu ezteus eta aphurrac  
Hetçaz contenta dadilla cirelaric laburrac

Eta placer hequin ordain bitztu khissu labean  
Tormentac soffri detçala seculaco mendean.

*Ontassunac galtceaz damnatuac duen damua.*

Dio bada, Iongoicoa, çure beguitartea  
Eztut nihoiz ikhussiren claritatez bethea

2600 Ceruco içarrac nihoiz eztitut ikhussiren  
Bethiere illhumbean sarthuric naiz egonen

---

rrik ia hori bera bi bertso hauen gaineko tituluan: *arimaren eta gorputçaren pena generalac*. Ez *generalenac*; hau ez da superlativoa poetaren asmoan, baizik puntua nola edo hala atera beharraren bortxa. Baina badu beste esplikazioa eta agian hobea; azpiegituran honela litzatekeena — *pena generalen aiphatcera goaz* — dagoke hor gordea.

2583. *sura*: ez *sutara*, eta hori antzineko idazlerik gehienengan; baina ikus *sutara* (2502) eta *surtara* (3248) ere.

2584. *bere escuco*: zesura erdian dute.

2586. *galtcen du*: zangalatrau.

2587. *etsitcen du*: ikus 2395; han eta hemen *etsitcen*, ez *esten*.

2588. *eztuela ikhussiren*: hau da *etsitcen*-en konpletiva, beste hartan (2395) *hats babituren naicela* zen bezalaxe. Batean ezezka emana konpletiva, bestean ez. Azpi egituran, izan ere, etsipena bi modu desberdinez dago esana: batean, «eztut ikhussiren»; bestean. «hats bahituko naiz».

Damnatuak ontasun guztiak galtzen tu.

*Ontasunak galtzen ditu sura kondemnatuak,  
baita orduraino bere eskuko izatuak*

*eta hetzaz gozatzeko halaber esparantza  
galtzen du, eta badaki gauzaren segurantza.*

*Halaberki etsitzen du Iaunaren bekhokia  
eztuela ikhusiren, ez onen konpainia,*

2590 *ez eta argizagiak bere oinen azpian,  
kontentex duela hirri alegera begian,*

*edo ezperen iguzkia buruaren gainean,  
bizi lizela bidera egoitza lehenean.*

*Atseginak hartu bai'tu ezteus eta aphurrak,  
hetzaz kontenta dadila, zirelarik laburrak,*

*eta plazer hekin ordain bitztu khisu labean  
tormentak soffri detzala sekulako mendean.*

Ontasunak galtzeaz damnatuak duen damua.

*Dio, bada: «Iongoikoa, zure begitartea  
eztut nihoiz ikhusiren klaritatez bethea?*

2600 *zeruko izarrak nihoiz eztitut ikhusiren?  
bethiere ilhunbean sarthurik naiz egonen?*

2590. *contentex*: hau esan nahi du: pozaren pozez begian irrifarre alai duelarik.

2591. *edo ezperen*: hots, *edo bederen*; *edo hori ez bada ere*.

2592. *bici licela*: bertso iluna, ene ustez; hau esan nahi ote du: *leben egoitzan* (hots, lurrean) *bizi zenean bezala?* Ikus 2602.

2593. *baitu*: hots, *bait ditu*.

2594. *contenta dadilla*: hau ere, *eztuela ikhussiren* (2588) bezalaxe, *etsitcen du-* ren konpletiva litzateke, baina azpi egituran honela esana: «*contenta nadin*» eta hainbestez ezin indikatiboz eman.

2595. *plazer hequin ordain*: hots, *plazer baien orde*.

*bitztu khissu labean*: errazago ulertuko duzu honela: *khissu labe bitztuan*: ikus 2487; baina honela ere izan daiteke: *khissu bitztu labea*: ikus 2746. Hots, *khissua* ala *labea* da *bitztua?*

2596. *soffri detçala*: ikus 2594; azpi egituran «*soffri detçadan*».

Ez naiz bada goçatuco munduco onez bederen  
Lur planoaren gañean bici nintcela ezperen

O ni desuenturatua! placera, ezbanintcen  
Neure faltaz nolacoa gal neçaquen orhoitcen.

*Gaitz guztiac ardiatzten çaiçco.*

Plaga guztiac çamaca heldu çaiçco gañera  
Tormentetan babaçuça nola airetic lurrera

Eta bihotcean sartcen çαιο damu handia  
Ceren munduan eraman duen gaizqui bicia

2610 Guero doloreac dio tormentatcen bihotça  
Bai eta galaracitcen lehengo ecagutça

Dolorea du chedetçat, dolorea gogoan,  
Gogoeta nahi luque bercetara lioan

Alabañan penac bethi du orhoitaracitcen  
Eta ecin supportatuz hainberce da çoratcen.

*Itsusten da lehengo edertassunetic.*

Aphurtcho baten buruan guero condemnatua  
Aguertcen da lehendanic itsusqui mudatua

Illea du chigortua, bethaçalac gorriac,  
Eta nigar issuriez betheac bi beguiac

2620 Bisaia color gabea, bekhoqui chichkaldua,  
Eta colpe handiz gorputz guztia herrendua

Larrua du khe belçaren colore itsussico  
Eta hautsco hantuaren bulharrac idurico

---

2602. *lur planoaren*: bertso honek lehengoari (2592) egin diogun itzulpena sendotzen du; bi bertsoak kideak dira, dudarik gabe.

2603. *placera*: irakur honela: *ezbanintcen orhoitcen nolaco placera gal neçaquen neure faltaz*.

2605. *çamaca*: Lhandek honela: «Tous les maux lui tombent dessus par charges»: ikus Hiztegia, *zamaka*, or. 1068.

*Ez naiz, bada, gozatuko munduko onez bederen,  
lur planoaren gainean bizi nintzela ezperen?*

*O ni desbenturatua, plazera ezbanintzen  
neure faltaz nolakoa gal nezaken orhoitzen?».*

Gaitz guztiak ardiatsten zaizko.

*Plaga guztiak zamaka heldu zaizko gainera,  
tormentetan babazuza nola airetik lurrera,  
eta bihotzean sartzen zaio damu handia,  
zeren munduan eraman duen gaizki bizia.*

2610 *Gero doloreak dio tormentatzen bihotza,  
bai eta galarazitzen lehengo ezagutza.*

*Dolorea du xedetzat, dolorea gogoan,  
gogoeta nahi luke berzetara lioan,  
alabainan penak bethi du orhoitarazitzen  
eta ezin suportatuz hainberze da zoratzen.*

Itsusten da lehengo edertasunetik.

*Aphurtxo baten buruan gero kondemnatua  
agertzen da lehendanik itsuski mudatua.*

2620 *Ilea du xigortua, bethazalak gorriak  
eta nigar isuriez betheak bi begiak,  
bisaia kolor gabea, bekhoki xixkaldua,  
eta kolpe handiz gorputz guztia herrendua,  
larrua du khe belzaren kolore itsusiko  
eta hautsko hantuaren bulbarrak iduriko.*

---

2611. *dolorea du chedetçat*: Lhandek: «Il ne voit que des objets de douleurs»: ikus Hiztegia, *xede*, or. 1035.

2612. *lioan*: hots, *joan ledin* forma trinkoz esana; *eventuala* deritzan aldia da, *nahi luque*-ri dagokionez: ikus 1418.

2616. *lebendanic*: *nondik*, alegia, puska honen tituluak garbi erakusten duenez: hots, itsusten da lehengo edertassunetic.

2622. *eta hautsco*: irakur honela: *eta bulbarrac hautsco hantuaren idurico*.

Hatsez ecin assez dago ordean doloretan  
 Lehengo itchurapenic eztuela guñetan  
 Sosseguric ecin duque, bihotça du choill khecha  
 Eta barrena sarthua transimendu borthitça  
 Sentimenduac ere tu hagitcez miñ berago  
 Millionetan munduan lehen cituen baño  
 Ecen uquitce bera du sentitcen guehiago  
 2630 Mundu beherean colpe dardoarena baño.

*Arimaren eta gorputçaren pena bereciez.*

Gorputz eta arimaren punimendu communez  
 Hitz egunic mintça gaiten orain berecienez.

*Generalac dire eta particularac.*

Hautan ere batçuc dire dolore generalac  
 Berceac berriz erran dugun leguez particularac  
 Arimaren generalez daite lehen solassa  
 Bercetara aldaturen dugu guero perpaussa  
 Ecen Iaunac beregainqui punitcen tu puchantçac  
 Ceñac hautsi baitituzte gaizqui haren usantçac

*Arimaren pena generalez.*

2640 Arimaren podoreac Ifernuco etsaiac  
 Haguitz punituren ditu gorputçari garaiac

- 
2624. *lehengo*: Lhandek honela: «Il n'a pas de ressemblance (avec son exté-  
 rieur) d'aparavant»: ikus Hiztegia, *itxurapen*, or. 551.  
 2625. *khecha*: ikus 2363.  
 2626. *trancimendu*: orainoko pasarte guztietan *transimendu*, *transitu* etab: ikus  
 2190; 1000; 1028... Lhandek ez dakartza.  
 2628. *baño*: irakur honela: *leben munduan cituen baño millionetan hagitcez  
 minberago*.  
 2632. *hitz egunic*: hitz hauen ondoan amaitzen da mendeko perpausa; zanga-  
 latrau daude, beraz.  
*berecienez*: bi bertso hauen tituluan ez dio *berecienez*, *bereciez* baino;  
 ikus 2581.



*Hatsez ezin asezt dago, ordean, doloretan,  
lehengo itxurapenik eztuela guinetan.*

*Sosegurik ezin duke, bihotza du xoil kbexa  
eta barrena sarthua transimendu borthitza.*

*Sentimenduak ere tu hagitzez minberago  
milionetan munduan lehen zituen baino,*

2630 *ezen ukitze bera du sentitzen gehiago  
mundu behean kolpe dardoarena baino.*

Arimaren eta gorputzaren pena bereziez.

*Gorputz eta arimaren punimendu komunez  
bitz eginik, mintza gaiten orain berezienez.*

Jeneralak dire eta partikularak.

*Hautan ere batzuk dire dolore jeneralak,  
berzeak, berriz, erran dugun legez, partikularak.*

*Arimaren jeneralez daite lehen solasa,  
berzetara aldaturen dugu gero perpauza,  
ezen Iaunak beregainki punitzen tu puxantzak.  
zeinak hautsi baitituzte gaizki haren usantzak.*

Arimaren pena jeneralez.

2640 *Arimaren podoreak ifernuko etsaiak  
hagitz punituren ditu gorputzari garaiak.*

- 
2634. *erran dugun legez*: zesurak azken hitza beste biengandik berezia.
2638. *ceñac*: ez, beraz, *puchantça* guztiak, baizik *haren usantçac gaizqui hautsi* dituztenak: ikus 2334, eta ohar bide batez hemen *ceñac* ergativo plurala dela: ikus, aldiz, 2268.
2639. *arimaren podoreac*: baina beheraxeago (2558) *arimaco podoreen* dio, ez *arimaren*.
2640. *gorputçari garaiac*: honela irakurri behar da, ene ustez, lehen hitza liburuan osoro ez badago ere. Baina zer esan nahi du? zein dira *gorputçari garaiac*? *Arimaren podoreac*, ene ustez: hots, arimarenak baino garaiazo direnak, horrezaz ari bait da ondoko bertsoetan: ikus 2280.

Arima da lohiaren buruçagui handia  
Gaztigu ere behar du, nola den naussia  
Ezta bada solamentqui ahaletan çaurthuren  
Substantian barrena da orobat cehaturen  
Ecin ardiatsiren du nihoiz errepausuric  
Aputcho batez bedere penen ahantztecoric  
Iratchaquiren gogorqui çαιο min generala  
Eta punituren asma molde guztiz ahala.

*Arimaren pena particularez.*

2650 Arimaren erratera noa pena bakhotch  
Ceñac hobequi uquitcen baitarocu bihotça.

*Adimenduarenaz.*

Arimaren ahaletan lehen eta bicia  
Eçagutcen dugu dela adimendu arguia  
Hura itsuturen dio illhuntassun handiac  
Nola begui clarac herrauts gañetic egotciac  
Hambat gaucetaric deusez ezta abisaturen  
Aitcitic du leheneco eçagutça galduren  
Eta gogoraco çaiçco gauça icigarriac  
Arimaco podoreen guztiz pena garriac.

*Orhoitçapenarena.*

2660 Certçaz orhoituren baita dirate tristeti  
Ceren gatic saluatceco galdu tuen astiac  
Fuñean egonen çαιο orhoitçapen miñbera  
Pausu gabe ceren egon behar duen behera

---

2641. *lobiaren*: ikus 1487.

2643. *çaurthuren*: edo *zaurituren*: ikus 771.

2646. *penen ahantztecoric*: ikus 1646.

2648. *asma molde guztiz abala*: hots, *asma abala molde guztiz*: «de todas las maneras imaginables»: ikus 1850.

2651. *lehen eta bicia*: ikus lehen esana: 2574.

2654. *nola*: hots, begi klarak (hori da objetoa) gainetik egotzitako herrautsak

*Arima da lobiaren buruzagi handia;  
gaztigu ere behar du, nola den nausia.*

*Ezta, bada, solamentki abaletan zaurthuren,  
substanzian barrena da orobat zehaturen.*

*Ezin ardiatsiren du nihoiz errepausurik  
apurtxo batez bedere penen abantztekorik.*

*Iratxakiren gogorki zaio min jenerala  
eta punituren asma molde guztiz ahala.*

Arimaren pena partikularez.

2650 *Arimaren erratera noa pena bakhotxa,  
zeinak hobeki ukitzen baitaroku bihotza.*

Adimenduarenaz.

*Arimaren abaletan lehen eta bizia  
ezagutzen dugu dela adimendu argia.*

*Hura itsuturen dio ilhuntasun handiak,  
nola begi klarak herrauts gainetik egotziak.*

*Hanbat gauzetarik deusez ezta abisaturen,  
aitzitik du leheneko ezagutza galduren*

*eta gogorako zaizko gauza izigarriak,  
arimako podoreen guztiz penagarriak.*

Orhoitzapenarena.

2660 *Zertzaz orhoituren baita, dirate tristeziak,  
zeren gatic salbatzeko galdu tuen astiak.*

*Fuinean egonen zaio orhoitzapen minbera,  
pau su gabe zer en egon behar duen behera.*

---

iluntzen dituen bezala.

2655. *abisaturen*: hots, *oharturen*.

2659. *certçaz*: hau esan nahi du: «(todo aquello) de que se acuerde serán cosas tristes, por qué...».

2660. *ceren gatic*: ikus 2483.

2662. *ceren*: galderazkoa da, agian: «...el recuerdo doloroso de por qué tiene que permanecer...».

Guehiago gogoraco çaiçco bere lagunac  
Ceñac baitaramatçate dohatsuqui egunac

Eta bera dagoela suan pulunpatua  
Eta inguru guztian etsaiez cerkhatua

*Vorondatearena.*

Vorondatea dagoca gaitz handien pesquiçan  
Eta nahi luque cerbait consolamendu içan

2670 O ur chorta bat mihia banu, dio, hozteco,  
Ceñac bainuen hambat on mundua passatceco

Sentimenduric ezbanu hunelaco tormenten  
Illhumbean banintz ere bethiere egonen

Bañan contra airearen dudalaric desira  
Egon behar dut dudala suffre bitztuz cadira.

*Desesperamendua.*

Bere ganic irautzten du miñ-bera doloreac  
Eta hitz hauc erakhartcen barreneco nequeac

Eztuquete ene penec bada noizbait mugaric  
Hemen egon beharco dut bethi hagoranduric

2680 Ehun million urtheez nola orhoit naiteque  
Errabiamendua non eztudan eta neque

---

2663. *guehiago*: ez du esan nahi lehen aipatu gauzak baino *gebiago* gogoratuko zaizkiola lagunak, baizik eta *gauza horiezaz gain* lagunaz ere oroituko dela: ikus 27.

2664. *ceñac*: lehengo (2638) hura bezalakoxea da alde guztietarik.

2665. *dagoela*: lehengo *gogoraco* (2663) hark bi rekzio ditu, beraz: *nor* gogorako zaion, batetik, sujeto gisa, eta konpletiva, bestetik.

2668. *içan*: ez *uken* edo antzekorik: ikus 2188.

2669. *O ur chorta bat*: irakur honela eta ohar nola nahasi dituen hitzak ezinbestean: *O ur chorta bat banu, dio, mihia botzteco*.

2670. *ceñac*: ikus 2664, guztiz bestelakoa den arren; honako hau, izan ere, singularra da eta *banu*-ren esangabeko *nik* sujetoari dagokio: «yo que...».

2671. *ezbanu*: hau eta ondoko *banintz* lehengo (2669) *banu*-ren kideak dira; hots, oihu gisa esanak.

*Gehiago gogorako zaizko bere lagunak,  
zeinak baitaramatzate dohatsuki egunak*

*eta bera dagoela suan pulunpatua  
eta inguru guztian etsaiez zerkhatua.*

#### Borondatearena.

*Borondatea dagoka gaitz handien peskizan  
eta nahi luke zerbait konsolamendu izan.*

2670 *«O ur xorta bat mibia banu, dio, hotzteko,  
zeinak bainuen hanbat on mundua pasatzeko!*

*Sentimendurik ezbanu hunelako tormenten!  
ilhunbean banintz ere bethiere egonen!*

*Bainan kontra airearen dudalarik desira,  
egon behar dut dudala sufre bitztuz kadira»*

#### Desesperamendua.

*Bere ganik irautzten du minbera doloreak  
eta hitz hauk erakhartzen barreneko nekeak:*

*«Eztukete ene penek, bada, noizbait mugarik?  
Hemen egon beharko dut bethi hagarandurik?»*

2680 *Ehun milion urtheez nola orhoit naiteke,  
errabiamendua non eztudan eta neke?*

---

2673. *contra*: hots, aitzitik.

2674. *dudala*: honela, agian, hobeki ulertzen da: *cadira dudala(rik) suffre bitztuz(koa)*.

2675. *irautzten*: hots, *iautzi arazten*. Hauxe esan nahi du: beregandik aterarazten duela dolore minberak.

2677. *noizbait*: hala dago liburuan, baina *noizbait* behar du: ikus 2369, 2163.

2678. *hagaranduric*: «être en suspens, dans l'attente et l'anxiété», dio Lhandek eta bertso hau honela itzultzen: «ici il me faudra être toujours dans les angoisses»: ikus Hiztegia, or. 396. Ikus 1210.

2680. *non eztudan*: bien artean gertatzen da zesura: ikus 454; 720.

*errabiamendua eta neque*: hori da berez sintagma. Ohar, gainera, bata mugaturik, bestea mugatu gabe dagoela.

Moment bateco nau penac neure ganic irautzten  
Nola bada seculaco mendetan dut iraunen?

O desesperamendua! errabiamendua!  
Ceren gatic ni mundura nintcen titcha galdua?

*Beldurtassuna.*

Hunequin erakhartcen du bere gana beldurrac  
Ceren berce miñ aphaintcen dioen etsai samurrac

O dolore, dio, eta miñ ecin pairatua  
Hunen ondoan bercea baitagot prestatua

2690 Oraingoa ez balequit oñhacea gambia  
Bethi batean bedere banerama bicia

Supplicio sua banu, ezperen bethi hotça  
Bethi argui, edo illhun agueri ezten çotça

Gutiago ets neçaque seculaco nequea  
Eta doloretan nuque consolationea.

*Gaitceriscoa.*

Madarica dadillala penen asmatçaillea  
Eta bekhatuac hunen latzqui punitçaillea

Çuec ere madarica çaitetzela lagunac  
Ceñen balsan eramanen baititut gau illhunac

2700 Ni fauoratu nauçuen guiçon eta bestiac  
Madarica çaitetzela, bai uquitu harriac

---

2681. *nau penac*: lasai esan zezakeen *penac nau* eta hartara *moment bateco penac* den sintagma zatitu gabe zegokeen.

*neure ganic irautzten*: ikus 2675.

2684. *ceren gatic*: galderazko adverbioa da hemen eta galdera zuzena, gainera.

2686. *berce min*: mugagabe.

*dioen*: ikus 2404; ohar, ordea, hemen bi silaba baizik ez zaiola zor; ahoska *dyoen*, beraz.

2688. *baitagot*: hots, *baitagokit*, *-ki*- gabe.

2689. *oraingoa*: hots, oraingo oñhacea.

2691. *ezperen*: *edota bestela*: ikus 2591. Damnatuak beti neke bera nahi du, sua nahiz hotza, argia nahiz iluna, baina beti bat.

*agueri ezten çotça*: zer esan nahi du? makila edo zigorra ager ez dadin?

*Moment bateko nau penak neure ganik irautzten;  
nola, bada, sekulako mendetan dut iraunen?*

*O desesperamendua, errabiamendua,  
zeren gatik ni mundura nintzen titxa galdua».*

#### Beldurtasuna.

*Hunekin erakbartzten du bere gana beldurrak,  
zeren berze min aphaintzen dioen etsai samurrak:*

*«O dolore, dio, eta min ezin pairatua,  
hunen ondoan berzea baitagot prestatua.*

2690 *Oraingoa ez balekit oinbazea ganbia,  
bethi batean bedere banerama bizia...!*

*Suplizio sua banu, experen bethi hotza,  
bethi argi edo ilhun ageri ezten zotza...!*

*gutiago ets nezake sekulako nekea  
eta doloretan nuke konsolazionea.*

#### Gaitzerizkoa.

*Madarika dadilala penen asmatzailea  
eta bekhatuak hunen latzki punitzailea!*

*Zuek ere madarika zaitzetzela, lagunak,  
zeinen balsan eramanen baititut gau ilhunak!*

2700 *Ni faboratu nauzuen gizon eta bestiak  
madarika zaitzetzela, bai ukitu barriak!*

---

2693. *gutiagoets*: batera idatzia dago; *gutietsi* ezaguna da eta horren ondoan hemen *gutiagoetsi* dugu; esanahia argi dago: ene nekea beti bat balitz, lehen esan bezala, sekulakoa izanik ere gutiagotzat joko nuke.

2695. *madarica dadillala*: ikus 2151; ez dio *dela*. Gehienez ere *madarikatua dela* esango zukeen.

*dadillala*: bi bider du *-(e)la* atzizkia: ikus 763.

2696. *bekhatuac... punitçaillea*: ikus 2367. Han bezalaxe objektoa gorde du, genitiboz eman gabe, *punitzen dituena* balio bezalaxe; ikus, aldiz, aurreko bertsoan *penen asmatçaillea*.

2691. *experen*: edota *bestela*: ikus 2591. Damnatuak beti neke bera nahi du,

2698. *ceñen balsan*: hots, laguntasunean, konpainian.

Madarica çaitetzela halaber burassoac  
Ceren çuec formatuac ditudan miambroac  
Fiñean çuec gaitcesten çaituztet handi herraz  
Norc uqitu bainauçue cer nahi den maneraz.

*Desconsolationea.*

Consolatçaille duenac eztu hambat dolore  
Ifernuan halacoric ezta aurkhitzen batere  
Titcha cabeen ohi da consolationea  
Doha cabe cembait lagun penetan içatea  
2710 Hondalean contrara da saihetsetan laguna  
Ikhusteaz guehiago penatcen da erthuna  
Deabruec tormentatcen dute condemnatua  
Eta lagunec berretcen errabiamendua  
Guero bata bercearen dire gaizqui erraille  
Etsiac eztuquetela nihor consolatçaille.

*Conscientiaren barra.*

Bihotcean bici dute bethi icialdura  
Eta nihoizco mendetan hillen ezten har hura  
Ecen nola gaichtaguiña bailegoque lothua  
Eta burdiñazco cepo lodietan sarthua

- 
2702. *çuec formatuac*: ikus 2140: han *çuetçaz*, hemen *çuec*; baina, aldiz, *çuec*: 2163.
2703. *handi herraz*: hots, *herra handi(a)z*.
2704. *norc*: ikus 2670; han *ceñac*, hemen *norc*; hura singularra, hau plurala; han eta hemen, ordea, izenordaina du antezedente delakoa: han *nik*, hemen *zuek*: «vosotros que...».
2708. *lagun*: irakur honela: *cembait dohacabe penetan lagun içatea*; alegia, *lagun* aposizio edo, nahiago bada, predikado da.
2710. *ikhusteaz*: zangalatrau dago, *saihetsetan laguna ikhusteaz* bait da sintagma. *erthuna*: hots, *eriduna*. Lhandek: «Le misérable éprouve plus de souffrance en voyant son compagnon de douleur»: ikus Hiztegia, *eri*, or. 257.



*Madarika zaitetzela halaber burasoak,  
zeren zuez formatuak ditudan mianbroak!*

*Finean zuek gaitzesten zaituztet handi herraz,  
nork ukitu bainazue zer nahi den maneraz».*

#### Deskonsolazionea.

*Konsolatzaile duenak eztu hanbat dolore;  
ifernuan halakorik ezta aurkhitzen batere.*

*Titxakabeen ohi da konsolazionea  
dohakabe zenbait lagun penetan izatea.*

2710 *Hondalean kontrara da; saihetsetan laguna  
ikbustean, gehiago penatzen da erthuna.*

*Deabruek tormentatzen dute kondemnatua  
eta lagunek berretzen errabiamendua.*

*Gero bata berzearen dire gaizki erraile,  
etsiak eztuketela nihor konsolatzaile.*

#### Konszienziaren harra.

*Bihotzean bizi dute bethi izialdura  
eta nihoizko mendetan hilen ezten har hura,*

*ezen nola gaixtagina bailegoke lothua  
eta burdinazko zepo lodietan sarthua,*

---

2714. *etsiac*: ikus 2587; 2395; pasarte horiek erakusten digutenez, *etsiac* ez da, gaztelaniak inori sinestarazi liezaiokeenez, (resignados, convencidos») pasiva, baizik aktiva; hots, *etsiac* hori *etsi dutenak* edo antzekoren bat da azken batean. Azpi egituran hauxe du perpaus honek: *eztukegu nihor konsolatzaile*.

2717. *ecen nola*: konparaketa hau zortzi bertsoan barna luzatzen da eta apodosis 2725garrenean hasten: *Lecera condemnatuen HALA conscientia...*  
Ohar: *nola... hala...*  
*bailegoque*: ikus 3639.

- 2720 Estomaca aguertutic bele errioiac guibela  
 Aussiquitcen lioela eta altchatcen okhela  
 Alabañan ez secular consolationeric  
 Ez bici penatsuaren halaberqui epheric  
 Bañan erraiac çaiçcola iaiatcen berehala  
 Eta lastima berretcen oren guztiez hala  
 Lecera condemnatuen hala conscientia  
 Momentoro da dolore handiz urtharacia  
 Sosseguric nihoiz eztu amen baten baqueric  
 Oñhace eta ecin eguin baicen eta nequeric.

*Gorputçaren penac.*

- 2730 Arimaren erran tugu general oñhaceac  
 Baita podore bakhotchen halaber doloreac  
 Perpaussaren aldatceco ethorri da ordua  
 Eta gorputçaren miñez mintçatceco lekhua.

*Gorputçaren pena generalez.*

Gorputçaren bada pena hauc dire generalac  
 Bere demboran erranen tugu particularac  
 Bata dago urkhabetic ecin ithoz dilindan  
 Eta berceac desira luque chorta bat edan  
 Maillucac den da bercea, bercea da egosten  
 Eta bercea du heren sugueac aussiquitcen

- 
2719. *estomaca aguertutic*: hots, agerian daukan estomakatik.  
*bele erroiac*: Lhandek dioenez, Oihenartek *bele* («corbeau») eta *erroi*  
 («corneille») bereizten ditu; baina beheraxeago Lhandek berak *belerroi*  
 dakar konposatu gisa: «freux» eta Etxeberriren hau aipatzen: *Bele-*  
*rroiak gibela janik*: «le foie mangé par le corbeau», Etxeberrik hemen  
 bederen *aussiquitcen* badio ere. Ikus Hiztegia, *bele*, or. 137.
2720. *guibela aussiquitcen lioela*: hau da sintagma eta lehen hitza zangalatrau  
 dago.  
*lioela*: eventuala deritzana, goragoko (2717) *bailegoque*-ri dagokionez:  
 ikus 2612.

- 2720 *estomaka agertutik bele erroiak gibela  
ausikitzen lioela eta altxatzen okhela,  
alabainan ez sekulan konsolazionerik,  
ez bizi penatsuaren halaberki epherik,  
bainan erraiak zaizkola iaiatzen berehala  
eta lastima berretzen oren guztiez hala,  
lezera kondemnatuen hala konszienzia  
moment oro da dolore handiz urtharazia.  
Sosegurik nihoiz eztu, amen baten bakerik,  
oinhaze eta ezinegin baizen eta nekerik.*

Gorputzaren penak.

- 2730 *Arimaren erran tugu jeneral oinhazeak,  
baita podore bakhotxen halaber doloreak.  
Perpausaren aldatzeko ethorri da ordua  
eta gorputzaren minez mintzatzeko lekbua.*

Gorputzaren pena jeneralez.

*Gorputzaren, bada, pena hauk dire jeneralak,  
bere denboran erranen tugu partikularak.  
Bata dago urkhabetik ezin ithoz dilindan  
eta berzeak desira luke xorta bat edan;  
mailukatzen da berzea, berzea da egosten  
eta berzea du heren sugeak ausikitzen;*

- 
2722. *epheric*: bi bertso hauek adizkirik gabe daude; *luela* edor behar luke aurreko bien arabera, nahiz ondoko bertsoan (2723) orainaldira aldatzen dela dirudien eta hainbestez *duela*.
2726. *urtharacia*: hots, *urtu arazia*, *xebatua*.
2727. *amen baten baqueric*: aurretik ez ipini eta hobe ulertzeko.
2728. *ecin eguin*: izentzat hartu behar da, *eginezin*-en kide; hau badakar Lhandek, baina lehena ez; ikus 1024 ere.
2729. *general oñhaceac*: hots, *oñhace generalac*.
2736. *chorta bat*: ikus 2769.
2738. *heren sugueac*: zesurak erdibitzen dituela daude.

- 2740 Hazpeguiac berceari hautsten çaiusco tiraca  
 Eta çañac apartatcen gorputcetic izpica  
 Arroca handi batec du bata hemen lehertcen  
 Eta bercea da hobi illhunean erortcen  
 Berceari su datcheca bazter guztietaric  
 Eta lamboac egotzten tu bephuruetaric  
 Beharrietaric ditu arthiquitcen inharrac  
 Nola suffre iratchaqui lece aho meharrac  
 Sudurpilletaric ere chinta hori hussuac  
 Eta fiñean ahotic arribera khartsuac
- 2750 Haratago hara non den berce dohacabea  
 Ematen çaiola berun urthuz aspill bethea  
 Erraietan iraquitcen dioela doloz  
 Eta eztaquiela norat itçul penen podoz  
 Azkenean egotzten du buru chilloetaric  
 Nola ithurriac ura çazpi canaletaric  
 Bercea berriz altchatcen du Sathan herratsuac  
 Arroca baten gañera picatceco saguac  
 Behin hara, guero huna burua du itçultcen  
 Eta dolorea ecin pairatuz da çoratcen  
 Fiñean ecin erran daite cembat den supplicio
- 2760 Guehiago guiñela ere mintçatceco propio  
 Penatceco lanabesac han dire aurkhituac  
 Eta armaçoñ guztiaç mulcoca prestatuac  
 Han dirade burdiñazco mailu eta arrodac  
 Cein handirican itçultcen ohi ezbaitu errotac

---

2739. *hazpeguiac*: «traits du visage», dio Lhandek.

2743. *su datcheca*: *itxeki* aditzaren forma trinkoa: ikus *itchiquiric*, 2840.

*bazter*: hemen -z- du: ikus 2444.

2744. *bephuruetaric*: hots, betazaletarik.

2746. *suffre iratchaqui lece*: hitz konposatu bezala hartu behar da: «cueva de azufre ardiente» eta leze horrek *abo mebarra du*: ikus 2595.

2748. *arribera khartsuac*: ikus 2405.

2752. *penen podoz*: hots, guk esan ohi dugun *penen poderioz*: ikus 2194.

- 2740 *hazpegiak berzeari hautsten zaizko tiraka  
eta zainak apartatzen gorputzetik izpika;  
arroka handi batek du bata hemen lehertzen  
eta berzea da hobi ilhunean erortzen;  
berzeari su datxeka bazter guztietarik  
eta lanboak egotzten tu bephuruetarik.  
Beharrietarik ditu arthikitzen inbarrak,  
nola sufre iratxaki leze aho meharrak.  
Sudurpiletarik ere xinta hori husuak  
eta finean ahotik arribera khartsuak.*
- 2750 *Haratago hara non den berze dohakabea.  
ematen zaiola berun urthuz aspil bethea,  
erraietan irakitzen dioela dolorez  
eta eztakiela norat itzul penen podorez,  
azkenean egotzten du buru xiloetarik,  
nola ithurriak hura zazpi kanaletarik.  
Berzea, berriz, altxatzen du Sathan herratsuak  
arroka baten gainera pikatzeko saguak;  
behin hara, gero huna burua du itzultzen  
eta dolorea ezin pairatuz da zoratzen.  
Finean ezin erran daite zenbat den suplizio,  
gebiago ginela ere mintzatzeko propio.  
Penatzeko lanabesak han dire aurkhituak  
eta armazoin guztiak mulkoka prestatuak:  
han dirade burdinazko mailu eta arrodak,  
zein handirikan itzultzen obi ezbaitu errotak,*

---

2753. *egotzten du*: edan duen berun urtua, noski.

2756. *arroca*: horrela irakurri behar da lehen hitza, ilun samar badago ere.  
*picatceco saguac*: hots, barrabilak mozteko.

2758. *ecin pairatuz*: zesura bien erdian dagoelarik.

2760. *guebiago propio*: hots, propiago, trebeago.

2762. *mulcoca*: hots, pilaka, multzoka.

2764. *cein handirican*: hau zera da: *bain handirik*, baina mendeko perpausean  
Gatzelaniaz honelatsu litzateke: «Allí existen martillos y ruedas de tal

- Tenaça eta maçoac, soca eta garroteac  
 Lançac, cihî moco dunac, ezten ere luceac  
 Orrace eta charrantchac baita orratz meheac  
 Cobrezco çaluiac eta guphela itcez betheac  
 2770 Eraguiten daroztela damnatuei hussuac  
 çaldî arin eta cecen munduaren marruac  
 Fiñean ecin conda niro cein hañitz den hunean  
 Phalarissen nuela ere iaquitea fuñean  
 Ecen ecin asma daite supplicio berriric  
 Araitciña eztagoen non hura aurkhituric  
 Su inhar handitacoac eta orma cihîac  
 Içotz eta babaçuçac, çorta handî uriac  
 Suffre, bikhe iratchaqui bolbora soñutiac  
 Eta artificiozco khar ecin iraunguiac  
 2780 Pena hauc dire generalac damnatu guztientçat  
 Edoce(i)n itsustassunez hemen liçduentçat  
 Hautaric dolore batez bat denean cehatu  
 Berce pena batetara behar du aldaratu  
 Eta penatcen duena berce supplicioac  
 Hunetara gambiatcen du Sathan herrosoac  
 Eta batetic bercera aldatcen direnean  
 Min guehiago sentitcen dute ecen batean

*Bortz sensuen penez.*

Lehen eta bicicoric bista çaie penatcen  
 Noiz ere bazterretara baitute beguiratcen

---

tamaño *cuales* no hace girar un molino»; «...(tan grandes) *como igual de grandes* no...»: ikus 2816.

2767. *charrantchac*: hots, guk *txarrantxak* dioguna. Bietara dakar Azkuek.  
 2769. *bussuac*: hots, *marru bussuac*.  
 2771. *bunean*: *ñuin hunetan* esan nahi ote du?  
 2772. *Phalarissen iaquitea*: Falaris Agrigentoko tirano anker bezain jakintsu izana da.  
 2774. *non hura*: ikus 1804.  
 2776. *çorta*: ikus *xorta*: 2736.  
 2777. *bikhe*: hitz hau ahaztu zaio Lhanderi bertso honen aipamenean, baina

- tenaza eta mazoak, soka eta garroteak,  
 lanzak, zibi mokodunak, ezten ere luzeak,  
 orraze eta xarrantxak, baita orratz mebeak,  
 kobrezko zaluiak eta guphela itzez betheak,  
 eragiten daroztela damnatuei husuak*  
 2770 *zaldi arin eta zezen munduaren marruak.*  
*Finean ezin konda niro zein hanitz den hunean  
 Falarisen nuela ere iakitea fuinean,  
 ezen ezin asma daite suplizio berririk,  
 araitzina eztaoen non hura aurkhiturik:  
 su inbar handitakoak eta orma zibiai,  
 izotz eta babazuzak, zorta handi uriak,  
 sufre, bikhe iratxaki, bolbora soinutiak  
 eta artifiziozko khar ezin iraungiak.*  
 2780 *Pena hauk dire jeneralak damnatu guztientzat,  
 edozein itsustasunez hemen lizunduentzat  
 Hautarik dolore batez bat denean zebatu,  
 berze pena batetara behar du aldaratu  
 eta penatzen duena berze suplizioak  
 hunetara ganbiatzen du Sathan herrosoak  
 eta batetik berzera aldatzen direnean,  
 min gehiago sentitzen dute ezen batean.*

Bortz sensuen penez.

*Lehen eta bizikorik bista zaie penatzen,  
 noiz ere bazterretara baitute begiratzen,*

---

gainerakoak honela itzultzen ditu: «soufre et poudre allumée qui éclate»: ikus Hiztegia, *soinuti*, or. 933.

- bolbora*: gure *polbora* da, agian.  
 2778. *pena hauc*: hau da Etxeberrigan nik oraino aurkitu dudana pasarte bakarra, non *b-* ezinbestean mutu gertatu bait da. Lehen bertso erdi hau bera agertu da lehen (2733); ez, ordea, lehen hemistikioan, hemen bezala, sartua.  
 2786. *ecen batean*: hots, *batean baino*: ikus 2546.  
 2787. *lehen eta bicoric*: ikus 2574.  
 2788. *noiz ere baitute*: hots, dutenean edo dutenoro: ikus 10.

- 2790 Ecen beguiac nauari ahal deçan guztia  
 Gauça choill itsussia da eta icigarria  
 Lekhuaren itsustassun berac ere du asqui  
 Damnatua tormentatcen, ecen hain da itsussi  
 Hartaracotz essaiatcen da burua bercera  
 Hequien ez ikhusteco fite aldaratcera  
 Bañan alferric Sathanec cerengatic beguiac  
 Itsustassun guztitara diaducon gueldiac  
 Milla milla erakhartcen diotçala ehunera  
 Hañitz cierperen partez eguinic aitciñera  
 Guztiz heriotcearen icitcen du itchurac  
 2800 Ceñen beztitcen baititu deabruac iauzcurac  
 Hala trancitcen du ecen herstura halacoan  
 Non hill baileite Iaunac ez baleduca hagoan  
 Illhumbe guero lodi bat begui tristeanean  
 Hedoi bat beçala çαιο ifintcen aitciñean  
 Hunen aldean etciren deusic Egyptuocac  
 Pharaonen punitceco bidalduricacoac  
 Arguia guero bitzten da laster nola chichmixta  
 Ceñac claratcen baitio choill subituqui bista  
 Ikhusten tu lehoñ, tigre, eta berce mamuac  
 2810 Ceñetara Deabruac baitire mudatuac  
 Gogo contracoric baicen eztu deusic ikhusten  
 Gogoaren ere contra goibelac du itsutcen

---

2793. *bercera*: hots, beste lekuren batera.

2794. *hequien ez ikhusteco*: host, haiek ez ikustearren.

2795. *cerengatic*: hemen konjuzioa da: ikus *cergatic*, 648; ikus, aldiz, 2660; 2684.

2796. *diaducon*: hark hari eduki; objektoa plurala den arren, ez du horren markarik adizkiak. Ez ote da *diadutçon* irakurri behar?

2797. *diotçala*: euskara batuan *dizkio*-; hauxe dio poetak: Sataneke damnatuari erakartzen dizkio begiak sugeen partez eginikako miloika itsustasunen aitzinera.



- 2790 *ezen begiak nabari abal dezan guztia  
gauza xoil itsusia da eta izigarria.  
Lekhuaren itsustasun berak ere du aski  
damnatua tormentatzen, ezen hain da itsusi.  
Hartarakotz esaiatzen da burua berzera,  
hekien ez ikhusteko, fite aldaratzera,  
bainan alferrik, Sathanek zerengatik begiak  
itsustasun guztitara diadutzon geldiak,  
mila mila erakbartzten diotzala ehunera  
hanitz zierperen partez eginik aitzinera.*
- 2800 *Gutziz heriotzearen izitzen du itxurak,  
zeinen beztitzen baititu deabruak iauzcurak.  
Hala tranzitzen du, ezen herstura halakoan  
non hil baileite, Iaunak ez baleduka hagoan.  
Ilhunbe gero lodi bat begi tristeenean  
hedoi bat bezala zaio ifintzen aitzinean.  
Hunen aldean etziren deusik Ejiptukoak  
Faraonen punitzeko bidaldurikakoak.  
Argia gero bitzten da laster nola xixmixta,  
zeinak klaratzen baitio xoil subituki bista.  
Ikhusten tu lehoin, tigre eta berze mamuak,  
zeinetara deabruak baitire mudatuak;  
gogo kontrakorik baizen eztu deusik ikhusten,  
gogoaren ere kontra goibelak du itsutzen.*

---

2800. *ceñen iauzcurac*: hots, herio jazkeraz jazten da deabrua.

2801. *trancitcen*: ikus 2626.

*ecen... non*: konsekutiva da, noski «de tal modo... que podría morir, si el Señor no le...».

2802. *hagoan*: ikus 2678.

2804. *aitcinean*: sintagma berez hau da: *begui triseen aiticinean*.

2807. *chichmixta*: ikus 2058: *sismistec*.

2809. *manuac*: hala dago liburuan, baina *mamuac* behar du, agian.

*Beharriarenaz.*

Beharriac eztu entçuten baicen gathe soñuric  
Eta damnatuen baicen nigar eta plañuric

Aditcen ditu habarrots buru çoragarriac  
Nolacoric ez baitu eguin nihoiz iborciriac

Sugue eta animale pocoñtsuen chichtuac  
Bai confusionez bethe damnatuen oihuac

2820 Nola uhiñac baititu asserratu denean  
Bazterretara banatcen habarrotsac airean

Edo nola Otsaillean oiñhanetan otsoac  
Damnatuac entçuten tu handiago çartçoaç.

*Sudurrarena.*

Khirats eta urrin gaichto lececo cikhiñena  
Igaten çαιο sudurpill meheetan barrena

Fuñia khechatcen dio harc darocan doloreac  
Eta eraguiten lolo hautsteco urrinteac

Eztarriaz beherago sartcen çαιο khe belça  
Sudurrac ecin baitiro haren paira khiratsa

2830 Bañan gorputz guztiaren ussain penagarriac  
Ematen diotça ecin conda ahal martyriac.

*Ahoarena edo Gustuarena.*

Cierpeen herce eta guibelez ianharia  
Sathanec aphaintcen dio hain goça gaitz iaquia

- 
2813. *baicen gathe soñuric*: hots, *gathe soñuric baicen*: ikus 1718. Hurrengo bertsoan beste hainbeste. Badaki, ordea, poetak *baicen*, nahi duenean, bere lekuan ezartzen: ikus, esate baterako, 2728; 2952.
2816. *nolacoric*: ikus 2764, haren antzekoa bait da; hemen *halakorik* litzatekeena perpaus nagusian, *nolacoric* bihurtu da mendekoan. Gaztelaniaz honela litzateke: «Escucha ruidos enloquecedores, *cuales* el trueno jamás ha producido»; ikus 848, *noraraiño*, ere.
2818. *bai confusionez*: honela apika hobeki ulertzen da: *bai damnatuen oihu confusionez betheac*.
2822. *handiago çartçoaç*: hots, *çartço handiagoac*: ikus *çartço*-, 118.

Beharriarenaz.

*Beharriak eztu entzuten baizen gathe soinurik  
eta damnatuen baizen nigar eta plainurik;*

*aditzen ditu habarrots buru zoragarriak,  
nolakorik ez baitu egin niboiz iborziriak;*

*suge eta animale pozointsuen xixtuak,  
bai konfusioez bethe damnatuen oihuak.*

2820 *Nola ubinak baititu, aserratu denean,  
bazterretara banatzen habarrotsak airean  
edo nola Otsailean oibanetan otsoak,  
damnatuak entzuten tu handiago zartzoak.*

Sudurrarena.

*Khirats eta urrin gaixto lezeko zikbinena  
igaten zaio sudurpil meheetan barrena.*

*Fuina khexatzen dio hark darokan doloreak  
eta eragiten lolo hautsteko urrinteak.*

2830 *Eztarriaz beherago sartzten zaio khe belza,  
sudurrak ezin baitiro haren paira khiratsa,  
bainan gorputz guztiaren usain penagarriak  
ematen diotza ezin konda abal martiriak.*

Ahoarena edo gustuarena.

*Zierpeen herze eta gibeletz ianharria  
Sathanek aphaintzen dio, hain gozagaitz iakia.*

---

2825. *darocan*: partizipiorik gabe dago; ez da, beraz, laguntzaile, laguntzaile ere izan daiteken arren. Etxepareren *daraucate* (III,34) eta *derautacu* (IX,25) haien kidea dateke; Lafonek dioenez, *eman*-en osagarri diren hiru erroetarik batetakoak (\*-rau; Etxeberriengan \*-ro, agian) dira. Hona itzulpena: «Le perturba el cerebro el dolor que tal hedor le causa»: ikus 591.

2826. *lolo hautsteco urrinteac*: loloak garunen barreneko munak edo dira.

2827. *eztarriaz beherago*: ikus 2513.

2831. *herce*: hots, guk *este*-dioguna.

2832. *hain gozagaitz iakia*: *ianharria*-ren aposizio da hori.

Khelder baño minkhorragoz halaber edaria  
 Ceñac larrutcen baitio cruelqui eztarria  
 Iduriric senti badu ezpain çarratcecoric  
 Tenaçaz ahoa dio idequitcen bertaric  
 Ascotan hautsten diotça lethaguiñac colpeaz  
 Eta mihia ere burdin atheratcen meheaz.

*Uquitcearena.*

- 2840 Gathearen buru batez oñetaric lothuric  
 Eta çaldi sendoari berceaz itchiquiric  
 Harrietan herrestatcen tu Sathanec gorputçac  
 Ceñi çathitcen baitçaizte larru eta alkhutsac  
 Çamariaren itchura hartcen du Deabruac  
 Hala erabilltcecotçat ikhetan damnatuac  
 Hala tormentatcen dire gorputçaren sensuac  
 Ceñac hautsi baitituzte Iaincoaren manuac  
 Bortz sensuez atseguña bozqui hartu duena  
 Hala matharqui lecean penatcen da presuna  
 2850 Ecen ceñaz hartu baitu lehen placer puchantçaz  
 Hartçaz dolorea behar du sentitu ordaintçaz.

*Pena particularez.*

Hunen bercez erran tugu dolore generalac  
 Orain aldiz erratera goaz particularac  
 Iauna hagoan iduqui çaçü ene hegatsa  
 Eguin ohi tutçun leguez usso eta belatcha

- 
2833. *khelder*: gure *kedar*-. Poetak hau esan nahi du: janaria sugeen estez eta gibeletz bezala, edaria kedarra den baino gauza minkorragoz paratzen diola.
2838. *meheaz*: hots, *burdin meheaz*.
2842. *ceñi*: pluraleko dativo da hemen.  
*alkhutsac*: Lhandek: «on lui met en pièces la peau et les tendons»: ikus Hiztegia, *alkhuts*, or. 34.
2844. *ikhetan*: hots, muino, aldapa, malda.
2846. *ceñac*: ikus 2664.

*Khelder baino minkhorragoz halaber edaria,  
zeinak larrutzen baitio kruelki eztarria.*

*Iduririk senti badu ezpain zarratzekorik,  
tenazaz aboa dio idekitzen bertarik.*

*Askotan hautsten diotza lethaginak kolpeaz  
eta mibia ere burdin atheratzen mebeaz.*

#### Ukitzearena.

- 2840 *Gathearen buru batez oinetarik lothurik  
eta zaldi sendoari berzeaz itxikirik,  
barrietan herrestatzen tu Sathanek gorputzak,  
zeini zathitzen baitzaizte larru eta alkhotsak.  
Zamariaren itxura hartzen du deabruak,  
hala erabiltzekotzat ikhetan damnatuak.  
Hala tormentatzen dire gorputzaren sensuak,  
zeinak hautsi baitituzte Iainkoaren manuak.  
Bortz sensuez atsegina bozki hartu duena,  
hala matharki lezean penatzen da presuna,  
2850 ezen zeinaz hartu baitu lehen plazer puxantzaz,  
hartzaz dolorea behar du sentitu ordaintzaz.*

#### Pena partikularaz.

*Hunenberzez erran tugu dolore jeneralak,  
orain, aldiz, erratera goaz partikularak.*

*Iauna, hagoan iduki zazu ene hegatsa,  
egin obi tutzun legez uso eta belatxa,*

- 
2848. *matharqui*: aurreko bertsoaren *bozqui*-ren kontrakoa da.  
*presuna*: hots, *hartu duen presuna*.
2849. *ecen*: irakur honela: *Ecen cein puchantzaz hartu baitu lehen plazer, hartantzaz...* Hots, «pues con la facultad con la que antes experimentó el placer, con aquella misma...». *Cein puchantça-* («la facultad que»), biek atzizkia dutelarik, latinezko «erlativoaren erakarketa» delakoaren antzera: «qua potentia, qua facultate», eta *hartantzaz* gero perpaus nagusian korrelato duelarik: «*qua... ea...*».
2853. *hagoan*: ikus 2802.
2854. *egin*: *iduki* berriz esaten ibili gabe; antzineko idazleen ohitura da hori.

Hassi dudan entrepresa ekhartceco neitcera  
Hartaracotz egor daçu arrai bat bihotcera

*Abisua.*

- Pena particularentçat hau behar duc notatu  
Cein ohi baitute çuhur guztiec auoatu
- 2860 Iaunac punitcen duela hartçaz bekhatorea  
Certçaz ahalque gabequi hautsi baitu leguea
- Edo certan ere hartu baititu atseguñac  
Hartan berean sentitu behar tuela miñac
- Ecen creatçaillearen gañetic creatura  
Onhetsi cien içatu gabe hartçaz ardura
- Hartaracotz cer baitçuen guchiago onhetsi  
Halaber hura behar du penen causaz gaitcetsi.

*Çazpi bekhatu mortalen penez.  
Urgulleriaren penez.*

- Urgullua altchatcen du Sathan herraz betheac  
Haitz buruaren gañera çangoetan gatheac
- 2870 Atalaietic egotzten du buruaz behera  
çain, heçur eta iunturen harrietan hautstera
- Hatsez ecin dagoela assez doloratua  
Hala ere iaçartcera heldu çαιο mindua

---

2855. *neitcera*: *net* edo *neit* egitera; hots, amaitzera.

2856. *egordaçu*: *egorri* edo *igorri*; *igor* *iezdazu*, alegia: ikus 3539, 935.

2858. *auoatu*: hots, *aitortu*: ikus 719.

2859. *hartçaz*... *certçaz*: lehengo (2849) modura, baina hemen atzekoz aurrera ipinirik eta hango *cein*- ordez hemen *cer*-: «con aquello con que...».

2861. *certan*... *hartan*: modu beretsuan, baina trukaturik: «en lo que ha experimentado los placeres, en aquello mismo ha de sufrir el dolor»: ikus 2859.

2864. *onbetsi cien*: zangalatrau dago.

*basi dudan entrepresa ekhartzeko neitzera,  
hartarakotz egordazu arrai bat bihotzera.*

Abisua.

*Pena partikularentzat hau behar duk notatu,  
zein obi baitute zubur guztiek aboatu:*

2860 *Iaunak punitzen duela hartzaz bekhatoarea,  
zertaz ahalke gabeki hautsi baitu legea;*

*edo zertan ere hartu baititu atseginak,  
hartan berean sentitu behar tuela minak,*

*ezen kreatzailearen gainetik kreatura  
onhetsi zien, izatu gabe hartzaz ardura.*

*Hartarakotz zer baitzuen gebiago onhetsi,  
halaber hura behar du penen kausaz gaitzetsi.*

Zazpi bekhatu mortalen penez.

Urguileriaren penez.

*Urguilua altxatzen du Sathan herraz betheak  
baitz buruaren gainera zangoetan gatheak;*

2870 *atalaietik egotzten du buruaz behera,  
zain, bezur eta iunturen harrietan hautstera.*

*Hatsez ezin dagoela asetz doloratua,  
hala ere iazartzera heldu zaio mindua.*

---

*içatu: ez uken: ikus 2668.*

2865. *cer... hura: ikus 2861: «lo que más amó, aquello debe repudiar por medio del castigo».*

2868. *çangoetan gatheac: ikus 1570; dituelarik edo antzeko adizkirik gabe.*

2871. *hatsez: irakur honela: hatsez ecin assez dagoela doloratua.*

2872. *mindua: Lhandek, halere, pasarte hau honela aipatzen du: Deabrua mindurik heldu zaio jazartzera, bere interpretazioa — zuzena, noski — emanik; eta honela itzultzen: «le démon courroucé vient l'attaquer»: ikus Hiztegia, jazarri, or. 477.*

*Inuidiaren pena.*

Inuidiaz betheari haguin çorrotz hazpiac  
Asserreric assiquitcen diotça haraguiac  
Etsaiaren heldu çαιο Belcebut idurian  
Handigoaz ifiñiric bi escuac guerrian  
Guero milla trufa eta burla beguienean  
Despitez eguiten dio iarriric aitciñean.

*Hirarena.*

2880 Asserre eta gudutsu ecin baquetuari  
Nano idurian Sathan heldu çαιο burlari  
Behatcez arrapaturic egotzten du lurrera  
Eta ondagora ematen cintçurraren gañera  
Guero burdin garroteaz heçur chehatceraño  
Colpea doblatcen dio eta flaca daiteño.

*Nola punitcen den auaritiosa.*

Avaritiosoentçat bitzten da su handia  
Eta bertça gañeratcen lakhua iduria  
Metal horiz bethecten da ezpaiñ gañetaraño  
Eta auaritiosa sartcen oñetaraño  
2890 Hain egarri cenaz guero urre cillhar harriaz  
Asse dadin doloretsu halaco edariaz  
Nola Cirussen Thomiric Erreguiñac burua  
Pulumparaci baitçuen thiñan coleratsua  
Ecin asse cenaz guero odol presunarenaz  
Hillic bedere satia cedin guerlan hillenaz

---

2873. *hazpiac*: Lhandek ez dakar *b-* duelarik; hutsa ote? Nolanahi ere, *haguin çorrotz hazpiac* eta ondoko bertsoaren *haraguiac* ez objetoa, baizik gauza bera, elkarren aposizio; eta sujetoa, ene ustez, *deabrua* da.

2874. *assiquitcen*: bestetan *aussiquitcen* idatzi du: ikus 2738.

2875. *idurian*: hots, *etsaiaren idurian*.

2876. *handigoaz*: Lhandek honela: «ayant mis, par fanfaronnade, les deux mains sur ses hanches (à la ceinture)»: ikus Hiztegia, *handigo-*: or. 405.

2878. *aitcinean*: sintagma osoa berez *beguien aitcinean* da.



### Inbidiaren pena.

*Inbidiaz betheari bagin zorrotz hazpiak  
aserrerik asikitzen diotza haragiak.*

*Etsaiaren heldu zaio Belzebut idurian,  
handigoaz ifinirik bi eskuak gerrian.*

*Gero mila trufa eta burla begiengan  
despitez egiten dio iarririk aitzinean.*

### Hirarena.

- 2880 *Aserre eta gudutsu ezin baketuari  
nano idurian Sathan heldu zaio burlari;  
behatzez arrapaturik egotzten du lurrera  
eta ondagora ematen zintzuraren gainera;  
gero burdin garroteaz bezur xehatzeraino  
kolpea doblatzen dio eta flaka daiteino.*

### Nola punitzen den abariziosa.

- Abariziosoentzat bitzten da su handia  
eta bertza gaineratzen lakhua iduria.  
Metal horiz bethetzen da expain gainetaraino  
eta abariziosa sartzen oinetaraino.*
- 2890 *Hain egarri zenaz gero urre, zilbar, harriaz,  
ase dadin doloretsu halako edariaz.*
- Nola Zirusen Thomirik erreginak burua  
pulunparazi baitzuen thinan koleratsua,  
ezin ase zenaz gero odol presunarenaz,  
hilik bedere sazia zedin gerlan hilenaz,*

---

2882. *ondagora*: hots, orpoa.

2887. *expain gañetaraño*: Lhandek honela jaso du bi bertso hauetako esaldia:  
*bertza expainetaraino bethea*: «chaudron rempli jusqu'aux bords»: ikus  
Hiztegia, *bertz*, or. 150.

2891. *nola*: irakur honela: *nola Thomiric erreguiñac Cirussen buru coleratsua...*

2892. *thiñan*: ur, ardo, sagardo eta abar gordetzeko ontzi handia.

2894. *guerlan hillenaz*: gerlan hilen odolaz, alegia.

Halaber tu pulumpatcen burreu Ifernucoac  
Auariciosoequin gorputz penatcecoac

Oihuz ere ecin arin detçaquete nequeac  
Ceren ahoa tapatcen baitaroe urreac.

*Gormantaren pena.*

- 2900 Baña ahoa idequiric beharrietaraño  
Gormantari sartcen dio lohi eztarriraño  
Apho eta Viper gaixtoz eguinic ianharía  
Eta aspic pocoñtsuen odolez edaria  
Bortchaz galkhatcen badio Deabruac iaquia  
Hala nola unhideac haurtçhoari ahia  
Hunela du Ifernuan Gormantac othuruntça  
Ematen çaiola gauça choill iguñez hazcuntça  
Gorale duelaric alabañan sabela  
Bethe behar du herabe nahiz handi duela.

*Paillartarena.*

- 2910 Orain Paillarta darama Asmodea liçunac  
Ihinçola eta hararte ikhustera illhunac  
Nahastatcen du gachoa apho eta suguequin  
Neguel bare eta musquer guehiago ferdequin  
Aussiquica lotcen çαιο bakhotcha partetaric  
Principalqui bekhatua eguin duenetaric.

*Alfertassunarena.*

Alferra ernatcen dute ezten eta cihiez  
Eta ikhean ioatera bortchatcen iniuriez

---

2896. *auariciosoequin*: genitivo da; *auariciosoen* gorputz: ikus 2465.

2900. *lobi*: mugagabe; *lokatz*a esan nahi du hemen, *ez gorputza*: ikus 2641.

2902. *aspic*: ala *aspid*?

2903. *badio*: ez da kondizionala, baiezkoa baizik.

2906. *gauça choill igunez*: lehen hitzaren ondoan zesura.

*igunez*: bestetan *b-* duela ageri da: ikus 173.

2907. *gorale*: lehen bertso erdi hau silaba batez labur da: *goragale* behar du, agian, edota *goralea*.

*halaber tu pulunpatzen burreu ifernukoak  
abariziosoekin gorputz penatzekoak.*

*Oihuz ere ezin arin detzakete nekeak,  
zeren ahoa tapatzen baitaroe urreak.*

Gormantaren pena.

- 2900 *Baina ahoa idekirik beharrietaraino,  
gormantari sartzen dio lobi eztarriraino  
apho eta biper gaixtoz eginik ianbaria  
eta aspik pozointsuen odolez edaria;  
bortxaz galkhatzen badio deabruak iakia,  
hala nola unhideak haurtxoari abia.  
Hunela du ifernuan gormantak othuruntza,  
ematen zaiola gauza xoil biguinez hazkuntza.  
Goralea duelarik, alabainan sabela  
bethe behar du, herabe nabiz handi duela.*

Pailartarena.

- 2910 *Orain pailarta darama Asmodea lizunak  
ihinçola eta hararte ikbustera ilhunak.  
Nahastatzen du gaxoa apho eta sugekin,  
negel bare eta musker gehiago ferdekin.  
Ausikika lotzen zaio bakotxa partetarik  
prinzipalki bekhatua egin duenetarik.*

Alfertasunarena.

*Alferra ernatzen dute ezten eta zibiez  
eta ikbean ioatera bortxatzen iniuriez.*

- 
- sabela*: zangalatrau dago, *sabela bethe behar du* bait da aditz sintagma.  
2908. *herabe*: irakur honela: *nabiz herabe handi duela*.  
2910. *ihinçola*: «lieu bas, profond où la rosée est plus abondante», dio Lhandek  
*hararte*: ikus 2452.  
*illuñac*: hutsa dirudi; bestetan *illhunac* ageri da.  
2912. *neguel*: hots, *igel*.  
2916. *ikbean*: ikus 2844.

Atsecabe duelaric ičan arren asprea  
 Eguin behar du arinqui manatcen den bidea  
 Eta essaiatu harri handia altchatcera  
 2920 Ceña erortcen baitçαιο fiñean bere gañera  
 Hala laster darabilla naguien manariac  
 Auietan eraguiten diotçala mendiac.

*Penen qualitateaz.*

Orain aditu ditutçu cein diren doloreac  
 Aditcera aphain çaitte hequin qualitateac  
 Inongoicoa hunat ere heda çaçu escua  
 Chidorretic ez nabillan campora bassatua.

*Punitionetan Iaincoac daducan ordenaz.*

Inongoicoac ordena du beguiratcen beretic  
 Bañan nahastapen baicen ezta penen aldetic  
 2930 Nori bere eredura ematen dio pena  
 Bekhatore handienei halaber handiena  
 Bere gain punitcen ditu bicio differentac  
 Uguilluac Gormantetic berçela tu tormentac  
 Berce maneraz Paillartac, bercez Lucurariac  
 Berce thailuz Mendecossac bercez berriz Naguiac  
 Aitciñera eman dugu hori eçagutcera  
 Eta gaizqui bakhotcharen tormenta aditcera  
 Escriturac hala çuen ia aspaldi cantatu  
 Hutsen araez gaixtoa behar cela punitu  
 Certan goçoqui sentitu baitçuen atseguña  
 2940 Hartan berean soffritu behar çuela miña

2917. *ičan arren asprea*: sintagma hau ez dagokio *atsecabe*-ri baizik ondoko bertsoaren *bidea*-ri.

2921. *manariac*: hots, agintariak. Hau da sujetoa eta honek darabil laster alferra.

2922. *auietan*: hots, abiada bizian.

2924. *hequin*: ikus 2595.

2927. *beretic*: gero *penen aldetic* dioenez gero, hemen ere *bere aldetic* esan

*Atsekabe duelarik, izan arren asprea,  
egin behar du arinki manatzen den bidea*

2920 *eta esaiatu harri handia altxatzera,  
zeina erortzen baitzaio finean bere gainera.*

*Hala laster darabila nagien manariak,  
abietan eragiten diotzala mendiak.*

Penen kalitateaz.

*Orain aditu ditutzu zein diren doloreak,  
aditzera aphain zaite bekin kalitateak.*

*Ongoikoa, hunat ere beda zazu eskua,  
xidoretik ez nabilan kanpora basatua.*

Punizionetan Iainkoak dadukan ordenaz.

*Ingoikoak ordena du begiratzen beretik,  
bainan nabastapen baizen ezta penen aldetik.*

2930 *Nori bere eredura ematen dio pena,  
bekhatore handienei halaber handiena.*

*Bere gain punitzen ditu bizio diferentak:  
urguiluak gormantetik berzela tu tormentak,*

*berze manieraz pailartak, berzez lukurariak,  
berze thailuz mendekosak, berzez, berriz, nagiak.*

*Aitzinera eman dugu hori ezagutzera  
eta gaizki bakhotxaren tormenta aditzera.*

*Eskriturak hala zuen ia aspaldi kantatu,  
butsen arauz gaixtoa behar zela punitu;*

2940 *zertan gozoki sentitu baitzuen atsegina,  
hartan berean sofritu behar zuela mina*

---

nahi du.

2931. *bere gain*: hots, modu desberdinez, bakoitza berez.

2932. *bercela*: reizio -tik duelarik: hots, *gormantetic bercela*; hori lehen -z atziz-  
kiz esana agertu da: ikus 2528.

2935. *aitcinera*: ala *aitcinean*? Ilun dago liburua.

2939. *certain... hartan*: ikus 2861.

Eta bekhatu hañitcez baldin bada cutsatu  
Gaztiguac bat banaca behar ditu pairatu.

*Penen aldetic den confusioneaz.*

Punitionen aldetic ezta ordenantzaric  
Baicen nahastapen eta confusione handiric

Ecen gordea daduca naturac erreguela  
Ceñetarin ez baitaite nihola errebela

Contrario batetarin hain ossoqui bercera  
Behinere non ethortcen ez baita saltatcera

2950 Bañan erditic passatcen da contraren chedera  
Eta ezariaz igaten graduric gorenera

Halaco legueric ezta Ifernuan batere  
Confusione baicen eta nahaste bethiere

Eta harc pena daroe arimei guehiago  
Ecen mugara passatcen balire nequeçago

Ceren nola hotz handiaz garenean penatu  
Eta suari escuac guero khechaz paratu

Leheneco hotçac baño guehiago escuac  
Penatcen baitarozquigu hurbilleguico suac

2960 Halaber da hondale(ce)co doloratu gachoez  
Eta bazter batetarin bercera egotciez.

Ecen egotztean sutic ibaia ormatura  
Sentitcen dute oñhace lehenen berretura

Neguan gäiic içatu ezten beçalacoac  
Beguietan iartcen çaitze tela illhumbezcoac

---

2946. *ceñetarin*: *nondik* kasoan erlativo gisa.

2948. *non ethortcen ez baita*: filosofoen «natura non facit saltus» delako hura  
ari da hemen azaltzen poeta; natura astiro eta emeki aldatzen omen  
da: ikus 2562.

2952. *confusione baicen*: baina zortzi bertso gorago (2944) *baicen* dago aurrean.

2953. *daroe*: ikus 2825: *darocan*. Laguntzaile ere izan daiteke, noski: ikus 1883;  
2969.

*eta bekhatu hanitzez baldin bada kutsatu,  
gaztiguak bat banaka behar ditu pairatu.*

Penen aldetik den konfusioenez.

*Punizionen aldetik ezta ordenantzarik,  
baizen nahastapen eta konfusioez handirik,*

*ezen gordea daduka naturak erregela,  
zeinetarik ez baitaite nihola errebela,*

*kontrario batetarik hain osoki berzera,  
bebinere non ethortzen ez baita saltatzera,*

2950 *bainan erditik pasatzen da kontraren xedera  
eta ezariaz igaten gradurik gorenera.*

*Halako legerik ezta ifernuan batere,  
konfusioez baizen eta nahaste bethiere*

*eta hark pena daroe arimei gehiago  
ezen mugara pasatzen balire nekezago;*

*zeren nola hotz handiaz garenean penatu  
eta suari eskuak gero khexaz paratu*

*leheneko hotzak baino gehiago eskuak  
penatzen baitarozkigu hurbilegiko suak,*

2960 *halaber da hondaleko doloratu gaxoez  
eta bazter batetarik berzera egotziez,*

*ezen egotztean sutik ibaia ormatuta  
sentitzen dute oinhaze lehenen berretuta.*

*Neguan gaiük izatu ezten bezalakoak  
begietan iartzen zaizte tela ilhunbezkoak.*

---

2954. *ecen*: ikus 2786. Irakur honela: *mugara nequetçago passatcen balire* baino pena gehiago; ikus hau hiru bertso beherago (2957).

2955. *ceren nola*: konparaketa honen perpaus nagusia gero dator: *Halaber da...*

2959. *hondalececo*: hala dio liburuak, baina bertsoak silaba bat gehiegi du: *hondaleco* behar du izan.

2961. *sutic*: guk *sutatik* esan ohi dugu: ikus 2583.

2963. *gauc*: ez *gaurik*; konsonantez amaitua bailitza, beraz.

Berehala guero berriz ecin paira arguiac  
 Milla cierpeen ikhusten tuztela iduriac  
 Bethi batez punitcea choill desiratcen dute  
 Ecen hala baliz hambat dolore ezluquete  
 Gambiatceac daroe berretcen dolorea  
 2970 Eta hambat lastimen da damnatua chedea.

*Penen handitassunaz.*

Pena hain handiac dire eta aspre martyriac  
 Condatceco ez baitire asqui gure mihiac  
 Ecen Iaunac descargatcen ditu bere tragaçac  
 Ceñen çauriac baitire bercetariac garratçac  
 Hequin miñac halaber hain desesperagarriac  
 Lurrecoac non solament baitire iduriac  
 Cembat urrun pintatutic baita lambo bicia  
 Lurrecotic hambat bada hango pena larria  
 Edo elkhar ganic cembat barkha eguiatzcoac  
 2980 Differentia baitute eta ichenduzcoac  
 Hambat badu fin gabeco doloreac handia  
 Hemen soffritcen denaren ganic differentia.

- 
2966. *iduriac*: hemen izen gisakoa da. Lhandek honela: «ils voient les représentations de mille serpents»: ikus Hiztegia, *iduri*, or. 484.
2967. *desideratcen*: hala dio liburuak, baina *desiratcen* behar du; oster, silaba batez luzeegi da bigarren bertso erdia: ikus 2466; 3337.
2968. *hambat dolore*: zesura bien erdian dutelarik.
2970. *eta hambat*: irakur: *eta hambat lastimen chedea da damnatua*.
2972. *ez baitire*: konsekutiva da garbiro; ez du, haatik, *bait*-ez beste markarik, *non* edo antzekorik: ikus, aldiz, 2976.
2973. *tragaçac*: hots, azkonak, dardoak.
2974. *bercetariac garratçac*: *-tariac* hor «genitivo + *aldean, ondoan*» esan ohi dugunaren orde z dago, itxuraz: «en comparación de las restantes heridas».
2975. *hain*: honen ondoan dago zesura.
2976. *non baitire*: ikus 2972; han ez bezala, hemen konsekutiva *non* + *bait*-en bidez emana dago.



*Berebala gero berriz ezin paira argiak,  
mila zierpeen ikbusten tuztela iduriak.*

*Bethi batez punitzea xoil desiratzen dute,  
ezen hala baliz hanbat dolore ezlukete.*

2970 *Gambiatzeak daroe berretzen dolorea  
eta hanbat lastimen da damnatua xedea.*

Penen handitasunaz.

*Pena bain handiak dire eta aspre martiriak,  
kondatzeko ez baitire aski gure mihiak,  
ezen Iaunak deskargatzen ditu bere tragazak,  
zeinen zauriak baitire berzetarik garratzak.*

*Hekin minak halaber hain desesparagarriak,  
lurrekoak non solament baitire iduriak.*

2980 *Zenbat urrun pintatutik baita lanbo bizia,  
lurrekotik hanbat bada hango pena larria,  
edo elkhar ganik zenbat barkha egiazkoak  
diferenzia baitute eta ixenduzkoak,  
hanbat badu fin gabeko doloreak handia  
hemen sofritzen denaren ganik diferenzia.*

---

2977. *cambat*: hala dio liburuak, baina *cambat* behar du. Hauxe esan nahi du poetak: lanbo bizia eta pintatua guztiz desberdin diren bezala, hala dira ere hango pena eta lurrekoa.

2978. *cambat... hambat*: ikus 2414.  
*bada*: ikus 2903; hau ere baiezkoa da.

2979. *edo elkhar ganik*: lehengoa bera esan nahi du: egiazko barkak eta ixenduzkoak (hots, pintatuak, gezurrezkoak) duten bezanbat alde dute fingabeko doloreak eta lurrekoak.

2980. *cambat differentia*: hori da berez aho hizkeran ezin urratuzko hitz andana; hemen, halere, bi hitzak bi bertsoetan barreiatuak daude.

2981. *hambat differentia handia*: hau ere guztiz printzatu dago.  
*badu*: ikus 2978: *bada*.

2982. *denaren ganik*: zesura bien erdian dutelarik.

*Sentimendu handiaz.*

Ecen sentimendua du are samurragoa  
Damnatuac bici cela çuen bañoagoa

Pairatu hutsez etçαιο baterere gutitcen  
Bañan estatu berean bethi çαιο guelditcen

Aristoteles handiac erran çuen çuhurqui  
Ceña baita frogatua ikhusten eguiazqui

2990 Bethiereco pairuac duela haraguia  
Usatcen ez sentitcera hain dolore handia

Nilgo vipelletacoec hitçaren entçutea  
Ur iauciaren soñuaz galtcen dute berea

Uraren açantça eta habarrots bethicoac  
Voça entçuteco sortcen darozte organoac

Ezta hala Ifernuan doloratcen direnez  
Oraingoez hambat dute sensu nola lehenez

Oñhaceac eztaoe sortcen sentimendua  
Bañan dute egundaño beçain minberatsua.

*Pen-iraupenez*

3000 Fiñean cembat baitute martyrio soffritcen  
Leheneco indarretan bethi dire aurkhitcen

Ceñac eztitu ahitcen bethiereco suac  
Khar biciaz direlaric puchantqui chixcalduac

Heçurrac chehatu arren laster dire ossatcen  
Eta çauriaren merca ezta nihon aguertcen.

---

2984. *bañoagoa*: -agoa erantsi dio, puntuak bortxaturik.

2985. *baterere*: berez den baino silaba bat luzeago egin du hitza, behar adina silaba osatzeko: ikus 685.

2990. *usatcen*: hots, ohitzen; baina iragankor.

2991. *vipelle-tacoec*: hots, *uboldeetakoek* esan nahi bide du, Lhandek hori bera ez badakar ere. Ikus 871-872: han Nilgo *uhobiez* mintzo da. Ikus ere Mendibururerok: *urbelde*, *uvelde*.

2992. *berea*: hots, *bere hitzaren entzutea*.

2994. *sortcen*: hots, guk *gortzen* dioguna

### Sentimendu handiaz.

*Ezen sentimendua du are samurragoa  
damnatuak bizi zela zuen bainoagoa.*

*Pairatu hutsez etzaio baterere gutitzen,  
bainan estatu berean bethi zaio gelditzen.*

*Aristoteles handiak erran zuen ziburki,  
zeina baita frogatua ikbusten egiazki,*

2990 *bethiereko pairuak duela haragia  
usatzen ez sentitzera hain dolore handia.*

*Nilgo uipeletakoek hitzaren entzutea  
ur iauziaren soinuaz galtzen dute berea,*

*uraren azantza eta habarrots bethikoak  
boza entzuteko sortzen darozte organoak;*

*ezta hala ifernuan doloratzen direnez,  
oraingoez hanbat dute sensu, nola lehenez;*

*oinhazeak eztaoe sortzen sentimendua,  
bainan dute egundaino bezain minberatsua.*

### Pen-iraupenez

3000 *Finean zenbat baitute martirio sofritzen  
leheneko indarretan bethi dire aurkhitzen,*

*zeinak eztitu abitzen bethiereko suak,  
khar biziaz direlarik puxantki xixkalduak.*

*Hezurrak xebatu arren, laster dire osatzen  
eta zauriaren merka ezta nibon agertzen*

---

2996. *hambat sensu*: hori da berez sintagma, artean *dute* sartu duen arren; batere beharrik gabe, gainera, esan bait zezakeen: *oraingoez hambat sensu // dute nola lehenez*.

2999. *cembat baitute*: ikus 2557; honek ere konzesiva kutsua bait du. Latinezko *quam(vis)*, *quantum(vis)* datozkio bati gogora.

3001. *ceñac*: pluraleko objektoa da hemen: ikus, ostera, 2670; 2664; 2638... Hau da, oker ez banago, pasarte bakarra non *cein-*erlatiboak ez bait du *bait-* aurrizkirik hartu. Arrazoa garbi dago, ene ustez; hemen ez da erlatibo, itxuraz baizik; erakusle gisakoa da: hots, «estas fuerzas...».

Eta hau da egun eta mende bethiereco  
Guehienic arimari gogataracitceco.

Hunec ditu principalqui desepararacitcen  
Fin gabeco oñhaceac ceren behar dituzten

3010 Chori batec lehen luque Oceana agortu  
Eta Caucasaco haitça bihica aldaratu

Damnatuen penec luten baño fiñamendua  
Hain handi da arimaren galtceco espantua.

Choill desira handia du lohitic illkhitceco  
Hala bedere oñhaceen fiñera ethortceco.

Tormentatcen du burua aurkhitceco bideric  
Alabañan hec guztiac eguiten tu alferric.

Ecen mundu beherean baño borthitzquiago  
Gorputçarequin lothua espiritua dago.

3020 Laster orain partitcen da gorputcetic arima  
Baldin barrena baçaio sartcen çorrotz burdiña.

Ifernuan ezta orobat ecen arma mehea  
Sarthuagatican ezta fiñatcen bicitcea.

O miserablea, dio, hill bedere banendi!  
Eta onez gabeturic gaitz ez baneça senti.

Gogortua sentimendu gabe banendi etcin  
Hala bedere balute ene doloreec fin.

Gauça hala içateaz handi nuque placera  
Ecin ordean arima gorputcetic athera.

---

3006. *gogataracitceco*: hala dator liburuan, *-tci-* duelarik, baina *-ci-* behar du, agian; hala ageri da, bederen, ia beti: ikus ondoko bertsoan *desepararacitcen*, eta ohar bide batez *-aracitce-* dioela, ez *arazte-*: ikus 1664.

3008. *ceren*: kausala baino zehar galdera gehiago dirudi; hots, *ea zergatik...* *Hunec* honenbestez kataforikoa litzateke. ikus 2662.

3009. *agortu*: ez *agortuko*, guk gaur esango genukeen bezala.

3010. *bihica*: hots, aleka edo alez ale.

3011. *luten baño*: irakur honela: *damnatuen penec fiñamendua luten baño (lehen luque chori batec...)*.

*luten*: guk *luketen* esango genuke.

*eta hau da egun eta mende bethiereko  
gebienik arimari gogatarazitzeke;*

*hunek ditu prinzipalki desespararazitzen,  
fin gabeko oinhazeak zeren behar dituzten.*

3010 *Xori batek lehen luke Ozeana agortu  
eta Kaukasako haitza bibika aldaratu,*

*damnatuen penek luten baino finamendua:  
bain handi da arimaren galtzeko espantua.*

*Xoil desira handia du lobitik ilkhitzeko,  
hala bedere oinhazeen finera ethortzeko;*

*tormentatzen du burua aurkhitzeko biderik,  
alabainan hek guztiak egiten tu alferrik,*

*ezen mundu behean baino borthitzkiago  
gorputzarekin lothua espiritua dago.*

3020 *Laster orain partitzen da gorputzetik arima,  
baldin barrena bazaio sartzen zorrotz burdina;*

*ifernuan ezta orobat, ezen arma mehea  
sarthuagatikan, ezta finatzen bizitzea.*

*«O miserable!» dio, «hil bedere banendi  
eta onez gabeturik gaitz ez baneza senti!*

*Gogortua sentimendu gabe banendi etzin;  
hala bedere balute ene doloreek fin.*

*Gauza hala izateaz handi nuke plazera,  
ezin, ordean, arima gorputzetik athera».*

---

3013. *lobitic*: hots, gorputzetik: ikus 1487.

3014. *oñhaceen*: behin baino gehiago ikusi dugunez, bi -ee- inoiz bi silaba dira, inoiz bat bakarra; ikus 1170.

3020. *çorrotz burdiña*: adverbio bezala hartzen ez bada, eta ez dirudi hartu behar denik, *burdina çorrotça* da berez sintagma.

3021. *ezta orobat*: ikus 1107.

3022. *sarthuagatican*: zangalatrau dago eta konzesiva da.

3025. *sentimendu gabe*: zesura bien erdian dute.

3026. *balute*: baiezkoa da: ikus 2981, eta gure *lukete*-ren kidea: ikus 3011.

3030 Guero deitcen tu Deabru gaixtoac saihetsera  
Berac ecin akhabatu bicia fiñatcera.

O guerlariac, dioste, eztuçue indarric  
Ni hilltceco, guehiago eztaguidan nigarric?

Hunat hunat emaçue colpe ahal guztiaz  
Eta gabe neçaçue sentimendu biciaz.

Deabruac frenesiaz indarrac doblaturic  
Pena berretcera heldu çaiçco preparaturic.

Badaquite ecin gabe daitequela biciaz  
Hala ere nahí dute tormentatu lehiaz.

3040 Guero madaricatcen tu Deabru deithatuac  
Ikhussiric akhabatu etçaiçcola sensuac.

Aicen madaricatua Ifernuco oztea!  
Dio, hambat baiteducan gaitz enetçat gordea.

Hau da bada prometatu atseguíñen goçoa  
Eta cerbitçu eguiñei aguindu golardoa.

Berriz eta berriz ere oi madaricatuac  
çaratela! cehatçaille arimen odolsuac.

Berriz ere lotcen çaiçco hissiz eta coleraz  
Eta tormentatcen dute asma ahal maneraz.

3050 Eta hunela galduei penac çaiçte berritcen  
Eta pausic eztute nihoiz ere aurkhitcen.

*Eliçaco suffragiac etçaiçte cerbitçatcen*

Bizquitartean daudezque egoquiac othoizten  
Eta aldare oñetan frogüen atheratcen

---

3030. *ecin akhabatu bicia*: hots, guk *ecin akhabatu duen bicia* esango genukeena. ikus 278.

3031. *dioste*: hark haiei, noski: ikus 2301, *diosquete*.

3034. *gabe neçaçue*: hots, *inork zerbaitez gabetu inor*; aditz hau aktivoa da hemen, beraz.

3037. *badaquite*: deabruak, noski, eta *ecin gabe daitequela biciaz* damnatua.

3041. *aicen madaricatua*: ez *adin*: ikus 2505.

3042. *baiteducan*: hik, noski, eta lehenaldia.

*hambat gaitz*: hori da berez sintagma, artean adizkia sartu eta zesuraren alde banatan dauden arren.

3030 *Gero deitzen tu deabru gaixtoak saihetsera  
berak ezin akhabatu bizia finatzera.*

*«O gerlariak», dioste, «eztuzue indarrik  
ni hiltzeko, gehiago eztagidan nigarrik?*

*Hunat, hunat emazue kolpe abal guztiaz  
eta gabe nezazue sentimendu biziaz».*

*Deabruak frenesiaz indarrak doblaturik  
pena berretzera heldu zaizko preparaturik.*

*Badakite ezin gabe daitekela biziaz,  
hala ere nahi dute tormentatu lebiaz.*

3040 *Gero madarikatzen tu deabru deithatuak,  
ikibusirik akhabatu etzaizkola sensuak.*

*«Aizen madarikatua ifernuko oztea!»  
dio, «hanbat baitedukan gaitz enetzat gordea.*

*Hau da, bada, prometatu atseginen gozoa  
eta zerbitzu eaginei agindu golardo?*

*Berriz eta berriz ere, oi madarikatuak  
zaratela!, zehatzaile arimen odolsuak».*

*Berriz ere lotzen zaizko hisiz eta koleraz  
eta tormentatzen dute asma abal maneraz*

3050 *eta hunela galduei penak zaizte berritzen  
eta pausurik eztute nihoiz ere aurkhitzen.*

*Elizako sufrajiak etzaizte zerbitzatzen.*

*Bizkitartean daudezke egokiak othoizten  
eta aldare oinetan frogüen atheratzen,*

---

3043. *prometatu atseguñen*: eta ondoko bertsoan *aguindu golardo*: ikus 3030:  
guk maiz *-tako* erasten diogu lehen partizipioari.

3046. *madaricatuac çaratela*: zangalatrau dago; *çaratela* dio, ez *zaitzela*: ikus  
2151; 3041.

*çaratela*: ikus *aicen*: 3041; *-ela* eta *-en* atzizkiak nahasi darabiltza: 1836.  
*cebatçaille*: irakur: *arimen cebatçaille odolsuac*.

3048. *asma abal maneraz*: ikus 2648.

3051. *egoqui*: hots, ahaideak, tartekoak.

3052. *frogüen*: *froguak* plural ezan ohi da: zera dira, inor hil ondoan arimaren  
alde atera ohi diren meza eta egin erreguak: ikus 258.

- Ecen condemnatuaren iceneco unguiac  
 Deusez laburtcen eztitu haren pena handiac.
- Alferric beraz altchatcen tuzte gora bihotçac  
 Eta alferric eguiten hain aberats emaitçac  
 erromerietan ere alferric halaberqui  
 Ibil daitezque othoizten dohatsuac deuotqui
- 3060 Ecen nahiz deçatela argal gorputz guicena  
 Eta hequin favorera deit Sainduen icena
- Bere aciendetaric gabeei parti limosna  
 Eta gau luceac argui apart utciric gosna
- Guztiarequin etçaizte gauça hauc probetchatcen  
 Aitcitic pena daroe guehiago berretcen
- Orhoituric ecen baldin ioan balire purgara  
 Hauc guztiac lequitzela bihur progotchutara
- Bañan illkhico eztiren diradela lecean  
 Etsai errabiamenduz betheen podorean
- 3070 Biciec ere dutela halaber sinhetstea  
 Hetaric bakhotcha cela asco aldez hobea
- Ceruetan daudecela Sainduen batçarrean  
 Guztiarequin daudela kharrez gori labean.

- 
3056. *emaitçac*: bestela behar luke: *hain emaitça aberatsac* edota *emaitça hain aberatsac*; izena aurretik, alegia: ikus 3444.
3057. *halaberqui*: ia beti *halaber* dio, baina inoiz *-ki* atzizkiak luzatzen du: ikus 1614.
3058. *ibil daitezque*: ikus elkarren segidan eta hirurak perpaus nagusietan, *dau-dezque* (3051) *altchatcen tuzte* (3055) eta orain *ibil daitezque*.
3059. *nahiz deçatela*: konzesiva, komunzki adizkiak *-en* duelarik darabilguna; mendeko perpaus konzesiva hau lau bertsoetan barna luzatzen da: ikus 1077.
3060. *hequin fauorera*: hots, *haien fauorera*, kondenatuen fauorera; oster, *bere* lioke poetak.  
*deit*: *argal*, *parti*, *argui* bezalaxe aditz erroa.



ezen kondemnatuaren izeneko ungiak  
deusez laburtzen ezitu haren pena handiak.

Alferrik, beraz, altxatzen tuzte gora bihotzak  
eta alferrik egiten hain aberats emaitzak;

erromerietan ere alferrik halaberki  
ibil daitezke othoizten dohatsuak debotki,

3060 ezen nahiz dezatela argal gorputz gizena  
eta bekin faborera deit sailduen izena,

bere aziendetarik gabeei parti limosna  
eta gau luzeak argi apart utzirik gosna,

guztiarekin etzaitze gauza hauk probetxatzen  
aitzitik pena daroe gehiago berretzen,

orhoiturik ezen, baldin ioan balire purgara,  
hauk guztiak lekiztela bihur progotxutara;

bainan ilkhiko eztiren diradela lezean,  
etsai errabiamenduz betheen podorean;

3070 biziek ere dutela halaber sinhestea,  
betarik bakhotxa zela asko aldez hobea;

zeruetan daudezela sailduen batzarrean,  
guztiarekin daudela kharrez gori labean.

---

3061. *gabeei*: hots, behartsuei. Bi *e* bat balira bezala ahoskatu behar dira:  
ikus 3014.

3062. *gosna*: «couette, matelas de plumes», dio Lhandek. Hemen amaitzen da  
da mendeko perpausa.

3064. *daroe*: hemen *diete* esango genukeena.

3066. *lequiztela bihur*: euskara batuan *lekizkiekeela*.

*progotchutara*: hori eta *probetchu*, biak darabiltza: ikus 3083.

3067. *lecean*: sintagma berez *illkhiko eztiren lecean* da.

3070. *asco aldez*: hala dio liburuak, baina *asco aldez* behar du: ikus 2167; 963.

3072. *daudela*: *ceruetan* nor dagoen eta *labean* nor, ez dago izenordainen bidez  
adierazia, baina ulertzen da. Ikus, bestalde, elkarren ondoan: *daude-  
cela* eta *daudela*.

*kharrez gori labean*: hots, labe kharrez gorian; ikus 2595.

*Damnatuen errencurez*

Ea nolacoac diren damnatuen nequeac  
Asqui declaratcen ditu hequin oihu tristeac

Ecen ahoa errencura handiz dute bethea  
Eta Iaincoaren contra hussu burho dorphea.

Hequin bazterrean ezta plañu baicen aditcen  
Eta hargatic etçaie tormentaric gutitcen.

*Errencura ez ungui bici içanaz.*

3080 Bañan errencura dute choill tristea altchatcen  
Cena ez baitçaie deusic ordean probetchatcen.

Orain cer balio çaicu supherbio içana  
Eta hambat preçatua munduco ontassuna?

Cer probetchu hain aberats buruac ikhussiaz  
Eta khecharic ohore vanoiei iarraiQUIAZ?

Hec guztiac ioan çaiZQUIGU nola airean lanhoa  
Eta gu guelditcen gare burdiñetan çangoa.

Martyrio handiz gure penatcen da lohia  
Eta arima da bere etsaiaren hirria.

3090 Hautsi guinduen ordena Iainco puchantarena  
Guehiago onhetsiric mundu vanoarena

Bañan enganatu gare munduco bicitcean  
Eta poçoña aurkhitu dugu oñen artean.

---

3076. *burho*: *madarikazio*, *birao* da.

3077. *baien*: hala dio liburuak, baina *baicen* behar du.

3078. *bargatic*: ez du esan nahi «por eso no se les...», baizik «no por eso se les...»; bestela esan, ez da kausala, konzesiva baizik: «a pesar de ello».

3079. *errencura*: beste inprenta hutsa: *errencura* behar du.

*choill tristea*: *errencura* hitzari dagokio eta halere *dute* sartu du artean.

3081. *cer balio çaicu*: ikus 2217. Adizki iragangaitza duenez gero, Axularrek *balia(tu)* esango lukeena da. Etxeparek ez ditu formaz *balio* eta *baliatu*, iragankorra eta iragangaitza, bereizten; biak *valia* idazten ditu. Bai, ordea, adizki laguntzailez: *valia diquecit* (X,74) eta *eztaquidic bura veçayn valia* (I,46).

Damnatuen errenkurez.

*Ea nolakoak diren damnatuen nekeak  
aski deklaritzen ditu bekin oihu tristeak,  
ezen ahoa errenkura handiz dute bethea  
eta Iainkoaren kontra husu burho dorphea.  
Hekin bazterrean ezta plainu baizen aditzen  
eta hargatik etzaie tormentarik gutitzen.*

Errenkura ez ungi bizi izanaz.

3080 *Bainan errenkura dute xoil tristea altxatzen,  
zeina ez baitzaie deusik, ordean, probetxatzen:*

*«Orain zer balio zaiku supherbio izana  
eta hanbat prezatua munduko ontasuna?*

*Zer probetxu hain aberats buruak ikhusiaz  
eta khexarik ohore banoei iarraikiaz?*

*Hek guztiak ioan zaizkigu, nola airean lanhoa,  
eta gu gelditzen gare burdinetan zangoa.*

*Martirio handiz gure penatzen da lobia  
eta arima da bere etsaiaren birria.*

3090 *Hautsi ginduen ordena Iainko puxantarena  
gebiago onhetsirik mundu banoarena,*

*bainan enganatu gare munduko bizitzean  
eta pozoina aurkbitu dugu oinen artean.*

---

3082. *preçatua*: hots, munduko ontasuna hanbat preziatu izana: ikus 128.

3083. *cer probetchu*: ikus 3066. Oihenartek hori bera honela dio: *Cer profetu...?* (II,10).

*buruac*: hots, geure buruak.

3084. *khecharic*: hots, larririk: ikus 2363.

3086. *burdinetan çangoa*: hots, gu gelditu era horretan: ikus 2868.

3087. *gure lobia*: hori da sintagma, nahiz *penatzen da* bien artean sartu eta bi hitzak zesuraren alde banatan dauden.

3088. *bere etsaiaren*: hala dago liburuan, baina *etsaiaren* behar du; ohar, gainera, bien artean gertatzen dela zesura.

O gure dohacabeac! ez baitugu sinhetsi  
Cer baitçuten hambat prestu eta Sainduc onhetsi.

Bethiereco lamboac ditugu inguruan  
Amen bat ez gaituztela uzten errepausuan

O guztiz adimendutic campora irauciac!  
Ceñac gaixqui baititugu emplegatu biciac.

*Ecín mundura itçuliaz*

3100 Ha cillhegui bailitçaicu mundura itçultcea  
Eta eguin tugun faltez nigarretan urtcea.

Guehiago ez guinduce placerez antsiaric  
Aitcitic har guiñetçaque penac allegueraric

Onac erabill guintçaque oñ azpian urdaraz  
Eta probecia maita guineçaque ahalaz.

Gure tresnac leratezque herac eta çakhuac  
Eta harri gogorrenac etciteco lekhuac.

Compañia gaixtoetaric urrun guinte aparta  
Eta guinduce mortuac habitatceaz artha.

3110 Belhar çurthiñez gorputçac haz guintçaque iuiusqui  
Eta edaran bidasso mendicoaz goçoqui.

---

3093. *gure dohacabeac*: ez, noski, *gu* ez garen eta *gureak* diren beste lagun batzuk, baizik *gu geurok* gara dohakabe. Ikus Etxepareren hauek: *bire enganatuya* (II,64); *ene galduya* (X,7). Ikus ere Etxeberriren 2143; 2495.

3094. *cer baitçuen*: guk erlativo bidez eman ohi duguna: *onbetsi zuena*: ikus 844.

*ata*: hala dio liburuak, baina *eta* behar du.

3096. *amen bat*: hots, mementu bat: ikus 2727.

*erepausuan*: ikus *pausu*- ere: 252.

3097. *irauciac*: ikus 2675.

3098. *ceñac*: *guk*, alegia; pluraleko ergativo da hemen, beraz: ikus, aldiz, 3001.

3099. *bailitçaicu*: ez da nahitaez hutsa; *bai-* eta *ba-* maiz nahasi ohi dituzte antzineko idazleek; baita Etxeparek ere: ikus, halere, 3112.

3101. *ezguinduce*: hots, *ez genuke* euskara batuan.

3102. *aaitcitic*: hala dago, baina *aitcitic* behar du.

*guiñetçaque*: euskara batuan *genitzake*.

O gure dohakabeak!, ez baitugu sinhetsi  
zer baitzuten hanbat prestu eta sainduk onhetsi.

Bethiereko lanboak ditugu inguruan,  
amen bat ez gaituztela uxten errepausuan.

O guztiz adimendutik kanpora irauziak,  
zeinak gaixki baititugu enplegatu biziak!»

Ezin mundura itzuliaz.

3100 «Ha, zilhegi bailitzaiku mundura itzultzea  
eta egin tugun faltex nigarretan urtzea!

Gebiago ez ginduke plazerez antsiarik,  
aitzitik har ginetzake penak alegerarik;

onak erabil gintzake oin azpian urdaraz  
eta probezia maita ginezake ahalaz;

gure tresnak leratezke herak eta zakbuak  
eta harri gogorrenak etziteko lekhuak;

konpainia gaixtoetarik urrun ginte aparta  
eta ginduke mortuak habitatzeaz artha;

3110 belhar zurthinez gorputzak haz gintzake iuiuski  
eta edaran bidaso mendikoaz gozoki.

---

3103. *guintçaque*: ez du esan nahi gizon onak gu oinazpian erabil gintzakeenik,  
baizik guk ontasunak oinazpian erabil genitzaakeela; ondoko bertsoak  
erakusten du hori. Hortaz, *guintçaque* hau aurreko *guiñetçaque* ber-  
bera da.

*urdaraz*: hots, erdeinuz, arreta eta jaramonik gabe.

3104. *guineçaque*: hots, *genezake* euskara batuan; hau eta *guinetçaque* (3102)  
hark *-t-* izatean bakarrik bereizten dira, objeto plurala duenez gero.

3105. *leratezque*: hots, *lirateke*; ikus *diraite*, 2047.

*herac*: hots, zurdatzak edo zilizioak.

3107. *guinte*: guk *ginateke* esango genukeena; Etxepareren *guinate*.

3108. *guintuque artha*: hots, genuke arreta.

3109. *çurthiñez*: hots, guk zurtena edo txurtena esa ohi duguna.

*haz guintçaque*: ikus 3103.

*iuiusqui*: «avec délices», dio Lhandek.

3110. *edaran*: ikus 350; 388; *edan* aditzaren faktitiboa; guk gorputzak edaran  
genitzaake, esan nahi du. Lhandek honela itzultzen du bertso hau:

O cein handia guinduquen consolationea!  
Hala permis balitçaicu mundura itçultcea.

O dolore balequigu eta pena balia  
Eta behiala leguez hobenen urriquia!

Nigar eguin guineçaque fuña chucaceraño  
Presentean ere issurtcen eztugu gutiago

Bañan halaco çoriric eztuquegu batere  
Ecen behar dugu egon kharpean bethiere

3120     Eta probetchuric eztu beguien ithurriac  
Ecen akhabatu dire leheneco feriac.

O dolore eta neque ecin fiñatuzcoac  
Ala madaricaturic baiquiñen gu iaioac.

Madarica dadillala gure creatçaillea,  
Ceren ematen darocun hain gaztigu lucea.

### Çarratcea.

Hauc nituen errateco putçu handico penez  
Hauc halaber damnatuen nigar eta auhenez.

Eztuc bada Guiristiñoa nahi hautçaz orhoitu  
Eta ez atçαιο nahi faltari apartatu?

3130     Seculaco doloreec ez aute espantatcen  
Eta bihotça ezta roc aiphamenac harritcen?

Hi beçala bicituen errencura tristeac  
Aldaraciren ohico eztarozquic moldeac?

---

«nous nous abreuverions (de l'eau) de la rivière qui descend de la montagne»: ikus Hiztegia, *bidaso*, or. 163.

3111. *guinduquen*: euskara batuan *genukeen*.

3112. *balitçaitcu*: hala dio liburuak, baina *balitçaicu* behar du, poeta pasarte honetan *gu-zaz* ari bait da beti. Ohar, gainera, *-tcu* delako horrek zu esan nahiko balu, ç behar lukeela. Hau eta goiko *bailitçaicu* (3099) hura berbera dira; horregatik ere esan dugu han *ba-* aski zukeela, baina ez dela nahitaez hutsa. Bi bertsoek, gainerakoan, gauza bera diote.

3113. *O dolore: dolore eta pena* da berez sintagma. Ohar, *dolore* mugatu gabe dagoela.

O zein handia ginduken konsolazionea,  
hala permis balitzaiku mundura itzultzea!

O dolore balekigu eta pena balia  
eta behiala legez hobenen urrikia!

Nigar egin ginezake fuina xukatzeraino,  
presentean ere isurtzen eztugu gutiago;

bainan halako zoririk eztukegu batere,  
ezen behar dugu egon kharpean bethiere

3120 eta probetxurik eztu begien ithurriak,  
ezen akhabatu dire leheneko feriak.

O dolore eta neke ezin finatuzkoak,  
ala madarikaturik baikinen gu iaioak;

madarika dadilala gure kreatzailea,  
zeren ematen darokun hain gaztigu luzea».

#### Zarratzea.

Hauk nituen errateko putzu handiko penez,  
hauk halaber damnatuen nigar eta aubenez.

Eztuk, bada, giristinoa, nahi hautzaz orhoitu  
eta ez atzaio nahi faltari apartatu?

3130 Sekulako doloreek ez aute espantatzen  
eta bihotza eztarok aiphamenak harritzen?

Hi bezala bizituen errenkura tristeak  
aldaraziren obiko eztarozkik moldeak?

---

*balequigu balia*: ikus 3081, baina batikbat han aipatzen dugun 2217.

3115. *nigar eguin*: Lhandek honela dio: «nous verserions des larmes jusqu'à  
tarir la cervelle»: ikus Hiztegia, *xukatu*, or. 1054.

3123. *medarica*: hala dio liburuak, baina *madarica* behar du.

*dadillala*: ikus 2695; badaki, halere, *dadila* ere esaten: ikus 2594.

3127. *Cuiristinoa*: *Guiristinoa* behar du, noski, lau silaba baizik ez du.

3128. *eaztçαιο*: honela dago, baina *ezatçαιο* behar du.

3130. *eztaroc*: euskara batuan *ez dik*.

3132. *alдарaciren*: izen sintagma eta aditz sintagmaren hitzak elkarrekin trukturik daude eta gurutzaturik.

- Den penaric laburrenaz hainberce aiz khillica  
 Non ihessitan baitoa sarriz berro potica,  
 Cer eguiñen duc faltetan lephoraño sarthua  
 Ardiasten çaiquenean fin gabe gastigua?  
 Nola, soffrituren dituc hain dolore biciac  
 Doloratcen aüenean hain arantce ttipiac?
- 3140 Harri adi pena hauquin aiphamena aditcen  
 Baldin hire baithan bada sentimendu aurkhitcen.
- Çuhur bahaiz Ifernuan sar adi hill gaberik  
 Hill ondoan ez sartceco atsecabez betheric.  
 Cheha etçac heure baithan seculaco nequeac  
 Bekhatuaz ez hautsteco Iaincoaren legueac.  
 Gau eta egun ifernua hari duc gaitz iruten  
 Alabañan segurean beçala aiz bicitcen.  
 Faltan ez erortceco duc moianic hoberena  
 Bihotcean fincatcea penen orhoitçapena
- 3150 Hautçaz beraz orhoit adi mundu enganosoan  
 Egun batez errepausu duquen gloriosoan.

## BVRV V.

### *Purgatorioaz.*

Huneraño hitz eguinic pena Ifernucoez  
 Mintçatcera heldu gare Purgatoriocoez

- 
3134. *non baitoa*: aurreko bertsoan *hainberce* dioelarik, konsektiva da dudarik gabe perpaus hori: ikus 2976.  
*sarriz berro*: hots, sasiz sasi; hobeki, sarritik berrora. Lehen oker eta gero okerrago esan nahi du.  
*potica*: hots, lau oinka.
3136. *gastigua*: hala dio, baina ikus ere *gastigua*: 2642.
3137. *hain dolore biciac*: eta ondoko bertsoan *hain arantce ttipiac*: ikus bestetan esana: 775.
3139. *pena hauquin*: genitivo da: ikus 2146.
3141. *bahaiz*: vokale artean gertatzen denean eta hiato desegitearren idazten



- Den penarik laburrenax hainberze aiz khilika,  
non ibesitan baitoa sarriz berro potika,  
zer eginen duk faltetan lephoraino sarthua  
ardiasten zaikenean fin gabe gaztigua?
- Nola sofrituren dituk hain dolore biziak  
doloratzen aüenean hain arantze ttipiak?
- 3140 Harri adi pena haukin aiphamena aditzen,  
baldin hire baithan bada sentimendu aurkhitzen.
- Zuhur bahaiz, ifernuan sar adi hil gaberik,  
hil ondoan ez sartzeko atsekabez betherik.
- Xeba etzak heure baithan sekulako nekeak,  
bekhatuaz ez hautsteko Iainkoaren legeak.
- Gau eta egun ifernua hari duk gaitz iruten,  
alabainan segurean bezala aiz bizitzen.
- Faltan ez erortzeko duk moianik hoberena  
bihotzean finkatzea penen orboitzapena.
- 3150 Hautzaz, beraz, orhoit adi mundu enganosoan,  
egun batez errepausu duken gloriosoan.

## BURU V.

### Purgatorioaz.

*Huneraino hitz eginik pena ifernukoez,  
mintzatzera heldu gare purgatoriokoez.*

- 
- dute *b-* antzineko idazleek bigarren pertsonen adizkietan; ikus 357;  
375. Bertso berean *sar adi* dugu.
- bill gaberik*: hots, hil baino lehen; ondoko bertsoan, aldiz, *bill ondoan*,  
elkarri kontrajarririk: ikus 1188.
3145. *hari*: *b-* duelarik, Etxeparek ez bezala: ikus 1894.  
*gaitz iruten*: Lhandek honela: «nuit et jour, l'enfer (file) produit nouveau  
mal»: ikus Hiztegia, *irun*, or. 541.
3147. *moianic*: edo biderik: ikus 106.
3149. *mundu enganosoan*: ikus, ostera, 3775.
3150. *duquen*: hik, noski; *izan dezaan*, alegia.

Iauna, othoi altcha çaqu ene bihotz eria  
Eta hambat ençuteaz dolore eroria

Arren çuc dieçadaçu othoi itçul miñgaña  
Zacariassi beçala hitz gabetu çaitana

Ecen erran nahi nuque Purgatceco nequea  
Asqui dudana indaçu arren beraz antcea

*Cer den Purgatorioa eta haren causez.*

3160 Purgatorioco pena iaquin eçac Christaüa  
Hemen barkhatu culporen dela pena garaüa

Hala deitzen duc faltaren cutsutic illkhi gabe  
Ecin errenda gaitzquen ceren Cerüen iabe

Ecen presuna ezpada cerbitçatu orenaz  
Falta eguiñaren pena barkhatcecoarenaz

Iongoicoac punitcen dic mundu hunen ondoan  
Khar min-bera eta penoz Purgatoriocoan

Ecen eztic nihoiz uzten bekhatu nauaruena  
Eman gabetarie guti edo asqui den pena.

*Nor sartcen den Purgatorioan.*

3170 Purgatorioan bada ezta sartcen berce  
Baicen bekhatuetarie munduan chahuturie

Hobenari goiti çaiion baldin pena ezbadu  
Indulgentiaz ezperen berce moldez quittatu

Purgatcean behar ditu soffritu miñ handiac  
Eta pairatu artean ezta illkhiren guztiac

---

3154. *eta hambat*: irakur honela: *eta hambat dolore ençuteaz* (bihotz) eroria.

3155. *dieçadaçu*: inperativoa da: ikus 2133; 1784...

*arren, othoi*: biak bertso berean; bertso erdi banaren hasieran.

3158. *asqui dudana*: hots, *asqui dudan antcea*: hori da sintagma.

3160. *pena garaua*: ikus 334; 1094. *Pena alea, apurra* esan nahi du, agian.

3161. *bala deitzen duc*: ondoko hitzak irakur honela: *ceren faltaren cutsutic illkhi gabe ecin errenda gaitzque ceruen iabe*. Ikus nora eraman duen *ceren*.

3163. *orenaz: barkhatceco orenaz* da berez sintagma.

*Iauna, othoi, altxa zazu ene bihotz eria  
eta, hanbat entzuteaz dolore, eroria;  
arren, zuk diezadazu, othoi, itzul mingaina  
Zakariasi bezala hitz gabetu zaidana,  
ezen erran nahi nuke purgatzeko nekea,  
aski dudana indazu, arren, beraz, antzea.*

Zer den purgatorioa eta haren kausez.

- 3160 *Purgatorioko pena iakin ezak, khristaüa,  
hemen barkhatu kulparen dela pena garaüa.  
Hala deitzen duk, faltaren kutsutik ikhhi gabe  
ezin errenda gaitzeken zeren zerüen iabe,  
ezen, presuna ez bada zerbitzatu orenaz,  
falta eginaren pena barkatzekoarenaz,  
Iongoikoak punitzen dik mundu hunen ondoan  
khar minbera eta penos purgatoriokoan,  
ezen ezetik nihoiz uzten bekkhatu nabarbena  
eman gabetarik guti edo aski den pena.*

Nor sartzen den purgatorioan.

- 3170 *Purgatorioan, bada, ezta sartzen berzerik  
baizen bekkhatuetarik munduan xahaturik,  
hobenari goiti zaion baldin pena ez hadu  
induljenziak ezperen berze moldez kitatu.  
Purgatzean behar ditu sofritu min handiak  
eta pairatu artean ezta ilkhiren guztiak.*

*falta eguiaren:* hots, egin (duen) faltaren pena barkatzeko orenaz.

3166. *khar min-bera:* irakur honela: *Purgatorioco khar minbera eta penosoan.*

3167. *nauaruena:* hots, nabarbena edo nabarmena.

3169. *berceric baicen... chabaturic:* «otro que el purificado»; ezagun du hiz-  
kuntz erromanikoen kutsua; hori horrela esan ohi du Etxeberrikerak  
ere, nahi duenean: *chabutuaz berceric:* ikus 2528.

3171. *goiti çaiõn:* hots, gelditu zaion.

*ezperen: ezpada* esango genuke hemen: disyuntiva da.

3174. *guztiac:* irakur honela: *eta guztiac pairatu artean...*

- Gorputçac hartu ohi du lurrean sepultura  
 Eta bakharric arima sartcen da erran lekhura
- Ecen Iaunac ordenatu du bere çuhurtciaz  
 Laguna gabe han pena dadin iñhar biciaz
- 3180 Arima cen behiala gorputçaren naussi  
 Pena principalac ere harc behar tu ikhussi
- Ba(r)dariac bat bederac eztu behar pensatu  
 Purgatorioan dela infidelic passatu
- Ecen fidelen ohi da chahutceco lekhua  
 Edo dela naturazco leguea aithortua
- Edo ezperetanican berce escribatua  
 Iesus Saluatçaillearen edo gratiatsua
- Purgatoria ezta iragaten berceric  
 Legue hautaric batean Iauna aithortu gaberice
- 3190 Bañan hetan fiñatuen punitceco gambara  
 Hura ohi da eta eztoa berce garauic hara.

*Cer estatu hartcen duen.*

Gorputcetic illkhiz guero arima icitua  
 Eguiazco hartcen duen hauche da statua

Heriozco faltan bada desditchaz hegaldatu  
 Seculaco oñhaceac behar ditu pairatu

Faltaric ere eztio Iongoicoac barkhatcen  
 Bañan berequien ditu guztiac garraiatcen

Ariñenez solamentqui badoa liçundua  
 Hura çαιο azkeneco menean barkhatua

---

3179. *arima cen*: ikus guztiz honen antzeko bertsoa: 2641.

3181. *bardariac*: ikus 601; han *badariac* dio.

3185. *ezperetanican*: ikus 459; bestetan agertu den *ezperen* bera da, baina luzatua: ikus 3171; 2691; 2591...

3187. *purgatoria*: adlativoa, beraz, nahiz lehenxeago (3182) inesivoaz baliatu den, bietan aditz bera (*passatu*, *iragaten*) dagoen arren.

*Gorputzak hartu obi du lurrean sepultura  
eta bakharrik arima sartzen da erran lekhura,  
ezen Iaunak ordenatu du bere zuhurtziaz  
laguna gabe han pena dadin inhar biziaz.*

3180 *Arima zen behiala gorputzaren nausi,  
pena prinzipalak ere hark behar tu ikhusi.*

*Bardariak bat bederak extu behar pensatu  
purgatorioan dela infidelik pasatu,*

*ezen fidelen obi da xahutzeko lekhua  
edo dela naturazko legea aithortua*

*edo ezperetanikan berze eskribatua  
Iesus salbatzailearen edo graziatsua.*

*Purgatoriora ezta iragaten berzerik  
lege hautarik batean Iauna aithortu gaberik,*

3190 *bainan hetan finatuen punitzeko ganbara  
hura obi da eta eztoa berze garaüik hara.*

Zer estatu hartzen duen.

*Gorputzetik ilkbiz gero arima izitua,  
egiazko hartzen duen hauxe da estatua.*

*Heriozko faltan bada desditzaz begaldata,  
sekulako oinhazeak behar ditu pairatu;*

*faltarik ere extio Iongoikoak barkhatzen,  
bainan berekien ditu guztiak garraiatzen.*

*Arinenez solamentki badoa lizundua,  
hura zaio azkeneko menean barkhatua,*

---

3190. *da eta eztoa*: bi sinalefa egin behar da hor.

*berce garauc*: ikus 3160; *beste inor*, *beste alerik*, alegia.

3192. *eguiazco*: irakur honela: *hauche da hartcen duen eguiazco statua*. Azken hitz hau *estatua* irakurri behar da, hamabost silaba izango baditu: ikus 2350.

3196. *berequien*: hots, berekin.

- 3200 Bañan ordean behar du gaztigua pairatu  
 Non ere purgatoria Iaunac baitu formatu  
 Dohain hau ordean badu guehiago faltetan  
 Non eror ecin baitaite ttipi ez handietan  
 Ceren confirmatcen baitu Iongoicoac gratiaz  
 Eror eztadin secular faltetan maleciaz  
 Ecen nola beherera arbola burdatua  
 Chardangoaz erortcetic baita sustengatua  
 Hala arima doana Purgatorioetara  
 Eror eztadin gogortcen du Iaunac faltetara
- 3210 Eta contra hissiatcen da faltan damnatua  
 Ceñac baitu maiz ahoan itsussi arnegua  
 Ecen Iaunac egozten du bere beguietarie  
 Obra onic hartaracotz eztaidique iagoitic  
 Bañan purgan dagoenac laudatcen du iabea  
 Eta haren escuetan utzten vorondatea  
 Bere hutsez ere badu bihotcean damua  
 Ceren gaixqui offensatu duen Iuge Iustua  
 Hartaracotz patientqui soffritcen tu nequeac  
 Nahiz lirela soffritcen dituenen dobleac
- 3220 Ecen Iaincoaren denaz gueroz vorondatea  
 Halaber da hequiena ez errebel iartcea  
 Bañan doloretan içan arren patientia  
 Laburtcenago etçaie erresumin handia

---

3200. *non ere*: hots, *Iaunac purgatoria formatu duen (leku)an*. Honen antzeko *cer ere bait-*, *noiz ere bait-* etab. guk komunzki erlativoaren bidez eman ohi ditugunak, mordoska atera dira: ikus 2788; 498; 1145.

*purgatoria*: *purgatorio-* eta *purgatori-*, biak darabiltza.

3201. *dohain hau*: irakur honela: *badu ordean bobain hau, non eror ecin baitaite guehiago falta ttipi ez handietan*.

*eci*: hala dago, baina *ecin* da, noski

3205. *burdatua*: hots, makurtua.

3208. *eror eztadin*: irakur honela: *faltetara eror eztadin gogortcen du Iaunac*.

3209. *eta contra*: hots, *eta aitzitik*. Hauxe esan nahi du poetak: damnatua aitz-

- 3200 *bainan, ordean, behar du gaztigua pairatu,  
non ere purgatoria Iaunak baitu formatu.*
- Dobain hau, ordean, badu; gehiago faltetan  
non eror ezin baitaite ttipi ez handietan,  
zeren konfirmatzen baitu Ingoikoak graziaz,  
eror eztadin sekulan faltetan maleziaz,  
ezen nola beherera arbola burdatua  
xardangoaz erortzetik baita sustengatua,  
hala arima doana purgatorioetara  
eror eztadin gogortzen du Iaunak faltetara;*
- 3210 *eta kontra hisiatzen da faltan damnatua,  
zeinak baitu maiz ahoan itsusi arnegua,  
ezen Iaunak egotzten du bere begietarik  
obra onik hartarakotz eztaidike iagoitik;*
- bainan purgan dagoenak laudatzen du iabea  
eta haren eskuetan utzten borondatea.*
- Bere hutsez ere badu bihotzean damua,  
zeren gaizki ofensatu duen iuje iustua;*
- hartarakotz pazientki sofritzen tu nekeak,  
nahiz lirela sofritzen dituenen dobleak,  
ezen Iainkoaren denaz geroz borondatea,  
3220 balaber da hekiena ez errebel iartzea;*
- bainan doloretan izan arren pazienza,  
laburtzenago etzaie erresumin handia,*

---

*tik, purgatoriora joan dena ez bezala, beti arnegua duelarik ahoan,  
lehengo faltan hisiatzen da.*

3210. *itsussi arnegua*: hots, arnegu itsusia.
3212. *eztaidique*: hots, ezin egin dezake. Etxeparek eta bestek hau *ez daidi* esan ohi zuten, *-que* gabe: ikus 724.
3215. *ere*: ikus 2091.
3218. *nahiz lirela*: ikus 3059.
3220. *hequiena*: hots, *haiena*: ikus 317.
3221. *içan arren*: zesura erdian dutelarik.
3222. *laburtzenago etçaie*: hots, ez zaie gehiago laburtzen.

Ecen presso daudecela bere libratcecoric  
Arima gachoec ecin daidiquete obraric  
Gaitçari holtz emateco eztire haranean  
Bañan çorren pagatceco biztu kissu labean.

*Arimaren Purgatoriotaratcea.*

- Hill denean Guiristiño presuna deithatua  
Ceñi guelditu baitçαιο hutsaren gatzigua
- 3230 Eta bi espirituen artean sententia  
Iongoicoac eman eta ceñen den ihicia  
Aingueruec daramate Purgatoriotara  
Deabruric ezta hersten officio hartara
- Hain guti du sarthuz guero punitcen Deabruac  
Ecen Iongoicoaz ditu atçaparrac lothuac  
Eztu nahi puni dadin hain desohoratuqui  
Ifernuco non burreuac solament deçan uqui  
Bañan aitac nola baitu gatzigatcen umea  
Ceñec behar baitu haren ontassunen iabea
- 3240 Berac escura harturic cehatceco chiñgana  
Cehatçaille deithu gabe burreüa beregana  
Halaber du Iongoicoac gatzigatcen arima  
Bekhatu mortaletaric chahu partitu dena  
Ecen batere eztu nahi Sathan coloratsuac  
Eman diotçan gañera escu atçapartsuac

- 
3224. *ecin daidiquete*: ikus lehenxeago esana: 3212.  
*obraric*: hots, *bere libratceco obraric*: hori da sintagma. *Bere guk berak*  
esango genukeenaren genitivoa da, Etxeberrik ez bait du *beren* inoiz  
esaten.
3225. *holtz emateco*: esanmolde hau ez dakar Lhandek.
3226. *biztu kissu labean*: ikus 2595.
3229. *sententia*: bertso honetan dioena lehen luzaki kontatu du: ikus 1443-1500.
3230. *Iongoicoac eman*: elipsia larria: *duenean*, aurreko bertsoaren (3227) ara-  
bera. Bi gauza ematen ditu Jainkoak, dirudienez: *sententzia*, batetik,  
*eta ceñen den ihicia*: hau, *añian*, *aditzera edo* ematen du.



*ezen preso daudezela bere libratzekorik  
arima gaxoek ezin daidikete obrarik.*

*Gaitzari holtz emateko eztire haranean,  
bainan zorren purgatzeko biztu k(h)isu labean,*

Arimaren purgatoriotaratzea.

*Hill denean giristino presuna deithatua,  
zeini gelditu baitzaio hutsaren gaztigua,*

3230 *eta bi esprituen artean sentenzia  
Iongoikoak eman eta zeinen den ihizia,*

*aingeruek daramate purgatoriotara,  
deabrurik ezta hersten offizio hartara;*

*hain guti du sarthuz gero punitzen deabruak  
ezen Iongoikoaz ditu atzaparrak lothuak.*

*Eztu nabi puni dadin hain desohoratuki,  
ifernuko non burreuak solament dezan uki,*

*bainan aitak nola baitu gaztigatzen umea,  
zeinek behar baitu haren ontasunen iabea,*

3240 *berak eskura harturik zehatzeko xingana  
zehatzaile deithu gabe burreüa beregana,*

*halaber du Iongoikoak gaztigatzen arima  
bekhatu mortaletarik xahu partitu dena,*

*ezen batere eztu nabi Sathan koleratsuak  
eman diotzan gainera esku atzapartsuak,*

---

3233. *hain guti*: ikus 2338.

3234. *Iongoikoaz*: pasivako ajentea: ikus 2702.

3236. *non deçan uqui*: aurreko bertsoan *hain* delarik, konsekutiva da dudarik  
gabe: ikus 3134.

*solament*: ukitzen ere ez dio uzten, alegia.

3238. *ceñec*: hots, umeak edo semeak: *haren*, ostera, aitaren; ez dio *bere*.

3239. *chiñgana*: hots, zigorra.

3240. *cehatçaille*: burreua deitu zehatzaile: aposizio edo predikadu da, beraz.

*burreua*: bi silaba baizik ez du; *burrewa* ahoskatu behar.

3243. *eztu nabi*: Jainkoak, alegia.

Bañan duenaz gueroztic behar igan Cerura  
 Beraz nahi dio eman aita gaztigu hura  
 Aingueruec daramate erran dugun beçala  
 Deabruric ezta hersten iassatceco surtara  
 Consolatcen dute bada harañoco bidean  
 3250 Bai eta maiz visitatcen han dagoen artean  
 Purgatorioco bada sartcen dute lecera  
 Lur erraietan dagoen presondegui belcera.

*Purgatorioco lekhuaz.*

Ifernuaren contra da chahutceco lekhua  
 Arimequin purgatceco Iaunac ordenatua  
 Illhun eta penosa da gaztigu faltarena  
 Han soffritcen dute hemen quittatu eztutena.  
 Damnatuen putçuaren hau da hauço hurbilla  
 Nontche doloratcen baita asco arimen pilla  
 3260 Bata barrenetic illkhi, sar bercea campotic  
 Hala dabilçça arimac mundua eguin gueroztic  
 Akhabatu tueneco batac iaquin epheac  
 Berceac tristequi hasten tu bere doloreac  
 Athea do hirriz eta doluz nahastatua  
 Illkhitcen denac hirria, sartcen denac damua  
 Ardiatsi arteraño hala gare Ceruac  
 Placer min gabeac ditu choillqui Parabisuac.

- 
3245. *bañan*: irakur honela: *banan igan behar duenaz gueroztic cerura*.  
 3246. *aita gaztigu*: hitz konposatu gisa hartu behar da.  
 3248. *deabruric*: honen lehen bertso erdia lehengoa (3232) bezalakoxea da.  
 3254. *arimequin*: genitivo da: ikus 2896.  
 3255. *illhun*: irakur honela: *illhun eta penosa da* (Ieku hura); *bemen quittatu eztuten faltaren gaztigua han soffritcen dute*.  
 3258. *nontche*: hots, *hauço hurbill borretan*; nabari da, beraz, *nonxe* hori erlativo gisakoa dela, inesivo kasuan.  
 3261. *iaquin epheac*: *ephe jakinak* irakurri eta hobeki ulertzen da, apika.

*bainan duenaz geroztik behar igan zerura,  
berak nabi dio eman aita gaztigu hura.*

*Aingeruek daramate, erran dugun bezala,  
deabrurik ezta hersten iasatzeko surtara.*

3250 *Konsolatzen dute, bada, harainoko bidean,  
bai eta maiz bisitatzen han dagoen artean.*

*Purgatorioko, bada, sartzen dute lezera,  
lur erraietan dagoen presondegi belzera.*

Purgatorioko lekhuaz.

*Ifernuaren kontra da xabutzeko lekhua,  
arimekin purgatzeko Iaunak ordenatua.*

*Ilhun eta penosa da gaztigu faltarena,  
han sofritzen dute hemen kitatu extutena.*

*Damnatuen putzuaren hau da hauzo hurbila,  
nontxe doloratzen baita asko arimen pila.*

3260 *Bata barrenetik ilkhi, sar berzea kanpotik,  
hala dabiltza arimak mundua egin geroztik.*

*Akhabatu tueneko batak iakin epheak,  
berzeak tristeki hasten tu bere doloreak.*

*Athea do hirriz eta doluz nahastatua,  
ilkhitzen denak hirria, sartzen denak damua.*

*Ardiatsi arteraino hala gare zeruak,  
plazer min gabeak ditu xoilki parabisuak.*

---

3263. *do*: ez dut uste oraino aurkitu dugunik, vokale arteko konsonanterik mutuerazitzera bortxatzen gintuen bertsorik; *naussi* idazten du Etxeberrikeri beti, egia, baina hiru silabatakoa da hitz hori, *nagusi* idatzi balu bezalaxe; hemen, aldiz, *dago* behar lukeena silaba batez ahoskatu behar dugula asmatzen lanik har ez dezagun, berak ematen digu *do* idatzirik.

3264. *hirria*, *damua*: adizkiririk gabe esana dago; *egiten du* edo antzekorik utzi du esan gabe.

3265. *ardiatsi*: irakur honela: *ceruac ardiatsi arteraño hala gare*.

*Punitceco ephea.*

- Cembaterañocoa den punitceco ephea  
Iuiatcean declaratcen du Iaincoac chedea
- 3270 Bercec ecin iaquin diro gauça hain ehortcia  
Cer mereci duen faltac berac daqui berria
- Ecen ceñ den handi edo ttipitto malecia  
Hauc guztien solamenqui berac daqui neurria
- Entçunic bada arima(c) doloreen egunac  
Iguriquitcen tu penaz illkhitceco orenac
- Ordean consolatcen da egunetic bercera  
Aphurca hurbilltccen dela bere epheen fiñera
- Seguratua da guero pena hequin buruan  
Beguetsiren duela Iauna bere Thronuan.

*Nolaco doloreac diren.*

- 3280 Purgatorian direnec handi tuzte nequeac  
Eta pena çor tuztenen berdiñac açoteac
- Allabañan eztituzte dolore hain aspreac  
Nola ifernu belcera condemnatu dongueac
- Ecen Iaunac eztu nahi doloratu hangoa  
Hambat nola hondalera desterratu gaixtoa
- Bañan nola Erregueac utzten baitu semea  
Ceren huts eguin düen gazteluan gordea
- Cembait pena dir(ad)ela iustuqui ordenatcen  
Guero bere aitciñera duela erakhartcen
- 3290 Halaber Iainco puchantac traçatcen du arima  
Bekhatu larriric gabe mundutic illkhi dena

---

3273. *arima*: hutsa dirudi; *arimac* behar du.

3275. *egunetic bercera*: hots, egun batetik bestera.

3277. *pena hequin buruan*: hots, pena haien buruan: ikus 3060.

3280. *eta pena*: irakur honela: *eta çor tuzten penen açoteac berdinac*.

3281. *hain aspreac nola*: hots, *bezain* aspreak.

3283. *hangoa*: hots, purgatoriokoa.

3284. *hambat nola*: hots, *bezanbat*.

Punitzeko ephea.

*Zenbaterainokoa den punitzeko ephea,  
iuiatzean deklaritzen du Iainkoak xedea.*

3270 *Berzek ezin iakin diro gauza hain ehortzia,  
zer merezi duen faltak, berak daki berria,  
ezen zein den handi edo ttipitto malezia,  
hauk guztien solamenki berak daki neurria.*

*Entzunik, bada, arima(k) doloreen egunak,  
igurikitzen tu penaz ilkhitzeko orenak,  
ordean konsolatzen da egunetik berzera  
apburkha hurbiltzen dela bere epheen finera.*

*Seguratua da gero pena hekin buruan  
begietsiren duela Iauna bere thronuan.*

Nolako doloreak diren.

3280 *Purgatorian direnek handi tuzte nekeak  
eta pena zor tuztenen berdinak azoteak,  
alabainan ezituzte dolore hain aspreak,  
nola ifernu belzera kondemnatu dongeak;  
ezen Iaunak eztu nahi doloratu hangoa  
hanbat, nola hondalera desterratu gaixtoa;  
bainan nola erregeak utzten baitu semea,  
zeren huts(a) egin düen, gazteluan gordea,  
zenbait pena diradela iustuki ordenatzen,  
gero bere aitzinera duela erakhartzen,  
halaber Iainko puxantak tratatzen du arima  
3290 bekhatu larririk gabe mundutik ilkbi dena;*

---

3286. *ceren huts equin duen*: kausala da, dudarik gabe; silaba bat falta du, ordea: *hutsa* irakurri behar ote? Lau bertso hauek segidan hiruzpalau hutsarte dituzte.

3287. *cembait pena direla*: silaba bat falta du bertso erdi honek ere; *direla* ordez *diradela* edo *dituela* behar du.

3289. *traçatcen*: hala dio, baina *trataten* edo behar du.

Purgatorian daduca dembora aphur batez  
Berac ordenatu pena paga deçaquen artez  
Hura akhabatu eta bere beguitartera  
Erakhartcen du gloria handiaz goçatcera.

*Ceren diren doloreac handi.*

- Ordean eztu presunac behar ezantsiatu  
Eta purgatceco pena deuz guti estimatu  
Berdin Ceruraco dela noizbait ere fiñean  
Eta hala gutiago emplega obra onean  
Ecen hara doana da punitcen hain garratzqui  
3300 Non punitu berac ecin baiterraque iustuqui  
Hango penec chitcen tuzte mundu hunetacoac  
Asma leitecela ere are handiagoac  
Hambat etçuen soffritu San Laurendic grisellan  
Ezta Martyri çaharrec bitztu kissu labetan  
Cembat arimac ikhusten baitu hutsen goitiaz  
Ceren quittatu eztuen hemen eguin unguiaz  
Bici deño bortcha bedi halacotz bat bedera  
Confessioan manatu penaren complitcera  
Eliçaren cerbi bedi saindu Indulgentiaz  
3310 Eta abussa ezteçala saluatceco astiaz

---

3292. *artez*: oraino beti *artean* esan digu; hau berria da.

3295. *ezantsiatu*: hots, zabartu, axolakabetu: ikus 2039gn. bertsoaren aurreko titulua.

3296. *deuz*: *deus* da, jakina, baina baditeke inprenta hutsa ez izatea: ikus *promez*, 762.

3297. *berdin*: bertso hau honela irakurri behar da, ene ustez: *berdin noizbait ere fiñean ceruraco dela eta, hala gutiago...* Hots, *eta* hori ez da koordinatzaile soila; halere zentzuz dagokion perpausetik eta bertsoetik atere dago.

3300. *non ecin baiterraque*: aurreko bertsoan *hain* duelarik, konsektiva da: ikus 3236.

*punitu berac*: ikus 3684; hots, punituak berac esango guke gaur. Etxeparek ere badu horrelaco bat (II,113); garai hartan ez zituzten, agian, *lapur bera* eta *lapurra bera* nahitaez berezten.

*purgatorian daduka denbora aphur batez,  
berak ordenatu pena paga dezaken artez;  
hura akhabatu eta bere begitartera  
erakhartzen du, gloria handiaz gozatzera.*

Zeren diren doloreak handi.

*Ordean eztu presunak behar ezantsiatu  
eta purgatzeko pena deus guti estimatu,  
berdin zerurako dela noizbait ere finean  
eta hala gutiago enplega obra onean;*

3300 *ezen hara doana da punitzen hain garratzki,  
non punitu berak ezin baiterrake iustuki.*

*Hango penek xitzen tuzte mundu hunetakoak,  
asma leitezela ere are handiagoak.*

*Hanbat etzuen sofritu San Laurendik griseilan  
ezta martiri zaharrek bitztu k(h)isu labetan,  
zenbat arimak ikhusten baitu hutsen goitiaz,  
zeren kitatu eztuen hemen eguin ungiatz.*

3310 *Bizi deino bortxa bedi halakotz batbedera,  
konfesioan manatu penaren konplitzera;  
elizaren zerbi bedi saindu induljenziaz  
eta abusa eztezala salbatzeko astiaz;*

---

3301. *chitcen*: ikus 56.

3302. *asma leitecela ere*: konzesiva da guztiz garbi: ikus, *asma* eta beste aditz errorik gabe lehen agertu direnak: 3218; 1238; 1406. Eta sendogarri gisa: 3059; 3218.

3304. *bitztu kissu labetan*: ikus 3226. *Kissu* bitara ageri da: *kh-* duelarik eta *-b-* gabe ere bai.

3305. *hutsen goitiaz*: Lhandek honela: «l'âme souffre au purgatoire à cause de ce qu'il lui reste de péchés (à expier)»: ikus Hiztegia, *goiti*, or. 371. *Goiti-* hemen izena da.

3306. *eztuen*: bitarikoia da: *ez duen*, *goiti*-ari baldin badagokio; *ez (di)tuen*, *butsei* baldin badagokie.

3308. *manatu penaren*: hots, manatu zaion penaren: ikus 3163.

3309. *saindu induljenziaz*: hots, *indulgentia* sainduaz.

Ungui eguin hutsez paga betça hain çor pisuac  
Purgan iduqui ezteçan Iaincoaren escuac.

*Certçaz doloratcen diren.*

- Pena handiena dute Iauna offensatuaz  
Haren begui-tarte claraz guero ez goçatuaz  
Hurrenean gloriaren galdu tuzten graduez  
Berretcera ez bortchatuz ungui eguite sainduetz  
Guehiago tormentatcen du hango su goriac  
Baita are desbistatcen khar ecin iraunguiac  
3320 Presondegui lurpecoan hertsiric egoteac  
Berretcen darozte hauquin gañera doloreac  
Hunela dire penatcen purgatorioacoac  
Ceñen ecin baitaitezque declara ondicoac  
Beguien dute nigarra bihotcean damua  
Tristetia ere dagote erraietan laundua  
Guztiz ere ikhussiric bere falta dutela  
Eta lachoqui Iaincoa cerbitçatu dutela  
Bekhatu eguinaz dute dolore guehiago  
Punimendu arraçoinqui eman çaienaz baño  
3330 Damnatuec contra dute guehien dolorea  
Ceren Iaunaren sentitcen duten bessu colpea.

*Illkhi artean doloreac osso tuzte.*

Arimac dire hain pena garratcetán khechatcen  
Cerengatic illkhitcera baitute desiratcen  
Iongoicoac ordinatu probetchos medi(o)ez  
Sacrificio saindu eta berce gañeracoez

- 
3311. *ungui eguin hutsez*: *huts*- hemen adjetivoa da; *hots*, ungiak bakarrik eginez edo ongi hutsez.  
3316. *berretcera ez bortchatuz*: *hots*, gehitzera ez saiatuz.  
3317. *guehiago*: ikus 2663.  
3320. *hauquin gañera*: hauen gainera: *genitivo* da, beraz; ikus 3139.  
3322. *ceñen*: *hots*, ceñen ondicoac.



*ungi egin butsez paga betza hain zor pisuak,  
purgan iduki eztezan Iainkoaren eskuak.*

Zertzaz doloratzen diren.

*Pena handiena dute Iauna ofensatuaz,  
haren begitarte klaraz gero ez gozatuaz;  
hurrenean gloriaren galdu tuzten graduez,  
berretzera ez bortxatuz ungi egite sainduez;  
gehiago tormentatzen du hango su goriak,  
baita are desbistatzen khar ezin iraungiak.*

3320 *Presondegi lurpekoan hertsirik egoteak  
berretzen darozte haukin gainera doloreak.*

*Hunela dire penatzen purgatoriokoak,  
zeinen ezin baitaitezke deklarara ondikoak.*

*Begian dute nigarra, bihotzean damua,  
tristezia ere dagote erraietan laundua;*

*guztiz ere ikhusirik bere falta dutela  
eta laxoki Iainkoa zerbitzatu dutela,*

*bekhatu eginaz dute dolore gehiago,  
punimendu arrazoinki eman zaienaz baino.*

3330 *Damnatuek kontra dute gehien dolorea,  
zeren Iaunaren sentitzen duten beso kolpea.*

Ilkhi artean doloreak oso tuzte.

*Arimak dire hain pena garratzetan khexatzen,  
zerengatik ilkebitzera baitute desiratzen*

*Iongoikoak ordinatu probetxos medi(o)ez  
sakrifizio saindu eta berze gainerakoez,*

---

3324. *dagote*: guk *dagokie* esan ohi duguna: ikus 2688.

3326. *dutela*: elkarren segidako bi bertso hitz hori dute puntu.

3328. *baño*: irakur honela: *arraçoinqui eman çaien punimenduz baño*; ohar, hau ere hamabosteko bertso biribila dela.

3329. *guebien dolorea*: hots, dolore(rik) gehiena: ikus 1911.

3333. *probetchos mediez*: silaba bat falta du; *medioez* behar du.

Nola baitirade othoitz eta Erromeriac  
 Eta berce gañeraco Guiristiñoen unguiac  
 Penetariac dute bada desiratcen librantça  
 Eta primu utcietan dute bere esparantça  
 Baldin hetçaz orhoitçapen ez badute eguiten  
 3340 Doloreac lachotassun harc darozte berretcen

*Purgatoriocoen errencura.*

Hargatic altchatcen tuzte errencurac cerura  
 Ceren hain lachoqui utci duten hequin ardura  
 Edolere berec utci escuetan diruac  
 Emplegatcen eztituzten atheratcen froguac  
 O Ahaide adisquide noizbat hurbillecoac  
 Bañan orain (diostee) atce urrunecoac  
 Ezbaitçarete urcoez guehiago orhoitcen  
 Eta ahaicoa gatic laguntcera khechatcen  
 Ather daquizquigun çuen obren causaz nigarrac  
 3350 Eta iabal martyrio emanac su inharrac.  
 Gau eta egun tormentatcen gaitu lambo aspreac  
 Eta ecin conda daiten ematen doloreac  
 Lagun gaitçatçue lagun gueuroc moian utciez  
 Ez baduçue gogoric ceuec irabaciez  
 Hau da arima gachoen errencura tristea  
 Galdetcen dutela bethi urcoen faorea.

3338. *primu utcietan*: hots, utzi dituzten primuetan.

3340. *lachotassun harc*: zesura erdian dute.

3342. *hequin ardura*: primuen ardura, alegia.

3334. *edolere*: hots, *edola ere*: «au moins, du moins», dio Lhandek. Irakur honela: *edolere berec escuetan utci diruac*; utzitako diruak, alegia.

3345. *noizbat*: baina *noizbait*, ikus 3297; 2360.

3346. *diostee*: haiek haiei, noski; ikus, aldiz, 3031.

*atce*: hots, arrotz, atzerriko.

3348. *ahaicoa gatic*: hots, ahaidegoagatik; izena dirudi hemen.

*khechatcen*: bertso honen eta aurrekoaren akaberan galde zeinuak dauzka

*nola baitirade othoitz eta erromeriak  
eta berze gainerako giristinoen ungiak.*

*Penetarik dute, bada, desiratzen librantza  
eta primu utzietan dute bere esparantza.*

3340 *Baldin hetzaz orhoitzapen ez badute egiten,  
doloreak laxotasun bark darozte berretzen.*

Purgatoriokoen errenkura.

*Hargatik altxatcen tuzte errenkurak zerura,  
zeren hain laxoki utzi duten bekin ardura,*

*edolere berek utzi eskuetan diruak  
enplegatzen eztituzten atheratzen froguak:*

*«O abaide, adiskide noizbat hurbilekoak,  
bainan orain» diostee, «atze urrunekoak!*

*ezbaitzarete urkoez gebiago orhoitzen  
eta abaikoa gatik laguntzera khexatzen,*

3350 *ather dakizkigun zuen obren kausaz nigarrak  
eta iabal martirio emanak su inharrak.*

*Gau eta egun tormentatzen gaitu lanbo aspreak  
eta ezin konda daiten ematen doloreak.*

*Lagun gaitzatzue, lagun, geurok moian utziez,  
ez baduzue gogorik zeuek irabaziez».*

*Hau da arima gaxoen errenkura tristea,  
galdetzen dutela bethi urkoez faborea.*

---

liburuak eta alferrik dirudite; bi bertsook perpaus kausala bait dute bere baitan; ikus, ordea, 3360.

3349. *ather daquizquigun*: hau, ostera, finala da: «a fin de que...».  
*çuen obren causaz*: lehen hitzaren ondoren zesura.

3350. *eta iabal*: hots, iabal dakizkigun su inarrak, martirio gisa emanak. *Iabald*  
*zera da, baretu, ibitu.*

3352. *daiten*: hauxe da, hain zuzen, bestetan adizki laguntzaile gabe esan ohi  
duena: hots, *ecin conta doloreac*: ikus 3030; 138.

3353. *lagun gaitzatzue lagun*: ikus horren antzekoa: 1987.

*gueuroc moian utciez*: edo geurok utzi (tako) moianez: ikus 3043.

3354. *ceuec irabaziez*: hots, zeuek irabazi(tako) moianez laguntzeko gogorik.

*Berce errencura.*

- Baldin ez bada odolic fauorera atçartcen  
Berriz hunela dituzte errencurac doblatcen  
O esquer gabeco ume! o Ahaide atceac!  
3360 Ezbaitçaiquitçue gure urricaltcen nequeac  
Çuengatic guintecela hambatetan icerdi  
Eta ascotan ez ohera herstu gabe gau erdi.  
Çuei ontassun utzteco ahal eguin guztiaz  
Bata bercearen hala nekha guinten lehiaz  
Eta orain gure penez eztuçuen antsia  
Daquiçuelaric arren cembat dugun premia.  
Damugaitcic çuengatic hala guintecen pena  
Gure ez urricaltceco guehiago auhena  
3370 Sobera gogoan sarthuz çuen ungui utztea  
Egun tormenta hauquien dugu segur partea.

*Aingueruei errencurac eta otthoitçac.*

Munducoen fauoreez dutenean etsitcen  
Aingueru beguirallera beguia dute itçultcen

- 
3357. *odolic*: hitzez hitz aditzen erraza da, baina zer esan nahi du? «Si ningún consanguíneo suyo se alerta para favorecerles»? ala *odola* beste gabe?  
3360. *ezbaitçaiquitçue*: berriz ere (ikus 3348) galde zeinua ageri da; hiru bertsootan hutsa dela dirudi.  
3361. *guintecela icerdi*: pasarte iluna, ene ustez; subjuntivo da, dudarik gabe: ikus 3364; 3368; 3413; 3415; 3419. Bost bertso hauek lagun diezagukete honako hau aditzen; baina beste bostetan ez bezala, hemen *-ela* atzizkia dugu; badakigu, halere, Etxeberrik nahasi darabiltzala bi atzizkiok: ikus 2143-4; 1235; 1836. Bost horietan gaztelaniaz «¿Que me lo haya dicho ese señor? ¿Será posible?» esan ohi denaren antzeko balioa du. Bertso hau, horrenbestez, honela itzuli behar da, ene ustez: «¿Que hayamos sudado tantas veces por vosotros y acostado a menudo pasada la media noche?».  
3362. *ez ohera*: hots, *guintecela* berriz ere.  
*herstu gabe gau erdi*: *gabe*-k denbora adierazten du maiz antzineko idazleengan: ikus 3141; gau erdia *heldu baino leben* esan nahi du, beraz, poetak.  
3363. *ontassun*: ohar zein erraz erabiltzen duen mugagabea; aurreko bertsoan *gau erdi* esan du: ikus 3113.

Berze errenkura.

- Baldin ez bada odolik faborera atzartzen,  
berriz hunela dituzte errenkurak doblatzen:*
3360. «O esker gabeko ume! o abaide atzeak!  
*ezbaitzaizkitzue gure urrikaltzen nekeak.*
- Zuen gatik gintezela hanbatetan izerdi  
eta askotan ez ohera herstu gabe gau erdi?*
- Zuei ontasun utzteko abal egin guztiaz,  
bata berzearen hala nekha ginten lebiaz  
eta orain gure penez extuzuen antsia,  
dakizuelarik arren zenbat dugun premia?*
- Damu gaitzik zuengatik hala gintezen pena,  
gure ez urrikaltzeko gebiago aubena?*
3370. *Sobera gogoan sarthuz zuen ungi utztea,  
egun tormenta haukien dugu segur partea».*

Aingeruei errenkurak eta othoitzak.

*Mundukoen faboreez dutenean etsitzen,  
aingeru begirailera begia dute itzultzen:*

- 
3364. *lebiaz: bata berzearen lebiaz, noski.*  
*nekha gintzen:* ikus 3361; han eta beheraxeago (3367) *guintecen*, hemen *gintzen*; orainaldian *gaitecen* (502) eta *gaiten* (523) darabiltzan bezalaxe. Lehen esanaren arabera, lau bertsook honela itzuli behar dira, ene ustez: «¿Que por legaros una fortuna nos hayamos esforzado en grado sumo emulándonos mutuamente y que ahora no os importen nuestros sufrimientos, aun sabiendo en qué aprieto nos encontramos?».
3365. *eztuçuen:* ez da finala, beraz, *eta* bait du perpausaren hasieran, baizik lehen esana: ikus 3361. Formaz indikativo den arren, subjuntivo balioa du; ez dio *dezazuen*, jakina, ezin esan ere, *antsia* izena delarik, ez partizipio edo aditz erro: ikus 309; 319.
3366. *daquiçuelaric arren:* hots, dakizuen arren.
3367. *damugaitcic:* ikus Etxepare, III,14: *Damugaycic emazteac hari eman ditbia.*  
*guintecen pena:* ikus 3364, 3361: «¿Que nos hayamos afanado de esa manera por vosotros en mala hora, para luego no sentir compasión de nuestros gemidos?».
3369. *çuen ungi utztea:* guk *zuek* esango genukeena.
3370. *partea:* hots, *tormenta hauquien partea.*

O Aingueru iaioz guero ene beguiratçaillea  
Premietan çu içatu çaitut neure habea

Orain ere çure baithan dut ene esportçu guztia  
Hunen dolore handitan çu çaquizquit balia

Egoquiei emoteçu othoi bihotcetara  
Arren khecha daiten guri fauore eguitera

3380 Deuotionez deçaten othoi mugui hartara  
Eta limosnac partituz atheco probetara

Ezbaicaituzte eguiñen berac ecen billduetz  
Arren fauora gaitçaten gure ganic hartuez

O Aingueru agudoa arren diligentia  
Othoi urricall bequçu ene pena handia.

*Aingueruen consolatione eta diligentia.*

Aingueruei haguitz çaitze arimac urricaltcen  
Hargatic consolatcera ohî çaitze ethortcen

Bortchatcen dire ahalaz khentcera tristetia  
Ikhasiac diren leguez eguiñic hitz eztia

3390 Hau da ematen daroen consolationea  
Damurequin ikhustean doloretan berea

O Arima lastimoso larrañetic illkhia  
Eta formatuz gueroztic niri carguz utcia

Hala eman duen gueroz Iaincoac sententia  
Hill ondoan pairaçaçun horren pena handia

---

3373. *beguiratçaillea*: bi azken silabak bat dira: *-tzailya*. Edota zesuran *-o e-* batera.

3375. *orain ere*: *ere* silaba bakarrez ahoskatzen ez bada — eta ez dirudi hala behar duenik, ez bait da Etxeberrigan inoiz horrelakorik gertatzen, nahiz Etxeparegan bai maiz — eta hainbestez zesura *çure baithan*-en ondoan baldin bada, ez, alegia, *dut*-en atzean, orduan azken hitza *guztja* ebaki behar da. Ala *çu baithan* ez ote da?

3376. *çu çaquizquit balia*: ikus 3113.

3377. *emoteçu*: *eman* aditzaren forma trinkoa: *eman iezaiezu*, alegia. Horren konpletiva da *khecha daiten*, baita *deçaten mugui* ere.

3379. *hartara*: hots, *zerbaitetara othoi(a) muguitu*.

«O aingeru, iaioz gero ene begiratzaila,  
premietan zu izatu zaitut neure habea;  
orain ere zu(re) baithan dut ene esportzu guztia,  
hunen dolore handitan zu zakizkit balia.

- Egokiei emotezu, othoi, bihotzetara  
arren, khexa daiten guri fabore egitera,  
debozinez dezaten othoi mugi hartara  
3380 eta limosnak partituz atheko probetara;  
ezbaikituzte eginen berak ezen bilduez,  
arren, fabora gaitzaten gure ganik hartuez.  
O aingeru agudoa, arren, dilijenzia,  
othoi, urrikal bekizu ene pena handia».

Aingeruen konsolazione eta dilijenzia.

Aingeruei hagitz zaizte arimak urrikaltzen,  
hargatik konsolatzera obi zaizte ethortzen.

Bortxatzen dire abalaz khentzera tristezia,  
ikhasiak diren legez, eginik hitz eztea.

- Hau da ematen daroen konsolazionea,  
3390 damurekin ikhustean doloretan berea:

«O arima lastimoso larrainetik ilkhia  
eta formatuz geroztik niri karguz utzia!

Hala eman duen geroz Iainkoak sententzia,  
bil ondoan pairazazun horren pena handia,

- 
3381. *ezbaicituzte eguinen*: ikus 2854; han bezala, *fauora* (3382) berresan gabe, aditz horren ordezt egin darabil; baina *laboratu*-k bezala, *nor-nork* duelarik laguntzailea.  
*berac ecen bilduez*: irakur honela: *ecen ezbaicituzte eguinen berac bilduez*. *Berac* plurala eta ergatiboa denez gero, *berac* behar duela dirudi.
3384. *urricalk bequicu*: *nor-nori* laguntzailea darama beti *urricalk*-k. Hainbestez lehengo (3368) hartan gure auhena zuei *urricalk* da, ez *zuek*; ikus andoko bertsoan ere: 3385.
3390. *bera*: hots, *bera* *consolazionea*, dirudienez; ala bere karguzko arima?
3393. *duen gueroz*: honen ondoan *duenaz gueroz* ere atara da: ikus 3245; 3219.
3394. *pairaçun*: hots, *paira dezazun*: ikus 1839.

Arren bada soffritçatçu othoi patientiaz  
Hala libratceco duçun gueroz çorren goitiaz  
Ephe gutitacoa da gloriaren aldean  
Ceñac iraun behar baitu seculaco mendean  
3400 Iaunac behatcen darotçu Aita onaren beguiaz  
Ecen goçaraci nahi çaitu bere gloriaz  
Carcelatic illkhitceco behar duçu fidantça  
Bañan guehiago duda gabeco esparantça  
Sarri libraturen çare oraingo nequetaric  
Ni ere banoa çure urcotara bertaric  
Arren athera deçaten balios suffragiac  
Eta hala fiñeraci çure pena handiac  
Othoizturen ere ditut hequin beguirailleac  
Arren atçar dietceten bihotz antsicabeac.

*Aingueruen inspirationea egoquiei.*

3410 Aingueruac hegaldaca guero dire erdutcen  
Eta hillaren urcoac dituzte inspiratcen  
Bakhotcharen bihotçari erraten daroena  
Hau da solas sentimendu onaz bethea dena  
Hain laburqui ceuen ahantz çatçuen burhassoac  
Ceñen baitadutçatçue escuetan goçoac  
Hain arinqui gogotic utz deçaçuen omena  
Guehiago urricaldü gabe hequien pena

- 
3395. *soffritçatçu*: pluraleko objetoa zor zaio, dudarik gabe; zein da, ordea?  
Ez ote da hutsa *soffriçaçu* behar, *pena handia* alegia?
3396. *bala libratceco duçun gueroz*: ikus 201; 382; hots, hala libratu behar du-  
zunez gero.  
*çorren goitiaz*: ikus *hutsen goitiaz*: 3305.
3398. *behatcen*: iragankor, bestetan bezala: ikus 2098.
3402. *duda gabeco esparantça*: *duda* ondoan gertatzen da zesura.
3405. *deçaten*: objetoa pluraleko denean, *detçaten* esan ohi du: ikus 3433.  
*balios suffragiac*: hots, *suffragia baliosac*.
3407. *ere*: ikus 2091.  
*otthoizturen*: hala dio beti, ez *otthoitu*: ikus 92; 124.
3408. *atçar dietceten*: hots, esna *diezazkieten*: ikus 739.



*arren, bada, sofritzatzu, othoi, pazienziaz,  
hala libratzeko duzun geroz zorren goitiaz.*

*Ephe gutitakoa da gloriaren aldean,  
zeinak iraun behar baitu sekulako mendean.*

3400 *Iaunak behatzen darotzu Aita onaren begiaz  
ezen gozarazi nahi zaitu bere gloriaz.*

*Karzelatik ilkbitzeko behar duzu fidantza,  
bainan gehiago duda gabeko esparantza.*

*Sarri libratuere zare oraingo neketarik,  
ni ere banoa zure urkotara bertarik,*

*arren, athera detzaten balios sufrajiak  
eta hala finerazi zure pena handiak.*

*Othoizturen ere ditut bekin begiraileak,  
arren, atzar dietzeten bihotz antsikabeak».*

Aingeruen inspirazionea egokiei.

3410 *Aingeruak hegaldaka gero dire erdutzen  
eta hilaren urkoak dituzte inspiratzen.*

*Bakhotxaren bihotzari erraten daroena,  
hau da solas sentimendu onaz bethea dena:*

*«Hain laburki zeuen abantz zatzuen burhasoak,  
zeinen baitadutzatzue eskuetan gozoak?*

*Hain arinki gogotik utz dezazuen omena  
gehiago urrikaldu gabe hekien pena?*

---

3409. *erducen*: ikus 1303.

3412. *hau da*: irakur honela: *sentimendu onaz bethea den solas hau da*.  
*sentimendu onaz*: bien erdian zesura.

3413. *abantz çatçuen*: ikus 3361; 3364; 3365; baita *utz deçaçuen* (3415) eta  
*abantz çaçuen* (3419) ere. Hiruren adizkiak subjuntivoak dira, beraz;  
*çatçuen*, hortaz, *detçatçuen* da, *guk ditzazuen* dioguna. *Abantzi* bitara  
darabil poetak, izan ere: iragankor eta iragangaitz: ikus 1397. Itzul-  
pena honelatsu litzateke: «¿Que hayáis olvidado tan pronto a vuestros  
padres? ¿Es posible?». Horrenbestez *eztuçuen* (3365) ere balioz sub-  
juntivoa da.

3415. *utz deçaçuen omena*: *omena* «nom, souvenir» da, Lhandek dioenez: ikus  
ere 999.

O Itsassoco arroca gogorraren pareac  
 Eta Aita amen aldera Caritate gabeac  
 Hain laster ahantz çaçuen ceïen eguin bidea  
 3420 Bici guztian sainduqui gorde behar leguea  
 Non tutçue Meça Saindu, barur, eta limosnac  
 Erromeriac ere non utciric guri gosnac  
 Eguiçue çüec ere nahico duçuen  
 Laburraraci çaçue obra onez hequin pena  
 Çuen faltaz guehiago eztaudecen kharretan  
 Baña cerurat iganic othoitz deuotenetan

*Egoquien Aingueru beguirailleei.*

Guero hitça itçultcen du bere lagunetara  
 Erran ditugun Aingueru beguirailletara  
 Çuec ere ene lagun trauaillu berecoac  
 3430 Arren atçar detçatçue çuen carguatacoac  
 Oratione daguiten burasso ohientçat  
 Penatic errepausura sarri alda daitentçat  
 Eguin detçaten deuotqui Saindu erromeriac  
 Eta Iaunari presenta hautu sacrificiac  
 Barur egunac detçaten halaberqui athera  
 Iaun puchanta baquetceco penatuen aldera  
 Asserrea ematuric dohatsuen cortea  
 Sarri eracuts diecen atseguñez bethea

---

3419. *ahantz çaçuen*: ikus 3413: «¿Que hayáis olvidado tan pronto vuestro deber, una ley que debe observarse durante toda la vida? ¿Será posible?». Zaila da bestela *-en* duten subjuntivo horiek esplikatzea: ikus 3365, hauen antzekoa, ez finala.

3422. *gosnac*: ikus 3062.

3423. *nahico duçuen*: hots, egunen batetan horixe bera nahiko dute orain bizirik daudenek.

*O itsasoko arroka gogorraren pareak  
eta aita amen aldera karitate gabeak!*

3420 *Hain laster ahantz zazuen zeüen eginbidea,  
bizi guztian sailduki gorde behar legea?*

*Non tutzue meza saildu, barur eta limosnak,  
erromeriak ere non, utzirik guri gosnak?*

*Egizue zuek ere nabiko duzuen;  
laburrarazi zazue obra onex hekin pena,  
zuen faltaz gehiago eztaudezen kharretan,  
baina zerurat iganik otboitz debotenetan».*

Egokien aingeru begiraileei.

*Gero bitza itzultzen du bere lagunetara,  
erran ditugun aingeru begiraileetara:*

3430 *«Zuek ere, ene lagun trabailu berekoak,  
arren, atzar detzatzue zuen kargutakoak;  
orazione dagiten buraso obientzat,  
penatik errepausura sarri alda daitentzat;  
egin detzaten debotki saildu erromeriak  
eta Iaunari presenta hautu sakrifiziak;  
barur egunak detzaten halaberki athera,  
Iaun puxanta baketzeko penatuen aldera,  
aserrea ematurik, dohatsuen kortea  
sarri erakuts diezen atseginez bethea».*

---

3430. *atçar detçatçue*: imperativoa da: ikus 3155; 2133...  
*çuen*: lehen (3413, 3419) *ceuen* esan du.

3431. *obientçat*: hots, hilentzat, guraso izanentzat.

3432. *daitentçat*: ikus 2174; 2038.

3433. *saildu erromeriac*: hots, erromeria sailduac.

3434. *hautu sacrificiac*: hots, sacrifici hautuac.

3438. *diecen*: hots,*diezaïen* euskara batuan: ikus 3408.

3440 Aingueruec bere aldetic deuz eztute faltatcen  
Non burura eman gauça hauc eztietçaguten  
Gure ganic dire faltac, gu gare antsicabeac,  
Ceñac ezbaicaitu latzten hequin pena dorpheac.

*Arimen aguertceaz.*

Deusic eguiten ez bada Aingueruen moianez  
Mundanoec antsicabe hain bihotçac içanez  
Asco aldiz Iaincoac du permetitu athera  
Illkhi daitecen fauore bereei escatcera  
Obra onen causaz guero direnean libratu  
Ungui eguillei darozte milla esquer bihurtu  
3450 Ordean halaco dire choill bakhotchac aldiac  
Nola baitu declaratcen choill guti historiac  
Hañitcetan arimaren icenean gaichtoa  
Guiçonei mintçatu çaiç Sathan Ifernucoa  
Esca çaitzque halaco aldietan abisu  
Beharco duçu iaquiñen erranetan guelditu.

*Exort. othoitz eguitera hillentçat.*

Ea beraz Guiristiñoa fauoratçac heureac  
Eta tuquen urricari egoquien nequeac  
Orhoit adi hire gatic cembat duten pairatu  
Eta hi aitciñatceco cembat diren nekhatu

- 
3439. *aingueruec*: hau eta ondoko hiru bertsoak nork esanak dira? Aurrekoak (3428-3438) purgatorioan pairatzen ari den arimaren aingeruak esan dizkie bere lagun beste aingeruei. Orain batbatean *Aingueruec*, pluralen, ageri da eta nor diren ez dakigun *guri* batzuei ematen dizkiete burura *gauça hauc*: *eztietçaguten*. Badirudi, beraz, arimaren egokiak direla hemen mintzo; 3438garren bertsoaren ondoan bertso batzuk falta direla esango nuke.
3440. *non burura*: irakur honela: *non gauça hauc burura eman eztietçaguten*. Hauxe esan nahi bide du poetak, nahiz hor falta diren bertsoek zentzua argi ikusten uzten ez duten: *aingueruek abalak egiten dituzte guri gauza hauek gogorazitzeko*.

3440 «*Aingeruek bere aldetik deus eztute faltatzen,  
non burura eman gauza hauk eztietzaguten.*

*Gure ganik dire faltak, gu gare antsikabeak,  
zeinak ezbaikaitu latzten bekin pena dorpheak».*

Arimen agertzeaz.

*Deusik egiten ez bada aingeruen moianez,  
mundanoek antsikabe hain bihotzak izanez,*

*asko aldiz Iainkoak du permetitu, athera  
ilkhi daitezen fabore bereei eskatzera.*

*Obra onen kausaz gero direnean libratu,  
ungi egilei darozte mila esker biburtu.*

3450 *Ordean halako dire xoil bakhotxak aldiak,  
nola baitu deklaritzen xoil guti historiak.*

*Hanitzetan arimaren izenean gaixtoa  
gizonei mintzatu zaie Sathan ifernukoa.*

*Eska zaitezke halako aldietan abisu;  
beharko duzu iakinen erranetan gelditu.*

Exort. othoitz egitera hilentzat.

*Ea beraz, giristinoa, faboratzak heureak  
eta tuken urrikari egokien nekeak.*

*Orhoit adi hire gatik zenbat duten pairatu  
eta hi aitzinatzeke zenbat diren nekhatu.*

---

*eztietzaguten*: euskara batuan, ez diezazkiguten.

3442. *ceñac*: pluraleko objektua da: ikus 3001, eta *gu* du antezedente delakoa.

3444. *antsicabe hain bihotzac*: hots, *hain bihotz antsicabeac*: ikus 3056.

3445. *athera ilkhi daitecen*: zangalatrau dago.

3448. *darozte*: euskara batuan, *dizkiete*: ikus, aldiz, 2128.

3449. *halaco*: hau esan nahi du: hori oso gutxitan gertatu da eta historiak ere horrelako kasu gutxi kontatzen du; *halaco aldiac* da, beraz, sintagma.

3451. *gaichtoa*: hots, ifernuko Sathan gaixtoa.

3453. *esca çaitzeque*: ikus 2387. Hauxe esan nahi du: horrelakoetan konseilu eskatzea duzu onena eta jakintsuen esanari egotea.

3455. *fauoratçac*: inperativo honen ondoan (*fabora itzak*) *tuquen* sartu du poetak; hots, *dituan* edo *dituala* hik.

- 3460 Hic ere ordain har eçac cembait pena hequintçat  
 Su lamboco oñhacetic sarri libra daitentçat  
 Orhoit adi cembat duquen urricari presuna  
 Iustitiac erretcera condemnatu duena  
 Edo ezperen mailluaz miambroen hautstera  
 Edo bertz iraqituan biciric egostera  
 Hequin oñhaceac baño Purgatoriocoac  
 Asco aldez, Guiristiñoa, dituc aspreagoac  
 Hartaracotz ez aicela gogor lehen beçala  
 Bañan fauore eguiten emplegaçac ahala  
 3470 Perillean herori ere abillanaz gueroztic  
 Pena hec senti dietçaquen herioaz ondotic  
 Hitçaz beraz norbait orhoit dadin bicietaric  
 Egoquientçat hic ere eguic on den obraric.

#### BVRV VI.

##### *Limboez.*

Bi lurpeco lecez gare hunen bercez mintçatu  
 Arraçoñ da berce biez dugun cerbait aiphatu  
 Hartaracotz argui çaçu Iauna ene burua  
 Hassi dudana fiñera ekhartceco cantua.

- 
3459. *ordain*: hots, ordainez edo ordain gisa.  
*hequintçat*: hots, haientzat edo haien alde.  
 3460. *daitentçat*: ikus 3432.  
 3461. *urricarri*: ikus lehen *urrikaldu* dela eta esana (3384); horren ondoan,  
 haatik, *inork inor urrikari izan* darabil hemen eta goraxeago ere bai:  
 3456.  
 3467. *ezaicela gogor*: *gogor* hemen adjetivo soila da; aditz erroa balitz, *gogor*  
*dadin* esaten dugunean bezala, *ezadila* esango zukeen ezinbestean: ikus  
 3046.  
 3469. *herori*: horren ondoan *heroni* ere esaten du: ikus 182; 219.

3460 *Hik ere ordain har ezak zenbait pena bekintzat,  
su lanboko oinhazetik sarri libra daitentzat.*

*Orhoit adi zenbat duken urrikari presuna  
iustiziak erretzera kondemnatu duena,*

*edo ezperen mailuaz mianbroen hautstera  
edo bertz irakituan bizirik egostera.*

*Hekin oinhazeak baino purgatoriokoak  
asko aldez, giristinoa, dituk aspreagoak.*

*Hartarakotz ez aizela gogor lehen bezala,  
bainan fabore egiten enplegazak ahala,*

3470 *perilean herori ere abilanaz geroztik,  
pena hek senti dietzaken herioaz ondotik;  
bitzaz beraz norbait orhoit dadin bizietarik,  
egokientzat hik ere egik on den obrarik.*

## BURU VI.

Linboez.

*Bi lurpeko lezez gare hunenberzez mintzatu,  
arrazoin da berze biez dugun zerbait aiphatu.*

*Hartarakotz argi zazu, Iauna, ene burua,  
basi dudana finera ekhartzeko kantua.*

---

3470. *pena bec senti dietçaquen*: ez da finala inola ere, ez luke hartara zentzurik; aurreko bertsoan esan digun *perillean*-en argitura da: «Haz lo posible por favorecer, puesto que también tú corres el riesgo de que tras la muerte padezcas estas penas». Eta hor amaitzen da perpausa eta berria hasten.

3471. *bitzaz beraz*: lehen esanen ondorena da hau: «Así pues, para que de los vivos alguien se acuerde de ti, haz también tú obras buenas por tus allegados».

3474. *dugun aiphatu*: ez dio *dezagun*: ikus 1534.

3476. *cantua*: hots, hasi dudana cantua.

*Cer den Limboa.*

- Limboa da original faltaren açotea  
Adamen ganic gurera eguiten du bidea
- 3480 Bañan Iaincoaren contra ezta behar altchatu  
Ceren berceren hobena dugun participatu
- Ecen escua baçuen gu obligatcecoa  
Buruçagui gañecoan bassollo azpicoa
- Hala nola communera Semeac Aitarena  
Estatuarequin baitu posseditcen icena
- Haren ondraz ondra baitu, bai laidoaz laidoa  
Halaber dugu guc ere gaztigu aitazcoa
- Lekhuaren icenetic deitcen dugu Limboa  
Ceren baita lur gañera hurbilltcen den cillhoa
- 3490 Lekhuaren icenetic communera deitceac  
Berce lecec ere tuzte hartu ohi bereac.

*Causac.*

Adam bada cela causa formatu cen Limboa  
Cergatic assiqui çuen fruitu deuecuzcoa

Presunac ezbadu hartu behar remedioa  
Chahutceco original faltaren propioa

Edo dela naturazco leguean usatua  
Ezperen escribuzcoan euaquitce mintsua

Edo gratiaz bethean urezco bathaioa  
Limbo belcean behar du etche seculacoa

---

3477. *original faltaren*: hots, falta originalaren: ikus 3528.

3480. *ceren*: gatzelaniaz subjuntiboz eman ohi dena da hau; ez «porque hemos»,  
baizik «porque hayamos»: arrazoi subjetivoa edo barnekoa deritza honi.

3482. *buruçagui*: ez ote du esan nahi: *buruzagi gainekoa*, *basailo* (vasallo) *azpikoa*?

3484. *icena*: hots, aitaren izena.

3486. *gaztigu aitazcoa*: hots, aitaz irabazitakoa edo; ikus 3246. Leizarragak honela dio: *Christezco promessac* (Apostolu sailduen Acteac, cap. II, hasierako laburpenean).



Zer den linboa.

- Linboa da orijinal faltaren azotea;  
Adamen ganik gurera egiten du bidea;*
- 3480 *baina Iainkoaren kontra ezta behar altxatu,  
zeren berzeren hobena dugun partizipatu,  
ezen eskua bazuen gu obligatzekoa  
buruzagi gainekoa(n), basailo azpikoa.*
- Hala nola komunera semeak aitarena  
estatuarekin baitu poseditzen izena,  
haren ondraz ondra baitu, bai laidoaz laidoa,  
halaber dugu guk ere gaztigu aitazkoa.*
- Lekhuaren izenetik deitzen dugu linboa,  
zeren baita lur gainera hurbiltzen den zilboa.*
- 3490 *Lekhuaren izenetik komunera deitzeak  
berze lezek ere tuzte hartu ohi bereak.*

Kausak.

*Adan, bada, zela kausa formatu zen linboa,  
zergatik asiki zuen fruitu debekuzkoa.*

*Presunak ezbadu hartu behar remedioa  
xabutzeko orijinal faltaren propioa,  
edo dela naturazko legean usatua  
experen eskribuzkoan ebakitze mintsua,  
edo graziaz bethean urezko bathaioa,  
linbo belzean behar du etxe sekulakoa,*

---

3487. *lekhuaren*: ikus 2401.

3490. *ere*: ikus 2091.

*bereac*: hots, *bere deitceac*.

3493. *behar remedioa*: hots, beharrezko erremedioa.

3494. *chabutceco*: irakur honela: *falta originalaren chabutceco propioa*: ikus 3528.

3496. *euaquitce mintsua*: hots, *erdainkuntza*, Orixek dioenez, edo *erdainketa*.

3498. *limbo belcean*: hemen hasten da apodosia.

3500 Ecen Iaunac iustitia nahi du eracutsi  
Eta punimendu gabe bekhatua ez utci.

*Lekhua.*

Ifernu saihetsean da Limboaren lekhua  
Argui ederra non baita illhunqui itçaldua  
Carcela da luce, çabal, gora, eta barrena  
Ecin conda ahal gorputz iduqui deçaquena  
Purgatceco putçuaren hau ere idurira  
Beheretic hurbilltzen da munduaren heguira.

*Arimen statua.*

Han denac penaric eztu tristetiaz berceric  
Ceren dagoen carcela halacoan hertsiric  
3510 Tristetia harc ordean eztu haguiz penatzen  
Ceren baitaqui eztela bere faltaz punitzen  
Haren statua ordean preçatcecoagoa  
Da, ecen Purgatorioan bethi egotecoa  
Ceren purgan daudecenec pena latçac dituzten  
Eta suaren dolore miñac sentitcen tuzten.

*Limboetacoen patientia.*

Patientqui supportatcen dute bere carcela  
Ceren baitaquite Iaunac ordenatua dela  
Eta eztute eguiten haren contra plañuric  
Bañan patientqui daude gloriáz etsituric  
3520 Eta hala daramate illhumbean dembora  
Ezportçu eztutelaric illkhitceco lekhora  
Deusic ordean eztute hargatic mereciczen  
Eta horrec guehiago ez ohi tu icitcen

---

3503. *carcela* da: erka ezazu beste harekin: 2561.

3504. *ecin conda*: ikus 3352.

3507. *tristetiaz berceric*: ikus 3169.

3512. *preçatcecoagoa da*: zangalatrau dago adizkia: ikus 3082.  
*ecen*: guk *baino* esan ohi duguna: ikus 2954.

3500 *ezen Iaunak iustizia nahi du erakutsi  
eta punimendu gabe bekhatua ez utzi.*

Lekhua.

*Ifernu saihetsean da linboaren lekhua,  
argi ederra non baita ilhunki itzaldua.*

*Karzela da luze, zabal, gora eta barrena,  
ezin konda abal gorputz iduki dezakena.*

*Purgatzeko putzuaren hau ere idurira,  
beheretik hurbiltzen da munduaren begira.*

Arimen estatua.

3510 *Han denak penarik eztu tristeziak berzerik,  
zeren dagoen karzela halakoan hertsirik;  
tristezia hark, ordean, eztu hagitz penatzen,  
zeren baitaki eztela bere faltaz punitzen.*

*Haren estatua, ordean, prezatzeoagoa  
da, ezen purgatorioan bethi egotekoa,  
zeren purgan daudezenek pena latzak dituzten  
eta suaren dolore minak sentitzen tuzten.*

Linboetakoen paziencia.

3520 *Pazientki suportatzen dute bere karzela,  
zeren baitakite Iaunak ordenatua dela,  
eta eztute egiten haren kontra plainurik,  
bainan pazientki daude gloriak etsiturik,  
eta hala daramate ilhunbean denbora  
esportzu eztutelarik ilkhitzeko lekhora.*

*Deusik, ordean, eztute bargatik merezitzen  
eta horrek gehiago ez obi tu izitzen.*

---

*egotecoa: hots, egoteco statua.*

3514. *tuzten:* eta aurreko bertsoan *dituzten*, biek egiten dutelarik puntua: ikus 3326.

3520. *ezportçu:* -z- duelarik, baina ikus 3375; 1326.

3522. *obitu:* dirudienez *obi ditu* esan nahi du.

Merecitceco dembora da gu gauden lekhuan  
Esparantça behar ezta (içan) berce munduan.

*Aita çaharren Limboaz.*

Bi Limbo dire aiphatu bata Patriarchena  
Remedio hartu gabe bercea haur hillena

Aita çaharren Limboan sartcen ciren iustuac  
Falta originalaren narriotic hutstuac

3530 Haur ttipittoac beçala, presuna adintsuac,  
Ceñac eguin baitcituzten Iaincoaren manuac.

*Illkhitceco çuten desira.*

Iainco Semea ceudecen lurreratu artean  
Eta harc Limboetariç alchacetçan ustean

Desira çuten presunac ecin condatuzcoa  
Saluatçaillea cethorren noizbat ethortcecoa

Esparantça hartan bada Ceruraño plañua  
Iongoicoari altchatcen cioten dolutsua

Ecen ungui ceaquiten cela prometatua  
Halacotz eguiten çuten othoitça hain khartsua

*Limboetaco Aiten othoitça.*

3540 Iauna, othoi egorraçu egorrico duçuna  
Bidalduco cinduela prometatu duçuna

Arren othoi ezaçula guehiago valia  
Presso gaudecen, ikhussi gabetaric arguia

---

3524. *berce munduan*: bi silaba falta ditu bigarren bertso erdi honek; nik *izan* falta duela esango nuke.

3526. *remedio*: irakur honela: *bercea remedio hartu gabe hill haurrena*.

3528. *falta originalaren*: hemen ez bezala idatzi du sintagma hori bera lehengo beste bi bertso haietan: 3477; 3494.

3530. *ceñac*: pluraleko ergativoa da: ikus, aldiz, 3442.

3533. *desira*: irakur honela: *presunac ecin condatuzco desira çuten*.

3534. *cethorren*: adizki hau aurreko bertsoan dagoen *desira*-ren konpletivatzat hartu behar da: «nadie puede narrar el deseo que tenían de que vi-

*Merezitzeko denbora da gu gauden lekhuan,  
esparantza behar ezta (izan) berze munduan.*

Aita zaharren linboa.

*Bi linbo dire aiphatu: bata patriarkena,  
remedio hartu gabe berzea haur hilena.*

*Aita zaharren linboan sartzen ziren iustuak  
falta oriñinalaren narriotik hutstuak*

3530 *haur ttipittoak bezala, presuna adintsuak,  
zeinak egin baitzituzten Iainkoaren manuak.*

Ilkhitzeko zuten desira.

*Iainko Semea zeudezen lurreratu artean  
eta hark linboetarik altxa zetzan ustean,  
desira zuten presunak ezin kondatuzkoa  
Salbatzailea zethorren noizbat ethortzekoa.*

*Esparantza hartan, bada, zeruraino plainua  
Iongoikoari altxatzen zioten dolutsua;*

*ezen ungi zeakiten zela prometatua,  
halakotz egiten zuten othoitza hain kbartsua.*

Linboetako aiten othoitza.

3540 *«Iauna, othoi, egorrazu egorriko duzuna,  
bidalduko zinduela prometatu duzuna;*

*arren, othoi, ezazula gebiago balia  
preso gaudezen, ikhusi gabetarik argia;*

---

niera...».

3537. *ceaquiten*: euskara batuan *zekiten*.

3539. *egorraçu*: hots, *egor ezazu*: ikus 2856.

*egorricco duçuna egorri*: lehen (3534) *cethorren noizbat ethorcecoa* bezalaxe, bibliaren esanmoldeak dira, poetak ia hitzez hitz euskarara aldatuak.

3541. *ezaçula valia*: hau guttiz berria da; ikus lehengoak: 3376; 3113; 3081;... Hemen adizki laguntzaile iragankorra du eta konpletiva darama: *presso gaudecen*. Honako zerbait esan nahi du: «no permitas que...».

Muga onez idocaçu Ceru saphirezcoa  
Eta issur gure gana ihintz saluatcecoa  
Çabal etçatçu portale noizbat illhumbecoac  
Dasta detçagun atseguin Ceru gorenecoac.

*Aita çabarren librantça.*

- Othoitz hunec iraun çuen haric Iainco Semea  
Limboetara iauts cedin guztiz bihotz emea  
3550 Gurutcean çuenean bada ondicoz pairatu  
Presondeguitic cituen Patriarchac libratu  
Haren arima sainduac athe eta gondeac  
Bortchaz irauci cituen eta hautsi gatheac  
Ifernua nahassi cen, Deabruac icitu  
Eta hondale illhuna habarrotsaz khiritu  
Patriarchac hegaldatu ciren Ceru gañera  
Hambatetan desiratu placerezco etchera  
Nola ussoa illkhitcen baita ussateguitic  
Nahi baño guehiago egon presondeguitic  
3560 Auiaduraz bolatcen guero campoetara  
Libertaterequin nahi ianhariz bazatcera  
Aita çaharren arimac hala ciren hegatu  
Çarrateguia Iesussec çuenean bortchatu  
Hedoiera igan ciren assetcera gloriáz  
Fiñic içanen eztuen nihoiz ere astiaz  
Gueroztican idequia dago Parabisua  
Falta gabe hill direnec har deçaten pagua

- 
3543. *idocaçu*: *idoki* eta *ideki*, biak dira euskaraz, noski; baina hemen ez dakit ez ote den *idecaçu* behar: ikus 3593.  
3544. *saluatcecoa*: ez du esan nahi *salbatu behar dena*, baizik *salbatu behar duena*.  
3545. *noizbat*: ikus 2163; 2677.  
3547. *haric iauts cedin*: *noiz artekoa* modu desberdinez adierazten du poetak: ikus 2016. Baina hemen, horrez gain, *haric* erabat erauzi du adizkitik.

*muga onez idekazu zeru safirezkoa  
eta isur gure gana ibintz salbatzekoa;  
zabal etzatzu portale noizbat ilhunbekoak,  
dasta detzagun atsegin zeru gorenekoak».*

Aita zaharren librantza.

*Othoitz hunek iraun zuen, harik Iainko Semea  
linboetara iaust zedin, guztiz bibotz emea.*

3550 *Gurutzean zuenean, bada, ondikoz pairatu,  
presondegitik zituen patriarkak libratu.*

*Haren arima sainduak athe eta gondeak  
bortxaz irauzi zituen eta hautsi gatheak.*

*Ifernua nahasi zen, deabruak izitu,  
eta hondale ilhuna habarrotsaz khiritu.*

*Patriarkak hegaldatu ziren zeru gainera,  
hanbatetan desiratu plazerezko etxera.*

*Nola usoa ilkbitzen baita usategitik,  
nahi baino gehiago egon presondegitik,*

3560 *abiaduraz bolatzen gero kanpoetara,  
libertaterekin nahi ianhariz bazkatzera,*

*aita zaharren arimak hala ziren hegatu,  
zarrategia Iesusek zuenean bortxatu.*

*Hedoiera igan ziren asetzera gloriáz,  
finik izanen eztuen nihoiz ere astiaz.*

*Geroztikan idekia dago parabisua  
falta gabe hil direnek har dezaten pagua,*

---

3551. *gondeac*: ez dakar Lhandek; «contrivit portas... et vectes ferreos», dio Salmoak.

3552. *irauci*: ikus 3097.

3554. *khiritu*: hots, dardaratu, ikaratu.

3556. *desiratu*: hobeki ulertzen da *desiratutako* esanez gero.

3558. *egon presondegitic*: hau ere bai, *egondako* edo *egon den*: «de la prisión en que ha estado...»: ikus 1768; 2258.

3560. *nahi ianhariz*: hots, *nahi duen ianhariz*.

Eta nihor iautsten ezta Aiten Limbo hartara  
Ceren çabalic dagoen dohatsuen gambara.

*Bathaiatu gabeen Limboaz.*

- 3570 Berce Limboa ere bada lehenaren aldean  
Iaun puchantac formatua munduaren hastean  
Ifernuaren contra da hura ere etciña  
Gañera hedatcen dela nola Aitentçat eguiña  
Ecen lurraren azpico daude presondeguiac  
Non baitaude defuntuen espirituac hertsiaç  
Ifernuco ingurutan hura da choill handia  
Eta bazterretan ditu Limbo Purgatoria  
Seculacotçat han daude bathaiatu gabeac  
Nola Adamen faltatic ez libratu berceac  
3580 Gende batçuen eguia da ohi dela errana  
Bañan segurantça gabe aitciñera emana  
Iujamendua eguin eta munduaren gañera  
Illhunbetic ethorrigo direla egotera  
Bañan sententia hunen haguiz contrarioa  
Illkhico eztirela da laudatcecoagoa.

*Bathaiatu gabeen errencurac.*

Iaunaren contra eztire haurrac errencuratcen  
Bañan burasoei çaizte arraçoñez khechatcen  
O burasso (diostee) gutçaz antsicabeac  
Ceñen faltaz baititugu illhunbean etcheac

---

3569. *ere*: ikus 2091.

*limboa*: bi silabaz ebaki behar da: *linbwa*.

3574. *espirituac*: *espiritwak*, lau silabaz, ahoskatu behar da.

3578. *ez libratu berceac*: hauxe esan nahi du: bataiatu gabeak ez ezen, beste nolabait (ikus 3493-3497) Adamen faltatic libratu ez direnak ere han daude.



*eta nihor iauststen ezta aiten linbo hartara,  
zeren zabalik dagoen dohatsuen ganbara.*

Bathaiatu gabeen linboaz.

3570 *Berze linboa ere bada lehenaren aldean,  
Iaun puxantak formatua munduaren hastean.*

*Ifernuaren kontra da hura ere etzina  
gainera bedatzen dela, nola aitentzat egina;*

*ezen lurraren azpiko daude presondegiak  
non baitaude defuntuen espirituak hertsiaik.*

*Ifernuko ingurutan hura da xoil handia  
eta bazterretan ditu linbo purgatoria.*

*Sekulakotzat han daude bathaiatu gabeak,  
nola Adamen faltatik ez libratu berzeak.*

3580 *Jende batzuen, egia da, ohi dela errana,  
bainan segurantza gabe aitzinera emana,*

*iuiamendua egin eta munduaren gainera  
ilhunbetik etborriko direla egotera,*

*bainan sententzia hunen hagitz kontrarioa  
ilkhiko eztirela da laudatzekoagoa.*

Bathaiatu gabeen errenkurak.

*Iaunaren kontra eztire haurrak errenkuratzen,  
bainan burasoei zaizte arrazoinex khexatzen:*

*«O buraso, diostee, gutzaz antsikabeak,  
zeinen faltaz baititugu ilhunbean etxeak!*

---

3579. *gende batçuen*: irakur honela: *eguia da gende batçuen errana ohi dela...*;  
ikus 2373-2378, han ere gauza bera kontatu bait du.

3584. *illkhico eztirela*: bi hitz horietan dago bildua *sententia contrarioa*; esazu,  
beraz, *bots* bi horien aurrean eta hobeki ulertuko duzu.

3586. *burasoei*: gehienetan *-ss-* idatzi ohi du: ikus ondoko bertsoa.

3587. *diostee*: ikus 3346.

3590 Çuen gatic gu gaudecen lecean çarratuac  
 Eta ditugun Iauna ez ikhusteco damuac  
 Ceruetara iragan gabe illhun Limboan  
 Bethiereco gaudecen argui gabe cillhoan  
 Idequi çuenaz gueroz Jesus onac Cerua  
 Hura ethor ceitequeño gakhoaz egotua  
 Traburic etcenaz gueroz Ceruaren aldetic  
 Baicen antsicabe eta lacho çuen partetic  
 O burasso ondra guti gu ganic mereciac  
 Ceren tugun çuen causaz seculaco garriac.

*Burassoeci mehatchuac.*

3600 Cer erranen dugu orain burassoen hobenaz  
 Ceñen causaz ez baitire haurrac busti uhiñaz  
 Iongoicoac hequientçat pena tormentatsua  
 Arracoñqui daducala baicen ordenatua  
 Ecen Iaincoac eguiten tu arimac Ceruco  
 Eta ez hetçaz lurpeco leceac bethetceco  
 Alabañan Iaincoaren nahiaren gañetic  
 Hambat bathaiatu gabe partitcen da lurretic  
 Egotecotz bethiere harroqui lurpecoan  
 Aingueruen desiratu batçarretic campoan

---

3589. *gaudecen*: berriz ere poetak inoren ahotan ipintzen duen mintzaldian ageri dira subjuntivo bitxiok: ikus 3365, 3413-20. Formaz indikativo diren arren, zentzuz subjuntivo bait dira; ikus, bestela, 3413-5-9. Alde txiki bat besterik ez dute hauek eta haiek: hauek galde zeinurik ez izatea. Itzulpena hau dateke, beraz: «¿Que estemos por culpa vuestra encerrados en esta sima y que suframos la pena de no ver al Señor? ¿Que estemos para siempre en el limbo tenebroso, en esta oscura cavidad, sin poder subir al cielo? Será posible?».

3591. *illhun limboan*: hots, limbo illhunean.

3593. *idequi*: ikus lehen esana: 3543.

*çuenaz gueroz*: ikus 3393; honek eta bi bertso beheragokoak (*etcenaz gueroz*) ez dirudite kausalak, denborazkoak baizik, edota konzesivak: «...sin poder subir al cielo, después que (a pesar de que) el buen

3590 *zuen gatic gu gaudezen lezean zarratuak  
eta ditugun Iauna ez ikhusteko damuak,  
zeruetara iragan gabe ilhun linboan  
bethiereko gaudezen argi gabe zilhoan!  
Ideki zuenaz geroz Iesus onak zerua  
bura ethor zeitekeino gakhooz egotua,  
traburik etzenaz geroz zeruaren aldetik,  
baizen antsikabe eta laxo zuen partetik!  
O buraso, ondra guti gu ganik mereziak,  
zeren tugun zuen kausaz sekulako garriak».*

Burasoei mehatxuak.

3600 *Zer erranen dugu orain burasoen hobenaz,  
zeinen kausaz ez baitire haurrak busti ubinaz,  
Ingoikoak hekietzat pena tormentatsua  
arrazoini dadukala baizen ordenatua?  
Ezen Iainkoak egiten tu arimak zeruko  
eta ez hetzaz lurpeko lezeak bethetzeko,  
alabainan Iainkoaren nahiaren gainetik  
hanbat bathaiatu gabe partitzen da lurretik,  
egotekotz bethiere harroki lurpekoan,  
aingeruen desiratu batzarretik kanpoan.*

---

Jesús...».

3594. *ethor ceitequeño*: 3547.

3596. *çuen gatic gu gaudecen...*) hasi den esaldia.

3597. *O burasso*: Lhandek honela: «O pères et mères, ô parents qui avez mérité peu de louanges de notre part, parce qu'à cause de vous nous souffrons des afflictions éternelles»: ikus Hiztegia, *garri* III, or. 340.

3599. *cer erranen dugu*: galdera hau lau bertsoan zehar doa eta laugarrenean ageri den *baicen* (3602) galderaren osagarri da, hain zuzen: «¿Qué diremos acerca de..., sino que Dios tiene con razón...?».

3603. *ceruco*: guk *zerurako* esango genuke: ikus *cerucotz*, 1327.

3608. *aingeruen*: hots, *aingeruen batzarrea* da batetik eta batzarre hori biziki desiratzen dute hurrek, bestetik.

- 3610 O umeen hilltçailleac! o odolsu Aita-Amac  
Ceñen faltaz ioan baitire hala haurren arimac
- Arracoñ da Ifernuac çuentçat doloreac  
Preparaturic dadutçan min eta fin gabeac
- Bai burreu cruelac diren çuen penatçailleac  
Ceren içatu çareten hain achola gabeac.

## BURU VII.

### *Parabisuaz*

- Huneraño ibilli naiz bethi tristetietan  
Noizbat bedere sar nadin alleguerantcietan.
- Parabisuaren bada aiphatceac, Iaincoa,  
Handiroqui bozten darot neure triste gogoa.
- 3620 Hartaracotz Propheta sainduen naussia  
Libra eçaçu escalgaitz othoi ene mihia.
- Ecen hain placer handia nola dirot declara  
Non gratia ezteçaçun issur ene baithara?
- Behiala haur ttipiac Augustiñen mendean  
Itsassoa sarthu nahi çuen cillho batean.
- Nitçaz ere halaber da, ceñen adimendua  
Ecin heda baitaiteque condatcera Cerua.
- Arren bada podoroso Aingueruen Iaincoa,  
çuc eguidaçu favore ungui mintçatcecoa.
- 3630 Sujetaren eredura hitz daguidan ederqui  
Eta ohore daquiçun curi itçul çucenqui.

3609. *odolsu aita-amac*: hots, *aita-ama odolsuac*.

3613. *bai*: hots, *baita ere*: ikus 213.

*diren*: aurreko bertsoaren *dadutçan* bezalaxe, *arraçoñ da* perpausaren kon-  
pletiva da: ikus 3474.

3616. *noizbat*: ikus 2677; 2163.

3618. *neure triste gogoa*: hots, neure gogo tristea.

3619. *hartaracotz*: lehen bertso erdi honek silaba bat falta du; ene ustez, *O Propheta* behar da.

3610 *O umeen hiltzaileak! O odolsu aita-amak!,  
zeinen faltaz ioan baitire hala haurren arimak.  
Arrazoin da ifernuak zuentzat doloreak  
preparaturik dadutzan min eta fin gabeak,  
bai burreu kruelak diren zuen penatzaileak,  
zeren izatu zareten hain axola gabeak.*

BVRV VII.

Parabisuaz.

*Huneraino ibili naiz bethi tristezietan.  
noizbat bedere sar nadin alegerantzietan.  
Parabisuaren, bada, aiphatzeak Iainkoa,  
handiroki bozten darot neure triste gogoa.  
3620 Hartarakotz, O profeta sainduen nausia,  
libra ezazu eskalgaitz, othoi, ene mihia;  
ezen hain plazer handia nola dirot deklara,  
non grazia eztezazun isur ene baitbara?  
Behiala haur ttipiak Augustinen mendean  
itsasoa sarthu nahi zuen zilho batean;  
nitzaz ere halaber da, zeinen adimendua  
ezin beda baitaiteke kondatzera zerua.  
Arren, bada, podoroso aingeruen Iainkoa,  
zuk egidazu fabore ungi mintzatzekoa.  
3630 Suietaren eredura bitz dagidan ederki  
eta ohore dakizun zuri itzul zuzenki.*

---

3620. *escalgaitz*: hots, *ene mihi escalgaitça*, edo euskara gaizki dakiena.

3622. *non ezteçaçun issur*: nabari du balio kondizionala.

3625. *nitçaz ere halaber da*: hots, niri beste hainbeste gertatzen zait: ikus 1107;  
han *orobat*, hemen *halaber*.

*ceñen*: hots, *nere*, *ni(tçaz)* bait du antezedente delakoa.

3627. *podoroso*: hots, aingeruen Jainko podoroso.

3629. *sujetaren*: ikus 65.

*Cer den Parabisua*

Parabisua da sari dohatsuei emana,  
Ceren obran eman duten Iaincoaren errana.

Sari hura da atseguin ecin condatuzcoa  
Ceñen berdiña ez baita mundu beherecoa.

Parabisua fiñean hunetan da çarratcen  
On guztiac dire eta gaitcic ezta balsatcen.

*Norc ematen duen.*

Iongoicoac ematen du erran dugun saria.  
Ecen berceç ecin diro eman hain on (h)andia.

3640 Nola Erregue bailegoque lastercaco lekhu  
çaldundeari beguira iustetaco orduan

Açarcaccen duenari emateco saria  
Edo erhastuna bera edo charpa horia,

Halaber dago Iaincoa bethiere beguira  
Lurrean bici direnen presunen merecira.

Hats gabetu çaienean erhasunaz ahoa  
Ungui bicitu direnei emateco goçoa.

*Arimaren Ceruetara igatea.*

Arima ona denean gorputcetic athera  
Hurbilltcen çαιο Aingueru guardaria aldera.

3650 Berce Aingueruac ere hersten çaiçco paguric  
Ordean beguiraillea du bethi hurbillenic.

Cantaz eta eresiaz daramate cerura  
Iongoicoac prometatu cioen ostatura.

---

3631. *emana*: hori bestetan honela esan ohi du: *dobatsuei eman saria*: ikus 497.

3638. *ondia*: hutsa da, agian; *handia* behar du.

3639. *nola erregue bailegoque*: ikus 2717. Jakina denez, antzineko idazleengan *bait*- inoiz erlativoaren antzekoa da: «Como un rey que estuviera...».

3641. *açarcaccen*: hots, atzematzen, eskuz harrapatzen.

3642. *erbastuna*: hainbestetan ikusi dugun leherkarien aurrean xixtukariak nola idatzi ezin asmatua: ikus 3520.

Zer den parabisua.

*Parabisua da sari dohatsuei emana,  
zeren obran eman duten Iainkoaren errana.*

*Sari hura da atsegin ezin kondatuzkoa,  
zeinen berdina ez baita mundu beherekoa.*

*Parabisua finean hunetan da zarratzen:  
on guztiak dire eta gaitzik ezta balsatzen.*

Nork ematen duen.

*Iongoikoak ematen du erran dugun saria,  
ezen berzek ezin diro eman hain on (b)andia.*

3640 *Nola errege bailegoke lasterkako lekhuhan  
zaldundeari begira iustetako orduan,*

*azarkatzen duenari emateko saria  
edo erbaztuna bera edo xarpa horia,*

*halaber dago Iainkoa bethiere begira  
lurrean bizi direnen presunen merezira,*

*bats gabetu zaienean erhasunaz ahoa  
ungi bizitu direnei emateko gozoa.*

Arimaren zeruetara igatea.

*Arima ona denean gorputzetik athera,  
hurbiltzen zaio aingeru guardaria aldera;*

3650 *berze aingeruak ere hersten zaizko pagurik,  
ordean begirailea du bethi hurbilenik.*

*Kantaz eta eresiaz daramate zerura,  
Iongoikoak prometatu zioen ostatura;*

---

3644. *bici direnen presunen*: hori komunzki *diren* esan ohi dugu, baina hemen poetak silaba bat gehiago behar eta luzatu egin du.

3645. *bats gabetu*: ikus *hitz gabetu* ere: 3156.

*erhasunaz*: ikus 1238: han -ss- du: ikus 3586.

3649. *paguric*: hots, pozik, alairik: ikus 1504.

3652. *cioen*: ikus 2533.

Aireac ihardasten du cantuaren aradaz  
Baita Sainduac çerbitcen cantatceco paradaz.

Eta guero ezariaz Cerura hersten dela  
Iduri çaio içarrac handitcen diradela.

Miretsten du Ceruaren edertassun handia  
Eta hambat planetaren claritate arguia.

3660 Guztiz hain ederra denaz gueroztic lekhorea  
Ederragoa dela du iuiatcen barrenea.

Bozcarioz guero sartcen dute parabisura  
Seculaco atseguñac goçatceco lekhura.

*Arimaren Parabisuan sartcea.*

Arima denean bada sarthu Ceruetara  
Dohatsuac heldu çazco arraiqui aitciñera.

Ungui ethorri, erraten diote, iustua,  
Ceñac complitu baituçu Iaincoaren manua.

Guc beçala goçatçatçu Ceruco atseguñac  
Eta placerqui eraman fin gabeco adinac.

3670 Iesus berac ere dio agur handi eguiten  
Eta urrezco alkhian badu iarraracitcen.

Baita burura altchatcen preciatu khoroa  
Milla harri preciatuz arguituricacoa.

Arrotz orrec itçultcen tu beguiac hara huna  
Eta handiro miretsten Ceruco ontassuna.

---

3653. *ihardasten*: hots, erantzuten: ikus 1949.

*aradaz*: hots, oihartzunez.

3654. *cantatceco paradaz*: hots, kantatzeko egokieraz baliatzen direla santuak.

3655. *escariaz*: *ezariaz* behar du, nik uste: ikus 2950.

3659. *denaz gueroztic*: zesura bien erdian.

3662. *goçatceco*: aditz hau bestetan iragangaitz gisa erabili du: ikus 2073; 2600;  
*goçaraci* esan du beste behin: 3400.

3663. *ceruetara*: hemen eta bi bertso gorago adlativoaz darabil *sarthu*; ez ordea,  
gehienetan: ikus 3624; 3616.

3665. *ungui etorri*: ikus 2301 eta ondoko bertsoak.



*aireak ibardasten du kantuaren aradaz,  
baita sainduak zerbitzen kantatzeko paradaz,  
eta gero ezariaz zerura hersten dela,  
iduri zaio izarrak handitzen diradela.*

*Miretsten du zeruaren edertasun handia  
eta hanbat planetaren klaritate argia.*

3660 *Gutziz hain ederra denaz geroztik lekhorea,  
ederragoa dela du iuiatzen barrenea.*

*Bozkarioz gero sartzen dute parabisura,  
sekulako atseginak goatzeko lekhura.*

Arimaren parabisuan sartzea.

*Arima denean, bada, sarthu zeruetara,  
dohatsuak heldu zaizko arraiki aitzinera.*

*«Ungi ethorri», erraten diote, «o iustua,  
zeinak konplitu baituzu Iainkoaren manua.*

*Guk bezala gozatzatzu zeruko atseginak  
eta plazerki eraman fin gabeko adinak».*

3670 *Iesus berak ere dio agur handi egiten  
eta urrezko alkbian badu iarrarazitzen,*

*baita burura altxatzen preziatu khoroa,  
mila harri preziatuz argiturikakoa.*

*Arrotz orrek itzultzen tu begiak hara huna  
eta handiro miretsten zeruko ontasuna.*

---

*diote*: bigarren bertso erdi honek silaba bat falta du; *o iustua*, behar du, ene ustez: ikus 3619.

3666. *ceñac*: ikus 2670.

*munua*: hala dago liburuan, baina *manua* behar du.

3667. *goçatçatçu*: ikus lehenxeago esana: 3662.

3669. *ere*: ikus 2091.

3670. *badu*: baiezkoa da: ikus 2981.

*iarraratçicen*: *-tci-* hemen ere: ikus 3006; 1664.

3673. *orrec*: ez da deiktikoa edo erakuslea, artikulua baizik.

3674. *handiro*: ikus *handiroqui*, 3618.

*Parabisuco lekhua.*

Seculaco o placeren goçatceco lekhua!  
Hitaz cerbait errateco dembora duc herstua.

Lau cantoñcara eguiña da ceruric gorena  
Ungui bicitu presunen ostatu behar dena.

3680 Gañera distiatcen du nola milla iguzquic  
Beherera ezta agueri ez mintceco beguiric.

Barreanean da choill eder noiz ere lekhorea  
çuciz oñhaztua baita itsussien partea.

Bazter batetic bercera hainberce da hedatcen  
Archangelu berec ere non baitute miresten.

Arima dohatsuac han içanen du parteric  
Cembat erresuma batec baitaduca lehorric.

*Atseguin generaler.*

Deusen ere Ceruetan ezta escastassunic  
Baicen placer eta ontassun guztien bethetassunic.

3690 Bethiereco baquea, ezta guerlen aiphuric,  
Ecen charitatez daude bihotçac gurenduric.

Guehiago atseguñac eztire higunduren  
Ezta goçatzeaz ere puchantçac hebainduren.

Bañan guardaturen ditu indarrac Iongoicoac  
Oren oro sentitceco placer fin gabecoac.

---

3675. *seculaco*: honela irakurri eta agian hobeki ulertuko duzu: *O seculaco placeren goçatceco lekhua*. Honela ere hamabosteko bikaina da. Ikus 3662: ia hitz berak dituzte bi bertsoek.

3676. *hitaz*: *hitçaz* dio, halere, ia beti: ikus 3471.

3677. *lau cantoñcara*: *-cara* atzizkia da; ikus *kantoin*- Axularrengan: 15,175,256.

3678. *behar dena*: guk *behar duena* esango genuke.

3681. *barreanean*: lehenxeago ere (3659-60) *barreneaz* eta *lekhoreaz* mintzatu zaigu, gauza beretsua esateko.  
*noiz ere baita*: ikus 3200; baita 10,1396.

3682. *itsussien partea*: hau *lekhorea*-ren aposizioa da.

3683. *baster*: *-s-* duelarik; ikus lehen esana: 2444.

Parabisuko lekhuaz.

*Sekulako o plazeren gozatzeko lekhua!  
hitaz zerbait errateko denbora duk herstua.*

- 3680 *Lau kantoinkara egina da zerurik gorena,  
ungi bizitu presunen ostatu behar dena;  
gainera distiatzen du nola mila iguzkik,  
beherera ezta ageri, ez mintzeko begirik;  
barrenean da xoil eder, noiz ere lekhorea  
zuziz oinhaztua baita, itsusien partea;  
bazter batetik berzera hainberze da bedatzen,  
arkanjelu berek ere non baitute miresten.  
Arima dobatsuak han izanen du parterik,  
zenbat erresuma batek baitaduka lehorrik.*

Atsegin jeneralez.

- Deusen ere zeruetan ezta eskastasunik,  
baizen plazer eta ontasun guztien bethetasunik.*
- 3690 *Bethiereko bakea, ezta gerlen aiphurik,  
ezen karitatez daude bihotzak gurendurik.*
- Gebiago atseginak eztire higunduren,  
ezta gozatzeaz ere puxantzak hebainduren,  
bainan guardaturen ditu indarrak Iongoikoak,  
oren oro sentitzeko plazer fin gabekoak.*

- 
3684. *non baitute miresten*: aurreko bertsoan *hainberce* duelarik, konsekutiva da, *dударик* gabe: ikus 3134.  
*archangelu berec*: guk *archangeluec berec* esango genuke: ikus 3300.
3686. *parteric cembat lehorric*: hori bestetan honela esan izan digu: *hambat parteric cembat...*: ikus 2414; 2978.
3688. *baicen*: bertso honetan bi fonetika aldakuntza egin behar dira: *et'ontassun* eta *guztyen*.
3690. *gurenduric*: hots, *handiturik*, *hanturik*: ikus 357.
3691. *higunduren*: edo *higuinduren*.
3692. *hebainduren*: hots, *baldituren*, *herbalduren*, *elbarrituren*.

Hec gal detçaten Sainduec eztuquete beldurric  
Bañan goçatuco tuzte bocic eta seguric.

Damuric eztu içanen nihorc berceren onaz  
Bañan franquia ossoa, çale den ontassunaz.

*Arima eta gorputça saristatcen dire.*

3700 Gorputz eta arima dire elkharrequin nekhatu  
Elkharrequin ere bieç behar dute pagatu.

Bakhotçac sentituren du dagocan atseguña  
Nolacoa puchantçari baitagoca berdina.

*Arimaren sariaz edo dohatsutassunaz.*

Arima da orhoituren iraganez chehero  
Ecen eztu ahantciren deusic adituz guero.

Endelguac iuiaturen du halaber çucenqui  
Eta ezta eguiatic urrunduren falsoqui.

Çuhurtcia ere duque are handiagoa  
Çuhur deithu Salomonec çuen bañoagoa.

3710 Iauna, orain lurrecoec dacusagu illhunqui  
Bañan Ceruetan dugu ikhussiren claroqui.

Vorondatearen chede ohi da ontassuna  
Hartçaz ere ezta içanen arima alharguna.

Ordean Iongoicoa da on ibarren burua  
Eta içanen da hartçaz bethiere ondoa.

---

3695. *eztuquetu*: hala dago liburuan, baina *eztuquete* behar du.

3696. *goçatuco*: ikus 3662.

3698. *franquia*: ikus 1979.

3700. *ere*: ikus 2091.

*behar dute pagatu*: ikusi batera dirudienaz besterik esan nahi du: ez dute *baiek* ezer pagatu behar, baizik *haiei* pagatu behar zaie, edo nahiago bada, *behar dute pagatu*-ak izan. Arrazoa garbi dago, ene ustez «él ha sido pagado» antzineko idazleek «*pagatu da*» eta ez, guk bezala, *pagatua izan da*, esaten dutenez gero (ikus 2548), *behar* sartzean iragankor bilakatzen da adizkia eta *pagatu da* → *pagatu behar du* bihurtzen: «debe ser pagado, premiado». Ikus 673.

*Hek gal detzaten sainduak eztukete beldurrik,  
bainan gozatuko tuzte bozik eta segurik.*

*Damurik eztu izanen nihork berzeren onaz,  
bainan frankia osoa zale den ontasunaz.*

Arima eta gorputza sariztaten dire.

- 3700 *Gorputz eta arima dire elkharrekin nekhatu,  
elkharrekin ere biek behar dute pagatu;  
bakhotxak sentituren du dagokan atsegina,  
nolakoa puxantzari baitagoka, berdina.*

Arimaren sariaz edo dohatsutasunaz.

*Arima da orhoituren iraganex xebero,  
ezen eztu ahantziren deusik adituz gero.*

*Endelguak iuiaturen du halaber zuzenki  
eta ezta egiatik urrunduren falsoki.*

*Zuhurtzia ere duke are handiagoa  
zuhur deithu Salomonek zuen bainoagoa.*

- 3710 *Iauna, orain lurrekoek dakusagu ihunki,  
bainan zeruetan dugu ikhusiren klaroki.*

*Borondatearen xede obi da ontasuna,  
hartzaz ere ezta izanen arima alharguna;*

*ordean Iongoikoa da onibarren burua  
eta izanen da hartzaz bethiere ondua.*

- 
3702. *berdina*: nolakoa-ren korrelatua da, agian, eta *halakoa*-ren ordezkua horrenbestez: «cada cual percibirá el placer que le corresponde; el mismo que le corresponda a cada potencia».
3704. *eztu abantciren*: ikus 3413, 3419.
3707. *ere*: ikus 2091. Irakur honela: *çuburtcia ere duque çubur deithu Salomonec çuen baño are handiagoa*.
3708. *Salomonec*: hala dago liburuan, baina *Salomonec* behar du. *deithu*: guk *deitutako* esan eta hobeki ulertzen dugu. *bañoagoa*: berea ez duen atzizkia hartu du puntu beharrez: ikus 2984.
3713. *onibarren*: «biens-fonds, biens immeubles consistant en fonds et en héritages», dio Lhandek.

*Gorputçaren donuez.*

Copla gutiz arimaren onac ditut laudatu  
Gorputçarenac ditudan orain aldiz cantatu.

Ceruetara iganen gorputz bedincatuac  
Sentituren tu atseguin onhest eta chahuac.

3720 Gutitiaric ezтуque placer lehenecoen  
Iate, edate, lo eguite, berce gañeracoen.

Fiñean huts eguiteco ezтуque desiraric  
Bañan guztiz egonen da onera itçuliric.

Miñic ezta aiphaturen, gosse ez egarriric,  
Desplacer edo erhassun eta ez heriotceric,

Ecen sendo içanen da hara doan presuna  
Bethiereco halaber duque gaztetassuna.

*Gorputçaren doteez.*

Laur dote hauc principalqui Ceruratuenean  
Señale içanen dire handira gorputcean.

3730 Ecen harc oñhazturen du guehiago çazpitan  
Urre izpi iguzquiac baño eguralditan.

Amen batez passaturen ditu bide luceenac  
Gora, behera, saihetsera, escuiñ esquer direnac.

Nola arranoa baita hegaldatcen Cerura  
Eta guero berriz iautsten behereco mortura,

---

3716. *ditudan cantatu*: ikus 3474.

3717. *iganen*: hots, igan direnen.

3719. *lehenecoen*: hots, *leheneco placeren*.

3723. *minic*: bi bertsotan sei izen aipatzen dira: hiru partitiboan daude, beste hirurak pasiva mugagabeen, seiak ezezko adizki beraren mendean egonik. Poetaren askatasuna nabari da bertsoa ahal duen moduan biribiltzeko.

3727. *ceruratuenean*: sintagma berez *ceruratuenean gorputcean da*.

3728. *handira*: hala dio *liburuak*, baina *bandiro* behar du inola. Ikus 3674.

Gorputzaren donuez.

*Kopla gutiz arimaren onak ditut laudatu,  
gorputzarenak ditudan orain, aldiz, kantatu.*

*Zeruetara iganen gorputz bedinkatuak  
sentituren tu atsegin onhest eta xabuak;*

- 3720 *gutiziarik eztuke plazer lehenekoen  
iate, edate, lo egite, berze gainerakoen;  
finean huts egiteko eztuke desirarik,  
bainan guztiz egonen da onera itzulirik;  
minik ezta aiphaturen, gose, ez egarririk,  
desplazer edo erhasun eta ez heriotzerik,  
ezen sendo izanen da hara doan presuna,  
bethiereko halaber duke gaztetasuna.*

Gorputzaren doteez.

- 3730 *Laur dote hauk prinzipalki zeruratuenean  
seinale izanen dire handiro gorputzean,  
ezen bark oinhazturen du gehiago zazpitan  
urre izpi iguzkiak baino eguralditan;  
amen batez pasaturen ditu bide luzeenak,  
gora, behera, saihetsera, eskuin ezker direnak.  
Nola arranoa baita hegaldatzen zerura  
eta gero berriz iautsten behereko mortura,*

---

3729. *ecen harc*: bertso hau aditzeko ikus 2661 eta 2011-16. Haien argitan biok hau esan nahi bide dute: zeruratu denaren gorputzak zazpi bider gehiago distiratuko du, eguzkiak eguraldi ederrean duen urre izpi baino. Eta poetaren hitz berez esateko *iguzquiac eguralditan urre izpi baño çazpitan guehiago oñhazturen du harc*. Ala *urre izpi iguzquia*- hitz konposatu bezala hartu behar ote: «el sol de dorados rayos»?

3731. *amen batez*: ikus 3096.

3732. *behera*: hemen ere, dirudienez, *-b-* mutuerazi eta hitz hori bi silabaz ebaki behar da: ikus 2778; 3263.

Halaber da higituren iustuaren lohia,  
Alleguia espiritu haragüez billucia.

Airea ere eztaite subtil hura beçambat  
Ecen golardo emanen du Iaun puchantac hambat.

3740 Marbolaric ere eztaite harrobitan batere  
Non arinqui passa ezteçan nahi badu hura ere.

*Bortz sensuen atseguñez.*

O begui gorputz triteen iguzqui arraitsua!  
Hitaz ere mintçatceco nahi niqec donua.

Contemplatuco duc Ceru çabalaren campoa,  
Baita sentituren placer ecin condatzucoa.

Iesus Christ ikhussiren duc iustuen compañian  
Bortz çauriec distiatcen diotela lohian.

Saindu guztien halaber sacratu confraria  
Mereci arau dutela ceñec bere alkhia.

3750 Iessusec argituren dic berce guztien artean  
Illhargui betheac nola içar cheheen gañean.

Beharriac içanen tu bere placer iaquiñac  
Voça eta instrumenta musicaco eguiñac.

---

3735. *lobia*: ikus 1487.

3736. *alleguia*: gehiagotan bezala, guk *bailitza* edo *bezala* esango genukeenaren pareko da: ikus 2408.

*haragüez*: ez dakit ez ote duen *haraquiz* behar; ostera, hiru silabatakhoa egin behar da.

3738. *hambat*: aurreko bertsoak puntuan *beçambat* du (isil dezagun berez *bezain* behar lukeela) eta honek *hambat*. Poetak honako honetan hau esan nahi du: Jaunak hanbat, hori eta gehiago, emango bait dio golar-dotzat.

3739. *eztaite*: hau eta bi bertso goragokoa guk *ez dateke* esango genukeena da: ikus 2221.

3740. *non passa ezteçan*: irakur honela: *marbolaric ere eztaite...*, *non passa ezteçan* (gorputzak alegia) *arinqui hura ere* (hots, marbola), *nahi badu*: «no hay mármol que no pueda el cuerpo atravesar...»; konsekativa, beraz.

*hura ere*: ikus Etxepareren biok: *Amoretan othe date leyal denic batere / Hiz ederrez ezpa ioyaz mutha eztadin hura ere* (II,11-12). 1. Biek



*halaber da higituren iustuaren lobia,  
alegia espiritu haragiz biluzia.*

*Airea ere extaite subtil hura bezanbat,  
ezen golardo emanen du Iaun puxantak hanbat.*

3740 *Marbolarik ere extaite harrobitan batere,  
non arinki pasa eztezan, nahi badu, hura ere.*

Bortz sensuen atseginez.

*O begi, gorputz triteen iguzki arraitsua!  
hitaz ere mintzatzeko nahi nikek donua.*

*Kontenplatuko duk zero zabalaren kanpoa,  
baita sentituren plazer ezin kondatuzkoa.*

*Iesus Khrist ikhusiren duk iustuen konpainian,  
bortz zauriek distiatzen diotela lohian;*

*saindu guztien halaber sakratu konfraria,  
merezi arau dutela zeinek bere alkhia.*

3750 *Iesusek argituren dik berze guztien artean,  
ilhargi betheak nola izar xebeen gainean.*

*Beharriak izanen tu bere plazer iakinak,  
boza eta instrumenta musikako eginak;*

---

*hura ere dute akaberan.* 2. Etxeparerenak *leial denic*, galdezka ari bait da, du *hura ere* horren antezedentea; Etxeberrirenak *marbolaric*, ezezka ari bait da. 3. Mendeko perpausaren adizkia biengan subjuntivoan dago. 4. Etxeparek *non* gabe sartu du mendeko perpausa; Etxeberririk *non* duelarik. 5. Bienak dira, halaz ere, konsektutivak eta erlatibozkoak gainera, latinez «erlativo + subjuntiboz» eman ohi direnen kideak. Etxeparek *non* gabe bait dio, honen *hura* bestetan adizkiari erasten dion *-nik*-en ordaina da; sujetoa, alegia. Etxeberriren *hura*, aldiz, objektoa.

3741. *iguzqui arraitsua*: begia deitzen du, dirudienez, *gorputz triteen iguzqui arraitsua*.

3742. *hitaz*: ikus 3676.

3744. *plazer ecin condatuzcoa*: ikus *atseguin ecin condatuzcoa*, 3633.

3746. *lohian*: ikus 3013.

3747. *sacratu konfraria*: hots, *konfraria sacratua*.

3750. *illhargui betheac nola*: hots, *nola illhargui betheac*: ikus 126.

Urrenac entçunen du aparteco soñua  
Hala nola hurbillean cantatcen den tonua.

Guehiago entçunen tu diferente mihiac  
Bere eta erdaldunen cembat diren guztiac.

O ussain on Cerucoac! O arrosa liliac!  
Nolacoricana iassaten ez baitu uda berriac.

3760 O halaber aire mehe batre ez corrumpitua  
bañan maiatceco lore guztiz urrindatua.

çutçaz dire goçatcen dohatsuac placerqui  
Eta hotzturen belarra daroeçu emequi.

Ahoac ere ian gabe içanen du gustua  
Ceruetaço sapore onez contentatua.

Eta hala dohatsuen bortz corporal sensuac  
Cein bere ereduz dire içanen dohatsuac.

*Atseguin particularez.*

Huneraño erran tugu atseguin generalac  
Guti batez aiphatçagun orain particularac.

3770 Nolaco baitiratezque bakhotcharen eguiñac  
Hequin eredura çaiçco emanen atseguñac.

Cer obraz saluatu garen iaquiñen da orduan  
Ecen guztiec içanen tugu mercac buruan.

Martyr, Virginia, Doctorec guztien ederrenac  
Aureola comunera deithatcen diradenac.

---

3753. *urrenac*: lehen bertso erdi honek silaba bat falta du; *urrunenac* behar du izan, ene ustez.

3755. *diferente mihiac*: hots, *mibi diferenteac*.

3756. *cembat diren guztiac*: «todas cuantas existen».

3758. *nolacoricana*: ikus 2816; biak bat dira, honek *-an* izatea.

3759. *batre*: ikus 1445; baita *baterere* ere: 2985; 685.

3761. *çutçaz*: lehen bertso erdi hau ere laburregi da; *dirade* behar du, ene ustez. *Goçatcen* dela eta, ikus 662.

*urr(un)enak entzunen du aparteko soinua  
hala nola hurbilean kantatzen den tonua;*

*gehiago, entzunen tu diferente mibiak,  
bere eta erdaldunen zenbat diren guztiak.*

*O usain on zerukoak! O arrosa liliak!  
nolakorikan iasaten ez baitu uda berriak.*

3760 *O halaber aire mehe batre ez korrumpitua,  
bainan maiatzeko lore guztiz urrindatua!*

*Zutzaz dir(ad)e gozatzen dohatsuak plazerki  
eta hotzturen belarra daroezu emeki.*

*Aboak ere ian gabe izanen du gustua,  
zeruetako zapore onex kontentatua,*

*eta hala dohatsuen bortz korporal sensuak  
zein bere ereduz dire izanen dohatsuak.*

Atsegin partikularrez.

*Huneraino erran tugu atsegin jeneralak,  
guti batez aiphatzagun orain partikularak.*

3770 *Nolako baitiratezke bakhotxaren eginak,  
hekin eredura zaizko emanen atseginak.*

*Zer obraz salbatu garen iakinen da orduan,  
ezen guztiek izanen tugu merkak buruan:*

*martir, birjina, doktorek guztien ederrenak,  
aureola komunera deihatzen diradenak.*

---

*daroeçu:* ikus 2825; 2953.

3765. *bortz corporal sensuac:* hots, *bortz sensu corporalac.*

3768. *guti batez:* hots, denbora guti batez edo.

*aiphatçagun:* apokope gabe *detçagun* litzateke: ikus 3793.

3769. *nolaco baitiratezque:* ikus 3701-3702.

*eguiñac:* izen bezala hartu behar da: *obrac*, alegia: «Según cuáles sean las acciones de cada uno, a tenor de ellas serán los goces que perciba».

3772. *mercac:* ikus 3004.

3774. *comunera:* hots, komunzki: ikus 3483; 3489.

*Çarratcea.*

Ene arima, cer hari aiz enganoso munduan,  
Egun oro nahastatcen aicela bekhatuan?

Bekhoquia goraturic contemplaçac Cerua  
Eta unguiez irabaz Parabisu Saindua.

3780 Bortcha adi arimaren ahal eguin guztiaz  
Propio errendatcera goçatceco gloriáz.

*Othoitça.*

Eternala arren othoi eguidaçu donua  
Egun batez ikhusteco çu çaudecen Thronua.

Aingueruen balsan ene lauda detçan mihiac  
çure Maiestatearen perfectione handiac.

Hartaracotz halacoa guertha çaçu orena  
Ceña ene bicitceac behar baitu azquena.

Non enetçat guertha dadin eme Iuiamendua  
Bereciqui eman behar darotaçun iustua

*Hala biz.*

*Guiçonon azken fiñen çarratcea.*

3790 Hauc nitien guiçonaren azken fiñez gogoan  
Longoicoac duela esquer obra guztien ondoan.

Guiristiñoa, ago erne azken orenetara  
Hala beguira adinçat erortcetic faltara.

---

3775. *hari*: ikus 3145.

*enganoso munduan*: ikus, aldiz, 3149.

3778. *parabisu saindua*: ez *saindu parabisua*: ikus 3433.

3780. *propio errendatcera*: irakur honela: *gloriáz goçatceco propio errendatcera*.

3781. *eternala*: Jainkoari deitzen dio hitz honezaz, *Jainko eternala* balio bezala.

3783. *mibiac*: hots, *ene mibiac*.

3785. *hartaracotz*: lau bertsook ia hitzez hitz lehen ere irakurri ditugu: ikus 1517-1520. Lehena eta hirugarrena dira apur bat diferente; lehenak bi pasarteetan du *halacoa orena*, hemen *guertha çaçu* sartu bada ere bi hitzen artean; hainbestez *cena*-ren antezedente delakoa *orena*

Zarratzea.

*Ene arima, zer hari aiz enganoso munduan,  
egun oro nabastatzen aizela bekbatuan?*

*Bekhokia goraturik kontenplazak zerua  
eta ungiez irabaz parabisu saildua.*

3780 *Bortxa adi arimaren abal egin guztiaz  
propio errendatzera gozatzeko gloriaz.*

Othoitza.

*Eternala, arren othoi, egidazu donua,  
egun batez ikhusteko zu zaudezen thronua,  
aingueruen balsan ene lauda detzan mihiak  
zure maiestatearen perfekzione handiak.*

*Hartarakotz halakoa gertha zazu orena,  
zeina ene bizitzeak behar baitu azkena,  
non enetzat gertha dadin eme iuiamendua  
bereziki eman behar darotazun iustua.*

Hala biz.

Gizonen azken finen zarratzea.

3790 *Hauk nitien gizonaren azken finez gogoan;  
Ingoikoak duela esker obra guztien ondoan.*

*Giristinoa, ago erne azken orenetara,  
hala begira adintzat erortzetik faltara.*

---

da bietan, han esan bezala. Honako hirugarren honetan *enetzat* lekuz aldatua dago, baina, okerreana dena, hango *eme*-ren ordain hemen *ene* irakurtzen da; inprenta hutsa da hau, noski, eta *eme* behar du izan. *Enetzat* lekuz aldatu duelarik, bertsoa irabazten atera da lehen hemistikioan, eskemari dagokion 4/4, han ez bezala, hemen zuzen bait dago. Ikus pasarte hura.

3789. *nitien*: hitanoa.

3792. *adinçat*: ikus 3460.

*erortzetik faltara*: nora erori, alegia; ikus, oster, beheraxeago: 3812.

- Iaunac eztic nahi iaquin detçagun azken fiñac  
Eguimbidean gadutçan hequin orhoitu miñac.
- Compli bedi bethiere haren vorondatea  
Ceren baitaqui guretçat ea cer den hobea.
- Gu gaudecen arroçoñ den leguez iratçarriric  
Ustecabez ez gaitecen aurkhi atrapaturic.
- 3800 Pensa çagun moment oro hura dela azkena  
Gure bici laceriaz bethearen orena.
- Etchecoac inguruan senti badu ohoña  
Atçarriric beillatcen dic noiz sar deçaquen oña.
- Guardia eguin gabez dic gaitçac hartcen erhoa,  
Orhoit adi nola ioan cen bortz Virginen leloa.
- Ikhasia aicen guero eztaguien faltaric  
Iaincoaren aitciñean eztuquen mehatchuric.
- Nescatoen ahalqueaz eguiquec probetchua  
Eta hequien calteaz heure saluamendua.
- 3810 Ecen çuhurra duc ceñac bercearen calteaz  
Aprendizcoa eguiten baitu nola bereaz.
- Ago beraz bethi erne hitz hauquien gañean  
Faltetan eror eçadin munduco bicitcean.

---

3794. *hequin orhoitu minac*: hots, haien oroitzapen saminak.  
*gadutçan*: hark gu, noski.

3797. *gu gaudecen*: aurreko *gadutçan* finala bazen ere, hau perpaus nagusiko adizkia da, inperativo gisakoa: «estemos nosotros alerta, como es justo, para que...»: ikus, hain zuzen, bi bertso beherago *pensa çagun*.

3799. *azkena*: irakur honela: *lacieriaz bethe(tako) gure biciaren azken orena*.

3801. *etchecoac*: hots, etxeko jaunak, Ebanjelioak dioenez.

3802. *atçarriric*: ikus *iratçarriric* sei bertso gorago; baita *atçartu* ere: 116.

3803. *eguin gabez*: funtsean balio kausala du: ez egiteagatik. Ikus, aldiz, *gabe* eta *gaberico*, aldia edo denbora adierazten duelarik: 3141, 3362. Etxeparegan ere bai: X,12.

3804. *nola ioan cen*: hots, nola gertatu zen; *ioan* silaba batez ebaki behar da: *iwán*: ikus 2271.

*Iaunak ez tik nahi iakin detzagun azken finak,  
eginbidean gadutzan hekin orhoitu minak.*

*Konpli bedi bethiere haren borondatea,  
zeren baitaki guretzat ea zer den hobeaz;*

*gu gaudezen, arrozoin den legez, iratzarririk,  
ustekabez ez gaitezen aurkhi atrapaturik.*

3800 *Pensa zagun moment oro hura dela azkena  
gure bizi lazeriaz bethearen orena.*

*Etxekoak inguruan senti badu ohoia,  
atzarririk beilatzen dik noiz sar dezaken oina.*

*Guardia egin gabez dik gaitzak hartzen erboa,  
orhoit adi nola izan zen bortz birjinen leloa,*

*ikhasia aizen gero eztagien faltarik,  
Iainkoaren aitzinean eztuken mehatxurik.*

*Neskatoen abalkeaz egikek probetxua  
eta bekien kalteaz heure salbamendua,*

3810 *ezen zuberua duk, zeinak berzearen kalteaz  
aprendizkoa egiten baitu nola bereaz.*

*Ago, beraz, bethi erne hitz haukien gainean,  
faltetan eror ez adin munduko bizitzean,*

---

3805. *aicen guero*: kausala denean -z hartu beharrik ez du erlatibozko atzizkiaren gainean. Ikus Etxeparearen hau: *Haren ama ciren guero...*: I,414.

*eztaguien*: *bik*, noski, ondoko bertsoan *eztuquen* bezalaxe: ikus 314.

3807. *eguiquec*: geroaldiko inperativa: ikus 173; 607.

3808. *bequien calteaz*: hots, haien kalteaz.

3809. *çuburra duc ceñac*: ikus 829-31: «prudens est qui...». *Nor da zuberua?* galderaren erantzuna denez gero, *ceña* behar luke, alde batetik; baina erlatibo gisako *zein-* hori *eguiten baitu*-ren ergatiboa bait da, -*k* hartu behar izan du; hainbestez guk *zuberua duk egiten duena* esango genukeena — *duena*, ez *duenak!* —, honako hau bihurtu da: *ceñac eguiten baitu*: ikus 1642; 2218.

*ecen...* *duc*: ezen ez da, beraz, menderatzaile: ikus 1302.

3811. *hitz hauquien gañean*: ikus 3320.

3812. *faltetan eror*: ikus, osteraz, 3792; 3208.

Hala ardiats deçaquen seculaco gloria,  
Halacoa Iaunac eguin diecela gratia.

Amen.

- 
3813. *deçaquen*: goragoko (3802) beste *deçaquen* hura bezalaxe idatzia, baina ez bera: hura euskara batuan *dezakeen* (*bark*) litzateke, hau, aldiz, *dezaan* (*bik*); honek *hi* personari dagokion *-k-* gordea du.



*hala ardiats dezaken sekulako gloria.*  
*Halakoa Iaunak egin diezela grazia.*

*Amen.*

- 
3814. *halacoa*: hots, *halako grazia* den sintagma puskatua dago, lehen hitzak ere ez dagokion mugatzailea hartu duelarik, gainera.  
*diecela*: euskara batuan, *diezaala* (hark hiri, alegia): ikus 360; 737; 739.



# MANUAL HUNEN LIBURUEN, TRATATUEN ETA BURUEN

errachqui edireteco AURKHIGARRIA (1)

Lehenbico liburua Guiristiñoac iaquin behar dituen gauzez.  
Lehenbico liburuaren lehen partea, ceña baita Doctrina  
Christiana edo Cathechismaz, othoitz guisa.

Othoitz hartan sarcea ... ..	10
Buru I. Laudorioac Iaincoari berac ordenatu gaucec ... ..	11
Buru II. Laudorioac Aitaren presunari bere obrez eta manuez. ibid.	
Buru III. Iainco Semearen laudorioac, laudatcen da halaber bere obrez eta manuez ... ..	17
Buru IV. Laudorioac Spiritu sainduari, laudatcen da bere on- tassunez eta manuez ... ..	(34)
Buru V. Othoitçaz Iainco berari eta Iainco Aitari. Ondoan Iainco Semeari ... ..	35
Buru VI. Othoitçac Spiritu Sainduari ... ..	38
Buru VII. Esquerrac eta lehenbicoric Iaincoari ... ..	39

Lehenbico liburuaren bigarren partea,  
guiçonaren azken fiñez.

Buru I. Herioaz ... ..	41
Buru II. Iuiamendu particularaz ... ..	47

---

(1) AURKHIGARRI edo aurkibide hau Etxeberrik bere liburuari azkenaldean ipini zion berbera da. Ez osoa, noski, baizik liburuaren lehen zatiarena, guk gaur argitara ematen dugunarena. Honako orrialdeen zenbaki hanek ez dira, beraz, gure liburuarenak; hanek ondoko orrialdeetan datoz.

Buru III.	Iuiamendu generalaz ... ..	60
Buru IV.	Ifernuaz ... ..	90
Buru V.	Purgatorioaz ... ..	116
Buru VI.	Limboez ... ..	126
Buru VII.	Parabisuaz ... ..	131

## A U R K I B I D E A

A.	1.	IOANNES ETXEBERRI ZIBURUKOA. Patxi Altunak egina ... .. or.	7
	2.	Liburuaren lehen orriak ... .. or.	33
	3.	<i>Manualaren</i> ikhastera iratzarmendua ... .. or.	38
	4.	Irakurtzaile debotari ... .. or.	42
	5.	Liburuaren errepertimenduaz ... .. or.	46
	6.	Lehenbiziko liburua ... .. or.	50
B. <i>Lehenbiziko liburuaren lehen partea</i>			
	1.	Irakurtzaileari abisua ... .. or.	56
	2.	Othoitz hartan sartzea ... .. or.	62
	3.	Buru I. Laudorioak Iainkoari berak ordenatu gauzez ... .. or.	64
	4.	Buru II. Laudorioak Aitaren presunari bere obrez eta manuez ... .. or.	66
	5.	Buru III. Iainko Semearen laudorioak; laudatzen da halaber bere obrez eta manuez ... or.	82
	6.	Buru IV. Laudorioak Espiritu Sainduari; laudatzen da bere ontasunez eta manuez ... .. or.	130
	7.	Buru V. Othoitzak Iainko berari eta Iainko Aita- ri. Ondoan Iainko Semeari ... .. or.	134
	8.	Buru VI. Othoitzak Espiritu Sainduari ... .. or.	140
	9.	Buru VII. Eskerrak eta lehenbizikoak Iainkoari ... .. or.	144

C.	<i>Lehenbiziko liburuen bigarren partea</i>	
1.	Buru I. Herioaz ... ..	or. 150
2.	Buru II. Iuiamendu partikularaz ... ..	or. 168
3.	Buru III. Iuiamendu generalaz ... ..	or. 212
4.	Buru IV. Ifernuaz ... ..	or. 296
5.	Buru V. Purgatorioaz ... ..	or. 366
6.	Buru VI. Linboez ... ..	or. 396
7.	Buru VII. Parabisuaz ... ..	or. 410
D.	<i>Aurkibideak</i> ... ..	or. 433



